



333
OROIPEN ETA IKUSPEGI

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Egillca: Augustin Zubikarai

ISBN: 84-88464-03-7

Legc gordailua: BI - 2231 - 94

Fotokonposaketa: Flash Composition, S.L.

48009 BILBAO

ESKEINTZA

*Idazten jarraitzera
ainbat bidar
adoretu naben
nire irakurleei,
bizitzan zear
aire tankeran,
arin eta azal
eta askotan
orraztu barik
idatzitako
ataltxu oneik
eskintzen dau tsedaz,
eurekin zorretan nagon
eskar eta maitasunez.
Jainkoak baimendutako
nire larogeigarren urtean.*

AURKIBIDEA

Abendua eta liburuak	4-XII -81	Deia
Adiñekoak euskeratzen	13-I -81	"
Agotak	18 -XI-82	³⁷
Agirre, gazte eta gizon	22- III -88	"
Agirre gogoratzen	23-IV-82	"
Agirre Lendakariari	22-III-83	"
Agirre'ren oroitza	20- III -90	¹⁵
Agur Andre ona	10-VIII-83	
Agur, Mikel!	13-IV-79	
Ai ene gu!	28-II -82	
Aita Galdos	10-II -84	³⁵
Aiia Juan Bixente	11-VII -80	³⁷
Aita Loidi	6- VIII -78	Diario Vasco
Aita Mokoroa	6-I-82	Deia
Aita Patxi	5-IX-82	'
Aittittakeriak	4- VII-89	"
Aitzol	16-X-77	"
Aixe errotan	15-X-83	'
Alderdi ederretik	28-V-78	Diario Vasco
Alderdi Eguna	11-X-83	Deia
Alderdikeriak	3-X-81	Deia
Aldundiari zirika	24-IX-83	
Alkartasun Eguna	21 -X-88	"
Alkate soiñua	15-IV-82	"
Alkateak	10-I-81	"

Altsasuko aizeak	11-IV-76	Diario Vasco
Amantzi	28-I-83	Deia
Ameriketako bertsuak	11éIII-79	Diario Vasco
Ander deuna	3-XI-81	Deia
Andoni Landajuela	31-X-82	Deia
Andra Mari Martiko	25-111-84	"
Andre Alkateak	25-IV-82	"
Andre Bixenta	21-I-84	"
Antigua izena	16-VIII-85	³³
Antxoari begira	14-V-80	⁵³
Antzerki bidetan	25-II-83	"
Añoberos	24-II-84	⁹³
Añoberos gotzaiña	24-XI-88	⁹³
Apalazio eta zotal	8-1-84	Deia
Araba eta euskera	19-XII-81	"
Arabarrak	5-VIII-82	"
Arabarrak	5-XII-93	³³
Arabarrei txaloak	12-V-82	"
Aralar'en	8-VIII-82	"
Aratuzteak	6-II-89	"
Aratusteak-iñauteriak	12-II-82	"
Aratuste ondorenak	19-II-83	"
Aratuste ta gose eguna	14-II-88	"
"Argia" asterokua	22-IV-79	"
Arizmendi J.M.	1-XII-81	"
Arrain eldua ta arrain mirriña	9-VI-94	"
Arrain izenak	14-III-83	"
Arrigorriaga gogorutzen	30-XI-83	"
Aste gurena	14-IV-84	"
Astizko zarra	30-III-84	"
Aurrera	16-11-84	"
Auteskundeak	6-X-82	"
Auteskundeak bertsotan	20-II-84	"
Autortzak	12-XI-78	Diario Vasco
Autsa	18-II-83	Deia
Autsa eta lapak	4-V-79	Diario Vasco
Auzo bideak	30-VII-83	Deia
Auzo eta kanpo	17-III-84	"
Auzo ikastolak	27-X-83	"
Azken anaia	82	"
Balendin Lasuen	9-XII-83	"

Barrero euskalduntzen	3-IV-82	Deia
Barruko miñez	18-I-88	
Barrutia gogoratzen	6-X-83	"
Basagoiti alduna	22-IV-83	Deia
Baserri zarretan kontu billa	19-VI-83	"
Berbak eta itzak	25-VIII-82	"
Berreun milla	22-III-84	"
Berriatuko 1588 urtea	9-X-88	"
Berriotxoanaia	8-VI-82	"
Bertso eta tanborradak	19-I-83	"
Bertsolarien illeta	25-VIII-81	"
BI-I.	28-II-83	"
Bide barriak	13-I-83	"
Bideoko filmak	6-VI-82	"
Bilbotar arlotekak	9-VIII-81	"
Bilintx	31-X-82	"
Bingen'en eriotza	5-VII-82	"
Bizitzaren arian	12-X-82	"
Bizitzako legea	3-VII-84	"
Bizkaiko aditza	4-VIII-82	"
Bizkaiko diruak	19-I-84	"
Bizkaiko eleiz atekak	18-IV-83	"
Bizkaiko foru ondasuna	23-IV-83	"
Bizkai'ko foru zibilla	7-II-92	"
Bizkaitarrak barriro	18-II-83	"
Bolibartarrak	19-VI-82	"
Burua makur eta biotza gori	30-VIII-78	Diario Vasco
Camp izendunak	82	Deia
Caput bizkaiaie	3-X-82	"
Caracas'en azurrak	27-I-82	"
Cleto Zabala eta euzko abendaren ereserkia	25-IV-82	"
Danetik zerbait	4-IX-81	"
Deustuko pasiotarrak	14-XII-83	"
Diruak eta ikurrak	23-III-84	
Dominu santuru	1-XI-83	"
Domu santuru	30-X-85	
Domund-bake kanpaia	14-X-86	"
Don Nemesio	30-I-82	
Donostiarrak jaietan	21-I-81	"
Edurne Zuriñe	5-VIII-88	
Egaz il	18-IV-82	"

Eguen Santuko kezakak		Deia
Eguen zuri	10-II-88	
Eguen garratzak	1-IX-86	"
Egunak luzatzen	17-II-83	>5
Egunekuak	27-VI-82	
Egunetako gogoetak	24-VI-79	Diario Vasco
Egunetakoak	24-X-83	Deia
Egunotako liburuak	19-VIII-81	"
Egutegiak	10-I-84	"
Ekin	6-II-82	"
Eiffel eta Ormaiztegi	10-I-83	"
Ekologia eta euskera	11-I-84	"
Elorrioko abadeak	11-11-84	"
Elorrioko aizeak	7-XI-86	"
Emakume jokabideak	22-XI-83	"
Emakumeak	18-XI-83	"
Enbeita tar Kepa	82	"
Eapiketak	7-XI-83	"
Ereagako arratoia	2-IV-82	"
Erkiaga	30-V-88	"
Erleak eta euskera	29-VI-88	"
Errepublika	14-IV-82	"
Erri euskeraren pitxiak	23-XII-91	"
Erri jakintza	23-VII-83	"
Erri martiriak	16-IV-85	1
Erri ta ikurriñak	1-III-84	"
Errien goraberak	11-III-82	"
Erri ta itxas gaiak	16-I-82	"
Erria ta itxastarrak	10-IX-88	"
Errietako aldizkariak	15-VIII-84	>1
Errietako armarriak	15-V-88	
Esaerak gogoratzen	29-IV-79	Diario Vasco
Esku langintza	13-XII-83	Deia
Eta etxean zer?	17-II-82	
Etorriko da maiatza	1-V-88	1
Etxebarria	3-IV-89	>Y
Egun egun	7-V-86	"
Euneko amar	10-I-82	"
Euskal antzertia	2-I-82	"
Euskal Kixotea	21-III-84	51
Euskaldunak itxasoetan	10-X-76	Diario Vasco

Euskera bere jokoetan	29-VIII-88	Deia
Euskeraren udabarria	13-III-88	
Euskerazaleak	11-VIII-81	"
Eusko TV	27-IV-82	7/
Ez gara danok	31-V-82	"
Ez lotsatu, ekin	5-V-85	.5
Ezaupide erdikak	15-IV-79	Diario Vasco
Gabonetakuak		Deia
Gabonetako besiguak	24-XII-78	Diario Vasco
Gamazada	16-II-88	Deia
Gaminitz eta gipuzkoarrak	30-V-76	Diario Vasco
Garaiko Juan	23-3-83	Deia
Garizuma eta udabarri	7-IV-84	"
Gasteiz'en mandatari	20-I-82	"
Gaurko oroitzak	3-IX-78	Diario Vasco
Gernikako bidetan	14-I-84	Deia
Gernikako inditarra	9-XI-83	"
Gerrateko agurrak	11-V-82	"
Gibert'en gogoetan	29-III-83	"
Gertaerak	11-II-79	Diario Vasco
Gizon aundiak	27-X-82	Deia
Gogo azterketa	22-II-84	"
Gogoeta Eguna	10-VI-83	"
Gorpuzti Eguna	10-VI-82	"
Gotzain diruzaleak	31-VIII-82	"
Gotzaiñak eta gu	18-V-82	"
Gudarien oroitza	15-V-82	"
Gure abadeak	8-XII-83	"
Gure aldun nagusia	24-X-85	"
Gure Aldundia	23-IV-82	"
Gure alkateak	13-V-83	"
Gure artekoak	12-I-84	"
Gure Athenas'en	24-XI-81	
Gure batzarrak	12-VI-83	"
Gure egoera	26-III-82	6.
Gure egunkariak	27-I-84	"
Gure etxe andian	12-X-83	7/5
Gure gizonak	28-II-85	95
Gure irriatiak	9-V-82	
Gure izatea	23-XI-82	7.
Gure Kristo biziak	4-IV-82	"

Gure olerkariak	14-V-83	Deja
Gure ontzitegiak	20-V-82	
Gure salbea	4-VIII-88	"
Idatzi baiña...	24-III-82	"
Ikasleak eta gurasuak	1-VI-82	'
Il kanpaiak	2-I-83	"
Illetak barriro	14-II-83	"
Ilo-ilo'ra	23-XII-87	"
Indarkeria	16-X-88	"
Indarrik <i>ezin</i> artu	16-X-82	"
Iñaki Azpiazu eta gu	30-I-83	"
Iparragirre	27-III-85	"
Irakurten	12-IV-85	"
Itxas gizonak	18-XI-84	"
Itxas laiñoa	13-II-83	"
Itxasoak urak andi I	10-IX-78	Diario Vasco
Itxasoak urak andi II	17-IX-78	"
Itxasoak urak andi III	24-IX-78	"
Itxasoak urak andi IV	8-X-78	"
Itxasoak urak andi V	15-X-78	"
Itxastarren deiturak	4-VII-83	Deia
Itxastarren edontzia	22-X-83	"
Izen eta izkiak	21-III-79	Diario Vasco
Iztegiak	22-I-83	Deia
Jabier		
Jaiak eta ritoak	16-VIII-88	>5
Jan edanetan	17-XII-81	"
Jesulagunen indarrak	7-VIII-85	"
Jokabide jatorrak	14-VII-83	"
Jokabideak eta erantzunak	19-IX-82	>
Jose Artetxe	26-IX-81	"
Joxe Mari Arizmendiarieta	2-XII-79	Diario Vasco
Kandela Argitan	2-III-84	Deia
Kardaberaztarrak	9-I-82	"
"Kirikiño" eta gu	3-III-83	
Kristonak	1-IV-88	"
Laiño ta gurmetan	19-IV-83	"
Lana ta langilleak	1-V-82	"
Lanari buruz	16-III-84	"
Laranja garratzak	4-III-79	Diario Vasco
Larraldeko Madalen	20-IX-78	Deia

Larramendi gaur	13-I-78	Deia
Larruskain	6-XI-82	"
Lasa Apalategi	3-X-83	"
Laskaoko beneditarrak	11-I-83	"
Lebatza	22-V-83	"
Leiza'ko ozpalak	17-VI-82	"
Lemona'ko aitzak	27-VI-82	"
Len eta orain	17-VII-82	"
Lendakari eta gudalburu	5-V-82	"
Lendakariari zorionak	5-VI-82	"
Lengoak gogoratzen	29-X-82	"
Liburuak	5-XI-83	"
Lino Akesolo Aita	18-IX-91	"
Loiola eta Jabier	5-XI-82	"
Lore jokuak	19-V-82	"
Lotuera itzalak	8-X-82	"
Lurgorri	8-I-81	"
Madalenatik Santiago'ra	28-VI-83	"
Maiatzaren lenengua	1-V-83	
Maitasunik ez itxasoetan	22-II-76	Diario Vasco
Malkoak eta magarrak	12-IV-83	Deia
Manu Egileor	26-V-82	
Manuel Lekuona	21-V-82	7,
Markesaren alabak	24-I-83	
Mar-marka	28-XI-81	5,
Martiko sinisteak	24-III-85	7,
Matzaku aurrean	5-III-83	"
Mendebaletik	20-XII-78	Diario Vasco
Mieres'ko garrazkeriak	12-VI-77	
Mikel Deuna	1-X-83	Deia
Mikel Zarate	21-IX-79	Diario Vasco
Misiolari txikiak	24-I-88	Deia
Mont Pellier'eko batzarra	2-IX-82	
Mokoloiak	17-X-83),
"Mundialak"	13-VI-83	.5
Musika ixilla	15-I-83	"
Naigabez	26-I-85	Y,
Napar aizeak		"
Naparroan il	3-XII-83	"
Neguko estropadak	10-XII-84	"
Neskak eta eskolak	29-IX-82	"

Nigaz berbetan	2-V-83	Deia
Nire buruarekin izketan	7-I-79	Deiario Vasco
Nire gogoetak	3-XI-82	Deia
Okerrak zuzentzen	29-V-82	
Oiz'en oiñetan	11-III-88	??
Omenaldiak		"
"Ondar ibaia" eta Bizkaia	28-VIII-82	"
Ondarrak eta onduko arrak	21-VIII-82	"
Opor ondoren		??
Oporrak	30-VII-78	Diario Vasco
Oporrak eta euskaldunak	24-VIII-86	Deia
Osasun kezak	16-III-82	"
Pasko eta aberri	5-IV-83	"
Sabel beteak	24-XII-81	"
Sabin euskeraren auspo	26-XI-83	"
Seme bizkain	24-XII-85	"
Sabin'en olerkiak	15-VI-82	"
Sabin gidari eredu	21-XI-83	"
Sagarra ta sagardaua	17-XI-83	"
Sagarrak	16-X-83	"
Salbea eskatzen	7-III-83	"
Salburuako jaia	25-IX-88	"
San José eta arraiñak	20-III-88	"
San Blasetan	30-II-84	"
Santa Eskaleak	5-II-87	"
Santa Luzi ta santo Tomas bitartean	7-XII-78	Diario Vasco
Santu Bustiak	3-XI-82	Deia
Seme bikaiñak	3-XI-88	"
Status soziala		Deia
Sukarrieta'ko aizeak	25-XI-82	"
Tabakoa laga-ta...	9-XI-82	
Tabakua eta txakoliña	18-III-82	"
"Tene" eta "Julene"	1-VI-88	"
Toki zarretan	15-V-84	"
Txalupak katean	6-I-84	??
Txalupak Santa Klararen parean	12-VIII-82	??
Txapela	25-XI-84	??
Txarriak eta azilla	8-XI-83	??
Txirringaz	21-IV-82	??
Txistulari eta txinelak	22-IV-82	??
Txistularien jantziak	10-VIII-82	??

Txomin Olano	16-IX-79	Diario Vasco
Ubera'ko urkulak	6-II-83	Deia
Uda eta jaiak	28-VII-83	"
Udabarrikoak	23-III-84	"
Ugalde eta puntuak	5-X-83	"
Ule kizkur eta buru soil	12-XI-81	"
Ume artekoak	4-VII-83	"
Unamuno eta mokoroatarrak	6-X-88	"
Urkiola'ko urkiak	6-VI-76	Diario Vasco
Urtats	31-XII-86	Deia
Urte barri	31-XII-83	
Wolfram'a bakartzea	24-V-83	"
Xalbador	10-XI-83	"
Xalbador saria	26-11-83	"
Zarrak eta zartzaroa	4-IV-89	"
Zarren urtea 1982	6-VII-82	"
Zazpi kaleak	4-1-83	
Zeiñen mende gengozan?		Diario Vasco
Zer dakigun egiten?	12-1-82	Deia
Ziortza	16-XII-82	"
Ziortza'ko egutegia		"

ABENDUA ETA LIBURUAK

Abenduaren lauan noiz ez da negu girorik egon?

*A bentuaren lauan
Elokadiko mendian
neure ardien guardian
freskoak artu nituan.*

Orrela diñoe bertso zarrak. Abenduaren lauan, bestalde, ikatz, su. kei, trumoi, tximist, iñestu, oiñez-tarri ta abar gogorat.zen dakiguz.

Itxas ertzean, baporen denporetan, galdara zaiñen egun izaten zan.

Euskaldunak, negua ba etorrara ta, bildur izaten eutsen egun oneri:

*Santa Barbara, Santa Libia,
Jesukristoren kurutze saintua,
ethoitze au erraiten den lekuan
ez da erortzen uholdia.*

Erdaldunena egia: Iñor ez dala gogoratzen santa Barbaragaz, trumoiak jo arte. Zenbat gogoratzen dira liburuekaz Durango'ko azokararte? Illeta luzeak entzuten dira euskal liburu argitaldarien aotatik. Euskalduna beti izan da liburu erosle makala.

Aurten, Durango'n, Mogel baten liburu baten gogorapena egingo da. Mogel batena. Kontu egin iru zirala. Eta egokiena, nai ta euretatik iñor Markiña'n jaio ez, Mogel markiñarrak esatea dala.

Euretarikoak, erbestean agerpideren bat egin eben ebenean, markiñarrak zirala esaten eben. Pentsuari omena da ori. Jaiotza, batez be euren zeregin edo egibideagaitik ibili bear daben sendi askorentzat., osagille, irakasle eta abarrentzat, lekuan lekuko da. Nun ezi, nun bizi, nun jan eta nun jantzi da kontuan artu bear dana.

Eta Mogeldarrak Markiñatik artu eben euren entzutea eta Markiña'ri be ospea emon eutsen. Ala Humbolt lako izkuntzalariak Markiña'ra joan nai izaten eben Juan Antonio Mogel ezagutu nairik. Eta ori, Unamuno'k esaten eban lez, Mogel, bere senean, gizon ixil eta zurra zala.

Durango'ko azokak, idazleak aiña egunekatzen ditu argitaldariak.

Lenengo euskal argitaratzeak Iruña'n egiten zirala dakigu. Ara joten eben lenengo euskal liburu agerlari eta idazlcak.

Bizkaia-n Durango izan zen, Julian Elizalde lenengo eta Elosu gero, gure argitaldarien tokirik atsegiñen.

Ain zuzen Mogel'en Peru Abarka au, Durango'n agertu zan, ia idatzi eta eun urte geroago.

Orrelako liburuentzat eroslerik ez?

Ala dirudi.

Aldi aretan agertzen ziran euskal libururik geienak, etxeetan baiño konbentu eta parrokiatan gordeten zirala esaten da. Euskeraren irakurleak idazleak eta eusleak lez, eleiz gizonak izan ziran.

Fedeko eta eleiz eraspén eta oituretako liburu txikiekin laguntzen eutsen erriari. Eta ia konbentu ta abadetxe aiña liburu ataraten zirala Ez beintzat egileari dirurik emoteko aiña. Orrela, euskal idazleak, Mogel lez, txori txiki barik bizi eta il ziran.

Mogel'en eriot.z agirian garbi esaten zan: Ez ebala azken nai edo testamenturik egin ez eukalako zer laga.

Bere mesedetzat, beste liburuen artean, or laga euskun Peru Abarka Maisu Juan eta Peru'ren arteko eztabaidakin euskal bizitzako nortasun eta zeaztasun ugari erakutsiz.

Eguzkia nora zapiak ara, gogoratzen eban bere esaeren artean.

Egunotan Durango'n egongo da euskal liburuen eguzkia ta ara begira jarri bearko gara zapiok..

4-XII-81

ADIÑEKOAK EUSKERATZEN

Euskeraz "jauna" deitzeak ba dauka bere akatsa.

Gure aurretiko laudiotar euskal idazle jator baten alaba arduratsuak karta bat egin eustan oraintsu, igaro dan astean.

Augustin Zubikarai Jauna, ekarren azalak.

Eta etxera etorri zan karta-zainari "jauna" orrek ardura sartu eutsan, la nire abizena eta zan itandu eustan, beste karta baten Bedialauneta ipinten eustela-ta.

Gure karta-zaina alfabetatu egin bear izan neban, niretzat karta allagateko.

Or ikusten da zelako maillatan dagon gure artean euskal kulturaren azal uts berbera. Edo euskal berbentzako ardura.

Lortuko ete dau onetan, ezer, oraintsu Eusko Jaurlaritzak agertu daben "helduak euskeratzeko" asmo ta jokabide andi orrek?

Gramatikak baiño erriketa geiago sartu bear dala gure asmoetan esaten ebiltzanak, ba dirudi bide zuzenean ebiltzala. Alfabetatze onen metodologia deitzen dan saillean garbi esaten da: "Deséchense gramatical. manuales, o lexicónes".

Erderaz be sekula gramatikarik ikasi ez dabenei, zelan erakutsi euskeraz-koa?

Durango'n emeretzi ertzain ei dagoz. Bat bakarra ez euskalduna.

Alegintzen ei da Udala euskera erakutsi nairik. Ala esaten eban euretariko batek. Baiña kalera urten eta iñogaz berba bakarren bat egiten asten ba dira, irri egiten ei dautse erritarrak.

Zer esan nai dau orrek?

Ba dagola tartean laprastadarako gaia.

Iatarren kantua da: Gerardoneko salan lustrie labana, txirrist ein da jausi da Anizeta laztana.

Gauza bat da elertia. edo goi mailla edo teknika mailla, eta'bestea erri bizi-tza.

Guk, gaur, lenen, erri mailla zabaldu eta sendotu eta ugaritu bear dogu. Ori lortzen ba da euskera biziko da.

Baiña boil-erdi (kupula) eder bat jaso nai ba dogu eta zimenduak ondarrez, laster joango da gure apaindura ori tatarrez.

Egunetako esakera bat datorki gogora: "Ama Birgiña Gardotzakoa'ri bezperak kantatu ezkeru, jakea lepora".

Ba dirudi oraintsu agertu dan gure Jaurlaritzaren asmo andi onek, bezperak abestu eragin dauskuzala. Jairik eukiko dogun edo ez, ez jakin. Esaerak be ez baiño bezperak besterik.

Ikasten izango da orain jakea leporatzea.

Lau urtetako asmoa dirudi. Alaz eta uste dogu, aurrera eroaten ba da, urte bitara zerbait igarriko dala.

Alegintsuak, irakasle ta ikasle, lentxuago ta ariñago lortu leikie zerbait. Ikastaroaren osagarriak be bearrezko izango dirala kontuan euki-ta.

I3-I-81

AGOTAK

Orain bosteun urte, Naparroa'ko erri txiki batzutan, sekulako bereizkuntza egiten zan erritarren artean.

Agotak Jaungoikuak be baztertu eta alboratutako gizasemeak zirala esaten zan.

Eleizak bere osotasunean aintzat a:tn eta zainduarren, errietako parrokietan atzean lagaten zituen. Lepradunak lez. Koro azpian edo ta ate onduan bakarrik sartu eikezan eleizetan. Jaunartzeko be beste guztiak artu ondoren, beste illara berezi baten joaten ziran.

Eta agotak gizaseme kontzientzia euken. Orrck salbatu zitun. Ez ziran aspertzen euren asarreak agertzen. Ez bakarrik kalean, bai eta errietako agintarien artean, eta Naparroa'ko aldunen aurrean eta Obispadutzan be.

Arraza madarikatutzat eukezan.

Azken baten Aita Santuagana joteko adore eta indarra be euki eben.

Garbi agertuten eutsen eleiz batzarretako jaietatik be baztertu egiten zituela. Eleiztar ziran fede eta itxaropenez, eta eskubide ori ukatu ezarren, alboratu eta beratu egiten eutsen izate ori.

Sarri pentsatu izaten dot nik, gurc berrogetak urtetako egoera ikusita, berrogetak eta pikutakoa ikusita, gu euskaldunok, eta bear dan lez bereiztuta eta zeatz esanda, euskera dakigunok, gizarteko agotak ez ete garean. Gaur bertan.

Txarrena da agotak indarra euki ebela eta kemena be bai goietara joteko, areik bizibideko kontzientzi bat eukela eta gu... salduta bizi gareala. Ez gareala ausartuten gure eskubideak indarrez eskatzen. Ausartu ez eta gogorik be ez dogula eguneroko burruka baten ibilteko.

Eta egia au da: egunero gure kczkaen bategaz agertzen ez ba gara, gurea, egiña dagola, goikoak gure abotsak entzun baiño, gure ixiltasun makurra ikustea nagiago dabelako.

Askok, gure mendean, cz dauke agoten ezaupiderik. Naparroak'ko legeetan gafos deitzen eutsen edo ta legenardunak, lepradunak. Iparraldean, Baiona aldean, gahetzak, kagotak.

Euren auzoa euken Baiona'n baiña inguru guztietatik itxita. Orain modako diran "campo de concentración" itxurako baten bizi eragiten eutsen, edo orrela etsi euren auzoa.

Naparroa'n Arizkun eben curen erri jatorra. Baiña bertakoen etxe bizitzak baiño berago, alborago eukezan curen bizilekuak. Eta euskaldunak ziran.

Gure istoria jatorra da, baiña bere akatsekin. Gaur be gure egoera jatorra da, baiña akats askogaz.

Gaur bertan euskaldun askok, eta barriri diñot euskaldun berba obeto zeaztu bear dala, naiago ez ete leuke izango gu, agoten antzeko euskaldun jatorrok bizi ez ha giña?

Ori orrela dala, nire errian esaten dan lez, kokota jokatuko neuke.

Agoten antzera ba gabiltz, nai ta makal lanean. Gu ez gara Aita Santuagana joango, antxiñako agotak Leon X gana jo eben lez. Beste gurariak lagata, entzun gendun beintzat gaurko Aita Santuak euskerazko agurra eta euskeraz bake eta zoriona opatzea. Ori be orain arte sekula ez da gertatu izan.

Gogoan eukiko dogu Azilla'ren 15 garren eguna. Agotak be 1520'ko Azilla'ren 15 garrena gogoan euki eben. Egun onetan, Aita Santuaren eskariak entzunda, edo entzun zitula agertzearren, Naparroa'ko Korteak agoten aldeko Bula esaten zana beteteko agindu eben.

Ba dogu euskaldunok, euskeradunok diñot, agoten bizitza ikasi bearra.

18·XI·82

AGIRRE, GAZTE ETA GIZON

Sarri esaten da, erri-agintariak, aginpidea artzean gaztetasuna galdu egiten dabela.

Ez dot uste zeregiñak eta ardurak burura igoten dautselako esaten danik. Bai, orde, zeregin orren lotuerak inguru zabalago baten sartzen dituelako baiño, eta an bizitasun eta gar asko makaldu eragin.

Agirre tar Joseba Andoni ezagutu gendunok, ezin giñei ainbesterik esan beragaitik. Bear ba da egokiago izango litzake bestc au esan eta autortzea, Agirre'k gaztetu egin ebala bere aldiko jendetza, gaztetasun aizeak emon eta irarri' eutsazalako inguruari.

Ala, 1931/1936 bitartean emen bizi giñanok, gazteago sentidu giñan, erri gazte baten itxarkundea ikusten gendulako, istorian zear erri zar eta makurtzat ezagutu eta guk be azken denporctan-ala igarten gendun baten biztualdia.

Agirre'k gaztetasunaren ezaugarri guztiak batzen zitun beragan. Adorea, zintzotasuna, alaitasuna, kirol-zaletasuna, garra, aurrerakoitasuna, alkar-maitasuna, goi-sinismenei lotucra baikorra, irizpidetarako argitasuna, giza-eskubi-deentzako begirapen zorrotz ezta zuzcna...

Gizonak eta inguruak ze ikusi asko eukiten dabela gizonagan, esaten da. Bestera be csan lei: gizonak bcre kutsua emon eta sartzen dautsala bizi dauan inguruari. Eta ori argi ikusi eta ezagutu gendun.

Agirre baikorra zan eta ez beretarra. Entzuten ekian. Bere esanak eragiña eukiko eban, baiña cz zan ertsia, sarratua. Bakarti baiño lagunarteko gciago zan. Ekipoan jokutzen oitua. Futboleaz lez erakundetean, Alderdian lez Jaurlaritzan.

Gogoratu gerratean' Agirre'k bere alderdiko iru gizon bakarrik eukazala jaurlaritzako taldean eta ala ta be, goragoko erasoaldi batzuk igarriarren, bere ingurukoak ez eutsela lendakaritzarik eztabaidatu. Bestera: une larriak gertatu ziranean, Agirre'k beti artu eban besteen on-iritzia, gudak agintzen eban arazoetan, agintaritza geiago beragan eskuratzeko, ba ekielako eskatzen ebana bidezko eta zuzena zala, eta bare-aldirik gertatu ba litz, Agirre ez zala agintaritza berezi orreik beragan betirakotzen aleginduko.

Gaur errez baztertu eta astuten doguz lengoak. Baiña nik uste dot gudari izan ziranak bizi diran artean, eta gudarien seme ta senideak ezaupidea dauken artean, Agirre'ren entzuteak bere lotsa eta itzala eukiko dauala gure errian, errizar onen itxarkundean euki eban eragin zintzo eta jatorragaitik

Guk beintzat beti autortu dogu, eta ala jarraituko be, Agirregan gure erria-
ren gidari ta lendakari gazte eta gizon bat euki gendula, askok itsu-itsu eriotz-
raiño bere eskariei erantzunaz, bera be euren inguruan sinismen berberagaz
ikusi eta igarten ebelako.

Bere eriotz urteurrena gogoratzean, bidezko da gure siniste au sendotuta
ikusten dogula autortzea.

22-III-88

AGIRRE GOGORATZEN

Ogei ta bi urte il zala.

Bere oroitza oraindik bizi daroagu.

Nik ez dakit Agirre gerrara joatearen zale zan edo ez.

Gaztetasun eta guzti, ziurrago esango neuke bestera zala.

Gure mendeko gerra ez gendun guk sortu. Indarkeriz agertu zan gure gain.
Nabarmen eta zapaltzaille

Bertan sartzen beartu giñan, eta bein sartu ezkerro, eutsi egin bear. Eta iraun.

Eutsi eta iraun nekea iragarten daben berbak dira. Beste baten indarkerien
menpe jausi eta bertan zaindu bearra.

Itxaropen andiko gizona zan Agirre. Gure gerratean, mirari zan itxaropena-
ri eutsi al izate berbera.

Gazte ekintzetan ibilia, katoliko ekintza eta abarretan. Kezkati aiña ameslari be.

Nik ez daukat gerra osteko bere ezaupiderik paperetan agertua besterik.

Gerra artean, ez sarri eta asko, baiña bai alkarregaz eukitako jardun batzue-
tako oroitza.

Gaitz zan Agirre'ri zerbait ukatzea. Baietza atarateko makina zan. Bere iza-
tearen indarra, bere doai berezien oroimenez, birtutez. Eta norberari be, alaxe
izan bear zalata sinistu eraginda.

Agirre'ren kezka eta naigabea egunero mendian edo gudateko serbitzu-an
jausten ziran mutillen miña izaten an. Kontu zorrotz eta zeatza nai izaten eban
orretan. Bai eta errubako andra ta unie koitaduen zoritxarrak be zotin eragiten
eutsan. Eta karteletan gordeta egozan baituen ardurak.

Egazkiñetatik Bilbao lerkariz zigortu ondoren, talde batzuk kartzelen aurka
egin eben jo aldiak, zertada ederra emon eutsan biotzean.

Asmoak eta eritziak elburuak eta naikeriak ezbardin izanarren, areik ere
ardurako erritar ziran. Milla goraberakaitik baituta egozanak, baiña legeak
bestarik agindu ezik, eurak be lendakari baten itzala eskatuten eben.

Lege zalea zan bera. Al danik gitxien, baiña zeatzak. Besteak or geratzen
ziran bakoitzaren kontzientzian foru zarretan lez

Askok dakie gure gerratean baituta egon ziran gizon ugarik, ziurtasun geia-
go artzen ebela egozan tokietan, euren inguru, etxe edo ta senitartetan baiño.

Bilbo'ko Eskolapioen ikastetxean gudatalde barriak sortzeko kuartela
egoan. An bizi nitzan. Eta bertan, gure artean, beste pentsabideko izanarren, gi-
zon jator eta on ziran batzuk, bizigarrez bertan sartuta euki genduzan. Eta egu-
nero gure maikide eukiten genduzan euretariko batzuk.

Anai arteko baikuntza zan, eta ezpai barik euren borondate osoko. Guk
genduna jaten eben. Eta eurak nai eben etxe egotea egin.

Ori danori egin.al izango ete zan, gure lendakariak bestelako lege zital, itsu
eta alderdikeriz betetako aginduen batzuk emon ba zitun.

Agirre aberriari oso-osorik eskiñia zan. Eta gero ta geiago eskatzen ebana.
Berbera ez zan asetuten egiten ebanagaz.

Egunetik egunera laguntza geiago nai izaten eban, maitasun geiago, inguru
zintzoago.

Agirre, bere amets eta gogaiei gorputz eta arimaz eskeñia zan. Ezelako
aitzaki barik.

Origaitik egiten ebanagaz ase barik gelditzen zan.

AGIRRE LENDAKARIARI

Gure aita, zeruetan zarana...

Ondarroa'n esaten daben lez, oiñetako ta guzti, trasku ta guzti.

Nai ta gerralari ibili, eta diñoenez, munduko gerra izan zeruko atetan eta bere inguruan, an sartzeko, ala esan ba ledi, arimak billatzen daben espirituzko gerrikoa.

Baiña zu bake zale ziñalako egin ziñan gudari. Laga eidazu esaten: eskuko lerkari (bonba) ta guzti, bake zale.

Bakeak eroan zindun gudara. Bake garrak, gerraren gorrotoz, zure gerrikoa gorritzeko zorian ipini zinduzan. Artxanda gaiñean lez.

Pozik artu ta jazango zenduzan nekeak Euzkadi'ren bakeagaitik. Ziur nago, igarri ba zendun, pozik artuko zendula euki zendun bat-bateko eriotza be.

Gaztetan, gure adiñik onenean, gartsu ezagutzeko zoria euki gendun.

Erriaren sinismenari indarra emon eta maitasunak biztuten.

Nik ez dakit zelakoa litzaken zugaz gaurko gaztedia. Baiña gu, gure lizunke-ri ta guzti, arradaka geratzen giñan gure maitasun garbiei deika asten ziñanean.

Ez dakit gure maitasunak gaurkoak baiño zindoagoak ziran. Benetako fedea daukat gaztien erantzunean. Baiña guk ez gendun lotsarik eukiten gure ordezkari lez laterriko (estaduko) lege-batzarrean, euzko aldunen elkartearen izenean agertzen zenduezan legeégaiak txalotu ta euren aldezenak entzuten. Nai eta batzutan gaurko ikuspegian, itsuegi izan edo jokatu. Nai ta batzuk eleizak erreten iñar-duen artean, guk, 193.5'ko urrilla'ren batean lez, euskal umeen eziketari begira, kristiñau ikasbidea eskoletan erakutsi al izateko lege-gaia agertu ta aldeztu.

Ez gendun lotsarik ortarako. Kijoteak izango giñan, arloteak, baiña gure pentsabideagaz zintzo eta jarraipen oneko giñan.

Erriaren ona nai zendun erri-bizitzan, gizartean eta familietan.

Ez dakit gaur sozialista izango ziñan. Izena gitxieta da. Zuk, pentsabide jatorretik urten barik, zeure lantegi berbetan gizonaren eskubidien eta premiñen lotsa euki zendun eta gizarte ta anai-arteko kezka, sozial kezka agertu.

Gero, Iruñan eta Lizarra'n eta Gasteiz'en eta bear zan tokian, alkate nortasuna agertzen jakin zendun, erri txiki bateko makilla, artzain-makilla lez, artalde zabalago baten ibilbidea zuzendu nairik erabilten.

Lendakari autu ziñugun, gure patroï, euskal txalopa ekaitzpean ondatzeko garaian ikusi gendunean, ba genkialako zu, gure kapitan-pilotu zarren legean, txalopari eusten aleginduko ziñala azken ordurarte.

Fede oneko gazte agertu giñan zugaz, zuk gugan gurea baiño sendoago zendulako.

Gero zugaz sufridu gendun, naia eta eziña, ezin konponduta, gu ittoten asi ziranean.

Eta erbestean be zure itzala ezagutu gendun, beti gure erriaren maitemiñez.

Zu, gu baiño biotz mintsuago, gu baiño sentikorrago be bai, ta azkenean gu baiño lenago joan ziñan. Ogei ta iru urte dira. Gaurko, asko. Alaz eta gaur be zure esanak gogoan doguz ta zure erakutsien menpe gagoz. Tinko. Gizonak, egokitu bai, baiña ez dabe aldatu bear erri baten jatortasunik.

22-3-83

AGIRRE'REN OROITZA

Sarri entzuna da gure mendea ez dala hear aiña eskartsu agertu orain 50-60 urte gure erriagaitik ainbeste lan egin ebenekaz, eta gero be, isilpeko eta jaza-peneko arrisku, neke ta estutasunekin, era batera edo bestera, beti be al bestean, arduratu izan diranekaz.

Danekaitik esan ete leike ori?

Zaartu garealako ete da edo "besteak aiñako gazte", ez garealako?

Esaera au be kontuan eukiteko da. Oraintsu ETBko mai inguru baten iru-lau bidar euskaldun zarrak gogoratzean, batek, emakume batek, ainbat aldiz erabilten eban batzukandik besteekana dagon bitartea adieraztean esateko era au: "ez gu bezin gazteak".

Eta gure inguruko batek, beragaitik beste au esaten jardun: Ai ene, santa Rita'ri otoi bearko dautsazu zure liraintasuna luzaroan zaindu al izateko.

Dana dala, ukatu ezina da, erriaren maitale asko ezagutzera eldu giñala, gertaera ori bizi gendulako, aberriari oso-osorik eskintzen jakin ebenak. Agintari zintzoak

Ez dogu ezagutzen, gure gidari izan ziranen artean, aberats barri biurtu diranik, eta bai ogasunak galdu eta bizi-modua aldatuta bizi bear izan dabenak.

Egunotan ospatuko dogu baten eriotz-urrena. Ain zuzen gure lenengo lendakari izan zanarena: Agirre.

Nortasun andiko erri gidaria. Bere zintzotasuna eta bere adorea edozeinciri irarten ekiana, eta ala bear, gure lako gerra, beti zoritxarpean, erriari eusten jakin al izateko. Zein politikaririk iraungo leuke Agirre'ren giroan, amar konsellarien artean minori nabarian egonda, etenbako lur-galtze eta atzerakadetan, gerrateko goseak errian sortzen dauzan eraso eta egoera irakintsuei eutsi eziñiko

unetan, lagunik andienak be salduta jausten ikusten diran orduetan, erriarentzako eskintza itxaropentsu bat egiteko be aukerarik artu ez egikean denporetan, bere agintaritzan sendo ta on ikusita?

Agirrek bizi zan artean iraun eban erriaren maitasunik galdu barik. Emen eta erbestean gertaera negargarri guztiak adorez eroan eta gainduten alegintzen zala.

Eta umeak eta adiñekoak erbesteratu ziran; gudari asko be tatarrez urten bearrean aurkitu ginan, Bilbo galdu ondoren erbesteko lurretan. Alaz ere iñori entzun ez Agirrereren aurkako salakuntzarik; erriarteon igarri ez, politikan, sarri gertatu dan lez, indarkerizko egoera eta estualdi baten larrialdirik.

Gaitz billatuko litzake gure istoriko unerik larrienean euki gendun lendakari baten errikidetasunik

Eta Agirrereren lana ez zan beragaz amaitu. Gerorako ereintza izan zan be-rea. Zeiñek ukatu geroko giro au berak erriari irarten jakin eban itxaropen, sinismen eta errimaitasunetik mailla ugari baten sortua zanik?

Askok itanduten dabe zer ete eukan Agirrek bere erria beragaz ain alkarmaite erabili eta zaintzeko.

Nik askori erantzun izan dautset, baikortasun zintzoa eta bere joko garbia izan zirala Getxoko alkatetzatik lendakaritzara eroan ebana eta geroago, eriotz ondoren be gogoratu eragiten dauskuna.

Nik esango neuke "ez gu bezin zarrak be", ontasun ori ezagutu izan dabela Euskadi'k euki eban lenengo lendakariagan.

20-III-90

AGUR, ANDRA ONA!

Etorri bearra edo ala bearra izango da sarri.

Etxean be gertaten dira ez-bearrak.

Len baiño askoz geiago gabiltz batetik bestera, eta mugarik eta oporrik ez daukan eriotzak danetara jarraituten dausku.

Jakiña da euskaldun askok artu dogula Mediterraneo ingurutara, ango ondartzatza eta itxas ertzetara joateko zaletasuna. Baiña jakiña da, baita, euskaldun asko etorri dirala andik anbulantzietan *edo* egoera latzagoan.

Inguru arek erraztasun asko daukaz. Alkondara eta abarketak naiko dira arako. Emen euritakoak eta jantzi lodiak be bear sarri.

Gure ingurutako askorentzat, giro astun eta larria dago an, bero busti ta pi-xotsua.

Orrelako zerbaitek kalte egin ete dautso gaurko andreari?

Orrelako jardunak gerabillazan Elorrio'ko eleiz atadian. Zabal eta nasai itz egiteko baimenagaz. Len andik aurrera begiratu, eta Udaletxeko ormak salatari eukiten genduzanr Zorrotzak ziran bertako esaerak: "Berba uts eta alperren ordaiñez, kontua emon beariko dozu zorrotzez".

Baiña ainbeste etxe eta jauregi ederren jaube dan Elorrio'ko, ez lete eukan eredu ona emon bearrik, bere Udaletxea be konpondu eta egokituz?

Gero etorriko dira errebonbilluak, polbora usaiñez inguruak bete eta kutsututeko.

Gaur bake zale gabiltz.

Andre on eta jator baten illetak batu gaitu ainbat euskaldun. "Gure Txokoa"tik betiko txokora joan dan andre baten illetak.

Ba dakit bere arima, bere gogo, gure, inguruan ibili dala, batez be eleizkizunean.

Lengo oiturak gogoan eukiten dodaz illeta askotan. Tellatura joaten ekien gure zarrak tella bat jasoten, arimeak ainbat lasterren bere zerurako bidea artu egian.

Eta Elorrio'ko parroki txukunean,-gora begira, Bizkaia'n Sortzez Garbiaren izenean lenengo jaso zan eleiz ederrean, bere goietara begira ibili naz, eta 96 metro gorantz daukazan tella-azpi eder aretatik,zelan urtengo ete eban pentsaten .

Orain berrogei ta bost urte, Elorrio'n guda-izparrak jakiten batzen giñanean, ez gendun asko pentsatuko gure guda a amaitu- eta zigorrez Madrid ingurutan lenengo sortu ziran "trabajadoretako" gure eskola —lagun alai batek, Elorrio'n bere saietsa billatuko ebanik, eta gero, ainbeste urtetara, beragaz alkartuko giñanik andre orreri, erriaren berbak edo "vox populi" k balio ba dau, andre ona zan baten gorpuari gure azken agurra egin eta arimeari gure otoitzak eskintzen.

Eta Euskalerrian, andre batentzat lore obarik, eta beIeagorlk ba ete dogu, Andre Ona deitura baiño?

AGUR, MIKEL!

Azken denporetan iru lau bidar alkarrekin gertatu giñan. Bilbo'ko hotel baten, liburu batzuen agerpenean. Berak itz egin eban, danon izenean, sakon eta mamitsu. Euskal elertian maixu zan.

Oraintsu, lengo illaren azkenetan, Bilbo'ko Izkuntza Ikastetxean alboz albo giñan mai biribila deitu baiña lautua zan baten.

Gu bizkaiera aldeztuten, defendiduten. Mikel bietara jokatzen. Gu, lenen-goz beintzat, erri izkeran oiñarritu nairik gero jator batera joteko. Mikel, lan errezetan, bizkaieraz; lan sakonetan batuan.

Ama maite agertu zan. Beretzat bizkaiera jatorra bere amak ondo ulertu eikiana zan. Or mailla. Ortik gora batuan sartuta ebillen.

Berak be, esaten eban, ez ebalá ikusten errazoi indartsurik, batua egiña dagon lez, aldeztuteko. Biologi kezkek, gaztediaren indarrak bultzatuten eban orretara. Euskera, salbatuko ba da, gazteen ekiñak gaizkatuko dabela-ta.

Euki gendun gure artean jardun txiki bat. Siadeko elkarteak Euskaltzaindiarentzat egiñiko ikasketa bat atara neutsan nik. Ez *dot* ikusi euskerazkorik. Baiña erderazko "Conflicto lingüístico en Euskadi" liburuan garbi agertzen da, Siadeco'k aztertutako taldien artean, euskerarik geien erabilten dabenak gaur 35/49 urte dituenak dirala. Beraz gure azken gerra gerrateko giza-semeak. Eta esan neutsan: Konturatu, adiskide, urte orreitako giroa ain zuzen be aranatar giroa izan zala euskerarentzat. Orduko euskera Arana Goiri'tar Sabin'en ikurrin-pean ebillala. Eta esanak esan, berba barri ta. neologismo ta guzti, garai aretan euskerak indarra artu ebalá.

Zer da euskeraren bultzalaria, gaztedia ala politika?

Onetan ibili giñan. Kezka artu neban eurekin afaritan geratu barik gure jarduna etetea. Urrengo baten patxadaz ekitekotan agurtu giñan. Atsegin izango ebalá ni be Derio'n zerbait erakusten ikustean. Orretarako balio bear!

Urrengorarte...

Eta urrengo bat, orra gaur, Mikel'eri bizia eten yakon egun onetan.

"Gazteak erabiliko dabe euskera". Areik atarako dabe aurrera. Baiña gazteak be ilten dira. Bera, Mikel Zarate il dan lez, 46 urte bete barri.

Ez nekien makal ebillanik be. Orra uste barik il barria.

Utsune andia lagaten dau Mikel'ek Bizkaia'an, euskal kontuan. Bere adiskide eta lagun zan Garitaonaindia'tar Gotzon'ek laga eban lez. A be gazte il zan. Gaur ez zitun oraindik 43 urte eukiko. Eta biok, bata ta bestea, bakoitzaren bidean, euskeraren arnas bizi, jator, etengabeko eta arduratsu ziran. Eragille izateko egille izan bear ei da. Gotzon eta Mikel lanaren pixuz makurtuta jausi dira, gaiztorik egoteko be beta barik.

Gerena'n,-Geria'ko parrokian ezagutu neban bein, Oiz'en gibelean, Trabakua'tik egalean. Maite eben Geria'n ango baserritarrak. Inguru guztiak aztertu zitun berak. Geria'ko antxiñako erromatarren estratia, bidea, be erakutsi eustan. Ordurako, antxe bertan, eleizaren aldakuntza igarrita, euskerazko meza ta liburuak ataraten asia zan.

Gero bere lanak jarraitu dodaz. Egunetik egunera sakontzen. Liburu batetik bestera mardultzen. Berak ain erraz eban goi maillatan sartzen. Itz lauz eta olerkitan.

Olerki samur eta beroak bereak; bere biozkadak; errikoi eta aberkoiak; bi-zi, ausarta eta giartsuak; etorri ala, berez, bildur eta bigunkeri barik idatziak. Txapela kenduta irakurri bearreko olerkiak!

Ildakoan danak izaten, dira onak. Euki ete eban Mikel'ek bere bizitzan ez-ten txarrik?

Bata da il ondoren parkatzea; bestea ze parkatu ez billatzea. Pekatu ete da arotz batek bein edo bein bere alegiñaren erruz ultze bat okerretara jotea?

Euskera kontuan be gertaten dira orrelako gauzak. Nai ta zuzen ibili, ori egin ez dabenik iñor ba dago, batetik bat ez da langille ugaria izango eta bestetik, aren lanak ez dira asko aizetuko.

Mikel'en zeaztasunak, bere liburuen fitxa, aipamen eta abar, ortan rnaixu diran beste batzuei lagako dautsaguz. Guk, gaurkoz, egun andirarte edo laster arte esan eta gure erara agurtuko dogu.

Ezpai barik nortasun andiko euskaldun, euskalzale eta euskal maixu bat galdu dogu.

I3-IV-79

AI ENE, GU!

Iruzubieta'tik Trabakua'n gora goazala, eskumatara, irulau etxe ikusten dira: Gerena. Edo ta n kentzeko denpora oneitan, Geria.

Asko ikusten dodaz asarre Laukiniz, Lemoniz, Fruniz, Lemona, Sopelana eta antzeko deituradun erriei, barruan euken n ori kendu dautselako, orain Laukiz, Lemoiz, Fruiz, Lemoa, Sopela eta abar esanez.

Erria, diño. Erriak alaxe esaten dau. Baiña erri berbertako asko da biltz aldatze orrein asarre.

Orra eldu ezkerero, nik itanduko neuke: eatar esaten dau erriak ala ia tar? Sopelar ala sopelanatar? Eta abadinar, ala abadiñar edo abadiñotar?

Laga daiguzan eztabaidak. Pentsatu dogu iñoiz gure belarriak argizariz beteta egoten diran aldiak eukiten dituela?

Goazen lengora.

Gerena'n, edo Geria'n, euskerari lotu baiño len, erdi aspertuta eta jota bizi zan Mikel Zarate.

Izan be, abade egin, gaztetasun betez lanerako garretan egon, eta atzamarrren barruan zenbatzen diran etxeetako bizilagunen arduradun bakartade batera bialtzeak, kanokigotzarako ikasketak egiteko gogoia euki ezik, arimeari be beia jo eragiteko tokian dagola sinistu eragiten dautsa.

Ori gertatu zan Mikel Zarate'gaz.

Mikel, nire ustez, euskerak salbatu eban, gero berak beste toki askotan euskerari salbamena emoteko.

Arrigarri da Mikel Zarate'ren itzala Bizkai'ko erri euskaldun zati andi baten. Derio'ko ikastetxeak eta Deusto'ko Izkuntz Eskolak ikaragarrizko nortasuna emon eutsen eta gordeten dautse.

Eta ain zuzen be egon zan tokian, Oiz'tik Markiñalderako lurretan igarten da gitxien bere itzala.

Zegaitik dan? Ez dakit.

Bear ba da oneik bere Txorierrri inguru ori baiño euskaldunago irauten ebelako. Or falta zana, emendik croan eban. Emen ba egoan. Or egin bear izan eban, edo iraun eragin.

Dana dala Mikel erri zalea izan zan. Erriaren laguna. Erriaren agerpenak, esaerak, berbak, jokabidea eta pentsabidea maite zituna. Txikikeri, uskeri eta nabarmenkeriak kenduta. Eta erriaren oiñarritik euskal eskola berezi bat sortu nai izan ebana.

Gauza bat dira azalak, eta bestea da mamiña.

Mikel'ek ez eutsan ainbeste begirutzen azalei; mamiña gorde nai eban. Eta beretzat azalak kolore bat edo bestez jazteko aukera eukiarren, mamiñ aldatu eziña zan. Beretzat bizkaiera, bizkaitar erriaren berbeta jatorra, zaindu bearreko zan. Ikutu eziña, erriarena zalako.

Orain aste bi Ondarroa'n euskera ren astea gertu.da. Eta besteen artean Mikel en eskolako batzuk croan nai izan ditue izlari.

Ez dakit zegaitik, baiña "goietan" bizkaeararen txingarra, Ondarru inguruan zaindu eta aizetzen ete dan kezka dago. Baiña, joño! (parkatu, urten egin daust eta ez nabil iñori bereizkuntzarik kendu naian) gu Jainkoak, berrituarren baimenez, ementxe sortu ba genduzan eta ain zuzen be Bizkaia deitzen dan lurraldean eta izen bereko itxas egalean, zegaitik toki eta izakeran, siniste eta berbetan, gurean jarraitu ez?

Mendebalean geratzen gareala, egualdi ustelen tokietan? Batzuntzat!

Gu pozik gagoz Bizkai erri izateagaz. Eta gure berbetari eutsi nairik. Eta erri euskera aldeztuten jarraitzeko asmotan diardugu, euskerari eutsi nai dau-tsagulako.

Iñoiz irakurria dogu: "Geroago ta ziurrago nago, erririk barik, euskera sal-batzerik ez dagola. Errianganako lokarriak apurtzea, akademismu utsezko eus-kerera batera joatea litzake, ta akademismu utsa izango litzake euskeraren erio-tza"

Oker ez ba nago ez al zan Juan San Martin akademiku adiskidea, bere "Zi-rikadak" liburua agertzean, orain ogeita bi urte inguru, ori esaten ebana?

Eta batzuk, gu gauza barriak asmatzen diardugulakoan Patxi kontra ibiltea-rrren!

28-2-82

AITA GALDOS

Erromualdo, izenez. Berak atsegiñago, Erromalda.

Eibartarra. Eibartar jatorra, esate onek daukan inguru zabal guztiagaz.

Alai, bizi, alkar-arteko, umoretsu, gogotsu eta langille. Eta euskaldun.

Iñoiz, euskera kontuan, euskera zatarra aitatzean, eibartarrak erabilten dira pikotan. Eta "solaren kaloriak disipatzen du nubearen intensidadea" eta orrela-kuak aizetzen dira.

Sakonera joan eta euskera ain okerra ete da ori? Baldan edo baldrasa bai, leike. Baiña izkuntzen jokoa, gatz eta erabilkotasuna, bakoitzaren arauetan pentsatuta ibiltea izaten da. Eta esaera ori, ezpairik ez dago, euskeraz pentsatu dabenak esanda dagola, nai ta geroago sartu diran erdal berbak erabili.

Gaurkoak, erderaz pentsaten dabenak, erderaren erabidez ibilita, erdal gi-roagaz baliotuta, berba bardiñekaz onela esango leukie: Kaloriak solarenak di-sipatzen du intensidadea nubearena.

Beraz' aldia dago izkuntzaren egiturari.

Aita Galdos eibartarrak Idazti deunetan doktore izatera eidu zan eibartar jesulagun jakintsu onek, amabi izkuntza erabili zitun. Eta bere pozezko esaera bat au izaten zan: Amabi izkuntza darabildaz buruan, baiña bat biotzean: eibar-tar euskera. Etxean ikasia eta txikitan erabilitakua.

Beste izkuntzakin iñoiz sailtasunak euki zitun, itzulpenak egiteko ez ba zan be, euretan itz-egitean. Baiña txikitako euskera bizi-bizi erabilten eban, nai eta bere bizitzako urte asko erbestean igaro. Eta Aita Galdos ez zan izan, beste batzuk lez, euskeran sakondu nai izan ez eban gizona.

Arana Goiri-ren eskolako zan idazkeran eta bere garbitasunez kutsutua zan.

Nik bakartadeko konbentuak ezagutzeko zaletasuna euki izan dot. Orrela, Miranda eta Haro bitartean, San Felices mendietan dagon kalmadulatarren lekaroa ainbeste bidar ikertu neban eta an billatu Arrigorriaga'ko- monje bat, aita Leonardo, eta onek, euskera garbi eta "puritanua" egiten eban. Ez eukan euskeraz ekien besterik euren artean eta ikasteko erarik be ez.

Nik itanduten neutsan nun ikasi ete eban, eta berak erantzuten: Italia'n, Fraskati'ko monastegien ikasi ebala, eta Aita Galdos ara joaten zala bere oporraldietan eta aregaz ikasi ebala.

Eibartar jesulagun au Idazti deunen saillean, (Eskrituretan) ospe andiko jakintsu eta maixu izan zan.

Euki eban Bizkai aldean alako arrastakada bat. Danok dakigu, lengoak beintzat, Bergara eta Beasain'ek zelako eztabaida erabilten eben eurentzat dauken Igokundeko san Martin, Agirre'ko batzuentzat eta Loinaztar besteentzat agertzen. Aita Galdos'ek ikerlan batzuk agertu zitun Ibarrangelutarra izan eikeala-ta.

Ogetamar urte dira Mutriku'n il zala, gabon jai ondorenean, Italia'n ezagutu eban Landa zinema egillearen etxera joanda egoala.

Galdos'ek bere lanen artean Dabid'en abestiak, Ezkontza, Mikel Garikoitz eta abar laga zitun gure izkuntzan.

Datorren urteko Otsaillean gertuko da bere jaiotzako eungarren urtea ospatu bearra.

Deia, 20-II-85

AITA JUAN BIXENTE

Gure gerratea baiño lentxuago. askok ezagutzen eben gure artean bizar luzedan karmeldar fraile bat.

Danok ezagutzen genduzan fraile bizardunak, kaputxinoak. Ezaguna ortazko kantu polit eta umoretsu bat: "Venerabilis barba capuchinorum".

Baiña beste elkarte edo ordenetakuak, mixio lurretan ibiliak ezik, bizarra kenduta agertzen ziran.

Origaitik Aita Juan Bixente Zengotita, berriztarra, karmeldar frailea, bakana goa zan.

Egunkarietan agertu zan oraintsu bere izena. Barri, notizi izan zan. Santuen arteko nortasunean, zoriondunen ezaupide ziurrean autortzeko auzia jarraitzeko asmotan..

Len be da doguz euskaldunak orrelakoen artekoak. Izan be gure "piisima vasconum gens" onek bizar eta izar asko euki edo agertzen zitun katoliko elei-zaren barruan. Maixu asko. Kapela asko eta odol eskintza ugari.

Kuwait'en gotzain dagon San Migel Monsiñorak esaten eustan, berak Aita Juan Bixente 1920 urtean ezagutu ebala, Larrea'n fraileki zala, eta nobizio guz-tiak, nor zan jakin barik, fraile bizarduna sartzen ikusi ebenean, berari begira adi-adi geratu zirala, bere itzal, betetasun eta duintasunak eraginda.

India'tik etorri-barri zan orduan.

Fraile batek konbentu batetik bestera joateko ez ebala besterik eroan bear, esaten zan sasoi aretan, brebiarioa baiño.

Gaur, brebiarioa ezik beste edozer eroaten dala esan lei. Jakiña, ez dago akats bako erregelarik.

Eta Aita Juan Bixente'k be, brebiarioa eta beste zerbait *gei*ago erabilten eban konbentu batetik bestera: garra, mixiotarako kezka gartsua.

San Migel'ek esaten- ekian: Ni India'ra eldu nitzanean, Aita Juan Bixente-ren oroitza bizi-bizi igarri neban an. Askok gogoratzen eben, bai Ernaku-lam'en eta baita Kottayam'go Mixioan be. Argi goiztar lez igaro zan, argi eta zerutar maitasuna laga-ta.

Aita J. Bixente'k laster ikasi eban mixioiari jator izaten.

Emendik joan eta urte bete orduko asi ei zan bere sermoiak malayalam la-ko izkuntza gaitz eta nastuan egiten.

Beste fraileak berak izkuntza orretaz ara joan eta irugarren urtean atara eban gramatikaz ikasten eben ango berbeta.

Andik ona etorri eta emen bere "La Obra Máxima" eta bestelako laguntzak batzen asi zan. Urtero, orain ogetak urte, milloi pesetatik gora bialtzen zitun, berak batuta, mixioen laguntzara.

Eta ori...

Jakiña da Verapoly'n ataraten zan "Satyenathan" egunkari bateko zuzenda-riak esana: Irarkoletan zuzen eta arteza zala, eta bai gintza ikastolan be, baiña ala izanarren, esku zabal eta maitekorra zala... nai ta alper eta nagiekaz traturik euki nai ez.

Santutasunik ez dan kentzen bizitzako gora-beretan gizontasuna ezagutu eta zelan jokatu jakiteak.

Aita Juan Bixente etxeko dogu. Euskal idazle be izan zan. Valencia'n

egoela, gaztetan, an agertu eban esku liburutxu bat, karmeldar anaidikoentzat egiña, eta sermoi batzuk be idatzita laga zitun, euskeraz.

Ba dakigu. gure gerra aurrean, estatutoaren zale zala, euskaldunontzat mesedegarri izango zala-ta. Erbesten biziteak urriñagotik, baiña zindoago nai izaten ditu etxeko aizeak.

Origaitik, bere izena aizetu danean, gu be poztu egin gara. Arraza baten birtuteak edonoiz, edonun eta edozetan be pozkarri diralako.

11-VII-80

"AITA LOIDI"

Astean beteko dira urteak.

Colombian, jesulagunen Pasto'ko-etxean, apaiz zaar bat gizonaren "fue-roen" azken mesede bat egiztu eziñik ebillan: eriotzarekin batean kontzientzia askatuten.

"Aita Loidi" zan.

Lurralde areitako ixiltasunean. berak Euskalerrian erabili zitun joera eta burruketan baiño estuagotan ebillan.

Gogoan bere azken unetako bat-bateko urteera, gertaera eta igesaldiak:

Ernialden mikeletean preso eukela, atean egozan bere zai. Eta danen erditik irribarrezka igestu zan morroi baten jantzietan.

Eta Ernio'tik.

Eta Aramaio'tik.

Iru aldiz igesi. Iru bidar gerran sartu.

Gogorra izan zan bere ekiñean. Erruki bagea bere zeregiñean bere mutilekin, bere erritarrekin, bere errege berberarekin..

Jakiña da Aita Liborio markiñar karmeldarrak kontatua, berak don Karlos berberari entzuna lez: Iru "Cruz" gorrotatzen zitula, eta iruretatik, geien, apaiza.

Bere jokera eta ekintzetan zeatzegi izateak suspertu eban erregearen gorroto ori.

Baiña gerratik kanpo, gerra-lege ta oituretatik at, gizon apal, esaneko ta borondatetsuaren ezaugarriak emon izan ditue bai karmeldarrak, (Londres'en euren konbentuan bizi zalako aldi baten) eta gero jesulagunak Ameriketa'tik.

Orrelakoxe zan gure "Aita Loidi", leenagoko Santa Kutz apaiz gerlaria.

Une latzetan ain ateraldi jatorrak izan zitunak, ez ete billatuko orain auke-
ratxoren bat eriotzari igesteko?

Ba! Makurtua da.

Urteak eta Jainkoa dira emen bitarteko.

Len urteak eta gizonak ziran.

Gizonen aurka edonoiz ausartzen za. Jainkoaren aurka unerik larrienetan
ere ez zan ezagutu.

Itsu edo berekor, biozkor edo adorearen zorotasunez, jokabide baten men-
pe eta atzetik al bestean jokatu eban emen. Zer egiñik ez egoala ikustean, bere
indarrak, etsi eta laga barik, bere jantziak urratu gabe, ere batera zuzendu nai
izan zitun: "armetan jarria dauka Konpañia" k zirikatu ete eban azken urtetan
jesulagunen abaroa eskatzeko?

Dana dala, orain berrogei ta bi urte, il onen amarrean, Colombia'n, euskal
gerlaririk andienetako batek Jainkoari "armistizoa" eskatu ta betiko bakea izen-
petu eban.

Ernialde'ko apaiza, Santa Cruz apaiza, istorian geratu zan gure errialdeko
gizonkeri eta errikeriak arnastutako burruketan.

Ernialde'ko apaiza, "Aita Loidi", istorian geratu zan baita bere azken ba-
kezko gerran.

Euskalerrian eta Ameriketan gizon andi baten urratsak laga zitun. Euskal
fueroen alde gure mendietan; Jainkoaren fueron alde Ameriketan.

Santa Kutz bat, izan nai "Aita Loidi", eman eta zabal zazu legearen frutu
ezagutu eban.

Diario Vasco, 6-VII-78

AITA MOKOROA

"Ortik eta emendik".

Ala deitzen asi zan Aita Justo Mari Mokoroa bere lan bateri. Eta ba dirudi
geroago "Gure euskaldun jatorren izkuntza" egokiagotzat billatu dabela.

Zarrak nagusi euskal gaien alegiñean. Ezin ukatu.. Barandiaran, Lekuona,
Labaien, Laffitte, Mokoroa...

Larogetak urtez gaiñekoak danak, eta oraindik lanean, zartzarokotik atse-
denez biziteko asmo barik.

Txalogarri euren ardura, kezka, ekiña, giarra eta seta.

Aita Mokoroa tolosarra da. Alaz eta erdi bizkaitarra. Azken urte luzetan Bilbo'ko eskolapioetan bizi da irakaskintzan, maixutzan. Biotzean eta gogoan beti euskera dabela.

Berrogetamar urte igaro dira alako baten argitaratuko dan lana asi ebalá. Lenago "Genio y lengua" argitaratu eban 1936 urtean. Eta beste batzuk geroago.

Aita P. Tomek ungariarra eskolapioen nausi zala, aita Justo'k bere asmoa agertu eutsanean, bildur zan gure tolosarra ze erantzun emongo eutsan. Eta arek, erantzuntzat, itxaropenez beteko eban arnasa sartu eutsan lan ori, argitaratzeko gertutea atsegiñez ikusiko ebalá esan eutsanean.

Euskal esaeren iztegia da. Esaerena, ez berbena, itzena.

Txile'n dauka bere asiera lan onek. Euskal urrugaitzez, maite-miñez asia.

An egon zanean, euskal liburuak irakurri ala, esaera jatorrak batzen asi zan. Esaera, esan nai bakoitza, nun billatu, zein liburutan, zeínek idatzia dan eta abar fitxak egiñagaz.

Txile'ko egoera aretan karmeldar fraile bik zaletasun ori indartzen lagundu eutsen, adorea sartuz eta jarraitzera zirikatuz.

Eta gero, eskolak emoteak laga-ala eta laga aiña,—Aita Mokoroa urte luzetan irakaskintzako zeregiñetan ibilia dala kontuan euki—, ordu luzeak, asteun eta jai, euskal liburuak irakurri ta esaerak batzen.

Biziak bateri zer ekarri leikion iñok ez daki.

Nok esango eustan niri 1936-1937 urtetan, Bilbo'ko gerratean ango eskolapiotan bost lagunek gendun gelan, 45 urte geroago Aita Mokoroa'ren fitxak aztertzen jardungo nebala?

Antxe dagoz, 47 kutxa fitxaz beteta, bakoitzen bi milla sartzen dirala. Eta solteko batzuk, oraindik banakatzen. Danetara larogei ta amazapi milla fitxa inguru, au da, beste ainbeste esaera jator, errikoi, Mokoroa berberak agiri baten diñonez, edertasunagaitik, edo ta jatortsasunagaitik eta txukuntasunagaitik berari zirtada eragin dautsenak.

Gure esaeren gatza, jatortasuna eta berezkotasuna agertzen dabe askok. Erri, bizi eta egoera bakoitzaren giroak igarten dira esaera batzuetako urteeretan. Itxastar edo basoko diran be salatuten dabe beste batzuk.

Bakoitza bere izkelgiari. Onetan zorrotz eta zeatza da Aita Justo.

Ezin lei euskeran izkelgien.(dialektoen) egoeratik urten. Ezagutu egin bear dira. Or dagoz. Eta berak diño: "Zentzu oneko da, aburu oneko, gizalegeko eta demokratiku, eurak aintzat artzea eta eurei lotsa gordetea. Euskaldun eta aberztzale da ezagutzea eta erabide guztiekaz euren ezaupidea erraztutea".

Origaitik zabal agertu eta etorriko da Aita Mokoroa orretan, danak, inguru guztietako euskaldunak euren jatorrizko esaerak eta esaldiak irakurri eta ikasteko eran.

Dirudianez lau liburu bearco dira danak egoki agertzeko. Eta Labayru Ikastegia arduratuko da bear diranak egoki, txairo eta jator gertuten. Asmo ori dago beintzat.

6-1-82

AITA PATXI

Ba ete dauka gaur deun edo santu izentatzeak erriarentzat tengadarik?

Zortzi urte dira Aita Patxi il zala. Eta erriak, fededun erriak, santu bat il zala ao batez esan eban.

Gizaldi zarretan bizi izan ba giña, naiku izango zan gaur aldaretan ikusteko.

Gerra denporan ezagutu neban. Azaletik, esaten dana. Geroago, "trabajadoretan" gebiltzala, Guadalajara'ko lurralde otzetan ibili giñan. Jadrake aldean. Gu Siguenza'tik gora, Mirabueno, Alcolea, Cortes de Tajuña *eta* ingurutan.

Ez gendun gure artean alkarregazko artu emonik eukiten andik gebiltzan taldeak. Gaitz zan. Baiña jateko billa joaten ziranak ekarten eben iñoiz barrien bat. Eta Aita Patxi'ren jokabidea laster zabaldu zan. Gure mutillak Jainkoaren ordezkari, bere egiaren ziñaldari (testigu) lez ikusten eben.

Gero Deustu'n, geiago ezagutu neban. Ba dakit kanpaiak zelako lotsa eta makurpena sartzen eben beragan.

Bein, gabeko kanpaia iota gero, oncspenak emon euskuzan zar eta umeeri, baiña gero sakristian sartu, lepoan jo ta agurtu nebanean, atzamarra aoan ipini eta-ixilik egoteko ezaugarri egin eustan, beste eskuan eukan- orduariko ordua jakin eragiñez. Dana mutu, kartujoak baiño mutuago, kanpaien lotsa zaintzearren.

Beste baten, Angosto zarrean, Angosto penitentzi toki bakartia zanean, ez gaur *lez* atsedeen eta atscgin toki, ara joan giñan iru gizon mardul. Balendin Anaia zan orduan: ango giltz guztien jaube. Arek alegiñak egiñarren ez eban billatu Aita Patxi'rik. -Andik urten eta bidean Orduña'runtz giñoazala, fraile txiki zorrotz bat ikusi gendun bidean. Kotxea geratu ta Kaixo Aita Patxi'ka asi giñan. Berak gure agurrei erantzun eta beriala: Abade zartxu bat dago gaixorik emendik iru-lau kilometrotara. Eroango nazue?

Eta kotxean sartu orduko; errosario bat errezaten lagunduko daustazue, ezta? Gu alkarri begira geratu ta erantzuna artu orduko, Gure Aita'ka asi zan Ara-

na Goiri'ren erako esanaldietan. Bere tokira eldu giñanean, beste barik, jarraitu baketan esan, eta beratu zan.

Arek eukan alperriko berbak esateko bildurra! Bilbo'ko gaixotegian ikusi neban birritan. Agurtu ordurako, gaixoak zain daukadaz esan eta irribarre mintsu lakoa egin eta joaten zan.

Apal, otzan eta biozkorra zan Patxi. Eta batez be frailea. Konbentu zale, nai eta ia egun osoa karidadeko zeregiñetan kalean igaro. Nagusien agindupeko. Bere kontzientzia be nagusiaren arduratan lagaten eban.

Danok dakigu Patxi euskaldun jatorra zala eta aberriaren maitale. Beretzat aberria, bera jaio zan lekua zan, eta aberriko agintariak, bertako jatorrak. Origaitik mezako otoitzetan, danak entzuten eutsen argi ta garbi Joseba Andoni izena aitatzen. Euki zitun salakuntzak origaitik. Eta berak erantzuten ekian, bere kontzientzia orretan ikutu eragingo eutsana, bere probintziala zala. Origaitik Deustu'ko "beaten" bakegarri, Angosto'ko santutegia billatu eutsen, ango ba eta diplomaziak alkar artuta jokatu eben baten.

Aita Patxi, vox populi santua, Eleizaren erabakiz be ala dala autortu nai da. Egunotan bere azurrak Derio'tik Deustu'ra eroatea, santutasun bidea eleiz in-tsentsuz asi al izateko da.

5-IX-82

AITTITTAKERIAK

Lenengoz aittitta edo aitona egiteak, ezin ukatu gizonengan alako arrada edo biozbera lakoa egiten dabenik. Gero or konpon, baiña lenengoak ba dirudi bakoitzaren izatea be aldatu egiten dauala.

Panama 'ko liburuetan, ondoren onek ba dauka bertako berba berezi eta ezagun bat: abuelazón.

Angel Revilla'ren "Panameñismos" liburuan au irakurten da: abuelazón "dícese de la chochera que le da a los abuelos con el primer nieto".

Euskeraz zelan esango litzaken orrelako esaera bat jakin nai eban, lenengoz aittitta egin eta bere semealabak baiño pozago ebillan batek.

Nik, egia esateko, ez neuke jakingo berba ori zelan atara bear dan zeatz esaten. Bear ba da aittittakeri?

Keri, argalkeri atzizki edo subfijoa erabilia.

Ezin lei ukatu orrelako poztasun bat, edo egoera bat, makalkeri, argalkeri edo ta bigunkeri batetik datorrenik.

Keri eta tasun atzizkiak, danok dakigu zer adierazten daben euskeraz. Tasun, au da, maitasun, anditasun, gizontasun eta abar, izate fisiku bat adierazten dabe. Ordez keri, gizonaren egoerak sortu erazten dauana da, gizonari dagokiona, gizona bera errudun dala. Ala labankeri, itsukeri, aragikeri, maitekeri...

Beraz aittittakeri ez legoke txarto. Aittitta bera dalako edo bere izatea arrada orren errudun. Edozetara be makurkeri bat, argalkeri bat.

Baiña'esan ete daikegu gaur gauza zeatzik euskeran?

Ni lotsatu egiten naz, azken aldian Bizkai'ko Aldundiak ataraten ditun liburuetan, au ipini eta irakurten dodanean: "La Diputación Foral de Vizcaya no se identifica necesariamente con el euskera utilizado". Niretzat ori lotsagarria da. Aldundiak milla aukera eta-eskubide daukaz berak nai daben euskera'erabilteko. Eta geiago, geiago diñot, erabili hear leuken euskera erabilteko. Aldundia Bizkaikoa dalako eta bertako gauzen arduradun. Aldundiak ezin leike bere etorki, ondare edo gaurko askok errezago ulertuteko, bere "patrimoniorik" saldu, al bestean obetu baiña. Gitxienez be zaindu.

Larruskain Bizkaiko-ertz baten dago. Markiña, erri legez. Urberuaga edo Aspiltzatik' artzen da bertarako bidea. Bide ori oraintsu egokituta geratu da, eta zorionak ortaz. Bide orren sarreran disku bat ipini dabe, 50 kilometroen barruko abiadan ibili bear dala adierazteko Eta ingurukoak arrituta geratu dira an ipini dabenean: "zir-kula ezazu". Ia zer esan nai -daben itandu eustan kotxedun batek

Andik kilometro gitxitara, sekula ez jakoen okurriduko berriturarei euren mendi eta basoetan zear doazan bideei baso-bidea baiña beste deitura egokiagorik.

Baiña baso-bidean burdiak sartuarren, "h"rik ibili eta erabili ezan leiken lez, "oihan bidea" ipini dabe, eta or dabiz asko itaunka ia arek zer esan nai daben.

Bilbo'n, Arriaga'ren aurrean, "Mesedez bar itzazu gure kalteak" ipini dabe. Buruari ats asko eragin bear, bat ori barkaturen laburpena dala jakiteko. Erderazko esan naia irakurri ondoren konturatzen da bat zer izan leiken. Ez ete eben errezago ulertuko "mesedez, parkatu gure kalteak" soi-soil ipini balitz?

Baiña bizkaiera ez dan beste edozer sartu nai dauskue Bizkaian da ortik datoz orrelako gauzak. Azkenean euskera misterio lez artu eta erderara eroango gaituenak. Emen ez dago fedeko makurpenik. Gaitz sinistuten, baiña ortara goaz.

Eta Aldundia, Bizkaiko "patrimonioaren arduraduna, ixilik. Okerrena, askotan bere barrutik orrelako gauzak urteten dabela konturatu barik. Edo nai ez-ka.

GURE GIZONAK

"AITZOL"

1936 urteko Urrian, Ernaniko ildegian. gorputzez mrotz, baiña gogoz luze, apaiz bat laster tiroz ilteko zan. 17'ko goiza zan. "Nire Yainko ta nire Aberriagaitik ilgo naiz. Eta origaitik ni fusilatzen nabenei parkatzen diet. Nire odol au gizarte zuzen, biozkor eta kristautsuago baten aldezko eskintza ta opari izan dedilla". Betetasun baten ala ziran "Aitzol'en itzak. Izkillodunak ez ziran ausartu bein beingoz tiroak jaurtitzen. Irugarrenez ere agindu bear kapitanak eta bik erantzun. "Aitzol", Jose Ariztimuñok, 40 urte zitun.

Egun bi lenago, saldukeri edo salakuntza bitarte, "Galerna" itxasontzia arrapatu eben Baionatik Bilborako bidean. Bertan "Aitzol" eta bertan baita beste ainbat lagun. gero eriotze bardiñez illak edo zigor luzetara- epaituak. Ontziko arduradun eta langilleak batzuk. Besteak dendari, pelotari, industri-gizon, gazte eta abar. Gipuzkoa artuta egolako, Baionatik Bilbora ezin joan itxasoz ezik ta orrelako aukerak billatu bear.

"Aitzol" ez zan parroki baterako apaiz. Luzeago jokatu naiko bai. "Eman da zabal zazu" gogoan.

Lenengotan mixio lanetan ezagutu gendun. Bera zan "Gure Mixiolaria"ren buru. Gero, gure gaitzak ikusita, euskaldun gogoak irabazi nairik. Kultur zabal eta sakoneko gizona. Izparkari, kazetolari. "El Dia" egunkariaren motorra zala esaten ekian bere iuzendari zan Jose Lekarozek.

"Aitzol" euskal eragille zan. Danen gain ori bere nortasuna.

Bera izan zan Euskal Ikaskuntza elkartearen barruan "Euskaltzaleak" taldearen asmo ta arnas. Idazkaritza zan bere gogo ta alegiñeko zeregin eta ardurara.

Ortik sortu zan "Yakintza", billerotik beingo aldizkingia. Elerti, antzerti irakaskintza, edesti, lege-yakintza, gizartizti, erri-yakintza, ederti, ereserti saillekin. "Aitzol" zuzendari; adiskide zur bat idazkari ta laguntzalle: *Jose Artetxe*.

1933 urtean asi ta 21 zenbaki atara zituen. Nortasun andiko aldizkaria. Jatorra. Euskera ta erderaz.

Eragille, aspergabe zalako, "Aitzol" eri esker sortu ziran ainbat sariketa, leiaketa eta kultur egun eta aste.

Gogoan daukat lenengo bertsolari eguna, Kursaal azpiko antzokian. An ziran euskal bertsolaririk zarrenak, eta an gaztenak ere. An urtez makurtuak. gas-te asko baiña zirikalariago. ta an oraintsu praka luzeak jazten asiak, zaar asko baiña maixuago. An "Txirrita", esku makilla birekin gorputzari ezin eutsita; "Kortatxo" ta abar. Ogeiren bat alkarren leian. Bizkaitar bi: Abarrategi ta Uriarte.

Bertsolaritza aña indar premiñan egoan euskal antzertia, teatroa. Eta An-

tzerti egunak sortu ziran.Iru urtetan beste ainbeste egin. Ez bakarrik lanak sortu ta ugaritzeko. Bai eta antzergille taldeak aupatzeko. 1934 urtean, bakoitzak aukeratutako obra antzeztuteko, amalau talde gertatu ziran. Bizkaitar bat, ondarrutarra. ta besteak gipuzkoarrak. Eta agindutako lana antzeztuteko, "Etxe aldaketa" agertzeko, amairu gipuzkoar eta bizkaitar bi.

Oleri eguna egin zan ainbat urtetan.-Egun orreri esker asi ziran gure poetak esnatzen. 1930 urtean "Lauaxeta" zan irabazle; gero, urterik urte errenkadan, "Lizardi", "Loramendi" F. Etxeberria, Zaitegi, Jauregi eta 1936'en Otamendi.

Eleberri, nobela eguna egiteko zan 1936 urtean. Guda lainotan galdu ta itto zan deia.

Eta umeen egunak nun nai ospatzen ziran. Danetara eltzen zan. nai ta osasunez beti alai ibili ez.

Egunak ospatu ta ondorenak urtetarako laga.

Ainbat dira bere arduraz eta Euskaltzaleaken babesean garai aretan ataratako liburuak. "Eusko olerkiak" izeneko bost; seigarrena gertuta ez zan zabaldu; or Iturriaga ta Zabalaren ipui ta alegiak; teatro lanen artean gogoratu leikez "Amal", "Bost urtian", "Iparragirre", "OstegUn gizen", "Sorgiñak", "Gillermo Tell", "Txerrenzubiko gertaera", "Leidor" eta abar. "Orixe" ren "Euskaldunak" poema andia laster agertzeko zan.

Orrez gainera langille arteko bere itzaldiak eta bere ikastarotako lan mami-tsu ta oargarriak. Ikus, esate baterako, bere bigarren izenordez agertutako "La democracia en Euzkadi". Bere garaian euskal kulturaz zaletzen asi giñanok, ba dakigu "Aitzol"en barri. Gerokoak ere jakin dagien zor dautsagula berari onelako gogorapen bat.

Deia, 16-X-77

AIXE-ERROTAN

Euri ta aize, mendebala, Getxo'ko Aixe Errotan, igandean.

Atertuko ba leu!, iñoen batzuk.

Mendebalak bereak berrogei ta zortzi ordu.

Orrela, ez giñan arritu kostaldekuok, eguna aurrera ta ez atertzeagaz.

Egun andi bat, onelako giro baten, danok dakigu zer dan. Aingeru jazteko

garretan egoten diran lenengo jaunartzeko umeei, euren jaian euri eguna gerta-tea lez.

Getxo'ra eldu giñanean, aterkin, zira eta antzerako eutsigarrien munduan sartu giñan.

Bilbo inguruko kai barriko molla eta ormak, laiño artean lez, gaitz ikusten ziran.

Bide egalak, kide-kurutze, kale, kantoi, etxe-bitarte, ibilbide eta zelai eta zu-gaztiak, danak beteta, oraindik etorteko ziran kotxeak nun lagako buruaustekin.

Eta andik gora, gaztetan baiño amestiago, Getxo'ko iltegi zabalaren aurre ingurutik, bedarraren gozoa azkenetan igarten gendun, bere azpiko lur eta basa artean galdu eta zelai-aldi zabala, potzu eta basatzetan biurtzen.

"Egi"koen txabolak sarreran.

Gau otza igaro ebela esan euskuen, nai eta gogoia ernai euki eta biotza ameslari.

Gero, urrunago, txosnak.

Euren alegiñaren beian, premiñetarako zerbait egiteko asmotan jasoak, eta anaien artean bakoitzak bere erara sabeleko ziria sartu ta poza emoteko ustean zabalduak... gure etxea danona da esaten lez aterpe biurtuak.

Aize eta euri, Leizaola'k, eguerdia eginda gero, ikurriña jaso eban unean. Euri-lantxa sarratua Garaikoetxea'ren itzaldian; aize brastada'k, ia Becerro de Bengoa'ren kontraferoak aztu eragiteko lez, Arzalluz'en denporan. Zaparrada, Urkulu gazteari uleak pla-pla egin eta ere txostena irakurtzeko begiak lausotutean.

Baiña danak tinko, geldi, zutik, ernai, adi, aterkin-pean edo zirapean. Eta gogotsu, alai, ixil, zirkin egin barik, oiñetako buztien otz edo ta kolko eta lep-
ik sartzen zan euri zatarraren tantak larritu barik.

Aixe errota, ez zan askorentzat, jolas leku edo euskal egun bat igaroteko zelaia. Ori arratsalderako betegarri zan. Aixe-Errota, bakoitzak bere alderdi eta jokabiderako saietz lez daukan Alderdiaren eskintzak eta agintzak barriztutea zan-
gudari zarren lotsa eta ezaupideari omen egitea zan; erri aldeko jokabi-
dean artu bear diran norabideen erakustea zan; gure alderdiaren errota zelako aizez ta indarrez erabili bear dan itza ta berba zan.

Eta an illen oroitza egin zan, ta bizitzaren eskubideen legetasuna erakutsi be bai. An Laterri (Estadu) jokabidea ezetzi zan,. ta gure nortasunari tokia emon; an euskeraren zaindu bearra goratu zan eta ikasten ez dabenen salakun-
tza egin. Eta epea izentatu zan emendik iru urtera alderdikide izan gurako da-
benentzat.

Euri eta aize, basa eta lupetz, euforia" egon zan. Gero etorriko dira ne-
keak. Pentsabide eta jokabideak ondo edo eta eralgi ziran an.

Eta auteskunderik ez zan aitatu. Orko jokabidea, euzko jokabidearen urratsa da.

ALDERDI EDERRETIK

Alderdi Ederretik begira nago.

Atsegin da beti ere gauzei alderdi onetlk begiratzea. Eta Alderdi Eder onek ba ditu ainbat pozgarri.

Bat, Donosti zabaltzea.

1863 urtean kendu ziran Donosti estutzen eben orma zarrak. Ordurarte toki au gerra-toki zan, tiroan egin eta beste gertakizunen toki.

Beste bat, euskerari lotsa.

Ormak beratu orduko donostiarrak Alderdi Eder deitzen asi ziran inguru oneri. Donosti'ko erri agintariak aintzat artu ere izen iator eta txukun ori, Baiña...

Geiago, Zetan sartu bear eban Madrid'ek izen baten gora-beran? Alaz eta 1879-ko Maiatzaren 28'n Donostiko Udalak izen ori iartzeko erabakia artu ebanean. oztopoak egon ziran. Eta alaxe agertu be Errege Ordena bat, izenak aurrez jakin eragin eta baimendu bear zirala agintzen.

Alderdi Eder onetatik Maiatzari begira, zer esan?.

Maiatza neskatxa ederra ei zan, baiña alperra ta goseak eta otzak il zuen lan egiteko bildurez.

Esaera ori euken gure gurasoak. Bete ete da urten?.

Aren kideko dator beste au: Urdai azpikoa Maiatz luzeak eraman zuen.

Eta beste au ere: San Fernandok arte beti beldur aziendadunak.

Dana dala. giro on edo txarrez, Maiatza ba dua. Eta berakin eroan ditu Azentzio, Etor-egun (Pentekostes), Gorpuzti, Irutasun eta abar, ia konturatu gabe. Okerrago. aaztuta.

Jarraitu daigun alderdi onetik, Ikus asterako giroa. Egun guztiak dakarre zerbait.

Astelenaz: (1871-V-29). Jose Matia 11 Cadiz'en. Errukitsua bera. Azken borondatean Erruki-etxe birentzako diru-oiñarria laga eban. Cadiz'en egiteko bat, bestea Donosti'n. Bere mesedeari esker sortu zan donostiarrak ain begiko daben Asilo Matia.

Asteartez: (1902-V-30) Cuba'ri askatasuna eskertuz. Arana Goiri'k kable bat bialdu Roosvelt'eri ta a kartzelan sartu.

Asteazkenez: (1 752-V-30) Zer ete ebillen Ordizia'n, beti bere merkatua goratzen alegindu dan erri aretan, txerriak aziteko baimena askori kentzeko?.Ba... urtero salakuntza asko egoten zirala soloetatik arto ugari faltaten zalako batzeko garaian. eta solorik gabeko askok txarri lodiak eukezala. Ortik gorakoa igarri. Udalak erabagi ori artzeko.

Osiegunez: (186 7-VI- 1) Goazen Lezo'ra. Aur baten iaiotza. Juan Sarasola, "Lexo" bertsolaria. Urteak geroago berak kantatuta dakigu langilleen lortze bat:

*Aurten rnundantza berriya
Donostiya'n da jarriya
Ordubetako neurriya
zortzi orduan irabazten da
jornaleruen ogiya
argitu zaigu begiya,
au ez da txorakeriya
ba zan zerbaiten premiya!*

1903 urtean agertuak dira bertso oneik, Beraz ba dakigu zerbait, Ostiralez: Astarloa'ren eriotza 1906 urtean. Baiña... orren txingarrari bizkaitarrak eragin dagoela.

Larunbatez: Bein bertsoan asi ezkerok, zeñek alboratu Txirrita? Ba dogu asteen beren gogoeta egin bearra. Gure denporetan il zan 1 936-VI-3'n.

Besteak obeto egiteko lagata. guk gure oroitza ariña eskiñi geinkio bere bertso bat gogoratu:

*Laguntza izan ha nu
abogautzarako
izketan ez ninduen
iñok arrapako,
zenbat gizon-gaí atzera
pobria dalako!
Ondo bizi nai ta ezin
ha da lana franko.*

Orra egunkari bat. Eta egunkarietan sartu garen ezkerok. aste onetan gertatuak dira: Maiatzaren 30'n, "El País Vasco" mututu ta andik egun bira "El Dia" sortu. Donosti'ko kondaira da. 1930 urtean ain zuzen.

Eta zearo ixildu bear ete doguz fede edo sinismen gaiak? Ba da asteen, Gipuzkoan beintzat, gertaera samur bat: 1916-V-30'n, Antonio Bandres Elosegi neskatillak Jesusen Alaben Elkarteko jantzia artu Tolosa'n.

Ogei ta bat urtez Salamanca'n donetasun edo santutasun aintzaz il zan neskatil onek merezi dau gaurko nabarmenkeri askoren artean, aipamen berezi bat.

Diario Vasco, 18-V-78

ALDERDI EGUNA

Alderdi berbaren inguruan, ainbat esan-nai billatu geinkez. Zuberotarrak "alderditu" erabilten dabe, alargun geratu dala bat esan bearretan. Gizonak eta andrak alkartuta dauken osotasuna galdu.

Ez da bardin gizon bat alderdiko dala esatea, edo ta alderdiko bat emotea; nai eta gizon bategaz biak gertatu al izan.

Iñoiz bidean norbait orma egalean okertuta ikusten dogunean, etxekotasunez oker-oker eginda ikusi dogula esanarren, alderdikatuta oartu edo iruditu jakula esaten dakigu.

Gure politikan Alderdi izena artu dabena, ain zuzen, Arana Goiri tar Sabin'ek sortutakoa da. Eta gero abertzale jatorren alegin, adore eta jakituriz, eta erri maitasunez, gure egunetara ekarria da. Besteak, ekintza, batasun, talde eta abar, nai eta erri giroan indarraren osotasunik ainbestean artu ez, deitura biribillagoak artzearen zale izan dira.

Niretzat Alderdiaren esan nairik atsegiñena, bere kideko jator bat billatzean, "saietza" izango litzake. Gizonaren alderdia, eutsigarria, da saietza; erriaren saietza, eutsigarria, gure Alderdia.

Nai eta iñoiz brintzatuta agertu. Gizon arteko gertaera izaten da ori be. Baiña brintzak bigun bigun, urratu egiten dira ta garbitu eta saietzak osatu.

Ortarako osagarri lez dator laster Alderdi Eguna.

Aize-errota lako osategi garbi ta zabalean, okertuta barik, zutik eta txairo ibiliko dira asko, "eztaukagu alderdi txarra" lako esaerak esaten, eta ori be bere esanean artuta, Alderdiagan laguntza makala ez daukagula esatea lez da.

Gaur, gure erriaren giroan, Alderdiko izatea, aupada bat da eta lotuera bat. Aupada, "reto" lez biziago dala esan lei eta atsegiñago jat "zemai" betozkodu-na baiño.

Danok dakigu erria zelán dagon.

Eta ez da iñor asarretuko alderdiak zelán dagozan ha dakigula edo igarten dogula esanez.

Guk gurea zaindu bear dogu, guk zintzo jokatu eta albokoei jator jokatu eraginda.

Alderdi barik, sortuko ete ziran, emengo kezka eta asmoekin, beste asko?

Guretzat obe da besteak gartsu agertzea. Gu he, jausien bidetik barik, zintzoen bidetik ibiltera beartuten gaitue.

Eta gaur, erderaz diñogun lez "saldremos adelante" lortu bear ha da, asmo ori egi biurtu hear ha da, alaxe bearako da, baiña zintzo jokatuta. Ba dirudi, onetan be euskeraz illunago ibili gareala, esan nai orretarako beintzat.

Alaz eta "atarako dogu" gaurko giroan, ondamendi eta urioletan sartuta dogun erri batera goazala dirudi eta onetarako he, lenakoen esaera gogoratuta ez

da alderdi txarra bear. Jakiña alderdi oneri letra andia sartuta. Baiña gogoratu letra andiari, maiuskulari, toki askotan euskaldunak "Jesus-izkia" deitzen eutsela.

Guk, onetan, gure Alderdiari Jeltzale izkia esan bearco, ez?

11-X-83

ALDERDIKERIAK

Gure ondarrutar esaera batzuk aidean erabilten nabe sarri.

Eta oraindik gure iztegi berezia, gure berbak baiña gure esangureaz azaltzeko, lan asko dagola konturatu eragin.

Izkuntza,berbeta, berbak eta doiñua dira. Berba askok. euren doiñu berezi barik, eanarren be. galdu egiten dabe esan naia

Aste onetan kalean sarri entzuna: Zenbat lagun Aiegi'n?

Berreun millatik irurogei milla inguruko ikustean, ba dago aldia ikusmenean.

Origaitik nire auzoko bateri entzuten neutsan: Amaika pottolo ba dago gaur.

Euskeraz potolo- lodi antzeko da, eta pottolo (len t'ren gaiñean marratxoa ipinten zan biguntzeko) lodi ta txikia. Bardin potxolo.

Baiña guk potxolo, miope, tuerto edo ikusmen akatsa daukanari deitzen dautsagu.

Dana dala, egia nun?

Eta karlisten semeak Montejurra azpian batu zirala. zirikalari beste bateri esan eutsanak, zenbat guzur esaten eban?

Kontuan euki gure artean karlisten burua ez daukanak, karlisten bizarrak daukazala.

Eta ango itzaldiak bigunak eta epelegiak izan zirala, euri girorik be ez ebe-la aldatu esan debenetik, lotsagarriak, etengarri eta ukabilkadak izan zirala ta asarratu diranak?.

Alderdi batek bere elburuak eukiten ditu eta jakiña da elburu orreik maillatan zear lortu bear izaten dirana.

Guretzat mingarri dana, jaio giñanetik ta ilteko ordua ia eldu jakun arte, beti tanbolin bateri erabilten bili bearra. Eta egia autortu bear ba da, gerrako ur-

tea kenduta, gure jaube noraiño ete giñan konturatzeko denporarik be euki ez gendun urte a kenduta, oraintxe arte ez gareala asi, asi baiño ez jaubetausn baten itxurak artzen. Eta itxura utsak artu orduko, itxura berbera barrero ukatzen astea

Nik ez dakit noiz amaitu ziran karlisten gerrak. Gerrarik amaitzen al da ezpaten indarrez eta bildurrez itun bat izenpetzen dan egunean? Baiña estatutoa deitu edo foruak deitu. sakonean eskubide batzun jaubetasunaren eskabidea da, eundak urtetan dabil gure gizonen elburu.

Ikus. 11 onetan, 1870 urtean, Bizkaiko Batzarrak batu ziran Gernika'n. Orduan oiturazko zan Bizkaiko Guraso deitura eta ospea emotea, gure erriaren alde ebillanari. Eta urte aretan Castelar'eri emon eutsen, kongresoan foruen alde egin eban itzaldi gogoragarri bategaitik.

Euskal libertadeak galtzean, gauza andi bat ilten zala esan eban kadiztar arek. Andaluzkeria? Castelar'ek euki zitun bere etsaiak be foru goraberan. "Desafueros históricos" batzuk aitzakitu eutsetzan.

Gernika'ko batzar berbertain deitura bardina emon-eutsen kataluniar bateri. Marie, izparkari. edo gaur esaten dan lez kazetaria Bizkaia'n zear ibili zan, ikusi ta idazten. Luma erraz eta ariñeko zan. Ez ete zan errezege ibili, bere aurretikoak esan ebena barrero idazten?

Berberak sarri esaten daki, Delmas'en Guía erabilten ebala Bizkaitik zear ebillanean. Berbera salatuten da, edo zintzo autortu, nun oiñarritzen zan erri asko agertutean.

Urte orretan, 1870'n agertu zan Bizkaia'ri egokian irugarren liburua eta origaitik Bizkaia'ren esker ori.

Mañe'ren denporan zelako bideak egozan, ez da gaitz igarten. Alaz eta trenna be ba ebillan, Tudela'tik Bilbo'ra. Eta bera. Bizkaia'n, trenez sartu zan.

Mañe adoretu eta ausartia izan zan. Euskal foruak kentzeko alde ziran orduko kataluniar politikoei gogor egin eutsen, gure eskubideen duin giñala aldeztuz.

Gaur be ioko ori ikusten dogu. Emon eta kendu. Edo bestera esanda: agintzen laga nai ez. Noiz amaituko dira politiku potxoloak?

ALDUNDIARI ZIRIKA

Gure errialdeko ondamendiak gertatu ta bereala zabaldu zan aurre kontu batzuk moztu egin bear zirala. Eta jakíña, beste sail bat edo bestegaz batean, lenengotakoa Kultura.

Ondamendiak, ain zuzen datorren eta datozen urtetako aurre-kontuak aztertzen íñarduen egunetan gertatu ziran.

Lenengotan, ondamendien kopuruaren ardurapean, ala bear dala ta makurtutera biguntzen da bat.

Baiña otz jartean, barruko arrak bizitu egiten dira' eta azka eragiten asi.

Eta batek, batera ta bestera begiratu, eta milla ekintza ikusten ditu, gaur eukiterik merezi ez leukenak, eta oraindik dirua artzen dabenak. Beste batzuk gaur ainbeste premiña euki ezarren, lendik daukezan laguntzak jasoko dituenak.

Ez dot ezagutzen Bizkai'ko Aldundiaren aurre konturik.

Laster agertuko zala barria, baiña itxuraz, Madrid'ek be ba dauka ze ikusi Bizkaiko Aldundiagaz eta bere aurre kontuan. Arek *zer emon* eta zer laga, zer eskiñi edo zer kendu, gero emengo kopuruetan, arrantzaleak esaten-daben lez, "patilla" egiteko.

Origaitik ezin nei zeatz esan Kultura maillan zer egiten dan, zer dagon egiteko eta zer egin bear litzaken.

Aidetik dakit erakunde batzuk, Museo. Orkesta, Konserbatorio eta abarrek diru sail andiak bear dituela eta geiago nai dabela. Premiñarik ez da agortzen.

Nere itauna au da: Kultura lez bear daben maillan, aintzat artua izan ete da oraiñarte euskera? Euskera- maillan ez ete dagoz milla utsune, ia esateko Jainkoaren eskutik be lagata? Eta bizkaiera gaixo eta errukarria, Bizkai'ko Aldundian bertan maiteena eta zaindu bearrekotan zaindugarrienetakoa dan bizkaierak, euki ete-dau –gerokoa ikusteko– bear daben ardura eta kezka eta laguntza gure aldunen artean?

Gaur bertan, Bizkairako diran agindu, agiri eta beste erakusgarrietan, zegaitik *ez* dau gure Aldundiak bizkaierari zor dauksan lotsa eta babesa gordeten eta zaindu eragiten?

Eta. íñor ez dabillan toki baten zementuzko zubi zatar bat uriolak tatarrez eroan dabela eta arentzako, esate baterako, dirua egongo ba da, ez ete dogu lortuko gure bizkaierari ilten ez lagateko, besterik ezean be bere biziari eusteko, gure Aldundiak begirapen pizkat eukitea?

Ain zuzen be gu izan bear ete gara, eskutuko uriol zatar batek tatarrez eroatera atzamarrez izentauta egon eta eskutik lagata geratu bear gareanak?

Etxeak, zubiak, bideak, mendiak, ermitak, Bizkaia dira. Ezin ukatu. Al dan laguntza bear dabe eta egin bediz alegiñak lenera ekarteko eta obetuteko. Baiña gure euskera, guk besterik. ikasi ez dogun berbeta au, ez ete da Bizkaia? Eta ez ete dau uriolak baiño beste ondagarri pozoitsu eta zitalago batek ondatu?

24-IX-83

ALKARTASUN EGUNA

Urtero gogoratzen dogu jai bat: Misiño eguna. Domund.

Bear ba da lenengotan, beste espirtu bategaz' ospatuten asia. Zeaztuten jarrita be, gure pentsakerari bereziago ikutu eragitearren, danon egun orde, txinoen eguna edo antzera deitzen asi giñana. Zuririk ez ba legoke lez misiño premiñan. Fedearen zabalkundea baltz eta zurien arteko auzi ba litzaken eran.

Ziurretik lengo denporetako gure pentsabidea gaur baiño estuago zan orretan, gaur baiño laburrago eta Eleizaren asmoen argibiderako gaur baiño estuago.

Gaur ikuspegi zabalagoz begiratzen da "misiño" premiña. Ezpai barik, ikasiago gara. Gaur ez da bakarrik sinismen utsa Jainkoagaz lotu naian eskatzen doguna. Gaur, orrez gaiñera, eta ortik albora be, anaitasun bizitza eskatzen dogu; gizatasun bizitza bat alkarregaz mundutar bizi guztiok zela-ala anai lez eza-gutzeko. Jainkoagandik artu dogun bizia da gaur ezaupiderik gurenena, bizi orrek bizidun guztien eskubidez damoskun anaitasun premiñaren jarraipen eta lotueragaz kezkatu eta arduratu eragiteko.

Era baten, ikuspegi baten, Eleizari buruzko gaurko agerpide asko, ez dira zeatzak Gaur ezaupidea eta praktika ia naastu egiten doguz. Orrela ainbat erri, ainbat naziño, bete-betean katolikotzak etsiten doguz, nai ta Eleizagaz eta bere aginduekaz irutik batek edo gitxiagok bete ez, ezaupidea eukiarren.

Eta bestalde, beste errialde asko aurkakotzat edo ainbestekotzat etsiten doguz, nai ta eurak, sinismen eta pentsakeretan, jainkotiarrek izan.

Gaur zabalkundea lanei eta ardurei amure emon barik, Irugarren Mundua deitzen dogunari bere premia eta bear izanetan arpegi emoten alegintzea da oraingoz ekintzarik nagusienetako eta orretan arduratzen gara edo beintzat arduratu bear gara. Au da alkar ezaupide eta alkar arte garratz eta gordiña da gure auzietako bat. Garratz eta gordiña, ain zuzen be gure artean ezbardintasun nabarmenak ezagutzen nabarmenak ezagutzen diralako.

Orri batzuetan irakurri dot: Iparraldeko errialdeen esku dagola munduko aberastasun guztiaren euneko larogeia. Euretán mundu guztiko industrigintza-
ren euneko larogeia ta amairua. Eta orretara banatzen dirala gizonaren ontasun
bideko alegin guztiak.

Ortxe dago, ain zuzen, gaurko gure anaitasuna sendotu bearra. Sekula zu-
zen eta bidezko izan ete lei, gaur gertaten dan lez, berrogei milloé pertsona al-
de batetik gosez ilten, beste askok gosea zer dan ez dakien artean?

Ez da bakarrik janarien gosea soññaren gosea. Espirituak be bere gosea
dauka edo ta bere egarría, osabidetzak bere daukan lez edo ta ezíketa eta ira-
kaskintzak era berean gure bizibidea eratu al izateko bear dogun aterpe ta etxe-
gintzak.

Aurtengo Domund-deia ortik doa. Mundu guztiko bizidunen arteko alkar-
tasun billa, "solidaritate" billa. Ori da izan be guk artu gendun kristiñau izatea-
ren azia ren loratze eta frutu banatze jatorrena.

2I-X-88

ALKATE SOIÑUA

Aldi baten, alkateak naiko zeregin euken batari ta besteari telegramak bial-
tzen, euren eguna zanean edo ta izarrez beteten zituenean, txanda eltzen zanean
batentzako edo bestentzako gomendioak eskatzeko ezaupidea eukiteko.

Gomendioak, azken baten, guk bizkaieraz goraintziak esaten dogun orixe
dira, berbeta itxusiagoz "errekomendasiñoia".

Besterik ezin egien, egin be, izentatu zituen atzamarrak euren ukabil pean
euki eta zaintzeko aukeratu zituelako.

Orregaitik gomendiotan jaoaten zan euren borondatea eta euren alkatetza.
Eta jaboí bitsa lez galtzen zan euren nortasuna, egunik geiena alkate makilla
eskuetan erabillela, guzurrezko Te Deum eta Tibi Homini kantu, aintza eta
arrokerizko koipekerietan.

Abadea eta odolostea egiten dan lakoxea, esaten da, eta alkate aukeratzen
dan lakoxea.

Danetako alkateak ezagutzen dira: Buru utsez jokatu nai dabenak, edo ta
biotzaren taupadekin dana neurtzen dabenak; gizonaren arrak erakusten d kie-
zanak, edo ta etengabeko ittotasunean euren asarrea erakusten dakienak.

Gaitz da gaur alkate diru -egintzaillea gertatea. Nai ta orretarako zaletasuna daukenak be tartean egon. Bakarren batek ez dau erregelarik egiten. Inguruko begi-zorrotz eta gogo salatariak laster salatu eta mendetuko leuke.

Alkatea, gaur, serbitsari da agintari baiño geiago; ordezkari, gidari baiño sarriago.

Erriaren morroi, bere alderdiaren menpeko eta... beste alderdi eta erakundeen betozko da gaur alkatea.

Gaitz dau alkateak erritar askok nai izango leuken gizon onaren zeregiña betetea. Askotan bere gain be ez dago.

Baiña alkateak, nai ba dau, eta bere izatean eta senean dago ori, ordezkari-tza orretan, morroitza orretan, bere sillua eta bere nortasuna sartu eta irarten jakin bear du.

Txori malu lez iñok artu barik.

Eskutuan jaurti leikioezan arrautza eta arriak, esku etoi, maltzur, barru -zital eta koldartien egiñen bakanak, alkatea goratu baiño ez dabe egiten, askotan zintzotasun eta leialtasun eta betetasun baten ezaugarri eta erakusgarri izaten diralako.

Alkatetzan txistu garratz ugari iruntsi bear izan dituenak ezagutu doguz urte oneitan. Eguneroko garrazkeri eta bekaizkerien gain, etxearen bakean be negar egin bear izan daben gizon jatorrak. Ontasun uts ziranak eta bizi-alargun lez geratu diranak.

Alkateei azkatasuna eta zabaltasuna eskatu nai izan dautsaguz, zarataka eta orruka, guk, gure estutasun eta txikikeri eta indarkeriz azkatasun ori ukatu edo laidotzen genduen une berbertan.

Alkate batzuk martiri egin doguz.

Alaz eta alkateak, aukeratu zituen erri taldearen eta alderdiaren menpe jarraitu dabe. Ez dabe eten nai izan euren ezaupide eta konfiantza emon eutsen gizatalde eta alderdiagazko katerik.

Origaitik aurtengo Aberri-Eguneko jaietako bat, alkateei omenaldia, abertzale talde baten esker on eta aupada izan da. Alkartasuneko biozkada bat. Ezaupideko besarkada.

Lengo denporetan txistulariak "Alkate soiñua" jotzen ebenean, errietako lenengo ordezkaria gogoratu eta goratuz batera, legea zaindu eta lagun urkorik ez zala iraindu bear, adierazi nai izaten zan.

Ori zan "Alkate Soiñua"ren gogo, nai, izate, esate eta erakustea.

Ni aurtengo Aberri egunean, gogoeta orregaz ibili naz. Eta alkate askoren izenak gogo eta biotzean nebazala. Danok dakiguz izenak.

ALK, 'EAK

Lengo baten Haro'ko alkateak jaurti eban, erdibitzen lez ipiñi ebela-ta. "Me han puesto a parir" esan eban berak.

Nunbaiten irakurria daukat Aulesti'n Udaletxean gordeten ebela edo dabela andrak erdibitzeko erabilten eben aulkia eta aren berbak Aulesti'ko aulkia gogoratuaz, Udaletxea eta andren erdibitzea alkartu irudimenez.

Andrak erdibitzea, beste era baten esanda. seiña egitea da, ta ez gaur lez, min bako sortzez, negar; estutasun, intziri, garraxi, txilio eta miñez baiño.

Onetan be erri bakoitzak bere esateko era eukiten dau. Ondarroa'n, esate baterako, andra bat onela gertaten danean, itxas umorez, txalopen botatera gogoratzen dakie.

Gero ikusi bear txalupa antxoa txikitarako edo mielgatarakua izango dan.

Baiña, lengora jota, ain estu eta garratz ipini ete doguz gure alkateak?

Ez dakit zegaitik, gaur agintarientzako bat-bateko ez ezagutze, ezin ikusi edo ta gainetik egiteko gogoa agertzen dogu. Oillar jokoa. Edozein toki, egoera eta lagun artetan.

Egunotan batzar baten nitzan. Itxuraz begirapen andiko gizon artean. Eta asi orduko, mai-burutik esan eben: Mesedez, toki estua da, ta batzar luzea izan leike, ta bitartean ez erre.

Esanaz batera alboan neukan batek zigarrotxoa biztu eban eta ukondoiz jota, "gizon eskubideak" esaten eustan. Eta barre egiten eban, mai burukoa keia nundik sortzen eta zan begira ebillan artean.

Nik ez dakit alkateak aginpidean ze eskubide dauken.

Gure umetako igarkizunen artean ba egoan onelako bat: mendian jaio, mendian bizi, errira etorri ta bera nausi. Zer dala? Jakiña: alkate makilla.

Berebiziko lotsa eukan orduan, makillak be bere biurria zintzo zaintzen ebalako.

Alkatea. Asko sartuta dagon berba izanarren, ba dakigu arabeen izkuntzatik datorrena dala. Bizkaia'n ba gendun lenago berba zar bat, arkaikoa, izen ori adierazoteko: endore.

Ez nator gaur esaten bata kendu ta bestea erabili bear danik. Orretan ez nabil. Bai gogoratu nai endoreentzat ba egoala esaera zar bat, gure zarrak bizitzako arduretan ikasi ta gogoratzen ebena. "Ez egik ezer, endorea, entzun artean bestea."

Sasoi baten an goiko landetan kantetan ebizen eperrak zerbait egin ei eusten praketan Gernika inguruko alkate bateri. Orrelakorik ez da entzun izan endoreakaitik.

Entzuten ikasi bear dabela?

Ez dakit gaur kontseju onik artuko ete daben, baiña entzun... Ozpelakin be-
larriak gorritzen diran baiño biziago eroaten ei dituez gaberako gure alkate ba-
tzuk.

Alkateak gaur,-euren nortasuna barik, euren alderdien eta jokabidearen
menpeko dira, eta artu be alderdi bateri egin nai yakozan irain, ezin-ikusi, bas-
tertze, zitalkeri eta txikikeri guztiak]epoan artu bear.

Alkate izatea gaur ez da agintzen jakitea. Ez da gizon on izatea be. Ez gara
orretarako giroan bizi.

Bekoak goikoa benzi leidi. asmuz eta jakitez, esaten dau Bengoetxeatarren
ikurdiko esaerak. Baiña gaur ez dau iñok bengoetxeatar izan nai, danok goi-
koetxeatar baiño, ta ba dirudi danok makilla goian erabili nai dogula ta alka-
teak zagi-dantzako zaragi lez erabili.

Eta alkateak ez dabe ori izan bear.

Alkateak erri baten ordezkari dira eta erriaren lotsa bear dabe, alderdi bate-
ko nai besteko izan.

Erriak irabazi egin bear dau alkatearen nortasunagaz eta lotseagaz, eta ez
txori-malu lez erabili ta erria indargetuta laga.

Danen alkate izatea nai ba da, besterik ezean be danon lotsa merezi bear
leuke.

10-1-81

ALTSATSU'KO AIZEAK

Idiazabal'dik Etxegarate'n gora igo, goiak artu, oraindik Idiazabal deitura-
ko gatzaiak saldu ta erosi leikenaz konturatu, ostatu-etxe polit eta txukunak au-
rrez ikusten jarraitu, Zegama'rako bidea laga ta aurrerago, napar mendietako
pagadi eta arizti bete eta sakonekin konturatzen asi orduko, bide egaleko landa
baten, ezkerrean, ermita txiki bat: Ama Birgiña Erkudengoa.

Ez andi ta ez txiki; ez dotore ta ez baldar; bide egalean ez ba lego, ardi-txa-
bola itxuran, orra altsatsuarren zaindariaren ermita.

Ama Birgiña Erkudengoa
elurretako zuria,
esku baten iguzkia ta
beste eskuan euria;

*ark guretako gorderik dauka
egoki zaigun guztia.*

Emendik erri barrura oraindik bide luzea dago, baiña beste denporetan, le-
gortetean, altsatsuarrek pozik eroeten ekien errira otoika eta eskariz irudi au.

Zegaitik lur ugaridun erri baten kaleen zuzentasun eta txukuntasunari,
etxadien jokera, tankera, kutsu, argitasun eta egokitasunari geiago begiratu ez?

Ba dirudi Altsatsun'n, erri erakunde kontuan, urbanizazio kontuan, ostopo-
rik ez dala egon. Bakoitzak nai ala egin. Orrela kaleak okertu egiten dira eta bi-
deak estutu, kantoiak kurutzetu eta ikuspideak laburtu.

Alderdi bat, eleiz ondoa, au da, alderdi zarra, dotorea da, zabala, euskal kutsu
bereziduna. Bestea alkarren gain edo alkarri lotuta, bita rte eta egokitasun gabe.

Orra Altsatsu, Naparroa'ko sarreran, errege bidearen bide- kurutze ta tren
bidearen eratzalle, edo obeto, tren bideen korapillo.

Euskal izenak barretan, edari- etxeetan; euskal abizenak saltokien izenetan,
jaubeen jatorria erakusten; banaken bat kantoien deituetan... Eta euskera?

Emengo baten eriotza gogora datorkit. Trenetako langillea zan. Emazteak
ez ekian euskerarik. Diabetis baten zorabiotan jausi zan zartzarotan eta euskeraz
otoika il zan. Berak, aurtzarotan ikasiarren, denpora luzetan ez etxean ez kalean
itz egin ez eban izkuntzan.

Zenbat altsatsuar jator, sortzez eta odolez emengo diranak, gaur emen?

Iru milla lagunetan ibiltzen zan erri au orain berrogei urte. Ordurako tren-
bideak erbestetarrak erriratu zitun. Gaur zortzi milla eta geitzeko asmotan. Irur-
zun erako bidean lantegi barriak igarten dira.

Ordez, euskerarentzat, zaarren gogo eta guraria, norbaiizuen ametsa eta ikas-
tola txikietako aalak. Oroitza. Kontu egin, eleizan bertan, gauza andi bezela, osta
osta san Inaxioren martxa edo kantu zaarren baten itzak jai berezien baten entzu-
ten dirala. Eriotza etorri bear, nire lagunarekin bezela, galdua gogoratzen asteko.

Eriotzaren aipamenak kanposantu ondora eroaten nau. Otadi'ko Kristo
emen dago. XVI garren gizaldiko "Kristo" ederra. Pizkunde giroko. Aldare au-
rreko burdin sare edo erreja baliotsuaren atzean.

Fray Juan karmelita anaia eta San Roman eta Gaintza'tar Martin umetxoa
gogoratzen dira orain irureun urte inguruko mirari baten.

*Zeruetatik etorriya da
maitasunez beterik
gure Altsasu'ko Otadi'en
dagon Kristo besuak zabalik zuen
Juan Fray Santubak bota izan
sagarra ermita barrena,
Juakin San Roman bizturik
lasterka juan zan argalia.*

Orra bertsuak.

Eta ona kontuak: 1.300 famili. Zortzi milla bizilagun. Geienak kaskoan, Auzo txikiak: Amezti, Ibarre, Sorozarreta. Erreka bi, oraindik ur garbiz: Alzania eta Burunda. Azken au geroago Arakil'en galtzen da.

Baso eta arrizetatik datorren industria. Bai eta kautxo, plastika eta abar, 1.800 langille. Ugaritzen, Kafe eta gaurko Club orreitakoetan ere bai.

Eta basoan, San Pedrotarako deika, ate bi eta giltz bidun ermita. Istori luzea. An, Altsatsu eta Urdiain, San Pedro goratzeko txandaren zain.

I14V-76

AMANTZI

San Estebantxe, beti len letxe, esaten da toki askotan.

Edo ta beste au, luzetxoago: Natibitate, ase ta bete; san Estebantxe, andik aurrera len letxe.

Guk, goseak arrakalatutako itxurarik ez dogun Jez, biak egin eta egiteko gertu gagoz.

Natibitateari, Eguberriari, berea emon geuntsan.

Batzuk esaten dakie Ondarroa'n il leikela, emen ilteak merezi dauala, illeta (entierroa) ederra egiten dakigula-ta. Ez da nik esana, sarri entzuna baiño, eta irakurria be bai.

Baiña ori egia izanarren, egia da baita be emen bizi leikela. Eta gure zeregiña bizitea dala, al dan arte eta al dan neurrian. Bizi, ez egon edo iraun, bizi baiño. Ori gaitik esan giñei illei kantaten dakigun lez biziei poza emoten be ba dakigula.

Ala Natibitate sinismenak agintzen dauskun eran egun eder eta pozkor igarero *gendun*, guk alegin eta besteak lagunduta, bake, fede eta oiturretan.

San Estebantxez gertu gagoz lengoari ekiteko.

Gure lengoa, eta oraingoa, idaztea da. Bai eta guretarrak, batez be euskal maillan eta saillean jardun eta alegindu ziranak, argira ekarten alengintzea be.

Lenengotik, etxea lagata, auzoko bat dator kit gogora: Urriolabeitia tar Amantzi, lekeitiarra. Oraintxe, gabon jaietan dira 39 urte Biarritz'en il zala, gerra ondorenez atzerriratuta egoan denporan.

"Euzkadi" egunkaria irakurten gendunok, tartetan an ikusten genduzan gu-

re ikurdien (eskudoen) marrazkiak eta abizen eta toki izenen eta deituren zeazketak.

Nik agurea zala pentsaten neban eta alaxe, gure gerra aurretxoan, abizen batzuen goraberan euki nitun karta batzuen bitartez ezagutu neban. Bera, lenengotik, aita bat lez agertu jatan, bere aita be ondarrutarra zala ta ondarrutar bategaz jarduteko pozarren.

Amancio Heraclio zan bere izena. Berak, Arana-Goiri'ren izendegia lenengotik onartuta, "Amantzi" aukeratu eban beretzat, i'n amaierako gizonezkoen izenak lenengotan gure artean sortuten eben irribarretxo edo ixeka lakoa bastertu nairik.

Erderaz geiago idazten eban, euskeraz baiño, baiña bere lanak, lan sakon eta mamintsuak, euskal gaia eukiten eben oiñarri. Euskaltzaindiak, sortu bezin laster, laguntzailleak (urgazleak) aukeratu zitunean, bera aukeratu eban orrelakoen arteko.

Gaur, udaletxetarako idazkariak dirala auzia garratz ba dabil be, gogoratu 61 urte bete dirala berak, Eusko Ikaskuntzak Gernika'n eratu eban batzarreko itzaldi baten, euskera eta laterria (estadua) gaitzat artuta, estaduak gure arterako bialtzen zitun notario, osalari, idazkari eta enparauak euskaldunak izatea eskatu bear zala aldeztu eta ortarako dei larria egin ebal.

Zoritxarrez gure deiak batzuentako astunegi diralako ez dira bear lez zabaltzen, ez estaduan, eta txarrago dana, ez gure artean be. Eta betikoam gagoz. Baiña alakoren baten etorri bear ko da gure eguna be san Estebantxe'ren ondoren iñuzentien eguna be etorten dan lez.

28-I-83

AMERIKETAKO BERTSOAK

Lengo gizaldiaren azkenetan, Argentina'n ba ziran tokiak euskaldunak etxean lez aurkitzen ziranak.

Azken egun oneitan zerbaiten gertaera eukiz bi gogoratuko doguz.

Bat: Errenderi'n jaio ta Ernani'ko Oieneder baserrian bizita gero. ara Joan eta Buenos Aires'en il zan 1896 urtean, il onen 4'n. Izen-abizen jatorrez Juan Bta Belaunzaran. Ezagutzeko, "Patxi Bakallo.. deituraz erraz eta errikoiago.

Bere bizitza ta mirariak igarteko, orra bertso bat:

*Kriaturak izandu
ditut bederatzi,
lau il zitzaikidan ta
bost ditut bizi;
Jaungoikoai zor dizkat
ogei milla grazi,
berak lagundu eta
danak ditut azi;
gozo edo gazi
mantendu ta jantzi,
ez txarrera utzi,
dotriña erakutsi...
bost egi esann eta
ilko dek Patxi.*

Ba da esan eta erakutsirik bertso onetan.

Zintzotasuna, esker ona, familiko ordena eta premiña, bizitzako kezka... Aziketa eta eziketa. bizia ta bizi bidea; soiña eta... dotriña.

Garizuman gagoz. Gogoan ete dogu garizumak zer esan nai eban oraindik oraintsu, gure sinisteen irakaskintzan?

Ez zan bakarrik ikastea. Gero, orain lanerako "certificado escolar" lez, gure kristau bizitzako ezaugarri ta ongarrien jabe egiteko, "txartela" bear izaten zan.

Ez bakarrik umeak eta gaztetxoak. Bai gizon mardulak be. Eta txarteletara joan egin bear izaten zan, bakoitza bera ioan, ez gaur sarri oituten dogun lez etxekoren bat bialdu osagilleari gaixo geran "konfirmaziva" eskatzera.

Eta an kontuak. Dan Danak ez ekien Fernando Amezketarrak aiña txarteletatik aizetsu urteteko.

Goazen bertsolariekana.

"Patxi Bakallo" il zan. Eta urte bi geroago, Otsailla'ren 21'n, Pasai'ko molla inguruan ientea ugari itxasontzi baten aurrean.

Zer gertatzen zan?

Beste bertsolari bat Ameriketara. Premiñazko ete zan bertsolariak ara joatea?

Andra gazteak ba ei ekien garai aretan kantatzen:

*Indietan dot senarra
dirua franko duena...*

Pello Mari Otaño zan oraingotan arako bidean. "Txirrita."en bertsoak irakurri:

*Otsaillan ogeita bata
San Polikarpo eguna,
Pasai aldera makiña batek*

*pauso emana duena,
Amerikara dijoalako
gure Pedro Mari ona,
zeiñek ez luke estimatuko
alako bizi laguna!*

Diru egarria eta zan Otario ara bultzatu zuana?

Leike. Baiña orduko giroa ere. gure Euskalerrri bedeinkatu onetako giroa,
ez zan ain zuzen amesgarri eta tengarria. Otaño berberaren itzak gogoratu:

*argatik gerok batere kulpik
ez gendubela ezertan,
txit urrutira Joan bearra
izandu nuben hatetan,
oso gazterik arkitu nitzan
Ameriketako Panpetan
ta bizimodua txit erosua
iduki arren an bertan,
nere biyotzak etziran uzten
sekulan ere paketan...*

Garizuma aldi onek examiñara heartuten gaitu.

Kristau eta euskal izatea nastean darabilguz. Gure zaarrak giro garratzean
bizi izan ba ziran. gu geu ere ha... Iño!

Zenbatean ete dogu bakoitzak gure parte gaurko giro onetan eta zenbat
alegin erri onen mesedean?

Diario Vasco 11-III-79

ANDER DEUNA

1924 urtean, gaurko egunez, Euzko Langilleak Ander deuna ^gutu eben euren zaindaritzat.

Jakiña danez, edo iruditu bear danez, orrelako jai baten, gure errian, meza eta dantzak egoten ziran. Eta ordu sakratu lez, jatordua.

Eta itzaldia.

Euskalerrrian "idealista" asko egon ziran abertzaletasunaren lenengo denporetan orduko ikasle ta ikasien artean. Bai eta gizon egiñen artean be.

Batzuk iraun eben. Beste batzuk asierako ekin eta jo bearrak potto eragin eta bide errezaletara jo.

Urte aretan, egun onetan itzaldia Santi Meabek egin eban. Danok dakigu, arek be gure erri txikiko jokabidea, zabalago batera aldatu ebala. Izan be gure denporetan, eta gero be, kandela batzuk metxa lodiegiagaz asten ziran eta argi ariñegi urtu.

Zegaitik Ander deuna euzko langilleen zaindari?

Or langille sortzailleen abertzaletasuna ikusi bear da, nire ustez. Eta kris sortu zan abertzaletasuna.

Gero geroakoak, edozetara be, bide onetan asi ziran gure erakundeak.

Arana Goiri'ren "gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat", giroan ebillan. Nai ta ikusi ezin ebenak, arerio eta enparauak, esaera ori "racista" zala esan eta idazten ibili, "egoísta" zala eta eleiza berberaren ukapenaren eskale ibili.

Gure gauzak, asieran, olaxe ziran.

Izan be, Ander deuna, Arrigorriagako gudaketari lotuta, ia euskal asaba zar lez artzen gendun.

Bere eguneko esaera guztiak ez euken ze ikusirik egun onetako jaiari emoten jakon ospakizunagaz.

Danok dakiguz eguneko esaera jatorrak: "San Andres, maia paratu ta ogirik ez". "San Andres, goizian Azarua eta arratsian ez". Edo ta "San Andres, goizean Azarua eta gauean Abendua".

"San Andres, lau kopauan lau tremes, bosgarren saman trabes". Eta berba berbera errimarako erabilita, "San Andres, txarria askan trabes".

Esaerak esaera, guk beste aitzaki bat billatzen gendun egun ori ospatuteko.

Guk, bederatzireun urte inguru atzera jota billatzen gendun egun au jai egin eta goratzeko gaia: Arrigorriagako gudaketa deitzen danean.

Orduko gure asaben erri-zaletasuna goratu nai izaten gendun, orduko espi-rituak geroago be jarraitu egian eta dagian.

Onetan Enbeita bertsolariak igarri eta jasoten eban gure egoera:

*Arrigorriagañ zan
ondatu Ordoño,
gerrate andia, baiña
bizi da oindiño.*

Origaitik artu gendun Ander deunaren eguna jai berezi eta ospagarri.

Eta, au be egia, euki genduzan denporak, egun onetako apariak, lenengo kristauak katakunbetan legez, eskutuan egin bear izan ziranak, eta ala ta be, baketan iñarduen maikideak jatetxetatik kartzeletara eroan zituenak, Jainkoak jakin zalako aitzaki eta garrazkeriz.

ANDONI LANDAJUELA

Eguaztenean, Urria'ren 20'an, Arratia'ko lurretan, Arantzazu'n, Andoni Landajuela'ren illetan batu giñan bere auzokide eta senideen artean ainbat euskaltzale.

Arantzazu'ko eleizan lanetan diardue. Errietan lanak egiten diranean, batez be garai berezietan, boto billako ekintza dala esaten da, eta eleizetan, diru billa.

Ni, aitzaki bat edo beste, egitearen zale naz, egiña, beti be, mesedea delako.

Eleizako lanakaitik, erriko plazan alkartu giñan, bere gorpuaren inguruan, fededunen anaitasuneko azken agurra emoteko, eta bertan eskiñi be, gure eukaristia.

Lotsaz, errespetuz, jator eta miñez. Jaunartze denporan txistuak jo eban eresiak zotin eragin eutsen askori eta negar ixilla atara.

Igarri barik ba guaz mardulok. Nik aiña urte berak: 67.

Eta ba guaz bizkaitarrok. Ni baiño txukunago, begiratuago, bizkaieraz idazten.

Ez zan idazle ugaria, bai egokia.

Idazle lez, bear ba da, ez dautse askok ezaupiderik emongo. Zelan emon, lau katu izan eta alkar ezagutzen alegiñik be egiten ez ba dogu?

Bilbo'ko Matiko'n bizi zan.

Azken urtetan nekez, oiñak loditu ta biotzeko arnas estuz billatzen neban bazterretan. Alaz eta eldu egiten zan euskal jai guztietara, eta zeregin askotan borondatez lagundu.

Euskerazaleak'en etxean, bazter batetik zaintzen zitun ate nausiko sarrera guztiak. Ara batzen diran ikasle guztiak ezagutzen zitun eta danentzat eukiten eban bere irribarretxo samurra eta erantzun egokia.

Euskeraren alde edozer zeregin egiteko gertu. Arek ez eukan orretarako aitzakirik. Eta minez eta nekez ibiliarren, eldu beti, sekula bere irribarre bigunik galdu barik.

Gaztetan arratiar askoren jokabidea artu eban: Bilbo'ko nasa eta portuko lanetara ogia irabaztera jo.

Arratiarrak maite izan eben luzarotan Bilbo'ko kaia. Biibo'k be biotz onez ikusten zitun.

Egungo ibilpide egokienetako bat tranbia zanean, arratiarrren umore eta bilbotarren txirenaden gatzari pinportak atara eragiteko trole saltaridun tranbia ipini eutsen Bilbo'ko "Arenal'etik" Arratia'ko "kapitaleraiaño". Arratiarrentzat Bilbo'ra oiñez baiño arintxuago elduteko aukera zan, nai ta gerria eta saietsak geiago nekatu, eta bilbotarrentzat Gorbea azpiko esne, barazki eta basokiak kutsu barik bilboratzeko egokitasuna.

Ezin ukatu, gaiñera, tranbia ori Bizkai'ko uri nausiarentzako, euskeragazko lokarria zanik be.

Arratiarrak, bear ba da egunero etxeratzeko ibilbide orreri esker euskereari eutsi al izan eutsen nai eta portuko lanetan milla lekutako billatu. Gabriel Aresti zanari entzun izan neutsan arratiarrei esker ikasi ebala berak euskera, Bilbo'ko nasan.

Landajuela'k arratiar eta euskaldun iraun eban. Iraun bakarrik ez, ekin eta bizi. Eta bizi eragin.

Ilten gareanean danok gara onak. Baiña Landajuela'k bizi zan artean lortu eban ontasun mailladia, ilda gero iñori guzurrik esan eragin barik. Ori da egia.

3I-X-82

ANDRA MARI MARTIKO

Ai ene, gure Andra Mari egunak!

Martiko, Udako, Dagonillako, Arrate eta Gardotzako.

Inguruan inguruko esango neuke, edo lekuan lekuko.

Deitura bakoitzean eleiz andi bat, edo ermita bat. Zenbat eta pendizago, maiteago.

Beti be erromeri egun. Jai oso edo jai erdi. Bateko konbidautza edo beste-ko jana. Biamonean egingo zan lana, ortarako egunaren orduak be ogetalau ziran-eta. Baiña egunari berea emon eta or konpon.

Bezpera ta guztiko jaiak izaten ziran. Kapa eta intsentsudun "Magnificat" eta guzti.

Oraingoa, Martikoa, Kandelari neguan lagata, asierako lez artzen zan eta itxaropenezko Andra Mari izaten zan.

"Andra Mari Martikoari bezperak kantatu ezker, gorde jakea komodarako". Itzalago izaten zan Iraillakoa. Batzuntzat Arrateko, bestentzat Gardotzako, edo ta beste deituren bateko. Orduko esaera itzalagoa izaten zan: "Andra Mari Gardotzakoari bezperak esan ezker, jakea lepora".

Beraz ba dago aldia bien artean.

Martikoak Udabarriari agurra ekarren beragaz batean. Euskalerra illun onetan, negu baltzaren etena.

Andra Mari Martikoak ba eukan arrantzaliენტzat aldi on eta aberats baten asiera. Esateko, neguko zarrak eta urte erdiko ogiak ordaintzen lagunduko eban sasoiaren asiera: antxoa sasoiarena. "Andra Mari Martiko, arrain barriak tati-ko". Naiz eta batzuk esan Aste Gurenean santuak aizea artzen atara arte. antxoak ez ebalagertu nai izaten.

Gaur, arraiñaren ibillera egualdiagaz edo itargiagaz batuko geunke. Baiña ez ete dauka zer ikusi Aste Santuak eta itargiaren goraberak?

Baserritar eta artzaiñentzat be, neguko edurtzak makaltzen igarri eta abereak mendira bialtzen asteko garaia: "Andra Mari Martiko, beiak mendira jaurtiko".

Mendizaleak be Andra Mari Martikoz dirua erabili bear izaten eben patrikaretan. Ez eutsen gure zarrei burutik iñok kenduko "Kukuak kuku Erromako zubian, zortzi egunerako agertuko zala Euskalerrian".

Jakiña da sinistuten ebela kukuaren esana: Kukuak esan eban Andra Mari Martikoz ez ba etorren, berari ondraz egiteko".

Ba dakit gaurko gazteak ez dabela olakoetan sinistuten. Umekeri edo aztikeri edo sorginkeri diran lakoan laga eta bastertzen dituela esaera orreik. Baiña ba daukadaz deitzen daustenak, orrelako gauzak atsegiñez irakurten dituela eta tartetan gogoratu eragiteko.

Adiñekuak maite izaten dituez orrelako oituren gogoratzeak.

Besterik ezean euren asaben sinisteak gogoratu eragiten dautsez.

Gaur aiña buruauste ez eukela gure zarrak?

Ez gaur aiña jolasgarri eta aringarri eta buru eta kezka garbitzaille be!

25-III-84

ANDRE-ALKATEAK

Or ibilten dira erdaldunak andrazko bat erriko agintari nausi aukeratzen danetan alcalde ala alcaldesa deitu bear jakon.

Eta euskaldunak?

Elantxobe'n egon naz erri aretako nortasuna izenpetzeko eskubidea daukan Arriandiaga andreagaz.

Bizkaitar batzuk bizkaieraren alde daroagun ekintza indartzeko bere izena eskatu dausat.

Pozik emon be.

Ontaz esan nei eskatu dautsedanetatik, batek bakarrik ukatu daustala bere izena. Iñor baixen bizkaitar sutsu; bizkaiera gitxik edo banakak aiña ezagutu, ikasi eta dakiana, baiña iñogaz ezkondu nai ez dabena. Ia ia birgin eta martiri.

Origaitik ez gara asarretu. Berak sonetoak egiten jarraituko dau, eta nik lan arin oneik.

Berak, idazten dabenetan, batuan idazten dau. Nik, onezkero, nire euskera makal, baiña askok ulertzen daben onetan amaituko dodaz nire egunak.

Eritxi guztiak aintzat artzen dakit. Origaitik ez gara asarretu, ez eta asarretuko be. Odolik ez beintzat. Berbak aizetan makaltzen dira.

Edonoiz eta edonun alkarregaz batzeko gertu egongo gara. Eta alkarri laguntzeko.

Gure eritxi ez-bardiñak ez dakit Euskalerruari mesederik egiten dautsen. Bateri bai ziur, Telefonikari.

Goazen lengora.

Elantxobe erri txiki dala, asko dira bertan senitarteko egiten diranak.

Euskeraren arloan elantxobetar jator eta argi asko ezagutu dodaz: Aita Imanol Arriandiaga, Gorgornio Renteria, Andima Ibiñagabeitia, Aita Berriatua, A. Ruiz de Azua "Ogoñope" eta abar.

Alkatearen etxean senide zituen Arriandiaga eta Berriatua. Klaretiarra bata, frantziskotarra bestea. Biak fraileak. Idazkeran biak arrautza bateko, alaz eta bata zuringoa eta bestea gorringoa.

Merezi dabe il ziran euskal idazle jator orretik elantxobetarren gomuta eta omenaldi biozkor bat.

Ez dautsat orrelakorik esan Arriandiaga, erriko arduradun dan andre egiñari. Buruauste asko darabiltz. Urak azpitik zirikatzen daben mendiak, egon ezinda okertu eta arrakalatzean, kalte ugari egiten diardue Elantxobe'ko kale eta etxetan.

Onen ardura, kezka eta lo eziñez bizi da alkatea.

Baiña zelan deitu bear dautsagu gure errietan alkate makilla erabilteko eskubidea dauken andrazkoei?

Itxas errietan kapitanesia daitzen dautse kapitanen emazteei. Alkate zeregiña orrela erabiliz, alkatesia diño batzuk. Ezpai barik ori erderari mun egitea da.

Andereño berba osatu dan lez, alkateño ez ete litzake deitura polita?

Orretan laga daiogun berberaz. Izenpetu ondoren berak daukan nortasuna berberak idazteko eskatu dautsadanean, zalantza barik idatzi dau: M. Arriandaga, Elantxobe"ko alkatea.

Esatea lez, ez al daukagu emakumeak erriko makillak emoten daben deitura gizonak lez bardin erabilteko eskubiderik?

ANDRE BIXENTA

Joakin Jauregi bertsolariaren ama zan Bixenta Salaberria.

Bertsolari lez tarteko zan, ez on eta ez makal. Lengo gizaldiko: tankerako bertsolaria, nai ta 1921 urtean il. "Panderi" deitzen eutsen, gaur pentsu fabrika-ko' tokian izen orretako baserria egoalako.

Lengo gizaldiko bertsolaria esatean, bere ezaugarria emon nai izan dot: karlistada ondoreneko.

Bear ba da egokiago irudituko neuke, karlistadan ibili eta gizondua izan zala esango banau.

Jauregi bertsolariak ba dauka bere istori txikia.

Iñoiz, Boise eta Reno eta ingurutuan euskal artzaiñak eralgiten dituen ondaren gorabera erabili izan dogu, andik etorten diranekin.

Illak mendian igaro, basamortuan, ardi zaiñean; angu bakartade zabal eta luzetan galdu ez, eta urteko oporretan errira inguratu ta daukezanak eta ez daukezanak edo eukiko dituenak aurrez galdu, andrazkoen atsegiñetan eta jokoaren tranpetan.

Jaurégi au Argentina'ko panpetara joan zan.

Ez jakin amorruz, gogaituta edo zegaitik.

Dakiguna da andrea il ondoren artu ebalara joateko erabagia. Bere esanetan, andre ori, Sebastiana Larrarte, "usai onekua" zan. Orren esan naia igarteko ez da luze joan bear: Andre garbi, jator eta ederra nunbait. Berak, bere aldetik, maitasun zintzoa gorde eutsan. Bere bertsoak onela, diño:

*Nere lendabiziko andrea
Astabizkarko arcosa,
usar onekua ta
oso hermosa...*

Ameriketean ibili ondoren etorri ta barriro ezkondu zan, bera baiño amasei urte gazteago zan neskatil bategaz.

Andretan aldakorra zanak, botoetan bereari eusten errimea izan zan. Nai ta gose egon, betiko sorbalda gaiñean burua. Arek Santakutz abadeari be ez eutsan ukatu jarraipenik.

Santakutz berberak esan eutsan aspertu zala, ez egoala zer egiñik, gerra galdu zala ta ba eioala. Eta orduan Jauregi'k erantzun eutsan:

*Gizon frak il eta
faltsuekin bizi,
ni ere ba nma
emendik igesi.*

Zer pentsatzen ete eban bere ama Bixenta-k?

Euskal emakume askoren bizitza eredutzat artu eta asko idatzi izan da. Ama onek be ba eukan bere ideetan eta pentsabideta zintzotasun pixkat. Seme guztiak gerrara bialdu zitun, bai eta bere anaiak eta iilobak be. Ia batalloi oso bat: amazortzi mutil.

Gaur familietan sartu jakuzan irizpide eta jokabide aldakorren giroetan, goratzen ete da orrelako emakumerik?

2I-I-84

ANTIGUA IZENA

Gure egunetan, izen eta deitura lez euskaldundu dabe batzuk izen au eta Antxiñe lez erabili.

Egoki dan edo ez, zeatz euskeratuta dagon edo ez, aitu eta gaituen ardura-ko da.

Guk, gaur, Antigua deiturari buruz zerbait esan nai dogu.

Ba dirudi antxiñetan, gure ermita eta parroki zarrak aldatzen joan, eta euren ordezeko barriak *egin* zituenean sartu zala deitura au, lengo eleiza zarrei izen barriak ipini, eta zarrei deitura ori lagateko. Lendik be egonarren, zeatzago erabilten dira gaur Andra Mariaren Jaiotza, Sortze, Neke, Igokunde, Agurtza eta beste ainbat deitura bere izateari begira, edo ta tokietako deituretan. Euskalerrian or doguz Begoña, Estibaliz, Arantzazu, Arrate, Gardotza, Erdotza, Idu-re, Itziar, Uxue, Muski eta abar.

Neketakua, Doloretakua, esate baterako, Kurutzearen irudiekaz batera sor-tu zala. esaten da.

Igokundekoa 711 garren urte baiño onuntzagotik datorrela.

Sortzez Garbiarena, Sorkunde, illunagoa da.

Euskalerriko Antiguak ez dira asko.

Or dogu, ospetsu, Zumarraga'n. Bera dala ta itz egiiten danean "parroki zarra" edo "lenengo parrokia" esaten da.

Bizkaia'n, Urduña, Lekeitio, Ondarroa eta Gernika'n.

Lekeitio'n XVI garren gizaldirarte, Andra Mari soil-soil deitzen ei eutsen.

Ondarroa'n beko parrokia egin zanean asi ziran goikoari Antigua izena emoten.

Gernikakoa Batzar Nagusien kondairagaz lotuta billatzen dogu. "So el Arbol de Guernica que está cerca la iglesia de Santa María la Antigua, a donde se acostumbra a hacer la yunta general" irakurri al izango dogu XV garren mendean..

Eta Urduña'ko Antiguatzaz jardutean, "la primitiva parroquia"

Beraz ba dirudi izena ortik datorkiola.

Araba'n ere or dagoz Baños de Ebro, La Puebla, Mendiguren, izen onetako eleizak daukezanak. Labastida bertan, sakristian gordeten dan Toloño'ko Andra Mari zarrari, "la Antigua" deitzen dautse.

Egunotan Panama'ko Santa Maria La Antigua Unibersidadea bere sortuerako ogeigarren urtea ospatuten ibili da eta ortarako bertako irakasle batek, Angel Revilla'k, "Santa Maria La Antigua. Un viaje al pasado". izenez (Editorial "La Antigua"-Panama-Mayo 1985) liburutxo bat argitaratu dau. Bizkai'ko Antiguako Ama izenekoen argazki eta fitxak, bai eurak dagozan errietako argazkiak be sartzen dira bertan. Beti be atsegin dira guretzat onelako ezaupideak.

Baiña deiturea dala ta, ba dauka len aitatu dogun jendearen usteagazko alderantzi bat. Ba dirudi Antigua izena ez datorrela beti parroki zar edo lengo ermitetatik. Semantikako azalpena da.

Eleizaren lenengo jaietan Andra Mari'ren ospakizun bi egiten ei ziran: Igo-kundea (asunsiñoia) eta Aur itxaropen edo iragarpenekoa. Eta gero, Andra Mariaren beste deiturak ugarituaz euren iaiak sortu ziranean, lenagoko deitura bici edo bietakoei zaindu jakoela Antigua deitura ori, oraingoak beste deiturekin ezagutuz.

Orra ba parroki ta ermiten iragana oiñarri, edo baita eleizako lenengo denporetako Andra Mari'ren "deitura zarrak" gaurko Antigua'ri, deitureari, sortze eta tokia emon.

ANTXOARI BEGIRA

Maiatza, Orrilla, Loreilla... Es dakigu zelako Maiatza izango dogun. Esatera da: Otzarekin Maiatza zertxobait motela, beroarekin berriz eskatu bezela.

Otz dagolako, itxas urak oraindik epeldu ez diralako, arrantzaleak or dabiz antxoarik arrantzatu ezinda.

Egunak aurrera ta matra geldi, esaten da, laboraria kezka bedi. Alaxe arrantzalea.

Galizi'ko Foz aldetik asi eta Asturias eta Santander kaltetako itxasontxiak gure euskal kaltetara etorrita dagoz.

Emendik egiten da antxoa "sasoia".

Antxoa berandu agertzeak ba dauka bere akatsa Bere lanerako, bere gertueretarako egunak laburtu egiten dirala.

Antxoa asko erbestera bialtzeko izaten da.

Emen lan egin, au da, emen gazitu eta latetan ipini eta udazken aldia, bein usaindu eta osatzen asten danean, elduten danean, erbestera bialtzeko, "exportatzeko".

Itali da geien erosten dabena Bertarako edo ta bertatik beste errialdetara bialtzeko. Onetan be inenak emoten dau izana. Italiar antxoak esaten da, nai ta gure errietan gertuak izan, eta orain, zorionez, askotan latetan be euskal deituraz urten: "Antxoa gazituak Itali'ko erara". Frantze aldia be olako zerbait gertaten da. An danak Colliure'ko antxoak deitzen dautse, eta Colliure'n trenez antxoa geiago sartzen da itxasoz baiño.

Italiarrak egunean lan edo gertutako antxoa nai izaten dabe. Itxasotik leorreratu ala, egun berberan lan egin ezik, antxoak azalaren osotasuna, bere zidarra galdu egiten dau. Narrotu egiten da. Eta italiarrak milla aitzaki billatzen dautsez orrelako antxoari.

Arrain au, banan-banan burua kendu eta latetan tolestu bear izaten dan lez, esku bearra eskatzen dau, eta asko etorrita be, bakoitzak bere alizate edo neurritik gorakoa ezin iza ten dau gertu Itali'rako asmotan.

Ba dira orreitan bar ugari, eguneroko bear aiña egunero garbitzen dabena. Garbitu, erdiko azurra kendun eta buztana laga, bertatik elduta antzoa zabal beteta jateko arda edo garagardoa lagun.

Oliba saltzailleak be antxoa gazitu asko erosten dabe, olibari azurra atara eta azur orde zulo ori antxoaz beteteko. Gaur ba dago onetan kimikaz olibari antxoa gozamina emoten dautsenak, antxoarik sartu barik eta ikusi be eragin barik.

Antxoa asko bear izaten da, baita, fileteak egiteko, Negurako lana emoten dau orrek, batez be emakumeentzat, baiña urteotan kanpora bialtzea asko galdu danetik, lan era orretarako krisis gogorra sortu da. Antxiñako erara fileteak ger-

tutea ia galdu da. Gaur esku biarra asko kostaten dalata, erczago gertuteko bi-deak aukeratu dira, bear ba da garbitasun, leuntasun eta iraupenaren kaltez.

Erbestetik be ekarri izan da onetarako antxoa, baiña gaurkoz antxoarik atsegín eta gozoena, eskatucna eta emonkorrcna, gure itxasoan arrantzaten dana da.

Antxoak Jorrail-Maiatza.izaten ditu bere illik aberatsenak.

Ezpai barik egongo dira aurten be egun ugariak. Ondo zaindu eta erabilteko geiegizko egunak. Baiña danak bear izaten dira, gertutzeko era bat edo besterako. Nai ta diruz ezbardin saldu-erosi, esan dogun lez, geroari begira be alde andia daukalako.

Dana dala, arraiña ba dator salduko da cta aurten beintzat ez dago, urte batzutan lez, beste urtetako atzeraturik, eta orrek be, sa-eroslentzako, beti eukiten dai ikuskizun argiago bat.

I4-V-80

ANTZERKI BIDETAN

Ez nator euskal antzerkiak (teatroak) esaten, eusko antzerkiak baiño. Eta au be ez ain zeatz, era batera edo bestera euskotarrak egiñak, irudituaak edo ta antzeztuenei buruz nabillelako. Bertakoak edo kanpokoak, bitartean emengo erakundeen bat dala.

Beraz euskaldunen eta erdalduncn antzerkiak.

Alaxe da gure jaurlaritzaren asmoa. Antzerkia, bai euskerazkoa ta bai erderazkoa, indartzea, emengo taldeen bitartez.

Agerbide bat. Laster, gure jaurlaritzaren laguntzapcan diarduenak, Arteé quin teatro lana agertuko dabe. Eta erderaz eta euskeraz egingo ei dabe.

Goi-maillan jokatzeta izan bear ete da gurc ardura?

Ibiliai erakutsiko dan.

Gaur gaurkoz, Euzkadi'n, asieretan gagoz antzerki mailla onetan. Lanetan, Jangilletan eta tokietan.

Or dago, Bilbo'n, Arriaga, txukunduta eta egokitzen. Baiña oraindik milloek asko bear dira, berreundik gora, antzoki edo teatro ctxe barruetan:euren irabazpideak daukezanak atarateko eta etxea, Udalaren kontua, garbi eta azke lagateko.

Donosti'n, aurtcn, cta iru-lau illabete barru amaitzcn dan Victoria Eugenia dalakoak bere alokatzea, eta ha dirudj eskubideak traba barik bereganatuko dituala Udalak.

Beraz Arriaga bilbotarra Donosti'koa baiño lenago erriari biurtu ba zan bc, ba dirudi donostiarra izango dala edozetarako erriaren aukeran lenago ipiniko dana.

Gateiz'en, diñoenez, ez dagoz gcldj eta antzerti cta antzcrako jaietarako lc-ku azke baten ardurak eraginda, ha dirudi Udala kezkatuta dabillala eta konponketaren bat giteko bidea egon lcikela ango tokiren batez. Orreik toki buruzko gain gaiñekoak.

Etxeak eukita be zer lortuko etc da?

Nun dagoz taldeak, nun zuzendari eta antzezgilleak, nun lanak?

Lanei buruz ha dago argitaratzen ckjtcko asmoa.

Antzcrti aldizkari baten asierako zenbakia, O zenbakia, agertua da, Bein Aldizkari bat bere agerbideko uts edo zero zenbakiduna agertzen astcn danean, jarraipen asmoa dagola adicrazi na; izaten da.

Ba dakigu antzerki mordo bat ha dagola, ixil dcnporetan cgañikoen artean, nun agertuko zain. Onctan orrelako aldizkari bateko zuzendariak, crabilgarri izan leikezanak aurkeratzen eta ainbat ariñcn argitaratzen ba dauka zeregiña. Jakiña, nai litzake aldizkari oni erriak onartu eta zabaltzea. Ba;ña aldizkaririk geienak ezin bizita, kilinkolonka, urteak baiño lenago ilten diran gure mndc onetan, zenbateko bizitza eukiko eta leuke orrelako hcrczi batek, erri mugatu onetan?

Jaurlaritzarcn asmoa gai oneri indarra emotea da. Antzerki giro bat sortu edo aizetu naia. Lastcr Kulturako aurrekontuak (presupucstoak) Lege Biltzarre-ra agertu, eztabaidatu eta onartzean, ikusiko dogu zclako borondatca agertuko dan gai onetarako. Ba dirudi, ala esatcn da, zabala izango dala eta neu rri zeatzak artuko dirala.

Gero dator, eta onetan, goikoak baiño bekoak izan bearko dira noraiño joan geinkczan erakutsiko dabenak. Diruak ez dan dana egingo, na; ta dantzan ipini cragin. ikusi hear zelako dantza.

Asicra una emoteko gogoia ha dago. Ori be zerbait da.

AÑOVEROS

Bizi al da Añoveros gotzaiña?

Askok itanduten dabe.

Begoña gaiñeko monja batzuk ba dakie bizi dala.

Gaixo batzuk be igarten dabe euren inguruan. Ba daukaz beregana autortza eske joaten diranak.

Añoveros'ek ez dau pentsaten bera abade soil baiño geiago danik.

Lengoak, ospeak eta ondo etorriak, botoiak eta artzai makillak amaitu ziran.

Ain zuzen amar urte beteten dira Otsail onen 24'an, azkatasunaren alde bere idazki sakon eta ausarta zabaldu ebal, Madrid'eko gobernu berbera dardaraka lagata, eta Euskalerrriari, batez be Bizkaia'ri, beragaz bizi zan artzai baten egoera agertuta.

Añoveros Cadiz'etik etorri zanean, Bilbo'rako izentatu ebenean, abadeen artean alako etsipen bat egon zan, asarre lakoa, arrera ona egiteko.

Ba ekien emen Añoveros gizarte gaietan arpegia emoten ekian gotzaiña zala. Orretan ez eutsen ezer ukatu ez kentzen. Baiña ez zan aldi aretan Bilbo'k eskatuten eban erako gotzaiña.

Urtetan aurrera eioan, euskal problematikaren barririk ez ekiala uste zan. Bere artzaitzan gure ingurutik kanpora ibilia zan. Ez ekian euskerarik be...

Añoveros guzti ori jakinda etorri zan. Ez etorteko esaten eutsenei, eleiz-gizonen aginduentzako menpetasuna erakutsiaz.

Bear ba da berak be ez eban izendapena pozik artu, emengo betozkoak jakinda. Egin goikoak zintzoago men egiten dautse euren arduradunei, gu be kook gure burukideei baiño

Bizkaia'k Añoveros'eri esker ona zor dauksa. Lenengotik bat egin eban erriagaz. Euskaldun izan diran gotzain askok baiño lotsa geiago artu eutsan euskerari, eta ostopo gitxiago ipini. Gaurko politikari askok baiño zabalago. Berak be, euskaldunen errietan, atsegiñez esku artzen eban' erriaren jardunetan.

Euskalerrriaren miña laster igarri eban. Eta ez eban erastunik galtzeko bildurrik edo solideoirik kentzeko kezkarik euki, ez eta botoi gorririk baltzitzeko be, bere eleizbarrutiari zuzentza baten alegiñak eskintzerakoan.

Esku zabala, ondasunik bako gizonekaz gertaten dan lez. Eleiza pobrearen maitalea. Nai eta Bizkai'ko gotzaintzak (obispadutzak) aberastasun andirrik euki ez, eukazan ondasuntxoekaz lotsatuta lez agertzen zan eta parroki barri eta zarren premiñen mesedean edo ta kristau ekintzen ontasunean saldu zitun jau-regi ta etxeak.

Bera zana Bizkaia'ri eskiñiko zala agindu eutsan lez, gaur abade apal, borondatetsu eta kezkatu lez gure artean bizi da, edozeiñen lagunarteko.

Merezi dau Añoveros jaunak gogorapen biozkor bat. Urteak eta edestia ez duaz ekintza batzuk idazteko betarik *ez* eukiteko eran. Añoveros'ek Bizkai'ko eleiz eta erri istorian, gure aldeko atal bat idazteko aukera laga eban.

Egia danen gaiñetik, egiak, azkatuko gaitu-ta.

24-II-84

AÑOVEROS GOTZAINA

Aurrera guaz. Ezagutu bearra dogu gainera, geratu ezinik goazela. Eta zenbat eta aurrerago, aurrerago dogula gure meta.

Bizitzan era guztietako gertaeretan sartuta egon gara. Barre eta irrika batzutan eta negar ixillez be uste baiño geiagotan.

Ez dakit zelan sortzen diran sentimen ugari. Famili oituraz batzutan, *nor*-bere izate eta inguruaren eragin eta ondorenez bestetan. Dana dala, nire jokabidean, eleiztar izan eta irauteko gogoz geiago ibili naz, nai ta gure gertaera askotan maitatzen gendun eleiza orren erabagi batzuk lepoak ondo astindu. Ori izaten zan mingarriena. Eleizgaietan, fedc eta sinismen gaietan kristonak emotea... bidezko. Baiña gure errian gertatu izan dan lez, izkuntza dala ta, edo erri maitasunaren biozkaden eraginagaitik orrelakoak artezak, negar ixilla, barruko min eta ittotasuna sortu eragiten euskuen sarri.

Zorionez denporak aldatu egiten dira. Igaroaz aldatu. Eta aizeak be bai. Baiña eguneroko argia or geratzen da ekaitzetako baltzunak aztu eragiten.

Gu bizi garen Eleizan be euki izan doguz denporaldi illun eta garratzak. Ez bakarrik bekoak, eleiztar eta fededun soilak. Jaunari bakarrik kentzeko txapel-txo gorria erabilten dabenak be, euki izan dituez euren astinaldiak.

Bizkaiko Obispadutzak sortze txarra euki eban. Bidezko zan une politiku baten menpetasunean sortutako banakatzeak ondoren larriak erakartea. Eta ala ta be eutsi egin geuntsan fedeari eta Eleizaren menpetasunari. Gizaldietako oiturak nekez aldatzen dira.

Lortu zan, politikoen itsukeri guztien gain, gure errirako bertako ololeko gotzaiñak izentatzea. Nai ta ezko zan, ezagutuko zituen ardien artzaiñak aukeratzea. Gogoan euki "ardi baten atzetik beste ardi asko" euska] esaera. Eta euska] ardien menpetasuna zaintzeko nai ta ezko zan orrelako artzainak aukeratzea. Onetan zentzu andiko eta benetan erakusle da J. B. Etcheberry'k "Han

Hemenka" liburuan gogoratzean dauan beste esaera: "Artzai ta zakur iaioak, ardien ondoan jaioak".

Erabide onetan Bizkai'ko Eleizak euki eban ongarrietako bat Añoveros jauna bertarako izentatzea izan zan.

Autortu bearreko da gori-gori ebillala abadeen erasoaldia bera izentatu zanean eta zalantzak eta gogo makalak be egon zirala berari Ongi-Etorria egiteko.

Baiña Añoveros jauna gure errialdeagaz batu zan, bere kalbarioa ezagutu eban eta zintzotasun eta ontasun osoz bere artaldeari len sarratuta eukazan zelai eta saroe askotako ate-sareak zabaltzen jakin eban. Eta itsukeriz sakabanatu nai eben otsoei bere artzai makilla sendoa erakusten asi zan.

Niretzat Anoveros jauna Bizkaiko Eleiza banatua bakeratzen eta bateratzen alegindu zan Gotzaiña izan zan, bake eta batasun orren alde bere nortasuna eta bere ondasun eta osasuna eskiñiaz, gerokoentzat oztopo ugari etenaz.

Bere eriotzako urtea betetzean bere oroipen au eukitea eta bera goratzea bearrezko dogula uste dodan eleiztar soil eta apal bat naz.

24·X-88

APALAZIO ETA ZOTAL

Nundik asmatu ete eben gure zarrak Apalazio izena, Errege egunari deitura emoteko?

Erderara jo bearke dogu nunbait onetan, edo ta latiñera.

Erregeen agerpenetik, bear ba da, aparizio berbatik artuta? Edo ta jaun-
txoen berbetan palazio itzean oiñarria billatuta?

Dana dala Apalazio zaldunaren bertsoak, bertso arin, jolasgarri eta atsegi-
ñak dira. Errez igarten da gabon-errege egunak, gure zarrak alaitu eta pozik
erabilten zituela, eta beste jai izendatu bazuetan antzera, "limosna" eskale ibil-
teko aitzaki on zirala.

Ara bertsuak:

*Apalazio zaldana,
ira Errege egona.
Ira erregek bialdu gaita*

*limosna bat nai dogula.
Ota eta paluak
Martin gurearen konteak.
Martin gureari croan dautsaz
zazpi ollanda katuak,
aren azurrak batir eziñik
ak darabiltzaz konteak!
Salto ta brinko, brinko ta salto,
Jose, Marian aurrean,
gabon gabeko intxaur saltseak
gustiz borra dan artean.*

Beste aldetik egun oneitan ba dogu beste izen jakingarri bat gure euskeran:
Zotal egunak.

Zer dan zotal?

Iztegiari begiratuta, "zotal" berba, Jaiak lurra erabiltean ataraten daben lur zatia da. Guk emen, Ondarroan, "zokil" deituten dautsagu lur zati orreri.

Baiña kontuz, gernikarrak itz edo berba orreri bcste esan-nai bat emoten dautse: areik txarto jagitako ogiari be deitura orixe emotcn dautse, beste toki batzuetan zopin, ogi aillesa esaten dautsen lez, edo ta toil.

Zotal egunak, igar egunak lez, au da igarteko cgun lez be ezagutzen dira, edo ta bear ba da, jatorrago, iragartcko egun lez.

Urteko amabi lenengo egunak dira izen edo deitura ori artzen dabenak.

Toki askotan sinistuten da, urteko amabi cgunak zelako, geroagoko illak ala izango dirala. Au da, urteko lencngo eguna eta Urtarilla bardintsu; urteko bigarren eguna, eta Otsailla, au da, bigarren illa, bardin. Urtcko irugarren eguna eta irugarren illa, Martia, era berean.

Beraz il onetako lenengo amabi egunak, urtearen asierako egunctan gagozalako il bakoitzaren giroa iragarriko dabe. Egunak, bere errczkada edo txandako illa.

Orrela gertatuko dan edo ez gero ikusi hear, baiña iñoiz gertatuko ziran, bestela gure zarrcn sinistetan ez zan sartuko orrelakorik

ARABA ETA EUSKERA

Buruasteak eta burukomiñak euskeraren ardura Araba'n artzen asi orduko. Kezka eta larritasunak Euzkadi'ren uriburu egin dogun Gasteiz inguruan, euskaldunon izkuntzan erakusten asteko entsaio bat egiten asi orduko.

Ori da mingarria.

Etxenike berberak esanda dakit, Biaisteri'n (Laguardia'n) euskeraz irakasten asi orduko, bertakoen naia, angoen gogoia eta egoera ezagutu, aztertu eta euren borondate osoa artu ondoren asi zirala ikastetxe baten euskeraz irakasten. Aurrez, ezelako eskutu barik, argi eta garbi bertakoekaz itz eginda.

Konturatu euskeraz irakasten esan dodala. Ez da bardin euskera irakatsi edo ta euskeraz irakastea.

Eta bereala sortu dira nasteak, asarreak, gogortadak, "konpetentzien" tengadak, zirikadak eta eztenkadak.

Naste eta eragozpen asko sortu leiken asiera, gertuera "entsaioa". Baketsu joan ba litz, askoren bicle barri. Ostopoak asi eta geitzean, anditzean, askoren orma lodi.

Gasteiz'en arratsaldetan agertzen dan egunkarian, zirikada gogorak agertu dira eta salakuntza biziak. Eguaztenean bertan "Solidaridad alavesa" izenpeagaz lenen orrialdeko idazlan asarre bat dakar.

Bearrizana eta eskubidea zeaztu eta banatzen alegintzen da. Laterriko "Konstituziñoian" gaztelania ezagutzeko bearrizana danok daukagula esaten dala, eta Eusko-araudian (Estatutoan) bizilagun guztiak izkuntza biak (gaztelania eta euskera) ezagutzeko eskubidea daukagula.

Bearrizanak lotu egiten dabela, nai ta ez; ordeaz, eskubidea bakoitzaren borondatean eta gogoan geratzen dala. Origaitik, gaztelania nai ta ezkoa dala, ta euskera bakoitzaren arduraz, gura izan ezkeror artu eta baliatu leiken eskubidea

Eta Biaisteri'ko ikasketa ori, irakasteko era ori, zital salatuten dau, Araba ez dala kolonizat artu eta erabili leiken koloni eta antzerako esaerak agertu eta erabiliz.

Ikuspegi baten, maitasun eta gurikeri guztien gaiñetik, azpiko gorroto zital eta ozpindua euskerarentzat.

Ori da, benetan, sakonean dagona, eta gero be, zoritxarrez, egoten jarraituko dabena.

Euskera polita da... erri izenak- kaleak eta umeen izenak itxuratzeko. Aldiko, modako: Gero... otz ez dana bero. Laguardia'n lez. Batzuk ixil, mutu, nairagabetsu lez..., baiña garrastuta diarduenei euren eskubideak agertzeko adore barik.

Eta euskerak.. lanak emongo dauz. An eta emen. Era askotan. Berrogei urtetan ikasteko alegiñik egin nai izan ez daben abertzale jatorrei baiño geiago.

Arabar egunkariak Juan Pablo II'garrenaren Sendiari (familiari) buruz oraintsuko egin daben idazkiko argibide eta agindu bat gogoratzen dau: Sendi (famili) bakoitzak bere semeak ezitzeko eskubidea dauka bere oitura (tradizio) sinismen eta kultur balioekin oiñarrituta, ortarako bear diran gaiki, era eta premiñazko erakundeekaz.

Ondo dago orrelako arrazoiak agertzea. Baiña ez ete daukez arrazoi bardiñak euskal sendi edo familiak? Ala ez ete dira sartzen euskal familiak Aita Santuaren pentsakera, siniste, agindu, irakatsi eta onespen eta bedeinkaziñoen erritaldean?

Amaika burukomin emon eragingo dau oraindik gure euskerak an eta emen, eta ez beti erdaldunen aldetik!

19-XII-81

ARABARRAK

Oraintsu Araba'ko Delika'ra joan nitzan.

Zartzaroan ba da be, gure uri buru dan Bilbo'ko ibaiaren sortzea. ikusi ta ezagutzera.

Elorrio aldean sortzen da Ibaizabal. Delika'tik gora Nerbion. Gero batzen dira biak, Bilbo baiño len, Ariz'en.

Orduña zarra ikusiz, Delika erdira sartu giñan. Eta itanduagaz batera, andre lodi batek esan: Ai ene gizon, zu ta ni baiño liraiñago izan bear da emendik ara joateko. Pare bat ordu gitxienez eta mendi artean eta zu Takoak estu ibilita.

Delika'n, tabernan, Tele-irratia ikusten egozan eta barreko maira etorri baiño naiago eben an, alboko toki baten, telea ikusten egon.

Orduña zarrera biurtu ta barriztuteko amets gitxi daukan Bizkai'ko "ziudade" bakarrean, ango "mantekadak" ordaintzeko ia Españako diru berde bat bear dan tokian, nire erritxoan baiño obeto ekiezan emengo azken goraberak. Antxe jakin neban nire erdi senide bat oraintsu il zala gure errian.

Andik gora jo gendun, Delika'n betik ezin genduna goiak artuta erraz ikusteko asmotan. Orduña'ko aldatz luzea igaro, igo ta igaro, eta aldatz ondoren ezkerreko bide bat artu ta Santiago mendia zearkatzen daben zulo ta bathez betetako bidea artuta, an dagon balkoi batetik aitzetako bustitasuna igarri gendun. Ikusi ez, igarri, eta orrela Nerbion ori nun agertzen dan jakin. Arranoen begiak

baiño luzeago bear dira goi areitatik errekarteko arritzak ezagutzeko. Egun be-reziak bear dira, gañera, erreka ori bits eta lurrun auts artetik sakaneko arritze-tara jausi ta bidea artzen ikusteko.

Andik bide nausira biurtu ta Berberana laster. Burgos errialdea. Zeiñek ez dau atsegin arratsalde erdian eztarri labangarri bat? An, bide egaleko barrean, aurrez-aurre udabarriko zuzak, otzara baten Kilo erdi egozala ziurtatu euskun tabernariak. Kanika txikiak. Bato bearra be min emoten daben lakoak. Zuri ordez baltz izan ba ziran, ardi pekorotzak. Baiña esaera da perrotxikuak bein kus-ten dirala. Laga ezkerro, ez dirala barriro billatzen. Jakina, atzetik datorren bes-teren batek lur eta guzti atara eta batuko ditulako.

An gengozala bilbotar bat sartu zan tabernara. Bi milla pezeta ordaintzeko gertu, egozanakaitik. Tabernariak, lenengoak zirala ordu erdi ez zala *croan en-*tsezala eta ez eukela baliorik (Erutan. Iru milla, lan... Alako baten, bederatzi or-dainduta be bereak zirala erantzun eutsan tabernariak. Orretan geratu ziran gu aldendu giñanean.

Andik aurrera, bidean zerbait aldendu eta Angosto'ra sartu-urtcna egin bear. Txukun ipini dabe pasiotarrak toki baketsua.

Ai ainbeste ba neukaz Aita Patxi baten jarraimenekoen artean! Uts billatu neban. Kaiola ederra, txori barik.

Andik Gesaltza'ra. Añana'ra. Berezkoa dabe an mekaguena. Angoak gatza dauke berbetan eta gatza bizi-modu lez. Oraintxe asiko dira ango millaka tokie-tan gatza batzen. San Prudentzi ostean asiko dira, tokiak urez bete eta cgun bi-tik bira gatza batzen. Orretarako, lenago, aste onetan, arabar jaietan, udabarriko zuza zuriak jan bear. Arabarrak ez dakie biziari senik artzen, zuzak jan barik. Aurten auteskunde ta guzti. Zeiñegaz joango diran? Mekaguen zoli bategaz erantzun eustan batek: Baiña gu arabarrak ez garcala pentsatuten dozu, ala? Eta euzkotarrak ez gareala?

ARABARRAK

Gasteiz'en Andra Mari Zuriaren jaietan dabiltz.

Arabarrrik geienak bertan batuko dira. Beste batzuk iges. Jaien zarata atsegin izaten da. Zaraten jaia kaltegarri. Eta urte batzutan zaratak izan dira gure jaien ezaugarri.

Itxas ertzetik joaten gareanok, atsegin billatzen doguz an ezagutzen diran tokiak.

Lengo baten, Bizkai'ko batzarkideak ("junteroak") Abellaneda'n batu zira-nean, Uribe, Lea-Artibai eta beste errialdetako batzarkide batzuk arrituta geratu ei ziran ingurua ezagutu eta ango istoria entzutean.

Bizkai barman bertan eta agintari diranen artean orrelako utsunak igartean, zer esan ez Bizkai'tik urten eta Araba lako bakartadetako erri txikietara joango ba giña?

Gure erriaren izatea ezagutzeko aukerarik *ez* dogu izan; eskutatu edo eratu egin dauskue etxe barman be, urte askotan, eta gure arteko gizatalde batzuk gure errialdea ezagutu barik ilgo diranak ziur nago.

Zegaitik bizkaitarrei Bizkai erri osua erakusteko aukera emon ez, esate baterako, Foru Aldundiak, errialdetatik beste erri ingurutara egin leikezan atsedean egunetako ostera edo ibillaldietan? Eta zabalago baten, Euzkadi maillan, gure jaurlaritzak?

Gure umeak eskoletatik errezago ikasi leikie gaur, guk baiño argi ta zeatzago, gure lurren bizitza. Baiña ta adiñez aurreratuak? Nai litzake Ibili ta Ikasi edo antzerako erakunde lagunduen bat, zarroi euskal eskola ori erakusteko. Guri, izan be, ikusiz errezago sartuko jakuz gure berezitasunak, paperen alegiñez eta irakatsiz baiño.

Araba geiena ezagutzeko zoria daukat. Ango tokiak ezagutu. Ez dot bertan billatu "Memorial Historico Español" en erderaz esaten danik: "San Joan portuan, Aguraindik Gasteiz'en zoazela. osasun bedar asko dago. Eta portu orretan gizonak luzaro bizi diran toki bat dago, eta batzuk eun eta ogeitabost urteraiño...".

Baiña Araba osasuntsua dala ba dakit. Langille izan dalako eta erri zintzo. Menpeko eta agintarietan. Ikus agergarri bat:

1841 urtean egindako litografi bat gordeten dabe Zuluetatarren etxean. Arabar aldun bat ikusten da bertan lberere zeregiñerako ziña (juramentua) egiten, bere eskumako eskua Gasteiz'ko Matxetaren gaiñean ipinita.

"Jaungoiko gure Jaunari, eta Andre Mari bere Amari, lau Ebangelio santuen itzen esanetan eta eskumako eskua bere gaiñean ipinita daukazun Gasteiz'ko Matxetaren lotsa eta bildurrez, zin egiten dozu aldun nausi lez bete-betean eta zintzotasun osoz aldeztu eta zainduko dozuzala erri onek daukazan eskubide, azkatasun, zergarik-ez eta bereiztasunak?

—Zin egiten dot.

—Orrela egin ezik Jaungoikoak kontua eskatu eta zure burua ebagi daitzula, zure eskua bere gainean ipini dozun Matxetaren antzeko galtzairuzko txarrantxaz".

Olaxe jokatzan eben arabarrak euren eskubideak eta bizimodua zaindu eragiten, gizonaren kontientziari deika fedearen maitasunez eta zigorraren bildurrez.

Gasteiz zarrean an dago Matxeta'ren enparantza. Baiña zenbat arabarrei erakutsi izan ete dautse euren eskubideetako baten ezaugarri eta gordelari izan dan arma zuri zorrotz orren adierazgarria?

5-VIII-82

ARABARREI TXALOKAK

Urte mordo da.

Ondarroa'ko itxasketa lkastetxerako, eskola orretako sortzailletako izan zan abade bat ekarri nai gendun.

Bera, gazte mardul zala, beranduko deiaz egin zan abade eta ordenak artuta gero bere sorterrian, Gasteiz'en geratu zan.

Peralta jauna zan Gasteiz'ko gotzain.

Joan giñan "komisiñoian" eta lengo denporetako lotsa, dedu eta tentetasunez artu genduzan.

Agertu geuntsan gure eskabidea. Ta baldintza bat ipini euskun onartzeko: Ez eukala eragozpenik nai gendunari Bizkaira etorten lagateko, gure gotzaiñak Aramaio'ra joan nai izango eban abaderen bat ordezt bialduten ba eutsan.

—Zegaitik?, itandu geuntsan.

—Aramaio'n abade euskalduna bear dalako ta *ezin* dodalako bertarako iñor billatu.

—Gasteiz'en ba dagoz ba abade euskaldunak!

— Zeiñek atara orreik uri burutik?

Ori izan zan bere erantzuna eta guk be ez gendun aurrera jo, iñok esan ez egizkun gure onagaitik bera ondatu gendula.

Liburu eder, txukun, ikusgarri eta ikasgarri bat argitaratu dau oraintsu Araba'ko Foru Aldundiak. "Valle de Aramayona = Aramaioko Harana" "Inventario de Arquitectura Rural Alavesa = Arabako Nekazal Arkitekturaren Inbentarioa".

Geroago egiteko diran beste errialdetako asiera.

Pozgarri eta txalogarri da Araba'k orrelako lcnengo lanean, lekuan lekuan lez, Araba aldean gaur euskera egiten dan errialdeari ainbesteko lotsaz erantzutea eta gaiñera bere lenengo lan orretan euskerari bere tokia emotea.

Gorokoetan era bardinean jarraituko ete? Edo ta areitan euskerarik egiten ez dan aitzakiz, liburuetan be aztu?

Igaz Araia'ko jaietako egitarauan E. Knorr'ek idatzitako lana irakurri daukat. Lengo gizaldiaren asieran Albeniz'en euskera egiten zala. Eta oraindik berrogei urte geroago Odon Apraiz'ek egindako mapa baten, euskera egiten zan lekuan sartu ebalara Araia.

Eta Bonaparte printzeak berak esaten eban 1863 urtean Barrundia errialdeko amairu erriatetik, oraindik euskera ondo egiten zala Elgea'n, nai eta Ozaeta, Ermu eta Larrea'n azkenetan igarri.

Baiña Araba'n be, len Bizkai eta Gipuzkoa'n lez, eraztuna erabilten zan eskoletan, umeei euskera erakutsi orde, ori egiten ba eban zigortzeko.

Eta onetan E. Knorr berberak gogoratzen dau Dulantzi (Alegria)ko P. Mendibil'ek dirala berreun urte idatzi ebana: "Nire izkuntza euskera da eta uztu eragitearren, erdera ikasi eta jakiteko eragozpen balitz lez, eraztuna artzera beartuten nabe, amaren esneagaz batera irunsi neban barbarik maitekorrena konturatu barik esaten ba dot be, ama berba esaten ba dot madre orde, edo ta Jaungoikoa Dios orde".

Ikusten danez euskera ez zan galdu Araba'n berez, gogorkeriz baiño, toki askotan.

Komeniko litzake gure ume asko konturatu daitezcan zelako erak erabilten zituen len eskoletan euskera zigortuteko, Azkuc zanaren "Sasi Eskola" aurrentzako antzerkia toki askotan agertzea.

Len besterik ezean, or gendun eraztuna, maixu-maistren eskuetan eta eraztuna, eskoletako eraztuna, cz zan ain zuzen ezkontza bateko maitasun ezaugarri, euskeraz egiten eben umeei atzamar puntak eta ipurdi-mamiñak makillaz zartakatzeko baiño.

ARALAR' EN

Iruña aldetik gentozan.

Egun aizetsua. Ikuspegi luzeak.

Ez ete litzake gaur Aralar ikusteko egun egokia?, gure arteko batek.

Irurzun'en bidea aldatzeko asmotan gentozan, baiña asmoa ondo jausi ta aurrera jo gendun.

Lekunberri baiño len bidean bazkaldu ta eguerdi ostean Aralar 'en giñan.

Aize gogorra. Errekaize bero ta biurria.

Zelan orbelduten dira an arbolak aizeari eutsi ezinda oker eta gangar dabil-tzala?

Lagun gitxi Aralar'en.

Iruña'ko zoroetxetik autobus baten joandako ogeitamar lagun inguru eta gu. Arpegi eta gorputz eder eta lercleneko monja zuri bat, eta pastillaen indarrez kirioak eten edo makaldu eragindako itxura eta ibillera baldar, galdu eta alperreko andra gizonak.

Bat, aizea lez, besteei jaramon barik, egon eziñik ebilan: kilometroak egi-ten. Alaxe egoan argal eta mirrin.

Gizonaren makaltasunetan pentsatuteko giroa geunkan gure artean. Bai eta monja zuri, luze eta lerdan a ikusita, bizitzan egin leikezan eskintza askoren ontasan eta balioa gogoratzeko be.

Utsik eleiza. Bardin eleizpea.

Andik ebiltzan larra-beiak ezin uxatuta ango neska arduradun dan Arrua-zu'ko neskaitilla

Berari esker ekarri euskuen gure zaindariaren kurutz irudia gurtu eta laz-tandutera.

*Mikel, Mikel gurea,
zaindu gure Eskalerria.*

Beroago izan Jei otoitza jendetzaen artean. Egitsu ta zintzoago bakartadean.

Beietan Sakana. Noiz arte euskal erri? Iturmendi'n galdu zan euskera Urdiain euskaldunear, erriko lan langintzetarako esku-lanaren'premiñak erdaldunak eroan zitun errira. Gaur uskerari eusteko joku txarrean. Arbizu'n abade baten lanei esker, euskeraz otoiztuten dabe oraindik eta ala egingo *bere* oroitzak irauten daben artean. Gero?

Aralar'etik Uarte Arakil'era bide barria zabaldu dabe, amaika kilometro inguruko pista. Aldatz bera dana, errebera ugari ta bei latz arritsua.

Bidea laga ta Arakil'eko sarreran ura ugari, erriko iturrian. Mutikoak euskera ta erdera nastean bertan. Belarrimotxak dirala esan dausku mutiko baten aitak. Ba dirudi belarriak moztuten asi jakoezala.

Andik Aralar'era sarri eta erreza goan al izateko egin daben bideak, ez ete dautse gogoratu eragingo goietan dauken aingerua gure zaindari eta aldeze dala?

Goizean osasunari azterketa egin geuntsan bedar usaitsuen sinistean; geroago "Navarra hoy" egunkarian gure alegintxoia egin gendun Euskal errien mesederako eskabidean Eguerdi ostean Mikel deunari musu eta laztanetan, euskal erriari bizi naiko arnas lurruna irarri be bai bere estalkietan. Gero Arakil'en iturri-ondoko mutiltxoei gure aolku kezkatia e mon. Andik geroago Etxegarate gainean, gaztai zarren gurarietan, giroaren kalteei buruz agure baten euska] naigabea ezagutu...

Ez al gendun zintzo bete Nafarroa'ra joateko euki gendun egun bakarreko gure aukerako argi orduen denpora?

8-VIII-82

ARATUZTEAK

Azken urteok arte ez dogu Bizkaia'n Iñauteri eda Iñauteri deiturarik erabili.

Ez Bizkaia'n, ez Gipuzkoa'ko erri askotan. Nafarroa'ren muga egiten diran errietan ezik.

Guazen zerbait aztertuten.

Gure jai oneik len, alako erreparua eukiten eban beintzat jantziei buruz. Bai eleiza ta bai militarrek, euren antzeko jantziak galerazoteko ardura eukiten eben urtero. Bai eta kaleko jaiak eleizkizunei kalte eragiteko kezka be.

Ala Lekeitio `n domekan arratsaldeko eleizkizuna amaitu arte, ez zan "marmoi" rik kaleratzen. Bardintsu gertaten zan Ondarroa'n.

Durango'n "Domingillua" ataraten eben kalez kale eta, etxeratzeko dantzak jo ta amaitzen zan jaiak. Doñu ori entzutean, agintariak, txistulariak aurretik ebezala, plazari buelta bat emoten eutsen eta bertan amaitu. Baiña irugarren egunez, martizenean, "Domingillua"ren jaiak plazan amaitu barik, kalez kale erabilten zan, eta kale-bideko tabernetako ate bakoitzean agintari bat geratzen zan ta barrukoei kanpora urteteko agindua e mon, eta tabernako atea itxi eragiten eutsen, orrela garizumari naste, moskor eta zarata barik bidea zabaltzeko.

Egun oneri buruz, geien be jantzietan oiñarrituta, erri bakoitzean izen bere-

ziak gogoratuten dabez. Markinan "kokotxak", Ondarroan "mamuak", Lekeition "marmoiak", Gernikan "marroak" Mundakan "atorrak"...

Orrez gaiñera, esan lei erri bakoitzak bere oitura bereziak eukazala, oitura jator eta atsegin lez urtero barrizatzen ziranak.

Gernikan kukaña egiten zan eta martizenez ollar jokua be bai. Markiñan, martizenean, antzar jokua. Jantziz eta gertaeraz lotsa ta begirapena eskatzen eban jaia. Guenkalian zaldi gainekoak ibiltzen ziran eta antzarrei burua mostu-tea txistularien doiñuak eta konpasak eskatu edo agindu ala egin hear izaten zan.

Ondarroan, Kandelario egunean aiaz eginiko torradak, tostadak, jaten ziran eta aratuztetan fotagaz egiñak. "Fot" a prantzerako berba da (faut) eta gozarietarako egiten zan ogi arol biguna izaten zan. Eta Gernikan, martizenez, ar dau-etxe eta ogi-etxetan, doan (debalde) emoten zituen tostadak.

Lekeitiok itxastar berezitasuna dauka bere kolore eta argi Erri musikalaria ta ibiltaria antxiñako abanera antzeko doiñu polit eta samurak erabilten dabez ango "estudiantina" taldeak. Azken baten, Eusebio Azkue zarrak, abadearen aitat, esango ebanez, zorrak guztiak antxoak ordainduko zitula.

Ondarroan be itxasoari berea eskintzen dautse. "Lantzo"ren sarrera ospatuko da jaiak asteko eta azken egunean, gabeko amabietan, "akula"ren entierua egiñaz amaitzeko.

Gero, biaramonean, auts eguna. Emen esaten dabenez "lapak jateko eguna". Bijilietan bete-betean sartu barik, mariñelak atsegiñez jaten dakien itxaski orregaz bijilia asi. Egunetako ajea kentzeko berebizikoa ei da. Kontu egin aratuzteak ba daukela esaera eta esakera jator geienak lez oituretan sortua: Aratuzte manga, ardauari esanga.

6-II-89

ARATUSTEAK - IÑAUTERIAK

Guk ordago joten dogunean andira jo nai izaten dogu. Eta andikiro ospatu, batez be jai kontuetan.

Ikusi eta ezagutu hear da zelako giroa sortu dan erririk geienetan aratus-teak, iñauteriak ospatuteko.

Ba egozan gure erri txiki askotan egunotarako oitura ta ekandu bereziak.

Dantza, joko, janari, jantzi, ikusgarri, barregarrikeri ta abar. Bear bada ez Lantz'eko antzera erri osoari bertan ibili bearra eskatzen eutsenak. Ezin ukatu Naparroako erri txikitxo ortako iñauteriak, kutsu eta nortasun berezi bat euki izan dabenik.

Aratustekak barriztuteko aukera pixkat zabaldu orduko, danok, edo geienak beintzat, Lantz'era jo dogu.

Miel-Otxin, Zaldiko, Ziripot, txatxoak, errementariak, mozorrotuak eta abarrek, an agertzen diran era guztietako jendetza eta aldrak, ze ikusi asko dauke erri txiki aretako guzur bizitzan eta sorgin sinistetan.

Miel-Otxin, bear ba da, ez da jator jatorra izango jai areitan. Jatorrizkoago izan eikean beste guzur-izakien bateri tokia kendu izan leike. Izen orretako lapur-andi bat egon zala diño, baiña lenagotik be ospatuten zirala iñauteriak. Eta lapur aren gertaera jazo zanean, lapur aren izeneko erraldoia sartu, erriaren barregarri tza t.

Bera, eta azken egunean bere urkatzea negarrez iruditzen daben neska zuri biak, urkatokian egiten diran parkamen ezaugarriak, eta abar, lapur baten bizitzari ikututen dautse, eta bere eriotzak erri bateri emoten dautsan nasaitasuna iruditu eta erakutsi eragin, batez be lapur ori erraldoi (gigante) bat izan eta menderatu al izateak sortutako atsegiñari urteera emon.

Baiña lekuan lekuko.

Ba dirudi euskal erri askotan Lantz'eko inauteri ori antzeratu nai dala. Ta jantzi ta ezaugarri bereziak eta barriak egin dira, diruari begiratu barik, eta diruak miñik emon barik.

Lortuko ete dabe gure ingurutako erriak, antzezkizun onen bitartez, erri ba-koitzari nortasun berezi eta jator bat emotea orretan?

Nai eta Lantz'en bertan baiño obeto egin, eta ez da gaitz erri andiangoetan anditasun eta ugaritasun geiagoz egitea, bakoitzaren kutsurik ataraten jakingo ete da? Gaitz.

Ixas aizeak joten nabe ni. Ezin urten itxas laiñoen artetik... Eta Lantz'eko iñauteri oneik, bein artara jarri ezker, gure itxas ertzeko mitoloji ugariak baliatuta, norbere zerbait egiteko guraria zirikatatu eta ortarako garrik ez al dabe sortuten?

Gogoratu daiguzan neskarrañak (sirenak); gogoratu baleak; iruditu arrain gaiztoak; itxas lapurren denporak oroitu, eta Ondarroa'n lez, gure izaki mitikoak aintzat artu: Leokadi, Marixe Beikañeko, Aitita Morokillo eta beste aibat.

Orrelako zerbait asmatuko leuken itxas erri batek, ez ete leuke Aratusteei kutsu berezi bat emotea lortuko eta erri askoren begiragarri eta txalogarri gertzea irabazi?

Laiño, olatuz eta aparrez betetako gure itxas bizitzako kondaira zarrari, bere irri kutsua be billatuko geuntzake.

Ez nator Lantz'eko iñauterien aurrea. Jokoetan, jaietan, irri-agerkizuntan, ugaritasun bat billatu bear da danon mesedean. Ugaritasun orretan legokc gure mitolojiaren aberastasunak agertzea. Bestera, danok asten ba gara Lantz'eko jaia barriztuten lortuko doguna bear ba d- pentsaten ez doguna izango da: Lantz'eri bere nortasuna kentzea.

Aratuste jaiak, iñauteri jaiak ba dauke gurc errietan zeri ikutu. Guri dago- kigu gatza ta berakatza sartzea.

18-II-82

ARATUSTE ONDORENAK

Oraintsu, Ondarroa'n Arri markiñarra gendun izlari. Bernardo Arrizabala- ga, idazle eta kazetaria.

Edur lodi ta guzti, zintzo.

Itzaldian uste dot markiñarren pekatuak zirikatu ebala.

Alkarregaz berba egin gendunean, zelan egin bear ko eta eban itandu eus- tan. Ia euskeraz ala erderaz. Nik oiatarako baimena emon neutsan. Eta berak, ez dakit zek ikututa, euskeraz egingo ebala esan.

Eta eguna eldu zan,, eta... pelotari on lcz, markiñarren unibersidadea mun- dutar zabala da-ta, tantorik geienak luzatu ta luzatu ibili zan erderaz, txokora- ko,' gurc tokirako, ikutuak, dejadak lagata.

Gatz lodia erabili eban. Ondarroa'tik kanpora zabaldua cta Markiña'tik ekarria. Tratulari on lez eroanak eta ekarriak crakusten; gaurko eran csanda, "importaziño" eta "exportaziño"ko gauza atara-ta. Bizkotxoak arrotzeko garnu- ozipin (ácido Cuico) berezko eta jator cta guzti.

Poztu egin nitzan berc oarpcn askokin. Uriburutakoak ezin cgin al dituc- nak, cta erri txikictakuak sarri gogoratzen ditueni buruzkoak.

Egunak joan dira eta aratusteak etorri. Onetan be euskeran atzcratu edo "lantzoi" andi dan Bilbo'ri sartu dautse ziria. Emen ez aratusteak, ez eta iñaute- riak, Gipuzkoa'ko erri jatorretan erabilten dan lez, Bilbo'n iñauteriak. Alako batcn Bilbaho dcituko dautse ta pozik. Eta alkatea gaztañatan cta kulturakoa olactxeren batcn, aitarena.

Esan nai dodana au da, obcto csateko, Arri'k esanda lez, crritarren oartxo.

Gu, ume giñala, orain irurogei urtc inguru, aratustetan crrukizko edo pni-

tentzi iruurrena eukiten gendun eleizan eta Gure Jauna agirian egoten zan, munduan egiten ziran pekatuen orde.

Gure bikarixo zarra sakristauaren idizillagaz eta sor Amalia bat bere buruko "aideplanu" ta guzti, eleiz atean jarri izan ba lira, zelako matxiñada atarako eben, orain lez, milla ume mamu jantzita amaiketako mentara joan eta eleizan sartzen ikustean, eta koloretea Jauna artzeko irri *edo* lotsagarri zan aldi aretan, ainbat neska mutil zirkutako pallasoak baiño biziago pipcr autsez beteta ikustean?

Eta nik ez daukat gaurkoen aurka ezer. Bestera, ez dago zetan eleizan jantzi batzuekin ibili eta kalean bestekin. Orrek batera edo besteak mundutik eta neurritik kanpoan gabiltzala adicrazoten dau, eta gizona bat da kalean nai eleizan. Gañera, abadeak esan cban lez, ez al zan Eleiza izan, garizumako neketa-rako gertuteko alaitasun oneik sartu zituna?

Lotsa zaindu bear. Alkarren lotsa. Or dago gure izatearen koska. Eta akatsa, sarri.

Bestela, gure bizitzako jatortasunez agertu bear ezik, egongo ete zan iñor, gure denporetan lez Jainkoak trasku ta guzti zeruratzen zitun oso osoko gizonik?

Batzuk arritu egiten dita olako gauzekaz. Ni ez. Erri kutsuz, nortasunez egiten ba dira. Ez gara ibiliko zillegitasuna nun dagon ezin billatuta, danok gizonki jokatu ezkeru, gizartean doguzan neurrietan.

Oraintxe etorriko dira benetako aratusteak. Ikusi bear garizuma lepoka erabilten jakiten dogun. A bc, bear daben lotsan.

I9-II-83

ARATUSTE TA GOSE EGUNA

Aratusteak, iñauteriak, eta gose eguna.

Ara igande onetako jai eta egitarau.

Ezin aztu, ezin bastertu, gero ta indartsu eta zaratatsuago batetik eta ikusgarriago bestetik datorren oiturarik.

Beste aldetik ezin gor egin eta ezin alboratu anai arteko ezbardintasunakaitik eta munduko errialde askotako egoeraren ondorenez, *gero ta* larriago entzuten dogun kontzientzirako deirik.

Batzuk sendotu egin dira oberako bizimoduan. Beste batzuk, asko, gero ta aul eta makalago euren bizitzan.

Guk be ezagutu izan doguz aratuste itzalak, gosetiak, egunari zela ala itxura emoteko ikatzez baltzitu eta mamu jaztea jairik onen izaten gendunekoak. Eta anai arteko laguntzari eske kalez-kale ibiltzen giñanekoak

*Asko daukanak kapoi eder bat
edo korda bat txorizo
solomo zati lodi-lodi bat
pozik estimau beikixo.
Beste guztiak txakur txiki bat,
ori be ez da preziso
zerren senarrak tabernarako
lenago kendu leikixo.*

Txakur txiki bat, eta bera emoteko itxaropenik ez askotan, senarra a barik ibili eta txakur txiki ori sagardautegirako edo tabernarako emazteari kenduta eukitea gertatu eikeana zalako.

Ez al da bertsoen bigarren zatian gure gurasoen egoera bearfsu, txiro, estu eta larri baten ezaupide eta autortza labur baiña esangarri askoduna igarten?

Alaz eta aratusteak ospatu nai, bear ba da gero etorriko diran garizumako berrogei egun itzal, kezkatu, barutsu eta penitentzikoei aurre emon al izateko.

*Eta orrelaxe, gauza andi lez,
Usain gozozko tajadak janda
gero garaian kafia
ez dakit zeñnek pasako daben
karnabal azken obia.*

Usain gozozko tajadak, torradak izaten ziran, batzutan aiaz egiñak, bestetan, ain zuzen ere aratustetan, fotagaz, ogi arolagaz egin eta kanelaz usainduak.

Or amaitzen zan dana. Or amaitzen ziran dantza eta musikak, paskuak arte.

Oraindik be, irrati, telebista, dantzatoki eta abar eguneroko oituretan igarri arren, Ondarroa'n, esate baterako, txistulariak laga egingo dautse urteko domeka eta jai bezperetan jotzen daben kalez kalezkoa joteari, garizumari bere itzala zaindu eragiteko.

Esan ezik asko ez litzakez konturatuko, baiña alaxe gertaten da.

Aratusteak, iñauteriak ospatuteko eskubidea dogu. Bearrezko dira bizitzan egun alai eta amets eragilleak.

Baiña ez gaitezan keixatu egun oneitan, askotan ardura barik eta arrokeriz egingo doguzan gastu eta eralgite nabarietan, gure giza-izateak anai arteko eskari garratz eta mingarriz, ez bakarrik irugarren mundua deitzen danean, bai eta gure artean be, arpegi aul, gaiso, gosekil eta negartiak ikusi eragin eta gogoratzen ba dauskuez.

Betikoa eta legea: daukanak eztaukanari emon bear sarri.

"ARGIA" ASTEROKUA

Lengo gizaldiaren azkenetan sortu zan Bizkaian euskal asterokuen garra. Gizon bi ezagutu ziran orrelako . kesketan: Azkue eta Arana Goiri.

Azkue euskereari begira geien bat. Sabin euskera aberriaren on bidetzat artuta.

Azkue'ren "Euskalzale" zan osorik , euskera utsean agertu zan leHena, 1897-1899 urtetan.

Orduan be ba egozan azeriak. Bere irugarren urtean euskera utsean agertzea galerazo eutsen, zerbait agertzen ha eban aren esan naia erderaz be emotera beartuta.

Eun pesetako zigorra ezarri be bai. Zigor ori ordaintzeko, izen bakoitzeko 0,25 baiño geiago ezin artu.

"Ibaizabal" agertu zan aren atzetik 1902- 1903 urtetan.

Azkue ta Kirikiño alkarregaz ebiltzan asteroko bi oneitan.

Aurrerago "Bizkaitarra" eta `Baserritarra", biak sabindarrak, euskeraz eta erderaz.

"Bizkaitarra" ez zan asteroko lez sortu, illeroko baiño, nai ta gero amabosteroko eta azkenean asteroko agertu.

"Baserritarra" 1897 urtean agertu eta 18 zenbaki bakarrik atara zitun.

Lenengo zenbakian au esaten eban goi aldian: "Argija igande edo domeka gustijetan ikusten daroya. Argitalduko da aldiijona ixango dan artian".

Ikusi danez aldi on ori laburra izan zan.

Danak, beti be, Madrid'eko itsukeriak zuritu eziñik ibili ziran. Zerbait gertatu orduko, atxurra lepoan edo maillu zapalgarria buru gainean.

Bilbotarren euskera ez jakiteak, eta gobernuaren traba eta ostopoak, biziten be ez eutsen lagaten euskal asterokoei. Baiña Madriden baiño etsai itsuago Bilbo'n. Emcn egozan euskerarik jakin nai ez eta ikasi be ez eta ikusi ezin ebenak. Betikoa, gauza bat esan eta bestea irakurri, eta beti be satorren aspi janak nausi.

Gipuzkoa'n, 1921 urtean, asteroko jator bat agcrtu zan, Jorrail onetako 24 egunean.

Erriarentzako. Erri berberak idatzita. Baserritarrak be idatzi ta irakurten ebena. Gogo orregaz jaio zan lenengotatik. Erriarentzat era gustietako argi, erakusle, lagun, kontu esantzalle izateko asmotan.

Izena: "Argia".

Sortu eta zintzo jarraitu eban bere asmotan. Urtetik urtera errian geiago sartzen.

Ez Gipuzkoa'n bakarrik. Bizkaia'n be sartzen zan. Eta irakurri. Orduan danok gebiltzan batera. Giputxak izan nai bizkaitarrak. Erri eta alde guztietako barriak jasoten alegintzen zan "Argia".

"Argia" zan soil-soillik. Ez zeruko eta ez inpernuko. "Argia", euskal giroak nai ebana.

Euki zitun denpora gordiñak. 1921 urtean jaio zan, eta gizendu ordurako or eukan diktadura gaiñean. Ez ziran giro bigunak, leunak, euskerarentzat. Baiña al bestean, aurrez aurre edo egalka, arrantzaliak esaten daben lez brankaz edo popax giroari arpegi emoten jakin eban.

Gero bake zuria agertu edo ikusten zan garaian, orra gure gerra; 1 936'ko gerra, dana beratu, galdu eragin eta ondatzen.

Amabost urte iraun eban "Argia" k Ordurarte euskal asteroko batek iraun eben luzaroen. Eta irakurleakaitik izan bat litz, gaur be gure kaletan ezagutu eta gure eskuetan erabiliko gendun.

"Argia" asteroko a benetan maite zan Gipuzkoa'n. Eskatu egiten zan, eta irakurri. Baserrietan lez uri andietan. Etxeetan lez kafetan. Euskalduna zalako, euskalzale zalako, egitsu, errikoi, jator, egi zale, erraz eta euskal senaren ezagutzalle. Ori zan bere tengada

Euskalzale jator batzuk sortu eben euren artean Zatarain eta Onaindia. Lenen zuzendari Carrere. Ondoren Bitor Garitaonaindia. Etxebarria abadea gero; azken denporetan Arrue eta Tellaetxea. Zuzendari jatorrak danak.

Biziko ete litzake gaur "Argia"? Entzun izan dot iñoiz itaun ori. Gaurko giroa ez dala lengoa...

Eta nik au diñot: gaur agertzen diranak arnasa luzea ete dauke?

Erriari pultsoa artzen ez da errez. Eta len "Argia" k jakin ebanik, ezin ukatu.

Dana dala, guk, "Argia" ezagutu gendunok, eta azken aldietan bertan zerbait idatzi be egin gendunok, "Argia" ren oroitza bizi dogula esan bear Esaten dan lez, begien aurretik galdu barik.

22-IV-79

J. M. ARIZMENDI

Zuzen esanda, Arizmendiarieta.

Auzoko lagun izan giñan gure gerra aurretxoan.

Lankide zintzo ta gartsu gerratean.

Ixilleko aolkari gerrako eskutuko egun larrietan.

Laguntzar jator eta zabal gerra ostean.

Askok itanduten dauste: Zer esan zeinke zuk Don Jose Mari dala-ta?

Eta nik erantzun: Ezer egiten ez ebalakoan, une guztietan lan andietan linardun gizona zala. Eroapen andiko gizona. Eta etsipen bakoa.

Iñogaitik txarto esan bear ebanean be, irri-begiz ekiten eutsan, ixekaz, sekula bere ez gorrotoz.

Bilbon, gerra urtean, abade ikasle zan.

Arratsaldetan etorten zan "Eguna"-ra, izparkari zeregiñean, goizean abade-tzako ikastaroak Begoña'n eukiten zitulako.

Beti umoretsu. Sekula aztu ezin dodan umore ixil etenbakoz. Ez dakit ze-lan zeaztu bere umore ori. Eta euki zitun bere buruaustek Bilbon. Zein gaztek euki ez orduko giroan? Eta gero... Alaz eta, asarreak gorritu eraginda be, ba-rrezka jardun bear.

Ikako berbeta beragandik ikasi neban. Beti borondatezko ekitadetan. Artu-eik jan-eik, eroan-eik.

Bcrctzako cukana beste edozeiñentzako zan. Gerratean lez gero bere.

Sekula bialdu cz Arrasate'tik gozo batzuk cterako emon barik, edo ta go-se denpora areitan etxetik berari eroandako lukainka, aragi cdo zerbait barik... Eta egunetan modan egonarren liburutcgictan eskutuan eukiten zitucn erbcste-ko pentsalarien liburu barik.

Erderaz esaten dan "dctalle" dalakoa, sorginkcri lez ataraten eban. Manteo ta guzti ibiltan ziran orduan abadeak. Eta ezer ez eroalakoan, an lagako eutsun, gaur galduta dagon Mckolaldcko trenean, bere oparitxo.

Lengo baten Gautegez'en abade dagon Puxana'k esaten eustan, bere uste-tan gerrak bere izakcra okrcru egin eutsala Arizmendi'ri. Euskal idazle andi izango zala gerrarik cgon ez ba litz.

Abade ikasten iiiarduala, Gasteizen Kardaberaztarrcn arteko langillerik as-per bakoenetako izan zala ha dakit. Denporaldi aretan euskal toki izenetzazko lan batzuk agertu zitun.

Berak emona daukat Joan Barbier'ek 1931'n argitaratu eban "Legendes du Pays Basque d'apres la tradition", bcrak bizkaierara biurtuta.

Abade egin eta Arrasate-ra bialduta *gero* be, ha eukan idazle garra. Gerra aurrean "El Dia"-ko zuzendari izan zan Josec Lekaroz-egaz ibili zan aldizkari edo asterokoen bat atarateko tratuetan. Eleizak emon eikion ortarako baimena, garai aretan eukazan eskubidickaz baliatuta, baiña garai aretan gotzain zan Lauzirika jaunak ameslaritzat etsi eban, gcroago Donosti-n egun zan Font y Andreu gotzaiñak crri-nasl (demagogo) zala ta atea itxita bialdu eban lez.

Gure denporctako gizonetaz bat zer izango zan edo zer izan leikian esatca, ez da erreza. Kontu egin, askok urtc luzeen bitartea, utsunca, czer egin ezinda igaro'ebela ta gero, lenengo aukeran, al izan eben ogibide bateri lotu bear izan zirala.

Jose Mari'k, euskera bastertu barik, baiña alboan lagata, gaztediaren ira-

kaskintzara jo eban gero. Giroari onurarik geien atara eikean bidea asi eban Eta bere ekiñari esker, urte gitxitara, bere ikasleekin batera, laneko kate barri bat sortu eban, lankideak katetan lanean ekitsela erri inguru andi bateri biziera jator eta ziur bat emoteko ametsetan.

Gaur, bere lana, gero ta argiago ta zabalago igarten cla.

Bost urte, Ander deunaren egunez, il zala.

1-XII-81

ARRAIN ELDUA TA ARRAIN MIRRIÑA

Aspaldian, noiz nai irakurten da alako albiste bat: Andaluziako bideetan, geienetan Jaengo bideetan, Ondarrutik urtendako kamioien bat geratu egin clabela bide-ikerlariak eta eroian arraiña baitu eta kendu.

Orrelako baiketak (clekomisoak) 1993-ko Abenduan asi ziran eta arrezkero amar bidar beintzat gertatu cura.

Orrek, arrain utsetan 9.660.000 peseten kaltea gaintitzen dau arraiñaren merkatuko salmentan. Eta ekarri edo gaiñeratu leiken ondorena zeaztuten gaitz, kontuan eukita orretan amazapi alkarteko 25 txalopa sartuta dabiltzala, eta itxasoan dabiltzan gizon eta leorrean euren arduretan dabiltzanetan, 600 gizon batzen dirala.

Zazpigarren itxas-basterrean dabiltzan txalopezako arrantzaten daben euneko 60-ren kaltea da eta balio orokorreko euneko 70. Ez da ori bakarrik. Ornelako jokabidearen ondorenez lareun lagunetik gorakoentzat lanik eza edo lan posturik eza ekarri leike. Bidea da beintzat.

Ori ikuspegi orretatik bakarrik beglratuta.

Baiña ba dau arrisku andi bat ain zuzen gure erriarentzat.

Jakiña da gaur Ondarroak arrain merkataritzan, sare inclartsu, sendo eta arduratsua lortuta daukala. Eta merkataritzako sare ori arrasterako arraiñentzat lez zabaltzen da bajurako arrantzarako be. Sail bateko utsuneak erosleak alden-du leikez erritik eta inguru guztiko merkataritza eta langintzari oker andia ekarri.

Nun dagon sortzeko pekatua? Asiera baten Alkartasun edo komunidadeko uretan lan egiten eben españar estatuko arrantza saillekoei ezarritako baldintzetan. Batetik 1981 urtean 400 txalopa aiña batzen ziranei 300-era murriztutean.

Ori bat. Eta bestea, emengoei kendu edo murriztu eragiñagaz batera, Konlunidadeko beste errialdeak *gero* ta arrain geiago gure merkatura sartzetik. Orrela emengoak murrizte legeak bete bear ebezan denboran, kanpotik emengo merkatuen atea zabaldu eta asetzen alegindu. Laster dator 1996 urtea. Urte orretarako Itun barrien bat, konponketa barrien bat artu bearke da 2.003 urterarteko bitarteko lez baldintzat zeaztuten.

Egoera labandu, bigundu eta artu-emonak erraztuteko borondate oneko egokitze bat eskatu jakoen emengoei. Baiña zenbateko esku zabaltasunez? Agiriko bat or dago: Arrain eldu bako edo ta mirriñen zeaztapenean. Zegaitik emengoei lebatzkien neurrik gitxiena 27 zentimetrotan zeaztu eta Mediterraneoakoa ba da 18 zentimetro egokitze artu eta Marrokoetakoei 14 zentimetro onartu? Onetan gure erritarra dan Gatzaga-Etxebarria aldunak eskari bat zuzendu dautsa Ministeritzari, urte bat barru egoera au konpondu eta bide onean sartzea eskatzen. Beintzat txalopa jaubeei eta arrantzaliei garapen jator bat eta zentzu obeagoko bat lortzeko alegiñak egin eta gaurko arrain baietak geldi araztea eskatzen, konponketa garbi ta zuzen bat lortu artean. Igarten da gure ordezkariak zur jokatu nai dabela, gaurko Merkatu eta Erabide barrietatik, noiz nai sortzen diran erabagiak gure eskubideak zaindu edo tal kaltegarri barik, lanerako eta garapenerako zuzen izan daitezcan.

9-VI-94

ARRAIN IZENAK

Lebatza ala legatza?

Azkue'k, Bizkai guztian erabiltzen dan lez, lebatz ipinten dau. Eta legatz, Napar. goi-aldean, Gipuzkoa'n eta Laburdi'n.

Dana dala, batera nai bestera, jakintza izenez zientzi deituraz merlucius merlucius deitzen dana da eta arrain atsegin eta geientsuen eskatzen dana.

Gure denporetan lebatzen iru mota ezagutzon genduzan: lebatza, lebatz erdika ta lebatz kumia.

Baiña arrantzako erak aldatu dira.

Len amuko lebatza izaten zan. Orain, geienetan, arrastaka saretan artua. Amuko lebatza, beti be lebatz ederra izaten zan bere neurrian. Trokua. Ta txikia ba zan fiña.

Moskorra artzean, andia ba da, orrek dauka lebatza! esaten da itxas errietan. Txikitxoa danean lebatz kumia.

Goazen gurera' Zenbat lebatz mota dagoz gaur?

Kaietan bizi gareanok, arrasterak asi ziranetik, len ezagutu ez genduzan ez bardintasunez ikusten doguz mota berberekuak. Oraingo sareak bidean billatzen dabena guztia batzen dabe. Txiki nai andi me nai lodi, kume nai koskon.

Eta euskeran ez gara aurreratu. Gu merkatuetara gure izenekin joan barik, merkatuetako izenak sartu jakuz guri.

Orrela lebatzean bertan.

Gaur lebatz izena, soil-soilik, iru kilotik gorakoari emoten jako.

Ondoren lebatz erdika dator "mediana", iru kilotik berakoa.

Gero lebatz koskondua, "gordea" deitzen dautsena, kilo ta erdi ingurukoa.

Orren atzetik lebatz errikoa, "popular", kilo ingurukoa.

Urrengoaren deitura lebatz kumea da, "pescadilla", librakoa.

Gero antxoa antzeko lebatza, "anchoilla", liberdikoa. Toki batzutan onelakoari leba deitura emoten dautse.

Oraindik ba dago txikiago bat, lebatz ultza, "clavo", 100 gramo inguruan ibiltzen dana. Eta, ai ene sareak!, onek be ba dauka bere kideko txikiagoa, "clavito", 50 gra orotan ibiltzen dana.

Eta ez uste or amaitzen diranik. Ortik kanpora erriak be ba dakiez euren izen bereziak emoten. Esate baterako, Orozko'n, lebatz ondua deitzen dautse lebatz gazituari.

1935 urtean Lafitte eta Obineta tar Bixente'k liburu atsegin bat agertu eban Euskalerriko itxas abereei buruz. Geroago 1976 urtean Iraola Mujika eta Ibañez Artika'ren lanekin geituta agertu zan berrero, "Fauna Marina-Euskalerriko itsas abereak" izeneko liburu txukun baten. Baiña agortu zan, ez da billatzen liburategietan.

Ainbat liburu zar egokitu edo egunekotzen ikusten dogun aldi onetan ba dago gure itxastarrak artu eta saltzen diran arrañei buruzkoen premiña.

Euskal nortasunik ez genduke galdu bear gure diran sail askotan, gure kulturegintza benetan jator eta errikoa izango ha da. Sareak batzen dabena zegaitik paperetan batu ez?

ARRIGORRIAGA GOGORATZEN

Naste, erasoaldi, gudaketa.. .

Gaurkorik ez dakigu ta antxiñakoen ziurtasun andirik ez eukitea, ez da arrigarri. Orrela joango ziran antxiñako asarre eta alkar zapaltzetako egitada asko.

Baiña Arrigorriaga'ko gudaketa, gure mendeko 888 urte inguruan mugatzen da. Batzuk zerbait lentxuago.

Arana-Goiri'rentzat gudaketa ori cia, gure gurutze-bidun ikurriñcan, orlegiagaz (berdeagaz) iruditzen doguna. San Andres'en gurutza.

Berde illun mardulagaz iruditu bear da. Sabin'ck esatcn eban lez aritzaren koloreagaz. Ez garaitza bat goratzearren bakarrik. Bai eta indarkriaren aurka lcgearen ezaupidea aizetara zabaldu eraziteko be.

Aritza-Gernika-legea, dira gure ikurrinean Sabin'ek irarri nai izan eban czaugarri irukoitza, berdeagaz. Gorria, erria; eta kristautasuna zurian.

Danok dakigu lenengo biztairrentzat sortu zala ikurrin au, eta beste anaiak curen borondatez artu ebela berbera danentzat. Maitasunez artua, ez indarkeriz sartua. Alaxe da gaur danok darabilgun ikurriña.

Sabin'ek koloreckaz berbetan jakin eban. Bai eta poesi samurrak egiten be, iñoiz gurc giroa laiñotzen ezagutzen ebanean: "Arcitz orleia oritu da" csango dau zapalckerien gogorapenetan.

Euskaldunak, batcz bc bizkaitarrak, Andcr deunaran egunez cgun andi ospatzen asi ziran batcz be Maixuarcn dcnporetatik. Au da, abertzalctasunaren iratzartctik.

Bear ba da Arrigorriaga'ko gudaketa au cz zan izango lcncna, orduko giroan asarrerik txikienak be indarrezko egitadctan biurtzen ziranetan. Baiña ezaupiderik luzcna daukana, atzcra bcgira urrunen doana, bcrau da.

Otxandio, Gordexola eta Mungia'ko indarraldiak gcroagokoak dira, urte asko onuntzagoko.

Arrigorriagakoan, Zenon bateri cmon geinkio asicra.

Asturiasko errcgc zan Alfonso Nausiak bere menpean eta espetxean euki eban gure gidarictako zan Zenon ori. Euki eta bertan iltcn itxi.

Ornen jakitun egozan bizkaitarrak cta gora-goraka asi.

Alfontso orrck Bizkaia'ra ctortcagaz zemaitu zitun gurc zarrak, mendcra-tzccko asmotan. Nai cta oraindik Durango bcrc jaunekaz bizi, bizkaitarrekin batu zan Santxo Estikiz bcrtako Jauna. Bizkaitarrak Jaun Zuria croan eben gidari lcz. Eta biak, curen lagunckaz, Padura ingurutan sekulako astiñaldia cmon euscnc Asturias'tik etorri ziranci; batzuk iges egin al izan cbcn, baiña bestc asko birrinduta geratu.

Orduko ekiñaldiaren gogoeta da oraingo euskaldunak. Ander deunaren egunez anaitasuneko apariagaz ospatu nai izaten doguna.

Kepa Enbeita zanak, "Urretxindorra"k, laga euskun egun orretazko bertso sail bat:

*Arrigorriaga 'n zan
ondata Ordoño;
garaille erdia, baiña,
bixi da oindiño.*

30-XI-83

ASTE GURENA

Orrela deitzen eutsen gure zarrak Aste Santuari: Aste gurena, nausiena.

Zazpi ainkadun atsoaren amaiera. Ala ezagutzen eben, eta iruditu, gure zarrak, garizuma.

Len, Eguen eta Barikuz, erriak jai egiten eban, nai ta Eleizak astegun lez artu. Esan lei Eleizaren gaiñetik edo aurretik jokatu izaten ebala erriak, bere sentimenak eraginda.

Gaur, Aste Santua, eleizarako aste orde, opor aste lez artzen da. Len penitentzi eta barau; orain atsedan eta atsegiña. Len ezelako soiñu eta musikarik ez; orain jolas eta algara.

Alaz eta ezin ukatu gizonok, gure bizitzan, egiaren borondatea dogula ta gure siniste asko, lastoa kenduta be, ezin doguzala baztertu, sakondu baiño.

Garizuma, bere baru ta aragi usteen itzalez, gertaera eratsu ta ona izaten zan Aste santurako.

Erramu igandeko eriñotzak, eta asteko sermoiak, aintza eta penitentzi, gogo onez alkartuten genduzan.

Erri askotan, gogoko gendun pasiñoia, girotu baiño geiago, egitea, Bizi nai izaten gendun.

Gaur zar eta elduen lotsa bitarteko dagozalako edo, toki batzuetan oraindik bizarra baltzitu bako txikiak erabilten ditue nekaldiko irudi lez.

Ezin ukatu txikiak eroaten daben begirapena aintzat artuta be, lengo mutil mardulak edo igartutako zarrak beste itzal bat emoten eutsela eleiz-jaiei.

Gure denporetan, pasiño guztia gogoratzen gendun gure zarretan. Kristo, Judas, Madalena, Beronika, Jerusalemgo alabak, palazeruak (erromatar soldaduak) eta abar bizirik ezagutzen genduzan gizon eta andre marduletan, eta euren alboratu eta izen barriekaz gelditzen ziran bizibide jatorrean be. Alako entzumena artzen eben iruditzaile areik.

Eleiza eta erria, "kabilo" biak, alkartu egiten ziran jai oneitan.

Erriak ordaintzen zitun "Miserere" tako kandela urdiñak. Erriak ordaindu sermclari ta autor entzuleak. Eta erriak baita be, Eguen eta Barikua ibildeunean kapak jantzita joaten ziran abadeak.

Eleiz barruetan Eguen santuz ipinten ziran "monumentu" andiak be erriak ordaintzen zituen. Eta teatro antzera eleiz askotan egiten zan Kristoren gorpua kurutzetik beratzea be, erriak ordaintzen eben, eta lotsaz edo beste aitzakiz, Kurutzetik beratze ori galerazo ebenean, erriak izan ziran galerazte orren aurka asarre agertu ziranak.

Nai ta oteundegiei (sagrarioei) ikutu egiten be eleizgizonak ez ziranak auzartu ez, erriko alkatea izaten zan, baltza izanarren be, eguen santutik barikura "monumentuko" giltzaren zaindari.

Aste Santuak ba garoaz, baita, euskal bertso batzuen ezaupidera. Eta orrela Agustin Basterretxea ipastertarra gogoratu eta ezagutzera. Berreundak urte egin zirala ta oraindik bizi gogoratzen dira Euskalerrian geien agertu diran bertso luze eta errukitsuak, nekaldi edo pasiñoia gogoratzen.

Erriak, Aste Guren edo nausi au, bizitzako azterketa lez artzen eban, azal eta mamin.

14-IV-84

ASTIZKO ZARRA

Borondate andiko gizona Migel Angel Astiz. Edo berak iñoiz izenpetzen eban lez, Astizko zarra. Batek iñostan: Idatzi bear zendun zerbait euskaldunon izenez.

Nire aldetik zorretan nago.

— Eta?

— Nik, egitekotan, bere ontasun larregiak sortu eustazan burukomiñak gogoratzeko izango litzake.

Alaxe da. Gu orain ogeitamar urteko egun latzetan antzerti lanetan asi giñanean, ezaupide andia lortu gendun Euskalerrian. Gure lanez eta izparkari ta irratien jardunez. Toki askotara elduten giñan, uriburuak sartuta. Larogetak lagun batzen giñan.

Olabide'ren omenaldia Gasteiz'en egin zanean, bezpera gabean ia ez joateko egon giñan. Astiz'ek, borondaterik onenagaz, ni izentatzen nindun taldeko zuzendari, musikalari, antzerkiaren egille, eta abar deiturak emonaz.

Ori talde baten izena eta ospea batek erabiltea zala, beste lankidiei nortasuna kentzea zala, ta abar.

Milla bidar esaten neutsan Astiz'eri, eta egun aretako be lagunen aurrean esanda neukan, ez nebala nai ezetan— agertzerik, talde barruan ni beste edozein nitzala, nai ta lanaren egille izan. Baiña Astiz'ek, sekula ia notarik be artzen ez eban arek, bere buruan bein irarritako fitxarik ez eban aldatzen, eta zerbait egiten gendun bakoitzean, bere diskoa luzatzen eban.

Geroago nire antzerki bat musikaz ornidu eban musikalaria, benetan asarretu jakun; Astiz'en lorak ez ziran danentzako uste eben aiñako usaintsuak. Astiz'ek bere diskoa oraindik zartatu eta arrakalatu barik erabillan niren alde.

Nik ezetara nai ez eta billatu ez nitun gertaera oneik, asko erakutsi eusten gerorako aire jokabidean. Baiña Astiz'ek, edozelako gertaeraz baliatuta, in-tsentsua emoten jarraitzen eustan.

Astiz, niretzako, euskeraren maitasunak erabilten eban jokabide orretan. Eta esanalak esanarren, arek berean jarraitu. Benetan, geiegi unkitu edo biozean ikutu eragiten eutsen euskal gaiak.

Kontuan euki bear da Astiz'ck bere nortasunez lortuten ebala bere egunkarian besteak lortuten ez zituen euskal kezkek agertzca, askotan zuzendaritza berberari tartea ezin artuta.

Astiz Naparroatik etorri zan eta orrek, zela-ala, arindu egiten eban bere ekiña. Alferrez izan zan gerratean, eta orrek be itxurak zaindu eragiten eutsazan. Euskaldunok iñok ez dautsagu ukatuko Astiz'eri gure erriagazko on nairik eta beragazko batasunik.

Bere zaletasun bat agertzekotan, Euskalerraren maitasuna esango neuke. Baiña beti eukiko, neuke kezka lakoa, Euskalerria eta euskera ez esateagaitik, nai ta au an sartu.

Euskaldunok beragan euki gendun denpora gaiztoetan gure gauzei eta batez be euskerazkoei itxura, nortasuna eta askotan goietan egozanei eurak galarazo edo ukatzeko aukera moztuten eutsena, aurrea artuz ekintzen ontasuna zabaltzen ekialako.

Euskaldunok uste baiño zor geiago dautsagu Astiz'eri, nai ta berak bere zeregiña beteten besterik egin ez. Danok ez dogu ori jakiten.

AURRERA

Bearrezkoa da eta komeni be ba da, alderdiak eta erakundeak, auteskunde denporan, euren gogo eta amesak agertzea, euren eskintzak egitea, euren elburu nausiak erakustea, jo-mugak zeaztutea.

Era askotakoak ikusten doguz: aupagarriak eta zapalgarriak; maitasunezkoak eta ikusi-eziñezkoak; kezkatia eta ardura bakuak; esku zabalak eta eskuak; ase eziñak eta danagaz gogaituak.

Batzuk ondo egiñak.

Indarra dauke, euki be gaur irudiak, esan naia ikusiz adierazteko. Nik esango neuke berba egiteko.

Irudien bidezko berbeta sakonduteko dogu oraindik. Bildurra be ba dago biziagi joango ez ete garean onetan.

Auteskunde lako ekintza baten agerbide egoki bat aukeratzeak lema on baten igarteak, bide erdi zabalduen dau, atsegin jausiagaz batera, ikutu egiten daualako bakoitzaren sentimen eta maitasunetan. Origaitik, ondorenak ezagutzen diralako, asko gabiltz gaur irudi onen atzetik. Zer nai dan eta zelan gabiltzan igarri eragiten dabenen atzetik.

Zenbat beste slogan erabili ete dauz EAJ'k berea aukeratzeko?

Ziurretik bat baiño geiago aztertuko ziran, era batera edo bestera gure elburua adieraziko dabenek erre-artzeko eta ondo sartzeko erabiliko dana aukeratzeko.

Edozetara be aurrera goaz, eta aurrera jo bear dogulako, alaxe bear da.

Aukeratu dan esaeragaz, erri baten lotuera eta eskintza, gogoa eta maitasuna erakusten gabiltz. Erriaren aurrean gure autortza egiten.

Aurrera goaz'ek ez dau ezer mugatzen, ez dau toperik iragarten. Erri baten onak euki be eleuke bear sekula mugarik eta toperik.

Sekula be ez da egiten erri baten mesedean eta bere ontasunean naiko dala esateko aiña.

Aurrera jo bear da. Mendi tontorrera - igoteko mendizaleak, arriskutsuenak be, orman gora joatean eroaten dituen gantxu eta lokarriak zuloetan sartu, ziurtatu eta beste mailla baterako aiña

Emen ez dago altsu ta makalik Bekoak goikoa beuzi leidi asmuz eta jakitez, esaten da Bengoetxeatarren ikurdian.

Aurreak berak erakutsiko dau gero zelan erabili. Euskal esaera jatorra da. Bai beste au be, bardintsua, nai ta berbaz aldatuta egon: Aurreak erakutsiko dau atzeak nola dantzatu.

Erriak dantzan egin bear izaten dabe. Milla eratako dantzak. Eta aurrekulariak emoten dautse doiñua, erritmoa eta legea dantzariei

Orren billa gabiltz. Orren billa joan bear gara.

Zenbat eta bide geiago egin, aurrerago joan, elburua urrerago, azkena eskurago, gure nortasuna ziurrago. Aurrera.

16-II-84

AUTESKUNDEAK

Asiak gara. An eta emen.

An bildurretan. Emen kezketan.

Auteskunde giroa laiñoz beteko ete dan bildurra igarten da.

Ain gaitz ete da, lau urtetik bein, bakoitzan kontzientziak agindutako eritzia emon eta len lez lagun artean eta alkarren auzoan, adiskide eta begi-oneko jarraitzea?

Ez dau iñok ukatuko ala bear litzakenik. Azpi jokia alboan lagata.

Baiña gure ingurutako errietan urtero egiten ziran alkate eta erriagintarien aldakuntzetako bake oia kenduta, bestelakoak txikikeri eta bekaizkeri ugarien ziurtasuna laga eben.

Ez dakit zeñenak diran bertsuak. Eibar'ko Orue'nean atarata dagoz. 1896 urteko Bizkai'ko Diputaduetarako auteskundeak gogoratzen dira. "Markiña'ko distrituen" dauke izenburu.

Eta argi esaten da dirua egon-zala bitarteko Rodas eta Aznar'ek curen artean euki eben eztabaidan.

Rodas "kastillanotzat" artzen eben eta Aznar Bilbo'ko "seme maitetzat". Amalagarren bertsuak onela diño:

*"Ez dogo biar kastillanorik
gure Bizkaiko lurretan,
baizik Bilboko seme maitiak
dakinak gu gobernetan,
biotz nobleko bilbotar maite
Aznar eta konpania
ez gugaz aztu zergaitik dogun
sarri zuen premiña "*

Beste paper batek deitura au dauka: "Markiñako distrituen eindako kome-
diak". bertsolarria ez da gorago gogoratutako bertso egillearen lagun. Izan ei
baiña bear ba da, iñoiz oitura egon zan lez, ordainduta egindako bertsuak
izan leiz. Rodas'ek Ondarroa'ri mesedea egin, diño eta gero jaramonik egin
ezagaz ordaindu:

*Gogora izan zazu
Ondarruko erria,
zeiñek egin dizun,
zeuri mesedia,
Rodas'ek ikusi ba leu
Allende'n ideia,
ezan konsegituko
eiterik rrollia.*

Bertso oneitatik igarten da zaratatsu ta gogorkerietan ibili zala gure
Erria Eta errian zeintzuk agintzen eben be agirian dago:

*Tunikadunak emen
dute anaioria,
zergaitikan daguen
marine! jendia,
zazpiri kosta zake
preso egotia,
ta erakutsi erain diote
Durangoko erria.*

Beraz, gure erritarren bero, eta zintzotasuna ezagututa, ez da luzera jo bear
auteskunde itsu, oraindu eta azpikeriz beteak izango ziranik. Eta batzuk Duran-
goko kartzelan sartu zituenik.

Gaur gure izatea len baiño zabalago dala uste dogu gai onetan, eta eztabai-
dak zainduarren, gauzak zentzu onez egiteko gertaera obea dogula.

AUTESKUNDEAK BERTSOTAN

Bertso zarrak istori zarren kontulari dira. Kontulariak idatzi ez cbena, bertsoan aozkatuta bizi dira.

Gure gizaldiaren asiera-inguruan, auteskudeak burua berotzen ekien, familiak estutu, etxe bizitza aidean jarri, ogibidea aldatu eragin, menpetasuna garraztu, borondatea saltzera beartu, gizonaren azkatasuna zapaldu, familietako bakea ari baten ipini...

Ez zan erria, gaur lez, sakonean sartzen. Goitik bera etozan aginduak eta aukeratzeak. Indarclunak, aberatsak, jauntxuak ziran nastea sortzen ebenak eta erria erosten ebenak.

1896 urteko bertso oneik irakurri:

*Diputaduak eiteko
cuan ordenia,
ta ikusten da emen
ko,neri aundia,
Rodas'en kontra jarri
da Aznar aundia,
ta etxakue akordau
nola ein zan mollia.*

Ikusten danez, erri baten meseclea da aidean dabillana.

Ortarako, autarkia (botoa) eukenak aidean:

*Gizon bateri botuagaitik
agindu batel barria,
kafian herían artu zioten
bela berrien neurria...*

Zeñen diruagaz? Autuetara agertzen zanarenagaz? Bere inguruko jauntxoanagaz?

*...suskrizivan batzen asi-ta
gelditu dira erdira,
Pio onekin pasatu dute
izugarritzko feria.*

Danok dakigu orduan emakumeak ez eukela botorik. Gizonezkoak be ogei ta zazpitik gorakuak.

Baiña erri txikiak gorrotoz, benenoz beteten ziran eta ortik sartzen ziran alkarri ziri ta tirri, asarrea gciago sortuten eben zitalkeriak.

*...otso guztíak ujuka eta
ajaka ziran kalera...
erroineria polita izan da
Ondarruako errian.*

Edo ta alkar banatzcn argiago erakustcn dabcn beste au:

*Kofradia ere zan erri ontan
koston ez dan modukua,
gizon batzuk ziran merio
izan zan enreatua...*

Gaur, bear ba da, erriak sakonago sartuko dira auteskundetan, baiña borondatea agertzeak *ez* dauka, eta ala bear da, gizon bakoitzarentzat ondoren oker eta latzik.

Eta iritziak iritzi, azkatasuncz autatu al izateak, autatuari be nortasun jatorragoa emoten dautsa. Ori be oartu bcarrekoa da.

20-II-84

AUTORTZAK

Nireak, nirc autortza uts, argal, zimclak.

Laga baketan, naastu barik, nirc izcneko santu aundiaren autortza ospatsuak.

Joan dan illean, Aurrezki Kutxak eratutako literatur sariketak erabaki ziran Gipuzkoa eta Bizkaian.

Ba daukat sariketa batzuctara sartzeko oitura. Sarikctei laguntzearren batzutan. Jakiña, irabaztcko kczka edo garra bitarteko.

Irabazten diranak argitara agertzen dira. Bcsteak cskutuan, ixillcan Ta... askotau, norbere ustez onenak ixillcko orrcik, nai ta cpaikariak duintasunik emon cz.

Olerkari cta zoro, danok cl gana zerbait.

Ba dakit ez naizela olcrkari, baiña ba dakit baita zorotasun orrck jotcn nabela.

Zorotasun orrck jota joan nitzan bcin, Sangotsa'u, Fraga'rcn alabari cskuan mun emotera. Lore jokoctako crregin a, eta olcrkari saritu ni. Eta alboan. beko-ki zabal eta begirakune dizditsuz, berc aita.

Igaz, aipamen bi lortu nitun "Lauaxeta" sarian. Zillarrezko ontzi bi. Orreri ondo eritxita, aurten be bialdu neban lan bat. Nire ustez "eguneko" lana, gaurkoa. Baiña hosten barman be sartu ez. Zaarrak ezin antzik emon gazteei. Ori egia.

Baiña olerki kontuan ez etc bearko sentimetro bat (sentimctroa, au da. sen-

ti mentutik datorrena eta ez zentimetro) egun aretan epaikariak gradu egoki baten sartu ete diran edo ez iakiteko?

Beste sariketa baten irabazle gertatu naz. Azkue'ren izena daroen ipuin, kontu eta iakingarriena.

Emeretzi lanetatik iru aukeratu ta bat nirea zala agertu zanean, arrada bat sentidu neban. Eta, egia esateko, naiko aipamen zala ta ez neban geiagoren ametsik egin.

Zarauztar idazle zur eta margolari trebea neban goguan: Flores Kaperotxié pi. Idazle alaia. Erraz eta egoki, arin eta gozo, ainbat gauza atsegin esaten dakiana.

Bere esanetan, kataluniar margolari bat Madridera joan zan. Egunkari eta idazleak, ikusle eta begiraleak. aipamen ugari egiten eutsezan bere lanei. Eta Barcelona'ra biurtu zanean. galdetu ei eutsen: Zenbat kuadru saldu dozuz?

Saldu? Batik ez.

Goramenak entzun. aipamenak lortu, zorionak artu ta saltzeko unea elduten zanean, erosle izango zirala uste eibezanak etxera deitu. teia artu alkarregaz eta or amaitzen ei zan jaia.

Nire artean barre egin eta gertaera ori gogoratzen neban, irutik barruan sartu nitzala irakurtean.

Gero... zoriona. Suertea. Goramen eta aipamenak eta abar.

Baiña deabrua beti ei dabil tartean. Guk ondarrutarrok, deabrua barik, "ari-ma pielak" esaten dogu.

Bilbora koan nitzan. "tanganillo",. ta guzti, korbata ta guzti: Ta eskerrak karnetik eskatu ezari.

Sariak banatzen astean, Nicolas Zubikarai deitu eban arduradunak. Dirua bitarteko dala aitzakiak ipintea ez ei da politika ta nik be. ixilik urreratu ta Nicolas'en izenean egozan sari. kartilla eta abar artu nitun.

Laster konturatu nitzan.

Dirurik euki ez dodan lez kutxarik be ez. Baiña ta Aurrezki Kutxak?

Ain zuzen be Nicolas ori nire abizena daroen arkak egiten dituen da.

A ta ni biok gara Arno ostetik etorriak. Arek, Zubikarai'ren karai ori, karai, ka rako eta abarretara erraz eroaten daben bigarren zati ori, garai biurtu eban. Andiki. Goi-goiko. Gañera garai erabili ezkerero, ez dago buruausterik edo erabilteko.

Ni, arotzaren seme, zerrauts eta kare artean azi nitzan lez. karai erabilten ez naiz lotsatuten.

Eta, saria nik irabazi. Augustin idazle onek. Baiña dirua gordeteko, kutxen tengadak Nicolas'egaz oroitu eragin, sariak izen eta guzti ipinteko ardura euki eban arduradunari. Bizitzako gertaerak.

Asko da auntza beti larrera joatea.

Eta dirua be kutxa maitale izatea. Baiña biziak gertatu egiten ei dira eta esanak alkartu, mundu txiki onetan.

Bat geiago ta kittu.

Diario Vasco, I2-XI-78

AUTSA:

Autsa artu, autsa batu, ,autsa kendu, autsak jan, autsak atara...

Autsa gogoratu daigun, aratuste ostean, autsa da izan be, azken baten, gure ondorena-ta. Zer garean eta zer izango garean.

Edonun egoten da autsa. Itxas gaiñean be bai. Iñoiz itxasertz guztiko ikuspegia galdu eragiten daben laiñoa lakoa egoten danean, autsa dagola esaten da-be itxastarrak.

Itxas autsa osasun aldeko ete da?

Ba dirudi arnas estuka ibilten diranak, leorreko autsak jota ibilten dirala. Eta itxasokoak?

Juan E. Delmas izan zan lengo gizaldiaren azkenetan Bakio ta bere inguruaren goratzaillerik andiena.

1888 urtean (Gaztelugach con su historia y tradiciones" liburu atsegiña idatzi ta bere irarkolan 300 aleko ataraldia egin eban. Eta an, liburuaren azkenetan, Bakio'rako eta andik Bermeo'tik zear Bizkaia alkartuko eban bidea eskatzen, onelako au diño: Bilbo'tik Bermeo'ra duan bidea, Larrauri edo Emerando'n alkartu, eta Bakio, San Pelaio eta Matzaku'ra elduko litzaken bi-iru lequadun bidea, itxas gaiñean ibilgarri-litzaken egalik ikusgarriena egin leike. Matzaku eta Bermeo Jaurerriko azkeneraiño eteten ez dan bideagaz alkartuta dagozan lez, Bizkai itxasertz guztian zearkako ibillaldia, San Pelaio, Matzaku, Bermeo, Mundaka, Elantxobe, Ibarrangelu, Ea, Bedaru, Lekeitio eta Ondarroa'tik zear Saturraran arte.

Itxasertzeko bide goragarri onetan, faltako ete litzakez astiro ikertu nai izango leukenak, gogoari poza eta begiei atsegin emon zale diran ibiltariak, edo ta gaurko osalari batzuk gaixo askorentzat agintzen dituen itxas autsak artu bearreko asko ez ete litzakez bertaratuko, euren naigabetan eta gaixoetan arintasuna billatzeko gogo ta itxaropenez? ("El polvo marítimo, tan recomendado por los modernos higienistas para determinadas enfermedades", pág. 132).

Beraz, iñoiz autsak jaten ba gaitue be, askotan autsa artzea ez da txarra.

Ba daukagu euskal autsa artu bearra. Eta auts asko astindu bearra. Ba dirudi gure egoerarik larrienen be jai-miña besterik ez darabilgula. "Aratuste manga, ardauari dsanga" lenakoak esaten ebena, egun bakarreko jokabidea zala konturatu barlk.

Mendian, udaldian, sarri billatzen da bidetan perretxiku nabar bat: "Lycoperdon perlatum" zientzi izenez ezagutzen dana. Euskeraz otsoputza, astaputza, astakutza... Nun gertatu alako deituraz ezagutu eta bereizten dana.

Barrua zuri-zuri daukanean, bete betea egoten da eta jan leikena da. Askorentzat atsegiña. Baiña barru berbera, egun batetik bestera berdetu egiten da, lizundu eta austu. Makilleagaz jotean putza lakoa ataraten dau zart egitean eta autsa zabaldu.

Gizona zer garean sarri pentsatu eragiten dau: Gazte garean artean zuri, mesedegarri; bein zaartuz, auts lizun.

Autsari be, beste askori lez, mesedea billatu bear. Noiz artu eta astindu jakin bear.

18-II-83

AUTSA ETA LAPAK

Erderazko itz gurutzatuetan, kruzigrarnetan, sarri sartzen dabe lau zatiko laukiren bat eta ezaugarritzat molusco gasterópodo lez iragarri.

Errez igarten dogu zer dan: lapa. Zientzi izenez "patella coerulea".

Itxas ertzean, batez be arbel plantxetan, ugari ikusten dira, mare berakoe-tan, eta ertz meedun burdin zapal bategaz ez da gaitz eurak aitzetik askatu ta batzea.

Aragi gorrixkadunak, berdekiña baltz basatsiak, arbidunak, danetako egoten dira. Ez dira danak bardiñak. Lapa batzalle onak arbidunak batzen ditue ta besteak laga. Ortarako, aitzetik soltatu eragin orduko, ikusi ta batu cdo laga. Lagaten diranak ez dira galduko.

Lapak auts eguneko janari?

Aurrez aratusteak.

Lengo denporetan, aratusteak alai igaroteko, aurrez aurreratutako zerbait eukiten eben arrantzaleak. Urteko arrantzatik zatitxo bat lagaten eben orretarako, ta ontzi iaubeak be txalopa pintatzea zala ta abar. egun oneitako moltsorako lagaten eben.

Nire erriko aratusteak. egia esateko. mamu jantzita ibiltea edo ian-edan suku' bat egitea ziran.

Bertako bertso zarrak diño:

Seiren pentsamentua zan merienda jarri eta parte emoteko beste laguneri gurekin nai al zuten broma ontara etorri, kasurik egin gabe mamu zantarrari, azken ona emoteko karnabal gabari.

Ortaz gañera, beste erako bertsoetan igarten da gure aurretikoen oitura bat. Kalerik kale eskean ibiltzen ziran, apari ona bat egiteko laguntza eskean:

*Asko daukanak kapoi eder bat
edo korda bat txorlaxo,
solomo zati lodi lodi bat
pozik estimen] leikixo.
Beste guztiak txakur txiki bat,
ori be ez da preziso,
zeren senarrak tabernarako
lenago kendu leikixo.*

Orrela, aratusteen ondoren (irugarren eguna aratuste-manga deitzen zan) garizuma, auts egunez asiera emonda.

Lotsa andiko eguna izaten zan auts eguna gure errietan.

Aratustetako azken mamuak, beranduko txorimaluak, ez ziran kaletan ondo ikusiak izaten, bein auts eguneko albakoa io ondoren.

Auts egunak bertan bera eteten eban jai usaiña. Eguna jagi orduko ixildu eta amaituten ziran musika eta dantzak.

Ondarroan beintzat, egun onetatik bariku santu arratsaldeko ibildeunerarte, musika taldeak, banclak, ez eban jotzen. Txistulariak be, jai bezperetako ordu bietako kalez-kalezkoa joteari laga egiten eutsen Pasku bezperarte.

Errepublika denporan be, ministro bat etorralla. komeni zala musika taldea bere ongietorrira joatea ta... eztabaida gogorrek sortu ziran garizuma zala ta oiturazko etzalako olakorik.

Iñoiz musika jotzalleen bat garizuman ilten ba zan, nai ta oiturazko izan bandak il eresien bat jotzen bere gorpuari Laguntzea, beti egoten ziran arritzen ziranak.

Cero ere, nai ta irrati, tele eta abar egun osoan musika jotzen ibili eta gaurko diskotekak lengo oitura guztjak alboratu, kaleko musika kentze onek beti iraun eban musika taldea cgoan arte, eta gaur *ere* txistulariak zeatz beteten da be lengo oitura.

Auts eguna lapak jateko cguna, esaten da Ondarroan.

Aragi-uste, bijilien asiera.

Orra lapak bijiliko janari. Aitzetara joan, batu ta txapa gaiñean berotu ta lagun artean jan.

Zenbat?

Bildurtu egiten dira batzuk lapak egoskorrak ez diralakoa, errez dijertzen ez ete diran kezka.

Ba dira eundaka jaten dituenak, eta janalak-jan, sekula ez ei da iñor lapak kalte eginda gaixotegira eroan.

Esateko eukiten dabe ori lapa jantzallcak.

Diario Vasco, 4-V-1979

AUZO-BIDEAK

Baserriak kezka sortuten dau. Nire ustetan Bizkai'ko Aldundiak (Diputasiñoiak) beti euki izan dau orren ardura. Baiña urteak urte, Aldundia nai ta eziñean ibili da, batez be Diru Itunbena (Kontzertua) kendu eutsenetik.

Gaur gure Aldundiak egarririk asetu ezin dautsan kutun bat dauka: osasun ardura. Bermeo, Zamudio, Zaldibar eta inguruak, eta Gorniz eta beste txurru betean dirua eskatzen dautse eta bear dabe.

Ez da gaitz igarten bizkaitarron argalkeria nundik dabillen.

Alaz eta oraingotan esku-arteetan diru geitxuago erabilteko aukera dogu. Ta orra, baserrietako betiko arduraz, auzo bideak konpondu, barrizal edo egokitze-ko garra sartu.

Eguenean Gernika'n Batzar Nagusia egin zan. Bost gai, batzarrerako. Oraingoan bideak eta baserria dirala, esan giñei, gai nagusi.

Lenengo gaia, Foru Aldundiak aurkezten dauan Foru Ekintzari buruzko eskabideak onartzeko saloa da.

Ortarako Udal guztietara zuzendua da ekintza oneri buruz, bakoitzaren neurrian, erriak egin nai ditun lanen egitamuaren eskabidea. Erri bakoitzari' lagaten jako bere naia eta borondatea agertzea.

Bigarren gaitzat basa-bideak datoz.

Lauren eta irurogei ta bederatzi milloer, lauren eta irurogei ta bi milla peseta eralgiko dira baso eta auzo-bidetan.

Erri bi dira amazortzi milloetik gorako eskabidea egin eta orretarako dirutza ori artuko dabenak: Bermeo eta Mungia.

Amabost milloetik gorakoak ba dira lau: Busturi, Elorrio, Gernika eta Markina.

Amarretik gorakoak Abadiño, Amorebieta, Karrantza eta Muxika.

Laster gure baserririk geienak atetaraiño erraz joateko aukera eukiko dabe.

Gaiñera kontuan eukiteko da dirutza orren erdia ordainduko dauala Aldundiak eta beste erdia Eusko Jaurlaritzaren gain joango dala ortarako Nekazari Egituretako Zuzendaritzagaz egindako ituna (konbenioa) bitarteko.

Orrez gaiñera Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egindako beste itun (konbenio) bat onartzea eztabaidatuko da.

Abeldi (ganadutzei) laguntza, baserriak konpontzeko, igali eta mastiak barriztuteko, baserri gaien erabiltze eta merkataritza, elektrindarra, urrutizkin, mendi sarratze eta abar sartzen dira konponketa orretan, lagungarri lez.

Beraz, oraingo batzarra, zati baten, baserriari begirakoa zan.

Ba dago gai mardulagoa: Iru milla ta berrogei millo peseta Bizkaiko errege bidetan eralgiteko egitasmua: Ugaldebieta-Sestao-Portugaleté' ko bideak; emendik Nocedal eta kairako bidea; Durango eta Mundaka'ko alderabide edo inguratzekoak, eta "La Avanzada" banatzeak bearke dabe dirutza ori.

Lenakoena, dagonian bon bon eta ez-dagonean, txistua jo ta itxaron.

30-VII-83

AUZO ETA KANPO

BERRIATUA'ko Kultura etxearen gertapenak, nire errian donostiar konserbatorioko orkestaren entzunaldi batek eta gure errietako mugak, izen bat gogoratzera eroaten nabe: Arriaga.

Asterrika auzoan, edo nai ba da Goimendin sartzen dan baserri-etxe ori, erri bi onein asarre ta eztabaidetan agertzen da sarri. Ain zuzen erri bien arteko muga etxe erditik igaroten zan eta ortik geroko eztabaida ta gorabarak.

Inguru onetan ba dagoz era orretako etxeak. Nai eta tellatu baten barruan

gertatu, etxe barruko gela baten edo bestean bat jaio, mutrikuar edo berrituar egin leike bat. Arnoate'ko gorabera ezaguna da: iru erri sartzen dira etxe barruan, eta probintzi bi. Zer komeni ala egiteko eran.

Baiña orrelako bat, izen bat, deitura bat dala ta asi gara jardunean: Arriaga.

Nik ba dakit deitura ori ugaria dala eta ez erri gitxitan. Toki askotan billatzen dala. Toki eta gizonetan. Orrelako baten, Arriaga musikolari entzutetsuak zuzen-zuzen Berriatua'ra eroaten gaitu.

Erri txikiak izanarren, organista andiak euki zituen erri txikietara urreratzen gara.

Ala, esateko doe berezi eta bakana euki eban musikolari ospatsu izan zan Juan Crisostomo Arriaga'k, Berriatua'gaz kateatuten gaitu. Bere aita Juan Simon ango organu jotzaille izan zan orain berreun urte. Semea Bilbo'n jaioaurren, Berriatua'tik etorkiozan odolak.

Geroago gure denporetan ezagutu gendun Jesus Aranbarri beste musikolari ospetsuarenak lez. Aranbarri, Bilbo'n musika arloan ekintza asko egin ondoren, Madrid'en il zan, ango musikataldeari Reiiro dalakoan entzunaldi bat zuzenduten ebillala. Baiña aren biotz mindua Berriatua'n eukiten eban, eta ez eban lagaten urterik Madalenetan arako ostera bat egin barik.

Esatera izaten da: ango edo emengo "urak" daukaz arek. Nungoak ete eukazan Juan Crisostomo'k? Berriatua eta inguruko urak bereak dira, dakigunez eta izenak diñoenez.

Jakiña danez amaika urte eukazala Octeto bat egin eban, binbo- lin bi, biola, biolontzello, kitarra, piano eta tronparentzat. Amaika urte bakarrik eta orrelako lanetan.

Geroago, amasei urtedun zala egin eban "Stabat Mater" bat zala ta Cherubini lako batek esana eukan, mutiltxo a, gogo, aragi eta odol, musika utsa zala.

Orrelakoak denpora gitxitan beteten dituez euren urteak eta Arriaga'k ogei urtedun zala amaitu zitun bereak, musikarako lan sakona laga-ta.

Erriak, batez be txikiak, arro agertzen dakie euren odolekockaz.

Ba dauke batzuk bertakoen kondairak egitcko asmoa. Len baiño crrezago da gaur. Zoritxarrez Berriatua'k ez dauka bere artxiborik, orain ogetak urtc erre zalako.

Alaz eta gaur, tokictako utsunc asko bcte leiz beste artxiboetako erreztasunekin.

Beste aldetik artxibo kontuan lan sakon eta onurakorra egitcn da Bizkaia'n. Txalo asko entzuten da Derio'ko artxiboari buruz. Len parrokiatan banatuta, askotan zaindu be barik. Gaur, ikaslcaak eta jakitunak errezago billatzen dabe, toki bakar baten curen premiñak asetzea, erriz erri ibili bear barik.

AUZO IKASTOLAK

Ezagunak izan dira Bizkaia eta Gipuzkoan, erri askotako auzo eta baserrietan jaso ziran auzo ikastolak.

Euren nortasuna euken, izatez eta egituraz.

Batzuk bertan bera jausten ikusten doguz. Mingarri da gure bideetan eta auzoetan, orrelako etxe ezagunak, era orretan ikustea.

Beste batzuk salgai dagoz.

Bakarrak, konponduta, auzoetako batzar-leku, elkarte, "soziedade", eleiz-orde edo antzerakoetan biurtu dira.

Auzo ikastolak milla mesede egin eben gure errialdetan, bertako ainbat umeen artean. Gaur baiño bakartadeagoan bizi ziran baserritar askori, bideko nekeen gaiñetik, alako konfiantza berezi bat sortuten eutsen euren eskolak, bai gurasoei, bai eta neska-mutikoei.

Era askotara sortu ziran. Lenengotan nekez, aúzokoen ikasi bearraren kontzientzia sortzen alegiñak egin ondoren.

Eskola-etxerik geienak auzo-lanean egin ziran. Edo ta erri-buruen laguntasunagaz.

Batzutan, etxe orreik jasoteko lurak doan emon ziran. Bestetan saldu-erosita.

Ba dagoz tokiak mesede lez eskolak irauten eban artean, lurra lortu ebanak, lur jaubearen eskubidea galdu barik. Eta ziurretik, lur ori jaubearen izeneko lurretatik banatzen ez zan lez, emon ebanak orren zerga (kontribusiñoia) be eurak jarraitu dabe ordaintzen ia irurogei urtetan.

Orrelako lurralde baten zerga ez da ainbestekoa, baserri lurretan sartzen dala kontuan eukita, baiña ori be erritarren alegiñez egiña izan dala kontuan eukiteko da.

Bein etxea aginda gero, Aldundiak Diputasiñoiak irakaslea izentatu eta ordainduten eban,

Ezin ukatu baserri auzo eta inguru askotarako, zenbatu ezin leiken mesede izan zala Aldundiaren jokabide ori

Eta beste aldetik, ezin ukatu nai eta estaduko irakaskintzaren legea jarraituz, euretan erdal irakatsiak emon, askorentzat euskal eskolak izan zirala, mai-xu-maistrak, gogo txarreko batzuk kenduta, euskeraz umiei egiten eútselako, erderaz etozan ikaskiñak euskeraz azaldu eta konturatu eragiñez.

Ez dakit iñoiz gertatuko zan, baiña onelako eskoletatik ez zan umientzako laidogarrizko zigor askorik entzuten, beste eskoletan euskera egitearren ipinten ziran erastun eta beste lotsagarrikeri askoren bidez.

Gure gerra amaitu baiño len, Bilbo galdu eta bereala, 1937'ko urriaren 24'an, irakaskintza kontuan gure erriarentzat mingarri zan legea agertu zan.

Euskaldun eskubide batzun aurkako. agindua. Bere bitartez estadia jaubetzen zan Bizkaia eta Gipuzkoan izentatzen ziran serbitsuekin: Oñate'ko Ikastetxea; Bilbo'ko Gintza inkiñeruen ikastetxea; Meatzetako gaitu edo kapatazena; Musika eskola, Auzo-ikastola etaabar.

Eta jakiña, baserritar euskaldun umeentzako legeak zitaldu egin ziran.

27-X-89

AZKEN ANAIA

Erraondo'ko azken txistularia gogoratu izan dot sarri gure gauzak bertan bera ikustean.

Ez dakit zegaitik Kanpion'en kontu ori biotzeraiño sartu jatan Gure gauzen amaierak min emoteagaitik nunbait; gure bereiztasunen azkenak biotzari egin-dako ikutuz

Markiña'ko konbentuko anai zarraren eriotza jakin dodanean, nire irudimena azken txistulari arengana joan da.

Anai zarra, "hermano" zarra, lego zarra il da. Gelditzen zan bakarra.

Azken Karmen egunean ango egal baten ikusi neban. Gaixorik ebillan, baiña bere alegintxoaren egiten, egunari berea emoten. Urteak ez dabe parkatzen. Euren serbitsurako bere izatea eskiñi eban Anaiari errukiz lagundu dautse Aita fraileak

Nai ta laguntzallerik euki ez, eurak ez dakie iñor ospitalera iltera bialtzen, euren alegiñean ondo zainduta eta inguratuta eriotzara lagundu baiño.

Aitak eta Anaiak osotzen zituen len konbentueak. Ordena batzutan Aitak eleiz eta gogo goraberetara bakarrik alegintzen ziran; parroketako sermoi eta bestelako erakustetara. Anaien kontura lagaten eben etxea eta lurak erabiltea. Sukaldea, garbiketak, etxe ornitzeak, dana.

Azken konzilioa ezker, bardintasun bat euken konbentuetan Aitak eta Anaiak barruko erakunde eta arazoetan. Baiña len, Kartujo berberak, eleiz barruan eukiten eben eleizatze babestu bat. Aitak latinezko errezuetan iñarduen artean, legoak Aita gureak errezatzen zituen, euren adimenak geiagorik ez ebalu ulertzen-etar

Baiña bizimodua ondu-ala, gero ta eskabide gitxiago dago konbentutarako. Ez anai eta ez aitatzako iñor ez da sartzen orain eurretan. Krisis itzala dago.

Ordena batzutan ba cura fraile lez jarraituarren, konbentu andien zabalera eta etxartetan galdu egiten zirala eta erri andietako etxetan bizi diranak, egokia-go, ugariago eta zuzenago lan egiten dala ta. Bide barriak.

Lanik ezaren krisiak, goseak eta oztasunak be ez dau iñor konbentu bidean ipinten Eta ezin lei esan nun dagozan ez dakienik.

Fraileak zartzen duaz, eta ilten. Gaurko etxe asko, uts gelditzen.

Donosti'ko Santa Mari eleizaren atzeko monja karmeldarrena irakurri dot. Berrogetak milloek bear eleiza konpontzeko. Eta gertu dagoz eleiza konpondu eta koru gaiñean eurentzako bizilekuak egiten ba dautsez, beste konbentu guztia, bere etxarte ta guzti, ango Udalari emoteko. Lanen truke Eta urteak dira irakurri nebala, ango monja zar batzuk tranbiarik be ez ebela ezagutu irurogetak urtetan an biziarren.

Markiña'ko konbentuko azken anai zarraren illetan, onelako burutapen ugari erabili dodaz.

Eta txistulariagaz gogoratu naiz. Erraondo'ko azken txistulariagaz. A joan zan. Eta ez ete datoz erriak txistulariz ugaritzen?

Ez ete da bardin gertatuko, konbentuetara eskinduekin?

Gogo eta biotzeko bake egarri dabillenik edo ibiliko diranik ez ete da egongo?

II dana bera, Luis Iraeta, azkoitiarra, 60 urtegaz sartu zan konbentuan eta 88 gaz

Jainkoaren eskutuak ezagutzeko ei dagoz Baiña gure egunak ba doaz, eza-gutzen ez dogun egunerarte. Zeiñek esan bitartetan zer gertatu leiken?

1982

BALENDIN LASUEN

Zaldibar ala Zaldua?

Bata nai bestea deitura jatorrak. Gaur Zaldibar.

Euskal idazleok. ba dogu an idazle argi eta zeatz baten irudia:Garitaonain-dia'tar Bitor. "Argia" asterokoaren zuzendari izana. Antzerkigille trebea. Gogoratu "Ongillearen saria", "Aitona ta billoba", "Iziartxo"...

Beste askok bere "Argi donea" ,kendu he ez eben egiten eskutatik, eleizara liburuekaz joateko oitura egoanean.

Bai eta Zaldibar'ek gogora dakarkigu bertako osagille on, erri maitale jator eta musikalari arduratsu zan gure erritar Sebero Arantzamendi. Zaldibartarrak kalea eskiñi eutsen.

Egunotan barri on da Balendin Lasuen.

Ba dirudi oraingotan Bizkai'ko kultur ardura Gerediagatar eskolako arduetan gelditzen dala.

Or, Aldundian, Zurikarai durangarra. Eta or Jaurlaritzaren Bizkai'rako Kultur Ordezkarri, Balendin Lasuen.

Eroapen andiko gizona, zurra, ikasia ta ikasten arduratsua, ezaupide andiko ta ezagutzailie arteza ta irurogei urte lepoan eta lanerako, euskal lan eta aber-tzaletarako, sekula nekerik ez. Ezetzik esaten ez dakialako artu dau oraingo ze-regin barria. Eta egoki ta zentzuz beteko dau bere ardura. Ziur dakigu.

Bizkai'ko Batzar nagusietan abertzale taldekoen irizpide agerlari gendun.

Ba egoan premiña, alako baten be!, Bizkaia'n Kultura arduradunak euskal-dun izatearena. Orain arte sekula egon ete da gure errialde onetan, zeregin one-tan, euskaldunik?.

Balendin'eri iru-lau itaun.

- Ba dakit "Garbiñe" antzerkia idatzi zendula. Besterik?

Ez. Baiña Erriko kondaira idazten nabil, bai eta Durangaldeko gizon os-petsuená.

Zazpi urtetan alkate izan zara. Euskalerrian alkate makilla onorez ala mo-rrói lez erabilten da?

Morroi lez, erriaren zerbitzuan.

- Zer diñozu euskerari buruz?

- Larri dagola, baiña...

- Bizkaieraren alde gabiltzanok, oker ala zuzen diarcfugula uste dozu?

- Bene-benetan, zuzen.

- Ze jokabide daroazu Kultur Ordezkaritzara?

- Ango plangintza ezagutu ondoren, egingo-dot nire egitamua.

- Lanerako gazte ala zar sentiduten zara?

- Gazte.

- Eta asmoetan? Antxinako ala oraingo?

- Biak. Antxiñakoa eredutzat artuta gaurkoari begira ibili nai dot.

- Zure hobby?

- Irakurri, idatzi eta musika.

- Kantu zarrak diñona:"Airerik ederrenetan" asi daizula zure zeregiña eta gorenetan amaitu.

BARRIRO EUZKALDUNTZEN

Gauza guztietan egoten dira modak.

Orain, Bilbo'ko etxe andietan (Etxe andiak Aldundia [Diputasinoia] Udaletxea eta abar dira) aldiko lez, modako lez, eguzkiak nora zapiak ara esakerari jarraitzen lez, Comision de Educacion, Cultura y Reeskaldunizacion dalakoak ipini dituez.

Reeskaldunizacion orrek, asierako erre gogor eta guzti, ba dirudi indarra daukala.

Aldundian bigarren etxe-oĩnean dago. Eusko jaurlaritzan erabilten dituen berbakaz obeto ulertzen ba da, bigarren "solairuan".

Udaletxean barriz, Jaungoikuak dakin tokian, tarte, bitarte eta zokondo askotako mailladiak (eskillarak) igaro eta igo ondoren.

Idazkaritza orreitako arpegi, jantzi eta izateak, danak, edo bakarren bat kenduta, lengoak dira.

Gaurko modako eskaerak ikusita, adoretu egiten da bat, eta zerbait lortuko dalakoan, euretara joatera sartu.

Lenengoz beĩnik-bein, autor-entzule (konpesaeragille) ba litz lez artzen dabe bat. Euskeraz berbetan asten ba zara, perdone, perdone, perdone..., esango dautsuenak, lekeitio bedarra soloetan baiĩno geiago billatuko dozuz.

Biguntasuna beintzat. Ori eskartzekoa da.

Baiña ez uste ate guztiak zabalik billatuko dozuzanik. Alako baten, nunbaiten geratu eragingo dautsue. Mandatari bidez zure naia barrura jakin eragin. Eta mandatariak orrelako erantzunen bat ekarri leiketzu: zure eskabidea itzultzaileari (traduktoreari) bialdu dautsagu ta arek erderatu ondoren aztertuko dogu.

Beraz zuk euskeraz zerbait idazten ba dozu, edo eskatuten ba dozu..., betiko eta oiturazko diran egunen gain, itzultzaileak erderatu arte be egun geiago galduko dozuz eta erderazle orrek zure naia ondo ulertu edo erderatu ete dabek ezka be euki ziĩnei.

Makua jaunak, gauza askotan txalorik beroenak eskintzen dautsaguzan Makua jaunak, onenbeste entzuteko gibela ba dauka eta ez dot uste asarretuko danik. Ba daki zitalkeriz ez nabillela euskeraren ezaupidea indartu eragitearren baiĩno. Eta egia, egi garratza, ori da. Ez da iĩnok esana, niri gertatua baiĩno.

Nik nire artean, orrelako gauzak ikusi ondoren, pentsatu izan dot: Euskera erakusteko era erraz baten billa gabiltz? Euskera arin sartu eragiteko bideen bila? Zer izango litzake orrelakoetan bestera ba litz, au da, euskerazko idazki, agiri eta eskariak bat-batera eta bete-bete-beteaz aztertu, erabagi eta erantzuteko gaitasuna ba lego, eta besteak, itzultzaileak euskeratu arte geldi lagako ba lira?

Baiña zelan eskatu ori Bilbo baten, esate baterako, gure erri txikietako batzokietan be, bertako agiriak euskeraz egiten ez jakin edo dakienak ausartuten ez ba dira?

Zartu eta gogortu, gaiztotu egin nazala diñoste batzuk. Ez. Len, min eta min, barruan gordeten nebazan gauza asko. Orain esan. Nai ta askotan erantzun txarrak artu.

Eta gure artean esan bearra dago. Araba'ko Aldun nausiaren urteerak arritu egiten ditue batzuk. Ez dakit zegaitik. A diruari. ogasunari begira dabil eta bere errialdeari. Bakoitzak berea. Gauzak argitzeak ez dauka kalterik. Gero, koné ponduta, alkar ulertuta, alkarren bekaizkeri barik obeto jokutzen da.

Ai alako batek urtengo ba leu, gure agintarien artean, euskeraren eskubideei buruz danok dardaraka lagateko eran!

Beste txiruliruli bat entzungo genduke bir-euskalduntzean edo barrero euskalduntzean.

3-IV-82

BARRUKO MIÑEZ

Gure kantu zar baten bertsoa da: Monjen erregaluak / intxaurrak oi dira, / ai eurak ere beti / fin fiñak ba lira!

Monjen erregaluak zalantza sartzen ba dauskue, zer esan politikak ekarri edo emon dauskuzan beste erregalu batzuei buruz?

Nire begi eta gogoia kultura aldetik ibiltzen dira. Ezin ukatu azken urteetan len pentsatu be ez ziran gauza asko egin al izan dirala. Batzuk egin, beste asko, bear ba da, egiten asi esatea zeatzago litzake.

Ba dago tartean akatsen bat. Batez ere argitaratze eta erri-aurrerako agerrialdian.

Edozelan be asmatzaille eta indarra emon bear dauan erri arteko erantzunean utsuna andia igarten da. Ortik etorri da argitaldari batzuek porrot egin edo kilin-kolon ibiltea. Ortik argitapen batzuk asi etairu-lau zenbaki ondoren, ittota geratzea. Ortik egitasmu batzuk lenengotik ainkoker asi eta oin zuzenik emon ezinda ibiltea.

Eta ori alderdi bat edo bestetan, zuri, ori nai gorrietan, bardin alderdirik in-

dartsuenen kerizpetan ernetutakoetan, edo ta eguzkiaren epeletara sortutako erakundetan, edo ta Aldundia lako aita-besoetako aberatsen menpekoetan.

Gain-gaiñez begiratu... Or ikusten dogu, bat aitatzeko "Antzerti", ezin oiñarrituta, nai ta Jaurlaritzak lepoa berotu, Zamarripa txorierritarrak esango ebanez, "firili-farala". Zer gertaten da euskal antzertiagaz, Azpeitin egiten diran aletin zintzoak egiñarren, sekulako indar gitxi eta erantzunik makalenagaz topaketen astea ezin burututa ibilteko? Eta iñok ezin esan azpeitiarrak saiatzen ez diranik! Zer gertatu da urtero Gasteiz'en egiten diran antzerki jaietan? Esanak bat eta izanak bi?

Baiña ez uste gaixotasun au euskera ta euskal gaietan bakarrik igarten dani. Or Bizkai'ko Aldundiko Kultur Saillaren alegiñez edo borondatez igaz ataraten zan "Arbola". Nai ta batzuk aitzakiz bete, beste batzuen ustez gure erriak bearrezko eban kultur aldizkari ausarta. Amabi zenbaki atara ta... zer? Neguan sartu ordurako igartuta gelditu.

Zer jazoko da laster gure aberriaren izena daroan astekari bategaz? Zenbat iraun leike gaurko eran?

Euskalerriak irakurten ez dakiala esaten da. AAu da, bizilaguneko ez dala irakurten erri-aurretatueta aiña. Baiña ba dagoz beste errazoi batzuk eta aidean dabiliz: Ez dakigula aurrez erri- irizpiderik aztertu ta sakontzen. Euskera kontuetan izkuntzaren erabide okerritik jokatzen asi eta konturatuarren, gaur ez dagola adorerik okerra ezagutu eta ondamendira garoazan bidea eteten. Edo ta bestera, amore emoten ez dakigun asko gure txokokerietan indartzen gareala, besteei ostopoak ipinten.

Bestalde or doguz giza eskubideak, izkuntzak daukezan berezko lege jatorrak...

Lan au egiten diardudala, errege eguna ain zuzen, gure kaleetan pozaren pozez oartzen dodaz umeak ametzsez beteta. Eta bereala nirekautan: Euskeraz arduratuta bizi gareanok, noiz ainbesteko pozez? Monjen erregaluak intxaurrak, eta Erregeen erregaluak zer gureztat? lkatza? Eta zegaitik?

BARRUTIA GOGORATZEN

Aurten. Paris'en, ango Unibersidadeko rutoradutza emon eutsen euskal gizon jakintsu hiri: Latxaga, donostiar abadcari eta Oñatibia tar Jon, oiartzuarrari.

Azken au il zan, ez bear baten ondorenez, denpora nastu onetan bere euskal laguntza premiñazko gendunean. Ez eban jakintsu andien birretea jazten txalorik artzeko zorionik be euki, bere lana il ondoren aztertu cta saritu ebelako Paris'en.

Bere anaiak, bere oroiz, eta bere gogoia oraindik zeaztu barik, baiña orrelako zerbaitegaz beteko ebelakoan, "Saski Naski" aldizkaria, illerokoa, agertzen asi ziran. Ogetalau ale agertu ziran, urte bi osokoak, ta urteak aiña milloi galdu eta atarateari laga egin hear.

Orrela dabil gure irakurte-zaletasuna, eta euskal giroa. Naia miiñean eta dollorkeria laguntzetan. Kittu urteteko be arpidedunik ezin batu. Laureun irakurlerik ezin batu. Eta aldizkari atsegiña zan, gaurko gaiekin, erbestean geien irakurten diran idazleak emengo euskaldun jatorrak euskeratuta.

Latxaga, beste aldetik, Ameriketatik dabil. Ikusi ta ikasten, erakutsi ta argitzen, aspertu ezinda, euskera biotzcan eta gogoan eta ikasgaietan darabillazala.

Len be bere lan batzuk ezagutzen dira gure artean eta atsegiñez artuak izan ziran. Oraingoan, iker lana, nortasun andiz dator. Len be zerbait erabilia izanaren, sakontasunez egiña datorrelako.

Lopez Mendizabaldarren argitaletxean gertu dago liburua, amaituta, azken ikustaldi txikien zain, irarkolako azken ikutuak zuzentzen.

Barrutia eskribaduaren Gabonetako Ikuskizuna (Acto para la Nochebuena)ren ikuspegi zeatz, argi, sakon eta jatorra da.

Len be liburu onetzaz zerbait esana dala, urten leike norbaitek. Bai, or egoan lo, "Euskalzale"aldizkarian 1.879 urtean argitaratu zanetik. Antxe billatu eban Aresti'k, Erribera kalean Euskaltzaindiak gordcten cban aldizkari orren urteko bilduman. Eta atsegin, crraz, bizi eta irrutsua zalako, autsak kendu eta astiñaldi bat emon eutsan.

Baiña 1960 inguruarte egoan lo.

Latxaga'k "Euskalzale"tik barik, Barrutia berberak idatzitako lenen lana, eskuz egiñiko "originala" crabili dau cskuetan., Barrutia, dakigunez, 1.682'en Aramaio'n jaio zan eta 77 urte beteta il zan.

Idazti jatorra Latxaga'k erabili dabena. Liburu barri onetan, lenengo eskuzkoaren argazki eta fotokopiak agertzen dira, orrela bere ikerlana,berben eta idazkerako ezpai eta zalantza barik, ikutu barik edo aldizkarien okcrkeri barik agertzeko. Or daukaz liburu onek, Latxaga'k jator erabilita, bcrc meritu eta bixiak.

Liburu au Durango'ko Liburu Azokarako gertu egon lei, baiña izan lei bere aurkezpena, Latxaga ctorri eta Gipuzkoa'ko erri baten egitea, "Euskerazaintza"ren eskutik, Latxaga berberak agertu eta euskeran jakintsu diranen maxiaketa eta ikuspegi jatorrak agertuz egin leiken jai andiren baten. Latxaga'k merezi dau, bere doktoradutza ospatu eta eskertu eta liburu onen aitzakiz lagunarte eta euskaldun jatorren arrera on bat.

6-X-83

BASAGOITI ALDUNA

Bizkai'ko Batzar Nagusietako aldunak edo ordezkariak (deiturak ez dau zereginiik naastuten) il onen amarrean amaitutzat laga gendun gure zeregiña.

Orrek len baino azkeago lagaten gaitu Aldundi eta bertako gizonak goratu edo zirikatu edo autuan ipiñi eta erabilteko.

Len batzuk goratzea, intzentsu emotea izango zan. Zela alako argalkeria beintzat, kontuan eukita alkar sarriago ikusteko aukera eukiko gendula. Gaur ez dauka ainbesteko lotutasunik.

Eta zerbait esan daigun.

Nik ba dakit Alfontso Basagoiti alduna ez dala politikoa, baiña ziur nago aukeratu eban Aldun Nagusiari, politika maillan, kezka eta naigabe gitxiago emon eta sortu dautsazala, Alderdian sartuta dagozan beste batzuk baiño.

Basagoiti'ri iñok ez dauksa ekonomi saillean daukan gaitasunik eta duintasunik ukatzen. Inok ez dauksa zintzotasunik eztabaidatu. Inok ez dauksa lanerako gogorik eta ardurarik zalantzan ipini.

Orretan maixua da. Asko dakiana, baiña birtute bategaz, entzuten be dakiana: Ori be gizonaren meritu andia da, jakintsu askok eukiten ez dabena eta aginpideren bat artzean, askok baztarten dabena.

Basagoiti'k urte gitxitan, Aldundiko konteak era askotara argitzen jakin dau. Aurre-kontuak erraz irakurten erakutsi dausku, era batera ta bestera, programa eta ekintzak argi azaltzen alegindu dalako.

Gernika'ko batzarretan atseginez joaten zan "pulpitora". Komeni zan guztieé tan `eta ia .."ex cathedra" itz egiten alegindu. Alperrik; eskutuko gai bat edo nasetsuren bat norbaitek atara edo ta alboketaren bat erakutsi naian jardun, berak lotsa barik, bildur barik, argitasun osoz zeatz eta meatz erantzuten jakingo eban.

Orrez gaiñera aginduta dagozan edo agintzen diran epe eta denporei lotua, zintzoa.

Beste errialdetako Batzar Nagusiak oraintsurarte aurtengo au.rre-kontuak onartu barik ibili dira. Bizkaia'n, urte zar eguna baiño lenago onartu zan, Urte barritik asiko zana. Eta esan lei, datorren urtekoa `be, ia biribilduta daukala, gaurko tresna eta gailluekaz, bear diran zeaztasunak errezago batzeko aukera dagolako. Baiña orretarako langillea izan bear da, arduratsua, kezkatia, jakintsua eta batez be errimaitalea. Nik esango neuke arrotasun berezi bat euki bear dala orretan.

Basagoiti'k, beste alde, askok emon ez daben eredia emon dausku. Gitxien uste gendula, azken egunean, agerbide garbi bat irakurri euskun euskeraz, euskaldun jator askok baino argi eta errezago ulertzeko eran. Eta urrengoan geiago egiteko gogoa agertu.

Orrek bere nortasuna osotu eta bete egiten dau, bere sailleko mai askotan, an egoteko euskal tituloagaz sartuarren, euskeraz erantzunik emoten ez dakien askorentzat, zoritxarrez aztertzen eta ulertzen jakingo ez daben euskal-errentaren agerpiderik jatorrena beteta itxiaz.

22-IV-1987

BASERRI ZARRETAN KONTU BILLA

Markiña aldeko Etxebarri'tik gora jo bear da, bide txarretan, Erretolazata-
rren baserrira igoteko.

Zulo, lur sokil edo sokor, eta abar, ezin lei kotxe txikietan bertaratu. Lan-
drover edo antzerakoetan igo bear, eta bilin-bolonka gerriari eutsita.

Alaxe joan nitzan, oraintsu.

Goiak artzean, Akarregi mendiaren tontor inguruan ikuspegi atsegiña:
Urruntxo, Kostolamendi, Bizkai'ko muga. Aurrez aurre Iturriño. Piñadiak es-
kutatu ditue Legarregi eta Arantzadi. Onein alboan mendiak egiten daben bera-
kada batetik zear, itxasoa. Beste egalean Lgotz eta Santa Eufemi.

Oraindik gure azken gerrateko zuloak, trintxerak, oiñetan.

Len erbi toki on, gaur azeri ugari.

Aldatzari goia artu eta beratxuago, mendi sakon-une baten, Erretolaza ba-
serria. Larruskain gaiñean dago, baiña ikusi be ez da egiten auzo ori.

Erretolaza, lenengotan Xemein zan, geroago Markiña erriz; Etxebarri eleizaz. Zein ete bere izen egokia: Erretolaza ala Arritolaza?

Etxekoak 1498 urteko dokumentu jakingarria gordeten dabe maitasunez. Au diño: "Fundación de la casa Arritolaza, solar en la anteiglesia de Xemein, por Martin de Mañozca y Sancha de Iburguren..." Eta agiriak diño, etxea Ziarrotza'ko Kolejiatari eskiñitako izen bereko saroean jasoten dala. Beartuta geratzen dala baserria Ziarrotzako eleiz-gizonei neurri andiko bost anega gari urtero emotera, Andra Mariaren Jasokunde egunez, eta orrez gaiñera amarrenak eta asikiñak, eta Ziarrotzako eleizaren mendeko izatera, eta euki eikien abeldia, ganadua, erdiz-banan eukitera.

Agiriak diño Antonio Antxia Ziarrotza'ko eleiz-notarioaren ziurtapenean ipini zala 1498'ko Urria'ren 12'an.

Ondo zainduta dauke etxekoak euren sortzeko agiri ori.

Gaur bertan bizi diranak Iriondo-Erretolaza dira eta ba euken beste jatorriko abizen bat be: Zezeil. Baiña antxiñako mikeleteen erara abizen erdikak ipinten oitu gareanetik, ba guaz abizen jatorrak lastotzat jaurtiten.

Gero Erretolazatarrak, euren sendian Xemein'go agintarien bat euki eben *lez*, ba daukez aldi aretako ainbat agiri, lengo gizaldiaren asierakoak, orduko gerrateko eskari, zor eta lorrei buruzkoak, ingurutako erriaren mendiák noiz, zenbatean eta zeñek erosi zitun eta abar.

Liburu zar artean, euskaldun bat dauke, Claude Fleury frantzetarrak idatzi eta J. A. Ubillos'ek euskeratua. Liburu au Eusko Lege Biltzarrak bertako liburuetzat oraintsu atara daben "Bibliografi Erroldea"n "libro muy raro" lez agertzen da. Alaz eta Erretolaza'n dagona, oraintsuagoko argitaratze batekoa da, eta origaitik ez ain bakana. Lengo gizaldiaren azkenetakoa da.

Erretolatza'n lengoa maite dabe, baiña barriari begiratuta. Eta or dagoz biga egitearen eskale, eta urrutizkiña, ta argia. Azken au, oraingo, eurena dauke, gasoil-motorrez sortua. Eta mendiak eta baserriak zainduko ba dira, bizitzako aukera be bearrezko da. Gaur ezin lei orrelakorik ukatu.

BERBAK ETA ITZAK

San Martin eibartar euskal Jakitun adiskideak esan eustan bein, berba esakerarik ez nebala erabilten, eta beretzat itz baiño berba indar geiagoko zala. mamintsuago.

Ez naiz orretan zeatza. Ba dakit. Eta onezkero ezin asko alegindu orrelako bereizkuntzen jakintzan.

Alaz eta tartean etorten dira erantzun bearrekoak.

Lengo baten turismo itza, edo orren esan naiko-berba euskeraz ba dagola esan nebanean, adiskide batek deitu, oraingo iztegieta, gaurkoetan, orrelakorik ez dala agertzen jakin eraziz.

Nik orrelakoei erantzuten dakit, iztegi egilleen naia eta jokabidea be ezagutu egin bear dirala. Euskerazko artean iñoiz agertuarren, erderazko edo gaztelaniazkoa ikustera joaten, askotan ez dala erantzun edo adierazgarri lez euskaldun jatorrik aitatzen, nai ta eurak be euskal saillean batuta euki.

Pozik deituko neutsan Aita Plazido Mujikari onetzaz bere eritzia jakiteko Baiña Aita Mujika txarto dago, osasun makalez.

Kordoba'ko olio saltzailleak baiño dotoreago ikusi neban oraintsu, pijama antzeko jantzi me eta apain bategaz, ondartzara eioala Laka anaia. Ainbat urte Caracas'en egin eta aurten Loiola'ra etorria. Ameriketatik etorriak ezaguera berezi bat erakusten dabe trokelean egindako jantziekaz Ia ezagutu be ez neban egin. Berak agurtu eta beriala esan eustan: zure laguna txarto daukagu. Ez dot uste geiago lengora etorriko danik.

Azkenengo iztegi liburu biak atara baiño lentxuago, orduan be makal egoan, baiña fitxa guztiak beteta eukazala, edozeiñek be amaiera emoteko eran, eta bere gaixoa ezagutuarren, Jaunari eskertsu agertzen zan, ainbesterañoko bizia luzatu eutsalako.

Mujika'k txango, txango-batzoki (Centro excursionista), txangoketa (excursionismo, turismo). txango lari, txangontzi. txango-zale eta beste antzekoak euren esan naiekaz agertzen ditu.

Azkue'ren iztegian be ba dator berba ori, bai eta Lopez Mendizabal eta bestetan.

Eta gaurkoetan?

Ba Kintana'k euskeratik erderarakoan sartzen dau txango berba eta bere erderazko turismo esangarria

Baiña erderazkotik euskerarakoan, turismo euskeraz zelan esan bear dan adieraztean, berak jakingo: dau zegaitik, ez da gogoratzen berak euskerazko berben artean agertzen daben txangogaz, eta erderazko turismo euskeraz be bardin ipinten dau.

UZEI'ren Politika-3'en turismo utsa billatu ez ba dot be "Informazio eta

Turismoko ministraritza", edo "Turismorako Nazioarteko Aliantza" ipinten ditun lez, erraz da txango berbarik ez dakiela edo aintzat artu ez dabela konturatzea.

Zirikada asko artzen doguz zarrak, gurean jarraitzen dogula-ta, egokitasunari begiratu barik, garbi zale itsu jarraitzen. Eta gaurko gazterik ez dogula irakurten eta abar. Ala egiten dogulakoan. Uste dot geiago irabaziko gendukela, jokora joan ezkerero, gaurko gazteak euskera irakurteko aukera guk baiño errezago lagaten dabela eta erderazko edozer guk baiño errezago irakurten dabela. Itzak itz eta berbak berba.

25-VIII-82

BERREUN MILIA

Itxasoa bai, gerrarik ez!

Itxasoa bai, berreun milla ez!

Egunotan Ondarroan goiz eta arratsalde entzuten dira onelakoak.

Irratiak or dabiltz aideetan ordutik ordura zabaltzen. Egunkariak or diardue, orri luzeetan, gai orreri ikututen, nai eta sarritan mamiña baiño jazorikoen anekdota eta azalak biziago aukeratu ta erabili, irakurleen jakingarri.

Problema or dago, garratz eta gordin.

Urte luzetan pobre bizi giñan Ondarroan. Errukigarri izaten oituta eta ia zaletuta. Besterik ez gendun, baiña biotza bai. Biotza maitasunerako, eta bizi-tza aul baterako, eroapena.

Aize barriak, era barriak sartu ziran itxasoan.

Lengo gizaldiaren azken aldean txalupak erabilteko bapora agertu zanean, lenengotik orretara aldatu ba giñan be, geroago, gure gizaldiaren lenengo laurdenean, arrantzarako era barriak agertu ziranean, aurkako giñan, era barrietara aldatu nai ez-da.

Gaitz eta gogor egiten jakun oiturak baztertu, laga edo etetea. Alaz eta bein orretan asi ezkerero, aurrera jo gendun, familietara, etxetara eta errira bizibideko onura obe eta egokiagoak lortuta.

Berezko gendun itxas senak lagundu euskun ortara. Eta itxasoaren sakonak gero ta errezago aztertzeraz eldu giñan- itxasoaren zabalak, ibiliagaz batera, eza-gunago egiten jakuzan. Arriskuari lotsa zainduarren, erak artzen ikasi gendun.

Alegiñaren beian arraiñari bere toki, zulo eta bizilekuak billatzen saiatu giñan. Etxea zan itxasoa eta etxean lez ibiltera oitu giñan, tarte batetik bestera, egalik egal, duintasun osoz ibiliz.

Ez giñan gu orretan asi. Gure eleiza zarretako illobietan antxiña, eta orain-tsuago gure mendietako iletegieta datzen asaba eta senideak sekula ez eben pentsatu itxasoak mugarik eukanik, iñoiz bildurra sartzeko iruntsiten zitun itxaso berbera ezik.

Baiña zabal, sakon eta luze ta andi sortu zan itxasoari inguruko erriak jaubetasuna kendu nai izan dautse.

Eta ain zuzen be nuklear ondakin ilkorrak jaurtiteko itxasoa danena dala esaten dabenak, gizonen bizia sortu leikeen itxas berberari sekula euki ez daben jaubetasun muga ipini dautse, indarraren bidez gizaldien gizaldietako oitura eta ezaupideak zalpalduz, ukatuz eta kenduz. Ori da berreun millaren jaubetasun lapurra, Eta eguneroko ogia ataraten zendun lantegia gerra-ontziz inguratzen asi dira, bertara joan ez zaitezkan, eta zu gosez lagata, zu-zeuk artu zenkian arraiña eurak saldu daitsuen.

Zer egingo ete leuke baserriar batek, bizi guztian berak erabili daben lurraldeari emaitzak atarateko tresna barriz egokitu ondoren, ezelako ordain barik lurralde ori kendu eta ango frutuen ondasunak besteak artzen asi ezkeror, bera gosez lagata?

Orixe besterik ez litzake, baserriarren berbetan, itxastarren berreun milako egoera.

22-III-84

BERRIATUKO 1588 URTEA

Berriatua, azken urteotan, batez be Ondarroatik alde-banatuta bere burujaube geratu zanetik, bere leku, bide, kale eta inguruak barriztuaz batera, bere istoria gogoratzen dabil.

Txalogarri erri zarrak, bertan bera makaltzen joan barik, bizi barriaren ardua eta garretan ezagutzea.

Berriatuk, zoritxarrez, erri aldetik bere artxiboan ez dauka ze aztertu asko. Udaletxea erre zanean, bertako artxiboa be galdu zan. Origaitik 1831 urtean asitako udal-batzarretako liburua dauka zarrena.

Alaz eta eleizakoak Derion dagoz osorik, zarrena 1555 urtean asitakoa da-la. Ogeita ta liburu dira guztira an dagozanak; Jaiotza, Eriotza, Ezkontza eta abarretakoak zortzi; Fabrikakoak, au da Parrokiko ekonomi arduretakoak beste lau, eta gaiñerakoak Kofradi eta abarrenak.

Liburuak liburu, arriak ba dakie iñoiz berba egiten. Begiak ikusi eta ulertzen daben berba ixilla baiña galdu eziña. Arlanduetan, etxetako ormetan edo ta parrokietako atarietan agertzen diran urteen ezaugarriak, istoriaren zati bat erakusten negarrez, baiña beti be gerokoei begira, euren denporetako gertaeren baten testigantza.

Ala, Berriatuk aurten 400 urteurren bat ospatuteko aukera dauka. Ain zuzen Parrokiko orma baten agertzen da 1588 urtea, arrian irarrita, zulatuta. Jakiña da parroki eskubidedun eta jaube askoz lenago egin zala. XII garren gizaldirarte Lekeitoren menpeko zan. Orrek esan gura dau parrokiko serbitsu berezietara, bataio, illeta eta abar, Lekeitiora joan bearke zirala emengoak, an eukelako parrokia.

Erri askok euki eben Eleizaren lenengo urtetako erakundean onelako menpetasuna. Askori asarre ugari kostatu be bai, orrelako parroki-amaetatik askatutea. Inguru onetan bertan, Amoroto, Gizaburuaga, Ipazter, ez ziran lekeitiokotik askatu 1.512 urtearte, eta Mendexa eta Bedarona geroago.

Berriatun gaur parrokia dagon tokian, san Pedroren omenezko ermita egon zan. 1.095-1.179 bitartean jaso zala uste da lenengo ermita ori, eta ba dirudi orduan iaso zala gaur parroki lez ezagutzen dogunaren aurretikoa. Gero, Errege Katolikoaren denporetan egon zan parroki barriak egin edo lengoakba berriztuteko oitura eta ba dirudi gizaldi aretako giroaz kutsututa emengoa be osorik barriztu zala, karearrizko ormekin.

Nundik eta zegaitik datorren 1.588 urte ori?

Iturriza istori egilleak diño, 1588 eta ondorengo urtetan egin zala parroki barria. Ez diño urte orretan amaitu zanik, urte orretan eta ondorengoetan egin zala baiño.

Edozetara be besterik billatzen, ez dan artean, Iturrizaren esanetan sinistutea da jatorrena edo egokiena.

Berriatuako eleizan patroidun parrokia izan zan, eta Arantzibiako jaun lez Peñafloidako kondea zan patroï ori, eta eleizbarri au egiten asi ordurako, abadien aukeratzea zala bitarte, erriagaz asarraldi ugari euki zitun.

Aurten berriatuarrak patroïaren menpetasun barik, askatasun osoz ospatu leikie euren eleizako ormak erakusten dautsen 1.588 urtearen laurengarrena.

BERRIOTXOA ANAIA

Arnasarik artu eziñek emon eusten Gabon zarretan etxien nauela d'ordukuegaz nabil oiñ be. Gazterik etorri jataz ez bearrak.

Jaiote parajeko euskeran nabil esaerak-eta ipintten. Ixurtzalcíeko euskeran. Lau mille ta geídxau ipini dauz garbicíxen. Osasunek laguntzen baduste, eun milleraiño juetie gura nauke.

Presarik ez daukozu, baiña egizu biartxuen bat "Egan" erako...

Urtarillean egin eustan karta. Geroago beste bat, Julian Martinez Ruiz'eri, "Egan"erako laguntasun pixkat emoteko eskatzen, aldizkari ori barrero ataraten erabagi ebela-ta.

Ondarroa'n egiteko doguzan Lore Jokuetarako zerbaít egin edo gertuko ebalá be esan eustan, Durango aldeko erri-kontuei buruz, nik gure jai orreín asiera eta gertaeretako barri emon - neutsanean.

Baiña "Bitaño", edo "Anai Berriotxoa", edo ta "N. Kortazar", "Unai Anai", "H. V. B.", "Dolometa" eta Jainkoak jakin beste zenbat izenordez bere burua eskutatén eban Lasalle Anaidiko lagun maitea aldendu da.

Alzola Gerediaga lez jaio ta Nikolas ipini ba eutsen izentzat, berak beste ainbat, bera be ez gogoratzeko aiña erabilten zitun gero.

Itxasoetan "kosta" deituraz ezagutzen diran patroiak ikasi egin bear izaten dabe, baiña arraintzarakuak, "peskak", berezko doaia eukiten dabe euren zeregiñerako.

Nikolas'ek be berezko ikusmena lakoa eukan euskal barri eta jakingarriak billatu eta batzeko. Beretzako "pitxiak" ziran. Gorde eta zaintzea merezi eben jakingarri, gertaera, barri eta zertzeladak.

Euskal aldizkarietan ainbat orrelako barri txiki eta mamitsu batu eta agertu zitun. Besteentzat adierazigarririk ez egoan tokian be, beretzat ikututea merezi eban albistea egoten zan.

Ukatu ezin geinkena cia bera izan dala idazle askorentzat gaia, edo jakingarria, edo lekuan lekukoa erraz billatzeko bidea zabaldu dauskuna.

Apala, umilla, kalean eta lagun artean, iñor izan ba da. Eta ez dot uste kale eder izango zanik. Ez dakit bere Anaidian zelakoa izango zan. Kalean, lagunartean, ekiana erakusteko gertu eta eukana emotekó aitzaki barik agertzen zan.

Nik uste dot barruko gaitza eukala. Ikasle eta idazleena. Gorputzez lotuegi billatzen neban azken urteotan. Gogoak, espirituak jaten eutsazan indar guztiak. Eta sufridu egiten eban, beti be egiten ebana baiño geiago egin nai ebalako.

Sorterriari berea emon eutsan. Zabala izanarren, euskal izateak emoten daben muga bako zabaltasunez, bere etxea, bere Ixurtza, maite be maite ebazan.

Durango inguru guztia, bere arkaitz eta mendi, ibar eta aran, ibai eta erreka guz-
zuen ezaupidez zaletuta, maite eban lez. Onetan bizkaitarrok erri eta inguru
maitale on bat galdu dogu. Eta erri izatearen guna, berbaetan eta esaeretan artu,
garbitu eta gordeten ekiana.

1964 urtean Txomin Agirre'ren Lore Jokoetan Ondarroan egon ziran eus-
kal maixuetatik zein geratzenda?

N. Etxaniz joan zan, bai eta bere "akulari" agertu zan Etxeandia be. Gurpi-
de gotzaina joan zan, bai eta egun aretan sermolari izan zan Olaizola zumaiarra
be. Eta Arrue eta Manterola. Eta Lore joko areitako zaindari izan zan Jose Ar-
tetxe, Valverde eta orain Alzola au.

Ain zuzen bere azkenetako kartan esaten eustan: "Ondarrun euki geinue-
zan egunekaz ez naz aastuten. Emen daukuaz Tx. Agirrerren etxien aurrien Ar-
tetxek eta bidxok eñ geinuezen marrazkidxoak be...".

Laster Ondarroa izeneko aldizkari bat atarateko asmotan gabiltz. Egun are-
tako gogorapenez, irudi eta marrazkiz egiñiko lan bat egunotan eskatzekotan
nebillan. Baiña gizon andiak lez, konturatu barik, lanean iñarduala alde egin
dasku.

8-VI-82

BERTSO ETA TANBORRADAK

*Donostiarrak asi dira
babaurrenak jaten,
datorren urterako
indarrak gertuten.*

Ia ume moko giñala ikasi gendun kanta ori. Estropada girotan zirikalari
iruditu eta sortua nunbait.

Gauza batzuk gertu egin bear izaten dira. Beste batzuk, norbere bizi dirala-
ko, gogoratu. Gogoratu utsagaz gertuta dagoz.

Ala san Sebastian eguna.

Ekaitz nai bare-alditan gar bereziz ospatu izan dan eguna.

Santo Tomas eta San Sebastian Donostin urteko egunik errikioenak dira.

Eta jatunenak.

Antzerti eta abar, geien bat, egun oneitarako lagaten ziran.

Gaur modako dira bertsolari txapelketak. Lenago be egin ziran alkar arteko leiaketak.

Jakiña da Billabona'n Txabalategi ernaniarrak eta Zabala amezketarrak eukia. 1801'n zan. Lau milla lagun baiño geiago batu ziran Otsail otzean. Orduka ibilbideak kontuan eukita, arrigarri da ainbesteko jende.tza batzeko aoz-ao egin bearko zan zabalkundea.

Bostna ontzako urre jokatuta .euken. Ordu bi luzetan kantuz ibili ondoren, entzuleak, txaloka, bata ta bestea bardin zirala oiuka. Eta maikoak, irurak, bertsoan, bardin erabagi eben.

Eratutako txapelketa nausietan, ain zuzen Donosti'n eta San Sebastian egunez egin zan lenengo Bertsolari eguna.

Gipuzkoarrak ziran bertsolaririk geienak. Bizkaitarrak bi, Abarrategi ta Uriarte.

Epai maiko orduko euskal jakitun ezagunak: "Aitzol", Toribio Alzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona, Txomin Olano eta Joseba Zubimendi.

Agertu eben erabagian au esaten eben. Ao batez iritzi berdiñekoak izanik, epai maikoak txapeldun "Basarri" bertsolaria aukeratzen degu. Ondoren "Matxin", "Zepai" eta Alkain geratu ziran. Beste urte bi barru txapelduntzako urrezko eztaiak "Basarri"k.

Euskaldunok gure jaiak maietan gazitu eta elduten doguzan lez, au izan zan egun aretako menua:

Txorakeriak.

Arroza z l purdika.

Bertsolari erako legatza.

Arkume erria.

Euzkadiko goxo ta fruta.

Ardorik onenak, sagardorik bikaiñeuak.

Kafia, esteak erretzekoa ta kia ateratzekoa.

Ikusten danez, menu egitean ba zan umorea. Tartean zan "Txirrita"k timorea ta unorea. Gixajoa okertuta ebillan ainketako miñez.

Zegaitik aukeratu eben done Sebasten eguna bertsolari jairako?

Orduko kronika egitean Zubimendi'k esaten eban: "Eguna autatzea etzan ain errez, baiña Donosti erria euskaldundu nairik, beren jaiari begira, yatorrizko euskel kutsu duan gauzik egiten etzala-ta, done Sebasten egunean, danbor soiñu, artean, egitea erabagi zan".

Eta,urte aretan be, bertso eta abar bezperan asita, tanborrada nausi izan zan.

BERTSOLARIAREN ILLETA

Mattin daukat gogoan. Gain-gaiñetik gizon.

Sartu ete zan zeruetan, esan zan lez, San Pedro'ri adarra joaz, bere ankape-
tik?

Gatz geiegi eukan berak. Eta gatza, neurriz gain, arriskutsu dala diñoe.
Soiñarentzat lez gizarteko jardunetan.

Berezko umorea eukan eta azaleko akatsak.

Akatsa ete da bertsolari batek pattar pixkat edatea, alaitasunari urteera bi-
llatu, neurria artu eta gurpilla emoteko?

Gizonak daki bere pozgarria nun dagon. Eta bere neurria nun daukan.

Bertsolari onak ezagutzen dodaz.

Ez da makala Mugartegi berriatuarra.

Baiña Mugartegi'k, ari-topekara doazen aarien antzera. aurrez berotu bea-
rra eukiten dau.

Pekatu da Mugartegi, plaza baten, beste iñor baiño lenago kantari ipintea.
Otz agertuko da. Doiñu aukeratzen be bildurtuta lez. Berotzea falta.

Nekez irabaziko dau Mugartegi'k txapelketa bat. Zegaitik? Duin ez dala-
ko? Ez. Aurretik tantoak galduko ditulako. Dakiana esaten ez dabelako. Lotsa-
kor jardungo dalako.

Mattin, ostera. bestelako zan. Doiñua aukeratu aurretik, gorputza eta irudi-
mena berotzen bera aleginduko zan.

Azkenean arriskua. Ariñegi beti. "Martxa" geiegian. Eta geratzen asi ordu-
rako, poto.

Ez konturatu barik. Berari urtengo utsan, bere akats orren salatari, irri barre
mingots batek. Origaitik ez zan asarretuko. Besteak adoretzen jarraitu bai, sarri.

Bere eskua zabala zan, lepoa zan lez. Emoteko ta eusteko.

1965'ko Urtebarri eguneko bertso-aldia gogoan daukat. Bildurrari bertso bi
eskatu eutsezan. Eta berak gordin agertu eban bere egoera:

*Nik eskatzen dut kuraje orrek
beti dezala aguanta,
eta muere esplikatzeke
oino ez daga beranta;
arratsaldian una jiña naiz
bisteka ederra jama,
eta gogua alaia daukat
Las Campanas a eranta.*

Iparralde eta egoalde, artu emon gitxi daukagu euskaldunok.

Onetan Mattin tratu andiko zan. Beste edozein bertsolari baiño sarriago
etortzen zan. Ez zan luzaro jardun bear berari deika. Laster agertuko zan keika.

Euskalduntasuna sentidu egiten eban. Erriaren ezaupidez. Eta euskaldun izan nai ebalako.

Len esandako txapelketan, asiera au emon eutsen:

Eta berak:

*Jainkua lendabizi
euskeru urrena...
oixe da gauza bat
in bear duguna,
nik beti erraten dut:
"in zak au, laguna,
In!i nahi erakutsi
beti euskalduna".*

Il be alaxe egin zan oraintsu. bertsolari jator lez, euskaldun, eta eriotz berberari umorea sartu naian. Ariñegi ibili zan bide orretan, euskaldunon zoritxarrean.

25-VIII-81

BI-1

Egunetik egunera igarten da gure uriburuetan kotxeak sortzen daben naste, burukomin, traba, estutasun eta ittotasuna.

Ez bakarrik uri andietan. Erririk txikienetan problema bardiña dago. Bideak egin ziran, baiña kotxeak laga edo bastertzeko tokirik ez.

Ba dirudi ez dagola erabagirik ez krisirik au etengo dabenik.

Gaur, askorentzat, nai ta ezko, bear bearrezko da kotxea. Gasoliña edozetara ipinita be, bardin. Igokada guztietan ikusi da. Lenengo asarrea denpora baiño lenago arintzen da. Berrogei ta zortzi urteko mendebala. Gero, barriro, autsa ta burrukada, keia ta kutsadura, bunbada eta txatar bidea. Edo ta garajea ta gaxotegia.

Bilbo'n metroa egiten danean, ostopo asko leundu egingo dirala diño. Ez nago orretan. Txiki ta estuegi da gure txokoa, gure botxoa, bere bidetan, bere kaletan eta erriberetan gaur kotxeak bear daben zabaltasuna artzeko.

Gero be gaurko jokoa eta gaurko egoera arindu eta nasaitu orde, korapi-

liotuko da. Ez al da esaten oraindik ez gareala eldu beste errialde batzuk dauken aiña kotxetara tokiko bizilaguneko?

Guri eskolara oiñez joaten erakutsi euskuen. Gaurko umeei bosteun metro egiteko be autobus egokietan ibiltzen erakusten jakoe.

Gure gurasoak, abertzaletasun usaiñez eta giroz, fedea ta iparraldeko euskal ezaupidea zabaldu nairik Lourdes'era joaten asi ziranean, kamioi andietan joaten ziran, aterpetzat bela astun eta zatarrak, eta zaldarrak atarateko egurrezko jarrileku luze ta gogorak erdian ipinita.

Ori kondairara igaro zan, baiña or dagoz lekuko ta testigu lez orduko argazkiak.

Ez euken gomak ziztatu eta aize galtzeko bildurrik, erruberak goma lodi ta batudunak ziralako. Baiña itxasontzi batek tximinitik baiño ke geiago jaurtiten eben bero-oditik.

Edozelan be eldu egiten ziran tokietara, eta fedea sendotuta biurtu nai eta orduan be euskal abertzaleak eukiten zituen ostopoekaz, askotan ordu egokietan eleizkizunik ospatu ezin, edo ta trabaz beteta euren ibilleretan aurkitu.

Baiña gu beti izan gara fede andi eta biziko gizonak, mendebaletarako zira eta suezta aldiari erabilten jakin izan dogunak.

Kotxeak, Bizkaia'n, gizaldia baiño gerotxuago asi ziran. Bilbo'ko errotzetan lenengo agertzen dana 1902 urtean mugatzen da. Urte orretako otsailla'ren 23'ean egin zan lenena. Eta BI-1 lortu ebana Mungia'ko Pablo Elgezabal'en "De la Haye" izan zan.

Kamioitan lenengoa Castro'ko De la Fuente'ren "Panhard" etzekoa. Eta autobusetan, Bilbo baiño erriak lenago ibili ziran. Onela lenengo autobusa, BI euki ebana gertatu zan eta Ondarroa'ko Juan Arzuaga'ren "Mercedes" bat izan zan.

Urrengo autobusa Gernika'ko "Vascongada" alkartearen "Charron", au BI-46. Eta gero BI-472, Markiña'ko Juan Bustingorri'ren "Berliet" bat.

Orduan bideak etxe aurretatik igarotea nai izaten zan, eta origaitik milla asarre egoten ziran, ala egin ezik.

Eta, gogoratzen asi-ta, guk be ezagutu genduzan motorrak aldatzik ezin igota su artzen eta sakukin amatauta. Orduan, oraindik kotxeak bozina jotzen eben kale artean bidea eskatzen.

BIDE- BARRIAK

Erregeak igaro dira. Ta? Ba zartzarakoa. Ze eskiñi lei guri? Berogarriak. Sur-zulo pandangoak garbitzeko zapiak eskiñi ez dauskuezanean, pozik. Ba dirudi oraindik orretara ez gareala eldu. Oraingo berogarriak, gure neguari eta giroko neguari eusteko alegintxoak. Gero ta astunago dira guretzat negu biak. Eta kittu. Abadeak esana: Gabonak amaitu dira ta bizi zaitezte bakean. Lagaten ba dauskue. Danok gara bake zale. Ala pentsatuten dogu. Baiña Urte barrian entzuna naz, "endredoso" andi batzuk gareala euskera kontuan gure itsukerietan gabiltzanok. Guk bakea nai, euskeraren ona nai ta besteak nastea ikusi. Min emoten dau orrek. Alaz eta egi ziurra ori da. Egi garbia. Bairako lez ezetzera-ko. Kristo'k erakusten dauskun eran.

Umetu?

Ez al da egi eta mundu guztiak jakiña, bigarren umearoa egoten dala, nai ta irugarren adiña deitu? Barcelona'ra eldu ziran erregeak garbi esan eben: umeentzat eta irugarren adiñekoentzat ekarrezala euren pozak eta bozak. Intzentzua ugari.

Kantu zarrak esaten ekien:

Ofi' ezielan deutsez

euren presenleak

nobleak.

Batak dakar urrea, besteorrek inirrea

la intzentzua besteak.

Itxuraz guregan Kaixpar bakarrik etorten da. Keia ta bitsa. Gure artean urrea Diru Itun edo Kontziertu Ekonomikoa sendotzeko lagaten dogu. Edo ta azalak ukatu nai dautsaguzan Laterriari azpitik garbitzeko loteriko eskintzen orde. Eta miralea, mirrea? Ba dirudi aurtan Bizkai foralean, forudun Bizkaia'n sartuko gareala. Urteagaz batera Gernika'n egindako batzarretan irauli bear dau, orain-oraingo, ezetzik ez esatearren lez darabillan euskerakiko azaleko politika. Ez daigun gure Jaurerria merinu diruzaleen erri egin, Bizkai erri baiño, Euskalerra, Bizkaia'ren berezitasunak, zaindu bearrekoak, gora jasota. Ez beti diru errenten billa ibili. Bizkaia'k ba daukaz bestelako errentak. Ukatu eziñiko bere nortasunekoak. Erritar asko baketan ikusi nai ba gaitu, Bizkai'ko aldundiak lengo lotsak kenduta, eta ni pekatari esanda gaiñera, dirutu, kapitalizatu bear ko ditunak. Euskera bat. Bake zale gara. Baiña bakearen aurka "ez egitez" be jokatu lei. Ta ori da aldatu nai doguna. Urtea lanean asi daigun, berotuta.

BIDEOKO FILMAK

Naiago neban bideoren euskerazko berba egokia agertuta egon ba litz.

Baiña bideok indarra artu dau beste edozek bereala egun batetik bestera artzen daben lez, eta or geldituko da.

Onetan euskaldunok erbesteko irrati eta Teleen morroi gara. Eta gure Tele-irratia be. gure urrunirudizkina be, dirudianez, ez da jauntxo lez agertu, besteen morroi baiño. Erosle, ez saltzaille.

Gu nekez izango gara sortzaille

Asko esatea da, baiña ez. Ez eta gure gauzena be. Ez dogu indarririk orretarako. Banakak ez dabe lege eskubiderik emoten. Bestien pelikulak, bestien fil erabiliko doguz. Zela-ala euskeratu ta kittu.

Atzerri edo erbesteko merkatuen menpe egongo gareala esango-neuke, edo esan nai dau orrek. Bere arrisku guztiekin. Millaka arriskukin. Botoi txiki bat bitarteko dala gauza berbera erderaz sarriago eta bear ba da errezago ikusteko aukeren arriskuan.

Onetan burujabetza lortu giñei. Baiña buru jaubetza ez da ain zuzen azkatasuna Ezin igestu izango dogu ezin, inguruko kulturen argitik. Edo ta illunpetik. Biak gertatu leikez-eta.

Euskerak egokitasun erraz eta ugaria emoten dabela, diño, itzulpenak, biurtzeak, tradusiñoiak egiteko. Diñoenez, Bizkaia'n berebiziko kantera dago gaiñera erbestetarrok euren filmetan ain atsegin izaten dituen "baltzen" pape-
rak egiteko be.

Ardi baltzak ei gara. Egunen baten tximiñolandian be sartuko gaitue. Eta Kristoren bakea eta poza zabalduko da euskaldunen artean. Ixilik egon edo gelditu ezker, jakiña. Ezingo gara ozpinduta beti ibili be.

Oraiñarte Euskalerriko kultur jaietan egin izan diran leiaketetan, idatziriko gauzak izan dira Sari-bide edo leiaketatarako gai berezienak.

Baiña euskeraren arlorako, euskeraz erabili ezker, arma barri bat sortu da gure egunotan: Bideoa.

Munduko gauzarik atsegiñenak irudietan artu giñeiz eta euskeraz emon. Ikastetxe, ikastola eta abarretarako, euskera zabaltzeko, ametsetako bidea izan lei bideoa.

Origaitik oraintsu iragarri diran Ondarroa'ko Lore Jokuetan sarituko diran gaien artean bideorako filmak sartu dira. Onetan lan sakon eta arduratsua egin lei.

Ikusgarri eta begiragarri izan leikezan milla gai billatu leikei gure bizitzan. Irudimen alai eta kezkatia sortuak batzuk. Fikzios egiñak. Ikusialako errepor-taiak besteak. Egizkoak. Begien aurrekoak.

Euskera txukun eta errikoiz apaindu ta or euskerara zaletu eta arduratu era bide bat.

Ori da, ain-zuzen, Euskal Lore Jokoen ardura. Euskerari eutsi eragin baka-
rrik ez, atsegin eta gogotsu bizi eragitea baiño.

Gogoz, begiz, kontuz eta irudiz.

Bideo zale ta erabiltzailleak begiz eta abotsez eutsi leikioe gureari. Euren
denpora, garaia da.

Au idatzi ondoren, adizkide batek diñost: Ez dakizula bideo euskeraz zelan
esan? Bai gizon, orra: Irargazkai. Edo ta irargirazkai.

Ni izkuntzalari ez nazalako, Pilatos'ena egitera nua: eskuak garbitu. Baiña
ta, zegaitik zeaztasun osoko izan ezarren, ikuskin lako berba erraz eta polit bat
euskeratu ez?

6-VI-82

BILBOTAR ARLOTEAK

Guk Ondarroa'n. erderazko Teofilo'ri, Diopil deituten dautsagu. Ertzean
ibili ziran gure zarrak Arana Goiri'ren burubide eta neurriekin. Arek Topil eus-
keratu eban.

Liburuen bidez ezagutzen dot Diopil bilbotar bat: Guiard. Bilbo'ko zerbait
irakurtean sarri agertzen da bera. Bilbo uriko artxibo zaindari izan zan. Anaia.
Adolfo. margolari, pintore.

Bilbotar arloteak biak.

Zer ete da arlote izate ori? Zeri deitzen ete dautse bilbotarrak arlote?

Prieto'k Mexiko'n emondako itzaldi baten, geroago liburu lez agertzen dan
"Pasado y futuro de Bilbao"n diño, bere denporetan ba egozala bilbotar berba
jatorren artean, ez euskerazko eta ez erderazko berbak ziranak. Orrein artean
moskor, txirene, sinsorgo eta arlote. eta abar.

Ez dator bat Lopez Mendizabal'egaz, arlote itza euskal itzen artean sartu
ebalako. Oker argia dala, diño.

Arlote berba ez ei da sekula Bilbo'n erabili españar Akademiak emoten
dautsan esan naian, au da, "desecho de la estopa". Arlote berba onek ez el dau
euki Bilbo'n emoten yakon "bribón" edo "haragán" esan nairik, ez eta Argenti-
na'ko "atorrante" be. Alaz eta Mujika'ren iztegia irakurten ba da, bai bribón
eta bai haragán, arlote esan guraz agertzen dira.

Bilbo'n, Prieto ren esanetan. arlotc itza etxeko berba bat da, familikoa, olgetako lez. esaera samur bat lez.

Ala uste ete dau Emiliano Arriaga'k bere "Lexicón bilbaino'n"? Onek diñoenez. nai eta berba a euskalduna zala askok pentsatu, edo ta bilbotar berba dala, españarra da, nai ta Bilbo'n baiño erabili ez. eta emen gizon alper, galdu, lotsabakoari emon bear yakon deituran. Eta Arriaga'k diño berba ori euskeratik sartu zala Bilbo'n, ziurretik bizkaieratik, eta Bilbo'n "vagabundo", "desaliñado", "desarrapado" esan guraz erabilten dala. Iparragirre berbera El gran Arlote deitzen zala.

Adolfo Guiard, Juan de la Encina'ren esanetan, bere denporako bilbotarrik bakanena zan. Euskal kutsuzko erriko erti (arte) joera baten asiera emole. Guiard izan zan, bere ustez, emcngo margolariak Paris'erako bidean ipini zituna.

Lekuona, Bringas eta beste margolari batzuk sakon sartu barik egin ebena, Guiard'ek bete-betean egin ebala diño. Au da, eguneroko bizitza arte bidez erakutsi, orrela euskal oitura, gizon eta ikuspegiak ezagutu eragiñez.

Adolfo'ren ainbat kontu umoretsu esaten dira. Prieto berbcraç gogoratzen dau bere urteera bat.

Cafe Ingles'en egoten ei zan. Ango leio ondoko maitik San Nikolas eleiza aurretik eioazanei begira. Bein esan ei eutsan: Ikusten eleiza aurretik igaroeran kapela kentzen daben andikiok? Eleizari kapela kentzen dautse, baiña Banco de Bilbao'ri begira duaz.

1916 urteko epaillean il zan Adolfo. Anaia, Diopil, Teófilo, luzarago bizi. 45'n il. Berari esker ainbat Bilbo'ko gauza gogoratu al giñeiz. Ez bakarrik uriko gauzak, erriko goraberak. Guiard anaiak lenengo euskal abcrztzaleen artean sartzen dira. Arana Goiri'gaz lenengotik ibiliak. Berc gogo eta asmoak zabalzen eta abar.

Adolfo'ren izena agertzen da Larrazabal baserriko aparira deitzen cbenen artean, gero ango itzaldi entzutetsuari aitzakia emoteko.

Diopil, bere aldetik. Arana'k ataratako "Bascrritarra" asterokoaren zuzendari izan zan. 21 urte eukazala. Asterokoa esan dot. Txarto. Berberak esaten eban lenengo zenbakian: "Agertuko da aldijona izango dan artean".

Eta giroak, abcrztzalienczat, orduan eta gaur, antzeko.

"BILINTX"

Esan egiten da, eta nik be ala dala sinistuten dot, euskal literatura zuriegi dala. Txomin Agirre'k, ondarrutar esakera erabiliz esango eban, arpegiko narrua lodiegi daukala, barruko arrari urten eta biziten laga barik.

Jatorri edo tradisiñozko lotsa bateri eustearren, gure burubidetan, eta bear ba da jokaeretan be euki doguzan zirikaldi, maltzurkeri, biurrikeri eta. akuluke-ri asko eskutuan gorde izan doguz.

Gure giroa be alakoxea zan. Esanetan, agerbidetan eta jokabidetan.

Gogoan daukat, eta oraindik bizi dira beintzat orduko neskatillak, gure gerra urtea baino aurretxoago, Lizarra'ko Araudiari (Estatutoari) indarra emon naiko zabalkundean, Oreja eta Agirre'ren zain gengozala bazkal ordu inguruan.

Ondartzatik neska bi agertu ziran, beso-motz, au da, besoak aragi bizian. Eta plazan egozan andra batzuk txistuka ekin eutsen, ia zetan eioazan mitinera, ala ibilteko estatutorik ez gendula bear-eta.

Bestalde, gure antzerti (teatro) lanetan be, erri askotan luistarrak eta Maria-ren alabak, nai eta aingeruzko lanak egin bear eta gurasoen aurrean agertu bearrekoak izan, neska mutillak alkarregaz lan egiteko eukiten zituen oztopoak kontuan eukita, sasoi bateko antzerki asko, mutil bakarrentzat edo. ta neska utsentzat egiten ziran, beti be zuri-zuri, moskorrak pekatutzat lagata, edo ta bizitzako pekatuen eredutzat gurasoak jasotako ume galduen bat irudituz.

Nik ez diñot lizunera jo bear dogunik, edo ta bizitzako zitalkeri asko alaitasunez zabaldu eta erakustera. baiña bai egoera ori autortu; beste okietan dagon lez gure artean be ba dagola esan, eta eskutuan geratu dana.

Eta erri baten literaturak, pentsabideak pentsabide, danetik erakutsi bear du, bizi doguzan gauzetan beintzat. Eta gure artean gai asko ez dira idatzi, edo norbaitek ikutu ba zitun be, geienak eskutuan geratu dira. Piper gorritz ikututako bertso batzuk kendu eta geiago zer gogoratzen dogu?

Egunotan, Madalen egunez, "Bilintx" zanaren oroitza eukiten dakit.

"Bilintx", au da, Indalezio Bizkarrondo, donostiarra. Karlisten granada batek jo eta ainkak lertu eta soifneko miñetan naigabetuta illa, irudimen eta biotzaren naigabeak be, eta asko ta astunak zitun, eten eraginda.

1976 urteko Madalen egunaren biaramonean obiratu eben.

Bear ba da "Bilintx" zoritxar orrek menderatu ez ba leu, beste molde bateko literatura egille izango zan. Gure utsune batzuk beteko zituna.

Bere bertsoetako bat gogoratu nai dot:

*Amoriorik gabe
pasatu ezinez,
nik danak maite ditut,
aitortzen det Zinez...*

*begiyakin guziyak,
milla bai nzingañez,
bañan biyotzarekin?
Zu besterikan ez.*

Gure utsuneak aztertutean, sarri gogoratzen dogu "Bilintx". Lurra emon eutsen egunean bere adiskide zan Ramon Artola'k bertso oneik laga zitun bere oroigarri:

*Lurperatu da Bilintx,
doaitsu urrilla,
atsekabe sanziñak
igarota mllla,
danok pena degula
izando da illa,
mundu ontatik joan da
konsueluen billa,
zerubaren erdiyan
gertatu dedilla.*

31-VII-82

BINGEN'EN OROITZA

Bingen izena, Bixente ordez, atseginez edo era onean jausi eta sartu zan euzko abertzaleen artean. Nire Augustin baiño obeto.

Esanalak esanarren, nire Augustin'en asierako au orrek, itsutasuna edo lainoa lako sartzen dau idazle, idaz-aldatzaille eta argitaldarien artean.

Sabin Maixuari lotsa andirik ez dautse artu eta gordeten lengo ta oraingo jarraitzailleak eta bere irakatsi eta idaztien barri askorik ez dakie. Zuzen ipinitako berbak akatsez bete eta ordez, euskeraz okerkeri bat zuzentzen ez dakien mekanografilariak, nire izena amarretik zortzitan aldatzen auzartzen dira, ondo dagona naastuten diarduela konturatu barik.

Ordez, beste izen batzuk erriaren abegi ona artu eben. Euren artean gaur gogoratu nai dodan Bingen'ek.

Egia da toki batzutan gen ori erderazko aozkeraz esaten dabela, garratz, bigun erabili bearrean.

Euskal elertian, literaturan, Bingen bi ezagutu genduzan. Aizkibel dar Bingen bat. Izen ordean, ez sortzekoa. Sortzez Luis Gonzalez Etxebarria zanak erabilten eban deitura ori. Bizkai'ko Ubidetarra. Au gura gerra baiño amarren bat urte lenago joan zan Argentina aldera eta an izparkari bizitzatik ogia jan.

"Urretxindorra" izenez olerki liburu txiki, baiña samur bat argitaratu eban.

Bestea, Ametzaga'tar Bingen, Algorta'n jaiotako, 1901 urteko uztailla'ren 4'an, eta Caracas'en il 1969'ko otsailla'ren Sean.

Gure gerratean erbesteratu bear izan eben euskaldunak, banakak kenduta, politika gaien ordean, euskal gaiak artu zituen euren denpora betegarritzat, edo ta aberriko arrenkurea samurtu nairik.

Idazle ospetsu ziralakotzat egozanak, euren berezko lanak sortu bearrean, munduko literaturan gaillen eta onentzat ezagutzen ziran lanak euskeratzen eralgi zituen euren ordu solteak eta gabari eta atsegiñari kenduak.

Euskera izan zan euren abertzaletasunaren arnasa.

Ingelesa ekienak, Larrakoetxea'tar Bedita zeanuritarrak lez, edo Bingen'ek lez, Shakespeare'ren teatro lanik onenak euskerara biurtuten alegindu ziran. Bear bada euskeraz sekula antzetzuko ez ziralakoan baiña euskera beste edozein literaturako erak erabilteko gai dala erakutsi nairik.

Eta bardin gerkerako idazlan olerkitsu nai sakonak, edo ta gaztelania

Onetan, itzulpenetan, lan sakon eta ugari egin eban Ametzaga'k. Orrela len esandako Shakespeare'ren gain, Wilde eta Gcethe'ren lanak be euskeratu zitun, Ciceron, Eskilo eta Plinio'ren batzuk be bai eta Juan Ramon Jimenez'en "Platero ta biok", beste ainbat ixillean lagata.

Eta ori Ameriketa'n be toki baten bere abirik egin izan ez ebala, Uruguay, Kolombia eta Venezuela'ko (Erutan bizitza eratu bearrez ibilita.

Ba dirudi onetan erbesteko bizitzak, emen kaleko oiturak kentzen dauskuezan ordu asko eskintzen eutsezala gure atzerriratuei, etxean aberri minez euren sorterriari etxelanak eskiñi al izateko.

Gure euskal egutegian Bingen onen izena ikustean, bere oroitza samur lez gaurko lantxo au eskiñi nai izan dausat.

Euskaldunon artean ba dago gure idazleen ezaupidea emon bearra, nai ta askori onelako gauzak gai arol eta utsak iruditu.

"BIZITZAREN ARIAN"

Biziaren aria, esaten da.

Nik ez dakit bizitzak zelako aria daukan: Ari me, lodi, sokale, potxeradun ala zelako.

Itxasaldeko medikuen esanetan, ari ori arrain-aro, arrain-sasoi edo kosteran biurtzen da.

Sarri gertaten da, gaixo zarren bat etxean dagonean, osagilleari deitu, arek ikusi eta aztertu ta...

— Jauna, *zer* dauka?

— Kosteria amaitu.

Kosteria, itxasaldean, arrain sasoiari deitzen jako. Beraz kosteria amaitzea, sasoi ori igarotea da. Negutea. Sareak eta tresnak ontzietatik atara ta geldi gertatzea. Gizonetan, garbi esateko, bein urte batzuk bete ezkeru, nai ta ez bizitzaren azkenera urreratzea.

Origaitik Txomin Garmendia'ren "Bizitzaren arian" (Auspoa, 160) irakurri dodanean, biziaren ari ori ze eratan artu.dan jakiteko gogoia sartu eta lantxo au idazten asi naz.

Txomin Garmendia berberaren berbak dira: "la zazpi illabete dira klinika eta erresidentzian pasatakoak. Sei operazio edo ebakuntza egin ere bai..."

Beraz esan bearrik ez Garmendia'ren bizitzako aria, arrantzialien esaeretan soka Jodia izango litzakela. Eta ez bakarra, esaten dan lez, irukia baiño, iru alkarrekin biurtuta nekez urratzeko eran.

Txomin berbera gogoratuko da, bere aurretik ari meiago beste askok euki ebela.

*"Mattin i[zaigu, onen aurretik
Errezil eta Xalbador;
Txapel eta Zepai koñado ziran,
biak bertsolari jator:
Arozamena zarra etzan baña
joan bearra Berrio,;
Goizueta 'ko Narbarte ere
tarteian izango da or;
mundu ontako azken ordua
uste ez degula ba dator"*

Auspoa liburu saillak, bere 159 eta 160 zenbakiekin, egille baten liburu bi agertu ditu: "Denbora pasa" eta "Bizitzaren arian".

Berrobotarra da Txomin Garmendia. Idazle errikoi, erraz, ugari eta jatorra. Sarri idatzi hear Jeuken gizona ortarako berezko doiaia daukalako datorkion berbeta aberats eta ugari batcn erabille dala.

Erriak atsegiñez irakurteko liburu errezak bear ditu; neke eta zalantza, bari-rik, erreskada baten irakurtekoak. Eta Txomin'enak, bata nai beste alakoxe dira.

Banakak izaten dira berak lako ezbearra euki eta aurrera urtetan dabenak:

*anka bat ia galduan,
amalau puntu buruan
bi makulokin ementxe nabil
al detan moduan.*

Egoera ori gaindu izan eban *lez*, gaur beste gaindu bear bat dauka: beia jo-ta dogun euskeraren egoera, bizitza ari-meian daukan euskerari adore sartzea. Eta berak al dau

Deia, 12-X-82

BIZITZAKO LEGEA

Bizitzak berea dakar gure gizarterako. Emaitzik zitalena, ondorenik garra-tzena: azkena, eriotza.

Eta gerokoan sinistu bearra. Noiz etorriko dan ez dakigun pasko baten itxaropen luzea, eroapena. Siniste baten oiñarritutako ustea, siniste orren frutua: fedearren, edo fedezko eroapena.

Agur asko egiten dira. Baiña emaztea, edo gurasoak edo seme-alabak, se-nideak, egun andirarte agurtu bearra be gertaten da.

Iño! Danok dakigu alako baten gertatu bear dala. Alaz eta zotin eragiten dau. Eta itxaropena billatu nai izaten da.

Bear ba da itxaropen andi izan lei, maitasun batek sortu, biztu eta eragiña. Eta orduan bakoitzaren naia, guraria, azalera dator.

Barruan ittoten diran gauzak ez dauke indarrik... Ez da bardin barruan itto, edo ezin esanak ittotea. Egiak urten egiten dau, biotzetik urten be, berbea bio-tzaren berotasunetik zabaltzen dalako. Origaitik nire emaztea, igarri barik, bi-gunbigun, begiak itxi eta oritzen asi zanean... nire berbak pentsaera baten mo-teldu ziran, eztarriko ittotasunean aozkatu eziñez geratu. Eta nire pentsaerak besterik ez ekian bururatzen au baiño: emen guk emon ezin al izan dautsugun bakea, Jainkoak emongo al dautsu betiraun luzean!

Gizon izatearen argaltasuna ezagutzea da eta Jainkoaganako sinistea indar-tzea.

Gure bizitzako zeregin laburragaz konturatu ta etsipen artzea da. Geroko baten itxaropenik ezik, izatearen ukapena.

Milla gorábera agertzen dira bizitzan. Iñor be ez gara ontasun uts eta ezti. Obeto edo makalago, itxuratsu edo baldartiago, bizitza, al bestean, eroaten da.

Ezkontide izateak bere loturak daukaz: sendiak, familiak luzatu edo estutu egiten dauz lotuera orreik. Azken baten gurasoak, geienetan beintzat, iñoren otsein, mendeko, serbitzari izatera elduten gara.

Baiña sekula ez da galtzen senar emazteen alkarganako katerik. Begirape-na deitu, edo ta lotsa. Bildurra edo ta itxurak betetea. Eskutuko edo argitako, fede eta birtute, maitasun edo menpetasun, or gelditzen dira, beti, itxura baten edo bestean. Eta beti dago, barruan beintzat, besterik ezik ixillean, parkamena.

Aldendu bearra etorten danean, ziurtatzen danean, gela bateko gabetako lu-zeak, bizitzako aria luzatu eta emon al daben bestean, bat, itzik ez eta ezaupi-derik ez daukan kutunaren inguruan, min edo arnas- estuen ardurapenan aurki-tzen danean... biotzak erantzun bear, eta gogorra izanarren be, ez zotin barik.

Onelako egoeran, adiskideen agurrak, lagunen otoitzak eta inguruko senti-men ezaupideak, arindu egiten dabe gertakizuna, larria, bigundu, eten.

Eskerrak nire irakurle askori, nire emaztearen atsekabeen indartuten edo gaindituten lagundu zeustelako.

Joanak joan, jarraitu daigun gure zeregiña beteten. Bizitzako legea da.

3-VII-1984

BIZKAI'KO ADITZA

Ba gabiltz lanean.

Azken-fiñean ez dakit zetan geratuko garean. Arraioa!

Mogel'en eskola, Markiña aldekoa... Baiña Durango'tik bera asten ete da Bizkaia? Eta Arratia, eta Mungia?

Tradisiñoia eta istoria, paper zarretako testigantza... Ta metodologia?

Besteak udalekutara eta ondartzetara Bilbo'tik iges egin ezinda, ta gu Bil-bo'ko laba galdatan sartzen gaitue, maraton baterako baiño ekinbide eta jokabi-de luzeagotan.

Eta azkenean, aoa be legortuta, egarri, ta freskura billa gazpatxoia eskatu

eguneko gure jatorduan, ta odoloste ta urdaiz beteriko garbantzoa ekarri izan daukue. Begiak be curen gramatika dauke, eta curen paradigma eta legeak. Eta jakiña, zeñek pentsatu eskapulario ta guztiko abitu luzedun prailleak maian ikusi eta garbantz uordez gazpatxoa eskatu leikenik?

Gaurko kamareroakl Carmona'tik be ez ziran igaro-ta!

Jakina Deustu baten orrelakoak gertatu leiz. Bedia'ko kolaziñoan izan ba'litz, sakristaua be kanpora atarako eben ziurretik. Bedia'n, izan be, bizarrari itzala eta baltzitasuna gordeten dakie.

Baiña gu mutil onak gara. Ziri ta tirri bakoitzari eusten alegintsuak, nai ta orretarako, eta gure zintzotasunari eusteko, betaurrekoak mai gaiñean apurtze-ko zorian laga bear, orduak minutúak aiña.

Alaz eta gure berbetan "diplomatiku" eta lotsakor agertzen gara. Orainarte beintzat kolorerik ez dauzagu aldatu eragin gure artean eta gure errukigarri lez egoten dan amabirgiña lakoxe arpegi zuridun emakume liraiñari.

Eta ten da ten, emon eta kendu ekin barriro, daukez, daukeez, daukiez, daukoez... Gu bizkaitarrok, izan be, entzun txarrekoak gara eta ha dirudi ainbat errialdez bete eta osotutako "señorioari" be kapelarik ez dauzagu kenda kendu nai.

Baiña, ziur egon, alkartuko gara Eta datorren ikastaroan, kursoan Bizkai'ko eskoletan bizkaiera baten era eta jokabide argi, erraz eta alkartuenak erakutsi nai ba dira, gure alegiñen ezagaitik ez da izango.

Gu mee eta beeka ibiliko gara baiña ba dakigu gure artalde baten barruan ibilten eta alkar ezagutzen bedar gozo guztia batek irunsi barik. Gure artean ez dago ardi baltzik.

Azken fiñeta elduko gara.

Gu ondarrutarrok belarriz gogor samarrak gara. Itxasotik ei datorkigu zaratka eta apantsu agertu bearra

Gogor etorkidan azken-fin berba ori. Erderazko al fin y a la postre nastetsu bat izango ez ete, nai ta akademiku batek atsegiñez erabili?

Mogel'en Peru Abarka'ko Juan Maixuak Peru baserritarra erantzu teko eukan tez, itxasertzean be patroiak eta tostartekuak egoten dira. Ba dakiez tostarteko askok patroiak aiña arrain sundak artu eta igarten. Eta ni, euskal txalupan tostarteko naizen au, nire buruaustetan ibili naz. Eta nirekiko esan be bai: Azken-fin ori ez ete da azken fiña izango, au da, azken zintzo, on, onuratsua?

Onetan gabizen edo diardugun lez, ala izango dan itxaropena dogu. Bizkaierari arnas barri ta luzea emoteko izan dedilla. Azken baten fin jokatzekotan orduak ordu eskintzera gertu gagoz. Alabiz.

BIZKAI'KO DIRUAK

Bizkai'ko Aldundiarentzako eun eta berrogei ta bat milla milloitan ondo betetako aurre-kontua (presupuestua) ontzat artu zan lengo astean Gernika'n. Zeatz eta zenbakietan esateko: 145.337.883.881 peseta.

Bere azterketan illabete aurrez Bizkai'ko Batzarretako batzordetan eginda-ko Janez gaiñera, egun oso bi igaro ziran, goizean asi eta ia gaberdirarteko batzarretan, Gernika'n, azken batera elduteko.

Aurre kontua, alderdi guztien iritziz, nai ta danak oso-osoa onartu ez, a-sartia da.

Aitzakiak, aurkako eritziak eta abar, beste bide batetik duaz, alderdi bakoitzak zelako jokabide, alako ikuspegia emonda.

Batzuk, geiegi emoten dala Eusko Jaurlaritzarako. Besteak, ordez, aren eskubideko diran gai batzuk, emen sartu dirala.

Azken baten, alderdi politiku bakoitzaren arra argi erakusten da, ontasun edo sailtasun adierazleak gaitasuna edo aultasuna ziurtatzeko erabilten daben neurkiña agertzean.

Labur esanda, zelako begia, alako irudia.

Batzuen kezka eta ardura, laterri nausia da. Aren kerizpea besterik ez dala ikusten. Egiten dituen eskabideak, agertzen dituen asmoak, erakusten dituen gogoak edo ta ipinten dituen aitzaki eta makurpenak, Laterriaren menpetasuna gogoan daukela egiten ditue.

Besteak ez dabe nai nortasun berezirik. Bizkaia indartzea, Gasteiz'en aurka dalakoan.

Garbi esanda, batzuk españar zentralista lez emoten dituez oinkada guztiak. Besteak euskal zentralista lez.

Batzuk Bizkaia ain indartsu izan leiken bekaikeriz eta inbiriz; besteak nortasun larregi artu ete daben bildurrez.

Baiña egia or dago: eun eta berrogeta amaika milla milloiko aurre-kontua egin dala. Gure lurraldean sekula egin ez dan aiñakoa.

Ortik 40.452.750.000 estaduari emon bearreko kupoa dira. Berrogei milla milloi ta erdi bete betean.

Beste 47.460.864.671 Eusko Jaurlaritzari emon bearrekuak. Au da, berrogei ta zazpi milla milloi ondo beteak.

Onetan be zer esanak. Zegaitik ainbat kalte euki dauzan Bizkaia'k, ez dau kalte orrein forra kontuan euki urte onetan, bere emon bearra zerbaitetan bertuteko?

Zegaitik gauza batzutarako iru lurraldeak agerbide bardiña ba dauke, diñoe batzuk, zegaitik diruzko laguntzaz neurri orren araberan jokatu ez, Jaurlaritzaren premiñak iru errialdeak bardintsu emonaz?

Aurre-kontua aztertutean, ainbat orrelako entzun izan dira. Alaz eta jeltza-

leak, zirikada eta oztopo artean, eusko abertzaletasunak erakusten eta eskatzen daben zabaltasun eta maitasunez jokatu dabe, bizkaitar izan eta izate orreri eutsiarren, euskotar lez osotasunik zabalenean jokatzen.

Bildur dira batzuk lurralde jatorren ezaupideak osotasuna etengo ete dauan. Bizkaitarren jokabideak argi erakutsi dau bildur orrek ez daukala oiña -rririk.

19-I-84

BIZKAI'KO ELEIZ-ATEAK

Laster Berriatua berbiztuko da Bizkai'ko eleiz-ate lez.

Ondarroa'k bere azken egitekoa egiña dauka, Otsailla'ren 25'ko Udal Batzarrean.

Orain Bizkai'ko Batzarrak emon bearko dabe euren baietza.

Batzarrak Jorrallean batuko dira. Bein areik baieztu ondoren Eusko Jaur-laritzaren on ikusia eta kittu.

1965 inguruan asi ziran Ondarroa'n bateratu edo sartu eragiteko alegiñak.

Garai aretan ia erdira ekarri nai izan ziran Bizkai'ko udaletxeak.

Lenengo oroéagindua (dekretua) 1969'ko Epailla'ren 27'n egertu zan, Madrid'en.

Berriatua ez egoan gogo onez makurtzeko. Auzi-Mairik gorengora (Tribunal Supremora) jo eban. Baiña an auzia galdu. Auzi-mai orrek 1973'ko Azi ontzat emon eban ondarruratzeko 1969'ko agindua. Eta orrela 1974'ko Epailla'ren l'an, Madrid'eko ministroen batzarrean barriro onartu zan Ondarroa'n sartzea.

Arrezkero, biotzez ez baiña legez, Berriatua ondarrutarren kapapean Bizi izan da.

Egia esateko, azken urteotan, udaletxetako auteskundeak egin eta bereala batzorde eragille bat sortu zan Berriatua'n, eta nai ta Ondarroa'k legezko aitasun bat emon, berriatuarrak euren kontura eroan dabe bertako gorabera. Anai arteko konponketa.

1965'n alkartze agiriak egiten astean, Ondarroa'k 8.349 bizilagun eukazan eta Berriatua'k 1.546. Berriatuarrak eurenak zituen 2.095 hektarea. Ondarrutarrak ez euken 240 hektarea besterik.

Orain, banatzean, Madalen auzoa deitzen dana lagaten dautse Ondarroa'ri, eta Ondarroa'k tik Gipuzkoa'ra duan bide nausiaren be-aldea, au da, ondartzata ur-egala.

Ondarroa'k Berriatua'ri Mereludi (Milloi) auzoan eukan lurraldea, bertako basarriekin. Auzo au be XVI garren gizaldian asarre ibili zan, baiña 1.545 eta 1.546 urtetako eginduen ondoren, ondarrutar jarraitzen eban.

Geroago inguruko bide-barria egiten danean, Zaroe aldian, bide nausi orretatik Artibai ibaira geratuko diran lurrak Ondarroa'ren lez etsiko dira.

Muga barriak ipintean aitatu be ez dira egin Mutrikugazko mugak. Sei mugarri egozan len, ala diño 1.889'ko mugarrien ikustaldiak, erri orregaz. Bost Ondarroa eta Berriatua'k batera eukezanak. Baiña ba egoan bat, Elordi'ko potzutik 154 metrotara katei gaiñera bitartean, Ondarroa eta Mutrikurena bakarrik zana. Orain Ondarroa eta Mutriku Saturraran azpian batuko dira bakarrik.

Zor lez gendun ondarrutarrek berriatuarrei euren nortasun osoa ezagutzea.

Onetan lenengotik igarri zan gure barruko miña.

Ezin doguz ukatu gure premiñak, baiña...

Erri bi oneik ba dauke gizaldien gizaldietako auzotasuna, ez anai lez ba-koitza bere etxean biziteko eskubidea. Origaitik Berriatua, eleiz ate-lez bere bidean ikustean, pozik agurtuko dogu eta ziur gagoz asarre baiño adiskide lez obeto erabagiko dirala sortu leikezan premiñak.

Deia, 18-IV-83

BIZKAIKO FORU ONDASUNA

Txaloak joko dautsaguz gure Aldundiari?

Lugo'ko ipuiñetan, "Contos populares da provincia de Lugo" liburuan, "Os tres consellos" deiturako bat agertzen dabe. Galegoak sarri gogoratzen dakiena ei da.

Au diño: ez egizu gauza bat egin iru bidar pentsatu barik, ez egizu bide ego-kirik laga ariñago ibiltearren, eta ez egizu itandu ardurarik ez dautsun gauzarik.

Guk, kontseju onak artuarren sarri egin dogu ainka *sartzeen* bat, zazpikien antzera ibilteagaitik. Oraingotan gauzak gertatu arte, ixilik egoteko ardura euki dot.

Igaz, nire "ondasunen agerpena" egin nebanean, nire emaztearen izenpea (firma) ipini barik bialdu neban. Eta denpora dala, Ogasun sailleko karta bat ar-

tu neban, nire agerpenak utsune bi eukazala ta ainbat ariñen zuzenduteko, egin neban agerpena balio barik laga ta zigorren bat euki neikean zemaiez.

Miñekaz ibili ezinda nebillan aldi baten, birritan egon nitzan Bilbo'n, nire agerpeneko utsunak bete nairik. Bilbotarrak ez dabe pentsatuten, guk errieta-kuok eurei begira egun guztia galdu ez geinkenik, eta ez dautse ardurarik gure ez-egokitasunagaitik. Zentralismoaren aurkako ei dira, jakiña, Bilbo'n ipinten dabena bedeinkatuta laga ezkeru.

Ala, egun bitan, ezer egin barik etxeratu nitzan ta erantzuna kartaz egitea pentsatu neban.

Nik euskaldun lez euskeraz erantzun, eta gaur arte. Ori on izango zan nire agerpenak alderdi bi euki izan ez ba litu. Bat izenpe (firma) utsunea, ta ori, txi-noz idatzi eta erantzunda be igarriko eben, agerpena ikusiagaz batera, eta beste diru pixkat biurtzea. Au, dirua, ez da etorri. Angoak esango eben: Dirua artzeko ta oraindik arrokeriz dator euskeraz erantzuten? Egon bearko dau guk euskera ikasi arte!

Eta ikasiko ez daben lez, azkenean euskaldun burugogorrek galtzeko.

Bein, Aldundian, Makuaren inguruko bategaz gertatu nitzan. Aurten Ogasun (Hazienda) agerpeneko paperak euskeraz be etorriko dira, ezta?, itandu neutsan. Eta berak: zerbaitetan ibili dira ta baietz uste dot.

Gure jaurlaritzako euskeraren aldeko "pastorala" irakurrita nenguan. Gure eskubideak an etozan. Eta lengoan "Indatzu" etxean sartu nitzan. Toki barria erakusteko arrotasunez, egokitasunez ez beintzat, urtero bete bear diran agerpeneko orriak etxe guztia igarota bazter baten saltzen ditue. Iru laguneko kristal arteko toki itxi baten, egalean euskeraz egiten dala adierazten daben kartel da guzti.

Erdikoagana zuzendu ta zer eskatzen ete nebanka, irri barrezka. Ekin nik neurean, ta berak albokoari, erderaz: txo, ia estutasun onetatik ataraten nazun... Baiña mutuak be seiñakin konponduten dira ta gu be bestearen laguntza barik konpondu giñan.

Artu nitun nire betebearreko orriak, eta galegoen ipuiñak eta gerkarrenak gogoratu nitun. Ez dakizu mendien erdibitza? Ango zarata ta ango nabarmenkeria, ezin etenda, zer sortuko ete zan, zer urtengo ta... azkenean sagutxu bat.

Gure Aldundiak (Diputaziñoiak) oraiñarteko alegi, ipuin eta kontu guztiak gainditu ditu. Zorionez euskeraz datoz. Ezin giñei iñor ukatu betetera, euskaldunon eskubideak aitzakitza artuta. Iztegorik be ez da gaiñera bear ulertuteko.

Emeretzi orri dato-z "Renta 1982" azalpean. Danetara 38 orrialde. Eta lau bidar agertzen da euskeraz "Bizkaiko Foru Ogasuna" deiturea. Beste guztia... Madritarren berbetan. Ikusten danez "sinplifikatu" dan gaia euskera da.

Zelan eta zegaitik asarretu leike Madridedko Gobernua gure euskeraren aldeko legeekin, dirua eskatuteko be gure berbetan ez ba dauskue eskatuten?

BIZKAIKO FORU ZIBILLA

Bizkaiera darabilgunok, beste bein geiago, arduratsu eta zalantza egunetan sartu gara.

Laster, egun gitxi barru Gasteizko Legei•Biltzarra lege bat egiteko da, Bizkaiko Foru Zibilla barrero arautu eta indarrean ipintzeko.

Kontu egin Foru onek ez daukala indarrik eukiko Bizkaian eta Arabako Laudio eta Aramaion izan ezik. Eta Bizkaian be ez Bizkai guztian, ain zuzen be Bizkai jatorrean baiño, Bizkaiko zati batzuk, uri sortzean beste errialde batzutako Forua artu edo emon eutselako.

Eta itxuraz, lege ori, Bizkaiko Foru Zibilla, ez da bizkaieraz agertuko ofizialki edo ta arrisku aundia dago orrela ez ikusteko.

Eskubiderik ete dago gure Bizkai jator jatorraren bertako utsa dan Foru berezi bat, eta emendik kanpora babestu Jeikezan errialde biak be bizkaiera erabilten dabenak izan, eta bertakoak erabilten ez daben euskeran agertzeko eta lege ezaupidez babestuteko?

Beti esan izan dogu batuera baten bearrik ez dogula ukatzen. Baiña izkuntzalariak zurbil laga dauzan batu ete da eredu ori? Gizonen eskabideak aitzakitzat iñoiz baiño geiago ipinten diran aldi onetan, gu bizkaieradunok izan bear ete gara ain zuzen be oraingotan gure Lege Biltzar baten, mesedez errukiz eta negarrez eskatzen ibili bear dogunok gure asabak zirala Foru ori euki ebenak, arautu ebenak, oituraz eta usarioz erabilten ebenak euren bizibide jatorraren erakundean, euren famili eta etxeen iraupen eta sendotze-asmotan, eta gure asaba orreik, Foru orrek zela ala ikutu eta zer ikusia emoten dautsen guztiak, bizkaiera jatorraren errietan jaiio eta bizi zirala, eta dirala, gogoratu eragiten ibili bear ete gara?

Foru ori gure asabena ba zan, eurena bakarrik, berezia zalako, eta dalako, ez ete dogu eskubidezko, beste edozein gauzetan lez, euren oiñordeko izateko eta lotsa barik eskatzeko Euskal Lege Biltzarrak aintzat artu gaizala osotasun baten, legearen espirtua eta espirtu ori aztertu eta arakatu eta eratu bear dabenen izkuntzan?

Erreztasunen bategaitik, edota edozein aitzakiz batura itzuli nai dabela?

Egin dagiela, baiña legezkoa, bizkaierazko textoa itxita.

Zoritxar aldian bizi gara bizkaiera darabilgunok Milla buruauste irakas kintzan eta komunikabideetan.

Alperrik gabiltz autortzen Bizkaiera dala Bizkaiko euskerea eta bizkaiera barik ez dagola euskerarik Bizkaian.

Nekez asi da jendea konturatzen, baiña gero ta zabalago eta nabariago da orren kezka. Zergaitik? Erria be konturatu dalako bertan bera goazela eta alperrik dala amets zoroak egitea.

Ez al da eldu bear zerbait leiken lekuetara, Bizkaia igarten dan bizkaieraren aldeko kontzientzia eta bizkaiera darabilenen kezka, azken baten, euskera salbatu naian?

Ba dakigu egun oneitan asi dirala batzuk arduratzen, Gasteizera begira eta gaurko egoeran gitxienez itxaro geinkena, errespetu, lotsa eta ezaupide bat egon leikela.

Ori bear litzake Zuzentza'ko eskubideen onartzea aintzat artzen dala sinisteko be.

I7-II-92

BIZKAITARRAK BARRIRO

Bizkaitarrak asi gara bildurrak joten.

Ez genduke nai barriro kanpai joten asi, baiña ez da errua gurea izango, lotsarik gorde nai ez dauskuenena baiño.

Gure asarraldi bakoitza Euskal Jaurlaritzari gure aitzakiak ipini edo ostikada emotea lez artzen dabe batzuk.

Orixe da ain zuzen gure asmotatik urteten dabena, kanpoan dagona. Guk pentsatu be egiten ez doguna eta nai ez doguna.

Etxe barria egin ordukoxe, ez gara jaurti nairik asiko. Arro gagoz etxeagaz. Baiña bai etxeari egokitasun geiago billatu nairik eta euki Jeikezan tarteak bete nairik ibili.

Berba egin baiño ez egitea naiago dogu. Gauzak ondo duazan ezaupidea litzake, alkarren lotsa eta begirapenez duazan ezaugarri.

Baiña... baiñak soloan eta gorriña batzen.

Egunak aurea eta itaun (galdera) batzuk datorkiguz burura:

Asi al dira bizkaiera erakusten Bizkaiko eskoletan?

Zenbat maistrak daukez bizkaierazko textoak?

Zenbat maistrak dakie agertu diran edo dagozanik be?

Noiz agertuko da Euskaltzaindiak be on ikusia emon dautsan bizkaierazko aditz liburua?

Erabagiak artuta be, gogorik ba eta dago, euki bear leukienean artean, erabagiak zabaldu eta bertan bera argaltzen laga barik, indartu eta bete eragiteko?

Amar urterarte beintzat, bizkaitar umeak bizkaieraz artuko zituela euren

irakatsiak esan zan. Gu ez gagoz orretan geratzeko. Gure eskubideak ez dira or amaitzen. Asiera baterako, bide baterako burua makurtuarren, lotsazko makurpena da eta egin bear dabenari konfiantza agertu naia, baiña ez azken lotuera.

Baiña amar urterakoen artean be...

Aize zikinak jaso dira errialde batzutan. Sinistu ezíneko aize gangarrak. Eta baretzen ez ba dira, azaldu egin bearko dira, paperetara atara.

Gauza askotan ain zaletsu, jator eta aberats agertzen dan Bizkai'ko Foru Aldundia zegaitik ez da arduratzen bizkaieraren araso onetan, bizkaieraren egoera aztertu eta salatzen, garbitu eta indartzen, azaldu eta zabaltzen?

Zegaitik Bizkaiko Aldundiak, Gipuzkoakoaren alegiña jarraitu ez euskarren mesedean?

Ain pobre ete gara bizkaitarrok, ain zuzen be gure yauretsi edo patrimonioko ondasunak ezaugarrienari, arnasa emoteko aiña laguntza eskiñi barik egoteko?

Noiz asi bear da Bizkaiko boletina, bizkaieraz agertzen?

Zegaitik ez dau Bizkaiko Aldun diak Bizkai'ko euskal egoeraren ikerketa edo estudio sakon, zabal, zeatz, argi eta egitsu bat egiten, oiñarrietatik asita, geroko jokabide guztien mesedegarri eta gidari izateko eran?

Zeri ikutu asko daukagu bizkaitarrok, gure izatearen barruan, eta askok ala uste ez ba dabe be Euzkadi'ren mesedean.

Baiña oraintxe be mendebaletik datoz aizeak. Eta guk suesta gertu bear.

28-X

BOLIBARTARRAK

Bein, XVIgarren gizaldian, euskaldunak Ameriketarako bideak ikasten asi ta gero, Ziarrotza ingurutatik be arako aizeak artu zituen.

Ameriketa'n sartu zan Bolibar'ko Simon bat. Santo Domingo'tik Venezuelara joan be bai. Ziurretik gerra mutil lez, lurralde barrien billa, aberastasun eskutuko eta "jaube-bakoen" egarriz.

Ondoren luzea lagako eban. Gizafrutuetan eta pentsa-bide zabal eta idegietan.

Bolibar abizena (apellidua) zabaltzen igarten da; galdu barik ugaritzen. Eta bere jokabidetan mardultzen.

Gizaldi zarretako Errementari'ko Simon'en urratsak, zintzoen, bere izeeko illoba batek jarraituko dauz.

Soiñez txiki geiago, andi edo luz,,. año. Eta argal, kirio (nerbio) uts zala esango dabe ordukoak. Arrautsa tankcrako arpegi, sudur zuzen, bekoki zabal... Aita berberaren irudiko.

Ezin egoniko gazte lez ezagutzen da. Ar^f igarri dira bere ibillerak, batez be garai aretako eta erak kontuan artuta.

Noiz-nai dabil Europa eta Ameriketan.

Azkatasun eta buru-jaubetasuna eskatzen Amerikarentzat. Euskotarren odol irakintsua eukiarren, bizi dan lekuko lurra maitatzera eroaten dau. Bereztat, izan be, Amerika zan bere aberria.

Gizon ikasi biurtu eta egin zan. Humboldt izkuntzalari ospatsuaren lagun andi.

Humboldt ori 1801 urtean Markiña'n egon zan. Ordez, 1803'n, ba dakigu Bolibar'egaz batu eta ibilten zala. Gogoratu ete eben euren artean Markiña aldeko bere jatorriareri barririk?

Dana dala, Itali'ra egin eban ostera baten, erromatar diktadoreen ondorenak ezagutu eta ikasten alegintzen da. Diñoenez, antxe erabagi eban Amerika bere zapaltzailetatik azkatutea.

Eta lortu be bai. Bolibia, Kolombia, Ekuador, Peru eta Venezuela'k euren errietako Aita legez artuko dabe. Ez bera bakarrik. Odolaren tengadaz beste euskaldun batzuk igarten dira erriaren azkatasun bide orretan.

Caracas biurtuko zan bere gurendarik andieneko toki lez. Izan be bere jaioterria zan eta zordun agertzen zan ortara.

Geroztik amerikarrak izen bat gogoratzen ba dabe Simon Bolibar Palacios izango da.

Amerikarrak eta euskaldunak adiskidetasun sendoan lotu zitun Bolibar'ek.

Gure azken gerrate ondoren, esku zabal artu zituen emendik erbestera joan bearrez arkitu ziran euskaldunak. Askorentzat Caracas gerrako miñak aztu eta bizi barrien iturri gertatu da.

Zabaldua da Perez Gimenez lendakari zala españiar agintarrietatik zirikaldu ugari euki zitula euskaldunei ostopo eta loturak ipinteko euren bizibidean. Ordurako euskaldunak *len* Caracas'eko toki zatar, baiña geroago egokitu eta "aberastutako" lurralde baten euren etxe eta batzar eta joko lekuak egiñak euzkezan. "Paraíso" deitzen eutsen toki orreri.

Bein ordezkari bat lendakariarengana joan zanean... arek erantzun ei eutsen: "Los vascos están bien en el Paraíso."

Orrelako gauzak euskaldunen esker ona merezi izan dabe. Ortik gure artean "bolibartarren" edo Bolibar'en adiskideen alkarteak sortzea. Itziar'en batzen dira urtero, alkarren ezaupidea sendotu .eta Amerikagazko eskar onak barriztuten.

Aurten he il onen 20'n an alkartuko dira Bolibar'en gogoia zabaldu nairik.

BILBO GALDU ONDOREN BURUA MAKUR ETA BIOTZA GORI

1937'k Dagonilla'k 26.

Goizeko agindua: Iñora ez urteteko.

Gerotxoago: Gertu egoteko.

Andik laster: Zumardi edo alameda ingurura joateko.

Ondoren: Talde baloitza, arma gabe, baiña osoan agertzeko.

Igarri gendu. Azalak bete ta barruak mindu bearrean giñala oraindik. Begiak busti ta gorritu barrua irakintzeke gengoan ba!

Guretako bataloi bat artu eben makurpena ofizialki, agirian egiteko.

Negarrez dagon gizonak ez daki itzik egiten: albora begira edo bera begira, begiak gora jasoteko adorerik eta indarririk ez daukan gazteak, bere orria idatzia dauka.

Irakurri irudipenez goiz artako gure egoera.

Ango itz leunak, ixiltasun gordin eta bete-bete aretan, guk irunsi ezinda, aizeak ezkututzen zitun.

Niretzako... latin-ikastetako esaera nerabillen: "morituri te salutant".

Aurrean, zuri, gorri, ori, berde... malkoen leiarrak nastu egiten zitun kolo-reak. Belarriak bai igarten eben oiñots nekatua:

Latz, ots galduen oiñok.

Eusko gudari izan giñan.

Izan giñanaren ordezko bat emaitza artzeko oraindik.

Istori andiago bat egun berbertan bizitzea gaitz.

Amaitu orduko, oraindik batalloiak aldebanatu orduko, ainbat kamioi zar gertu erreskadan. Italiarren "Spa" berde illunak geienak.

Norako?

Nai ebenak euretan sartzen asteko dei *egin* eben. Eta alkarren leian, alkarri bultzadaka, danak aurea artu naiean ziran eta urten. Iñok ez ekian nora. Bilbo'ra? Aske giñala ta ba zan orrelako poz giro zerbait.

Besteok zai. Goserik ere igarri barik.

Andik ordu batzutara, barriro agertu ziran ta ostera ere lengo bultzada, alkar jote ta estutasunak sartzen. Norako? Bilbo'rako?

Kontuak egiten asi ta kamioi areik ezin Bilbo'rako ostera ain arin egin. Kezkak. Bidean lagaten eta zituen lagunak, Ortuella aldean edo, andik trenetan bialtzeko?

Ez genkien alde orretako barririk. Ezin guzurtetsi edo egiztatu.

Beste ostera bat geiago, andik, ordutara, Bardin, illuntzea etorri zan gure txanda ordurako.

Sartu gu ere ta aurrera, alako baten.

Castro'n, erria igaro ta Bilbo'aldeko bidean sartu baiño len, ara geldi gure aurrekoak. "jatsi zuek ere", ots norbaitek. "Aldretan ez, bata bestearen atzetik erreskadan baiño".

Bide egaletik gora, baratza igaro bear. Goian etxea, baratz buruan. Aurrean, ezaugarri, Josuren Biotzaren irudia. Izen ori kolegioak. Pilloka, ingurutan, len etorriak. Gora ta geiago. Al gendun tokian leku egitea gure kontuko zala ta an laga ginduezan, biaramonean etxerako beste osteraeen bat egin bearko gendula-ta.

Silvio Pellico'ren "Nire kartzelak" liburua etorri yatan burura, 1832 urtean agertuarren, eun eta bost urtetara ere eguneko. Eta Ovidio'ren elegiak ere bai. Ez al da berea "gau illun aretako irudia niregan biztutean..."?

Etzetik urten neban lenengo gabaren oroitza nekarren. Urte osoa baiño ille bete gitxiago ain zuzen egun onetan, etzetik urten nitzala. Gau aretan ez nekien noiz arteko eta zelako gerran sartzeko nitzan. Gau onetan ere ez dakit gure illuntze onek zelako egun agitzea eukiko daben.

Gero, biziak kontatzeko eukiten ei dabe ta, etxeko atadia barrero ikusi orduko beste iru urte ta erdi igaro bear zirala konturatuko nitzan. Ara nire gertara. Parkatu. Ez nirea; "ezer egin ez zuan" gaztedi oso baten kondaira da.

Laredo'tik urtekeran gaua etxean egiteko ametssez urten giñan. Gure etxea...
...amets egiten gendun goizean noiz biziko ete giñan an bakean...

Diario Vasco 30-VII-78

CAMP'IZENDUNAK

Berrogei ta amairu urte dira astean "Euskalduna" itxas lantegi andi eta ospatsuetan, "Campoamor" izendun barkoa uretara jaurti zala.

Campsaren aginduz egiña zan.

Gero, Camp asieradun ainbat itxasontzi ezagutu izan doguz.

Gure itxasertzako erri askotan, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Gaminitz eta Bilbo ingurutan, ainbat famili bizi izan dira elkarte orreri begira, bertako kapitan, pilotu, kontramaixu edo beste zeregin eta bizimoduen arduretan.

Ba dirudi asieretan, portueri begira egin zirala lenengo itxasontziak. Gure itxasertzean dagozan portuen egokitasuna kontuan eukita eurretan sartu eta urten traba andi barik egin eta ibili al izateko eran.

Gero ikusbide ori aldatu eta txalupa andi, "super" en denpora sortu zan. Mundu guztia petroleo erabiltzaille ikaragarri orrein mende egon bear ba leuken lez. Eta eurentzat tokirik ez, eta itxaso aurretan oiñarri sakonak billatuz, "super kaiak" egiteko premiñak sortu.

Gaur aizeak beratu dira.

Itxasoetan irureundak milla tonelada arri-olioz euren sabel andiak beteta, bildurgarri ziran mastodonte andiak, ba duaz eskutatzen, banatze edo ta argaltzen. Eta arin ez dabillena zorrak ittoko dabe.

Krisi gogorra sortu eta sartu orrelakoetan.

la dirurik be ez dago gaur, eurak bete aiña arri-oilo erosteko. Tratu txiki eta erasoagoak egin nai ditue erriak euren ordainketak kezka barik eta bearrezko epeetan egiteko.

Bestera, ez ei dabe billatzen bear aiña kargarik, denpora batzuk lanean egin edo beteta erabilteko. Itxastarren artean ba dago kezka, eta ez txikia, ontaz. Etxe batzuk euren kapitanei lotsa eta begiramena gordeten dautse. Itxastar kapitanak beti izan dira lotsa andiko gizonak. Euren etxeetan, alkartetan, galoiak erabili barik be, nortasun eta duintasuna euki izan dabenak. Ez ditue kalean lagaten. baiña itxas egunak laburtu eta mirriztu bai. Ontzi bakoitzean kapitanak denpora gitxiago sartzeko erak billatu, banandu, irabaziak danentzako eltzeko eran.

Lengo plata, txanel, batel, txalupa, treiñeru, bolintxeru, meñaga, txalopandi, potin, bapore eta abar, galdu ziran. Gizaldiak egın zituen. Baiña euren ordezkooak, len erabidetzen gizaldiak bear zituena, orain iru-lau urtetan sortuak dira, baiña lengoak baiño geiago iraun bearrean, gero ta ariñago geratzen dira aldatu bearretan.

la zelako entzutea euki eban aldi baten "Euskalduna" etxeak berak. Gure gizaldiagaz batera sortu zan. Bidaurrezaga, Kortina eta Troka lantegiak iruntsi zitun. Gero europar gerra denporan bitsetan bizi. Baiña orain, bera be, beste baten izenean galdua.

Ba dirudi itxasoetan ur andiak dagozala, baiña an be ekaitzak gogor jotzen dabe eta ez da erraz izaten beti brankaz denporaleei arpegi emotea.

CAPUT BIZKAIÆ

Bermeo caput Bizkaiae, esaten zan denpora zarretan.

Ori orrela lortzeko, zerbait izango zan.

Or egongo ziran tartean Bizkai'ko jaunak, ez dogu ukatuko, baiña bai eta Bermeo'ko jaunak be, paperetako jaun barik, benetako jaun jator ziranak.

Gaur be ala agertu naian dabil. Era askotan. Arrantzan, langintzan eta abar. Eta jakintzan, kulturatan.

Ez dira il asko "Bermeo 1981 " liburu ederra argitaratu ebela bertatik. Egunotan "Bermeo 82-2" kaleratu da.

450 orrialdeko liburu mardula.

Euretatik 392 Udalari buruzkoak eta besteak Itxasoari ikututen dautsenak eta komunikapenak.

Lenengoa atsegiñago zan, alaiago, ugariago. Bigarren au astunago da, gogorrago. Kontuan euki 280 orrialde Udaleko Agiritegi (artxibuko) aurkibidea dala, inbentarioa, askotan, urtien aldaketaz, udaletxetan oiturazko gaiak diranak ainbat bidar birresaten.

Ba dakigu onelako jakingarriak batu bear dirala. Mesede asko egiten dabe ikasi nai dabenen artean, baina zoritxarrez onelako zerrendak arakatzeko garrez banakak ibiltzen dira.

Nik ez dakit zegaitik, baiña erri maillan eta liburu kontuan ez dogu urteotan beste gauzetan egin izan dogun oitura-etete edo apurtzerik egin. Onetan bertiko arduragetasun eta nagikeriz jarraitzen dogu.

Komeni litzake danon artean alegin bizi bat egin eta Bizkai'ko Kondairari dagokionez, eskutuko gauza asko kaleratzea edo ikaslien mesedera ataratea. Orrela aurrerakada andia egingo genduke gure erri eta izatearen ezaupidean.

Egia esateko Bermeo'k len be, Kondaira (istoria) gaietan, Zabala-Ozamiz eta Zabala-Allikatarren liburuekin, bere Kondairako zati asko erakutsita daukaz. Bai eta Anasagasti, Tellaetxea, Ozerin-Jauregi, eta beste askok aldizkari eta egunkarrietan idatzitako lan baliotsuen bidez. Esan Bearrik ez Labayru, Iturriza eta abarrek Bermeo'n istori-mamin ugari batu ta atara ebenik.

Gero Bermeo'k, itxas gaiei ikututen asi ezkeru, berez ten egiten daki eta gaitz da Euskalerriko arrantza eta itxastarrei buruz zerbait idazten astea, istori kontuan beintzat, Bermeo'n sustartu eta oiñarritu barik.

Bermeo'k, istoriagaz batera, euskal elerti edo literatureagaz be jokatu bear leuke. Bermeo'n, oraindik, erri gitzitan aiña euskera entzuten da, eta berezko bizitasun orreri eutsiaz jokatu bear da.

Ezin nei esan Bermeo'tik ibili naizenetan euskeraren kezka eta ardurarik, eta egia esateko. euskeraren mir.ik be igarri ez dodanik. Baina burutzari eusten jarraitu nai dabena ba dagoz. Gaitz lagaten dira umetatik artutako sentimenak.

Orrelakoetan ba dakit Gaubekatarrak Bermeo'n ezagutu ziran euskal liburu jatorrak barriro atarateko asmotan dabiltzala. Ez dabe zirikada asko bear Bermeo'ko oiturak ain egoki eta txairo agertzen diran "Torronteruen" lako liburua argitaratzeko, bere denporetako musika ta guzti. Orrelako liburu bat, ziurretik, bermiarrak begietako maiko ta guzti irakurriko leukie.

3-X-82

CARACAS'EN AZURRAK

Erri txiki ta zarra Gipuzkoa'ko Gabiri.

Antxiñako Alkain?

Ala diño Lope Martinez Isasti'k, bertako parrokia izentatzean: "Santa ,Maria de Alcain", con rector y beneficiados".

Gabiri'k tokiari neurri artzen daki. Ala ikusten da bertako "plazan". Ala udaletxe, eskola eta abar.

Gaur erri-miñez erritik urten bearren aurkitu zan bertako Igiribar errotako andre baten illetak eroan gaitu.

Caracas'en bere azurrak laga ditun euskal emakume jator baten gomuta zaintzera.

Urteak dira bere senarra be an lurperatu ebela.

Gure gerrako istori baltz, ixil eta makurra da ori.

Lenago ere Gabiri'tik Amerika aldetatik ibiliak ba ziran. Batzuei ondo joan jakezan ango aizeak.

Irurogei ta amar urte aurten "amerikano" batek errirako eskola barriak egin eutsezala. Eustakio Balanzategi zan. Erri miña erakutsi al izan eban arek. Arek zabaldutako eskoletan ikasiak dira oraintsu il zan andrea lez bertako asko.

Garai aretako "Euskal Erriaren Alde" aldizkarian irakurri leikenez, mai-xuen ordezkioak erderaz egin ba eben be eskola zabaltzeko jaian, alkate eta erretoreak euskeraz egin zituen curen itzaldiak. Betiko jokera.

Erromaniku tankerako eleiz atadia, gotikoari sarrera emoten. Aldara, barriz, txurrigeraren erti kutsuko. Eleizpea deitzen dana, gizonen mesede, baiña artearen kalte.

Gure jauntxoan denporetan, Gipuzkoa'ko aide nausien etxeak 24 zirala esaten da. Emen Gabiri'n eukin Agirretarrak eurena. Oñaztarrekin jokutzen eben, Lazkao, Loiola eta beste batzuekin batean.

Gabiri'k milla eratako gogoetak naastu dauskuz.

Gaur, euskal ertzaiñak dirala-ta, gure zaindari izango diran orreïn gertaerak entzuten asiko gara laster.

Gabiri'k ba dauka erri zaintza onetan nortasun zarra. Bizkai'ko foralak eta Gipuzkoako mikeleteak ezagutu genduzan. Eta ain zuzen gabiritar bat izan zan mikeleteen buru berrogetak urtetan. 1874-1918 bitartean. Juan Pablo Lojendio izan zan.

Gure gerrate aurreratxoan, asiak ziran Donosti'ko irratian, astean bein zala urte dot, euskal irratsaioak.

Txomin Olano baten eroapen (pazientzi) osoa bear zan Laborda abade eta beste andereño erakusleen ume poxpoliñen kantu ta soiñuak gertu, lagundu ta irratiratzeko.

Baiña tartetan ba gendun beste piano jotzaille bakar eta arrigarri bat. Okots, ukondo eta oiñakin pianoa joten ekian. Gabiritarra bera: Joxe Azarola. Euki zitun Ondarru niren errian maite-miñak. Mexiko'n laga zitun azurrak. Gerreraren ondorenez joana a bere.

Nire Gabirirako ostera onetan danak gogoratu izan dodaz.

Nai eta sasoi baten zidarra billatzen dirua irabazi bertako mendi oneitan, gero, oraindik baserriak ustutzeko griñarik ez egoalako, askotan etxeari laguntzeko asmotan Ameriketara joan ziranak.

Geroago, gerra ondorenez, betiko erbesteratu ziranak, gaurko illetan gogoratu dogunaren antzera.

Euren lenengo gertaerak egiteko emen batzen ziran Euskalerriko pasiotar jatorrak.

Eta... eta... Gabiri Gipuzkoa'ko biotz eta goierri izanik, kontuan euki dot baita, gure bizitzaren aldakuntzak gogoratuz, bere baserrietako lautik bat utsik geratu zirala, euretako asko gaur lan-ezari lotuta ibilteko.

Zer esan ugari, Eztanda erreka jaioten dan erri txiki onek.

Danen gaiñetik egi bat: Oroitzak emen, azurrak an.

CLETO ZABALA ETA EUZKO ABENDAREN ERESERKIA

Or gabiltz, edo diardugu, egiña dagona ezin lurpera jaurtita. Orixe da egia. Guk beintzat zubirik egiten ez dogu jakin.

Gerrateko ujola etorri zan, gure guztia tatarrez.eroan eban, eta adorerik eta indarrik ez dogu agertzen gure bidea, gure zubia, len oiñarrituta egoan bidetik asi eta jarraitzen. Ba dirudi lengo guztia ustela zala, lengo guztia oiñarri barik egiña zala.

Ba dirudi 1936 urtean gerra egin gendunok, eta gerra orretan odola emon ebanak, txorimalu batzuk izan giñala. Azkenean prakak be kendu egingo dauskuez.

Eta ori gutarrak agintzen gagozala, lengo berberak gareala diñogula, lengo alderdietan sartu gabiltzala.

Gaitz izango da istorian zear gure lako kasu bat billatzea: Gerra bat egin, indarkeriz makurtu eta galdu, eta sarri gertaten dan Jez, denporak gerrako odolaren onura emoten asten diranean, norbera lotsatu eta atzeratu onura orregaz baliatzen.

Beste amar-amabost urte barru, bizitzaren neurrien legez, gerran ibili giñan gizonok lurpean sartuta egongo gareanean, eta oraingo asarre mintsu au agertzeko iñor geratu ez dediñean, karlistadeagaz gertatu zan lez, buru gogor eta abertzale integrista batzun gerra lez azaldu eta erakutsiko dabe guk egin bear eta jokatu bear izan gendun joko.

Urten ez ba giña, giarrik ez gendula agertu, esango euskuen arpegira. Galdu gendulako itsukeriz jokatu gendula. Dana dala beti ezpata eta orma bitartean.

Kendu nai dauskuenetako bat: Gure ereserkia, himnoa.

Zenbatek dakie ereserki orren letra Sabin berberak egiña dela? Ukatu ete lei etorri be ortik etorri leikezala gaurko eztenkadak? Konturatu ez?

Euskalerriak beti euki izan dauz musikolari onak.

Gure ereserkiari doiñua ipini eutsana be ona zan: Cleto Zabala eta Aranbarri, bilbotarra. 1 847'ko Apirilla'ren 26'ean jaio zan. Musika gogoz jaioten ziran geienak lez, Madrid'era jo bear izan eban zaleiasun ori jorratu eta landuten.

An landuten ziran len geienak. An Arrieta, Erviti, Eslava, Perez Soriano eta Sarasate naparrak. An Arin, Busca, Pagola, Santesteban, Sorozabal, Telleria eta abar, gipuzkoarrak. An baita Serrano, gasteiztarra. Eta bizkaitarren artean Altuna durangarra, Gabiola berriztarra, Zubiaurre garaitarra, Iraurizaga igorre eta beste batzuk.

Lengo gizaldian jaiotakoekin nabil.

Origaitik ez da arritzeko esan eta jakitea "Gernika'ko Arbola" Madrid'en abestua izan zala, eta Euzko Abendaren Ereserkia be an agertu ebala Cleto Zabala'k, Madrid'eko calle de la Cruz eritxonean euskaldunak euken Centro Vasco'n.

Bizkaia'k beti euki izan dau musika zaletasuna eta jakin be bai ortarako gaitasuna agertzen ebanei laguntzen.

Zabala'k be gure Aldundiaren laguntza artu eban. Eta gure erriari ereserki bat laga nai izan eutsan abertzaletasunaren Maixuaren bitartez, Sabin'ek egin eban gogo eta biotzaren esan naiari, doiñu ederrez aberastuz.

Baina gu geu gara. Bakanak eta bakarrak. Ikustekoak ikusteko.

25-IV-82

DANETIK ZERBAIT

Gipuzkoa'ko amaikagarren uria da Zarautz, bizilagunez.

Udan. Donosti kendu ta or ibiliko dira bera eta Ondarrabi.

Erakusketa baten gertatu naz. Margolari eta zeramika egilleak ikusten.

Izenak eta izanak, ziranak eta diranak nastean dabiltz.

Danetako esan-mesan eta kritikak entzuten dira.

Eta danak, saldu bearrean edo bizi premiñan mugatu, arindu ta... parkatu.

—Orren lengo berde illun zoragarri areik!

—Beste onen zeramikako alako ta bestelako buru, irudi, abere edo ta pitxi!

Baiña nun dagoz gaur ertilarientzako (artistentzako) esku zabalak, ertia egin, atara edo lortu nai ba dabe, egin-ala biziari eusten lagako dautsenak?

Danen illeta da: merkea saltzen da eta karurako izen on banakak geratu.

Besterik dala igarten da liburuen jokoa.

Gaur, balio gitxiko liburuak atara nai dituan argitaldaririk ez dagola esan lei.

Euren esanetan, liburuak, atara barritan, bost seiñaka banatzen dira liburutegietara. Liburu dendak, amaituarren, ez dakie eskatzen, eskiñi edo eskatu ezik. Aztu egiten dira. Eta etxe askok ez dauke saltzailleak erriz erri erabilteko almenik. Eta etheen ordezkariak eurak, saltzen ibilteko, ez dabe poztasun andirik billatzen. Merkeak euneko gitxi.

Beste kontu bat da liburu karuena. Ortarako argitaldariak etxerik etxe ibiltzen'diran saltzailleak billatzen dituez, euneko amarrean be liburu bakoitzak itxurazko zerbait lagaten dabelako.

Ori da gure jokia.

Batera nai bestera, artistentzat, egillentzat eta idazlentzat, kontu latzak.

Ikusi bear gure jaurlaritzak "millakrurik" egingo ete daben.

Makina bat sortu zan bein. Kezka, izerdi, ainbat diru eragilte, tekniku aldaketa ta aber. Ia dana egiña egoan. Bizarrak falta zitun bakarrik. Ainbat urtetan eskuz egin izan dan antxoa filetea egitea, makinaz egin eta ugaritzea nai zan.

Lortu zan tresna ia azken azkeneraiño. Baiña antxoaren koipeak laban eragiten eutsen garbitu bear zitun bizarrezko eskobillei. Edo geiegi urratu ta mamiña jan.

"Millakrua" ipini eutsen izentzat. Alperrik.

Asmatzaillea, iñoren laguntza barik, porrot eginda geratu zan. Mesedea izango zan askorentzat, baiña bere lepora egurrak.

Gure giroan, gu be, "millakru" baten zai gagoz. Euskaldunok, jakiña. Eta alatz, edo mirari ori, bidean datorrela esaten da.

Gure jaurlaritzako zaingo batzutan izerditan ei dabiltz, aurre-kontu edo presupuestoko diruak aurtengo dirala ta diruok eragilten jakingo ete daben kezka eta bildurrez.

Burukiderik onena dirua eragilten, gastaten jakingo dabena izango ei da.

Jakiña, ez zoro-zoro ta bota-alaka, gastu zuzen eta mesedegarri ta emonkorretan baiño. Erriarentzat onuragarri eta bizigarrietan baiño. Eta buruaustea, onuragarritasun ori mugatu eta zeaztuten ei dago.

Berandu etorri ei dira edo eldu ei yakoez diruak, nekez lortu, eta aurtengoei izerdia atarateko denporak aurrera.

Alaz eta, diru barik ala diruagaz eragin leikio gaixoari dantzan?

4-IX-81

DEUSTU'KO PASIOTARRAK

Giroak bere erasoaldiak eukiten ditu.

Batzutan sargore, bestetan zakar, urrengoan bare.

Deustu'ko pasiotar prailleak eta lagunak ezagutzen ete dabe egualdi zakar eta gordiñen brastadarik?

Gerratean ezagutu neban konbentu zarra. Gaixotegi biurtuta egoan eta iñoiz, domeka arratsaldetan lagunuen batzuk ikustera joateko bitartea eta uea artzen gendun.

Oraindik bildur nitzan pasiotarrekin. Sotana gaiñeko kurutzadun biotz bal-tzak itzala lakoa sartuten eban. Geroago ezagutu nitun bertako batzuk. Piku eta palaz ba gebiltzala batzuk; Miranda'ko baituen zelaian, obeto esanda, landa zi-kiñean, besteren bat. Geroago kalean...

Nun erosten ete dabe bertako praille askok barruko poz eta bakea agertzen daben barre algara nasaien iturria?

Iñoiz praille batzuen barreak entzutean, pentsatu izan dot, konbentuetan ika-saldi edo klase bereziak eukiten ete dituen, abotsa eta eztarria ortara eratzeko.

Dana bear urte gitxitan egin daben lez Deustu aldatzeko. Eta azken aldi onetan, Pelitzisimo deunaren eleizan, ume eta zar askoren laguntzaille dan deun orreri, aldare nausi ostean egin dautsen otoi-lekua egiteko.

Euskaldunok ez dakigu etxerik amaitzen monjor barik. Geienetan soñaren berogarri izaten da. Nekeen bigungarri. Deustu'ko prailleak sabelari neurria ar-tuta dauke. Aita Patxi batek bere begi zabalekaz ez eutsen lagako orrelakorik. Gaiñera, gorputzerako erregaluak euki leikie aitzakiren bat:

*Monjen erregaluak
intxaurrak ei dira,
ai eurak ere beti
fin fiñak ba lira,
kantaten eben lengo zarrak.*

Deustoarrak biotzera eta espiritura duaz. Musikaldi eta abestaldi atsegiñak eratu dituez jai aurreko lez, bariku eta zapaturako. Igandean Eukaristia. Jai atsegiñak eta esku zabalez eratuak. Ezin leike esan konbentu baten sartzen za-reanean, zer dakartzu anai, itanduten dabenik. Bilbo aldian azken ujoldeak kal-tez betetakoekin gogoratu dira. Eta bariku illuntzeko jaian batzen dana, ortara-ko lagako dabe. Ori batzen Jakitea da.

Larunbatekoa gordeko dabe eurentzako, esandako lanak eta gure Aita Pa-txi adiskideari, –zein ez zan bere adiskide?– gertu dautsen azur gordelekua erri laguntzaz ordaintzeko.

Gaiñera praillien gogoa ez da bakarrik ormak jaso, barriztu eta txukundu-tea. Sakonago dabiliz. Irakurri euren bertsoak:

*Ogetaz urte orina utsean
euki dogun Eleizea
milla arazo, buru austekin
lortu da barriztatzea.
Urte Santu barruan,
ezaugarri moduan,
guztiontzat or bidea:
Eleiza, erri, buru ta biotz
lortu daigun aldatzea.*

DIRUAK ETA IKURRAK

Gu, txikitatik, ogerlekuak erabiltearen zale gara.

Ogerlekuak, barbari ondo begiratuta, ogei errialeko esan nai dabe.

Gipuzko aldean "duroa" deitzen dakie, baiña guri ogerlekorik ezin jaku kendu, zenbaki txikietan beintzat. "Duroak" izan edo bigunagoak gertatu. Iñoiz agertzen ziran "patalak", balio ez ebenak be, nai gaiñera jaurtiagaz bakarrik ez ekienak eta gorrak ziranak be "faltsoak" zirala igarten eutsenak.

Gure jardunetan, bein eunera eldu ezkeru, pesetataru joten dogu, eun pesetako eta abar.

Erriala eta errial bikuak be bai. Gero etorran peseta edo peseta bikoia. Amar errilekua be ezagutu gendun.

Bein millara eldu ezkeru galdu egiten giñan. Alaz eta ba gendun zenbatean ia mugarik ez eukan berba, asko ta asko edo ezagutzen ez gendun kopurua erabilteko: kinkilloia.

Elduko ete gara alako baten gure umetako kinkilloi ori erabili leiken dirutza baten ezaugarri lez erabiltera?

Gaur beintzat milloiak kiloka zenbatutera eldu gara.

Ez neban ezagutu, ikusi bai, marabedirik. Semaiko, lamarai, lauzuri, zidar-marai eta urre-maraiak guretzat izanik ziran. Ontzako urreak eta abar, ametsetako diruak. Dukatak antzerki bat gogoratzen dauste: "Eun dukat".

Ipar Euskadin bizi giñanean, ango zarrak "libera" erabilten eben franko ordez. Oraindik be zar batzuk ba-dakie zenbatutean berba ori erabilten.

Euskaldunok erabili ete dogu iñoiz gure erriko dirurik?

Gure azken gerratean atara ziran batzuk. Ain zuzen lengo baten omendu eben Eliodoro de la Torre euren sortzaille ixil eta langillea. "Eliodoroak" deitu eutsen batzuk. Zoritxarrez denpora gitxi iraun eben, nai ta orain atsegiñez ikusi erakustoki eta biltzaille edo koleziño zaleen eskuetan.

Baiña Bizkaiko kondairan asko sakontzen ba gara, bertako Jaun batzuk euren dirua atara ebela ba dakigu. Ala Lopetarrak. Bederatzigarren Jauntzako lez ezagutzen dan Lope Diaz Harokoak zabaldu zitun bereak. Amargarrenak bardin. Zelakoak? Onetan Iturriza istori-egilleak zeaztu egiten dau. Ba diño "lobis" izenez deituten zirala. Eta batenak, ezaugarri lez, armen irudiak eroazela esanarren, amargarrenarenak otso bi agertzen zituela eta origaitik deitzen zirala "lobis". Itxuraz, euskeraz berba egitean, "lobenak" deitzen eutsen diru orrei.

Lopetarrak zotiña laga eben Bizkaian. Guretar ez ziran famili baten urrats luzca.

Or dagoz oraindik be ikurdi (eskudo) guztietan, bizkaitarren ezagunen dirala, Lopetarrak euren indar eta ezaupidez sartu zituen otsoak.

Askok itaunduten dabe: Bizkaiko Batzarrak ez ete dabe alako baten ikurdia garbitzen sartzeko betarik artuko? Ez al dabe era berean errialdeari legezko daben B andidun Bizkaia ezagutu eta legezkatuko, eta abar eta abar? Bizkai garbia ez ete da Bizkai jatorra be izan bear?

23-III-84

DOMINU SANTURU

Azilla'ren lenengo eguna, santu guztien eguna.

Gero ta geiago illen egun biurtzen guaz.

Ba dauka bere zegaitia. Arimen eguna astegun gaitu da eta lan-egun. Gero ta zabalago dua senitarteko izan ziranen gurtza.

Beste aldetik, gure mundu arruak loratsu biurtu geratu eta lore eskintza, egun onetan, ogi premiña baiño gartsuago da.

Gure denporetan oiturea zan santu guztien eguna, eguerdi ondorenarte, illeta barik ospatutea. Egun onetako arratsaldeko bezperak abestu eta gero asten zan illen eta arimen omena, "konpletakin". Eta otoitz orreitako Aita Gure'tik asi eta biaramoneko meza nagusia amaitu arte, illeta kanpaia jotekiten zan eleiz torretan, arimenetik albako bitartea baketan lagata.

Au da, lenengo eleizako santuak ospatuten ziran, eta gero "etxeko" santuak.

Iñori ez jakon oituko arratsalde erdirarte iltegi edo kanposantuetara joaterik be. Lenengo santuak, gero deun edo deunge, etxeko illak.

Beste berba asko lez latiñetik dator edo artu dogu egunaren izena: Dominus sanctorum, au da, santu jaunen eguna. Bear ba da izen jatorragoa omnium sanctorum da, santu guztiena.

Benabarran, egun oneri, Domine Saindorio-deituten dautse eta agiria da latiñezko eskintza.

Bizkaian geienok Dominu santuru edo Domuru santuru.

Duvoisin'ek, bere lanetan, Done santore deitura erabilten dau.

Jakiña da Duvoisin Ainhoarra zala. "Gazteluberry" lez izenpetzen zitun bere lanak. Aduanetako arduraduna zan, baiña abadetzarako ikasia, eta origaitik eleiz liburu asko euskeratzeko zaletasuna euki eban. Biblia guztia sei urtetan euskeratzea lortu eban eta Luis Luziano Bonaparte'ri esker Londres'en ar-

gitaratu eban 1.859 urtean. Bere idazti asko, asko ta ugari, eskuz idatzi zitun lez argitaratzeko geratu ziran.

Arek erabilten eban "done" berba oraindik erabilten da, edo eleiztar sermolaria erabilten dakie. Deun batzuk, done besteak, baiña Azkue'k ia ez dala erabilten esaten eban bere Iztegian, eta au be, bere irudirako, latiñezko "domine" edo bere laburpen "domne"tik dator. Au da, euskera jatorrean, "jaun" esatea lez.

Egun au, egun egoki eta zabala izanarren, ez da Euskalerrian esaera asko daukana.

Bat andraei buruzkoa da. Eta nire ustez, eleizatik dator, beste baten kide dalako. "Andrak andra andi Kandelariotan dira agiri" esaten da toki batzuetan.

Bestetan, au da ezagunago: Domu santuruetan andrak andra andi, Asentzioko letañetan guztiak agiri.

Ezin ukatu onek be intsentsu usaiña daukanik.

Bestela, bizitzari begira, sabelera zirika, au dago egun oneri dagokionez: Santu guzien egunetik eguerritara, aize eta euri guzti, lekak ganbarara.

1-XI-83

DOMU SANTURU

Latiñetik emoten dautsagu deitura egun oneri. Dominum Sanctorum = Domu Santuru, santu jaunen eguna edo ta santu guztien eguna.

Euskaldunok, urte gitxitan, azken urteetan, aldakuntza andia emon dautsagu oituretan jai oneri.

Len, arratsaldean, bezperak amaitu arte, ia iñor ez zan kanposantuetara joaten. Etxearen luzapen lez genduzan eleizetako "etxeko sepulturak". Eurretan arratsaldearte ez zan igarten itzal edo oroipen berezirik. Bezperak amaitu eta ondoren abestuten ziran illen "noturnoekaz" asten zan arimen eguna. Orduntxe ekiten eutsen kanpai nausiak illeta joten eta atsedeen barik, gelditu barik, gabeko "arimenak" arte joten ziran il kanpaiak, biaramonean goizeko bostak inguruan abade bakoitzaren iru mezak in illen egunari asiera emonaz.

Gaur domu santuru eguna illen egun biurtu dogu goizetik. Eta illen eguna, zela-ala alaitu, lore eta koroe leiaketa lakoa gure artean ipini az.

Len, domu santu arratsaldetik asita, eten egiten giñan eleizako sepulturetako errespontsoetan. Erreskada luzeak, orduetakoak familikoak ataraten zituenak, Aita gure bakoitzeko erri bakoitzean oi zan ukar (limosna) emonaz, aurrez kurutzeari diruagaz ikutu edo ta abadearen estolari mun emon eta diru ori abadearen bonetera sartuaz.

Gaur iltegieta igaro nai izaten dogu eguna gureak izan ziranen inguruan, iilobiak lore eta argiz alik apaiñen gertuta. Eta argi ikusten dana, gero eta illobi andi eder eta aberatsagoak gure aurretikoei eskinita. Bai eta gero ta eskintza samurragoak gogoratu eragiñez.

Guk, "domu santuru" deitzen dogun egun au Benabarran, "Domine saindorrio" lez ezagutzen da. Azken baten esan nai bardintsua.

Duvoisin ainoatarrak, "Gazteluberry" lez ezagutzen zan euskal idazleak, "done santore" erabilten eban bere idazkietan. Ze alderantzi ete dagon gure deun edo santu eta Duvoisin'en done orretara?

Azkue'k bere Iztegian esaten dau ia ez dala erabilten done berba ori, sermolari batzuen aotan ezik. Eta ori he, done be, bere ustetan, latinezko "domine" edo ta bere laburpen "domne" tik datorrela. Au da, euskera jatorrean, "santu" ordeztu "jaun" esatea lez.

Egun onek, esaera zarretan, ba daukaz bereak. Bat andrena: Andrak andra andi Domu santuruetan dira agiri. Bestetan Kandelariotan erabilten dan bardintsu.

Ortik kanpora, beste au gogoratu lei: Santu guztien egunetik eguerritara, aize ta euri gutxi, lekak ganbarara. Jakina, dagozanean.

Egualdiari buruzkoetan beste onek gogoratu geinkez: Santu guztietan, edurra mendietan. Edo ta beste bat geiago: Santu guztien bezperetan dabillan aizea, urte guztian ere, lautik irutan, ura berbera ibiliko da.

Ikusten danez, egun au, len eta orain, egun "señalatua" da gure oituretan.

DOMUND-BAKE KANPAIA

Danok gara misiolari. Edo izan bear giñake. Batez ere gaurko egunetan. Gaur, misiotara duanagaitik, ezin esan politika asmorik daruanik, edo diru ega-rririk, ez eta estadu baten ordezkari lez duanik be.

Misiolaria, gain gaiñetik, sentimen batzuen zabaltzaille da, gizonaren duin-tasun eta elkartasunaren maitale, bake zale eta aurrerapidearen ameslari.

Lenengoz gizaki jatorra da, bere bizitzako urterik baliotsuenetan, bere au-kerei uko egin eta ametsetako mundu batera joaten ausartzen dalako, askotan izkuntza, oitura, arraza eta lan ingurua beragandik ez-bardiñak dirala

Bake zale da. Edonora joan da be, fedea darua bere armatzat.

Errien askatasunen maitale, asieratik bere leku barriko izkuntza, oitura eta sinisteei lotsa gordez, euretara makurtzera gertua dualako.

Errukitsu eta premiñadunen laguntzailerik zintzoena da biotz eta gogoz, erri atzeratuen tokirik baztertu eta alboratuetan sartzan ausartzen dalako angoei poz eta irakatsi batzuk eroaten aleginduaz, euren ez-jakintasun eta bear-izane-tan itxaropena eroanez.

Bakearen itxaropena, gizatasunaren nortasunaren kezka eta etorkizun barri baterako garra eta ezaupidea eroanaz.

Ainbat misiolari izandako ezagutzen dodaz. Bat bakarrik ez andik gogaitu eta damututa etorri danik. Asko lanean etenda, euren emonda etorri diranak bai. Eta pozik euren egin bearra betetako atsegiñez.

Nik igarri dodanez, bakartadea da misiolarien kezka edo ala deitu nai ba da, ittotasuna. Ba dakie gaitza dana baiña ortxe nai leukie arnasa barrien bat.

Nunbaiten irakurri dot, misiolari bat, bere biozkadak erakustean, alako ba-ten, urteen buruan bera ikustera joan zan norbaiteri agertu eutsala: Azken amar urtetan, ainbat lagun etorten jataz ia egunero, baiña danak larri, estu, negarrez eta miñetan zela-alako laguntzen billa. Zeu bakarrik zara ikertutan agurtzera etorri zareana, zeure itxaropen arnasa eskintzen. Amar urtean bakarra!

Urtero ospatuten da il onetan misio eguna.

Ume giñala pozgarri zan, jai lakoa guretzat, "txinotxuen" antzera margotu eta eskean ibilteko aukera izaten gendulako. Gero?

Egia da misio pentsakera, fededunon artean, giartu egin dala, marduldu, umetako irudi a baztertuta. Gaur zabalago eta egintsuago ikusten dogu, irudia zabaldu ta emoteko aukerak be geiago doguzalako. Gu geuk be gizartearen pre-miña asko len baino argiago ikusten doguz. Len baiño premiñazkoago ikusten dogu erri guztien askatasuna, errien arteko bakea; gizartearen eziketa jatorra; batez be gizonaren argibide zuzenago bat.

Bear ba da gaurko jokabide naskagarri batzuk, gu geu be, igarri barik, mi-siolari biurtzen gaitue gure sinistetan igarten dogun errebeldiaren indarrez.

Origaitik misiotarako kezka eta kidetasuna berotzeko sortutako egunak bere indarra galdu ordez, gaurkotu eta sendotu egin dala esango neuke, batetik gu geu aurreratu egin garealako sinistearen premiñetan eta alkar-maitasunean, eta bestetik gizarteagazko kidetasunak bultzatu egiten gaitulako munduan zear zabaldua dagozan gure Aita orokorraren semeak, gero ta geiago ezagutuaz, euren ezaupidera aleginduaz

Aurtengo Domund 86'ko elburuak ba dauka beste dei atsegina bezin ukatu ezina: Bakea, onetan gure misiolariak, beartsu eta zapalduenekin biziiaz, gizon arterako bake zabaltzaille eta erakusle ausarditsuen biurtuaz.

Fededunok dogun problema andi baten kanpai eguna, urteroko Domuncl au.

14-X-86

DON NEMESIO

Don Nemesio il da.

Nemesio Etxaniz, jakiña.

Ba genkien azkenetan egoala mundu onetan.

Eta ba dakigu Jaunak bere goietara croan dabela.

Langillea. Langille amorratua. Atzerarik bakoa. Nagikeri eta koldarkeri bakua.

Euskaldun eta euskotarra.

Eztabaidatua eta eztabaidakaria (polemista).

Egiak azkatuko zaitue, esaten da. Eta a azkatu ez eban egin, baiña egi biribillak esaten ekiazalako, besteak be ez ziran ausartuten bere aurka gogor jarten.

Jaurleri (gobernadore) izan edo ta gotzain.

Eta ez zan arro, ez eta berekoi.

Ba ekian burua makurtzen, oker sartu zala igarten ebanean. Onetan gizona zan, barru-estua, kezkatia eta sentikorra.

Kritikalari zorrotza; Baiña euskeraren bigunkeriz, ba ekian kapa zuria zabaltzen, idazleren bat, zerbait zalakoan, iñuzentien zeruan bitsa dariola ikusten ebanean.

Beste giro baten, arek aiña lan euskeraren alde eginda, bere berrogetamaru-irurogei urtetan, gizon andi izanagaz batera, goietan biziko zan.

Guk igaro doguzan giroetan, gizon andi zala ukatu ez da be, bastertua bizi zan, laguntzarik barik.

Or be, gizonak, bere biziko maillatan, giroaren otsein dala igarri bear.

Kalean lagun zitunak ziran bere aurka azpikeriz zitalen jokatuko ebenak. Euskera miñean, baiña euskaldunok, euskeraren gain, politikaren gorriña crabili izan dogu sarri. Arek itto izan gaitu edo txikitu ta illundu, lanerako giartsuen gengoanetan.

Etxaniz, argia zalako, mundu zabal andi baten begirale zan.

Bere euska] lana ugaria da. Ume ta gazteei begira egiña asko. Ortik etorri bear zalako euskeraren maitasuna. Biologi indarra.

Baiña egunotan bere lanak, izen eta aipamen, aidean erabiliko diran *lez*, ez dodaz izentatuko.

Bere gertaldi bi gogoratuko dodaz, esan-mesan edo anekdotak.

1964 urtean Txomin Agirre'iren omenezko Lore Jokoetan, Ondarroa'n bazkaltzen gengozan. An Jose Artetxe be, Lore Joko orreïn zaindari autu genduna. Alako batean, Unamuno'ren izenak urten eban platerera. An egoan bizkaitar abade bat esanalak esaten asi zan aren aurka, zitalkeriak baiño txikikeriak geiago. Eta gure Etxaniz'ek gogor erantzun eutsan, aren bizitzako irizpidearen pentsaera aldeztuten.

Bera, beste abadea eta aldi arctan Bilbo'ko gotzaiña zana, irurak Comillas'en ikaskide izanak ziran.

Besteak, azpikeriz, gotzaiñari salatu eutsan gure bazkaritako autua. Ta arek, egunik galdu barik, Etxaniz'eri alako kritika illun bat bialdu. Ori nai eban clon Nemesio'k bere erara gotzaiñari salataria nor zan esan eta ordagoka ekiteko.

Baiña jakintsuak eukiten dizue *curen* aize gangarrak.

Unte baten, Larrea'ko Olerti egunean, bera zan sermolari. Eta Andra Mari'ri bera ez zala erregin deituten ausartzen, jardun eban, euskaldunok ez dogulako andrentzako orrelako oiturarik. Etxekoandre zala...ta or amaitu zituen bere "gloriak. eta alabantzak".

Eta ez zan gogoratzen, Olerti sariketarako, "Gure Erregiña" deituradun olerki bat bialdua eukala ta arek irabazi ebala lencn saria.

Gizon andien bitxikeriak izaten diva orreik. Eta "don Nemesio" ori zan. Gixuren eta giz-irudi il artc. Erdaldunena: "Genio y figura hasta la sepultura."

DONOSTIARRAK JAIETAN

Raimundo Sarriegi lesakarra zan, naparra.

Eta nai eta lesakar izan, donostiar asko baiño jatorrago bizi agertu eta sen zan.

Sarriegi'k doiñu bat asmatu eban donostiarren martxa izateko asmotan.

Ez eban pentsatu bere doiñuarentzat, musikearentzat, letrarik. Zarata atara ta kittu. Burrunbara, orru eta arrara atara soiñu eta ereskiñekin eta or konpon.

Donostiarrak, poztuta, abotsez be atara nai eben euren barruko garra. Sarriegi'ren musuka ori bizi, zarata eta durundi ori berbetan agertu. Ortik asi ziran batzuk "Gaur degu bai, bai bai..." kantaten. Beste batzuk "Au poza, bai, bai, bai..." Eta geiago be egon ziran, zer esan andi barik, sakondu barik, jostallu lez bakarrik.

Zerbait dotoreago egin nairik, Serafin Baroja izan zan zer esana osatu eutsana:

*Ba gara.
Gu-re bai.
Kalera!
Nora nai!
Beti pozez,
beti alai.
Sebastian bakar bat da
zeruban
ta Donosti bakar bat
munduban.
Zer santuba ta
zer erriya,
ta zer gaur egun guziko
alegriya!*

120 urte dira doiñu au egin zala. Sarriegi'ren sasoirik onenean, ogei ta bat urte eukazala.

Iru urte geroago martxa jator lez erri-martxa lez aukeratu eban Donosti'ko Udalak.

Gitxi dira gaur bere berbak, itzak dakiezanak. Baiña tanborrada, donostia da, poz eta alaitasunez beteten dituana. Jaiak egiten diranean tanborrada izaten da donostiarren asierako jaiá. Eta orretara jota ba dakigu Donosti zer dan:

*Festarik bear ba da
bego Donostiya,
betikoa du fama
ondo mereziya!*

Juan Bixente Etxegarai'ren bertsoak dira orrek. Bai eta beste onek be:

*Adiskide maiteak,
au da Donostiya,
orain sei urte t'ardi
erretako erriya;
polita zan lenago,
gaur ederregiya,
beti paregabea
ta maitagarriya.*

Santo Tomas eta San Sebastian dira donostiarren erri jaiak. Soifñu eta musika, euskal antzerki-teatroa... Eta famili askok ostatu jatorren baten apari on bat egiteko egun izentatuak.

Illuntzeko euskal antzerkia aitzakitzat artzen dabe askok onetarako. "Teatro zarrera" joateko aukera artu eta gero aurrez erdi gertutako menu berogarri bat, ostatu jatorretan.

Egun oneik donostiar antzerki egilleak gogoratu eragiten dauskuez: Orra bat. M. Soroa, Mitxelena'ren esanetan "euskal teatro barriaren aita" Eta or Alzaga, Barriola, Usandizaga eta abar, idazle edo musikolari donostiar jator beti. Eta beste ainbat. Gaur Donosti'ra luzatu nai izan dogu gure oroitzza. Izan be be-
ra dogu euskal uri-buruen artean euskaldunena. Eta danok dakigu gaurkoa:

*Bereak ditu Donostik
edertasun parra-parra,
baiña biotzak batzeko
bego tanborrada!*

21 -I-81

EDURNE-ZURIÑE

Edurretako Ama, Ama Zuria, jai da Gasteiz'en. / Edurne Zuriñez inguraturik dabil Seledon. / Gasteiz, gaur, Euskalerriko uriburu biurtu da. / Uriburua eredu? / Bizilagunez, tokiz eta inguruz bai.

Gasteiz'ko arduradunak, agintariak, ikuspegi zabalez sendo lan egin dabe azken urteetan. Orretarako lurraldeak ez dautso eragozpenik ipini Gasteiz'eri. Bideak nun nai atarateko aukera artu dau. Inguruak etxadiz beteteen ez dau euki eta luzaroan ez dau eukiko bideetako garraioak toki urrunagoetara aldatzeko.

Gaur Gasteiz Europan dagozan uriburuetan, bere biztanleei eguraztoki, ibiltoki eta parke zabalak eskintzeko aukeran dago.

Londres laiñotsua dala, diñoe, Europan bizilaguneko parke-tokirik ugarien daukan erri-burua. Urrengo au. Gasteiz. Orrek, gaurko kutsadura, etxarte, estutasun eta anarkiaren aurrean, itxuratu egiten dau erri bat, duindu, nortasun berezi bat emon. Bertako bizi-lagunari lotsa gorde bere eskubideetan.

Len Gasteiz eleizgizon eta soldaduen erri zala esaten zan. Kuartelak eta soldaduak, konbentuak eta eleizgizonak baiño ez zirala ikusten.

1930 urtean zabaldu zan abadegaientzako Seminario barria Abade apal eta ixil bat ezagutu neban bertan. Jakintsu zala ezin ukatu. Bere egitasmoa zan Seminario barria. Abade egin aurretik arkitektu egiña zan. Gogoan daukat txaloak artzera be zelan ukatu zan zabalkunde egunean. Apala zan benetan. Andik las-ter, gure gerra sortu zanean, bere etxetik atara eben eta Castro eta Laredo bitar-teko bide nausiko aldatz baten egalean ilda laga. Ausartu ete da iñor on Pedro Azua balmasedatarra iñungo politikan sartuta ebillanik salatuten?

Gasteiz'ek ez dauka auzirik ez burukomiñik urigintzan. Gasteiz'en bu-raustea euskalgintzan dago. Euskal izatean.

Len Gasteiz anditzen, euskaldunak sartzen ziran. Batez be Leniz ballera-koak. Gaur?

Gasteiz eta euskera aitatutean, sarri gogoratzen dakit "Carmen" opera, Ma-rimée paristar idazlearen itzekin Bizet'ek ereskidetua, musikatua. Opera oneta-ko Carmen euskeraz ekiana zala esaten da, eta berak, euskera ekialako, berega-natu Joxe elizondotarra.

Marimée idazleak bein Montijo andra andiari, dukesari idatzi eutsan: Atzo, Gasteiz'ko kotxea, Bizkai aldeko emakume eta menditarrez beteta etorran. Emakumeak bata bestea baiño ederragoak. Arinkeri batzuk euskeraz esanez, eurekin artu-emon atsegiña euki neban.

Ez ori bakarrik. Andik aste betera egindako beste karta baten esaten eban. Gasteizen dagozan neskatilla serbitsariekin, euskeraz polito ikasi dot.

Karta ori Baionatik egiña zan.

Orra nun ikasi eban euskera erbestetar batek, beste askok aaztu edo baster-tu eben lekuan.

Aurten, Gasteiz'eko jaietan, zenbat euskera entzungo ete da?

Edurne Zuriñe asko. Orrelakoak gero ta geiago. Baina euskera... zoritxa-rrez izenetan. Ormetan eskabideak, baiña euskera kolkuan. Orixe be, beste gau-za askotan lez, moda bat da.

Azken urteetan beste errialdetatik neurri barik etorri diran bizilagun ba rriak itto eragin dabela emengo euskaltzaletasunaren aukera? Besterik ezean Lakua'ko etxe andietako euskal zokodian egingo ba litz be...!

EGAZ IL

*Norbaiten kantua da:
"Agiri| ona ikusteko
eun urte bizi bear da,
ni eun eta bi bizi
ta oraindik on bat ez dot ikusi".*

Ez dakit zelakoa izango dan aurtengoa.

Neguak, gure gerrateko negu itxura euki dau. Ona. Baiña ta udabarria?

Konturatu al giñan zelako udabarria euki gendun gerratean?

Durango'gaz, ango joaldi eta gudako ekintzakaz asi giñan Apiril bezperan, Martiko azkenean; ke eta sutan eundak illak.

Eta gero, geratu barik, *egunero* lepokoak artzen.

Bilbo'n, oraindik, jan egiten zan. Atsegin andi barik, urri, baiña jan. Baina ziur nago, gose ta guzti, egun batzutako eskintza pozik egingo gendula, gure zeruan egazkiñak ikustearen ordez.

Bilbo'n, gerratean, besteen artean, ikusi ezin bi genduzan. Portugalete'ko uretan, alparrerian egoten ziran "Ciscar" eta "Jose Luis Diaz" gerra ontziak. Eta egazkiñen utsune larri eta negargarria.

Lenengo biak, alako baten, guda aurrerasamartu zanean ba da be, gizonez aldatu ziran, barruko jentez trukatu eta itxaropen apur bat zabaldu zan. Indarren egin bear izan zan ori. Eta azpikeri bildurra kendu zan beintzat.

Baiña egazkiñen zulorik beteko eban miraririk ez gendun ikusi Euskalerrian. Ez eta mirari ori egiteko gogorik be egin al eikeen aldetik.

Eta txarrena, mingarriena, Apirilla'ren 19'an gertatua.

Legion Condor'eko egazkiñak Bilbo'ren gain agertu ziran. Beti lez, neke andi barik ostopo ezagun barik, euren zeregiña erraz eta patxadaz beteteko asmoan.

Bilbo'n egozan egazkin arin *edo* kazako bakarrak urten eutsen bidera, igez eragiteko asmotan, Bilbon lanik eragiten ez lagateko asmotan. Bidetik aldatu eragitea lortu be bai, eta Bilbo'ren gain ordez, Bilbo eta Asua bitartean utsitu zituen euren lerkariak. Beti lez illak eta zaurituak. Zeatz esateko sei lagun il eta irurogetak zauritu.

Orrez gaiñera gure zoritxarra geiago astundu zan.

"Jose Luis Diaz" gerra ontzitik egazkiñen aurka tiroak asi ziranean, ain zuzen be guretako egazkin bat jo, su emon eta beratu eben. Bertan Bilbo'ko egazkin taldearen kapitan azkar eta bulartsu zan Del Rio gaztea il eben.

Bilbo'n, erriaren artean eta gudarien inguruan, benetako zotin eta miña zabaldu eban egitada onek.

Zoritxarrak kate luzea eukiten dabela esaten da. Guk, egoera larri aretan, ametsak egiteko aldi barik, zoritxarraren menpe egun asko igaro genduzan, illak aurrera, denporak aurrera eta gero ta estuago eta bakartiago ikusten giñan Apiril aretan.

I8-IV-82

EGUEN SANTUKO KEZKAK

Norbaitek itanduko ba leust, maitasunean sinistuten ete dodan, bete-betean baietz erantzun bear.

Eta zegaitik sinistuten dodan sakondu ezkeru, ez neuke asko pentsatuko: gizonak ilten ikusi dodazalako maitasuna eskatu eta agintzen.

Geiago. Eskabide ori egiten, ez zarrak eta etsipenak jotakoak, indarrez iltera eroiezan gazte mardul eta gordiñak ikusi, ezagutu edo ta zeaztasunez curen jokabidea jakin dodalako. Eta gerraetan zigortuenak, ondamendian euren bu-ruak ikusiarren, arnasa lez, ittotasuneko nasaialdi edo urteera lez, maitasuna amestuten ezagutu dodazalako.

Gerratea bizi gendunok sarri euki genduzan maitasun eskintzak eriotz orde. Kartzeletan usteltzen egozanak, maitasun ordezko laguntzak bizira ekarten zituen geien bat.

Bardin da mendira begiratu nai itxasora. Kartzeletara nai etxe barruetara.

Giro bat gendun. Bizitzako jarraibide zintzo eta leial baten oiñarritua. Ori-gaitik errien iragarle diran poetak, "Lauaxeta" Jako gure poetak, kantu au lako ainbat esateko duintasuna eta egokitasuna billatzen eben, euren giroa ta erriarena alakoxe ziralak.

*"Eder yatazan euzko bazterrak,
eder itxaso zabala,
baiña oraintxe ederrago yat
eriotz onen itzala."*

Berba batik ez, gorroto usañez, ez eta eriotzaren itzalaren bezperan be. Euskaldunen giroa zan.

Eta euskaldunak ez giñan beti santu-santu izan. Ezin geinke ainbesterik esan. Iñor ez da askatzen itsukerietatik eta gordinkerietatik.

Gerrako adiskide batek esaten ekian, berak, unerik esku eta larri ta beartue-

netan be, lotsatuta lez, damututa lez tirokatzen ebala. Eta ez zan edozein. Ba eukan nun eta zetan aitzakitu bere jokabidea. Anai bi aurrez galduta egoan. Eta etxea erreta. Eta ama zarra nundik ebillan ez ekian bere igesaldietan.

"Lauaxeta" aitatu dot. Aren antzera gogoratu nai dodaz eriotzara eroape-
nez eta maitasuna agintzen eta gogoratzen joan ziran ainbat. Azkue, Azkarra
Zenbat!

Eta "Aita Patxi" bat. Itsukeri ta indarkeriaren aurkako urteera lez, maitasun
utsezko bere eskintza egiten ekiana.

Zegaitik galdu dogu euskaldunok maitasun giroa?

Bergara'n, Simon Arrieta margolaria bizi zan. Orain amabi-amairu urte il zan.

Entzute andikoa bere lanean. Eta Santu guztien bezperan, Domu Santu
bezperan, urtero, dana laga eta erriko iltegira joan eta bere egun guztiko zere-
gintzat ildakoen kurutzarik zar, arrakalatu eta igartuenak apaindu eta garbitzen
ekiten eutsan. Eriotzari eskintza lez, kurutzearen babesean egozanei bakezko
oroitza eta ornen lez.

Ni, Eguen Santuari begira, agindurik andiena gogoratzen dan egunari begi-
ra, kezka beteta nago. Eta esandako guztiakaz gogoratzen. Eta Simon Arrieta
eta bere antzekoekaz. Zer egin bearke ete, egunik andiengan, agindurik andie-
naren lotsa artu, sartu, indartu eta gartuteko?

Barrero olerkariaren dei larria datorkii, erriaren irakatsi eta oiur antzera:

*"Eta bake deuna sortuko danean,
neure azur utsak besteenakin batu,
eresi gurenaz lagundu bidean
abi bakar arte..."*

Gure illak deika doguz. Zetarako bizia geiago larritu?

EGUEN ZURI

Santa eskaleak Agate deunari kantuz genduzan lengoan.

Sekula baiño geiago, esango neuke.

Onetan ikastoletako umeak eta neska-mutillak ze ikusi andia euki dabe.

Oitura au ondo jausi eta sartu zan gure errian.

Atsegin eta mesederako gaiñera.

Bertsolari eskola dirala, diño, orrelako errondak. Azpillaga bertsolari ber-
berak esana da, kozkorixu zala, onelako illuntze baten igarri ebala bertsolari
sena eukala.

Mesederako koplarienzat, euskerarentzat eta mesederako ainbat erakunde, zarren egoitza gaixotegi, lan bako, errukarri, espetxeratu eta abarrentzat. Azken baten, alkar laguntza, alkar maitasun eskola. Batez be zerbaiten premiñan eta laguntza bearrean bizi diranen kezka.

Astean beste erronda eguna dogu. Au ia galdua. Berpiztuko ete?

Biztu eraztea ez da gaitz, kontuan eukita euskaldunok gogoko eta maite doguzala errondak eta atsegin doguzala jan-edanak bitarteko diran jaiak.

Toki batzuetan Aratuzte-Iñauteri eguna baiño iru eguen aurretik asten dira mutiltxoak kantari: Gizakunde, Emakunde eta Orokunde deitzen dira iru egue-nak.

Errondarien kantua atsegina da:

*A ingeruak gura,
zerutik eldu gara,
bolisa ba-dogu
baina diruikan ez,
kanbida gaitzazu
txikito batez.*

Nagusiak, Izekundez, gizonen kontura ospatuten dabe lenengo jai. Erri batzutan Gizakunde be deitzen dautse egun orreri. Bigarren egunez, emaku-meak izaten dira gizonen kontura jolastu eta asetzen diranak. Emakunde. Eta irugarren egueña, danen jai: Orokunde.

Bizkaia'n Eguen zuri.

Ez bakarrik eguna. Aste guztian ibilten ekien eskola umeak berau gogoratzen:

*Eguen zuriko astea
Jaungoikuak emana guztia
eskola mutillak ibilteko
limosna an baten billa.*

Azkue zanak, bere Kantutegian, Berriz, Arbazegi eta Garai'n batutako kantu eta itzak gogoratzen dauskuz. Bardintsuak dira, erri batetik bestera aldakuntza tx kiagaz.

Ataun'en, eguen oneri, Otsabilko dcitzen dautse. An urdai azpikoa eskatzen dabe edo ta lukainka. Lotsagaldu lez, gaiñera:

*Lukainka mutur bat ematen ez bu diran,
tripatik aurea burduntzia sartuko.
Ori neska. Mutillak gogorrago:
ateak eta leioak ausiko, ausiko...*

Bizkai aldean arrautzak dira eskatzen diranak: "Zuri-zuritxoak geutzako dira, enparaduak maisuentzat" abestuaz. Eta ba dago kantuetan gure artean ain ezaguna izan ez eta gurari edo kapritxu lez sartutako- zerbaiten aipamena:

*"On dau saltseak espezia
Bartzelonatik ekarria".*

Dana dala, astean dogu Eguen zuri. Neguko jaia. Kantu berbera dator gogoratzen: "Eguen zuri, eguen baltz, Oizko edurra baizen zuri".

Azken baten gure neguko jaiak danak dauke elburu bat: lagun arteko main-gurua.

10-II-88

EGUN GARRATZAK

Batek nai ba dau bi ez dira asarretuten.

Ori esaten ekien lengoak.

Asarretu nai dabena zein dan autortzea, gaitz. Beti egoten dira aitzaki eta aiko-maikoak, banatu eta besteari erruak emoteko.

Euskal abertzale burukideen artean, azpalditik igarten gendun alako barruko egon ezin, irakin edo baretu eziña. Norbere pentsakera eta iritzietatik urten nai eza.

Gaitz egiten jaku guri, Alderdia erdibitu egiten dala entzun eta sinistutea, baina ortara eldu gareala dirudi.

Erdibitu berba ez dot uste, gai onetan, egokia danik. Obeto esanda legoke taldetu, sailkatu edo antzekoren bat.

Gaitz, gure elburu nausien lorpena oraindik urrun egon, eta orretan doguzan beste jokeretakoak sakabanatuta ezagutuarren, gure aurka jarduteko onetan alkartzen ba dakiela ikusi, konturatu eta euren eraso gu-geuk jazan eta leporatu dogula jakinda, orretara jausi geinkeala pentsatutea be.

Nik esango neuke gure Ordenako nobiziadutzatik ez gareala igaro Alderdi-kotzat agertu nai dogun asko. Menpeko jokutzen ez dogula ikasi.

Egia da ortarako aukerarik be ez dogula euki azken unetan sartu garean askok. Ukatu eziña da errekaizarean boladetan sartu giñala asko. Eta errekaizea lez gangartu egin giñala euskal politikako gonabarren batzuk jasotea baiño egin ez dogula, eta bertan bera naastu edo galdu gareala Arrotu, errekaizea lez, eta azken baten urnetxoak beragaz jolastuten diran antzera errekaizea briska, guri irrika besteak ipini.

Eta gure etxe zaarrari itxura emoten asi ordurako, arrotu edo itsutu egin gara ta urteetako alegiñak eta ekiñak, batzuk gure gurasoak edo gu-geuk estuntza, katepe, zigor eta odolez aurrera eroanak batzutan arrokeriz, bestetan itsukeriz, aztu eta etetera gertu gara.

Iñoiz idatzi izan dot, nik pozik andiena artzen dodan illerria, ilerri baten pozezko itxaropenik artu ba lei, kamaldular ordenako fraileak Errioxako San Felices'en daukenean izaten dala. An gure biziaren izatea aipamen, koipekeri eta guzurrezko esanbide barik agertzen da. Iñor ez da bere ekitada eta onoimenean gogoratzen. Berba bakar bat, ilerri guztian: Resurgemus, au da, biztuko gara. Eta ziur egon gu be biztuko gareala. Edo biztu naiko dogula, gure inguruan zelatari dabilzan azeriak gure argaltasuna ezagututa, gure erri-izatearen odol bera miazkatzen ekin ondoren.

Ez dogu urte asko beariko, gizakeri askoren gain, aberriaren egoerak barriro dei eta ten egiteko. Eta ziur *egon* gure ondorengoak garratz eta gordin salatu eta-edestuko dabela, guk une onetan daukagun edo euki dogun alkar artu-ezina, gizonkeri guztien gain, aberriaren izatea eta etorkizuna luzetik begiratu barik

Batek aida ta besteak esti, orrela nola irabazi?, diño gure esaera zar batek. Baina gure erri-egiturak konturatu eragingo dausku, gure siniste eta elburuak gure kontzientzuak zulatuko dituez eta gure erriari, Maisuaren irakatsien jarraipenetan, etoikeri edo saldukeria egin nai ezik, batu edo alkartu beariko gara, eta lenakoak esaten eben lez jokatu: Batzutan asarre, beste batzutan bake, azkenean danok adiskide.

1-IX-86

EGUNAK LUZATZEN

Aurrera guaz.

Uste baino ariñago. Illetak joarren, ezer egin barik. Otsailla'ren erdirako ba dago alako itaun bat Napparroa'ko Larraun ibarrean. Au da:

Erregetan ollarraren arre,
san Antonetan mandazaiñen legoa,
Otsailla'ren erdira bere begira.

Zer da?

Danok dakigu urtearen asieratik urteari begirakada jaurti bearra egoten dala. Eta erantzuna au da: egunaren luzatzea.

Ezin ukatu euskal esaerak oar askoren ondorenak dirala.

Gaur ez da ainbesterik egiten.

Esaera da urrun-irudizkiñak, edo tele-irratia edo dana dalakoak, gure se-

me eta umiei oarkizun zentzu asko galdu eragiten dautsela. Danak batera darabilazala, bakoitzak oar bereziak egiteko bitarterik laga barik, eta orrela, gaurko umeak, ikus gaillu orrek esaten edo erakusten dautsenetik kanpora askorik ez dabela oartuten jakingo, esate baterako izadiaren goraberetan edo ta biziari dagokiozanetan eta abar.

Bizitzako legea danik ezin ukatu, baiña alde baten irabazten dana, beste baten asko galduko doguna be autortu bear.

Laureun urte baiño geiago dira zuberotar idazle jakintsu batek euskeraz idatzi ebala:

Lehen ala,
orain bula,
gero ez dakit nola.

Jackes Bela zuberotarra zan. Eta euskaldun idazleak geienak eleiz gizonak izan ba ziran be, a kalbinotarra zan:

Euskeraz lez idatzi zitun frantzeraz be liburu batzuk.

Bere liburuak egin zitula jakiña da, eta gramatika bat eta iztegi bat zirala be bai. Biak galdu ziran. Nun billatu? Zenbat ordainduko eta litzakez gaur orrelako liburuak? Baiña...

Egiña ete dogu euskaldunok gure idatzien zerrenda ziurrik?

Ara, Lino Akesolo'k idatzita "Karmel" aldizkarian agertu ta gero egunkariak aizetu daben lez, Miserere baten euskal itzulpen zar bat agertu, ez jakin noizkoa, eta Barbieri musikaliariaren paperen artean billatu.

Ez da denpora asko Markiña'n, liburu azal bat indartzen, Egia generalari egiñiko kantu batzuen letra ikasgarri bat billatu zala esan gendula, itxuraz Alzola batek egiña. Orañarte ez ezaguna.

Uste dogu gure gazteak euska] zaletasunean sakondu-ala, eta batez be ardurata-ala, ate asko zabalduko dirala ta lengo gizaldietako lanen batzuk billatu leikezala.

Laga dagizkuela euskeraz doguna edo gure erriari dagokiona estutasun barik billatzen.

Gure gizaldia dollorra izan da guretzat eta zorrotzegia.

II onetako goraberei begira, 1910 urtean, Gasteiz'ko gure gotzain zan Cadena eta Eleta'ren asarrezko agiria billatzen dogu, geiagotan egin eban lez, erderaz Angel Zabala'k agertutako Bizkai'ko edestia, 1793-1807 bitartekoa, bere baimen barik agertu zalako.

Eta gure urtetan agertudiran enziklopedi batzuk, irakurtea baiño ez dago erraz konturatzeko, esan nai ebenik ez dabela agertu izan.

Besterik ezean Otsail erdia itxaropenez igaro daigun, euskal eguna luzatzen.

EGUNEKUAK

Udabarriko jairik ugari, alai eta errikoiak san Juan eta san Pedro.

Origaitik dator esaera: San Juan eta san Pedro, ba legoz astero!

Gaiñera ba dirudi san Pedro'k gizonen egarria asetuten ebala. Txakolin denporetan ardaude eatea libre lagaten zan egunetako bat delako, bear ba da orduan sortua izango da Ondarroa'n, santu izenak dauken erri-esaeren letanian, oraindik gogoratzen dan au: San Pedro, gizonak ardaude eateko.

Arrantzialien artean ba dago beste asko erabili bat: San Pedro zeruetako, giltzaren jaubea, zeurea txalupea, neurea sarea.

Baiña Bermeo'n "Pilatos'en etxian" gertatu be egiten da-ta, eskuak garbitzen ditue ortaz. Ain zuzen, Ertzilla torreko itxas tresnen erakustokian, santuaren irudia besomoz agertzen da, eskuturretik bera ezer barik. Jakiña, giltzik barik. Beraz bermiotarren itxas gatza beste esaera batzuntzako geratzen da.

San Pedro egunez ez da nai izaten euririk: San Pedro egunean saguen txisarekin ere ez da busti bear.

Baserritarak, eta gaztaiña zaleak, eta kontuan euki bearreko da gizaldi batzutan gaztaiña izan zala gure erri askoren bizigarria, ba dauke frutu orreri buruz sorturikó esaera: San Pedrotan katu-txise aiña euri ba da, gaztaiña izango da.

Bear ba da egun onetako esaerarik ezagunena menditarra da, kukuagaz bateratzen dabena: Ogei astez kuku san Pedrotan mutu.

Itxas ertzean, arrantzialien errietan, arrantza mota baten mugatzako artzen zan len egun au. Antxoia, bokarte denpora, sasoia, amaitutzat laga eta atunarena asi. Eta ortarako, lengo garaietan, gure itxas ertzatik urten egin bear zan, eta nai ta urrun joan ez, Santoña-Ameriketara joan bear zirala esaten zan. Gaur emen gogozalakoan an egoten gara, baiña lengo denporetan, txalopak belaz eta erramutan (arraunetan) eroan bear izaten ziranetan, urrun egiten zan itxasertza.

Ortik Orio'n, arrantzaleak gaurko egunez Santiago'ko ermitara joatea, atunetara joan aurretik kandelak eskintzera.

Eta Ondarroa'n, egun eta biaramon, "Saliña-Salina" dantza eta kale jiretan ibiltea.

Lekeitio'n san Pedro molla ertzera eroan eta an urak bedeinkatu eragiñez, edo ta uren aurrean maku pena eragiñez, "kilin kalia" deritxoen ritoa egiten zan, gero kaletan zear, Kofradiako kontuak gordeten zitun kaixako kontuak garbi egozala adierazi nairik, kaixagaiñeko dantzak egiñaz.

Deba'n san Juan jaietako suen luzapena egiten zan, egun onetan zaragi erretea ospatuz. Baiña gaur nun dagoz ortarako zaragiak"?

Egun atsegiña Altsasu'n gogoratzen dana.

Altsasu eta Urdiain bitartean, san Pedro izeneko ermita dago, pago zarren eta aritz orritsuen artean. Tokiz erri bien tnugan dagolako, ermitaren erdia erri

baten jaubetasunean eta bestearnean beste zatia, naste ugari euki zituen bien artean. Azpalditik gaurko eguna altsatsutarrak ospatuten dabe bertan eta urdiandarrak urrengo igandea. Zaragia ardoa erriak ordainduta libre egoten da erromesentzat.

Ermitako atadian errege baten koroetzako irakurgaia dago. Ori, batzuen esanetan, Gartzia Ximenez izan ei zan eta 717 urtean gertatu. Baiña ez datoz danak batera ortan. Gauzak diran lez.

Urdiain'go kantu zarretan erregeak eta san Pedro bera koroituteko gogoia igarten da:

*Antxe koronatu zan
Naparruko errege,
korona daitekela
San Pedro ere.*

27-VI-82

EGUNETAKO GOGOETAK

"San Juan, nekez etorri ta arin juan..."

Suak eta dantzak

uju ta uluak.

Gaur zeñek daki nundik joko daben egunaren aizeak? Zeiñek jakin nora makurtuko dan eguzkia eta zein salatuko daben gauak?

Danok gabiltz jai nairik.

Jaiak nai, ta naiak jai.

Lanaren atsedeen. kezkaen etengarri. bizibide astun onetako relax bat bear leuke jaiak.

Ta giroa?

Gaur ez dago giro! Esakera da. Bai egia ere.

Lanik ez. eta bakerik ez. Indarkeria, gogorkeria, gordinkeria.. .

Ni ta ni. Bakarrik ni.

Len euskaldunok, donianetan, san juanetan. sorgiñak eta piztiak erreten genduzan.

*San Juan, San Juan,
nik ez daukat besterik goguan.*

*Arrautza bi kolkuan,
beste bi altzuan,
artoak eta gariak gorde,
lapurrak eta sorgiñak erre...*

Gizonak ete dira orain sorgin eta pizti?

Eta gizon bakoitzaren pentsakera, iritzia, ogibidea eta ibilbidea zer?

Eta gizonaren azkatasuna...!

Gizaldien oiartzunean ez ete dago alako zerbait: "zergatik il dozu zure anaia?"

Sanjunak eta... eriotzarekin pentsaten nabil. Udabarriari irrika!

Zein ete dago "kapillan" gaur. zein?

Batek ba daki!

Bear ba da. zintzoena. Iñoren bidez errua euki ba leike be, berez errurik gabeena. Bear ba da Iñori kalterik egiterik sekula pentsatu ez dabenen bat.

Berrogei ta bi urte daukez olerkariaren kantak.

Berrogei ta bi...

Baiña noiz da egon gogorkeria Euskadi'n?

Eta olerkaria, poeta. bere eriotzearen zai egoan

"Erri zintzo onek zaindu dagiala il gintzanen atsa. il gintzanen aala".

Poetak iragarle, profeta ete dira?

"Lauaxetan renak dirak gogoeta orreik.

Gazteiz'en egoan "Lauaxeta" egun onetan, San Juan gau onetan. gau giro gordin, ustel eta lizun aretan. "Kapilla"n egoan.

Gizon on ona zan. Benetan gizon ona. Ezagutu nebalako ziurtatu neike. Iñori kalterik egiterik pentsatu eta eban sekula "Lauaxeta" k"?

Kanta ta kanta maitasuna. Gizonena. izadiarena Jainkoarena, errotariarena. Iangillearena, gudariarena...

"San Juan nekez etorri ta arin jua".

Zoaz, zoaz bai arin. arin... egunik luzeen zarean ori.

Gaixo garen gizataldea gara gaur. Bildur dautsagu egun luzeei. Bildur ordu luzeei.

Bildur ordu luzeei.

Min dogu, min.

Guazen aurrera. Arin. gure bidean.

San Pedro, noiz da?

"San Pedro, zeruetako giltzaren jaubea..."

Komeni ete yaku zeruarekin gogoratzerik?

Ain zuzen. Lanik gitxien dagon urtetan kendu dogu bere jai.

"San Pedro, gizonak ardaua edateko" esaten gendun len.

Orretarakoxe be ez dogu nai gaur santurik.

Akerrak gara.

Aker okerrak.
Akerrak adarrak okerrak...
Eta zeñiek daukaz gaur adar zuzenak?

Diario Vasco, 24-VI-79

EGUNETAKOAK

Il onek ba dauka sakon ulertu bear dan euskal esakera Urria esan eta urria izan.

Aurrera goaz.

Erri legezko gure kondairari buruz, ainbat jakingarri billatu geinkez il onetan. Len eta orain.

Foru kontuan urte askotako zirikaldi eta zapaltze eta lapurreta gertatutako illa.

Gogoratu 1.839'ko legea. Ainbat bidar erabilitako il onen ogei ta boskarrena. Kontuan euki 1.841'ko aginduak.

"Txirrita"k 1.868'ko urriaren 28ri buruzko bertsoak laga euskuzan:

*Milla zortzireun irurogeita
zortzigarrengo urtian,
Urriko illak ogei ta zortzi
zien egun batian,
garai orretan gure Fueruak
sartu zituzten lurpian,
errespetua guardatu zuten
amona zegoen artian.*

Ikusten danez "Txirrita"k eguna, fueruak eta erregin zarra gogoan darabiz bere bertsoan.

Beste aldetik il au izan da gure erriaren bizitasunari buruz il jatorrenetako bat.

1.936 urtean Madrid'eko Kortetan Euskal Araudia onartu zan.

Urte orretan, 7'an, gure lenengo Jaurlaritzak Gernikan batuta bere ziña (juramentua) egin eban.

Egun bi geroago "Euzkadi Agintaritzaren Egunerokua" sortu zan.

Biamonean, gure Jaurlaritzak kartzeletan egozanen alde zerbait egin

naian asi zan. Gorrotoz eta zorrotz biotz zabalez jokatu nai. Orrela, illaren 10'ean, Gurutze Gorriko ordezkariak, Argentina eta Inglaterrako ordezkariekin batean, Bilbo ta inguruetan egozan kartzelak ikustera joan ziran. Eurotan egozan emakumiei itandu eutsen askatasuN artu eta erbestera joatea nai ete eben, edo ta euren etxetara aske biurtu.

Gau berbertan 112 emakume Donibane'ra bialdu ziran eta beste 50 euren etxeetara.

Zeñek txaloak jo ez, gure erria gudan eta zapalduta egonda be irizpideko askatasuna zainduz orrelako borondatea agertzen eban gobernu bateri?

Biamamonean, Baiona'tik Bilbo'ra "Galerna" ontzia etorralla, nazionalak artu eben. An etorran, besteen artean, "Aitzol" abadea, eta egun bi barru Ernani'ko iltegian izkilluz il eben.

On egiñaren arpegia ta kurutzea, edo ta jokabideen "lion eta kastillo", ikusten danez.

Urte bete geroago, Urrilla'ren I4an, amairu euskal gudari ilgo zituen Santoña'n, gure gudarosteko buru izan zan Azkue berbera barruan zala. Ogei ta zortzian, Dueso berbertan egozanetatik berrogei ta bi, eta biaramonean beste amazapi...

Eta gu menderatu edo makurtu giñanean, "Santoña'ko Ituna" —paktoa-egia zala esaten zan.

27-X-83

EGUNOTAKO LIBURUAK

Adorea bear da gaur liburuak atarateko.

Argitaratzen ez dabena idazle uste ba da, kalera urten ezik, erreta lez gertzen da.

Egunotan liburu bi agertu dira.

Erre ebena bat. Orain 'Cuentos incombustibles' izenagaz. Len ba eukan, erderaz lez, euskerazko izena be.

Orain- aztu egin yakoe. "Surik artu ezin leiken ipuiñak" edo erderazkoaren antzeko zerbait bearke zan.

Liburu au ez da bakarrik erretakoaren orde.

Ordea izan ba litz irakurle askok ikusi al izango eben Castañares'en kontzientziko asarrea biziagi izan ete zan edo ez.

Argi dago erretearen jokia Jon Mirena'ren kartan sortu zala. Bere agerpen edo aurkespen eta on-iritziko idazkian.

Karta ori bitarteko ezik, Jon Mirena'k txistu garratza iruntziko eban. eta ziurretik or geratuko zan liburua, bear ba da, izen andi barik. Beste bat geiago.

Baiña orain sutatik azkatutako pitxi bat lez etsiko dabe.

Eta ez bakarrik alkatea beratu ta oiñazpiratzeko aukera. "Diakonu, merkataria eta lur-emoleak erabilten daben Euskadi deitzen da erri sorgintsu onetan" eta antzerako eritziak zabaltzeko tartea emon da. Eta biotzean ikututen daben beste zirikada zital asko.

Ni be Bilbo'ko alkateak sutara bialdua naz. An egoan nire ipuin bat be.

Ez dausat gorrotorik Jon Mirena'ri.

Bakoitzak daki bere kontzientziagaz zelan jokatu.

Liburua aztertzean. onetan diardugunok laster billatzen dogu utsune bat. Lengo liburuan agertzen ez zana, oraingoan ipuin sariketako epai-maikoen ageria agertzen da. Baiña erderazko ipuiñena bakarrik. Erdaldunena agertzekotan. zegaitik euskaldunena be agertu ez?

Ba dirudi euskaldunon gauzak erdi eskutuan lez egitera oitu gareala. Arpegia emoteko bildurrez.

Egunotan beste liburu barri bat kaleratu da: "Kurtzemendi". Egillea: Feliz Zubiaga, pasiotarra.

Aita Fermin'en agerpen edo itzaurreko esaera da egia: "Olerkaria bere munduan dabil. Aurrerapen mundua baiño arutzago. Mundu zoragarria berea".

Biozkada zinduak dira Zubiaga'renak. Ezaupidez eta maitasunez beteak. Eta maitasuna ez da beti neska baten dotoretasun, eder eta bizitasunak sortu eragiten dabena.

Gizon bakoitzak, bere ikuspegitik, beste maitagarri asko billatzen ditu bere inguruan. Euren gora eta kantuz txukun jokatzea da bere eginbearra.

Eta olerkariak, poetak. guk baiño argiago ikusten dabe ederraren sustraia bizitzan, eguneroko lez guk biziten doguzan gertaera ugaritan. Eta maitasuna ederrago oartu ta erakutsi, guk, bizitzaren truke, izkilluz makurtzera oitu garean bizi-miñetan.

Liburu txikia-73 orrialde-baiña irakurteko errez, sentikor, egitsu eta atsegiña da "Kurtzemendi".

EGUTEGIAK

Urteak adierazgarri ona dauke egutegietan.

Etxe askok galdu edo laga egin dabe euren bezero eta lagun eta adiskideei egutegiak banatzeko oitura.

Lengo laurdenik ez da ikusten ormetan.

Ba egoan len alako zein geiagoka bat, *zein* ausartiago geien be. Batzuk emakumea edertzat artuta besteak ikusgarritzat. Beti be, edo geienetan, aize lizuna.

Gaur gu be egiñago goaz, azala lodiago, eta orrelakoen beroaldia otzitu ez ba da be, epeldu bai eginda.

Atsegiñago ikusten dira erti lanak, argazki ederrak ataraten dituen etxeak. Argia saldu eta txartela irakurten lana emoten daben etxea lakoak, urtean bein txartelaren nasteak aztu eragiteko, besterik ezean pozoitu ez gaitezana be, ba Jakiez egutegi jakingarriak ataraten. Atsegin izaten dira mikologikoak.

Txaloak entzuten doguz azken lau urtetan Bizkaiko Aurrezki Kutxak ataraten daben ormarako egutegiari buruz.

Millaka asko banatuten dira ordain barik, borondaterik onenagaz Bizkai errialdean. Berrogei ta bost milla.

Onetan "Euskerazaleak"ek lan egoki eta onurakorra egiten dau. Lan ixilla, ez ezkutua, ormetan or dalako, etxerik geienetan, bere emaitza.

Oiturazko dabe euskaldun askok eguneroko orritxoak irakurtea. Esaerak, pentsabideak, buruausteak, izkirimiriak, maite izaten ditue etxeetan.

Tokietan gagozanok erraz igarten dogu norañoko atsegiña artzen daben geienetan. Batez be gure zarrak orretarako zaletasuna, zaletasun itsua, euken.

Oraintxe be sarri entzuten da: Gure zarrak auxe irakurten dabe gogotsuen.

Gure egutegiak, euskal egutegiak, lengo egutegi zarren gogorapena ekarten daukue. Arana Goiri tar Sabin'ena lenengo.

1898'n asi zan bera orretan. Bere "Egutegi bizkaitarra" entzutetsua izan zan, bere egiturako: euskal izenak edo ta euskaldundutakoak antxe agertu ziralako.

Gogoan daukat lenengoz lanean sartu nintzanean, "Jaungoiko Zale"k Zornotza'n ataraten eban egutegirako lan batzuk aukeratu ta euskeratzen jardun nebala, abade langille jator baten itzalpean, on Zirilo Arzubiaga'ren ardura-pean. Orduan orrelako gauzak antxe agertzen ziran. Eta gerrarik sortu ez balitz, an jarraituko eben ziurretik. Lenengo "Jaungoiko Zale" eta geroago "Ekin" argitaratzen eben abadeak, nagirik ez eukelako orrelako lanetarako.

Arantzazuko egutegiak be euki eban bere arrera ona Bizkaian. Beste era baten "Karmel" egutegia be etxe askotan sartzen zan.

Gure eguneroko orritxoak jasotean... euskera izaten da beiñik bein lenengoz ikusi ta irakurten doguna. Eta eguna euskeraz asi al izatea be, bizi erdi da gaur askorentzat.

"EKIN"

Izen au ugaria da ekintzen deiturretan.

Gaur Bizkaia'n agertzen zan asteroko bateri buruz gatoz.

Ain zuzen 50 urte beteten dira aste onetan sortu zala, garbi esateko, 1932 urteko Otsailla'ren 6'an.

Ordurarte Zornotza'n agertzen zan "Jaungoiko-Zale" illerokoa ixildu, eta bere orde zuzen onetako asteroko biurtzea erabagi eben erakunde orretako abadeak.

"Ekin"en sortzea ezagutu neban, bertan iñardu nebalako lanean, nire lenengo ogibidean.

Zirilo Arzubiaga jaun agurgarria, errena ibilkeraz, baiña bizikeraz berakatz atala baiño fiñago zan abadea izan zen bere lenengo zuzendari.

Ogei urte eroiazan "Jaungoikolale" k illeroko lez. Abade eta eleiz gizonen artean zabaltzen zan geienbat.

Giroa aldatu eta kristautasunari Euskalerrian eusteko, beste era baten plazara urten bearra egoala eta origaitik sortu zan "Ekin".

Errepublikara garaia zan.

Oraindik Autonomi legeak ezin biribilduta ebiltzan. Eta Laterriko *Lege-nausian*, katolikoek kontzientzien aurkakotzat etsi zan 26 atalburua onartuta egoan.

Ba ziran, orduan be, ostopoak, zentsurak eta abar. Alaz eta "Jaungoiko-Zale" taldekoak ernai egozan.

Talde au izan zan Bizkaia'n, umeen artean, ordurarte be euskerari arnas eta indarrak geien emondako alkarteak.

Ospatsuak izaten ziran alkarte arek eratu eta Bizkai'ko erri eta auzorik geienetan, arriaren aurrez-aurre, plaza eta pelota tokietan bizitu eta aupatuagaz batera, umeak euskeraren maitasunean asi eta ezitea lortuten zan Eskoletan erakusten ez eutsen euskerari ezaupidea emotea.

Maixu eta epaikari lez, don Zirilo bera, Gabirel Manterola, Juan Cruz Ibargutxi eta Juan Bta. Eguzkitza eta abar ibiltzen ziran, olako jaialdietan, umetuta lez, umeak eurak baiño pozago.

Arzubiaga otxandiotarra zan, 1874'n jaioa; Eguzkitza lemoarra 1875'n sortua; Ibargutxi ubidetarra, 1883'n munduratua eta Manterola zeanuritarra, 1890'n argira etorria.

Danak gure azken gerraren urratsak mintsu eta atsekabez sentidu zituen euren bizikeran. Baiña euskerari zintzo eusten jarraitu eutsen il arte.

Gerra aurretxoan euskerazko egutegia be ataraten eben, eguneroko orriduéna.

Talde onek zenbat lan egin eban gaurkoak ez dakie. Eurak izan ziran Gas-

teiz'ko Eleiz barrutian, umeentzako kristau ikasbideak euskera jator eta garbira aldatzea lortu ebenak.

Gerra bitartean eta ondoren Eleizak bere erakundeen zaindu eta egin izan ditu gaurko eleiz irakatsi eta irakurgaietako ainbat euskeratze, baiña ziur gagoz "Jaungoiko-Zale" lako taldeak egon izan ba'lira, euskeratzez gaiñera ainbat liburu agertuko zituela erakundearen nortasunez, gaur batzuk dabilzan lez banabanaka euren lanak agertu ezinik ibili barik.

Gure gerra ondorenak ainbat onelako ekintza tatarrez eroan euskuzan. Eta azkenean, esker txarrerako, bere zuzendari izan zan Arzubiaga jauna ikusten gendun lez, zorretan eta lorretan, bere argitaldapenak ezin salduta erdi eskutuan lez, eta azken denporetako gotzaiñen on ikusi eta kapapea ezin lortuta, nai eta dana kristau bizitzaren mesederako egin.

Pekatua tartean: Euskera.

6-II-82

EIFFEL ETA ORMAIZTEGI

Laster billatu dautsez gipuzkoar goierritar adiskideak nire "Gure Inguruak" liburuan agertzen diran utsune.batzuk.

Bakoitzak bere erria agertzen nai.

Baiña ezin danak batera agertu. Bizi ba gara, eta gauzak ondo ba duaz, eukiko dogu denpora barriro lengo ta geroagoko inguruetan ibili, idatzi ta argitaratzeko.

Atsegin izaten jaku arro agertzea. Baiña ez gara danok, esate baterako, Ormaiztegi'ko pontean bataiatuak. Banakak dira orrelako gipuzkoarrak ere, ur ontzi berbera, ponte berbera, bakana dan lez. Entzutea, nortasuna ta ospea emoten dau arek.

Bestela be ez dira edozein ormaztegiarrak. Tren bideko burdiñazko zubia aitatu orduko, bereala atarako dautsue jardunera Eiffel'en izena.

Eztanda erreka gaiñean dagon zubi orrek 35 metro daukaz goratasunean. Eta 276 metro luzera au bost zatitan banatuta.

Eta Ormaiztegiarrak askori jokatu nai izaten dautse Eiffel torrea lez gora begira zubi ori ipini ezker, Eiffel'en luzera euki baietz.

Bai? Baitik naira izki baten aldia baiño ez dago; baiña bera naiko galdu eragiteko.

Paris'ko Eiffel torreak 287 mero daukaz luzeran. Beraz gure tren bidekoak amaika gitxiago. Dana dala. Eiffel txikia deitzeko eran.

Erri bakoitzak berea. Bere nortasuna.

Ez da or amaitzen Ormaiz tegi'rena.

Emengoa zan Zumalakarregi. Karlisten gerratat ibilitako buruzagirik euskalzaleena, esaten danez. Ormaiztegiarra izanarren, zegamarrak gordeten ditue bere azurrak.

Gixajoa bere erri siniste eta zaletasunak ondatu ebela esaten da.

Euskalerrian sasi-mediku onak egon-izan dira. Ez al zan-orrelakoa Arnoate'ko Arrillagatarren asiera?

Zumalakarregi'ren denporetan Petrikillo zeraindarrak gaur doktore famatu askok baiño entzute andiagio eukan Entzutea eta siniste. Iru "Petrikillo" be egon ziran Zerain'en, Te]leriatarrak. Jose Francisko Telleria eta Uribe zan Zumalakarregi'ren denporakoa.

Perez Galdos'ek, bere "Episodios Nacionales" etan onela iruditzen dau: Gizon txiki, urduri, iztun, eta erromes baten kalabaza antzeko buru soil eta bal-tza.

Madrid'era be eroaten eben osakuntzak egitera.

Zumalakarregi'k, Bilbo'n zauritu ebenean, euki zitun errege berberak agindutako iru osagille on. Baiña naiago izan eban baserritar arek ikutu egitea. Ta or, egunetara, bederatzigarren egunera, larritu, txartu eta il Zegama'n. Gero aitzakiak: perretxikoak jan zitula eta abar. Zegama'n il zan Zumalakarregi, 1.835'ko Ekainillean eta ormaiztegiarrak, alegiñak egiñarren, zegamarrak gorde eben bere gorpua, eta eleizan ate nausitik sartu orduko an ikusten da aurrez aurreko aldararen bere illobia.

Oraingoz laga daigun Ormaiztegi, sarri lez laiñopean, bere atzean Gabiri, Idiazabal eta Lazkao mendietatik ataratako arrizko oiñarri euslari sendo ta indartsuen gañeko zubiari, Eiffel txikiari, txapela kenduz.

EKOLOGIA ETA EUSKERA

Asarre asko sortu dira gure mendi eta baso batzuetan zerbait egiterakoan.

Onetan ba dauke bere indarra ingurutako izadi zaleak, ekologistak.

Mendien berezko egitura zaindu nairik, zer esan eta naste ugari sortu, bertu eta zabaltzen dira.

Azken denporetan nabarmenkeri ugari egin dira, egia da, iñoren asarre bariarik, eta ez toki baten edo bitan bakarrik.

Ezin ukatu neurri argi eta zeatz batzuk artu bearra dagola. Danontzat izango da mesedea.

Egia esateko, ezin lei dana zearo ukatu be.

Izadiaren ederrak, bakartadearen zabalak edo ta zugaztien betetasunak gizonen atsegiñerako ba dira, gizonen makaltasun eta txikitasuna, eta gizonaren biziaren premiñak be gogoan artu hear litzakez, itxurazko neurri baten.

Baiña ez da ori, ain zuzen, gaurko gure zeregiña.

Izarraitz aldetik etorri jakuz azken barriak. "Xoxote"rako bidetxoa eta aterpea oiñarri. Mendiarte onetan Erlo da gaillurrik luzeena bere 1.206 metrokin. Gipuzkoa'ko mendi artetan, ba dagoz ainbat, ogeitamar gitxienez, bera baiño luzeagoak.

Izarraitz mendiarte ingurua euskalduna da.

Eta euskaldunok, aspaldi, gure asarreak agertzeko, indarkerizko agerbide-tara joten ba dogu be, azpeitiarrak euskal armarik zabal eta baliotsuena aukeratu dabe, asarre ori erakusteko.

Ez gara sartzen zillegi izan dan orrela jokatzea adierazten. Gurea, egiña ikusita, zelako jokabideak erabili diran aizetxea da.

Sarri esaten da gure artean zerbait irriztu edo laidotzeko, edo ta zerbait aizetzeko: bertsoak atara dautsez.

Talderen baten izenean, Izarraitz'eko 37 sozioen izenean, zabaldu dira bertso paperak, "Xoxote"rako bidea eta aterpea salatuten. Izen guztiak gogoko edo egizko ete diran kontua be "xapu"ren batzuk esan leikie.

Gaur ango Udalaren urteera gogoratu nai dogu.

Bertso bidez egindako salaketa aintzat artu dau Udalak. Erritar lez, erri eran jokatzea da ori.

Eta zazpi puntutan erantzun. Ez bertsotan. Orretarako gure Udaletxetako idazkari asko euskaldundu eta gaiñera bertsolaritu egin bearko gendukez. Eta zeñek ori baimendu? Zeñek sartu batzuei euskal sena ta bertsolari gatza?

Idazkari bertsolari banakaren bat ezagutzen dogu, ain zuzen Bermeo aldean. Alkateren bat be bai Gipuzkoa'n. Azpeitikoak berak euskal antzerkiak txeratsu egiten daki.

Laburtuta: Azpeiti'ko Udalak euskal salaketa jator bat jaso dau. Eta erria-

ren izkuntzan, euskera jatorrean erantzun. Ori da bidea Euskerari indarra emoteko, euskeraz erantzun.

Orrela, erria geien arduratzen dabena gaiak euskeraz erabilia irakurtera eta ulertzera beartu.

Beti orrela egingo ba litzake, "Xoxote"ko erbi txakurrak be euskeraz zaunka egiten ikasiko leukie.

11-I-84

ELORRIO'KO ABADIAK

Elorrio'n abadiaak, bertakoak eta bertan jardunak, euren erriari eta erriaren euskal izateari nortasun emoten jakin izan dabe.

Nire amaren ezaupide andiko zan Izurategi bat, an urte askotan egona. Don Juanito deitzen eutsen gureak.

Euskalzale, langille amorratu, sermolaria on.

Euskal idazle izan zan. Ez ugari. Berea sermolaritza eta abade lana geiago zan, idazle baiño. Baiña egin zitun bereak. Aita Santi Onaindia'ren esanetan, Izurategi'k merezi dau leku egoki bat euskal literaturan.

Jerusalengo osterako kontuak, igande guztietako Ebangelioak eta abar, atsegiñez artu ziran bere garaian. Euskeragaitik gerraren zitalkeria bere lepoan ezarri eutsen. Eta 75 urte beteta eukazala il zan, abadeen espetxe lez egoan Dueñas'ko Cister'eko fraillien konbentuan.

Nai eta gero Carmona'n amaitu, bere antzera Nanclares eta Dueñas'en egon zan, edo obeto esanda, euki eben, Eugenio Larrañaga be.

Izurategi bilbotarra zan, baiña Larrañaga Elorrio bertako semea.

Markiña'n ezagutu neban, an egoala. Izlari txukuna zan, berbetan eta izlari eskolan.

A be, gure gerratean Elorrio galtzean Bilboratu zan eta tatarrez eroan ziran eleizetako pitxi eta edergarrien zaindaria egon ondoren, Bilbo'tik alde egin bear izan eban eta azken baten Santoña'n lurra jo, eta erbesterako itxasontzien baten urten al izango ebalakuan, espetxean ikusi eban bere burua.

Norbaiteri entzuna daukat abade bakar bateri barik, osotasun baten, Euskal-erriaren omenaldi berezi bat egin bear litzakela euskal abadietako, euren jokabi-

dea eskertu eta txalotuteko. Eta ori, gaur marduldu eta aguretu diran asko beste mundura joan aurretik bear litzakela.

Or be batuko litzakez, begi nini batetik begiratuta, garia eta lastoa.

Dana dala, Larrañaga elorriotarra zan, eta bertan egon edo kanpoan ibili, abadegintzan toki batzuk euki zitulako Elorriora izentatu aurretik, bere erriko kezka eta arduraz bizi zan.

Origaitik batu zitun Elorrio'ko erri-abestiak eta erromantzeak, origaitik baita bertako esaera jator eta atsotitzak.

Orrez gaiñera olerkari be ba zan. Nor ez da zerbaitetan beintzat olerkari, musikalaria eta zoro aizedun?

Iñoiz Ondarroa'n ezagutu gendun benetako gar eta atsegiñez arrantzaliekaz itxasora joaten, orduan oitura zan lez sareekaz antxoatara, edo bolintxera. Askok nai izaten eben orrela itxasoko bizitzaren gau bateko ezaupidea euki, nai ta gaua, emen esaten dan lez, txibiei jaten emoten igaro (mariatuta).

1966'ko Otsaillean il zan bere jaioterrian.

Elorrio'n dogu beste abade euskal jakintsu bat: Kerexeta, Baiña Jaime oraindik lan egiteko denporetan dabil, gogo eta kemenez, eta lan egin nai daua-nari baketan lagatea izaten da onena.

11-II-84

ELORRIOKO AIZEAK

Mendrakako atsoaren kantua ezaguna da: Joxepaiñasi, nun donan nire orrazia?

Emoten ez ba donan orrazi ori kendukonat nik iri bizia.

Elorrioko aizeak daukaz kantu orrek. Ango mendi artean sortu ta zabalduak. Ia-ia Argiñetako il-errian pentsatera eroaten gaitue. Artu zemaia: "Kendukonat nik iri bizia".

Orrazia, gure mitologian, sarri agertu eta ikusten da, bear ba da eskutuko indardun adierazgarri lez, eta esandako kantu orretan be aurrean daukagu. Ez jakin orrazi estu edo zabalala. Umetan gure amak arduraz eta arretaz erabilten ekien gure buruetan orrazi estua be, bizi-lagun barrien kezketan eta larriz.

Zelako aztikeria ete dago bitartean, datorren illean doguzan auteskundetarako ain zuzen be autagaien buru eta lenengo maillan, iru elorriotar agertzeko?

Gertatu ete da iñoiz orrelako erri txiki batetik Elorrio edozetan andi izanarren bizilagun kopurutan txiki dalako aberriko erakunderik gorenerako iru "primus inter pares" lako gizonak urtetea?

Or doguz, konturatu baino ez auteskundetako zerrendetan Elorriotik iru:

Iñigo Agirre,

arre ta erre, euskal arduetan.

Or Ardantza,

aurrekulari, lendakari dantzan.

Or Pujana,

Lege Biltzarreko andana, olatu barriei aldatzeko pausoak emona.

Irurak, ai zuzen, eskola bateko len, Derioko aize eta ikasketak astapentzat artuak. Len, euskal bidean, errepidean, alkarregaz ibiltari izanak. Gaur, askok ulertu ezin daben jokoan, euretariko bat albo bideratu et banatuak Erri txikien pekatu ete da zenbat eta txikiago eta aburu geiago euki nai izatea?

Ba dirudi euskal erakundean Elorriok bere urratsa artu eta itxi nai dauala. Len armari eta gurutz zoragerrietako tailletan eukan kondairako nortasuna; orain gure erriaren erakundetza barrirako irizpide eta jardunetara sartu eta irarritz.

Len be, antxinetan, Elorriok erri arduratsu eta gidari ezagunak euki zitun: Gogoratu Berrio, Ibarra eta abar. Beste era bateko ordezkariak, ezin ukatu, baina zela-ala erria mendetuta eukan eta erabillan jauntxokeriaren aurka jokatzen jakin ebenak.

Dana dala, or dago Elorrio, nik esango neuke bakoitza bere bidetik erri-erakundean euki bear dogun ardura eta parte artzearen irakasle eta eredutza eskintzen.

Euskalerrian ba dogu, eta gero ta geiago, gure erriaren gertapen, mardultze eta lege eta ardularitzako zereginekaz arduratu bear dabenen premiña eta kaleratu bearra. Ez gaitezen bestcen kontura lagata, gu geu bastertu eta nagikerian gelditu.

Eta gogoratu baita, onetan be Elorrion oiñarritua, bere erri-etxeko ormetan lotsa barik erakusten dana danontzako bizitzarako aolku eta batez be politikrientzako gidari zur et jakintsu antzera dagona: Berba uts eta alperren ordaiñez, kontua emon bearko zorrotzez.

EMAKUME JOKABIDEAK

Emakume artean, euneko 47'k irabazidun lan bat euki nai leuke. Au da, laneko ogibidea, nortasun eta askatasun osoz biziteko eran. Beste euneko 48,7k ez dabe kaleko lanik nai. Etxe bizitza maite dabe. Eta euneko 4,3 ez dira zerbait zeaztutera makurtzen.

Andren makurpenik andiena salerosketa eta serbitzu arduretako lana da. Onetan Bizkaia'n lanean diarduen emakumetako %53batzen dira.

Gizonak baiño andrak geiago sartzten diran lan-erabidea, eun-gintza da, te-la-gintza.

Ikastaroetan, emakumeak ez dabe aukeratzen gintza (industri) lanik. Eune-tik 2,9 bakarrik dira bizibide ortarako asmotan euren ikastaroak egitera alderatzen diranak.

Gcazen emakume izate berberari dagokion biziari buruz zerbait esatera.

Emakumeen zeregin berezia da aur-gintza.

Jaiotzei buruz gaurkoen pentsabidea eta jokabidea, eta lengoen ardura eta bete naiak ez dira bardiñak.

Araba'n, azken ogei urtetan, 9,5 tan beratu da milla lagunetik egon izan dan jaiotzen neurria. Bizkaia'n geiago: 14,7. Eta oraindik be geiago Gipuzkoa'n: 16.

1981 urtea mugatzat artuta, Araba'n, orain, milla laguneko 14,8 jaioberri agertzen dira. Len, orain ogei urte, 24,3.

Bizkaia'n, orain, milla laguneko 13,9. Orain ogei urte, 28,6.

Gipuzkoa'n, orain, milla laguneko 13,9, Orain ogei urte, 26,6.

Zetatik datorren ori?

Jaiotzak geratu, atzeratu edo utzean lagaten dituen sortze-aurkako gaikiak gertu eta zabaldu diralako, ezpai barik. "Emakumeen egoera Euskadin" liburuan esaten danez, bat batez, euneko 57,5 emakumek erantzun eben, ba ekiela ortarako zerbait ba egoala. Alaz eta erantzun ori emon ebeneko uneko 40,5'k ez eben gaiki orren izenik emoten jakin, eta euneko bik balio ez edo onurarik lortzen ez eban gaiki baten barri ba ekien.

Baiña sakondu ezkeru, itaunak artez egin ondoren, euneko 80,7'k ortarako era edo bide zeatza ba ekiela autortzea lortu zan, eta euneko amarrera ez ziran eldu sortze-aurkako barri ez ekienak.

Ogei ta amabost urtetik berakoak asko geiago dakie ortaz, emakume egin eta mardulak baiño. Geien dakienak 25/29 bitartekoak dira.

Amasei urtetik ogetalau bitartekoak dira erabide ziurrak zeintzuk diran geien dakienak, baiña onura edo probetxurik emoten ez dabe-en zeaztasun an-dirik ez dauke.

Pildoren ezaupide bardiña dago gure autonomi errialdean eta españar late-
rrian. Baiña ortik gaiñerako beste erabideen ezaupide geiago eta askoz andia-
goa dago gure artean, españar estaduan baiño.

Alaz eta sortze-aurkako erak erabilten dituenak euneko 27 dirala esaten da.
Au da, euneko 73k ez dabe nai bide orretatik jokutzen ibili.

22·**XI-83**

EMAKUMEAK

"Emakumearen egoera Euskadin" —Situación de la Mujer en Euskadi— dei-
tureagaz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailak 605 orrialdeko libu-
ru mamitsu bat argitaratu dau.

Deitura irakurrita eta ikusita, askok pentsatu leike elebidun edo bilingue
dala liburu au. Eta bear ba da ainbatek orrela zerrendatuko dabe, azala edo gai-
ña ikusita bakarrik.

Baiña, jaunak, izenean, azaleko deituran amaitzen da euskera. Eta zazpiga-
rren orrialdean dakarzan amazapi lerro, illara, "Hitzaurrea" deritxon zatian.
Or euskeraren eta euskerazko agerbide guztia.

Ortik aurrera, jai alai.

Liburuaren egillea "Araldi", azterkari taldea da. Elkartean lan egin dabe
ekonomilari, irakasle, gizaiztilari (soziologo), lege-gizon eta ikerketen zuzen-
dari batek.

Emakumea ta eziketa, emakumearen egoera gizarte ta ekonomi begiz;
emakumea ta osasuna eta emakumea ta bere legearekiko egoera dira, gairik
nausienak.

Bere aldetik, gai nausiok ainbat ataletan zatitu eta banatuta.

Gaur, euskal autonomi lurraldea, bertako egoeran, biziari dagokionez,
emakumeak gain egiten dauskue gizonezkoei.

Egia esateko, ozta-oztan, baiña gain.

Irurogei urtearte, gizonezkoak dira nagusi.

Araba'n, 20-24 urtetakoen artean 7 mutil eta 8 neska egozan. Au da, zazpi
mutilleko zortzi neska.

Baiña ortik aurrera, beste urte-sail guztietan, mutillak geiago.

Alaz eta bein irurogei urte ezkerro, bai Araba'n eta Bizkaia'n eta Gipuz-

koa'n, gizonezkoak murrutu eta andrak goratzen igarten dira. Ori 1975 urteko kontuetan.

Ezkontzei buruz, Euskalerrian 20-24 bitartean %38 ezkontzen dira.

Neskak gazte ezkontzen Araba da nausi. 15 urtetik 19 bitarteko adiñeko nesken ezkontzak Araba'n %4, dira eta Bizkaia eta Gipuzkoa'n %3.

Bein irurogei urte ezkerro, bizien artean alargunak ugaritu egiten dira. Ezkonduen arteko %24 batez beste alargun geratzen dira.

Lanean, lan bizian, kaleko lanean, 15-65 urtetan, %86'k lan egiten ba dau be, emakumeak %23 bakarrik jarduten dira.

Emakumeak gizonak baiño lenago lagaten dabe langintza.

Astean zenbat ordu sartzen ete dabe lanean etxeoandrak? Garbitasun, janari gertatze eta abarretan, asteko 33 ordu ta erdi sartzen ditue emakumeak. Baiña sal-erosketako denpora, ume zaintza eta abar sartu ezkerro etxeo-andra batek 48,4 ordu sartzen ditula esaten da. Lo ta atsedenetan 55,6 ordu. Irrati entzuten eta urruti-irudizkiña ikusten 16,2 ordu.

Ezkonduen artean etxeo zeregiñetan andrazkoei laguntzen dautsen gizonak euneko emeretzi ei dira.

Ainbat orrelako batu leiz, esan dogun liburuan.

18-XI-83

ENBEITA'TAR KEPA

1942 urteko Abenduaren 11'an il zan Enbeita zarra Muxika'n.

Ba ekiezan toki askotan, unerik mintsuenetan, illaren aurrean bertsolariei azken agurrak abestu eragiten.

Emakumezkoen negar-muxinga asko itzalduten zituen antziñako bertsolariak.

Enbeitatarrak bertsolari dira. Berezko etorritz?

Amuriza'k, bere azken liburuetan, mitikotasuna kendu nai dautsa bertsolaritzari.

Baiña ezpairik ez dago odolak, edo endazko oiturak, edo ta etxeo eskolak, bertsolarien ondorena eroaten dabela edo jarraitu eragiten dabela abizenean edo ta ondorengoetan.

Muxika'n, Kepa il zen egun aretan, bere gorpu aurrean, otoitz eta erreguen

arteko ixil-une baten, ez ete zan bertsolaririk bere biozkadaren bat an egoanari eskiñiko eutsanik?

Orra Balendin bere semea, aitaren aurrean, begiak malkoz beteta, kantuetan jarri:

*Uri, baserri, baso, zelaien
zoragarritzko abotsa,
amaika aldiz poztu ebana
entzuliaren biotza.
Erriak guren eban orduan
bere lanaren laguntza,
orra nun dagon zerraldo baten
illotzik bere gorputza.*

Egun garratz eta illunak ziran.

Enbeitatarrak euki eben zer jazan Lau beintzat etxetik kanpora ibiliak ziran gerra edo ondorenez. Giroan igarten zan oraindik negar, jazarpen eta neke larrien astuntasun bildurgarria. Enbeita zarra, Kepa, "Urretxindorra", gerrate aurrean Euzkadi'ren iragarle, profeta antzeko izan zan. Bear ba da Sabin Maixuaren irakatsiak erriagan samur eta errezen sartu eragiten ikasi eta jakin ebana

Edozein izlariri entzuten baiño gogotsuago gertuten zan gure erria Kepa'ri entzutera.

Bilbo'n entzun neban bein. euskerarik ez ekien bilbotarrei be negarra ataraten eutsela arek plazaetan. Igarri egiten eutseia zer esaten inarduan.

Kepa bera, bere gaixoa zala bitarteko, beste alderdian, Araba'n artu eban gure gerrak. Biasteri'n, erderaz Laguardia lez ezagutzen dan erri aizetsuan Alperrik ango giroa eta ango aize osasungarriak. Ezin osatu, bularra gaixo eukan lez, biotza be gure gertariak bitarteko, urrunggaitzez eta miñez jota geratu jakolako.

1896 urtean asi zan plazetara agertzen. Emeretzi urte eukazala. Durango'n, ango plaza baten. Inñor ez da asten goi goren eta bigarren saria emon eutsen

Gero, abertzaleen mitin eta jaietan neke barik, pozarren ibiltzen zan. Eta egunkarietan, "Aberri" nai "Euzkadi"n, eta aldizkarietan, euskal jai omenaldi, gertaera eta ospakizunetan beti nai izaten eban bere bertso edo kantuen bitartez egunaren gorapena egin edo ta idatzita laga.

Bera ta bere anai Imanol "Garbi nai", "Uribitarte'tar Ibon" eta beste deitu

bere nortasuna eskutaten ekiana izan ziran, gain gaiñetik, gure abertzale-tasuna bertsoetan erakutsi eta kondairatu ebenak. Anaia ez zan plaza-gizona, bai ordezt bertso egille ta idazle txukuna. Zoragarriak dira bata Ameriketean egoala anaien artean alkarrin bertsoetan egiten eutsezan "kartak". Santi, beste anaia be, bertsolari zan.

Kepa gogoratzean, gaur be egunegungo diran bertsoetako bat datorkit burura.

*Nabarra maite maite,
geure anai zarra,
zer dala ta gugandik
aldenduten zara?
Zeure lagun "malmutzak"
zaroez lexara.
Itxartu zaiz ta zatoz
anaien artera.*

1982

EPAIKETAK

Kartzeletan eta espetxetan sartuak, euretako denporak eta abar aidean eta eztabaidetan erabilten dira. Abertzale-izate eta ekintza askoren ondoren latz eta mingarria da ori.

Eta legea, len eta orain, aurrerakor agertu naiarren, atzerakor ibiltzen da, bere bete eragitetan.

Gaur epai asko dago auzietan. Zoritxarrez gero ta geiago. Ugaritasun onek askotan milla kalte ekarten dautsez zigor txiki edo okerkeri ariñetan jausiei, edo ta indarbako salakuntzetan baituei.

Iñoiz, ezin ukatu, mesede be bai epai andietan, bat bateko gogorkeri eta itotasunez barik, egunak emoten daben baretasun eta azterketa ugariago egiteko aldi eta astia artzean.

Nik sarri uste izaten dot, pentsabidean, kalterik ekarri edo eroan ezik ez litzakela okerrik billatu bear. Irizpide azkea bear litzakela, batez be aldakor diran erri arteko gorabera eta agerkaietan.

Zoritxarrez, arintzeko legeak egiñarren be, askotan ikusten da legearen go-goa ez dala izaten barrurako ezarri nai dana, kanporako erakusgarri eta aitzaki-garri bat baiño. Paper busti eta galdua geienetan

Txarrena da okerra batek salatuten dauala, eta zuzenketa beste batek egin, eta okerra salatu dauana eskuak garbi geratzen dala, epaikariak era batera nai bestera epaitu. Eta okerrean jausi danak ez dauala eukiten egiten jakozan kalte, neke eta min eta zaurien ordaiñik.

Ez da gaurkoa bakarrik auzi au.

Larogei ta bat urte beteko dira egunotan, gure Maixu izan zan Arana Gori'gaz orrelako zerbait gertatu zata.

1.902 urteko Maiatzaren 30'n kartzelan sartu eben. Aitzakia: Kuba'ren askatasuna zala-ta Roosevelt'eri bialdutako telegrama bat. Obeto esana da, bialdu ez zana, Urrutidatz (telegrafo)etako langille batek bere zuzenbidera bialdu bearean, gorde eta agintariei salatu eutselako.

Uztailla'ren egun baten Sabin berberak bere bat-bateko askatasuna eskatu eban. Ukatu. Andik egunetara zortzi milla firmatik gora batu ziran iru egunetan, aske lagateko-ta, epaia egin bitartean. Ukatu.

Ministrarien batzarrera be eldu zan eskabidea. Onek epaikarien kontuko zala ta ukatu.

Alako baten Azilla'ren 7 eta 8'n Bilbo'n egin zan auzia. Eta epaikariak errurik ez ebela aurkitzen esan eta erabagi eben eta kaleratu.

Baiña ordurako Sabin gaixorik igarten zan, eta urte bete geroago il zan.

Iñok ez eutsan ordaindu ia sei illabetetan barruan eukiterik.

Onelakoetan gizarateak ez ete leuke bear bere berbarik?

7-XI-83

EREAGA'KO ARRATOIA

Lortuko ete dabe munduko ostikoketa ospakizunak, "mundialak", Markiña'tik Ondarroa'ra dagon bidea, bide nausia, jaunen bide zabala deitu edo errepeidea, or konpon, baina gaur arako dagon arrizko bide bakarra, konpondu eragitea?

Gaitz billatu gaur beste bide baldar, arri-gordin, zulotzu, oker eta jainkoaren grazi bagakorik.

Eta alperrik lau aizetara zabaldu, deitu, iragarri edo turutak jo.

Ondartzak zikiñ doguzala Erreinu alkartuko laiño ugartetan zabaldu orduko, "mundialen" ospakizunetako golak sartzen asteko kanpaiak jotzen asi baiño len, sasoi baten jai bezperetan abarketa zuriak erosi ta jazten ziran lez, ondartzak txarrantzaz landu ditue, apain agertzeko. Nai ta abarketa zuriei jazoten jakoen, jai eguna orduko arda kolorez nabartuta geratu.

Emen bere, nai eta uda urrun egon, eta olatualdi eta erresaka barriak barriro ibaietan eta mendiartetan bera datozen gaurko gure ondasun eta konsumoko ondakin guztiak barriro beste olatu brastadetan len baiño zikiñago lagateko arriskua egon.

Egunkariak lenengo orrialdetan agertu dabe ondartzzen zikin salakuntzari Bizkaia'ren erantzuna: Bizkai'ko jaurerriak, Somorrostro'ko ondartzatik asi eta Arrigorri'rainokoak garbitzeko ogetamabost eta erdi milloe peseta izentatu di-tuela. Ez ondartzatan ezer egiteko. Ez euretan gauza berezirik egiteko. Zakar-rak batu eta erreteko baiño. Garbi esanda, txukuntasunari atea zabaltzeko bai-ño. Edo ta beste era baten, garbitasunaren alde dirua erre. Itxas-ertzak txukun-tasuna eskatzen dau. Eta ez bakarrik bertan. Aurretiko garbitasunaz asita baiño. Itxasertza txukun ikusi nai dabenak, garbiago billatuko leukie euren etxetako ondakiñak eta samarrak, erreka ondotara jaurti eta kitu esan eta eskuak garbitu ta soiñeko dotorez agertzeko oitura daukenak, aurrez beste jokabide bat artuko ba leukie ondakin eta beste zabarkeriekin.

Ortik asi bear da.

Erriei alegiña eskatu baiño len, norbere alegiria agertu eta agortuta.

Maite doguzan tokiak, atsegiña eta atsedena artzeko aukeratuko doguzan tokiak, mendi eta zelai izan, edo ta on dartza eta itxasertz, poza eta osasuna emongo dauskuezan toki berezitzak zainduta.

Gizarte baten ezaugarri dira gaur mendiak eta itxasertza.

Eta Ereaga'ko arratoia?

Desertuetan piztiak ilda billatzen diran lez, Ereaga'ko ondartzaren zabalta-sunean indargetuta eta ilda billatu daben arratoitxoak?

Emen dator betiko arratoia.

Alegi edo fabuletako mendien umegintza. Zarata, zartada, aize, ekaitz, orru, ulu, inkesa, naigabe, min eta eutsi ezin... eta arratoi kumearen sortzea.

Nok daki Ereaga'ko ondartzan billatu dan arratoi illa ingeles itxasontziren baten Bilbo'ra etorri eta ango uren billa barriro asi eta Ereaga'ko ondartzzen ba-kartadean il ez ete zan?

Zegaitik emendik makiñaz argazkirik ataraten ibili orde, beregana urrera-tu eta alboratu, eta bere ibilleren atsak artu, eta aoko bizarrak mirrindu eta bere sorterriko ubideen lokatzen bereiztasunak billatu ez?

Ereaga'ko arratoiak merezi dau izenen bat. Garbia izan da beintzat. Bakar-tadea billatu dau ilteko. Txarrago izango zan munduko ostikoketa ospakizune-tan, lebatz kokotxen artean billatu izan ba lebe Bilbo'ko bost izardun jatexeren baten.

Agur gure munduko ospakizunak eta ospeak!

ERKIAGA

Gure azken gerra aurreko denporetan, euskal idazlerik geienak, guztiak ez esatearren, oituraz izengoitipean idazten gendunean, "Endaitz" idazlea ezagutzen gendun.

Aldi aretan iñok ez eban ezagutzen idazle lez ez Esteban Urkiaga'rik, ez Gorgonio Rementeria'rik, ez Bernardo Garro'rik ez Gabirel Manterola'rik, ez Imanol Enbeita'rik, ez beste ainbatik guztien parkamenez gure inguru onetako batzuk izentatuta.

Jendea oituta egoan "Lauaxeta" irakurtera, edo "Perularra" edo "Otxolua", edo "Gabriel", edo "Uribitarte tar Ibon" eta abar.

Lekeitiarrentzat ezaguna da Mendeja'ko lurretan dagon Endai baserria eta bere inguruko itxas egaleko aitzen edo tokien batek onelako izena eukitea leikena da eta Erkiaga, lekeitiarra eta itxas aize zalea, leike orrelako baten oiñarritzea bere ezaugarritzat.

Sekula ez dauosat itandu berari orrelakorik, baina matasea ortik askatu bear ko dalakoan nago. Edo ta Endaitz=itxastarren patro, timonel edo antzerako?

Gaur Erkiaga lez ezagutzen dogu, Eusebio Erkiaga idazlea, besteak be ba koitzaren izenetara jo dogun lez.

Zegaitik idazten zan izen ordeagaz? Nik esango neuke ez dala billatu bear ez lotsa, ez apaltasun, ez bildur, ez sator lanik. Moda lez artu ta kitto.

"Aitzol" en alegin eta erapenetako literatura sariak asi ziran "Endaitz" en ezaupidea zabaltzen.

Ain zuzen Lekeitio bertan ospatu zan VI garren Oleriti Eguna eta ango leia ketan, oorezko aipamenez izentatu eben bere "Lore gorriak" olerkia. Urte bete lenago Antzerki sariketan, "Antzerti jaian izan naiz" bakarnzketa santuaren bi dez antzerkirako gaitasuna be ezagutu eutsen.

Eta gero gerratea. Eta gerratean, Bilbo'n, eguneroko lan neketsu eta ixilla oraindaiñoko euska] egunkari bakarrean, "Eguna"n. Eta gero...

Baiña berez datorrenik ezin kendu leikio gizonari. Eta euskaldunon gerra osteko edo ondorengo garizuma, bere Paskorako gertapen Jez igaro eban Erkiagak. Eta garizuma orretako gogarte eta azterketak sortu eragin eutsezan bere elaberriak, nobelak. bere olerkiak, bere teatro lanak, berak dakian txukuntasun, apaintasun eta zeaztasunez euskera erabiliaz. Lan ugaria benetan. Ortik etorri zai. oraintsu Eusko JauikniLzak euskal litcratura arloko ezaupiderik bereziena berari eskintzen.

Idazle omendua, bizien artean bat ba dago. Bere nortasunagaitik eta bere lanagaitik.

Erri kezkatia da Lekeitio bere gizonak omenduten. Or Azkue, aita semeak, or baita Erkiaga; Lekeitio'n kale ta guztiko seme kutunak.

Kultur ekintzak egin barriak dira erenegun bertan; ango kultur taldeen eskabidez, udaletxean eskeiñiko jako lekeitiarren beste omenaldia.

30-V-88

ERLEAK ETA EUSRERA

Ille bi dira Erlezaintzari buruzko liburu mardul bat agertu zala.

Egille: Txomin Jakakortajarena, berastegitarra. Abadea. Olerkari saritua. Jakintsu eta iztegi gertutzaille. Eta erle gaietan aitua.

Liburu mardula: 666 orrialde irudi eta apaindura ugariz. Eta lenengo zatia, gaiñera, bigarrena laster kaleratzeko.

Ni idazle lez lotsatu egiten naz gure artean orrelako liburuei egiten dautsegun arrera dala-ta. Jaramonik be ez. Eta ez esan gai egokia ez daukala, edo ta erabiliegia dala. Ez.

Utsunea. Utsune salatari egiten gabiltz liburu askori. Ezagutu nai eza. Utsune pekataria dala, esango neuke gure artean igarten dana.

Gau bateko kontu lizun eta akatsez batuari, lorak eta txaloak eskintzen dautseguzan artean iñoiz euskeraren kaltez amets gozuak sortu eragiñaz; edo ta edozelako kirolei orrialde luzeak gordeten jakoezan artean, jakintza eta kondaira edo teknikazko lan sakon eta mardulei lerro batik ez dautsagu eskintzen, batez be, eta au da lotsagarri, askoren askatasuna zapalduaz egin diran moldeetan sartzen ez ba dira.

Eta lotsagarri da autortzea baiña gaur, euskal lanetan, or dago kakua.

Jakakortajarena abadea da. Gerratean Ameriketara aldatu bear izan zana. Eta Argentinan erri beartsu, goseti eta nekemiñetan bizi zan bateri, erlezaintzara zuzenduaz, ortako teknika eta zaletasuna sortu-araziz, bizimodu alai, egoki eta nasai baten sartzera lortu ebana.

Erlezaintza, Txominentzat eguneroko egia da. Baiña izerdiz eta alegiñez gertu eta egiten jakin dauan ogia.

Egin kontu bere lenengo liburua benetan mardula dala, sakona eta zabala. Erlezaintzako teknikarik aurreratuenak ezagutu eraziten alegintzen dalako. Eta bardin bigarrena. Onetan bost milla itzezko iztegi bat be agertzen da eta eureta-

tik ainbat itz euskeraz iñoiz esan ez diranak eta berak diñoanez erderazkoak bezela euskeraz ere erabili bearrekoak ala omatidio, gameto, tixotropia zootecnia eta beste eundaka landare izen ezta dixurienak, lorautsa daukenak eta abar.

Bizkaiko Aldundiak Erlezaintzari bere garrantzi eta ezaguera emon nairik, 1985 urtean atara eban "Erlezaintzarako Oinarrizko Ezaguerak" deritxon liburua euskera ta erderaz, izkuntza bakoitzean 80 orrialde ingurukoa. Ezin ukatu oiñarrizko lez egoki eta erabilgarri danik. Baina Txomin'en oraingo au, benetan aberatsa da ezaupide zabalekoa, eta uste dogu, azpikeri eta itsukeriak albo-ratuta, txalo, mesede eta laguntza bear dauan liburua dala.

Eta ez, egilleak oraingo onetan egin dauan lez, atzerrian nekepean batutako dirutxu guztiak, idazti orretan xautu, eralgi, eta gaiñera borondaterik zabalena-gaz askori doan bialdu... Jainkoak era batera edo bestera bere zartzaroan lagundu dauksalata. Ori egin dau Txomin'ek.

Orren eskerra? Ziurretik gabonetan kerizak.

29-VI-88

ERREPUBLIKA

Errepublika izena latīnetik datorrena da: res publica. Au da, gure esan naian, erri ardura, erriaren zeregiña.

Euskal izen barriak, "neologismo"tzat artutakoen artekoak, errepublika ordez erkala deitzen eutsan. Au da, erriaren ala, erriaren agintzea. Gaur batzuk erriaren poterea esaten dabe eta iñor ez da arritzen.

Bizarra urten barri giñan 1931 urtean. Eta egia esateko, nik be iñoiz, orduko sinisteei jarraituz, espan gaiñeak oillo kakagaz igortzi nitun, bizarra ariñago urteteko ona-zala ta.

Españar laterrian errepublika sortu zan urtea zan.

Amazazpi urte egiteko neukazan.

Ba gendun erri gaietazko arra.

Igarri egiten zan errian zerbait gertatuko zala. Egunkarietan, errietako jardunetan, zabal ebiltzan autu-mautuetan eta abar.

Bildurra eguan, Apiril onetan zerbait gertatuko zala-ta. Auteskundeak iragarrita egozan illaren 12'rako.

Erri askotan borondatezko konponketa egin zan auteskundetarako. "Articulo 29" deitzen zan araua legeko zan orduan be, Bizkai'ko errien artean, 53

errietan, lege ori erabili eta aurrez egin ziran alderdien arteko konponketak, erria autarkietara eroan barik.

Bilbo'n, esate baterako, 14 ziñegotzi (kontzejal) lortu zitun EAJ'k. Errepublikazaleak 12, sozialistak 10 eta 7 ANV edo Euzko Ekintzak. Erregezaleak iru bakarrik.

Donosti'n aukeratu bear ziran 41 lagunetik, 24 lortu zituen errepublikazale eta sozialisten artean, 11 erregezaleak eta 6 abertzaleak.

Eibar'en, egun onetako auteskundetan, 10 sozialista, 8 errepublika-zale eta abertzale bakar bat.

Autarki edo botoetan ez egoan ainbeste alderik. Danetara be sozialista eta errepublika-zaleak 1.762 autarki euki zituen eta EAJ'k 582. Au da, irutik bat, baiña auteskundetako legeak indar berezia emoten eutsen talde nasei eta orrela banatu ziran autuen arteko ordezkariak.

Ez dakit zegaitik, Eibar'ek tengarri berezi bat euki eban ingurokoen artean.

Illaren 14 eldu eta eguerdia baiño len zabaldu zan Eibar'ek, España guztia-ri aurea artuta, errepublika oiuzkatu ebal.

Geroago ziran Madrid'en Alcala Zamora aututeak, erregeak burua makur trenez urten eta Cartagena'tik itxasontziz bere lurrari agur egiteak, eta abar.

Eta euskaldunontzat zer?

Agirre'tar Joseba Andoni aukeratu eben Getxo'n alkatetzat. Eta onek, Bermeo, Elorrio eta Mundaka'ko alkateekaz batera bizkaitar udal guztiei deitu eutsen Gernika'n batzera, il onen 17'an.

Eta Errepublikako jaurlaritzak (gobernuak) gudarozteak (soldaduak) bialdu zitun Gernika'ra batzar ori galerazotera.

14-IV-82

ERRI EUSKERAREN PITXIAK

Ukatu eziña da izkuntza baten aberastasuna erriak erabilteko eran ezagutzen dala. Itzak itz, berbak berba, motel, otz, gordin geratzen dira. Zer esanik ez esaera biribil eta berezko urteerak. Zorionez egalak, ertzak, beste egal edo ertza billatu eragiten dabe.

Azpaldiko erri-izkera bastertu eta aztuteko joaldiak ba dirudi goia jo ta berakotan duala eta euskaldunok asi gareala erri berbetak daukan eta dakarren aberastasunaz konturatzen.

Urteetan or ikusten dogu B.I.A. (Bizkai idazleen alkartea) erri euskeraren ardura bizitan, ortarako sariketa eta leiaketak eratzen.

Or Lekeitio'ko Udala, bertako izkuntza jatorra, aidean dabillan berbeta, paperetan batu eta erakutsi nairik.

Eta onetan diarduen erakunde eta alkarteak oraingoz basterrean itxita, or oraintsuko liburu bat, txikia baiña txalogarria, arratiarra ba litza Arratiko txekorra txikia baiña gogorra esan naiaren antzera, liburu txiki baiña mamitsua esan eragiten dauana.

Antonio Pérez Bilbao, guk ondarrutarroak esango genduken lez, olgeta-benetan asi zan, bermiotar berbak batzen, eta berak gero euretz lantxoren bat idazteko asmotan. Eta berba banaka eta solteko batzuk batuko ebazalakuan. ainbategaz erraz jaubetzen zala ikusi ebanean, adoretu, zaletu eta txorta eder bat egitean, argitaratzen ausartu da. Liburuaren azalean esaten dan lez utsune bat bete nairik agertzen da, izkuntz-filoloji analisiak egiten ausartu barik.

Perez Bilbao'k azentu ta guzti agertzen dauz berba batzuk, izkuntzak doña be ba daukala azaldu nairik, eta erri bakoitzean berba bakoitzaren indarra biziago ezagutzearren. Ez indarra bakarrik. Era batera edo bestera aozkatu, berba bakoitzak artzen dauan aldeagaitik.

Erri izkeran zerbait arduratzen gareanok erraz konturatzen gara berba asko dagozala erri baten esan nai bat artu edo emonarren, beste toki baten ezbardin ezagutzen diranak.

Gero konturagarri izango litzake berba batzuen deiturak ze ikusi dauken erri bakoitzeko bizibideko gaiki eta tresnak.

Esateko, nun deituko dautse "geranio" loreari sardiñalore, Bermeolako itxastar eta arrantzale erri baten ezik?

Iztegietara ba guaz "geranio": zango-gorri, moko-bedar, kurlo-bedar, ika belar, zorri belar eta abar ikusiko gendukez.

Nun alper bateri arrain-zantarra deitu?

Ezin ukatu ainbat berbak, aozkatzen diran inguru eta esateko eran euren zentzu egokia artzen dabenik.

Eta nai ta erderakadak erabili... agirian igarten da bermiarrak, euren berbetan, igarri barik, itxasora begira ipinten gaituela. Esateko; jakiña da arraiñak, marraixoak batez be, euren gidari antzekoa erabilten dabela. Ba Bermioko gatz noraiño duan ikusteko, gure errietan oiturazko dan txilkiteoan, askotan kua-drilletan diruagaz eskatzera aurreratzen dan lagunari... "pezpilotue" deitzen dautse, esandako arrain aurrelaria gogoratuaz.

Jakingarri, irakurgarri eta benetan atsegiña Perez Bilbao'ren BERMEOKO HERRI HIZKERA liburutxo. Erri euskeraren aberastasunaren adierazgarri.

ERRI JAKINTZA

Len baiño erraztasun geiago ta ba goaz gure errien eskutuak arakatzen.

Orain arte gain-gaiñeko istoriak euki doguz gure erriei buruz. Baiña asi gara sakonduten eta daukagunetik zerbait agertzen.

Berriz'ko eleiz atearen kondairarako (istorirako) jakingarri ugari eta sakonez betetako bat agertu da oraintsu. Irurogei errialde, baiña ainbeste eta geaigo zabaltzeko aukeran, liburu errikoiz lez agertzearren, orrialde eta izki (letra) moldez bete-betea agertzen dalako.

Nik euskal utsunea billatzen dausat eta esan bear. Ez liburuaren mamiñari, euskerarik aintzat artu ez dalako baiño, Berriz lako erri euskaldun bateri euskeraz dakien batek eginda eta eskiñitako lana dalako.

On Bizente Urkiza'k liburu jakingarri bat argitaratu dautse berriztarrei.

Abade dala jakinda, bidezko da bere argibiderik asko eleiz artxibotatik ataratakoa izatea. Udal eta eleiz gaiak erdiz-erdi datozala esango neuke. Ezin ukatu ango parroko zala Berriz'en egon zan urtetan, artxibutako-lan sakon eta jakingarria egin eta erabili ebanik.

Aberatsa da Berriz eleiz bizitzan. Or laga euskun, dirala 30 urte, Aita Seberino karmeldarrak Andikona'ko eleiz eder eta kofradi ezagunari buruzko liburu bat. Antxiñako eleizen edertasun eta egokitasunen billa ibiltan diranak, or dauke Andikona, Oizpean, noiz-nai joan eta ez damutzeko eran.

Berriz'en ainbat ermita batzen dira eta geienak ondo zainduak. Sei kofradi be ezagutzen dira.

Iturriza'k amabost ermiten kontua emoten dau. Urkiza'k amabi aitatzen ditu eta euretatik Ametzu'ko san Jurgi'rena galdutzakotzat agertzen dau. Berriz-tarrak maitasun berezia euki izan dabe euren ermitentzat eta geienak txukun irauten dabe.

Gu euskaldunok gure errien zerbait erakutsi naian asten gareanean, berezko lez edo ta nai ta ezko lez sortzen jaku erriaren deituraren agerpen bat emon naia. Ba dirudi ortik ezin urten giñeikela. Urkiza'ren eritzietan Berriz deitura, Oiz-mendi azpiko erri lez artu bear da. Be-erri-oiz, au da Oiz mendiaren be aldeko.

Ala ete da? Beste batzuk Berriz ori erderazko "jaral" lez artzen dabe. Bertako seme zan Iturriza'k "Be-arriz" esan naia emoten dautsa, au da, be-arritsua.

Alegin egin bear litzake Bizkai'ko erri guztietako kondairak agertzen. Onetan Bermeo'k lan txalogarria darabil. Ba dakigu irarkolan sartua dala "Bermeo" irugarren zenbakia.

Nire errian be il onen barruan agertuko da "Ondarroa 83", istori utsean oiñarritu barik, arlo ontan orrialde asko sartzen dauana. Gure Aldundiak euki bear leuke orrelako lanentzat laguntza berezien bat.

Or ikusi izan doguz, errietako artxiboetan lanik barik dagozan ikasi batzuk, artxibutako ainbat datu artu eta fitzak egokitzen. Ezpairik ez dago euren lanak askori ateak zabaldu eta bidea erraztuko dautsela.

23-VII-83

ERRI MARTIRIAK

Aurten, Italian ospatzen dan erri zapalduen batzar nausi baten, erri bi goratu eta autetsi dira, gain gaiñez, martiri erri deitura eroateko duin: Hirosima eta Gernika.

Dakigunez, Gernika'ko erriaren ordezkariak txaloka artu zituen mundu guztitik an batutako ordezkariak.

Munduko gerra baten martiri, japondar erria, Laterri (estadu) bateko anai arteko gerrakoa bestea.

Bata, munduko indarrrik nausienak euren altasunaren bildurra sartzearren. Bestea, erri apal eta baketsu bateri, gizaldien gizaldietan errien eskubide eta askatasunen zale munduaz mundu agertu izan danari, destain eta irain, gorroto eta ertsikari.

Hirosimako su-emoleak lenengotik agertu eben egitadaren nortasuna, Indarraren erasoaldia aitzakitu nai izan eben: Etoikeriz jarki zan erri baten aurkako erakusbidea. Ikusi bear euren errazoiak norarteko zillegitasuna euki eban. Uste izatea da bat; eukitea bestea.

Gernikako su-emoleak maltzurkeriz eta azpikeriz eskutatu nai izan eben euren egitada. Geiago, erre eta kiskaldu, odoluztu eta bizia galdu eragiña izan zan erri berberari ezarri nai izan eutsen egitada itsu eta zital orren jaubetasuna.

Adorerik ez aldeztu eta ziotu ezin eikean erasoaldia autortzeko eta guzurretan laidotu nai errurik ez eukan erria.

Guri dagokigunez, urte bi barru beteko dira berrogetamar urte erasoaldi a jazan genduanaren gogorapen berezi bat egiteko.

Munduak jakifnarren, gertaera ori erabiliko da euskal izatearen nortasuna munduz mundu erakutsi eta agertzeko, eta gure eskubideen aldeko zabalkunde eta goratze andi bat egiteko.

Ba dakigu Batzar-Etxe eta ingurua egokitu, eta kultura aldetik eta ikusgarri aldetik, burutatzeko dagozan egitasmuak, urte bi oneitan egin al izateko gogo

eta borondatea dagozala. Ziurretik Gernika, guretzat eta mundutarrentzat, ikus-toki eta erakustoki atsegin bihurtuko da.

Eta Japon eta Euzkadi aitatuten doguzan une onetan esan bearreko da, ba dirudila Japon'en gure berezitasunen ezaupideak ba daukezala adiskide eta jarraitzalleak.

Lendik dakigu Japon zalea dala bere Laterri Bibliotekan euskal liburuak eukiten. Japondarrak euskera errez eta egoki ikasteko duintasuna daukela irakurri izan dogu nunbaiten.

Eskuetan euki dot egunotan Tokio'ko Unibersidadean Sarkaldeko Kondaira irakasle dan Tetsuro Watanabe'k euskal abertzaletasunari buruz egin eta oraintsu argitaratu dauan Doktoretzako Tesia. Liburu txukun eta ikusgarria eta guretzat goragarria.

Martirien odola oparoa izaten dala ba dakigu.

Gernika gogoratzen dogun egun oneitan, gero ta geiago alegin gaitezen "eman eta zabal zazu munduan frutua" gure jokabide eta zintzotasunez, bakearen aize eta egadetan, egi biurtzen.

25-IV-85

ERRI TA IKURRIÑAK

Guk baiño obeto ikusten ditue Euskalerriko inguru asko erbestetik etorten diranak.

Ba dirudi inguruan dogun berezko edertasunari egiñak gareala.

Berez daroagula, kendu barik, ederraren ikuspegi bat.

Bardin itxasoaren urak eta laiñoak urdinduten daben itxas ertzean. Era be-rean mendien kerizpe eta zelaien berde biziak gure barruko erriei emoten dau-tsen berdetasun illunean.

Euskalerrian, izadiak emon dauskuzan lekuak, edozein errik bardinbako doaitzat eukiko lituzkenak, zaindu bearreko ardura eskatzen dabe.

Eta ez bakarrik zaindu. Balio emoten ikasi bear dogu. Gure mesedean le-nengo. Gizatasun osoaren onean gero.

Gure erriak begirapen arduratsu batcn duin dira.

Ondo da Bizkai garbia zabaltzea. Ondo da ortaz jendea zaletzea. Baiña

geiago bear da. Zaindugarri diran txoko eta baster, kantoi eta inguru, etxe eta torre, giro eta kerizpe, berezko kutsuan eutsi eta edertzera beartuta gagoz.

Ukatu eziña da azken urteotan orrelako kezka bat igarten dala. Egia da baita gero ta gaitzago dala erri agintari askorentzat euren edergarriak kutsu barik zaindutea.

Dirua dago gaur erti guztien gaiñetik. Batzuen alegiñak goragarri ba dira be, egiturako erraztasunak, askoren naikeri eta berekoitasunak, eta diruaren menpetasunak asko eta gurari asko garrazkeriz beteten ditula be ba dakigu.

Etxea zaintzea ez ba dakigu, besteak ez dauskue atsegiñik emongo.

Gure erriak goratzaille asko euki zituen lengo denporetan. Idazle asko konaturatu ziran gure lurralde onen ontasunekaz.

Batzuk erri bat, besteak besteren bat, erri gitxi batu leikez gure inguruan mundu zear idazle eta margolariak, edo bestelako ertilariak (artistak) goratu eta aupatu bakoak.

Gaur ainbat diru erabili eta eralgiten da orrelako zabalkundetan. Ordaindu barik lortuten zituen len idazlerik andienen gorak eta lorak.

Gure erri askok, Suiza eta Itali'n gertatu ba ziran, mundu guztian zoragarriko zabaltasuna lortuko eben.

Ala idatzi eban, bat aukeratzeko, Victor Hugo'k Pasaia'gaitik.

Euskaldunak jakin eben Hugo'ren ikuspegi on ori eskertzen.

1881 urtean otsaillaren 27'an ain zuzen, Paris'en idazle ospetsu orren omenaldi andi bat gertatu zanean, 324 laterri, erri edo kantoietako ikurrin batu ziran an eta antxe agertu zan euskaldunen izenekoia be.

Eta orduko kronikak diñoie, euskaldunak kolore biko ikurriña eroan ebela, goitik berako zati bitan banatua. Makillaren alderditik gorria eta bestea zuria. Eta egaletan lau izar, egoaldeko lau errialdeen ezaugarri lez, eta "Laurak Bat" esaera bertan idatzita.

1-III-84

ERRIEN GORABERAK

Bizkaia'n ez da aitzindari berba erabilten.

Aurreneko bai. Edo ta bidelari. Bai eta besteen erakusle be. Ori da esan naia. Orrela erri bat, gai bat edo bestean, piloto dala esateko, guk aurreneko edo erakusle edo gidari esan bearko genduke.

Gero ta indar andiago dauke zenbatzak (estadistikak) gure bizitzako jokabide guztietan.

Ortik ataraten da zeatz, irabazten edo galtzen goazen, eta beste aldi, egoera, jokabide eta egitaden neurkin lez eurak erabilia, erraz igarriko dogu gure gaurko jokabide eta egoeraren jomuga nundik eta nora duan.

Euskeraren egoerak garabiltz. Bere etorkizunak eta luzaroko ikusi naiak bere bai.

Ori zaintzeak, arrazakerian, razismoaren oiñarrietara ez gaitu eroaten, batzuk uste daben lez, edo ta askori or jausten ete garean agerbidea artu eragin.

Zenbatzak (estadistikak) otz-otz erabilteak, ez dot uste bateri itsukerian sartu dala arpegira jaurtiteko eskubidea iñori emongo dautsanik. Errimiña da bat. Abendakeri edo razismoa beste bat.

Dana dala Ondarroa'n urtero elizan emoten diran kontu batzuk ondoren luzetara eroaten nabe, batez be gure erri euskaldun oneri euskal begiz begiratuta dagokiozan kontu eta zeaztasunetan.

Orain amar urte, gaur baiño bizilagun gitxiagoz, Ondarroa'n 250 ume inguru jaioten ziran urtean eta baiataitzen ziran gure parrokan.

Igaz, danetara, 115. Eta orduan baiño lagun geiago bizita

Bizilagun bardiñez be, euneko 54 izakien jaiotzak gitxiago. Erri txiki baterako ze ezaugarri da ori?

Erbestetik etorritakoen emen gelditzeko ezagugarriak be agirikoak dira. Bear ba da erri egoki eta bizi emole bat billatu dabenen agerbide?

la erririk euskaldunentzat, bere maillan, uste dan Ondarroa'n, igazko jaiotzetan 67 jaioberri dira euskaldunak eta 48 erdaldunen semeak.

Jaiotzak gitxitzeak kezka bat sortzen ba dau, edo ta egoera nasai eta atsegiñago baten irudia agertu, edo ta jaiotzen era bateko edo beseko neurritz jokatzen dala erakutsi, eriotzak be era berean gitxitu egin dirala jakiteak poztu eta itxaropenez beteten gaitu.

Orain bost urte, 187 jaiotze ziran danetara. Euretatik 91 euskaldun eta 56 erdaldun. Eta 89 eriotza Au da, jaiotzakin neurtuta, euneko berrogei ta zortzi

Igaz 51 eriotza. Jaiotzetatik ia euneko berrogei ta bost. Osasun ezaugarri. Bizitza luzatzen guaz, baiña bizitzarako gitxiago sortuten bere bai. Bestalde, eukal izateari buruz, gue errian euneko larogei euskaldunak gareala kontuan eukita, eta amabi milla bizilagun bete-beteagan gagozala jakinda, jaiotzetan erdal familiak emon daben arau eta neurria aztertuta, neurri bardiñean 196 euskaldun jaiotzeak ziran:

Au da, gure errian bizi diran erdaldunetan, bizilagun arteko euneko bira eldu dira jaiotzak. Eta euskaldunetan euneko 0,69. Garbi esanda, neurri bardi-

ñean, iru erdalduneko euskaldun bat jaioten da bizilagunen kopuru osoa kontuan eukita.

Bakoitzak bere ariari ten egitea dauka, bere buru eta aburuko izan leikezan ondorenak ataraten.

11-III-82

ERRI TA ITXAS GAIAK

Nire ibilleretan sarri itanduten dauste:

- Eta Bermeo'tik zer?
- Ni ondarrutarra naz.
- Baiña ba dakizu ango barri.
- Zetaz?
- Lengoan be zirikadak bota zenduzan Sukarrieta'ko su arrietaz.
- Parkatu. Bermeo'ri lez dagokigu orrek beste errietakoei.
- Ain zuzen Sukarrieta'tik.
- Sukarrieta barik ez dagolako abertzaletasunik.
- Zelako abertzaletasuna?
- Orreri erantzuteko bakoitzak bere biotzari ikutu dagiola.
- Zelan erantzungo zenduke zuk?
- Nik gure abertzaletasuna esaten dodanean, euskal abertzaletasuna aitatu-
ten dot.
- Euzkotarra ala euskalduna?
- Euskaldun lez ikusten dot Euskalerria.
- Eta Euzkadi?
- Euskaldunen lagundi.
- Igarten jatsu nundik zabizen.
- Igarri edo ez, oker edo zuzen nabillen ez dakit, baiña beste erri osakaiei
ezer kendu barik, gain gainetik euskeraren miñez nabil.
- Zelako euskera?
- Ustez, erri euskera.
- Eta ez dakienak?
- Besterik ezean lotsa gorde da giela.
- Esatea erreza da.

- Eta ikasteari bidea erraztutea ez da gaitz.
- Zein domeketan joan ziñan Sukarrieta'ra?
- Domeka eta jaietan ez-e, astegun askotan joaten da nire gogoeta Sukarrietan obiratuta edo lurreratuta egon zan maixuarengana.
- Zeren billa edo zer eskatzen?
- Aberriaren ezaupidea, gero ta sakonago.
- Nungo begiz?
- Biotzen zabaltasunez.
- Gizonen gaindiko abertzaletasunean sinistuten dozu?
- Abertzaletasunaren oiñarririk sendoena maitasuna dala dakit.
- Eta itsukeririk egon leikenik?
- Berotasuna esango neuke nik, itsukeri orde. Garra.
- Zein alderditan?
- Niretzat Sukarrieta'ko bidea zabala da eta maitasun bidea beti.

Bermeo'ri buruz zerbait esateko asmoz asi naz. Eta gure naietan kezka eta ardura sartzen dauskuen bidetara Igarri barik jo. Baiña bermeotarrak len, gerroago eta gaur be "caput Bizcaiae" dira.

Beste erri bateko kultur batzorderik ez da oraindik ausartu, Bermeo lez "Udalerri eta Itsasoko gaiei buruzko aldizkari" bat ataraten. Mardul, argi eta zabal. Or dago erri maitasun. Or abertzaletasuna. Erriak esnatu, ezagutu eragin, lengoen duintasuna agertu, gerokoen bidea luzatuz.

Eta istoria, errien bizitzan lez beste gauzetan, ezaupidearen irakasle ba da, ezaupideak anaituko gaitula ziur egon.

16-I-82

ERRIA ETA ITXASTARRAK

Ezpairik ez dago euskaldunoi, mundu zear lortu eta euki gendun entzutea, itxastarrak, itxas gizonak emon euskuela.

Onetan autortu bear da, ez zirala itxas ertzean bizi ziranak bakarrik. Itxas bidetako bizitza eta ogibidea barru aldeko beste euskaldun askok artu ebelako, euren artean naparrak eta arabarrak be tartean sartuaz.

Lisboa eta Sevilla izan zirala aldi baten munduko ertzak, idatzi eban portugaldar Camoens'ek.

Gure abestiko "bai indietara" esaera, uste baiño luzeago joan leite denporren kontaeran. Indietako ibillerak asi orduko, euskaldunak pilloka joan ziralako emendik Sevilla aldera, ia ango merkataritza guztiagaz jaubetu, eginbearrik aberatsenak eskuratuaz, eta Cadiz'en be kokatu eta nortasun andiz jokutzen ekiñaz.

Gogoratu bear da Ameriketako atea deitzen eutsela Sevilla'ri. Ortik sortu zan Sevilla'n bertan euskaldunak euren erakunde bereziak zabaldu eta euren kapilla eukitea katedralean, eta geroago era berean Cadiz'en, frantziskotarrak lagun zituela. Eta ortik Cadiz'eko euskal pilotoen eskola be.

Ordurako ba euken beste aldean, Europa'ren gerrian, Flandes'etan, gazte an lekutu baino len, euskaldunen etxea.

Istorigille batek diño 1.348 urtean Brujas'eko Udalak etxe bat eskiñi eutse-la euskal itxastarrei bertan euren batzarrak egin eta ordezkariak ipinteko.

Brujas Flandes'etan dago, gaur Belgika'ko Ipar-Sorkaldean eta 50.000 bizi-lagun inguruko uria da. Euskaldunak bertako kondairan zear euki eben nortasunagaz konturatzeko, gogoratu bearreko da an gaur be erriko plazarik tipikoenetakoa, "Bizkayers Plaatz" deitzen dala. Eta an be frantziskotar fraileak euki eben eleizan, euskaldunak euren kapilla berezia euki ebela euren serbitsurako.

Eta Brujas'ko ibaiko urak basaz itsutu ziralako Anberes'era aldatu zira-nean, Brujas'ko erria barrero alegindu zan euskaldunak bertara eroaten, eta alkarren ondoan egozan etxe bi eskini eutsezan euren konsuladutza bertan zabal-tzeko.

Arritzekoa da gu ain bakarti eta ain norberekor izanda, zelan ausartu giñan munduz mundu era orretan zabaltzera. Batzuk itxas bidea gendun, egia da, bai-ña ta barrutik joan bear ebenak?

Gitxien uste diran errietako gizonak aurkitzen dira Sevilla'ko artxiboetan, itxas-ogibidetan sartuta. Ala Aramaio, Berrikano, Manurga arabar erri txikieta-koak, ala baita Azkarate, Borja, Dieregi, Murillo eta beste ainbat napar alderdi-ko.

Ezpairik ez dago, eta onetarako gero ta aukera geiago emoten dausku artxi-boak erabilteko gaurko teknikak, euskaldun itxastarren bizitza, jokabide, izate eta nortasunari buruzko ikerlan asko egitean, uste baino lotuago eta alkartuago ezagutuko dogula euskaldun askoren erri-maitasunezko jokabidea. Beartsu iza-tetik, aberats ikustean, askok euren errietako bear-izan eta egoeraren oroitza gogoetan erabilten jakin ebelako.

ERRIETAKO ALDIZKARIAK

Toki ugaritan eta era askotako aldizkariak, errebistak, ataraten asi dira. Ainbat ezagutzen doguz. Batzuk erritarrak, jatorrak. Besteak ameslariak, gan-garrak. Eta beste batzuk zatarkeri ta atsa dariola agertzen diranak. Batzuk lenngo zenbakira be elduten ez diranak. O zenbakiagaz "planto" egin eta nortasunik artzeko aukera barik ixildu.

Nik esango neuke errien autsak kentzeko berebizikoak dirala orrelako aldizkariak.

Bizkaian nai litzake errietako monografi batzuk ataraten astea. Onetan gure Aldundia arduratu bear litzake urtero zeregin ori zabaldu, lagundu eta ordaintzen.

Urte gitxitan Bizkaiko erri eta inguruen argibide asko lortuko litzakez orrelako egitamu bategaz.

Erri askogaitik esaten da lotsagarri dala bertako kondaira ez jakitea, azterrenik be ez eukitea.

Nik salaketa ori beste era batera biurtuko neuke eta ia ortarako laguntzarik egon ete dan itaundu.

Erri batzutako istori lan batzuk egiñak dira ta or dabiltz egilleak argitaratzeko laguntza txiki batzuk ezin lortuta. Erantzun egokia emoten alegintzen diran erriak ez dirala asko esatea, ez litzake egia. Nun dagoz eta zenbat orretan arduratzen diranak?

Itxi daigun alboan Bermeo. Besteak zer?

Bermeo'k, azken iru urtetan, urtean ia bosteun orrialdedun liburu sakonak atara dauz. Alaiak batzuk, astunak besteak. Baiña istoria orrelaxe izaten da.

Durango, Gernika eta abar, liburu orde, aldizkari eratik dabiltz. Eta orretan diardugu ondarrutarrok be.

Ondarroa'n, len, urte luzetan irauñ eban al zanetan atara ta etxe guztietara zabaltzen zan "Boga-Boga". Egia esateko an idazten gendunok, poz orde, beti geunkan bekaizkerien bat. Ezin ezer esan eta ala ta guzti be, fantasmak ikusten batzuk. Alaz eta ez zan galdu zuzendarien erruz. Trabak, oztopoak eta legearen estuntzak itto ginduezan, ixildu erazi, prentsako legearen atzamar arrapakarien artean galdu.

Orain "Ondarroa" izenagaz agertzen da. Aurten irugarrena. Larogei orrialdeko aldizkari txukuna. Geien bat istorira begira, lotan egozan konteak argitaratu, erri jakintza astindu ta abar. Oñarriak batu ta ikasleei azterketarako bideak zabaldu.

Batez beste euskera ta erdera alkarren parean.

Bertako idazlan, marrazki, argazki eta abar doan lortuarren, saltzen dan baiño beste erdi gitxienez karuago kostaten da irarkola utsa.

Erri batsutan iragarki edo anuntziotara jo dabe. Ba dirudi orrek lotuera bat agertzen dauala. Eta orri asko "merkatu", balioa galdu eragin jakintza maillan.

Bestetik, erriak eurak ba ete dauke dirurik onelako ekintzei laguntzeko? Nai litzake jakin zenbatek atzamarra jasoko leuken.

Edozetara be kulturak oraindik lotura asko eten bearra dauka gure erakundetan.

15-VIII-84

ERRIETAKO ARMARRIAK

Liburuetan irakurten da X garren gizaldirako euskaldunak balea arrapatzen ibiltzen zirala. Normanditarrak izan ei ziran emengoei arpoia erobiltzen erakutsi eutsenak.

Asko keixatu egiten dira balea arrantzatu esaten ba da. Baiña arrantzalientean beti erabiltzen dan berba da ori: *bale* arrantza.

Gainera, jakiña da garizumako bijili egunetan okela jatea galerazoten zane-tan, balearen aragia aske zala. Deitu be garizumako urdaia deitzen eutsen ba-learen gantzari.

Euskaldunak arrotu egiten ziran *bale* eizan, kazan. Izan be aldi bateko tresnekin, txalopa, korda, arpoi eta abarrekaz, gizonak eta ontziak baiño indar eta pixu geiago euken izaki onein aurka jokatzeko biotza, adore eta zerbait gei-txuago bear ziran. Nik esango neuke askotan bizi-bearrak eroaten zitula gure arrantzale zarrak belaren atzetik tatarrez eta biziaren arriskuz ibiltera. Balea izaten zalako bere gantz, koipe, aragi. azur, min eta abarrekaz denporaldi bate-rako premiñen asegarri.

Origaitik erriak euren duintasun lez, armarriak baleetan oinarrituta egin zitu-en.

Denporekaz batzuk aldatu egin ditue, nai ta era batera edo bestera itxas ezaugarriak zaindu. Baiña balea erakusten daben erriak Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku eta Getari dira gure itxasertzean. Eta eurentan be ez beti bardin, ezaugarri barriak ataratean, txukundu nairik ibilteko oiturea dagolako eta ertila-riak euren aburura ibiltzen dakielako, askotan jatorra ezagutu barik.

Ni ez nator gaur ormarrien inguruko deituetaz ezer esaten.

Orretan be nai litzake jakin deitura guztiak legeko diran edo ez, emonak

edo artuak, auzokoak be erabilten ^{dirata} eta.↓

berori gorenduta ipintea be, jator izan leike edo ez. Karlista aldikorik ez da erabilten, nai ta jakin Lekeitio'ri esate bateroko "; Fidelisima" deitura emon eutsela eta Ondarroa'ri "muy esforzada".

Goazen arira. Armarrietako baleetara. Ondarroako azken paperetan, balea ura dariola ikusten da. Eta ala ete zan jatorra?

Arrantzialien artean eukitako auzi bateko paperetan esaten da Ondarroa'ko armarrarian bale bat agertzen dala, ildakoa, txalopa bateri lotuta. Ilda egoala, zurrutzadaka ura jaurtiterik ete leike?

Aldundian gordeten da agiri ori eta an au dino: "esta villa tiene por armas un puente y una chalupa con una ballena muerta atada a ella".

Geiago diño: Armari ori Parrokiko aldare nausi atzeko eleiz bularrean, absidean dagola, epistola aldean, Ebanjeliokoan Bizkaikoa daukala. Ori gaurko egurrezko aldare nausian be ikusten da, atzean eskutauta dagonaren antzirudi lez egiña, baiña jatorra, esan dogun lez, atzean dago, arrian egiña. Eta ildako balea adierazten dala gogoan euki bearreko da bera iruditzean.

I5-V-88

ESAERAK GOGORATZEN

Gure esaera batzuen aberastasuna goratzeko da. Askotan berezko jakituri bat eskatzen dabe. Eta gatza. Guk ez doguna.

Ziraunarena gertatzen yaku. Eta ori ere esaera da: Ziraunak esan ei eban: itsua naizan lez ba'nitz argala, galduko neuke mundurik erdia.

Eta esaerekin bardin gertatzen da. Askotan igarri be ez zer esan nai daben nundik eta zetatik datoza. nora doazan eta zer iragarri nai daben.

Onetarako, beste esaerak diñoa: Arakiñakin gosald. abadiekin bazkaldu eta mandatariekin apaldu bear ei da. Or jakiten ei dira gauzak.

Egia esateko janak be ez dau beti zeregin. bardiña beteten gizonagan: Esakera da au be: Bizkaitarra, yan eta otz; arabarra. yan eta poz.

Zeregin batzuenak batzen ibili naiz egunotan.

Arotzak tarte ona dauke esaeretan.

Bat: Arotzari arian arian mallue erabiltzen atzendu emen zitzaion. Arakil'en esaten dabe ori.

Beste bat, au ere arotzari irrizkoa, lengoaren antzera: Arotzaren etxean txotza gerren.

Burutapen bardintsukoa au be: Zurginaeren etxean, arotzaren etxean, eskallera zarrak.

Eta geiago oraindik: Arotzaren etxean zurezko kiderra.

Ikusten danez arotzak ez dauke ain zuzen be ospe andiko erri giro edo entzuterik.

Zeiñek ete dauka orren errua? Arotzak eurak edo ta emakumeak?

Gogoratu au: Gizon ederrak askotan, ofizioa yokuan. Andreak ditu kulpa guztiak itzen bat esandakoan.

Jokolariak ainbat daukez.

Bat: Jokolarien alosak, ez du lotzeko lanik.

Beste bat: Joku luziak azken onik ez.

Jokolariena da beste au ere. nai ta pelotarien *izenez* etorri: Pelotari xarra, xaxari on.

Dendari bateri sarri esaten dakie, pixuari begirik kendu ezinda zerbait pixatzen dabillenean: Zalea zara izan be kiloa emoten libra ordez-ta!

Orren antzeko da au: Zalea dok errotaria, artoaren ordez emoteko garia.

Ez gaitezen beti akulari. Ba dira benetakoak be.

Aragille zarrak gauza ona. Edo ta arakin zarrak aragi ona. Beste era batera baiña esan nai berbera: OIlo zarrak salda ona. aragille zarrak gauza ona.

Baiña arakiñei ez ete yake gertaten iñoez beste alako a: OIloa irabazi ta kapoia galdu?

Esaera da beintzat: arakiña. artzaiña eta nekazaria. beti ikasle barri dirala.

Ba dira esaerak ospe edo fama emontzalleak, bai eta kentzalleak.

Orreitariko da ostatulariena: Gizon ostatu zalea. etxe ondatzalllea. Edo ta: non illundu, an ostatu, orrekin ez yostatu.

Onk be ez ditu ostatuak fede onean ipinten: Bizi ondoko arbola, abenduko izarra eta ostatuko neskatxa ederra, irurak ondatzeko arrisku bera dauke.

Orra tabernentzat propagando ederra: Gizon taberna zalia. andriarentzat miseria.

Eskerrak liburu zarrak poz geitxuago emoten dabela kristau sinismeneko liburu santuak gaiñera: Eta ardauak gizonaren biotza poztu egiten dau.

Orra batzuk. Lenakoe esaten ekien, esaera zarrak eta diru zarrak kutxan gordeteko zirala. Baiña diruekin gertatzen dana gertatzen da esaerekin: Gitxi dagozala ta kutxatik atara bear.

ESKU LANGINTZA

Amugilleren bat billatu nai ebalatu ba eta nekien iñoren barririk deika euki neban oraintsu lagun bat.

Geratzen ete da iñor?

Euskal itxasertzean ezagun izan ziran luzaro amugilleak, gure denporak a rre. Askotan kalea izaten eben lantegi.

Ogibide ori artzen ebenak, geienetan, bizar kentzailleak izaten ziran. Erdi-kako ogibidea esan bear, euren. Bezeroen utsune bitartekoa.

Ate aurrean ipinten eben euren maia. ZapaTa izaten zan, erdian tenteko bat eukala eta tenteko onetan iungura txikia, kako okergarria eta abar.

Berezia, tipikoa zan euren langintza.

Amu mota (klase) asko egiten zituen eta batzutan, batez be arrain sasoi egokietan, eskabideak ezin beteta ibiltzen ziran.

Amu okerrak edo lapurrak, txillamuak, eta ze arraiñen arrantzarako, alako izena euen amuak. Besigu-amua, lebatz-amua, atun amua eta abar ziran eurentzat ezagunenak.

Amuen izatea bere egiturako iru berezitasunetan gordeten zan: bere arkoa, gain gaiñeko zapalune edo txaplata, bertan tantza edo sokari lotuta eutsi al izateko, eta arpoiko zingiruna, etena, arraiñak, bein sartutako arraiñak, igesik egin ez dagien.

Amuak euren indar egokia bear izaten eben, zuzendu ez eitezan.

Orain esku-langintza ori zearo galduta dago.

Ba dirudi txalupak indar eta abiada geiago artzean, amu batzuen arpoi edo gangaillaren premiña be kendu egin dala eta orain arpoi zuzenak erabilten ditue askok, arraiña amutik azkatzen bear dan denporak kalte geiago egiten dabelako, bertatik urten leiken arrain bat edo beste galtzeak baiño.

Esan danez, amu batzuk arrain izena eroaten dabe, euren zeregin ezaugarri lez, baiña ba dago arrain bat bere izena amutik artua daukana, eta ez ain zuzen itxasokoa, ur gozotakoa baiño: amurraiña (trutxa).

Amuak, antxiñetan, euki eben euren duintasuna eta otzara-gilleak lez erri-rik geienetan egoten ziran itxaséertzean. Amuingoa eta orrelako izenak geratzen dira oraindik lengo etxeézarren izenetan.

Ba dago erderazko diran karnata eta abarren ondoan, beste deitura jator eta egokia arrantzalien artea: Amuzki.

Amugiñarako noruegar etxe bat sartu zan azpaldi Euskalerrian. Eta ez zan itxas ertzean ipini bere lantegia, barrurago baiño, ur gozo eta ugari egoan tokian baiño: Tolosa'n.

Tolosa'ko etxe onek oporketa (huelga) bakana euki eban 1907'ko Abenduan. Gizon bat kanpora atara eben zigarro erretzaillea zalako. Langilleak lana

geratu eben bera berriro sartzeari ebelako eta erretoko eskubidea eskatzen. Eta nausiak, atsedean bitartean, lau zigarro baiño geiago ez erretoko agindu eben. Ez eben nai, amuak espanean lotuta lez gizonak zigarroagaz ikusterik.

13-XII-83

ETA ETXEAN ZER?

Gure berbetak, izkuntzak, gero ta geiago kezkatuten gaitu.

DEIAn (20-1-82) irakurri gendun: Ramon Labaíenek jaso egin zituen "euskal irrati eta telebistaren aldeko 50.000 firmak".

Gitxitan batu izan dira gure errian ainbeste firma.

Baiña kontuz.

Izen eta firma orreik agertu dituenak, batzen zituen tokietan, esaten al eben zer ziran eskabidean azalduten ziran iru puntuak?

Gauza bat da euskera alde, bateko edo besterako, izenak eskatzea. Baina zeintzuk ekien, esate baterako, irugarren puntuan esaten dana "Euskaltzaindiak proposaturiko euskara batua, Jaurilaritzak euskara ofizial bakartzat bereganatua eta aldarrikatua ez izatu eziña dala" eskatzen ebela?

Labaien erantzuna zurra izan da oraingotan: "Gobernua gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta danetarikuak gaude". Geroa ikusi bear.

Beste itaun bat: izenpetu ebenen artean zenbatek ete dakie edo egiten ete dabe euskeraz?

Borondatea eta politika tartean... eta kitu. Azala. Oritzen asitako azala.

Gauzak baltz dagoz.

Kanpoan eta etxean.

Lotsatuta gelditu naz "Euzkadi" asterokoaren "Heskuara noiz jalgiko zira plazara" lana irakurri ondoren. (15-1-82).

Lehengo, "Euzkadi" berberaren orrialdetan iru zatitxo eta Euskalduntzen orri erdikagaz, orrialde bakar bat beteteko aiña lanik ez dagolako.

Gure aginpideko denporetan; PNVk (ez naz ausartzen EAJ esaten) gure agerbidetan nortasunik geien daukan aldi; erakutsirik zindoen emon bear litzaken garaian, idazlan berbera erderaz agertzean.

Idazlana (reportajea), ezpai barik, eza billatzen geiago egiña dala uste dot, txirristadaka labantasun billa baiño.

Gure andra errezatzaile zarrak esango eben lez: Gure errukirako eta "ari-ma pielen" onerako.

Orrelakoak ikusita lengora begiratzen dakit. Eta gure erakundea. Alderdia, bere agerpidetan zelan azaltzen zan gogoratu.

1893urtean, Larrazabal'en, Sabin'en esaera: Erri bat gara, izkuntza bat dogu, Jainkoak emondakua.

1904'n Otsailla'ren 14'n, Euzko Gaztedia zabaltzen da Bilbo'n, eta bertan Euzkeltzale Bazkuna.

1913'ko Otsailla'ren 1'an, "Euzkadi" agertzen da. Eta gain gaiñeko au irakurri eikean bertan: "Gaurko egun au pozgarria eta goragarria izango da euzkeldunentzat. Gure Euzkera maite-maite onek bai dauko gaurtik aurrera nun agertu egunero".

Eta Egunekua deitzen zan sail bat agertzen eban: Bertakoa da: "Euzkeraren aintziñetasuna eta edertasuna aitzea ezta naikoa, eriotzara daroan arrizku gorritik ateratzeko... Euzkeldun guztien artean abertzaleei dagokie euren enda goratu eta Euzkadi'ri euskeraz seme-autormena egitea".

Beste baten: "Gure elburua auxe da: Ezetzia izan dan izkuntza, bere tokian, bere maillan ipintea... batez ere euskeldunen izkuntza gure Aberriaren adierazpiderik bikaiñena delako".

1916'en, Otsailla'ren 15'an, "Euzko Deia" agertu zan, euskal giroa sortu nairik. Ainbat atal, giroari begira, beti euskeraz.

1929, Urtarilla'ren 15'an, "Euzkerea". Bere gogoa: "Euzkeraz itz egin eta irakasteaz, latin edo griego emoten dan otz eta laztasunez egin bearrean, maitasun, atsegiña eta beraganako zaletasuna sortu -azo".

Gaur?

Len esana: 52 orrialdetatik, danetara be bat bakarra euskeraz.

Arimea be galdu egiten jaku.

17-II-82

ETORRIKO DA MAIATZA...

Jango doguna lebatza, diño esaera zarrak. Gainean dogu. Lebatza alde batetik eta antxoa ugari ba letor, ez litzake txarra. Antxoa sasoi edo aldiko lenengo illa, Apirilla, makala izan da antxoatan. Txarra esatea zeatzago da. Utsa. Arritu egiten dira batzuk azken urte bitako antxoa arrantzuak jakin eta oraindik

antxoa fileteak merkatuan ikusteagaz. Egia esateko, agertu bear cia mundu zear toki askotan arrantzaten dala antxoa, nai eta onetan, mundu guztiak jakin, arrantzaten danik onena gure itxastarrak ekarten dabena dala, batzu tan Franztzeko uretatik eta bestetan guretatik. Eta gu merkataritzan ez gareala atzamarrak mixkaten geratzekoak. Origaitik nungoa dan izenik eskatzen ez daben artean, edonungoa be onentzat lez agertu.

Alegin biziak egiten dira "bajura"ko arrantzaleak euren burua jaso dagien, baiña gertaerak ezin okerragoak dira eurentzat. Kontu egin antxoa eta ega-luzea (atun zuria) dirala gure arrantzaleen oiñarrizko arrantzak. Besteak, txitxarro eta berdela, lagungarri ba dira be oraindik ez dira errentagarri.

Antxoaren etorkizuna, len esan dogun lez, urte bitan baltza izan da eta urte onetarako be lañoz beteta ikusten da. Onetan garaiz adierazi eban Asti bioloji ikerlanetarako erakundeak, bere azterketak aurtengorako antxoa urritasuna iragarten ebala.

Atuna, egaluzea batez be gure aldian, azken urieoian itxurotsu agertu izan da. Baiña ez ete da bere ikuspegia illunduko?

Ez da denpora asko irakurri gendula Azores'etako agintariak tratu bat egin dabela beste errialde batekoekin ango ureian atun arrantzuan ibilteko aukerak emonaz. Ori orrela dala, eta kontuan eukita atuna Azores aldetik etorten dala ona, arrantzan teknikaz beintzat, aurreratuen dabilzaneetako errialde bateri atea zabaltzea, guretzai kaltegarri izan leitekenik ezin ukatu.

Alde batetik guri atea itxiten... Zein da eskuak aske geratzen dana? Or dabiz noruegarrak be gure bakallau-arrantzaliei oztopoak ipinten. Luzaro euki dogu bakallaua aragiaren ordeko urteera egoki eta asegarri eta janari atsegin eta egoki lez. Gertuteko gure era berezi bat lortu gendun, mundu zear orretara jan eraginaz: bizkaiko erara. Bakallaua gertu leiken ainbai eraen artean, gureari nortasun berezia emotea ez da gitxi. Kontu egin ba dagola liburu bat bakallaua gertuteko urte guztiko egunetarako errezeta ez bardiñekin, au da 365 errezeta daukazana. Eta beste bat geiago, bisiesto urieiarako. Portugal'en argitaratua da liburu ori. Portugaldarrak erri-janari lez dauke bakallaua. Origaitik ainbeste era ezbardin.

Dana dala gu sukaldeari baino arrantzari begira geiago gagoz, ori dalako oraingotan gure erriaren kezka.

Eta etorriko da Maiatza eta ez dakit jango dogun legatzik, baina benetan poztuko giñake gure arrantzaliak ekarrirako antxoak Iialiatik zear mundu guztian zear zabaltzeko aukera gertako ba litz, nai eta oraindik gure izenik emoten jakin ez eta bai, orde, "antxoa gazituak italiar" erara deiureagaz zabaldu.

ETXEARRIA

Liburu barri bat plazaratzeak beti dauka zer esana. Oraingotan Lea-Artibai erriei buruz egindako aurreko bostei jarraituz, Etxebarriari dagokiona da seigarren au.

Lodia. 304 orrialde. Argazkiz orniduta. Kontuetan... erriari itxi bear irizpide.

Norbaitek itandu, galdetu lei: Erreza da orrelako liburu bat idaztea?

Errezago litzake zer kontatu edo zer agertu gaiago atara leiken erriena egitea.

Edozetara be or kalean liburua.

Bertako jakingarri batzuk: Euskerak jarraitzen dau Etxebarrian. Egon dan inmigraziñoiak, zorionez euskal jendea bertaratu dau.

Zenbat bizilagun gaur bertan? Biribillean zortzireun. lazko estadistiken araberan, Etxebarrian bizi diranetatik 672 lagun bizkaitar odolekoak dira: 82 gipuzkoarrak eta arabar bat. Naparrrik ez. Kontuan euki Etxebarria Gipuzkoaren mugan dagola, Eibar eta Elgoibar auzokide dauzala. Orrez gainera ba dagoz amabost lagun amerikar lez agertzen diranak, baina bertakoak dira edo tan bertakoen semeak. Zeaztuta, euskal jator ez diranak amaika dira. Eta amaika oneik be ez dira toki batekoak, bederatzi errialde ez bardinetakoak baiño eta Marruekos'tik etorritako lau.

Euskaldunen bizibide jatorreko urratsak geratzen dira. Bat esateko, errotak, nai ta bat ezik besteak geldi zaindu. Zazpi be egon ziran.

Burdiñola biren aztarrenak artzen dira.

Bizkaian garairik geien geratzen dan tokia da. Iburguen'goa zutik dago, oso ezaguna, Bizkaiko monumentutzat artua, nai ta ortako liburuan Markina'ko lez sartuta egon. Ba dagoz beste lau. Oraindik sagardaua egiteko tolarak geratzen dira baserrietan, nai ta banakak erabili, eta ogia erreteko labea daukenak be ba dagoz.

Eun eta berrogetak baserri eukitera eldu zan. Gaur batzuk, ainbat. utsik edo piñuen zaindari.

Armarridun etxeetan, or zenbatu leikez Ansotegi, Arnoriaga, Arostegi, Barroeta, Belarroa, Unamunzaga eta or baita Munibe, bere barruan Goikoetxea, Ibarra, Urkijo eta Gutierrez de Caviedes'enekin.

Len lau auzo: Alzaa, Aulestia, Galartza eta Unamunzaga. Paper zarretan "bereda" izenez bereiztuaz. Gaur bat geiago, etxebarrien eragiñez sortua: Erribera.

Auzo errietako etxeetan emen baiño ugariago igarten da Zenarruza'ko Kolejiata'ren eragiña. Emen Ansotegi etxeakoak euki eben zerbait. Burdiñolako irabazietan etxeakoandre bik euken zatia emoten eutsen an illobia eukiteagaitik,

aldare aurreko lenengo erreskadan. Ordez, bestea, menpetasun gogorrekoa Erretolaza baserriari ipini eutsena, Kolejiatak eukazan basoetan etxea jasotearen truke. Esan bearreko da Erretolaza etxea, eleizaz Etxebarriko parrokian sartuarren, lurrez Markiña dala.

Euskal literatur saillean ba dago Amalau eriotzeana deitzen dana. Euretarik iru dira bertan esaten dan Altzibarrenian gertatuak. Poema au euskal liburuetan agertzen da, baina errakuntza euki eben bai Lekuona, Leizaola eta Aizamak, euren liburuetan, erdal esana ipintean, Markin-Etxebarriko Altzibarrenean esaera, Altzibar'eko Martin Etxebarria lez erderatzean.

Eta azkenez, askok egiten daberen itaun-galdera: Zegaitik ez jake atsegin emengoei Markiña-Etxebarria deituta?

Nik uste dot erantzunean luze joan bear dala eta azken baten au: Markiña irasi edo fundatu aurretik, Etxebarria ba zalako.

Deia, 2-IV-1989

EUN EGUN

Ardantza lendakaria ez da asarretuko, beragaz gu egon ondoren, bere pen-
tsabide asko paperera ekartean. Nai ta egunkarietan agertu ez, beragaz egon gi-
ñan lau lagun, Euskadi'k daukan buruauste bateri buruz.

Andik ataratako alkar-izketa da gaurkoa.

—Eun egun. Luzeak, ez?

— Danak ogei ta lau ordukoak.

—Pozik?

—Danetara.

— Eta etxean?

— Kontu egin: Arrasate'n alkate nitzala, Gipuzkoa'ko aldun izendatu nin-
duen. Ni Donosti'n eta sendia Arrasate'n.

—Eta orain?

—Ba areik Donosti'ra aldatu an biziko giñalakuan, eta ni Gasteiz'era eka-
rri.

— Ta?

—Emen nagola, praille baten antzera, ia bizi-alargun.

—Ez al ziñan praille edo abade ikasten ibili?

—Ni al naiz orretan bakarra? Ez al da ori euskal agintarien oiñarri ta kurutze?

—Zer da zuretzat lendakaritza?

—Erri zerbitzua.

—Erraz ala gaitza?

—Norberak al dauana emon ezkeru, kontzientzia garbi.

—Lendakaritzako egunetan zer billatzen dozu geiago: gozoa ala ozpiña?

—Askotan errazuriak (esparragoak) be ozpiña eskatzen dabe gogotsuago irentsuteko.

—Buruaste ugari?

—Kendu ezin ala.

—Zelan ikusten dozu Euskadi'ren etorkizuna: baltz, zuri, illun?

—Edozelan ikusita be aurrera jo bearra ikusten dot. Arrantzaleak askotan, kalma zuritan etxean egoten dira eta ipar baltzetan arrantzara joan.

—Ezagutzen al dozu itxas bizitza?

—Nire ume aroa Ondarroa'ko kantalean igaro nebala ez dakizu?

—Zek kentzen dautsu lorik geien?

—Esnatu orduko zein buruauste kendu edo arindu neiken pentsaten jaikiten naz.

—Indarkeria, bear ba da?

—Orrek, eta lanik ezak, eta gure inguruko krisiak artegatzen nau. Diru krisiak eta moralak. Zek ez? Askotan uskeri batek zotin geiago eragiten dau.

—Laguntzarik artzen dozu?

—Esateko, ukapenak baiño geiago.

—Alderdiari agindu zeuntsan menpetasunak, loturarik emoten dautsu?

—Alderdiaren lotuera nire borondateko danez, ezin esan lotura danik, alderdikide baten kidetasuna jokatzea dalako.

—Kide berba eta gurari ori arrasatetarren jokabidetik jatortzu, ez?

—Arrasate'n, ezin ukatu, eskola ona euki neban alkar edo lagun bizitzarako.

—Eta euskera?

—Ez al gabiltz euskeraz?

—Baiña gaurko jokabidean?

—Jaurlaritzak bere politika daroa orretan, lendik.

—Eta zurea?

—Ez nabiltzu dakidan lez, bizi-bizi euskeraz egiten? Ni egintza zalea naz, beste gauzetan lez euskeran be.

—Eta Estatutoa?

—Gaur gaurkoz Euskadi itxuratu eta taillatzeko tresnarik egokiena.

—Noiz arte lendakari?

—Alderdiak nai daben arte.

—Lendakaritzarako kaku eta kate ez al da Alderdiari menpetasun ori?

— Alderdikide lez dakit Euskadi dala euskotarren aberria eta ni, edozer izan da be, azken baten, eta biotzez, euskotar guztien lendakari izaten aleginduko naz, dakidalako Alderdiaren gogoa be ori dala.

— Beste eun egunetara berba egingo dogu?

Etxea eta biotza zabalik daukadaz adiskide eta arerioentzako. Eta eun egun oneitan gure alkartasunaren alde egin doguna ziurtatu eta ainbestean geituko ba litz, pozarren.

Deia, 7-V-85

EUNEKO AMAR?

Zar sarituen kezka: Urte barriak zer ekarriko eta gero urte osoari zer lotu bearko.

Euneko amarregaz kitututen ete da bizimoduak gure azken aldi onetan egin daben gorakadea?

Ordizia'n nitzan urteko azken merkatuan.

Ibilteko aukerak ezaguera ekarten dau. Bizitzako eskola da ezaguera. Eta norbere barru txikitik urtetea.

Bizibideko neurriaren pultsoa izaten dira merkatuak.

Zepai bertsolariagaz gogoratu nitzan, ango gaztai saltzailleak ikustean. Norbaitek zirikatuta laster emon eban erantzuna arek:

— Gaztaia merke al dago

Idiazabal ortan?

— Preziyo baju ori

beti gerokotan;

baiña an ere artzainak

etzebiltzek lotan:

asko pagatu bear

ona jatekotan.

Aurtengo Gabonak zeruetatik erabili gaitue, jateko gauzen salneurrietan.

Eskerrak makallau zapal eta gazituari.

Deustu'ko adiskide batek esana: Aurten aiña makallaurik ez dabela sekula saldu izan bere bizitzan Gabonetan.

Besigua aidean ibili da. Bere arbiak urre biurtuta. Lebatza bardin.

Baiña ezagutu egin bear dira arrantzalien auziak eta goraberak be. Ba dirudi jendea kontura jausita ibili dala. Eta dirutza batzuk entzunarren, lenakoak esaten eben lez, ao-neurrikoak, ez da agiriko asarre bizi eta nabarmenik ezagutu.

Aurten be arrantzaleen egoera garraztuko *ete* dan bildurrez asi dogu urtea. Baimenak laburtu, arrantzako kupoak moztu, eta ordeztu bizimoduaren igoera oia arrantzaleak be artu bearke ba dabe, eta ori bidezkoa da, gaixoen batek arrain zuri merkea ezingo dau jan.

Egunotan irakurri izan dogu egunkarietan. Ia bosteun urtetako euskal arrantzalien arraindegien urratsak billatu dituela Terranoba aldean, lurrean eukiten zituen lantegi eta aterpeen arrastuak.

Gure zarrak gizon •zurak izan ziran. Edo ta orduko arriskuak zurtu eragin. Urteko osteran ondo egin ezker, urte berean ordaintzen ei zan ontzia, txalupa. Arrain ugari ta gizonen indarra ta teknika arrantsuaren arabera erabili ta ordaindu ezker, sinistu al izateko gauza da.

Arriskuak ziran bildurgarriak. Gizonak eta ontziak tatarrez erabilten zituen arriskuak. Eta askotan danak, gizon eta ontziak, une baten betirako ondotuten zituenak.

Orain, gizaldietako eskubideak agirian egonarren, makallauaren auzia be, beste arraien onduan, gero ta estu ta larriago ikusten dogu.

Ortarako gertutako txalupak be, bestelako arrasteruak Merkatu Batuan bereun milletako ostopoak daukezan lez, gero ta traba geiago billatzen dabe euren arrantzan nasaitasunez jarduteko.

Ori orrela, bizimodua euneko amar baten karutuko dan aurre-ustek, baliorik edo indarririk eukiko ete dau itxas urdiñetatik ikusten dogun bizitza eta ordaiñetan?

Urtearen azkenean san Txilibristo; ikusi bear doguna ordurako ikusiko.

EUSKAL ANTZERTIA

Euskal antzerti (teatroa) biztuko ete? Indar emoterik lortuko ete?

Asieratik esan daigun jendearen aurrean ezaupiderik eza igarten dala teatro gaietan.

Askok uste dabe, egunkariak irakurtean, ainbeste edo onenbeste talde euskal antzertilari dabiltzala euren lanen ikasketak egiten eta plazarako urteeren gertakizunetan.

Oker.

Ez da bardin euskal antzertia edo Teatro Vasco, eta euskerazko antzertia. Lenengoa, euskaldunak egin da be, edo euskotarrak egiña, erderaz egiten dana da. Askotan euskal gairik be barik. Emengoak dirala-ta ori artuta.

Gasteiz bertan, uriburu barruan, amabost talde inguru batzen dira kezka edo asmo orretan. Zenbat euskeraz? Bat bere ez, eta asko euskeraren etsaiak edo euskeraren ardurarik ez daukenak.

Izenak ez gaitu naastu hear, ez deiturak be. Eta zabalkundeak irakurten jakin bear da edo ta euren sakona oartzten.

Gaur, zoritxarrez, banakak dira antzerkiak euskeraz egiten diarduenak, edo ta egin leikenak. Ain banakak! Egille ta irudigille, bieri buruz nabil. Bai idazleei begira eta hai antziruditu bear dabenei begira. Bietan dago aztertu eta astindu bearra.

Eta ezpairik ez dago euskerari bizitasun eta indarra emoteko bide egoki bat or dagola. Errietan euskal sentimentua aizetzeko era bat or dagola. Bai ikastolotako taldeen bidez, bai eta batzoki, laguntalde eta abarretako taldez, bai eta antzezgille saritu, ordaindu eta ortik irabazi leiken batzuen bidez.

Milla ostopo daukez gaur euskal antzezlari taldeak.

Bat batetik, apaigarri eta edergarriak, jantziak, irudigarriak, argiak... ezin leikiez beretzakotu baten edo birritan antzerkiren bat egin eta banatu ta desginda geratzen diranak.

Zuzendari ikasirik be ez dago...

Ba dirudi utsune oneik, utsune andi ta bete-beteko oneik, lanean asi aurretik Euskal Jaurlaritzak beteteko asmoa dabela Kultur Sailaren bitartez.

Donosti'n, Andia kalean Kultur Sailak daukan etxea. ortarako egokituten dabilu zati eder baten. An sortuko da, beste erakunde batzuen artean, Euskal Antzerti eskola.

Ortarako antzeztoki txiki bat eratu da etxe berberaren berengo oiñean. Berreun lagun inguru ikusle sartuko dira. Baiña ez da ori akats. Antzeztoki apain eta egoki bat gertu da. Antzezlarien ardura dauka eskolak, ez an sartu leikezan ikusleena. Eta an, gauzak artez egiten erakutsiko da, argi, apaindura, erabide eta abar gaurko teknika eta ikuspegiz zainduta. Orrez gaiñera argi eta tresnak

bertatik kanpora errietara eroan al izateko aukerako biltokia ipiniko da. Eta jantzien "museo" dalako bat gertuko da.

Orrela, errietan sortu taldeak ango laguntza eukiko dabe, ez dirutan, tresna, jantzi eta abarretan baiño.

Askotan laguntza ori onurakorrago izan leike, eta izan be egingo da, di-uzko eskupeko bat baiño. Eta edozein erritan, edozein antzerkik eskatzen daben egokitasuna eta apaindura zaindu al izango da. Orrelakorik ez dogu ezagutu izan orainarte gure errialdetan.

Eta zuzendarien ikastaroak be gertuko dira eta batetik bestera ibili leikezan zuzendari batzuk ataratea lortu nai da, errietan ikasten asi]eikezan taldiei, zuzendari ikasiak emon]eikezan aolku eta irakatsiak emon eta aldatze ta zuzenketak eraginaz.

Oiñarrizko bidea uste dogu au antzerki arduetan.

Ez gabiltz beti akats billa, batzuk uste daben lez. Ba dakigu txaloak joten be. Gaur lez.

2-I-82

EUSKAL KIXOTEA

Urteak dua "Kixotea" ren lenengo zatia euskaraz agertu zala.

Zegaitik bigarrenik ez?

Merezi eban liburu orrek bein beingoz amaitzea. Besterik ezean munduari erakusteko euskerarentzat ez dagola errietako elertian (literaturan) idazkera garbi eta errikoian euskeratu ezin leiken agerkairik.

Diru kontua izan lei kaku, eragozpen eta ezintasun argitaratzean. Baiña euskaldunok ba doguz oraindik euskera amandik titiagaz batera artu ebenak, eta beste izkuntzetatik euskerarako korapillo eta nabarmenkeririk ez daukenak. Eta gure izkuntza iturritik urak urteten daben lez garbi eta geratu barik darabilenak, eta Santxo berberak baiño gauzak patxada, jatortasun eta berezko gazteez egin, osotu eta agertzen dakienak. Eta jokabide zintzoa erabiltearen ekiñez lanean asi eta ekitean eta lana aztertzean barre nasai, garbi eta bizi egin eta eragin leikenak.

Kijote berbertan ez al da irakurten alako a: "... yo señor, porque sé leer y escribir y soy vizcaino?".

Eta Santxo'k bere aldetik erantzun: "Con esa añadidura bien podéis ser secretario del mismo emperador".

Ori be, aldi baten, ala izan eikean. Gaur ba dagoz orretan sotzak eta koskak. Baiña ez gaitezen bide latz eta otatsuetan sartu.

Edozetara be, ba dirudi Kixoteren bigarren zatia aitatasun on baten eskue-tan jausiko dala eta kalera urteteko eran laster jantzi eta gertuko dala.

Ez leuke orretan nasaitasun gitxi artuko euskal gaien argitaldaritzari ondatsunak eta bizia emoten dautsen Estornestarrak. Ez eta gaur anka belaunetik moztuta gaixotegi baten egonarren, laster Santxok baiño makilla andiogoagaz ibiltzen asteko garretan dagon Berrondoneko Pedro batek. Nundik norako umore txarrak eta gaiztoak euki ete ditu berak, odolak ainbestean loditu eta zortuteko?

Abade eta mixiolari, euskaltzale eta Kixoteren euskeratzaile... amets asko egiten dakien gizonen ezaugarri ez ete dira bereak?

Oraintsu, euskeraren arduetan kezkatuta dabilzan batzuk, itzultzaileen arteko eztabaida eta artu-emonak euki zituen Donostin. Eta itzultzaile zeregiña, menpetasun garratz baten eta sarri biotz-errez egin bear dan arazo lez etsitera eldu ziran. Ai ene, goietan dagozan buru gogor eta ikusmen itsudunez abertzale batzuen menpean lan egin bear daben itzultzaileak! Nai ta ondo irabazi. Bestelako langilleak ez ete dabe sekula eurak dituen eritzi eta irispideen aurka lanik egin bear izaten, lanaren morroitzan?

Ba dirudi euskaldunok, oraiñarte lez, Kijote izaten ezagutu gareanok, gure munduari azkenak emoten diardugula.

Odol eta gar barriak datoz atzetik. Alaz eta, besterik ezean izenaren oroitza lagateko be, merezi eban gure arteko "arlotada" lez Kixote amaitu eta zabal-tzea.

Egunen baten, jakintsu bakanen batek, esateko aukera artuko dau: Au euskeratu dauana, ez Errege batena, Euskalerriaren idazkari on izan eikean ba!

Baiña gaur... esanaz bakarrik kontenta adi.

EUSKALDUNAK ITXASOETAN

Gure gizaldi zaarretako kontu asko aztertuteko dagoz. Zaarren zaarrez laga ta or ezkutuan. Gero ta gaitzago zeen artetik ataraten.

Arrantzalien kontuetan, arrantzalien kofradiak eta elkarteak aitatzen diranean, beti billatuko dogu idatziz baiño oiturazko jakingarri ugariago doguzala.

XIV'garren gizaldian asi ziran Kofradien kontuak paperetan idatzita lagaten. Kontu eta legeak. Eta eurak irakurtean jakitzen da ez dirala lege barriak, oituraz etozanak baiño; endaz etozanak barriztu, argitu eta gerorako lagateko idatziak baiño.

1365 urteko batu-aldietan irakurten da, gitxienez bosteun urte lenagotik datozan legeak dirala, nai eta urte orretan batu. Ba goaz ba zortzireundak urtetara.

Beraz euskal arrantzaleak gure errietan noiz asi ete ziran batu eta alkartzen, denporen illunpean laga daigun.

Ba dago beste galdera jakingarri bat. Noiz asi ete ziran euskaldun arrantzaleak Terranoba aldera joaten?

Oneri billatu leikio argitasun pixkat.

Batzuen ustez, XVI'garren gizaldiaren erdian. Ala uste dau Martin Fernandez Nabarreta batek. Onen eritzietan beste norbaitzuk aurrerago egin eben osterari.

Baiña baten eritzia laga eta besteekin sartzen ba gara, frantzetar kosmografu on batek luzeagora eroango gaitu. Onen esanetan, 1534 urtea baiño leenago, euskaldunak Canada ingurutan ibiliak ziran.

Aldi aretan, itxura baten, naiago izaten eben bale-arrantzan ibili, bestelako arraiñen arrantzan baiño, eta origaitik iñoiz irakurri leikena da, ara joan eta ez ebela gauza andiririk billatu, egokitasun andiririk aurkitu, bakallau kalak ezik; eta oneik ez eukela eurentzat, aldi aretan, ainbesteko garrantzirik.

XVI'garren gizaldian, erdi-ingurura, Canada'ko Saint Laurent inguruan. ezagutu izan eben ugarte bat, isla bat. Kapitanen batek gerrako isla be deitu eutsan areri: eta askoren iritziz, ain zuzen be euskaldunak billatutako ugarte zan. Askoren deituran, "Euskaldunen ugarte" izenarekin ezagutzen zan.

Ortaz, XVI'garren gizaldirako euskaldunak Canada'ko urandietan ebiltzala ziurra da. Onak ez gaitu beartuten urte bat izentatzera. Gizaldi ori orduko, an ebiltzala esatera baiño.

Atzerago joaten ba gara, billatuko doguz. Colon'ek Ameriketarako osterari egin aurretik, eun urte lenago be, euskaldunak ba ekiela Canada'ko barri. Onetan be idazleak bakoitzaren bidetik eta bakoitzaren asmo eta gurarietatik jokatzen dabela konturatu leike. Origaitik hata-besteekana bitarte luzea billatzen da.

Euskaldunak itxasoetan zer ziran agertzeko, gure erako gauza eta eritzi as-

ko be billatu giñeiz. Esate baterako, 1671 urtean Gueche kondeak egindako agiri baten ba daki esaten, iñoiz konpañi andietan ebiltzanean, toki batera eldu eta euskaldunak an galdutzat uste izaten zirala; ez ebela jakiten nun egozan. Baiña kontuz. Iñork eroaten zitunetan, au da, iñoren menpe joaten ziranetan. Euren kontura urrunago joaten zirala, luzeago ibilten zirala eta ziurrago ere bai, galduta ebiltzala iñoiz pentsatu barik. Origaitik ez ebela konpañi andietan ibili nai izaten, norbera gain baiño, Orrela, euren kontura, nai eta bidez ez-ezagune-tatik ibili, ba eukela berezko teknika bat, nundik joaten ziran konturatu eta gal-du barik etxetara biurtzeko.

Lancre'ren eritzia: Euskaldun itxastarrak trakets eta baldar eta gitxi zain-duak zirala; eta, bizia arriskuan ipinten ebela konturatu gabe, beste iñor ausar-tzen ez zan eran sartzen zirala itxasoaren sakonetan. Euskaldunak itxasoaren tengadea erabillega soiñean eta odolean; eta bide gabeko itxas aundietan ibilte-ko garra.

El Diario Vasco 10-X-76

EUSKERA LORE JOKOETAN

Euskal Lore Jokoen ospakizunak *lengo* gizaldian asi ziran. Lore Jokoak beti eratuten dira toki bateko izkuntza goratzeko.

Euskal Errian, euskal leiaketen aita D'Abbadie izan zala esan giñei.

Berari esker sortu ziran emen orrelako jaiak, 1853 urtean asita, Iparraldeko Urruñan amaika urte jarraikoetan. Gero beste amabi urtetan Saran. Urrengo Dona Paleu eta 1878n barriro Saran. Utsune bat *egon* zan 1870 urtean, gerra bitarteko.

1879 urtean Elizondo eta Donostin ospatu ziran. Eta ordutik asi ziran gure lurraldean.

1880 urtetik ugaritzen asi ziran, urte aretan Begoña, Bera, Donosti eta Maulen ospatu ziralako.

Iparraldean egin ziran leiaketa, lore-joko eta euskal jaietan, ogei urtetan, angoak bakarrik agertzen dira euretara, eta ez besteentzat oztoporik egoalako.

1874n agertzen da bat, bizkaitarra bera, eta sekulako asarrea sortu eban bere lanak, politikaz bete eta kutsutua zalako. Sara'ko alkatea ukatu egin zan erriaren aurrean kantu ori agertzera. Kantu ori liberal eta karlista arteko gerra-

teari buruzkoa zan. "Jaungoikua eta Errija" deitzen zan, "Bizcaitarra" izenordeagaz agertua Egilleak M.A.E. izkietan eskutatzen eban bere nortasuna.

1879 urtean agertzen da gero ainbesteko ospea lortuko eban Felipe Arrese Beitia, otxandiotarra. Bera zan irabazle Elizondon, "Ama Euskeriari azken agurra" deitzen zan lanagaz.

Arrese Beitia miñez dator bere olerki orretan. Biotza urratuta. Euskeraganako maitasuna galtzen igarten dau, euskal zaletasuna otzitzen.

Bere negarra ez da amorruzko agurra; bere illeta ez da gorrotoz sortua, miñak ezin iruntsitakoa baiño.

*"Ainbeste gerra goitu ezinda
danori atzotu zara, zaurien
zauriz galdu galduta
amatxu zuaz iltera".*

Baina Arresek amari ilten laga barik, bere makaltasuna indartu, bere anemiamia sendotu nairik dator Bere kantuak euskal biotzei errukizko deiak dira.

Ogei ta bi urte geroago Bilbon Lore Jokoak, Bilboko Udalaren aitatasunpean. Ain zuzen 1901'ko Abustuaren 26'an Ekintza nagusia Arriaga antzokian

Lore jokoetan oiturazko da euren goresle bat izentatzea. Lore Jokoen ardurara, izkuntza goratzea da beretzako maitasuna zabaltzea.

Unamuno aukeratu eben zeregin orretarako.

Ezin ukatu Unamuno'ri jakintsu nortasunik. Bakoitzari berea. Gaitasun barik ez zan elduko igo zan mailletara.

Baina zelan parkatu berari egun aretan, eta ez errukiz eta miñez, zitalkeriz baino, bertan egozan entzuleak be asarre bizian jagi eragiteko eran esan ebana? "Euskera ezeztatu bear da, ez dalako iator eta egokia gure denporetarako, eta basatikeri, ez jakintasun eta itsukeri baten aldia gogoratzen dauskulako".

Ori esan eban Unamunok.

Arrese Beitiairen negarra, biztuera itxaro-naian emoten dan azken-igortza lakoa zan. Unamunoren esana, itsukeri eta indarkeriz bat tiroka eratsi nai danean erabilten dan laido eta irainezko berbeta.

Bear ba da munduan egiten diran izkuntza aldeko joko eta jaietan, sekula ez zan entzungo ainbestekorik, norbere jatorrizko izkuntzari buruz.

EUSKERAREN UDABARRIA?

Udabarrira urreratzen guaz. "Basarri"k, 1954 urtean Udabarriari egindako bertsoetan, aapaldi bateko amaiera onela egiten eban:

Gure izkuntza maitearentzat ez da al da Udaberririk?

Udabarría apaindura ba litz, begiekin ikusten dana bakarrik ba litz, ezpai barik itxurak onak dirala esango genduke.

Ormetara begiratu ezker, garretan eta gerretan gabiltz; liburueta begiratu eta Kristo'ren jaiotzatik onako gizaldietan baiño, urtean geiago argitaratzen datorka dabiltz irriatiak, or Telebista...

Euskal sariketa eta leiaketak, lengo fraileen dozenetan, au da, amabi orde z amairuka.

Baiña... Barrutik, zer? Zenbat irakurten da? Zenbat ikasten da? Lagun artean zenbat egiten da?

Zenbat irakasle eskoletan euskera jator emoteko duin? Zenbat irakasle Unibersidadean, gaitasun bat edo beste ikastaro osoan emoteko gertu, eta bes-tetik zenbat toga eta birrete cdo titulu eskale ortarako gertu?

Zenbat Alderdi, sortzez euskalzale, arauetan orren maitale, besterik ezean batzar eta jardunaldietako agiriak euskeraz egiten dituenak?

Txistu garratz asko irunsi bear izaten da etxean bertan, baiña... billatu ete leikez iñun, euskeraz Bizkai ko Batzar Nagusietako azken lau urtetako Batzar Agiriak?

Noiz agertuko da Bizkai'ko Egunkari Ofiziala bere osotasun guztian, gi-txienez be euskeraz eta erderaz, Aldundi berberari dagokiozan Agiri eta Agin-du batzutara mugatu barik?

Eta Bizkaia'n Aldundia ete da euskeraz egitera bearturiko erakunde baka-rra? Zer egiten dabe erriaren dirutik bizi diran banketxeak, aurrezki kutxa eta abarrek?

Zek egiten dau Euskal Telebistaren entzulegoa eta ikuslegoa, kate bakarre-ko zanean euneko ogei koma zortzi izatea (20,8%) eta orain kate bi daukaza-nean euskera erabilten dauan katea lotsatzeko aña beratzea, euneko sei koma bederatzira (6,9%) egunkarietan agertu dan lez?

Ortik kanpora, zelako euskeraren kezka agertzen dogu, bera jator erabili al izateko, Kataluniar Telebistan katalanera zaintzeko amaika lagun dagozala iz-kuntzaren begirale jakin eta gure ETB orretan lagun bakar bat egon zala daki-gunean, eta berak gogaituta bere ardura itxi egin ebala zabal danean?

Zer erakusten dau ikastetxe baten kursoa euskeraz egin nai dabela eska-tzeak, eta gero azterketak erderaz egitea eskatzeak?

Gaur Euskal Komunitade Autonomoan berrogetalau milla lagunetik gora doguz erri langille lez alogera artzen dabenak, iru Aldundietan beste ia zazpi

milla ta seireun, eta udaletxetan beste amairu millatik gora. Au da, danetara ia irurogei ta bost milla. Zenbatek dakie euskera paperetan erabilten?

Udabarria deitu ete leikio, nai ta egutegietan atakotzat ezagutu, euri, kaskabar eta aize miñetan igaroten dan aldiari?

Eta udabarria baita, gurariak gurari, gaur igarten dogun euskeraren egoerari?

13-III-88

EUSKERAZLEAK

Itzultzaileak deitzen dautse Udaletxetan euskerara biurtzen diarduen langilleei.

Euskerazle egokiago deritxat. zeatz deituta euren zeregiña ortan dagolako.

Burukomin asko emoten diardue errietan.

Errua gurea da.

Euskeraz artu edo idatzi eragingo ba gendukez gauza guztiak. eta bestiei itzuli eragin, eurak litzakez orduan estu ibiliko litzatekezanak.

Baiña luze ikusten dogu ori. Ain urrun!

Gasteiz'en bertan Eusko Jaurlaritzako etxean, "Lanarigo sarrera"tik sartu ezkerro, ez dakit ze gertaten dan barruan. Baiña "Bisitari sarrera"tik sartu eta "solairu" batzutara ba zoaz, laster igarten da gain-gaiñetik an be nundik dabil-tzan errenka.

Ainbat alkate deituta egozan tengo baten. Euskerari indar berezi bat emon eta bultzada barri bat eragiteko asmotan, alkateen begiak argitu ta euskal kontzientziaren bizi miña suspertuten.

Alkatentzako gertuta egozan Kultura Sailako 45 orrialdeko karpitetan, deitura bat edo beste kenduta, beti ere deitura utsak, euskerarik ez zan ikusten. la latin geiago "curricula vitae" eta antzerako atal buruekin.

Eta nik diñot. Orrelako berogarri eta adigarri bat ezin ete zan goitik euskeraz egin?

Nun eta zetan gabiltz?

Ez al dakie angu teknikoak "Excmo" eta "Ilmo"ak zelan euskeratu bear diran, eta errietako itzultzaile edo euskerazle ez-ikasien arduratan laga nai ete dabe ori?

Benetan. Arimea be galtzeko zorian geratzen da bat sarri.

Bitartean, errietan, itzultzaillien eztabaidak.

Gure mutil edo neska gaixoak idazkari askok erdera trakets eta biurrian egiten dituen agiri asko ezin euskeratuta. Eta zelako politika alako egurrak eta zapladak.

Erri baten "Garoa" eleberriko asierako Joannes'en atalari usaiñik be artzen ez eutsen bietatik bata nai beste izentatu bear zirala ta asarre ibili ziran. Beste baten, borondate osoz alegin bizian diardun langille zintzo bat, akatsak sartzen ditula-ta kendu nai dabe. Bitariean, jakiña. politika.

Eta ba al dago euskeran ainbeste zeregiñetarako ikasirik?

Baietz esaien ba da, españar politiku batena gogoratu bearko dogu. Gitxia-go ibili ta egunkariak geiago irakurri bear direla.

Euskeran, zoritxarrez, maillak (nibelak) beian dabiltz. Katedra batzuk gei atara ta ezin bete, gaitasun batera eltzen ez ziralako euren billa agertzen ziranak; irakasle batzuk atara nai eta orrela diardugula, zelan eskatu ikasteko beta-rik euki ez daben gizonei, akatsik ez egiteko?

Udaletxetako itzultzaillak. nire ustez. ez leuke idazkariak erderaz egiñiko agiri edo aktaen itzulpenik egin bear. Eurak jaso bear leukie bakoitzaren erara batzarreko agiria, entzun edo artu ala, batez be euskeraz egiten dan udaletxe-tan, edo ta bestela esan naia artu idazkariak egiñari. eta nai ori euskal kutsu ta mamiñez bete, erderaren zeaztasunari begiratu barik.

Esan ete leikie euskeraz itz egiten dan udaletxetan, erdal idazkariak ango esana zintzo jaso dabela?

18-X-81

EUSKO T.V.

Kanpaiak joten asiak gara gure Tele-irraia eukiteko aukera dogula ta.

Jakiña, gure tele-irradi, telebista, ikus-irradi, urrunirudizkin, edo dana dala-koak, erdaldunei emongo dautse tokirik ugariena, gure errian, Euzkadi bedeinkatu onetan, kontseilarietatik asita, erdaldunak euskaldunok baiño ugariago diralako.

Eta euskerari? Euneko ogeiren bat?

Eta euneko ogei orren barruan, zenbat bizkaierari?

Nik ez dakit zegaitik, sortu zan deitura baiña orain berreun urte inguru, gure udaletxetako batzarretan sarri erabilten eben deitura bat: "gitanos o castellanos nuevos". Ortaz berba egiten eban lege bat agertu zan eta orren ondorena zan.

Gure egoera ikusita sarri pentsatuten dot nik bizkaitar euskaldunok ez ete garean beste euskaldunentzat euskaldun motxailleak, ijitoak, Naparroa'n ain ezagun izan ziran agoteen antzeko.

Erabagi bat, lege bat, agindu bat, ezin dogu ikusi bizkaiera beste edozein izkelgiren eskubide edo osotasunez ezagutzen egiteko asmoz jaioten.

Zerbait lortzen ba da, ekiñaren indarrez, ez legeak edo aginduak eta egita-muak pentsatu eta asmatzen dituenen gogoz.

Bizkaitarrok sarri asarretzen gareala diño.

Asarretuko ez gara ba gauza guztietan, banan banan, euskera kontuan, besterik ezean aintzat artu ordez, baztertuten ikusten gara-ta?

Guazen gurera.

Irrati eta telebisiñorako asmo batzuk zabaltzen asi dira.

Irratietan lekuan lekuko euskera egiteko eragozpenik ez ei da egongo.

Baiña ikuskiñean euskera batua bakarrik erabiliko ei da.

Orrelako asmorik ba da... Aolkulari batzordean dagozan bizkaieraren alde-koei, lagun askoren izenez, au esango neuskioe:

Ez garraztuteko.

Bizkaitarren asarrearen testigantza garbi ta zeatz lagateko. Gogor, sendo eta berba gitxitan, errazoi guztiak mai gaiñera garbi atarata.

Eta kittu.

Arduradunak pentsatu dagiela zelan jokatu. Pentsatu dagiela ez gareala agotak, motxailleak, eskubide barik tatarrez erabiligarriak.

Laugarren ikusbidea, kanala, ez dator ba?

Orduntxe jakingo dogu zer egin.

Euzkadi guztian, euskaldun guztien artean euneko berrogei inguru ba gara bizkaiera egiten dogunok, gaurko arduradunak jakin bear leukie gaurko jaurlaritzak aginpidea daukan lurralde txikian, Euskalerra irukoitzean, euneko berrogei ori gure alde anditzen dala.

Gure kontzientziak aginduko dausku sasoiz zelan jokatu, gure iragarki, za-balkunde, ekintza, agerbide eta laguntza emotekinr

Euzkadi batu baten jokatu nai dogu, baiña beste edozeiñen eskubidez. Eta ori ez da bakarkeria, ez da "probintzikeria", batzuk uste daben lez.

Sekula ez gara probintzi izan euskaldunen artean, jaurerri baiño. Origaitik, iñoren eskubiderik ukatu barik, bestien aiñako eskubide bardiñeko jaun izan nai dogu gure errialdean. Berbetako, entzuteko eta ikusteko.

EZ GARA DANOK

Portugalete'n nitzan igandean. Enkarterritako euskal giroa ezagutu eta bizi naian.

Toki egokia, zelaidi zabala erri gaineko zelaidia.

Jende asko artu eta jai ugari egin al izateko lekua.

Familien eguna lako giroa. Gurasoak umeeekin. Eta guraso ta umientzako ikusgarri ugari. Eta txosnak.

Su-itzaltzailleak, gomazko gaztelua, buruandiak, indar erakusketa eta antzerakoak, unie ta zarren ikusgarri ta atsegin. Liburu dendaren bat, ez ain besteko zorionez.

Bideetan musika eta dantza talde ugari.

Ta euskera?

Sartu orduko orri bat: "Potugaletek bereguneak behar dite". Erderazkoa irakurri ta konturatzen naz berdeguneen eskabidea dala. Orren alde be "ibili" egin bear.

Ezin ukatu erdal-lurraldean gengoza.

Sarrerako maietan be, erderaz egin bear. Txosnetako bale-trukeak be erderaz. Eta erderaz baita jakien eskabidea...

Gu euskaldunok ez dogu balio orrelako tokietara joateko. Negar ixilla igarten dogu, itzala, gure artean.

Musika joten eta jendea umorezko abestiak abestu eta dantzatuten. Eta nik gaur giroko edo modako diran erakundetean pentsaten neban: Aukera obeagorik onelako egunetan baiño, berba gitxiko abestien bat euskeraz sartu eragiteko? Edo ta'elebitasun erraz eta garbi bidez, jai usaiñez beteta, besterik ezean, esae-ra batzuk; edo ta eskabide baizuk, edo ta janari izen batzuk, edo ta tokien batzuk euskeraz sartzeko?

Gure lendakaria eldu zanean, sarreran bertan nengoan.

Garbi ikusi neban arrerako txaloak asiagaz batera, nire alboan ordurarte geldi egon zan talde bat zelan asi zan tolestuta eta erdi eskutuan egozan kartoi zatiak ariñeketa bizian artu eta zelan asi ziran lendakaria eta Etxenike jauna inguratzen, gertuta euken oiubat esan eta esanka.

Bat-bateko inguratzea izan zan. Igarri zan, geientzat uste bakoa zala. Banakak konturatzeko erakoa.

Origaitik garrazkeriaren izurri lakoia igarri neban gure agintarien arpegietan.

Eta bidea asi eben, euskeraren aldeko "ibilaldi" itzala. Mesede egin nairik eta jaiari ospea emon nairik etorri, eta errudun lez, didar eta zarata asarreentsetan.

Ez gara emen danok. Presoak falta dira. Arein utsunea dago...

Egia. Baiña egi gordiña bestea be: Eta illena.
Euskeraren aldeko ibilaldia zan. Euskerari bidea eta tokia zabaltzen laguntzeko eguna.
Eta orixe be, ez gendun jakin euskeraz esaten.
Euskeraren egunean, euskeraren utsunea be gordin, mingarri, larri eta etenkor igarten zan.
Alboan La Florida'ko kanposantuko zipresen berde illuna igarten gendun.
Eguna be laiñotsu zabaldu zan.

21·V-82

EZ LOTSATU, EKIN

Ixilik egon zaite amuma, zuk ez dakizu berbetan-eta! Nire ama zanari olakorik iñor esan ba leutso, bereala erantzungo eutsan: obeto egingo zenduke surzulo pandanguak garbitzen ikasi, iñori ixilik egoteko agintzen ausartu baiñolen.

Diño, eta ni siniste on eta errezeko naizen lez, sinistu egiten dot, frantziskotarren konbentu bateko kapituloan, fraile batek salatu egin ebala Anai zar bat, lego zar bat, Aitarenik ondo egiten ez ebala ta.

Eta mai buru edo bere jarleko nausian egoan fraileak, Anai zarrari samurki esan ei eutsan: la Anai ikasi egin bearko dozu Aitarenik ondo egiten. Ori entzun eta Anai zarrak, minduta, erantzun ei eutsan: Nik ez dakidala? Iri nok erakutsi eutson ba?

Ain zuzen frailetan Anai zar zana, konbentu aretan nagusi zan fraile berberaren odoleko aita zan, alargun geratu ondoren bere bizia Jaunaren zerbitzuan amaitu nai izan ebana. Eta konbentuan Aita nagusi zana, Anai legotzat ebillan odoleko seme, ortara.

Astean, adiskide batzuk ikusten nitzan.

Iru belaunaldi etxean: Amuma, alaba eta onen alabak. Txolin utsak neskatxoak; beti lez atsegin euren ama, eta ixil, mutu, miñez, tartetan negarra be urteteten, amuma.

Ekaitza igarri neban euren artean.

Une egoki baten, alabak jakin eragin eustan zer gertatu zan.

Illoba batek, amumari, berbetan ez ekiala ta ixilik egoteko, esan eutsan.

Amumari barruak artu, euskera baiño sekula besterik ikasi eta jakin ez ebanari, ume moko batek ori esan bearrak.

Alperrik ekin alabak jaramonik ez egiteko, umekeri bat zala-ta, umeen lotsabakokeri bat zala-ta. Baiña zelako gogoetak eta zelako filosofia itzalpean sartu eta mututu ete amuma?

Larogetak urte euskera bizi bizia egiten. Sekula trabarik ez, eta orain berak erabilten daben euskerak ez dauala ezer balio ta ixilduteko, berari!

Zoritxarrez gertaera au ez da bakarra. Nik ez dakit zegaitik dan baiña gure artean txoke andia sortu eragin da. Ez da jakin bateratzeko bide bat samur erabilten. Ez da lekuko ardurarik artu. Eta izugarrizko prohemak sortu dira.

Azkenean dakienei, sentikorrek ba dira, mututu eragin arte.

Gure egoera au bizirik gainduten dabenak izango dira testigu, errialde batzutan eta batzuekin erabili dan eta darabilen jokabidea zentzuzkoa dan.

Baiña amuma zarrari, iñoiz egirik esan ba dausat, au esateko nago: Ez bildurtu amuma. Izkuntza, berbea da, eta erabilia izan bear dau, bizia. Guk idazten dogunok, zerbait dakigula pentsatuarren, jakizu, zuk guk baiño askoz geiago dakizula.

Entzeraduan lau berba ipiniarren, erabilten ez dakienak, ez dira iñor, zure loben bitartez zuri esateko zuk ez dakizula euskerarik.

Ez zaite lotsatu. Adoretu eta ekin euskeraz, dakizun eran. Zuk gure izkuntza, erabiliaz, euskeraz egingo dozu. Eta euskeraren balioa erabilten dago.

Besteak paperetan lagako dabe, erderazko letretan. Zuk, dakizun lez, bizi eragin.

6-V-85

EZAUPIDE ERDIKAK

Illabete inguruan gortuta bizi izan naiz

Zartzaroko gauzak

Osagillearengana joan nai ez nai ta "igualatorixo" eta babes edo asegurantzak euki.

Ekin eta ekin. joan nitzan.

Osagillearen aurre-gelan. andra ta umeak danak.

Amatasunean aurrera datozala igarten diranak; umez betetakuak, oraindik

ba dagoz batzuk. eta euren arduraz neketan dabiltzanak; zirin-zirin eta mirrin dabiltzan umeak; ezgul eta katarrodunak... Nire ikuspegiarako, orrelakoak.

Ez neban entzuten eta atakotzat iruditu nitun.

Gela aretan alkarri begira ixillean ez egoteagaitik. al dala ez nitzake utsez joango

Ta zer dauka gor egoteak?

Telebista bardin ikusten da, ta ez da gaitz, gitxi gora bera, zer esaten diardun Igartea. Egitarau asko... bestetan be ez dodaz ikusten da ortik ez neukan kezka eta ardurarik. Gaitzik ez alde orretatik.

Idazteko... ia obe norbere bakartade ta ixiltasunean.

Lotarako... baita. obeto. Gor negoan bitartean, nire gela zaratatsuan ez neban ezer entzuten, nai ta bide nausi gain-gaiñean lo egin. eta gaurko kamioien zaratak itzalak izan. Geroztikoa da iru-lautan esnatzea, kaleko zaratak urduritu ta loa galdu eragitea, andrearen amets eta inkesak kezkatu eragitea, eguraldien ekaitz eta boladak nabaitutzea eta ikaratzea.

Lagunartean, batzarretan eta abar, bai kontxo!, or ha dago akatsa. Erdirik entzun ez, buruagaz bai agertu, eta kittu.

Norberak itz egiteko be bai. Ba dirudi bestetan baiño ixillago norberak be jarduten dabela eta lagunak arduratan ipinten dirala.

Ortik kanpora.. gogortadea ez da ain zuzen be Jaunak emon leiken gaitzik txarrena.

Orain telefonoaren tirriñak berak zirtzart eragiten daust belarrietan. Len, iñor etorten zan nire gelara aurreko telefonoa tirrina ioten ebillala adierazoten. Egia esateko, gaur, idazkaritza baten telefonoak ez ditu beti gauza gozo ta arduratu bearrak ekarten.

Eta ni, erri oituren zale izanda. zegaitik ez ete nitzan erri oituren makurtu, gortasun ori kentzeko?

San Gregorio ez daidala asarretu, baiña osagillearengana joan aurretik botika baten sartu nitzan eta ori kentzeko zer ete egoan galdetu be bai. Amar ogerleko kostatzen dan olio pixkat emon eusten, tantaka belarrietua jaurtitcko. Nire artean esan be bai auzoan, Berriatu'n euki argiaren truke San Gregorio'ren orio bedeinkatua ta besterik merezi be!

Antigua'ko Amaren eleiz torrean, kanpai biren erdian burua sartu, ta dingi danga kanpaiak jotea ona izaten ei da. Gure aurretikoak ori egiten ei eben. Baiña orretan asi ha nitz, ez ete ninduen zorotzat artuko? Gaur dana leike. Gure Ama Birgiñak parkatu daidala.

Belarria soñuka egoten danean, ona izatcn ei da esne cpela belarrian sartztea, barruko arrak jan dagian. Eta beien esne epela baiño, andra gazte baten bularreko esnea obe ei da. To!

Nire belarriko gor onek, politikako autuetatik be askatu izan nau eta ori, gaur, gaitz erdi da.

Igande baten, *nire* gor denpora orretan, eleizan nengoan. Nire albokoak alkarri ta-ta ukondoaz joten oartu nitun. Esan be bai neurekiko: gaur abadeak ba dauke sermoi gogorren bat. Gero, zela-ala, jakin neban sermoi "politikoa" egin ebela. Alderdien baten mesederako egokia gertatu eikeala itzaldi a, eta "mitiña" zala.

Nire gor eta guzti alegindu nitzan zer zan jakiten. Eta "dibortzioa", "abortoa" eta antzerako aipamenak ei ziran politikatzat artzen ziranak. Betikoa.

Eleizaren betiko irakatsiak aldeztu bearra Eleizak berak agertu ezik, zein sigladun taldek aldeztuteko? E.E.E.F.'k? Ezer ez eta festak?

Ori, nire gor eta guzti, entzun eta ulertu bearra dagonik ezin ukatu.

Diario Vasco, 15-IV-79

GABONETARAKO BESIGUAK

Banakak ekien bere jaiotzako izena. Izurde deituten eutsen. Etxean ere bai. Oso-osoko gizona. Iñori ezetzik esaten ez ekiana.

Gabon aurrean, bilbotar ezagun batek ikusi ta esan: Gabonetarako besigu batzuk nork bialdu ba gendu, ordainduko genduke pozik.

—Ez kezkatu. Nire kontu ori, bat batean Izurde'k.

Egunak urreratu ala, gero ta estuago besigurik ezin billatuta.

Ama zarrak esan be bai: Orrelako konpromisuak artu bearra ere, txotxo, jakin besigurik ez dabillala-ta. Egun ederrak dira ba eurok!

Izurde'k bere buruari atz egin eta kontuak atarata ebillan: Igandez gabon. Zapatutan ez dago arrantzarik. Beraz ostiralerako erosi bear.

Besiguak zirala-ta Izurde asarretu zan etxian. Ekin eta ekin, amaren barriketak entzuten gabon aparria garraztuta eukan egunak aurrez.

—Orio aza jango dozu ez?, amak, aparria zelan osotu iakin nairik.

—Orio aza? Sopa "reina" da ori ala?

—Ia ba. txotxo. añatzen ere ez giñan egon eta motiburik be ez daukagu ainbesterik jakiteko.

—Gantzak atarako dautsuz orio aziak!

—Ondo pozik iaten gendun beste urtetan! Besiguak dirala-ta, zeuk ez gero iñori gabonik garraztu.

Ixildu zan Izurde. baina ez eban asko falta etxe batekua asmateko.

Berutzen egozan marraskilluak Palankan. bitsa dariola, bist oria botaten.

— Zeiñek ekarri ditu oneik?

— Zeuk ez beiñik-bein.

— Nik saltsa ori ez dot bear.

— Ori saltsa dalakuan zagoz? Asko da zuretzat, "sopa reina" zer dan jakin eta marraskilluen bitsari ez igartea. "Malutax" zara zu, bestela ere!

— Malutax, eri erosiak dira?

— Zer ba?

— Kanposantuko orman neuk ikusi dodalako batzen!

— Ta? Ez daukat atarra gurarik bai?, ta or konpon. Gurean marraskillurik ez da faltako ta nai dozuna egin.

Begien aurrean eukan Izurde'k apari txarra. Aitzakiak azari. marraskilluei, okelari, sagar saltseari...

— Zirkin egizu. mutil, ia arrain bodegaren baten besiguak batu ta bake santuan lagaten gaituzun! Zeiñekin bialtzeko, gañera, besiguok igandean?

Ez batak, ez besteak, ez eben ezer egiten alkar baretzeko.

Egunak urrerago ta okerrago.

Ostiralean ez ziran itxasora joan ontzi txikiak. Ibili zan arrasteruen arrañei beira. Pota, perloi, bakallau-arrain, lebatz batzuk, eta besigurik ez. Alako baten sartu zah bat iru-lau kaja ekarrezala. Ez euken itxura onik. Baina... Pentsatuta eukan zer egin. Zakatzak gorritu pixkat beste arrain freskuagoen odolagaz, eta patrikaran eukazan amu bat edo bi eztarrian sartu, Bilbo'n amuko besiguak ziralara ikusi egien.

Sasoiz eldu ziran Bilbo'ra besiguok. Pozik Izurde. Matraka eta abar, orio azatik asi ta sagar saltsa bitartekoak atara ala irunsi zitun. Areik ziran marraskilluak, areik!

Gabon zarretan an eukan etxean txanpan kaja bat. lagunak Bilbo'tik bialduta besiguen ordaiñez.

Arro ebillan egun aretan. arda txikitorik edateko gogo barik, aparia txanpanakin asi ta amaitzeko ustez.

Ekin eutsan botillak zabaltzeari. dardaraka, burrunbada otsez goiak bera etorriko ziralakuan. Baiña lenengo botillak ez bitsik ez txiparririk atara ez. Bigarenak bardin. Arrituta eguan frantsez izeneko etikadun txanpan arek zelan ain ixik eta epel urten.

Irugarren botilla eskuan artu ebanean agertu zan pekatua. Gañeko etiketa jausi ta "sidra de Berriatua" agertu yakonean...

Igarri eban dan dana. Amuak eztarrian sentidu zitun eta besiguaren zakatza baiño gorriago geratu arpegia.

Sartu gura izan ba dausat, bai berak be niri adarra ederto jo, esan eban; eta ixil-ixilik, maitik iaiki ta oera joan zan, apaldu eta urtebarriko kanpaiak entzuten geratzeko adore barik.

Andik aurrera, gabon inguruan besigu izena entzun orduko, EZ andi bat esaten daki Izurde'k. ta amak be berari gogoratu eragin:

*Iñori sartutako ziria,
laster izango dozu zeuria.*

Diario Vasco, 24-XII-78

GABONETAKUAK

Gure aozko literatura aberatsa da Gabon eta Eguberrietako abestietan. Erri eta inguru bakoitzak bete tajua, bere kutsua emoten dautse egun gogoragarri onei.

Sinismen oso eta itsua batzutan, jaiotz aurreko uste eta iragarkietan:

*Jesus Jaio zan baño lenagotik
aditu zan profetaren agotik
ba zetorrela Jesus mundura
emakume baten erraietara.*

Birgintasunaren kezka gero. Andre baten autorpen ixilla, lotsakorra eta ekaitzetan brastada asko artzen oitua dan arrantzale gizako baten erantzun zarkarra ondoren, Mutriku'n batutakotzat dagozan kantuetan.

Eskale ta ibiltari Josepe eta Mari. Errukarri. Seiña sortzeko ordua eldu, erdibitu bear eta nun?

Taxi baten nórbaitek aurra sortudabela, edo trenean, edo ta arintsuago, egazkiñen baten... ama baten larritasuna, keixura eta eutsi-eziña iruditzen daki-daz. Eta sarri gogoratu Josepe eta Mari euskaldun kantariak iruditu zitun unean.

Samur eta bizi, lotsazko esaera eta asko esan naiko, apaltasun eta erri-siniste zirikatu eziña ikusten dira kantuan.

Larria, kezka eta ezin egona:

*Or goian etxea: jo daigun atea.
– Gizonak leiora nekez irtetzea!*

Etsipena? Ez. Itxaropen aizea igarten da gerotxuago. Leioan ba dabil norbait. Laguntasunik lortuko ete? Bai zera!

*Cizonak bentanatik digu erantzuten:
Gabeko ordu onetan zer darabiltzue emen?*

Erantzun apala. Errukitsua. Biotzei ikutu eragitekoa Josepe'rena:

*Dontzella eder bat dakart nirekin aldean,
Semea dakarrela bcre sabalean.*

Dontzella ta umea sabelean?

Sartu ziria beste bateri. Ez ostatulariari. Ez bizibideko goraberak-dakiazan bateri. Eta etxeko jauna ez da mutu geratuko, ez da tentel orrelako zerbait sinistuteko. Eta ordagoari eutsita lez dator erantzuna: Sinistu begitsuela beste bitza batekoak!

*Sernea ta dontzella nola izan liteke?
Enbusterofaltsoa, ortikan zoazte!*

Orra, errukiak biotzik urratu ez eta ateak sarratu. Alperrik, Naparroa'ko Ituren'en lez erriaren kontzientziari deitu:

*Agur, agur etxeakoak,
atsa onean zaudete,
atalondoan pobreak,
arren iratzar zaitezte.*

Atea itxia dago. Ba dakie ori Mañari'n. Ango kantaria luze dua irudimezez. Yosepe'k Mari adoretu bearrean, beste nunbaiteko itxaropenez erabili bearrean, Yosepe arotza goitik bera etenda lez ikusten dau. Bildurretan. Ez al dabe gizonak' bildur geiago eukiten aurgintzako denporetan, maitasunaren bide barrietan sartuta dagozan ama barriak baiño?

Eskola ortako nunbait mañariar bertsolaria. Irakurri:

*A limu, arren, eukizu,
alirnu Yosepe,
gaur gabeen Jesus onak
gaur iaio bear leuke.*

Eta ordua elduko da. Etxe ordez, borda bat billatuko dabe. Ibiltarien kontuak. Borda uts eta otza.

*Jesus jaio eta Ama ori hakarrik,
sua ere egiteko etzeukan egurrik.
–Jose ekarri zazu sortaño bat egun,
aurra otzak eten du, ni naiz agitz bildur.*

Eta ogei gizaldi igaro dira ta gaur be istoria barriztuko da, lan barik etxe barik, aterperik ezin billatuta gure egunetan be bizi diran ainbat toki, lurralde ta familietan.:

Belen, gaur be, gizatalde askoren kontzientzirako deia ta salakuntza da.

"GAMAZADA"

1841 urteko foru legearen eskubidez, Euskalerrriak lurraldeko diru eta ondasunak erabilteko nortasun eukan.

Baiña 1893 urtean Gamazo Madrیدهko ministrari zala, lege ori apurtu nai izan eban eta Euskalerrriak Estaduko beste errialdekaz baterako araudian sartu erazteko asmo, gogo eta erasoaldian ibili zan. Origaitik irakiten agertu zan Naparroa.

Konturatu euskal erriak esan dogula, au da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparroa. Eta naparrak gainditu ba ziran be, bidezko zan beste errialdeak be asarre agertzea eta alaxe gertatu zan. Eta urte aretan Sagasta ministraria Donostira juan zanean, Hotel Londres'en aurrean sekulako nasteak egon ziran, ildako bi tartean gertatu zirala.

Egun batzuk lenago Gernika'n, bertako jaietan, naste zaratatsua egon zan, eta bertan españar ikurriña erre egin eben, ango San Roketan. Egun orretatik geratu zan an "san rokada" deiturako izena. Eta andik egun bira, Biaizteri'n, Araba'n, gizon bat il eben.

Igarten da erria berotuta ebillala. Gamazo'ren asmoak ainbat asarre eta zer esan eta zer idatzi sortu eben gure aitonen artean.

Onelako kantu bat be zabaldu zan: "A Gamazo con un mazo le tenemos que pegar, porque son nuestros los Fueros y nos los quiere quitar".

Danok dakigu gure anai naparrak gogorak dirala, miinean arantza barik esakera biurriak erabilteko gaitasuna daukela, eta beste kantu baten, erderaz, guk euskeraz diñogun onelako zerbait esaten eben: Gamazo, meloi baten antzera, zatika ebagiko ba lege, naparrak ez leuke biotzetan miñik artuko.

Ala ta guzti Gamazo'k berean jarraitu nai izan eban.

1894 urtearen asieran Madrیدهko gobernuak deitu eutsen naparrei. Lenengotan ukatu ziran joatera, nai eta geroago joan. Baiña joanarren, bururik makurtu ez legea onartzen.

Origaitik otsailla'ren 18'an Madridetik Iruña'ra biurtzea erabagi eben eta Castejon'dik aurrera, trenaren geltoki guztietan, sekulako arrera egiten eutsen Madridetik etozanei, Naparroa guztia eurekin bat egoala adierazi nairik.

Bilbo'tik tren berezi bat gertu zan Iruña'rako, eta napartarrekin batu nai izan eben Arana Goiri anaiak bertaratu ziran. Ikurrin zuri bat eroan eben, letra gorrietan idatzi au eroala: Jaungoikua eta Lagi Zarra. Bizkaitarrak agur egiten dautse naparrei".

Ikurrin au Naparroa'ra joan bear zan bezperan pentsatu ei eben eta Irujo'tar Joana andreak egin ebalá esaten da. Eta Iruña'ra joan ziranek, ezaugarri lez, paparreko lez, areitz orri bat erabili ei eben txisten zuri gorriagaz.

Gaur Iruñara joaten gareanok an ikusten dogu Naparrak Foruen goramenez

jasotako monumentu ederra. 1903 urtean jaso da, batez be "gamazada" au kontuan eukita, eta bertan ba dauka euskeraz au esaten datorren irakurgaia:

*Or gaurko euskaldunok
gure aitasoen illezkorren
oroipenean, bildu gera emen
gure legea gorde nai degula erakusteko.*

Len, eta orain, eta gero be, zoritxarrez, gure eskubideei buruz, zer idatzia ba dago, eta txarrena, egongo.

16-II-88

GAMINITZ ETA GUIPUZKOARRAK

Zegaitik Gaminitz (Plentzi) erriaren eskudoan itxas-errien arma-arria eukita, balerik ez da agertzen?

Ondarrabitarrak, 1297 urteko sillu batean, asten dira bale eta arrain andiak agertzen. Donosti'k ere agertzen eban. Eta gaur Getari, Motriku, Ondarru, Lekeitio eta Bermeo'k arro erakusten dabe, edo eben ezaugarri ori. Ba dirudi erri oneik arrain aundi ori menperatzeko altasuna erakusten jarraitzeko gogoia dabela. Zegaitik ez Gaminitz, Pentzia'k?

Erri onek, bere ikurdi ederrean, itxasontzi andi bat agertzen dau, arraiñik gabe. Ez ete ziran emengoak arrantza onetan ibili, edo ta txalupak egiten ete eukan bere ogibide ta nortasuna?

Bizkargi'n jaio eta Errigoiti eta Jata'ko urak batuz, Gaminitz'en, itxasoan sartzen ikusten dan ibai onen ondo eta erriberetan, ez ete zan sortu arrain aundi orren arriskuak bizi eta gainduteko gogorik?

Bakio'ko ondartzetan ere eskubideak artu nairik auzitegietan, pleitu-etan, ibili zan erri onek, ez ete eban euki orretarako gar eta adorerik?

Gaminitz'eko eskudoak sasoi bateko itxas-ontzien gerratarako irudi edo itxura erakusten dau. Aurre eta atze, gaztelu-itxurako torreak izkilluz beteta erabilten zituen txalupa aundi baten irudia, garai batean, batez ere itxaslapurrekandik babes eta abaroa emoten eben itxasontzi orreitako baten agerpena.

Ba dirudi erri onek or eukala bere indarra. Arrantzarako edo merkataritzarako ontziak egiten, Madalenako eleizaren kanposantu ondoan eta inguruko ibar eta ondartzetan.

Neke andi gabe, erraz ikusten da Gaminitz, Plentzi, Lengorik ez. Errietxea, 1562'an egiña. Eleiza, parrokia Madalena'ri eskiñia. Zubi galanta sarre-rako; eta ondartzak. Itxas aurrean osategia. Eta inguru guztia bustiten, txairo, Butron ibaia.

"Kanpoeder" deitu leikio berari. Kanpotik dotorea eta barrutik ez ainbeste. Iritzi ori agertu eban Mañek, bere ibillaldiko kontuetan.

Lopez Diaz Haro'koak emon eutsan erri-nortasuna. Bermeo'ri emondako garai berean, au da, 1236 urtean.

Jaubetasun tokia: Gorliz'en erriberatik Santermu barruraño, eta Andrakas eta Arrubaigaña'ko bidetik Ibarrikaraño, baiña Lemoniz, Gorliz eta Ibarrika'ri euren leku eta eskubidetatik ezer galdu eragin gabe. Emen dator, ain zuzen, eskudoan igarten ez dana: Baleak (ballenak) arrapatu eta ilten jarraitzeko eskubidezko tokitzat Barbero'tik (Bakio'tik askoren iritziz) eta Portugalete bitarteko itxasoa. Orra ordurarteko jokabide baten ezaugarria indartuta. Bitarte orretan begirale edo talaixeruak ipintzeko aukera ta guzti. Esan bakarrik ez, esan eta orren duin agertu nai. Eskubide orrein aurka iñor jagiten ba zan... santuen abegi ona galdu eta Judas Iskariote'ren destañekin batera betirako inpernuetara sartu egiela, agintzen zan karta orretan.

Saldu egin ete eben gaministarrak eskubide ori?

1599 urtean bertakoak eta oriotarrak akordu batera eldu ziran. Oriotarrak ingura onetatik ibili eikeezan arrantzu onetan, baiña ilten eben bale bakoitzeko bi milla marabedi ordaindu bear gaministarrei errirako, eleizarako, San Pedro izeneko kofradirako eta errian egozan ekintza onen laguntzarako. Bein ori ordaindu ezkeru, Plentzi eta bere kofradian sartzen ziran errietako edozein lekutan, zatitu eikien balea eta bere onurak andik edonora zabaldu.

Merkataritza? Judas Iskariote'ren biraoekin gogoratzen?

Gaminitz'eko Kofradian alkartuta bizi ziran Gorliz, Lemoniz, Ibarrika, Sopelana eta Urduliz'ko arrantzaleak. Eta oriotarrak euren lagun.

Gaur, Gaminitz'ek itxasoa udazalien mesederako dauka. Neguan iru milla lagun. Udan, aoa neurri.

GARAI'hh:O JUAN

Garaitarra edo Garai'koa?

Bizkaitarra zan eta ez Garai'koa.

Ba dagoz Bizkaia'n beste ainbat toki ta garai itza era batera edo bestera erabilten dabenak.

Orduña inguruan dago Belandia deitzen dan auzo bat.

Angoa zan eta egunotan laureun urte dira il zala izen onetako gizon ospatsua.

Ez dakigu ziur noiz jaio zan. Bai noiz il zan.

Kronikak diñoe 1583 urtean Santa Fe aldera jo naian urten ebela itxasontzi baten berrogei gizon, andre batzuk eta fraile batek.

Galdu egin zirala, ur egaleko toki basatietan. Eta uretan ibili barik leorrera joan zirala, eta an atsedean artu eta egiten egozala, bertan bizi ziran kerandiarrak inguratu zituela eta amabi gizon, andrazko bat eta frailea il. Euren artean taldeko buru zan Garai'tar Juan.

Besteak itsu-mustuan txalupa artu eta iges egin al izan ei eben.

Gertaera orretan Garai'k 55/56 urte eukazala eta oraindik gizon mardul egoala.

Ain zuzen 1583'ko epailla'ren 20'n zeaztuten da gertaera a.

Garai'k, 40 urte eukazala, Santa Fe irasi (fundatu) eban.

Geroago Buenos Aires. Baiña ez lenengo sortzean. Erriburu au sortu ta urtetara inditarren mende jausi zan. Geroago Garai'k toki egokiago baten barrero bizi-eragin eta anditzea pentsatu eta lortu eban.

Noiz urten ete eban Bizkai'tik, Araba'ren muga ondotik gizon orrek?

Amabost urteko mutil zala, bizarrak urtetan asi baiño len, Sanlucar de Barrameda'n artu ei eban Peru'ra eroango eban itxasontzia.

Gero, orduko ibilbideak, oiturak, aukerak eta ostopoekin konturatuta, sinisgaitz egiten dira aldi aretako gizon askoren ibillera eta ekiña, orduko pentsaera ta jokabidea, orduko nortasun ta indarra.

Kontuan euki ez zirala gizon bakarti bat edo beste. Ez eta toki mugatu eta gelditu be.

Gogoratu Irala, bergararra, Paraguai'ko sortzaillea.

Ezin aztu Lope Agirre, araoztarra, oñatiarra, bear ba da Ameriketara ibili diran euskaldunik bakanena.

Beste ausarditsu bat: Urdaneta, ordiziarra, Pazifiko itxasoari lotsa galdu eta ertzak billatzen jakin ebana.

Eta Jabier, naparra, inditarren apostolua, eta Fray Martin, gipuzkoarra, Nagasaki'ko martiria.

Gogoratu Franzisko Ibarra eta Juan Zumarraga, durangarrak biak, bata Mexiko'ko Iparraldeko ibiltari, bestea Mexiko'ko lenengo gongotzain (artxobispu).

Eta Errekalde, bilbotarra, Elkano getariarra...

Ori XVIgarren gizaldiko gizonak aitzazearren bakarrik.

Euskaldunak bakarti eta basati izan gareala esaten da. Ezin ukatu fedea mitra ugari ipini zitula guretarretan; urrea be ibili zala gure pentsabideak urratzen, eta sorgin aizeak baiño zerbait geiagok amets eragin eutsela kurtzailluen argipeko gure asabei.

Jakingo ete genduke euskaldun erara euren bizibidea eta kondaira agertzen?

23-III-83

GARIZUMA TA UDABARRI

Lendik ona aldi ederra dago oituretan.

Len, erririk geienak, musika taldeak eukiarren, garizuma denporan opor edo atsedean aldia eukiten eben musika, soiñu, kantu eta dantzetan.

Gaur?

Datorren domekan garizumako bostgarren domeka izango da. Beste deitura bateri, pasiño domeka.

Euskaldun zarren artean garizumako domeka guztiak euren euren izen edo deitura berezia.

Garizuma berberari zazpi anakako atsoa deituten eutsen gure zarrak. Eta domeka bakoitzari onela:

Lenengoari: Ana.

Bigarrenari: Badana.

Iruugarrenari: Susana.

Laugarrenari: Rebenka.

Bostgarrenari: Pasio.

Seigarrenari: Erramo.

Ba dagoz bestelako deitura batzuk be. Ala Pasiño domekari, datorren domekari, Lazaro eguna deituten dautse ainbat tokitan. Ala Bizkaia'n Elorrio'n; Gipuzkoa'ko Arrona'n eta Araba'ko Olaeta'n.

Olaeta'n Pasiño edo Lazaro domeka au, txarrantxarien eguna dala esaten dabe. Esaera jatorra onela da: Lazaro domeka, txarrantxarien domeka.

Gaur balduta dago txarrantxari zeregiña eta geienok ez dakigu deitura

orrek zer esan nai daben. Beste berba batzuekin, ilatze zeregiña eukana izaten zan txarrantxaria, au da, orraztatzailea. Erderaz esanda: cardador.

Lazaro egun au dala ta, eta garizumako domekaen izenak erreskadan eroateko, Naparroa'ko Uztarrotz'en esaera au erabilten dakie: Lazaro'k txoria arrapatu, Erremu'k lumatu eta Paskoak jan.

Garizumak, beste aldetik, ba daukaz egun batzuei buruz bere sinistreak. Urrun geratu zan auts eguna. Mariñelen artean lapak jateko eguna. Alaz eta askorentzat, egun itzala, kristautasun "kurtsoaren" asiera zalako. Gogoratu txartel denporak. Urtero eskatzen zituen garizuman gure abade zarrak. Origaitik esaten eben, sekula amaitzen ez zan "karrera" zala kristau izatea. Nai eta askotan, txartel emotea, benetako examiña orde, liberal batzuentzako gogo txarrez egiten eben makurpen bat izan.

Sortu ziran esaera eta oituretan txartel emoteari buruzko ainbat kontu eta esaera. Gogoratu Fernando Amezketarra baten txarteletako ipuiñak. Arentzat, garizuma eta Pasko, abadien irri eta erriari ziri eragiteko egunak ziran.

Garizumak, beste aldetik, ba daukaz egun batzuei buruz oitura eta esaera jatorrak. Eta oraindik irauten daben siniste asko. Esate baterako datorren eguegan lan egiten eben emakumiei buruz, onelako zemaia botako eutsen: Emakume egunez iruten ari dan emakumeari, sapalarra urteten jako.

Batzar askotan kezkatuten gara lengo oiturei buruz gure artean igarten dan ardurarik ezagaz. Eta batez be, gure bizitzan igarten dan ez jakintasunagaz. Ba dira onetan alegin egin bear litzakela diñoenak, besterik ezean gizaldietako oitura eta sinistreak batuta lagateko.

Eta egia da, oitura, siniste, jokabide eta eginkizun asko goizaldeko kanpaia lez galduko dirala ameslarien buruetan. Baiña gure erriak ba eukan orretan, aintzat artu edo ez, bereztuten eban izate bat.

7-IV-84

GASTEIZEN MANDATARI

Zarrok umeak zaintzeko eta mandatuak egiteko.

Origaitik aukeratu ninduen Bizkaiko euskaltzale batzuk, gure arteko batzarrak egin ondoren, gure euskerari buruz artutako erabagiak eskuz esku, jaurlaritzako (gubernuko) gizonei Gazteiz'era eroateko.

Ibiliaz ikasten da.

Gu Jainkoaren grazi utsagaz bizi eta ibiltzen garean lez, bazkari ordez amai-
ketakoa egin, eta lagun baten kotxe eskintzari esker, Bilbo'ra joan, kartak artu
eta andik Gasteiz'era eldu ordu bi ta erditarako.

Zer egin? Lakua'ra zuzen.

Dirala aste bi, Gasteiz'era eldu nitzan baten, ango euskaldun bateri itandu
neutsan: Nundik joaten da Eusko jaurlaritzara?

Eta berak erantzun: Nun dago?

Ez adarretara joan. Nai ta adarrak oker erabili akerrak sarri.

Gasteiz'en Lakua deitzen dautse gure agintarien tokiari. Lekuko izena.

Bazkalorduan an. Atean eta sarrerako majan ertzaiñak. Nortasuna artzeko
maikorik ez.

Ateko bana-banaka igaroteko burdiñak eta abar, oraindik sartu lei etxe are-
tan.

Eta etxekotasunez artzeko itxaropenez.

Ala, jan-tokitik etorri zan Etxenike jauna, beti lez alai eta "hiztun" (ez dau
esango h'rik ez dodala erabili) beretzako neroian karta artzera. Bardin Retegi
jauna, kafea artzeko aztirik barik, eta berberak ekarri be, gurari ori jakitean, ni-
re kartaren sarrerako ezaugarria. Eskertzeko da gure illoben eziketako ardura-
dunen arrera ori.

Kultur saillekaak beste nunbaitetik ebiltzan. Baiña ango neska idazkari ki-
rolariak ("deportibak") ez dabe nagirik maietatik jagi eta gauzak erraz eta esan-
ala egiteko.

Nire begiak eta kiñuak euskeratik joaten diran lez, garbi esan neike Hez-
kuntza eta Kulturaren euskeradunik ez dala galduko.

Ajuria-enea aurrean... burdin ugari ormetan, kandau lodia atean, eta euske-
ra gitxi-gitxika atezaiñetan.

Atetik egin bear izan gendun dana.

Ertzain bi. Euskeraz asi ta... "Parkatu, naiago erdera, ni gitxi-gitxi jakin
euskara, ikasten ibili, laster aurrera, egin. mesedez. erdera. Coquense naiz ta
ikasiko, baiña orain erdera".

Arek, txarto, baiña ez galtzeko aiña ba ekian. Bere lagunak, gaixoak, ara-
barra izanarren, ez ekian euskerarik. Erririk be ez eukan, bere erria urak zapal-
du ebelako.

Euren bitartez, nire karneta eta ezaugarria eta zer nai neban barrukoei ira-
kurri ta esan..., baiña alperrik. Ia barruan iñor ezagutzen ete neban. Ez nitzan
gogoratzen. Politiko eskale eta pelotari ez izatearen akatsa. Eta gure karta, Biz-
kai'ko euskaldunen deia, kuenkatar ertzaiñak eroan eban barrura ta berak, nire
eskariz, sarrerako seillua ekarri.

Olakoetan gizonak gizon izan, eta ezin ukatu gure barru-miña ezagutzen
danik. Eta Agirre'gaz nai gendunetan ostopo barik ikusten giñala gogoratzean,

nire artean gogoeta au erabil neban, ez dakit errukiz ala miñez: Lendakari zarrak gaurko lehendakariak baiño bildur gitxiagogaz bizi ziran beiñik-bein!

Andik Lege-Biltzarrera.

Ta euskera an? Ba, an bere, sarrerako txapelgorria, euskeraz berba egitean, ixildu egiten da. Ez daki.

Eta ortik esaten dabe bereiztea "diskriminaziñoa" dagola. Zeiñentzat?

20-I-82

GAURKO OROITZAK

Luze naroe.

Bai eta maitekiro

Egun guztiak ez dira bardiñak

Gaurko au aberatsa da nire antzera pentsatu leikenentzat

Apaizak, Iño! Tabú! Baiña zegaitik gogoratu ez Pio Mortaraz bat?

Gaurko egunez iaio zan Itali'ko Bolonia'n Eta Belgika'n il. Baiña bitartea gure errian euki eban Emen luzaro bizi Euskeraz ikasi ta sendo jardun. Gurasoak judearrak izanarren fraile egin zan, laterandarren elkarteko. Aren sermoiak, euskal sermoi jatorrak.. kanela zotza, canela en rama, erdaldunak esango leuken lez Umorezko liburu baterako gordeta egon bear lirakez. Oraindik gogoratzen ditue askok

Gipuzkoako Aldundiari dei egin eutsan bein, euskera zaintzen alegiñik bizienak egiteko eskatzen

Eta euskera kontuan nabillela, gaurkoz nire oroitzak biotzez dua beste adiskide jator bategana

Gaurko egunez il zan Baiona'n 1949 urtean, euskal idazle jator. zintzo eta borondate andiko bat. Andres Arzeluz, "Luzear".

"El Día" egunkariko euskal atalaren arduraduna. Idazle eta gizon, bete beteko.

Euskaldunok zor dauzagu gure oroitzak.

Goazen beste kontu batera.

Foruak, autonomia. azkatasun garra...

1835—Nabarra'ko Zizurren, liberal batalloi bateko talde bat jaiki usterik gixiñean, Nabarra'ri goraka. eta Sarasfield kondea il. Ain zuzen bera zan Naparroako errege ordekoetan forurik ezagutu ez eta zin egin ez zitun errege ordetako lenena.

Eta urteak aurreratu eta gaurko eguna be Donosti'n. 1893 urtean, egun zaratatsu eta errikoia izan zan

Politika aitzakiz, musika Taldeak, eguerdiko konziertua amaitzean "Gernikako Arbola" rik ez eban jo. Anjo asarrea! Gora Lege zarra eta Bera Sagasta oivak bete betean entzuten ziran. Gero ta beroago erria.

Eta Sagasta ministroa Hotel Londres'en bizi zalako. asarrea agertzen ara urreratu jentea ta an Gernikako Arbola eta Marsellesa abestuten ekin.

Iru il, ogetak zauritu eta ainbat preso artu eta kartzelara bialdu zitun gobernadoreak

Asarrea ez zan egun bakarrean gelditu. Egunetan iraun eban.

Euskal nortasun kezka onetan, beste oroitza gogoangarri bat.

1907 urtean, gaurko egunez, Donostiko Udalak "Autonomia" izena ipintzea erabagi eban. "Salud" eta Bide zabalaren artean egoan kaleari. Agirian esaten da: "Izen onek sentimen sakonak ditulako Euskalerrian iaioletakoen artean eta bertan jaio ez eta ere emen bizi diranen artean".

Orra gaurkoak.

Eta biar... 28.

Esaerak: San Agustin. Lurrak bustin. Edo ta Txilin txilin san Agustin. kuartillu bete txakolin.

Nire adiskide bateri ezin sartu burutik Agustin doneak euskeraz idatzi eikeanik, eta "EL DIARIO VASCO" onetan "Agustin santuak" izenpetuta bere idazkiak agertzen diranetan arek pentsatu ez... ni izan ez neikeanik.

Andre, mesedez, firmak "letu" barik, lanak irakurri eta orduntxe galdetu nire pentsaera eta esaera argalak eta nire bizar baltzak Augustin donearen sen pentsakera eta aren bizar zuriekin alkartu ete Jeikezan.

Maitekeriz ez itsutu, arren !

3-IX-78

GERNIKA'KO BIDETAN

Bear ba da neu naz Gernika'ko batzarretara joateko errebirarik geien egin bear izaten dauan batzarkidea.

Eta ez naz okerra, ez eta erdi be. Nire ustetan beintzat.

Munitibar'dik Gernika'rako bideak ba dauka okerrak zuzendu bearra, eta zaldarrak ebagi eta urbideak egokitzeko premiña.

Nire errian, lengo denporetan, alkate bat aukeratzen ebenean, laster esaten zan marémarretan: Ikusiko dozue, krixada barri baten antzera asiko da biarran, bere etxe-aurrea dotoretuko dau lenengotik, eta gero, diruak amaitu dirala ta kitto.

Naiago neuke, arpegira zerbait esan da be, orrelako almen pixkat ba neu, baiña... Makilla bako agintea da gurea.

Oraintsu batek esaten eustan: Ba zoaze orain be Gernika'ra bai-bai esatera. Nik, antxiñako antzerkiko kontua gogoratuta, erantzun neutsan: Gizon dan gizonak ezetz esaten be jakin bear izaten dau.

Eta guk be ikasi dogu.

Aldun aukeratu ginduezanak ez gara ara joaten an zek urtengo. Aurrez tanboliñari eraginda joaten gara, gaiak al bestean agertu, gertu, aztertu eta eztabai-datuta, ordu luzetako batzarretan.

Aste onetan Aldundiaren aurrekontua baimenduteko, orduak ordu egin doguz "presupuestu" ori ezagutu, ikasi eta aztertzen. Alderdiko batzar-lagunak (junteroak) lenengo. Eta gu be ez gara Aldundiagaz beti bat etorten, nai ta alderdi batekoak izan. Artaziak erabilten ba dakigu. Toki bateko diruak kendu eta gure ustez egokiago litzakezan aldera aldatu eragiten be bai. Onetan, jakiña, asmoa sortu dabenak; eurenagaz urten nai izaten dabe. Besteak eurennei eutsi. Azkenean konponketa, nai ta familikoa izan. Politika da. Lenengo etxe barrua garbitu.

Gero gaiak, batzorde bakoitzak beste alderdietako ordezkariekin eztabaidatu. Al dala alkarren batasuna lortzen alegindu. Batzutan lortzen da; ez beti. Orrelakoetan erriaren giroa nausi, au da, botoak.

Nai eta al dala botoen indarraz baliatu nai ez, besterik ezean orretara jo bear izaten da:

Gernika'ra joan aurretik, eritziak mugatuta egoten dira. An erriaren aurrean erabagia artzea izaten da. Erriari jakin eragin eta kontua emotea, bakoitzak daukazan pentsabide eta iritzien araberan.

Aurten, aurre-kontua, izan bear dauan lez, urtearen asieratik sartuko da ezaupide baten. Urte askotan ezin amaitu izaten zan urte erdia igarota gero be.

Onetan lana egin da, lan sakon eta aberatsa, nai ta dirutzak gura litzakezan guztietarako edo premiña guztiak beteteko eldu ez. Baiña Murelaga'ko Belen kanpaia be, andia izanarren, ez da elduten toki guztietara.

GERNIKA'KO INDITARRA

Gure denporetan; Mahatma Gandhi inditarra entzute andiko zan.

Bere irudia ezaguna zan gure artean.

Mundu zabalean bere nortasuna erakustea lortu eban.

Gu, umeak giñala, eta geroago be, sarri ikusten gendun egunkari eta aldizkarietan.

Batez be bere barauak zotin eragiten eben eta mundua urduri ipini.

Gandhi berberak esana da hindutar erakundeari berak "satyagraha" izena ipini eutsala, egi andi bitan oiñarrituta: maitasuna adierazten daben egia, eta indarra sortzen daben sendotasuna elburutzat artuta.

Au da, egia eta indarra.

Esan bearreko da, giro onetako erakunde au Gandhi'k Ego-Afrikan sortu ebala 1.908 urtean. Ordurarte beste jokera batzuk ezagutzen ziran. Esate baterako agintza-auspen edo menik-ez eratua (desobediencia ordenada) edo ta jarhipen-geldia (resistencia pasiva).

Gernika'n, Areitz zarraren inguruko orma ondoan, "eman da zabalzazu munduan frutua" k adoretuta lez, an ikusi dot inditar monje orizka bat, uso zurien antzera bakearen mandatari.

Indarkeri denporetan samurtu egiten dau bat orrelako egoera batek.

Egoera geldia da berea, benetan, baiña ez da ixilla, deilaria eta zabala baiño.

Ikus eta konturatu bere inguruan idatzi eta zabaldu eta argitaratu danagaz.

Einstein-ek esan eban egia: Gizatalde barrientzat gaitz izango zala gure munduan Gandhi lako bat bizi izan zala sinistutea. Eta guri be gaitz egiten jaku, baiña budatar monje au ikustean, sinistu egiten dogu beragan, bere jokabidea gogoratu eta gaurko gogorkeriak beragan amets eragiten dausku.

Monje onek Euskalerrriari bere omena egiten dautsanik ezin ukatu. Gernika'ren aurkako indarkerien barri gogoratuaz salatu egiten dau, Picasso'ren laukiak beste era baten gogoratu eta bizi eragiten daben lez.

Argalkeria dala pentsatuko dabe askok gizon onen egoera eta egitada. Erokeria, edo makalkeri baten ezaugarria.

Ala ete?

Zer pentsatuko ere dabe egunero bere ingurura joaten diran umetxoak, batzuk bere aurrean errukiz eta naigabez malkotan edo negar ixillean geratzen diranak, beste batzuk eskuetan eroaten dituen gozoak pozik eskiñiko leutsakezarak edo ta jan eragitearren etxera pozik eroango leukenak, ain zuri eta ain apal, ain baketsu eta irribarretsu ikustean?

Zoro bat? Ameslari bat?

Pentsaten ete dabe, ain argal ikustean, monje orren elburua egia eta indarra diranik arma bako egi eta indarrez mundurako bake zabal eta egitsu baten eskale lez?

9-XI-83

GERRATEKO AGURRAK

Gure gerrateko oroitza illunen artean, famili askori biotzak urratu eutsezan bat maiatzean ikusi gendun, illaren seigarrenean, eta geroago, tarteka, ikusten jarraitu gendun.

Gudariak atzeraka etozan mendietatik. Ez dot uzte, goietan be Bilbo lagatea oraindik iñok pentsatuko ebanik. Zer geratzen jakun Bilbo lagata?

Eta gudea Bilbo ingurutan luzatuten ba zan, gerrikoaren inguruan eutsi al izatea lortuten ba zan, euste orrek zelako bizitza ekarriko eban barrurako?

Andiak, gizaseme egiñak euren burujaube dira, komeni danean zelan jokatuta erakutsi eta ikasi leikie. Baiña eta gure atso-agura makurrak eta gure ume erukarriak, batzuk Bilbo berbertain familiko maitasunik barik bizi ziranak, edo ta eurekaz zein arduratu ez eukenak? Edo ta eukita be, Bilbo'n kezka eta burukomin baiño ez ziranak?

Ezpairik (dudarik) ez dago Bilbo'n estu ibiliko giñala. Ezpairik ez, gerrari eusteko gogoia egoala, nai ta mendietakoen egoera larri izan eta asko atzeraka etorri.

Oraindik ez gendun pentsatuten ondamenti andietan. Gure zementu eta burdiñazko gerrikoa mito bat zan askorentzat, Noe'ren aska. "Ez dira igaroko" eta antzerako esanaiak irakurten genduzan egunkari eta ormetan. Sinistez ala geure buruari sinistu eragitearren ipintea ete ziran orrelakoak?

Lenako soldaduarena.

Otzak ilten mendian, bere zaintzako (guardiko) orduak beteten. Ia gogortuta, berbarik be ezin eginda.

Kapitanak, mutillak ikusten ebillala, bere ondolik igarotean:

— Otz daukazu, mutil?

— Ez. Ez dago barririk.

Eta kapitanak atzea emon orduko, blaust, lurrera, otzak ilda.

Gure artean be orrelako zerbait gertaten zan. Eta ain zuzen be, "ez dira igaroko" ipinten ge.ndun tokietatik igaroten ziran sarri, gure arrokerien argazki eta guzti paperetan agertzeko eran.

Dana dala mendietako goraberak kezka sortuten asi ziran Bilbo'n. Batez bezar eta aur errukarri ziranak gogoratzen asi giñan. Eta erbesteratzeak gertuten alegindu.

Maiatzaren seigarren eguna zan. Bi milla ta laureun atso-agura eta ume, euren zaindari, abade, osagille eta arduradunekin, Frantze alderako asmotan "Habana" eta "Goizeko Izarra" ontzietan sartu ziran, beste biderik ez gendulako, eta itxasoz ara bialdu.

Atso-agurak negar egiten eben. Alperrik euren senideak itxaropen aizeak sortu eragin nai. Ez ete ebillen eurak negar geiago eskutuan? Etxea lagatea beti da negargarri. Eta orrelako gerra baten, eta alako adiñean, obe begiak itxi eta une berbertako gerrari iges egiteak sortu leiken bare aldiagaz nasaitu.

Umeak laster poztuten ziran. Barrikeria. Itxas aizeak be laster argitzen ditu buru tontorrak.

Alaxe, Frantze'ra, Ingalaterra'ra eta Rusi'ra urteten asi ziran gure zarrak eta umeak.

Guretzat nasaitasun baten itxuran gaberako kezka eta zer pentsatu geiago. Gerra luzatu eta gordintzearen ezaugarri ikusten gendun orretan.

Eta maiatza'ren 11'an Mola'ren zemai astuna jakin zan: Makurtu ezik, errenditu ezik, garbi esanda txil esan eta gelditu ezik, gure Bizkaia iltegi biur-tuko ebala.

Gauzak orrela eta gu, gero ta larriago, egazkiñak eskatzen.

1-V-82

GERTAERAK

Gaur, ni idazten ari naizen egunean, san Anton.

Nun dagoz besiguak?

Jakiña, len amuko besiguak ziran. Gaur nor dabil arrantzan era orretan?

Gaur arrasteen, sareak aidean edo tatarrez, al dana arrapatzen.

Teknika harriztu ta burukomiñak geitu.

Batetik moko-fiñen esaera: gaurko besiguak ez daukela Jengoan atsegiñik.

Gaur, arrantzaeran, itto egiten dirala, odoluztu barik.

Dana dala, gozo batek iñor ez dabela garraztuten esaten da. Eta gaur, gure besigu eskama edo ezkarda finduna, urre kolore ta urre egarri da.

Ba dirudi orain modan dagola esaera zarrak eta erriaren esateko erak magnetofonoz artu ta kondaira edo istorirako gordetea. Besiguarena. "San Anton besigu zarra al montón", artxiboetan gorde ta eskutatu bearko da.

Galdua galdu.

Nire telegrama baten antzera.

Il onen iruan. amairu zenbakiak burukomiña eta arrada emoten dautsan bateri, Sevilla 'tik telegrama au bialdu nai izan neutsan. Telegrama Triana'ko lan gelan idatzi neban. Euskeraz. Au iñoan: Bat iru bi iru bi (13232) numeroan eun peseta jokauten dozuz.

"Numeroan" idatzi neban, sebillatar langille areri dana gaitz ez begitantzearren. Keixu nebillan eta "jokatzen" itzean mokoloi txiki bat egin neban. Origaitik, gaiñetik egiñeran "jokauten" zeaztu neban, argiago lagatearren egin-dako naste ori. Mutillak itandu be bai jo-ka-tu-ten ete zan. Baietz.

Asi zan goitik bera begiratzen eta "correcto" esan eustan. Ordua izentatu eban: 16.30.

Nik garbi ipinten neban Ondarroa (Vizcaya). Baiña mutillak galdetu: Ondarroa San Sebastián. verdad? Ez, Bizkaia nik, ta berak nire Vizcaya arraiaz marratu ta BI ipini eban goratxuago. Bilbo tik zear bialdu bear zala adierazi naiez nunbait.

Oraindik telegramarik ez da eldu, ez eta nire ango etxera biurtu be, nai ta nik ordainduta laga.

Zeñena eta da errua? Euskerarena? Amairurena? Amairu millaz asten zan zenbakia eta Loteriko amairugarren dendan eresia zan.

Bidaliak, korreoak, txarto dabizala?

Orrelakorik be ezin beti esan.

Lengusu bat daukat Kuwait'en. Sarri idazten gara. Eta ain zuzen gaur artu dodan karta baten, lengusu onek nire aurreragoko karta baten azala bialtzen dausta.

Gabon aurretxoan egin neban nirea Ahmadi'ra bialdu eta ango beste erri txikira eldu, Hawalli-ra. 30 kilometro alperrik. Andik barriro Ahmadi'ra eta an (Received 6-Jan-1979) sillu andi bat ipini. Jaubeak artu, azala niri igorri, nik artu eta ibillaldi ori, legez beintzat, Ondarru-tik urten baiño egun bi lenago egin dau nire karta orrek. Ondarroa'ko "mataselloa" garbi dago. emendik urten ebanekoa: 19-1-1979.

Zazpikiak gareala Ondarru onetan eta popa-koixu edo keixuak? Leike.

Parkatu zazpiki itza erabili ta iñor iraindu edo gorritu ba dot.

Bein, antzerki baten, umeak alkarrri tirrika eta txopinka, asarre nerabillezan. Eta baten aotan, nik sekula gaitzik eta okerrrik pentsatu barik, esaera au ipini neban: Ze zazpiki da berau?, besteari esaten.

Eta abade batek deitu ta belarrira esan eustan, zazpiki itza, Mondragoe aldean, itz gogor, gordiña zala ta... komeniko zala aldatzea.

Ai gu, iñoren akatsak maira atarateko zazpiki lez ibiltzen gareanok!

Diario Vasco, 1I-II-79

GIBERT'EN GOGOETAN

Gibertarrei ezaupidezko begirapena dautset.

Nire osaba bat, Bizkai'ko aldun izan zana, Arana Goiri'ren lenengotako jarraitzalien arteko zana, Gibert bategaz ezkondu zan. Eta ekarri zituen semealabak gure Maixuaren izendegi barriko izenik politenekaz bataiatuak izan ziran.

Gure izeko giputxa Azpeiti'ra bastertu zan alarguntzcan, eta an ikusten gendun bere Fernando, kanposantuko il-arrian, bere maitasunei jarraituz, Perdiñanda, ontasunez beteten.

Arrezkero senitarte orren bitartez ezagutu izan dodaz Gibert abizenekoak.

Eriotzak alkartzen gaitu uste bakoetan, ta alaxe ezagutu neban lengusu baten illetan orain baituta dagona, atxitua daukena.

Bai eta berak be nire ezaupidea gogoratu azpeitiarrak antzeztu eben "Jau-naren Bideetan" nire antzerki baten gogamenez.

Gaur, euskaldun askoren gogoetak lez, nire kezka beragaz dago.

Gibert abizcnak, Euskalerrian egon izan diran ibillera batzuen urratsa gogoratzen dausku. Gaskoindarrak gure artean euki izan daben lotuera.

Garona ibai, Auñamendi mendiak eta Bizkai kolkoko itxasertzaren artean dagon Gaskuñña lurraldeko scmeak Ondarrabi, Pasai eta Donosti'n laga zituen euren urratsik agirienak. Au da, Bidasoa eta Urumea ibaien arteko lurraldean.

Izenetan, tokietan eta beste ezaugarrietan.

Ez al da, esate baterako, Donosti'ko Narrika kalea gaskondarrei omenaldi bat? Gaskoindar berba dala esaten da, beiñik-bein, deitura ori.

XVI garren gizaldia ezkerre ezagutzen zan kale ori. Engomez etxea, jauregia, ei egoan inguru aretan. Eta Engomez ori be gaskoin familia zala esaten da.

1.152 urtean Ingalaterra'ko Bigarren Enrike'ri ezkontzako dotean, bateratu jakozan Gaskuñña'ko lurrak.

Erritarren borondatez?

Ala izatekotan, ez ziran gaskoindarrak bere erregearen aurka jaiki eta jardungo.

Origaitik andik igestu eben askok, eta pasaitarrak beso zabalik artu zituela esaten dabe kondaira liburu baten Elejalde eta Erentxun'ek. Areitatik sortu eta geratuak ei dira gaurko Monpas, Esteilart eta beste ainbesteen artean zoritxarean jausi dan Gibert orren abizenckoak .

Esan dogunez Gaskuña ez zan beti frantzetarren menpean egon. Ingelesen mende egozala, gaskoiñak Donosti'n ibilten ziranean sartu ei eben ango dirua, esterliña. Esterlines kaleari be orduko merkataricn urratsa billatzen dautse batzuk, gertaera orretatik.

Batzuen esanetan, Leovigildo'k Lapurdi'ra egin eban gerraldian, gipuzkoar euskaldunak eroan zitun beragaz. Eta areik Gaskuña'n geratu ei ziran ta geroago Gipuzkoa'ra etorteko zaletasunez urduri ibili.

Edozetara be gaskoindarrak euren izkuntza sartzea lortu eben biurtu edo bizitera etorri ziran lurraldetan. Ori da Pasai Donibane'ko gertaera. An, XIX garren gizaldiaren erditik ona be oraindik gaskoñez itz egiten ei zan.

29-III-83

GIZON ANDIAK

Lemoarrekin gertatu nitzan oraintsu, olerki usaiñean Larrean euki gendun jai baten.

Erri bateko ta besteko idazleak gogoratzen ibili giñan. Eta Eguzkitza'ren izenak be urten eban maira. Ez dauke aztuteko lemoarrak gizon aren itzala.

Idazleontzat Eguzkitza, Juan Bautista da. Edo zan. Lemoa'n jaiio 1875'en eta bertan il 1939'n. Atsekabez eta miñez, barruko itzal eta naigabez.

Izan be euskaldunok ia tokirik be ez gendun euki gure etxean biziteko, gaurko askok iruditu be egiten ez daben denporaldi baten.

Eguzkitza'k, bere bizitzako urterik geienak, Lekeitio'n igaro zitun, ango parroko abade.

Gaur be baten batek esango dau abadietzaz idazten baiño ez dakidala. Ez naz lotsatuko ortaz. Euskerari eutsi dautsenak dira. Nai ta... Ixil nadin. Besteren batek, zerbait esaten asiko ba nitz, nire gogo "antiklerikala" ezin erakutsita nabillala esango leuke-ta.

Nire liburuetan umorez jokatu dodalako nunbait, nik bizi-bizi ezagutu izan dodazan "izaki" batzuk iruditu naian.

Baiña gaur erri oituretako zerbait idatzi ezker, laga eta geinkez basterrean gure errietan eta gure bizitzan iñok baiño geiago jokatu eben gizonak, batera edo bestera gure gidari izan ziranak, eta iñoiz berbalekurik geien be emon euskuenak?

Ala Eguzkitza be etxeko izan gendun. Kontu egin, txapelik euki ez eta txapela jaso ordez, prekilloa goratuta agurtzen genduzala kalean ikustean gure ume aroan, eta gero be! Kuadratu ez giñan egiten, baiña euren txitximurkada artu arte euren aurrean geldu egon bai sarri.

Dana dala, Euskalerrian ezagutu gendun gizarte auziari begirako ekitaldie-tako denpora. "Sozial" denporak. "Aitzol" eta Onaindia plazetan be ibili ziran eta arrastada ederrak sortu joaten ziran tokietan, batez be Donosti-Pasai inguru-tan.

Eta Eibar aldian nok ez eban ezagutzen "Don Poli"?

Zabalago, urandiko txirlak lez, Aita Laburu, Azpiazu...

Bizkaia'n, Lekeitio itxasertzeko erri txukun eta maitagarrian, Eguzkitza. Ixil eta apal, kezkatu eta urduri, eleiz giroan bear ziran liburuak euskera jator eta txukunean ipinten. Orrela iru-lau. Euskaltzain zalako, Euskaltzaindikoko batzar eta jakintza egunetan be ibilten zan. Bera izan zan Karmelo Etxegarai'k egin eban sarrerako itzaldiari erantzuna emon eutsana be. Orrez gaiñera iztegi bat gertu eban. Nun geratu eta zan amaitutzat laga eban iztegia?

Berari entzutea liburutxu txiki baiña sakon batek emon eutsan. "Ekin" asé tekaria sortu zanetik an idazten zitun giroan igarten ziran gizarte gaiak buruzko irakatsiak. Pentsabide argi eta jatorrez.

Lege gizon batek esan eustan oraintsu ba daukala azterketa zeatz bat egiteko gogoa "Gizarte Auzia", au da liburuaren izena, zeatz eta bear aiña irakurri ondoren. Ba dago premiña gure gazteak lengoen lanei ezaupide bat artu ta emotekoa. Len be, giroan giroko, egon ziran eguneko gaiak gordin-gordin erabilten jakin ebenak.

Prekilloa bakarrik jaso barik, txapela oso-osorik kentzeko lakuak.

GOGO AZTERKETA

Gaztetan ikasten dana, gaitz astuten da.

Eta guk, Saturraran'go itxas olatuen eraso eta asarraldirik bizienetan be, ia gu gengoan tokirarte itxasoa sartzen igarten gendunean be, gogo edo kon azterketa egiten ikasi gendun, zerbait atzeari begiratzuz, aurrera zintzoa-go jarduteko, oera lotsaz joan eta egun barriari adore biziz asiera emoteko gurrietan.

Norbait esana da egunari amairik onena emoteko era ori dala.

Euskalerrian, aste bi oneitan, ekiñaldi luzea erabili dogu.

Bake bide izan ete leikez auteskundeak?

Zoritxarrez, batzuen salaketak eta besteen iraiñak, garrazkeri eta gorroto sua aizetzen dabe gure artean.

Auteskundeak politikako trapu zarrei lixiba egiteko izanarren, pentsatu bear da, edo litzake trapu batzuk garbitzerik merezi ete daben be. Urratuegiak ez ete diran ortarako.

Nire gogoetak luze doaz.

Origaitik diñot: auteskundeak bake bide izan leiz, baiña auteskunde aurreko jardunak lotsa falta dabe. Txakurregi ibili gara eta gordiñegi.

Ez dau orrek esan nai gauzak garbi egin bear ez diranik. Baiña argitasuna era askotara egin lei.

Errien arteko artu-emonetan len gauzak nekez eta garratz joan ba dira, batzuen beartzuna aspaldi ezagutu ondoren, itxaropenik euki ete lei biar edo etzirako? Alkarri agurtzeko arpegi lodia agertuarren, maltzurkerizko irribarrea zainduarren, eskua emoteko ausardia eukiarren, barruko gogo onik egon ete leike bein-beingoz kateak eteteko, eta erri bakoitzak bereak ditun eskubideak zaindu eta lagateko?

Gizonak ez ba giña...!

Baiña guk ala jokatu bear. Gizon lez. Eta gizon minduak lez ibili bear. Or dago kakua.

Ikuspegi ezbardintsuak egon leiz: legea era askotara artu edo ikusi lei; errien eskubideak eskualde askotatik neurtu leiz, baiña borondatea bear da beti, eta borondaterik ezak indarkeriz jokatu, eskatu edo lortu bearra ekarri lei.

Ala ta be fede oneko naz.

Egun oneitan, gure politikari batzuk euren mitiñetan eta prentsa aurrekotan kaskarrak bero eta eztarriak urratzeko arriskuan ikustean, zorionez galdu dogun gure erriko errixetalarri zaratatsu eta ez tentsuen irudia burura etorri jat sarri.

Eleizetan santu guztiei musuka, kalean gona barrenak ikusten ba eutsezan lotsaz, eta ostera, balkoitik balkoira, leiotik leiora errixetan ekitean, barruko jantzirik eskutuenak be aizetara atarateko gertu, alkarri aiza-aizaka.

Itxaropen bat daukat. Errixetalariak amaitu ziran. Denporak argi egiten dabe. Familiak be, geituaz batera, kate barriak billatu.

Gure politikoen artean be orrelako zerbait gertatu ete leike?

Euzkadi'k ez leuke gitxi irabaziko.

Kontzientziko azterketak egiteko premiña len bezin bearrezko igarten dot. Orain lez, egun barrien itxaropenean.

22-11-84

GOGOETA EGUNA

Aurten, Maiatzaren zazpigarrena, gogoeta eguna dogu. Erabagi baten aurreko gogarte (meditasio) eguna.

Ba dogu gure esaeren artean onako au: "Maiatzeko zazpi egun, zazpi illabeteren lagun".

Iragar egun edo orrelako zerbait adierazten dabe.

Egun onek, euskal begiz, ainbat gertaera dakarkiguz, jakintza, guda, politika eta bertsolaritzari buruz.

Ikus, gain gaintetik, egun onetako gogoragarriak, urrunera joan barik, lengo gizalditik asita:

1841.— Estanislao Aranzadi jaio Lizarra'n (Estella'n). Euskal jakintzen maitale giartsua. Oñate'n il zan 1918 urtean, ango Euskal Batzar ándirako gertaerak egiten ebillala.

1845.— Estanislao Labayru jaio Batangas'en (Filipinas). "Historia General de Bizkaya" idatzi eban sei liburu anditan. Il zanean zazpigarrena erdi-amaituta eukan, eta C. Etxegarai'k amaitu eban.

1854.— Arturo Campion jaio Iruña'n. Jakintsu langillea. Aingeru Irigarai'k beragaitik esan eban: "Humanista zan gure gizona, gizatasuna zerion lau bazterretatik".

1841.— Franzisko Aboitiz jaio Nabarniz en. Indietako mixiolari ospetsua. Karmeldarra.

1874.— Zesareo Miangolarra jaio Gernika'n. Abadea. "Artzain abestijak" idazten zitun.

1910.— Pedro Mari Otario bertsolaria il Argentina'ko Santa Fe'n.

1922.— Emakume Abertzale Batza sortu Bilbo'n, ango Euzko Gaztedija'n. 50 emakume batu ziran orretarako.

1937.— Sollube mendia artu nazionalak. Egun onetan 1928'tik 1938 arteko gudarien deia egin zan Bilbo'n.

1973.— Antonio Pildain, gotzaiña, euskal aldun (diputadu) izan zana il. Lezotarra. Beartsu (pobre) il zan, bizi zan lez. Gerra aurretxoan Gernika'n egin eban itzaldi batek zotin andia eragin eban euskal foruen arerioen artean.

Orrela, ainbat batu ta zabaldu giñeiz gaurko egunez.

Baiña, aurtengoz, gure gogoetak bizi garean egunetara biurtu daiguzan.

Egun andi baten bezperan gagoz. Biar jai ospatuteko, kanpaiak jo bear gaur. Eta kanpai jotzailerik onena, bakoitzaren kontzientzia dala esaten da.

Bein eta beingoz, euskaldunok gure errialdeko gora-beretan arduratu, kezkatu, sartu eta ekiteko kontzientzia artu bear dogu. Al danetan, bakoitzaren indarrez. Edo bestela ordezkarien bitartez. Danen gaiñetik erriaren onari begira jarri bear gara. Euskaldun lez Euskalerriri begira, Euzkadi'ri begira.

Errien jokabidea, gure nai, agindu eta gurarien erara egingo da. Legezko da orrela egitea. Baiña ortarako gure eskubideak artu, zaindu eta erabilten ba doguz.

Ardurarik eza onartu lei gai batzutan. Baiña norbere bizitzari izateari, soiñari eta gogoari ikutu egiten dautsanean, ardurarik eza koldarkeri, ustelkeri eta norbere saltzea izan lei.

Gaur gogartu, biar jokatu ta etzi dantzan egin. Edo lenakoenak esaten eben lez, bakoitzak bere tanboliñari eragin.

7-III-83

GORPUZTI EGUNA

Oñati dala esan geinke gure denporetan Gorpuzti jaiari lengo kaleko ospe, anditasun eta lotsa gordeten jarraitzen daben erria.

Beste toki askotan lez Euskalerrria Gorpuzti jaiari egun berezien gertaera eta nortasuna emoten asi zan Eleiz barrutietatik kanpora.

Erri maillan eta agintarien arduretan sakondu zan.

T. Guiard'en "Historia de la Noble Villa de Bilbao" irakurtean laster jakin al izango dogu Bilbo'n zaletasun andia egoten zala, Egun au eta bere zortzi egun ondorengoetan zarata eta ots andiz eta alaitasunez beteriko jaiak egiteko. Geienetan kofradien bitartez eskatu eta eratuak. Edo ta orrelakorik gertaten ez

zanetan, alkate eta udal gizonen arduetan. Eta antzerki, irudikizun eta ikusgarriak gertu, egin eta emoteko, toki eta maiak Santiago eleizaren aurrean edo ta Merkatu plazan jasoten zirala.

1556 urteko agirietan ba dago ortazko bat.

1577 urtean irakurten da Markiña'tik eroan ebela Bilbo'ra antzerki talde bat jai onetarako.

Orrek Markiña asko goratuko leuke eta denporaldi aretako kultur bizitza bat agertuko leuke geitu ezik markiñar kondaira-egille edo batzaille zan Murgartegi'k esana dala, alegiñak eta azterketak egiñarren, Bilbotarrak aipatuten daben Juan Lopez komedigille, edo ta antzerako taldeko zuzendariaren urratsik, ez ebala markiñarren artean aurkitu.

Dana dala Bilbo'n ez eben origaitik guzurrik esango eta bear ba da erriz-erri ibiltzen ekianen bat izango zan esaten dan Juan Lopez ori, edo ta beste abizen zeatzago bategaz ezagutua izan eikean.

Durango'ko kontuetan be sarri agertzen da Andra Mariko eleizaren aurreko aterpean gertuten zala Gorpuzti jaiak egiteko lekua.

Lekeitio'n 1559 urteko kontuetan ba dago zerbait. Urte orretan motxaille edo gitano batzuei 85 marabedi ordaindu eutsezala Sakramentu Santuaren aurrean dantza, ibillera eta pozgarriak egitearren. ("Ciertas danzas e vueltas e regocijos").

Ba dirudi 1580 baiño lenagotik dantzari jatorren orde, orrelakoak erabilten zituela Oñate'n be. Urte orretako kontuetan ikusten danez, Gaspar Malla eta bere lagun gitanoak izan ziran dantzariak, salterio jotzaille batek lagunduta.

Euskalerriko ibildeun (prozesiño) askotan Mikel deuna iruditzen dabe, gazte bat aingeru lez jantzita. Noiztik ete dator oitura ori?

XV eta XVI garren gizaldietako kantu-bilduma baten, onelako esaera bat agertzen da gazte baten aotan:

"Juro a San Miguel de Oñate, el que calza bragas de oro..."

la noizkoak diran Gorpuzti eguneko dantzak, Korpus'ko zortzikoa edo san Miguel zortzikoa ta abar.

Oñate'ko liburuetan ba dago jantziei buruz zerbait erakusten dabena: Egun onetako dantzak "con ropas de catamalo" egiten zirala. Katamalo jantzi orreik mamu jantzi edo barregarri eta bildurgarriak ei ziran.

Ziur dagona au da: Gorpuzti eguna dantza eguna izaten zala Euskalerrian. Poz eta alaitasunez Jainkoa goratzeko eguna. Ijitoak dantzari edo ta gutarrak. Barregarrekeriz eta katamalo jantziekin edo ta giroa obetu ala jantzi txukun eta lotsadunekin. Noiztik?

XV-XVI gizaldietara erraz atzeratu giñei jai onei buruzko urratsetan. Ori-gaitik gero ta ariñago galtzen duazan oiturak, gaur ezagutzen doguzan gure parrokirik geienak egin ziran denporetara eroaten gaitue.

GOTZAIN DIRUZALEAK

Entzuna daukat.

Añoberos jauna Bilbo'ko gotzain zala, kezkatu eta lotsatu be egiten zala eleizaren ondasunekaz eta alper egozan batzuk eskuz aldatu egin zitula, ikastola, parroki eta abar egiteko. Eta gaur Bizkai'ko eleiza barrutiak bere premiñak beteteko estutasun eta atzeraldiak igaroten ditula.

Oraintsu agertu da Jose M. Gironella'ren "El escándalo del Islam. De Mahoma a los petrodólares". Eta liburu orretan Bitor Sanmiguel Kuwait'eko goztaia agurgarriaren ikusmen batzuk agertzen dira.

Nire San Miguel 'en fitxa labur bat eskatu ezkerro, au emongo neuke: Lekeitiarra jaiotez, udaletxeko ikurdiaren inguru guztiagaz. Karmeldarra sinistez, karmeldarren fede on eta loditasunez. Inditarra biotzez, ango sinismenen menpetasunez.

Ez da arrigarri. 1928 urtean Euskalerritik urten eta bizibideko urtetik indartu ta gogotsuenak India'n egin zitun, 1970'n Kuwait'eko katolikoen buru eta geroago ango gotzain aukeratu arte. Garbi esanda, 42 urte India'n.

Goazen arira.

Idazle argi, erraz eta zolia da Gironella. Asko ibilli ta asko ikasia. Sarri berba erdikatik oso bat biribildu eta bat eta erdi zabaltzeko eran gertu eta gertatzen dana.

Bitor Sanmiguel'eri igarri dautsa gotzain jantziak atsegin ditula, eta erastu-nak erabiltearen zale dala. Baiña Monsiñorak berak esanda dakit, Kuwait'en serbitsuetan edo be maillako diran langilleak, inditarrak dirala geienak, millaka, eta arein iritzi eta aburuetan jantzi orreikin, ikusi nai dabela, azalak eta itxurak be Eleizeari duintasuna emoten dautsela-ta.

Gironella'k ainbat aldiz gogoratzen dau inditar katolikoen esku zabaltasuna eta... gotzaiñaren poza eta irribarrea orrelako jokabideen aurrean. Eta bere esaera bat gogoratzen daki: diru barik ezin leikela ezer egin, ez eta beartsuei lagundu be.

Geiago: Inditar katoliku orreik jai arratsaldetan emoten dituen diru laguntzak batzeko karrotxiki baten premiña eukiko leukela.

Onelako gauzak irakurrita, San miguel gotzaiña aberats andi eta lodi etorriko ete da Euskalerrira, urre gorrizko zartzaroa igaroten konbentuen baten?

Egia au da. Sanmiguel lekeitiarrak, benetan maite dabela India, eta India'ko errialde beartsuetan bere biotza daukan lez, inditarrak Kuwait'en emoten eutsen dirua, India'n gaixotegi andi bat egiten eralgi dabela, eta bere azkenak errialde aretan emon nai ditun lez, Kuwait'eko obispadutza urteak betetean laga dabenean, Euskalerriko atsedena etorri barik, andik India'ra joan dala, bere gaixotegi andi orreri bizia emoteko bere laguntasuna eskintzen.

Bere liburu bat euskeratu neutsanean, alako baten Ondarroa'ra etorriko zala, jakin erazi eustan emengo toki ezagun baten alkarregaz lebatza jatera. Eta etorri zanean... naiago dot ementxe, zure etxean jan, esan eustan. Zer esango leukie gotzain bat kaleko jatetxe baten jan-guraz ikusita?

Gironella'ren liburua irakurri ondoren, uste dot orrelako txikikeriak be agertzea komeni dala, txikikerietan ikusten dalako sarri gizonaren anditasuna, eta batez be bere izatearentzako lotuera eta borondatezko eskintza.

31-VIII-82

GOTZAIÑAK ETA GU

Katolikutasunarentzat, edo ta Eleiza orrentzako euskaldunon makurtasuna, luzerokoa izan da.

Sarri kristonak artuarren be.

Kristonak artzea, Kristau eleiza baten, bidezko da. Bai eta gotzaiñenak artzea be, eleizaren erakundeko gidaritzazuzen baten.

Baiña euskaldunok iñok baiño obeto igarri al izan dogu elizaren arazoetan laterriagazko lotuerak euki izan daben katea.

Arabar eta bizkaitarrak Kalagorri 'ko gotzaingo (obispadutzako) kristau erria osotzen egon giñan luzaro. Gipuzkoarrak Iruñakoan.

Gasteiz'en batu giñan irurok lengo gizaldian. Eta alaxe iraun, 1950 urtean Gasteiz'ko ori Bilbo eta Donostikoetan banatu arte.

Kalagorri'tik banandu ezkeroztik, Gasteiz'en gendun artean, bakarra izan zala uste dot errege eskubidez aukeratu izan ez zan gotzaiña. Batik be ez, batera nai bestera, laterriak (estaduak) eskubide batzuen ordeze bere eskuetan, edo bere ukabil barruan lotuten eban Eleizak laga edo laga eragindako gotzaiñen aukeratzeko nortasuna eutsi barik izendatuak.

Euskaldunak, euskaldun leze, sekula ez geuntsan gure borondaterik ukatu Gasteiz'ko gatzaiñei.

*Ongi etorri Jauna,
euskaldun jendeak
gaur egin nai diozka
bere honoreak*

esaten da Gasteiz'ko lenengo gotzai jaunaren etorrerako bertso zarretan.

Alaz eta euskal pentsabide barria Euskalerrian agertu zanetik, batzuntzako diabrukerizko Euzkadi agertu zanetik, nai eta lenengotik eta osotasun guztian Sabin'en jokabidea Jainko pentsabidean menpetasun eta makurtasun zindoz agertu, gotzaiñak Eleizaren eskubidetan barik laterrien jokabidetatik begiratuta tinta baltz ugari erabili eben esnatze orren aurka.

"Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikuarentzat" be eztabaidatua izan zan alderdi askotatik, eta egolatrizat etsi, arrazakeri baten ezaugarri zala-ta, Jainkoari eskintza barik.

Gero euskal izenak agertu ziran, eta parroketako liburuetan biraoak ipin-tea ziralakoan artu zituen.

Errepublika era etorri zan I93I'n. Gasteiz'en Muxika jauna zan gotzai. Danak ekiena, bere pentsabidetan errege zalea zala. Baiña berak artez jokatu eban. Gobernadorea ikertutera joan zan eta bere lotsa agertu.

Alaz eta egoera berotu-ala, eta Errepublikako agintariak eskumatarren aldetik gero ta zirikada, eztenkada eta satorkeri geiago artzean, don Mateo'ri be eldu jakozan garrazkeriak.

Maiatza'ren I7'an Madrid'etik iru orduko epea emon erbesteratzeko, eta I8'an "muga" igaro eragin eutsen.

Biaramonean EAJ alderdiak, Gasteiz'en beste gotzaiñik ez ebala ezagutuko esan eban, Muxika jauna besterik. Ori zan jokabide zintzoa.

Euskaldunok politikoen itsukerian ez gendun jausi nai izan. Eleizagan gendun sinismenak orrela jokatzera beartu genduzan. Nai eta gero be, oraindik, atsekabe ugari eroan bear.

Ez dakit gaur zelan jokatu genduken. Aldatu ete gara? Baiña gotzaiñak be erriari lotuago bizi dira gaur, agintarietatik azkeago. Eta ori danon mesedeko da.

18-V-82

GUDARIEN OROITZA

Lengo, baten, Barakaldo'ko Errekaxu'n, "Gordexola" gurarosteko (batalloeko) gudariak batu ziran.

Gudariak batzeak eta alkartzeak ez dauka gaur txanda bateko eragozpenik. Alaz eta, gero ta zarrago goazenontzat, ba dirudi orrelako egunak len baiño

makurpen geiago erakusten dabela, gero ta ariñago malkoak ixuri, gero ta min-tsuago biotza taupadaka ipini.

Gogoratu gudariak, geienak, irurogei ta amar urte inguruan gabiltzala, ia gaztenak eta andik gorakoak geiago dirala, berakoak baiño.

"Gordexola"ko batzar ondoren batek iñostan, pozez batzutan eta errukiz bestetan, mara-mara negar egin ebala.

Ainbeste urtetako eskutuko batzar, meza eta alkartze ondoren, zein biotz beratu eta samurtu ez?

Bestalde, gure gizartea ain igarrian aldatzen duan denporaldi onetan, sermolar berberak kristautasunaren eta giza-eskubideen belgundari (apostolu) izan giñala eta antzerakoak esateak, arrotu egiten dau bat. Arrotu ez da be, askok ukatu, beste batzuk eztabaidatu edo ta irribarretsu agertu daben siniste bat da. Eta zeñeri ez jako atsegin bitsdun txaboirik?

Maietan jarteko eta jateko, gero ta otoi eta esker emote arin eta laburragoak egiten diran aldi onetan, eta askotan orrelako itxurarik be ez; alkarri jataldi on bat eskintzeko Jainkoaren izena aitatzeko be zer esana edo bildurra igarten dan maiaurretan, "Gordexola"ko gudariak, antxiñako katakunbetako kristau jazartu eta fedetsuen antzera, "gure Aita" abestu eben. Esan dodan lez, abestu, oso-osoa, nai eta geienak enkarterri ta ingurutakoak izan eta euskerarik jakin ez, baiña gure otoitzik gurenena abestuteko euskeraz beintzat ba dakielako. Orrela Jainkoari eta euskerari ornen eta lotsa ta begiramena zaindu nai izan eutsezan.

Eta ez bakarrik jataldiaren asieran, bai eta bardin abestu be otoitz berbera maitik jaikieran.

Jainkoa'ri lotsa, gizabide eta jokera lez izan zan gudarien ametsa. Eta erriari odola, indarra, alegiña ta makurpena. Erria esaten dodanean, gure erria esan nai dot, gure gizartea, gure legeak, gure euskera eta beste agerbide guztiak.

Gudan sartu edo ez sartzea eztabaidatu lei. Gudan sartu ta erritarren ondorengo jokabidea, gudarien zintzotasuna, iñok ezin leiz zalantzan ipini. Origaitik geroagoko ezaupide onek indar eta sentimen geiago sortuten dabe.

Jausi ziranak oroitza bear dabe eta bizi diranak omena.

Onetan batuko dira Gudari egunean Galdakao'n alkartuko diranak be.

Maiatz loratsuan batu nai dabe. Zegaitik?

Gure gerratean baiño maiatz larriagorik gaitz Bizkaia'n.

Maiatzaren 8'tik 15'rako astean Bizkargi eta Sollube Euzkadi guztiaren arantza ziran. Il erdirako Bizkargi kiskalduta egoan. Eructan iñarduen mutillak negarrez etorten ziran Bilbo'ra. Or gendun gerrikoa, baiña zetarako, goietatik nai eben *lez* zanpatu, zigortu, autsi eta birrunduten ba genduezan?

Legezko da orduan odola ixuri ebenei gure biozketak eskintzea. Eta eurak ez dabe ezer eskatu. Ori be erri batek gogoan euki bear dabena da.

GURE ABADAK

Alperrik esan bata ta bestea, oraindik abadien kezka dogu. Eta eukiteko izan gaitezala.

Geiegien denborak ezagutu genduzan. Abade egin, nora bialdu tokirik ez eta egin barriak euren zeregiñagaz jaubetuteko utsuneren baten zai egon bear izaten ebenekoak. Eta konbentuak beteta, ia Ego-Amerika guztian euskal fraile eta misiolariak ezagutzen zirala. Eta an lez Asia eta Afrika'ko lurraldetik bear-tsuenetan.

Asko esan da eta esango dabe abadeakaitik. Onetik eta txarretik. Baiña eurak dira urteaskotan, gure errietan euskerari eutsi dautsenak; gizartearen esku-bideak goratu dituenak; erriaren abotsa zabaldu dabenak; errukarrien ardura asko erakutsi dabenak; gizarte lanetarako eta laguntzarako euskal kontzientzi asko kezkatu dituenak.

Bat edo bi... ez dira kontuan eukigarri.

Batzutan oiturak, ekanduak, lagunak, senideak, emakumeak eratu egin dituela, lurreko gauzei geiegi lotu eragin?

Ez giñake gizon bakoitzaren jokabidea ikusita, areik be gure antzeko laban eta irrizgarri izan leikezana ezagutuko ez ba gendu.

Egia da gure esaeretan, gure sinistetan eta agerbidetan, ainbat agergarri doguzala abadeen irriz.

"Zeruan ume aingeru bat obe, lurrean zazpi apaiz baiño" esaten dakie Napparroa'ko Oskoz'en. Baiña ori umearen gurasoen naigabea arinduteko izaten da.

Beste batzuk jan edanetara duaz eta Pio Baroja'ren antzeko abadeak ikusi eta aukeratzen ditue bakarrik. Jan edan zaleak. Ala esaera be: "Dominus vobiscum ez ei eban goseak il".

Aldi baten, nun ondo jan eta alikatzen zan jakiteko edo igarteko, abadeak ikustea baiño ez egoala esaten ekien. Baiña ziurretik adarra jotearren eta esanak geiago ziran, egi ziurrak baiño.

Esaera da baita be: Abadearen lapikotxoa, txikia baiña gozoa; ikazkiñaren lapikotxoa, andia baiña artoa.

Onek eta beste ainbat orrela izanarren, ezpairik ez dago "zenbat abade on, ainbat erri on" be egia dala.

Aldakuntza andia egin da gure artean azken urte eta denporetan. Batetik gure alde, bestetan kalte.

Aurrerakuntzaren izena ez da beti izana. Askotan azala aldatu da. Itxurak trukatu. Baiña barruko muiña, muiña eta miña, or gelditzen dira. Ezin leiz gizaldien egiñak aize bolada batek eroan.

Eta gaur, Euskalerrian, oitura eta siniste zarren zale eta maitale irauten da-

ben erri onetan, Naparroa'ko Larraun'go esaeratzat dana, egi ziurra da: Apez batek bedeinkatu al lan ba dogu".

Origaitik Euskalerrian urtero lez abade barrien aldezko eguna ospatutean, lengoen oroitzat barriztuaz, barrien premiña eta kezka agertuko da.

Nai dana esango da, baiña Euskalerria, bere izatez eta erakundez, abadea bear daben erria da.

8-XII-83

GURE ALDUN NAGUSIA

Onelako lantxo bat aspaldi *egin* neban. Sorgiñak ibili jataz nire paperen artean. Galdu. Baiña, nai ta aldizkari baten Makua dala-ta astean irakurri zerbait, nire ikuspegia agertzeko eskubidea daukadanez, orra zerbait.

Izen bat eta gizon bat: Jose Maria Makua. Ama zale zan lez, geitu daigun bigarren abizena: Zarandona.

Aldun ala diputatu nausi?

Lenengotan, eta gero be, Bizkai'ko Foru Aldundi deitzen dira etxea eta erakundea. Baiña txokolate guztiak be ez dira egiten kakaogaz. Gaur modako lez artu dabe aldun batzuk diputatu deitura erabiltea. Zerbaiten loturako eraztuna.

Setatsua, bai buru gogorra be. Ala diño. Baiña ala ete da? Esanak izana daroala, ezaguna da. Nik, egia esateko, setatsuari gogorkeria kendu ta alegintsu geituko neutsake. Ez buru gogor, ez eta zemaikor be.

Etenbako lanak eta lanerako garrak ataraten dautsaz, askotan bat-bateko brastadak. Ez bildurtu. Iñor baiño lenago joko zaitu lepoan adiskidetasun billa. Beraz biotzeko gogortadarik ez. Lanerakoak beste era baten deitzen dira. Nai ta erantzun leikenak dana goibel ikusi, ezin orrelakorik esan.

Makua'ri ipinten dautsen aitzakia: Bizkaitarregi dala, ez dala abertzale zabala, txoko maiteegi dala.

Onetan, bat beintzat garbi adierazi bearra dago. Makua, berez esku zabala izanarren, Aldundiko diruagaz ertsia dala, estua, edozeinentzat. Ez dogu ukatuko bizkaitarra danik, baiña noiztik da pekatu bizkaitar izatea? Eta zer kentzen dautso bizkaitar izateak abertzaletasunari? Euskaldunok oiturazko gendun Ekonomi Ituna (Kontziertua) berreskuratzeko lan eta jardunetan, ez al zan gogo eta biotz jardun? Eta zeinik diño ori bizkaitarrena dala bakarrik?

Makua, bizi guztian ekonomi arduretan jarduna da. Kezka orregaz bizi da geienbat. Argi dago. Eta geitu bear, etxerako jokatu bear danetan alegintsu izaé narren Euzkadi osorako ekin bear danean be atzerarik barik agertzen dala lekutan eta lekuko.

Ba dakigu beti dirala irizpide ezbarðiñak. Gu geu be, diru ekintzei baiño euskeraren garrez lotuago gabiltzanok, ausartuko ete giñake Makua eta bere taldea bizkaieraren aldeko itsu dirala esaten?

Norbaitzuk ekonomi alde ezarri nai dautsen etxekotasun larregia, autortuko ote genduke euskal gurarietan, nai eta bizkaiera gure alor eta zaindu bearreko ondare izan, ain etxekotzat daukela ziurtatzen? Uleak billatzen asi ezkerro, edozeiñek daukaz nai ez leukezan tokian.

Alaz eta... Sekula ezin ukatu al izango dogu Makua bere zeregiñaren kez eta langille oparo danik, gain gaiñez Euzkadi'ren mese+ dean, norbere etxeari al dan guztia emonda.

"Nire etxea defendituko dut" olerkari batek esan ebanean, iñok ez eban pentsaten Aresti'k bere etxeari buruz ori esan ebanik. Danak erria ulertu eben. Ez ete da bardin olerkariaren pentsakera eta politikoarena? Makua'ren etxea, gurea lez, edozeiñena lez, ez al da azken baten Euzkadi?

Makua'k zer esana sortu izan dau. Baiña ez al da egia geldi eta ixil dagonak ez dauala esanbiderik emoten? Eta egon ete leike iñor mutu gaur, Bizkai'ko Aldundi baten ardularitzan?

Deia, 24-X-1985

GURE ALDUNDIA

Arrituta geratzen da bat gaur gure Aldundiak, Bizkai'ko Diputasiñoiak, atara, emon, agindu, zabaldu eta erabilten daben dirutzagaz.

Eta ori diru-itunak, konzertuak, nai litzaken eran oraindik eratu barik dagozala, oraindik Bizkai beiaren errapari kanpoko esne batzaille asko urreratzen jakozala, eta gure artean be Makua jauna, diru-zale izanarren ukondo andiko politikaria dalako, Gebara'ren eskolatik ibiltzen bildurtzen dala.

Diru egiteko makiña dala esan lei Aldundia.

Ala dala sinistuko genduke, dirua diruak dakarrela ez ba genki, eta origaitik diru makiñarik onena diru batzea dala jakingo ez ba gendu.

Agirian dagonik ukatu ezin leiken lez ukatu ezina da gure Udalak, erriak, gaur aiña diru sekula ez dabela erabili, nai eta oraindik premiñak, asmoak, egitamuak eta aurrera eroan naiak askoz geiago eskatu.

Gu geuk gure txikitan ezagutu eta ikusitako gauza da. Eta geroago irakurri eta jakiña.

Primo de Rivera'ren diktadura denporan, Bizkai'ko Aldundiak ez eukan eskuarterako dirurik. Ordurarte be zerbait egiten alegintzen zan, al bestean, erri txikiei lagundu eta eskua luzatzen.

Baiña gizonak eta aldunak, ordezkariak barriztatzea gertatu zan baten, di-ruari neurria artzeko arduraz, len aginduta eukazan lanak be bertan bera lagatea erabagi eben. 1926 urtean zan.

Ondarroa'ko zumarditik (alamedatik) ondartzarako zubia egiten iñarduan. Zubiak, Artibai ibaiaren alde batetik bestera, berrogetamar metro inguru daukuz.

Burdiñazko zatiak ogei ta amar inguru, eta beste zatiak, zementozkuak, beste ogei. Lan ori, burdin eta zementu, eta zubi ondotik Arrigorri'rako mailla-
diak (eskillarak) egitea, danetara 120.775 peseta kostaten zan. Erriak zati bat, eta irurogei ta amar milla Aldundiak ordaintzeko ziran.

Asmoa bertan bera etorran.

Aginduta gero, Aldundiak dirutza ori ezin emon eikeala esan eban. Ez eukala dirurik eta laguntza guztiak kentzeko erabagia artu barri zala.

Ondarroa beti izan da erri pobrea. Illeta joten ikasia, baiña "miseri" asko euki, ezagutu eta igarotakua be bai. Eta ala ta guzti be, lana laga ezina zala ikusi eta ezagutu ondoren, erritar batzuen artean Aldundiak berak emon bear zitun 70.000 pesetak batu eta aurreratu zitun. Eta Aldundiak, geiagorik ezin eikeala eta diru orreik, urteko zazpi milla peseta, amar urtetan biurtuko eutsazala agindu eutsan gure erriari.

Eta gure Aldundiak dirurik ez baiña biotz ona eukalako, 70.000 peseta orrein urteko korridu orde, Ondarroa'k eskatu be ez eutsazalako, zubitik igarotearren dirua kobrateko eskubidea bere kontura laga eutsan erriari

Orrela amaitu zan Ondarroa'n ordurarte ezagutu gendun "pasajeruaren" batelean ondartzara igaro bearra.

Eta 1927 urteko maiatza'ren l'an-asi zan "txori txikiko" zubia erriaren serbitsuan.

GURE ALKATEAK

Gure alkate erdua nor dan?

Edozein erri txikitakoa.

Gobernadoreari sagar fardeltxoia eroaten eutsenak, edo ta txarri salomoa; edo gabonetan besigua bialtzen eutsenak, edo ta udabarriko zuzak... orreik joan ziran.

Gipuzkoa'n ba eukan entzutea eta fama batek. Bere erriak, lan bat egin bear zanetarako dirua aurreratu ordeZ, zuzak erosteko oitura ei eban bere garaian; alkateak agintariei eroan eta areik erriko lana egin. Dana da jokia.

Gaur, erriak, orrelako artu-emonetatik kanpora jokatzen dau. Erriak ba dauka egin eta alegin bearraren kontzientzi bat. Erriak ba dauka bere gizonak aukeratzeko kezka ta ardura, eta alkateei zorrotz kontu artzeko oitura.

Sari irakurten dodaz Enbeita tar Kepa zarraren bertsuak. Kalea eskintzea erabagi ta oraindik Bilbo'k bete barik edo bertan bera laga eban Enbeita zarraren bertso aberkoiak. Ba dira 50 urte auteskunde batzutarako irakaspide au emoten ebal, orduko alkate eta udal aukeratzeei begira:

*Gauza txarren jatorri
arrokeria dozu,
nagikeria barriz
ustelaren lengusu;
senitarte orretan
bizi nai ez ba dozu,
abertzale aukera
Udalari emoiozu.*

Gaur, erriak, iñoiz baiño ardura geiago eskatzen dabe.

Erriak ez dira bakarrik kaleak eta etxeak, ibilbideak eta enparantzak, aldi baten gorenengo ziran lez. Erria dira baita bertako bizilagunak.

Erria dira umeak, eskola, ikastola, ikastetxe eta abar.

Zarrak be erria dira, zarrak eta gizon mardulak atsedean toki, gaixotegi, ibiltoki eta azken urteak baketan eta zorionean igaroteko eskubidea.

Eta erria dira gazteak, lana, indarra, bizia, gaztetasunaren eskabideak... Borroka esango leuke batzuk. Borroka baiño maiteago dot alegiña, ekintza. Ez borrokak bildurtzen gaitulako, atzeratzen gaitulako. Borroka ibiltaria da. Askotan intxaurrena: Oskol asko ta mamiñak ez. Trumoi asko ta euririk ez.

Ostera alegiña, ekintza, ardura, eguneroko jokabide da, eguneroko begira ta azterketa. Eguneroko ondo naia. Kanean eta etxean, baserrian eta itxasoan.

Eta jakiña da: urak be tantaka tantaka, ezer ez dalakoan, zuloa egiten dau jausten dan tokian.

Erria, bere premiñetan, bere bear izanetan, bere gose ta egarrietan, etenbako eskalea da. Ikusi baiño ez gure erriak urte bitan irunsi dabena ta iruntsiko leukena.

Origaitik gaur, erri ezaupidea eta kezka eta maitasuna daben gizonak bear dira alkatetzerako eta bere laguntzarako. Eta al dala euskaldunak. Kontuan euki euskeraren bizian erri agintarien arnas eta laguntzak zer ikusi andia eukiko dabela bere bizitzan.

Guk, gure alkatentzat, ez dogu nai "ilustrasiño" andia dauken kanturik, baiña bai erri ardura eta kezka euki dabelako esker eta txaloa joteko gogoa guregan sartzea. Eta ziur egon orrelakoak aukeratu leikezala.

13-IV-83

GURE ARTEKOAK

Mendebala lakoxea igarri dogu egunotan gure erriko Alderdi politikorik nausienean.

Bildurrak ekaitz biurtutako aizeak askoren pentsabidetan.

Zintzotasun bete edoitsuak iruditutako galerrena besteak.

Eta azkenean, urak lengo bidean.

Ez ori bakarrik. Gizontasuna be bai, gizonkerien gaiñetik.

Ba dirudi euskaldunok, erri maillan, politiku izaten ez dogula ikasi. Eta ez gareala konturatzen gure erakundetan, nai ta ez sortu bear dirala, eta sortuko dirala, jokabidetako iritzi ez bardiñak ikuspegi bereziak, gai batzuetarako pentsabide eta ibilkera aldakorrak.

Ezin lei pentsatu erri jokabidean millaka gizonek eta eundak errialdek, jokabide artez, zuzen eta zeatz bat eroan leikenik. Ikuspegi zabal bat bai, anditasun baten bai, baiña ez zeaztasun baten.

Onk ez gaitu zoratu bear, ez gaitu norberetik atara bear.

Beste askotan, alderdi baten barruan, erantzun bearreko bat baiño geiago egoitea gertaten da: alderdiko agintariak batetik, erri agintaritzak daukezanak bestetik.

Batzuk eta besteak euren ikuspegi ez-bardiñak euki leikiez gai batzutan. Batzuk alderdiari begira biziko dira, besteak erriaren mesederako ustetan egi ten dituen legeei.

Alderdia zaindu bearra dabe batzuk, aukeratu zituen zeregiñeko ardua. Besteak, iñoiz, alderdi batekiko euki leikezan kate estuak azkatzeko zirikal-diak; txirristadak, esango neuke nik, erri-miñak edo erri-premiñak eragindako labankeriak.

Gaitz izan lei batzutan batek bultzatuten daben Alderdiaren naia eta aize-tzea komeni dan errimoltsoaren gurariak alkartzea.

Gai askotan.

Gaitz, bat esateko, agintari batek goi-maillatan naiko leuken azkatasuna, errialdeak euren jatorrizko izatez daukezan eskubideekin ados erabiltea. Baiña egin bear dana da.

Gauza ziurra au da: alderdi politiku batek ezin leikela erririk baztertu, eta erri onen jokabiderako aukeratzen ditun gizonak be ezin leikeela aupatzen di-tun Alderdiaren gogorik ukatu ez da be, ez ezagutu.

Erriak era batera pentsatu leikie: Alderdiak euren erara. Eta azken baten al-derdi politikoak izaten dira eurak aukeratzen dituen gizonen jokabidearen onu-ra edo ta zigorra artzen dabenak.

Bidezko da, beraz, azkatasun baten (azkatasun orde nasaitasuna esango neuke erabide onetan) ezaupiderik ez galtzea. Esaten dan lez, sendiko (famili-ko) lokgrri edo alkartasunak galdu barik, zaindutea.

Berba baten esanda: kalera ezkonduarren, etxeko giltza aldian erabiltzea, `bear dan guztietan etxekoak ikustera joateko aukera egokia eukiteko be. Ba-tzutan etxekoak deituta eta bestetan leiotik iñor deika ibilteko premiña barik.

Deia, 12-1-84

GURE ATHENAS'EN

Erderaz ba dago esanbide bat: globo sonda.

Guk, arrantzale errietan, amua luzatu, txikota jaurti edo antzerakuak erabil-ten doguz.

Bizkaieraz berba egiten dogun errietako esnatzeagaz, ba dirudi Irakaskin-tza saila konturatzen asia dala.

Konturatzen asia dala, baita, jaurlaritzea, agintza aiña banakaritzea (aminis-

trazioa) dala. Eta banakaritza baten, emontzaile guztiak dirala era batera edo bestera ondasunen partaide.

Beste eskubide guztiak alboan laga barik.

Ba dirudi Euskadi'ko Athenas'en, Gasteiz en, bizkaiera beste edozein euskeraren eskubideen duin dala autortu eta eskatzen dogunon asarreak, benetako asarreak, besterik ezean, kezka batzuk sortzen asi dirala.

Ez dira lau katu, jaurlaritzako inkesta batzuk ezagutzean, bidebakokeri batzukaz laster konturatu eta jaubetu diranak: Labairu Ikastegia, Izkuntz-eskola, Derio'ko irakasle eskola, Euskerazaintza, Eleiz Ikastola Batza, Euskerazaleak... izkuntza kontuan Bizkaian arduratsu igarten diranak, batzarrak egin eta egiteko ditue. Eta katea luzatuko da. Ba dakigu.

Nok pentsatuko eban gure jaurlaritza batek, "gureak", bizkaierarentzako ain ezaupide gitxi agertu bear ebanik?

Bizkaiera problema dela? Zergaitik? Bizkaia ez al da Euskadi'ko erri? Ala ondasunetarako bakarrik al da?

Eta bizkaiera erabilten dogunok ez al daukagu gure Jaurlaritza zeregiñetan eskubiderik? Ez bakarrik dirutan eta ondasunetan, bai eta goietan arduradunen eta zuzendarien artean bestien pare egoteko eskubiderik, eta guri dagozkiguzan neurrietan, geurea aztertu, zuzendu eta legeztatzen egoteko eskubiderik? Ala agotak al gara bizkaitarrok edo bizkaiera erabilten dogunok?

Zabala nazala, estu baten irudia emoten nabil.

Anaitasunik onena iñor mindu barik zaintzen dala esaten da. Baiña gu mindu egin gara. Origaitik gagoz asarre. Eta asarre gagozan lez, urduri gagoz asarre au indartu eta itsutu barik, baretu eta ondutea nai dogulako.

Zuzena danari eutsiko dautsagu. Bidezko leikenari errie emon. Baiña gure berbetako era, berezko eta legezko eskubide lez aldeztuteko kontzientziko eskabidea dogu. Bizkaia'n euskera indartuko ba da, eta geiago esanda, euskerak Bizkaia'n iraungo ba dau, mingarri danarren alaxe esan bear da, iraungo ba dau, bizkaierari eutsita izango dalako ziurtasun osoa dogulako.

Orretarako nai ta ezko da irakaskintzan bizkaierari aterik luzeena zabaltzea.

Ez dogu ori ukatu leikenik egongo danik.

Euskera bititik etorriko da euskeraren indartzea, berba egiten dan euskertik, etxekotik.

Eta lengora jota Aideko pelotak artu nairik: Nor asi da zabaltzen Arratia'n, Mungia'n, Durango, Markinalde eta abarretan bizkaiera erakusten lagako ba da be, Bilbo, Barakaldo ta inguruetan bizkaierarik ez dala erakutsiko?

Bizkaiko errietatik Bilbora joandako gurasoak ez al dira bizkaitarrak eta bilbotar umeak ez al dira bizkaitarren semeak?

Gasteiz'ko Athenas'en zer dakie ontaz?

GURE BATZARRAK

Bizkai'ko Batzar Nagusiak, euren araudietan, urtean iru batzar oi gitxienez egiteko bearkuna dauke: Jorrailla'n, Uztailla'n eta Azilla'n.

Ziurretik irutik gora egingo dira urtearen buruan, batez be batzarrak artu daben edo emon dautsen zeregiña kontuan eukita.

Bein-beingoz, oraingo batzarrak ba daroe irugarrena.

Egunotako batzarreko gaia, edo gaiak, Aldundiari (Diputasiñoari) buruzkoak dira zatirik geienetan.

Aldundiaren jokera, bere kontu orokorrak eta Batzarretako Mai nausi edo iraunkorrak bitarte onetan eukitako ardurak zeaztutea da.

Lenengo onetan gauza bakana gertaten da. Bear ba da zuzendu bearko edo legetu bearko dan agindu edo arauen baten utsunea.

Zein aldundi aztertu bear dabe oraingo batzarrak, eurok barriak ba dira, lengoagaz zer ikusirik euki ez ba dabe, eta Bizkai'ko lengo aldun eraginkorrak be euren ardurak laga ba zituen, eta oraingoak, esate baterako, illa bete baiño ez ba daroe euren zeregiñean?

Emen be urtetako utsunak, batzarrak ixillean egon diran urte luzeak, ba dauke euren alderdi okerra. Katearen lotuera eta etena kontuan euki ezaren ondorena.

Bestera ba dagoz Bizkaia'n euren arazo berezia dauken uri eta eleiz-ateak, eta euren bizitza jatorrera biurtzeko euren goraberak erabagita ikusi nai leukeenak.

Bat esateko, or Berriatua, bere aldebanatzea oraindik paperetan, alako baten be bere buru jaube geratu naian. Itxuraz, edo dakigunez, erri biak, Berriatua eta Ondarroa, bateratu ziran bakoitzaren muga eta eskubideak zeaztuten, baiña oraindik paperak bete bear, eta eurak esaten dabenez, sasoi baten Erroma'k baiño nekez eta luzeago emoten dira emen baimenak.

Ortik kanpora, lengo gaiak eta gaurkoak ezin leiz neurri baten aztertu eta erabagi.

Batzuk giroa galdu eben, nai eta askoren sinismen lez geratu. Sinismeneko gai batzuk bakoitzarentzat gorde bearreko lez laga bearra egonda be, ez jakin gizonaren siniste eta erriarena, erritar guztiak merezi daben askatasunaren neurrian noiz eta zelan ebatzi bear dan, edo leiken, ez jakin erri-sinismena eta erri oitura noiz mugatu bear diran.

Erreza da norberak besteei lotsa artu bearra, baiña nai litzake besteak be norberari begirapen pixkat eukitea, batez be siniste orreitan erririk geienaren begiramena igarten danean, edo dagonaren ziurtasuna ezagutzen danean.

Lengo batzarretan, antxiñakoetan, ez zan aukeratzen eleiz gizonik batzarretarako. Alaz eta sinismenari buruzko erabagi andi batzuk artu edo ziurtatu

zituen. Or bat, 1856'ko Garilla'ren 11'an artu zana: Sortzez Garbiaren fedeko siniskaiari ospea emoteko urte bitik bein Batzar egunetan Sorkunde jaia egitea. Gaur Batzar Nagusien asierako be ez zan eskeiñi. Eta iñok ez dau ezer esan.

12-VII-83

GURE EGOERA

Euskerari dagokion giroa, jakiña.

Asi gara musturka.

Ondo dago ori, bitarteko asko garbitzeko. .

Ba dago astindu bearra. Goizetan oinpekoak (alfonbrak) leioetan astintzen diran lez, zapladak emonaz.

Euskaldun batek egiz euskaldun ba da, iru gauza bear ditula esaten da: oiñez ibili, sagardau zalea izan eta pelotan jakin.

Diruak eta ospeak dantzan eragiten daberen lez, oiñezka ordez dantzan ibili izan nai dogu, guretzat orain eta gero, bizitza guztian, oiñarrizko izan bear daberen berba eta deitura egokiak iragarri eta aukeratzen.

Orain datoz kontuak.

Orain pelotan jokatu bearra, gure pelotaririk gailenenak jokoan sartu bearren ikusten doguzala.

Gu, egia esateko, orrelako joko batzuen zai gengoan. Igarten gendun nunbaitetik sortu bear zala txapelketen garra.

Ez gara euskaldunok apal eta otsan bazterrean geratzekoak. Ez eta askoren esanak artu eta entzun eta mutu gelditzekoak be.

Or dabil, urte bi oneitan, zarren akademia nai ba da, baiña akademi gaztea, Euskerazaintza, erri euskera jator, mardul, erraz eta garbi baten billa. Erritik datorren euskera biziari arnasa eta indarra emon nairik. Itsukeri eta nabarmenkeri askori muga ipini nairik. Ez iñoren aurka ibiltarren, orretan atsegin artuz. Bai euskerari bere sena, bere nortasuna eta bere euskaltzaletasuna sartu, zaindu, inguratu, emon eta indartu naian.

Egi garratza da beintzat euskerari bere euskaltzaletasuna, galdu eragin dautsagula. Ez konturatu barik, askotan. Orrela izatean, erriaren aurkako pekatu izatera eltzen da.

Euskal jantzia emon nai izan dautsegu, eta lotsagarriena dana, euskal mai-

xu eta irakasle egin, euskeraz tutik ez dakien asko, euskaldun bategaz berbetan ekiteko aiña bizitasun eta gertaerarik ez eukenak eta gero be ez daukenak.

Eta iñori alfabetatu bear dirala eskatzen datoz, eta eurak ez dakie zelaala ikas itxura emon dautsen erdal euskera morollo batetik kanpokorik ez irakurten, ez ulertzen eta ez aririk meienari jarraitzen.

Egoera larri eta guzurti batera ekarri gaitu onek.

Euskera dakienak, euskerarik ez dakienen aolku, jokabide, eta pentsaereta-
ra eroan nai gaitue. Beste iñun ontzat artu ezin leiken aitzakia agertzen dabe:
bestela eurak ez gaituela ulertuko.

Ortik dator ondamendia. Euskera bizia umeen adimenetatik baztertu edo
eratu nai, estuegi edo errikoiegi dalako, eta ordez, euskera erderatu bateri inda-
rra emon nai. Euskera eta gaztelania eta frantzera erregela baten arauz eroan
leikezan izkuntzak ba lirake lez.

Ba dirudi euskerari, euskera zar eta jatorrari bere urrea kendu nai dautsa-
gula, ez jakin zegaitik eta zetarako, eta gero urreki "moderno" bategaz itxura-
tzeko. Urrea kendu ta azaleko dizdira emon.

Jokoan ori dabillan lez, ez da arritzeko euskal "artista" diranak, alako ba-
ten eurenetik urten eta pelotan astea.

Ertortekoa zan eta ez gaitu arritu. Komeni da orrelako eztabaidetara oitutea,
uste baiño geiago ikasi geinke-ta.

26-III-82

GURE EGUNKARIAK

Obeto esanda, euskal egunkaria.

Atara leike?

Saldu leike?

Iraun leike?

Egunotan ikus-irratiz eta egunkarietan euskal egunerokoa dala ta zerbait
esan eta idatzi da.

Orren kezka larria sortzen asia dala dirudi. Bai eta umorea be ikusi dogu
artean.

Umorea deritxagu, eta euskal jokoan atalean agertu be egin zan "desafio"
proba bat lez, joko bat lez, jan toki bateko mai inguruan dirua bitarteko edo
"señaletzat" ipini eta erabagitekotan, egin zan egunkari onetako lana.

Dirua alegiñaren aurka edo aurrean. Ori da jokoa.

Ortara jarri ezker, ez dago ezpairik euskal egunkari bat atara eziñik ez dagoenik.

Gaur, nik ez dakit zegaitik, ez da orrelakoetan aizetuten, eta aitatzetik nai be ez, itxuraz, euskera utsezko egunkaria egon zanik. Eta gerrarik galdu ez ba gendu, bear ba da jarraitu egingo zan ataraten.

la sei illabetetan kaleratu zan zeatz esateko, bost illabete ta erdi, 1937'ko Urte barri egunean asi eta Bilbo jausi zan aurre-egunak arte. Egun baten baka-riik ez zan kaleratu, eta ez gertu ez zalako, eguneko lanik burutu ez zalako, az-ken orduan makiñetako ez-bearren bat gertatu zalako baiño.

Ez gendun denporarik *egin*, eta orrela galdu be ez, atara ete eikean ikasi, aztertu eta eztabaidatuten. Zirt-zarteko gauza izan zan, aste baten barruko ger-taera dana be, esateko, uste bako gauza bat.

Ni bertako zuzendari-orde izan nitzan, eta ez neban jakin egun batzuk le-nagorarte ortarako asmorik egoanik be.

Gerra aurrean ba egozan euskal asterokoak, baiña egunerokoak orri baka-rran bat lagaten eutsen euskerari. Asterokoen artean asko saltzen zana, orduko giroa eta irakurteko ainbesteko zaletasun eza jakinda, "Argia" donostiarra zan. Maite eben irakurleak. Bizkaia'n be mordoa saltzen zan. Errikoi eta jatorra zan.

Gerra baiño urte bi lenago asi zan Bizkaia'n beste bat: "Ekin". Amorebie-ta'n, Zornotza'n asi ziran "Jaungoiko-Zale" taldeko abadeak eta orretarako izen orretako illerokoa kenduta. Indarra artzen igarten zan, erri-maillan.

Abertzale lez ba egoan beste bat: "Euzko". Bilbo'n kaleratzen zan. Ez neu-ke esango ziur asteroko edo amabosteko zanik, beintzat, bateko nai besteko izan, utsunak euki zitulako, batez be giro aretan, abertzale astekari eta argital-penak naiko burukomin ta oztopo eukiten zituelako.

Baiña gure gerratean, euskal gudan, osotara jokatu nai izan gendun, eta lengoen gain sortu ziran egunkari barrien artean, "Lan deia", "Tierra Vasca", "Euzkadi Roja" eta besteren bategaz batera, an agertzen zan egunero "Eguna", euskera utsean, bestien beste eskubide, lotsaz eta zintzotasunez.

Jarraituko dogu ontaz eta gure iru itaun edo galderei erantzuten ekiteko as-motan geratzen gara gaurkoz.

GURE ETXE ANDIAN

Erriak Bizkai'ko Batzar nagusietarako autu nindun.

Orrek lotu egiten dau bat, beartu, batez be errialdetako goraberakin.

Batzarrak indarra edo nortasuna eukiko ba dabe, gu be lanera lotuten gaitue.

Ezin giñei batzarretara bai-bai esatera joan, aurrez gaiak aztertu barik.

Gertatu leike an, batzarrean, alderdi baten irizpidea era baten agertzeko, danok batera etortea, ekipoa baietza emotea. Baiña ez aurrez, gure arteko batzar ixilletan, eta batzordetako jardunetan, gaiak eztabaidatu barik eta gure bu-ruaustek agertu barik.

Ni Kultur saillean sartu ninduen.

Egia esateko, oraiñarte, gertatu diran gertaerei aurrea emoteko, beste batzuk zeregin biziagoa euki dabe. Guk baiño arazo zabalagoa be ba dauke.

Kontuan euki bear da, beste aldetik, Kultura edo ezkuntza (edukasiñoia) alkartuta etorriarren, azken zati au bere bide jator batetik dabillana dala, goitik artzen diran bide, neurri eta ondasunekin.

Euskerara begira nabil. Begiratu bear dalako. Gure bearra dalako.

Bizkai'ko etxe andira begiratu, Diputasiñoara begiratu...ta berbetan geiagok jakiñarren, zenbatek dakiela uste dozue euskeraz idazten? Sei lagunek bakarrik autortu dabe ori dakiela. Berbetan jakiñarren, asko ez dira ausartuten, ez dakielako. Eta irureun lagun inguru batzen dira bertako langilleen artean.

Goazen Indatzu etxera, Aldundiko Diru kontua erabilten daben etxera, bear ba da deituraz Sota'ren etxeagaz ezagunagoa. An 634 langille batzen dira, eta orma eta inguruak "euskeraz egiten da" paperez beteta egonarren, euneko lauk bakarrik dakie euskeraz idazten. Danetara 26 lagunek. Zeatz esanda, %4,10ek.

Ez al dira negargarriak eta arimea be galdu eragiteko lakoak datu jakingarri oneik?

Gaur Bizkaia'n, bertan dirua lagaten dabenen artean, %27,25'k euskeraz egiten dogu. Batek diño: euskeraz egiten dogunok ez al dogu merezi, besterik ezean, geuk aiña aldundiko langille gure goraberetan, ez bakarrik berbetan, bai eta kontularitzan be, euskeraz erantzun, jardun, eztabaidatu eta zalantzak argitzen paperetan lagunduko dauskuenak?

Naia da bat. Izana bestea. Izana or dago, argi, agertu dodazan zenbakietan.

Guraria...Azkenengo ikerlan baten, erri langilleen euskalduntzea dala-ta, lan-postu bat bete aurretik erri langille guztiei euskeraren ezaupidea eskatu bear litzakioela esaten zan. Onetan ori erantzun eben arabarretan %51'tik, eta gipuzkoarretan %68'k.

Eta ez ori bakarrik. Gure erri autonomomoan lan egiten dabenen artean,

bearrezko izan bear litzakela euskera jakitea erantzun dabenen artean, onetan Bizkaia izan da erantzunik osoena emon ebana: %67'k erantzun dabe orretara. Ikusten danaren miñez?

12-X-83

GURE GIZONAK

"El Quijote" eta guk ze ikusi dogula jakiteko, ez da bear besterik eroapen apur bat, denpora, gogoia eta umorea baño.

Denpora eta umorea doguzalako euskeratu be egin zan gaztelani ederrez eta aberatsez idatzitako irakurgai bizi eta jator ori. Gaur, gure giroa beste gauzetan dabillalako, eta euskaldunok euskeraz irakurtearen ain zale ez garealako, oraindik bigarren zatia argitaratzeko dago.

Beso-motz batek idatzi eban erderaz.

Anka-motz batek biurtu euskerara.

Eroapena eukiko eban Miguel Cervantes'ek idazteko, eroapena euki daben lez Pedro Berrondo batek euskeratzeko.

Esku ausi eta anka ebagia zeregin baten bateratzea, umore baltz izan leikez. Bestea, "El Quijote" erderazko eta euskerazko guritasunean irakurri eta atsegin artu naia nik ez neuke esango umorea danik, gatza baiño.

Berezko gatza.

Gizon umoretsuak dira bizitzan arpegi emoten dakienak. Orrela kijoteak erderaz. Gure artean arloteak.

Erderazko arlote eta euskal esaerako arlotea ez dira bat. Gure arlotea, egualdiari be arpegia erakusteko lakoa da, nai ta truxuka euria jausi eta aterkin barik gertatu.

Alako gendun Iparragirre bat eta bere urratsa laga eban euskal gogoeta eta pentsabidetan.

Une onetan euskal arlote bi dodaz nire irudimen eta ikuspegian. Ardantza, Jaurilaritzari dantza eragiten eta "Uzturre", Alderdiaren leman, alderdikoak euren daben Jaurilaritza Alderdiaren urre erabiltzen.

Bata ta bestea gizon ixillak. Zirikatu ezik ixilik iraungo leukenak. Iraun, esan dot, baiña lanean Lanean baiño beste iñun obeto irauten al da?

Nik ez dakit bata ta bestea kalean zelako diran. Ez dakit jatorduetan zer

atsegin daben, edo ta kometa jo bearretan, gorritik zuritik edo ta piperminetik jo nai izaten daben.

Biak etxe zale dirala ba dakit Etxe-maite ta etxekoi dirala esaten dabe. Etxean liburuak maite dituela, etxeko bake eta epeltasunean igaroteko beta eukiten daben orduetan. Eta batek eta besteak, bakartadean lotu leikezan orduetan, atsedean egiteko premiñetan, gogoa eta Soñña alaitu eta manututeko bakar gizonak beretzako bear eta nai izaten ditun orduetan, Bach en musika eder, zoragarri ta amesgarrietan nasaitu eta baketuagaz batera, adoretzen dirala ba dakit.

Eta orrek edertasunaren maitasuna erakutsi eta ezagutu arazten dau. Gaur, gure erriak, eukiarren, alboratuta daukazan maitasunen agerpide eta siniste bat erakusten dau.

Baretuko ete gaitu Bach'ek eta gaur txikikerien autsetan lainotuta daukaguzan gure edertasunen billa esnatu eragin?

28-II-85

GURE IRRATIAK

Erri-Irratia da gaur, Bizkaia'n, toki askotan, bertoko euskereari eusten dau irratia.

Besteak euskal ekitaldi banakak ditue. Egokiak, baiña gitxi.

Eta erri-irratia, zer?

"Anaitasuna" illerokoak, 418 zenbakidun alean, Martikoan, Xabier Kintana'ren lan bat dakar. Askorentzat kezkarri.

Oraintsu, apirilla'ren 26'an, Eusko Jaurlaritzan Labaien jaunagaz gengoza-la, beste gauzen artean, —bizkaiko euskera zan gure ikusaldiko gaia-, irрати, zinema, itzultzaille, bikoizlari eta abar atara genduzan azal-azalean maira eta erri-irratiaari buruzko bere eritzia jakin gendun.

Izan lei bere eritzia Kintana'ren salakuntzatic artua izatea. Ez dot uste Labaien berberak eritzi ori artzeko aiña Bizkaiko irratirik entzuten egoteko aukerarik eta gogorik be eukiko dabenik.

Eta "Anaitasuna"ko idazki orretako salakuntzak oneik dira: "Baserri irratia", "euskerazko programa nolakotasun exkax eta baldresa", "euskara hiperbizkaitarra", "joera antibatua", "izlari batzuren mintzatzeko desegokitasun eta tonu barregarria" eta abar, eta abar.

Besteak, Kulturako sail buru edo konseilariak, "programa eskaxak" esaten eban, euskeraren arra barruan gordeta.

Bizkaitar batek Bizkaia'n euskal irratian euskal ekintzan lanik geien eta arduratsuen egiten daben komunikabide bateri salakuntza ori egitea, gogorra da, minkorra eta aztertu bearrekoa.

Erri-irratia izan eta "baserri irratia" izatetik, zati baten, ez dot uste pekatu leikenik, batez be kontuan euki ezkeru, irradi ori entzuten dan alerdirik nausiena, euskaldun alerdirik geiena, baserri erriak dirala.

Eta Bilbo? Ai Bilbo euskaldun ba litz!

Programa eskax eta baldresak? Eta zein irratitan entzuten dira gaur euskerazkoen artean, iru illabeteko "diplomaduak" joan da gero be, eguneroko barrietatik kanpora, irradiari gogo eta belarri lotuta bat eukiteko lakoak? Nun? Nun dagoz orrek? Paperetan?

Onetan zer egin asko dago zoritxarrez. Gogoia geiago, al izana baiño. Ormetan esaten dana geiago, biotzean sentiduten dana baiño geiago.

Izlari batzuren tonu harrigarria, diño. Eta zein da euskal doña: euskaldun barriei sartu dautsen monotonoa ala euskaldun zarren jatorrizkoa?

Bilbo'ko Erri-irradiaren pekatu rik nausiena, batzuntzat. bere Bizkai'ko euskera izan lei. Niretzat ez dago "euskara hiperbizkaitarrik".

Nik esango neuke tiroak irradiari eta "besteei" doazala. Eta besteak Eguzkitza jauna eta Manterola jauna burutzat ipinita (eta Eleiza satorkeriz aitatuta) idazkiaren atze-aldean datozen erakundeak dira. Derio'ko eskola, Deustu'ko Escuela Oficial de Idiomas Euskerazaleak, Euskerazaintza...

Ain zuzen bizkaiera bizirik gorde nai daben erakundeak.

Kintana jauna Unibersidadeko euskararen arduraduna da, edo antzeko zerbait. Beretzat bizkaiera "baserritarregi" da. Unibersidade baterako duin ez.

Or akatsa.

GURE IZATEA

Nora eta nundik, gizonaren jokabideko ezaugarri eta oiñarri dira.

Auteskunderen ondorenak askori emon dautse pentsabiderako bidea eta gaia.

Zer izango ete litzake gure erriagaz, iñoiz erri-miñik eta euskal ezaupide eta senik ez dauken gizonak Gasteiz'en jarrea balitz?

Gure denpora gogoratu eragiten dauskue batzuk.

Nire ustez gogoratze ori okerra da eta jokabide oi baterako oiñarri gitxiko.

Ordukoa gogoratzen danean, giroa be agertu bear da. Nai ta ez sartutako egoera baten gengoza gogoan euki bear.

Askotan erri maitasuna baiño, indarkeriaren azpian ez jausteko garra zan askoren ardura eta erri lanetan ekitea. Egin baiño eutsi geiago izan zan gure jokabidea. Bakearen onurak banatu eta zabaldu barik, menperatu nai genduzan indarrari aterpea billatu eta aldeztutea zan gure ekintza, Norbere lana barik, bestearen joaldien makurtasuna.

Gaitz izango dogu euskaldunok, oso-osorik gure buruz eta gure aburuz jokatu eta ekitea. Eta ez batzun naiaren akatsez. Ez eta eskubideen utsez. Ez eta koldarkeriz be.

Gure arteko eta erbesteko estuntzak lotuko gaitue sarri. Gure "demokrazi" berberak alboratuko gaitu nai baiño geiagotan.

Norbaitek esana da bizibideko gure ontasunak gaixotu dabela gure nortasunaren muiña.

Ziurra au da: nortasun oso bat artzeko, kerizpe lodi eta itzala dagola gure errialdean. Eta kerizpeak, baltzuneak, erri-zaletasunean, gaur ain sakabanatuta bizi diran alderdi askotan sortzen dira.

Gorri edo zuri, eritzi guztiak begiragarri. Baiña nai litzake erri bakoitzean gogo eta biotza, ardura eta kezka, bertan oiñarrituak izatea, nai ta gero zabal jokatu. Askotan gurean ziurrago izango da kanpoan oiñarritu eta argalkeriz emen jokatzeara.

Onetan askok itanduten dabe: Eta zelan lortu zan gerratean errietako arduraren banatzea, al zanik bardintsu eta egokien bertan ebiltzan alderdiak lanean sartzea, edo ta nortasunez jokatu eragitea?

Asmuz eta jakitez, izango litzake orrentzako erantzunik egokiena. Eta lotsaz. Bakoitzaren ardura eta egite zintzoak emoten daben mcnpetasunez.

Gure gerratean jaurlarritza bat egon zan. Alderdi askotakuak osotuta. Eta Aldundiak (Diputasiñoiak) be egon ziran, nai ta Gipuzkoak eta Araba'k ia lurralderik euki ez gure alderdian. Eta udaletxeak be egon ziran tatarrez etorrita osotasun barik gelditu eta barriztu bear izan ziranak.

Askorentzat jakingarri izan lei Aldundiak zelan osotu ziran gerra denpo-

ran. Ara Agintaritzaren egunerokoan, 1936'ko azilla'ren 26'ean-ean agertu zan oro agindua A1dundietako Batzorde arduradunak aukeratzeko.

Bizkaia'n: EAJ'tar 5; Sozialistak, 3; Errepublikar Ezkerrak, I; Errepublikar Batasunak, 1; Komunistak, I, eta Euzko Ekintzak, I.

Gipuzkoa'n: EAJ'k, 5; Sozialistak, 2; I. Republicana'k, I: U. Republicana'k, I; Komunistak, 1, eta Euzko Ekintzak, 1.

Araba'n: EAJ'k, 4 eta besteak Gipuzkoa'ko antzera.

Beraz gerratean be demokrazi gogoa igarten zan gure artean, nai ta gero askoren erri-maitasun ardurarik ezagaz kezkatuta ibili.

23-XI-82

GURE KRISTO BIZIAK

Ganora barik bertan bera laga genduzan errietako oitura asko.

Sinismenari, gure izateari eta euskerari ikutu egiten eutsenak batzuk, geienak. Obeagoak artzeko izan ba litz, gaitz erdi. Edo ta kontzientzi batzuk nasaitu ta baretzeko.

Gizaldietako oiturak. Euren erreztasun eta jatortasunean, erri fedetsu eta garbi baten izatea zintzotasunez agertzen ebenak.

Zegaitik kendu, gure sinismena mamiñean lizuntzen ez eben artean eta okertzen ez eben artean, edo ta kalterik ez ekarren artean?

Ez al dira gizaldietako oiturak ain bizi eta gangar ekarri doguzan iñauteri eta beste antzekoak?

Erri txikien oiturak, umekeri ta guzti, maitagarri dira.

Ametsetan lez gogoratzen dot nire erriko Aste Santua. Astea eta asteko bizilagun eta irudigilleak. Eta beste errien artean, Ondarroa'n lez, irudigille biziak agertu eta egiñak izan ezkeru, geiago.

Ba egozan oiñarri ikutu eziñak.

Madalena gorrixka izan bear zan eta ule luzeduna.

Pekatarari ete dira uleak?

Eta Beronika luxenga eta baltzeran. Eta iru Mariak bardintsuak.

Eta Kristo "txikia", apostoluen artean kañabera zatiagaz joan bear zan Kristo, abots onekua, "pasiñoia" kantateko.

Tunika urdiñagaz kurutzea eroaten joan bear zan beste Kristo, gizon neke-tua, miñak okertua, arpegi tximurrez arrakalatua, nekaldia benetan iruditzeko.

Eta Zirenetarra, gerri onekua, txirlatan asko ibilia, kurutzearen ondoari eutsita joan bear zan ibillaldi osoan aulkeririk eta aspertasunik ez erakusteko eran.

Lau "palazeruak" Kaiser'en denporetako gizon erre ta errimeak. San Migel, noizbaiten dantzari izango zan ziurretik. Geroago ezpatearen zuzentza erakusten. Eta amabi apostoluak gaitasuna euki bear eben kartoizko bisera ta guzti Bariku goizean, pasiñoiko sermoi ondoren, ortozik, askotan ota mintsu artetan, Santa Kutz mendira igoteko.

Zenbat urte orrela?

1648 urtean bederatzia Kofradia egozan gure parrokian. Eleizako arduraduna (fabrikakua), Ospitalarena, Santa Klara, Ama Doloretakua, "Santa Cruz del Monte", Gorozika San Juan, Arimena, Santa Ana eta "Santisimo" izenekua.

Aste santuko ibilaldi eta agerkizunen ardura euki izan daben "Vera Cruz"koa, ez zan sortu gure errian 1794 arte.

Ez dau onek esan nai lendik ibillerak egiten ez ziranik.

Bestela, ez zan artuko 1793 urtean artu zan erri erabagirik. "Eguen eta Bariku santuz `errefreskoetan' egin dan gorakadagaitik, aurrerantzean, ez asko ta ez gitxi, ez emoteko orrelakorik".

Jakiña danez, ia Euskalerra guztian Agustin Basterretxea jesuiteak egindako bertsoak kantatu izan dira egun orreitan. Ipaztertar jesuita orrek erriari ikutu egiten jakin eban bere bertsoekin.

Berreun urte baiño geiago dira gure eleizetan bere "pasiñoia" abestuten dala. 1777 urtean argitaratu zan lenengoz, egillea il eta urte batzuk geroago. Bizkaieraz *lenengo*, gero gipuzkeraz.

Baiña bertso oneik Ondarroa'n abestuten diran doiñua zeñena ete? Ez dot beste iñun musika ori entzun, nai eta bertsuak geiagotan kantatu. Ba dirudi ondarrutar musikarieren batek bertarako eta bertako eleizan kantateko atara ebalatzen doiñu bakan eta arabitarren giroko dirudin ori. Erriari nortasun berezia emotearren nunbait.

GURE OLERKARIAK

Lore Jokoak, igaz, Ondarroa'n egin ziran. Aurten Markiña'n?

Argia egin eta emoten dabe euskal gaietan.

Ondarroa'n egin ziranetan ikusi gendun.

Olerkiari lotuko gara gaur.

Sabin Muniategi, Luis Baraiazarra, Jose L. Arriaga eta Estanis Urrozola izan ziran sarituak. Zarrak eta gazteak, lengoak eta barriak. Erdiz erdi.

"Kresal abotsez" lana, Muniategi'rena izan zan dirua eta "Erramulari" garai-ikurra eroan zituna.

Zeñek ezagutzen dau Sabin?

1936 urtean zan.

Aldi aretan ainbat euskal poeta ebiltzan paperetan eta aidean: Errenderi Aita, "Oxobi", "Orixe", "Lauaxeta", "Lizardi", Aita Bedoña, Loidi, Tapia, Ametzaga, Zaitegi, Zubimendi, Gaztelu, Onaindia, Jakakortajarena...

Eta 1936'ko Otsaillean, liburu txiki bat agertu zan: "Goiz aize". Egillearen aita besoetako lez, liburu orren aurkezpena egiten, "Lauaxeta".

Sabin Muniategi, Bizkai'ko Gautegiz'en jaioa zan. Ogei ta-bi urte eukazan, eta itxasoetan, merkataritzako ontzietan, Pilipinas aldean ibilia zan. Ez zan liburu ori bere bakarra izan.

Orduan erabilten neban "Arteta" izenordeagaz itxaropenezko kritika bat egin neban.

Liburu txikitxoan zan, baiña ba eukazan olerki politak:

*Esku bat daukazu gerrijan,
bestia jolaska axian,
Neska! Kantauri itxasoan
begijok margoztu zenduzan?*

Zeatza izan nitzan kritikan. Loran dagon olerkariaren mosu itxarokorra artu egiala, ogeitabi urtedun gazte adoretso arek zaratarik atarako ebala, eta antzerakoak esan nitun. Idea polit, atsegin eta aberatsak zoli eta bizi erabilten ekiala...

Baiña ez zan dana lore. Aditza erabilten trakets samar billatzen nebala be esan neban. Eta beste uskeri batzuk. Kritikoak aitzaki billatzen be zaleak izaten gara.

1936'ko Otsaillean zan ori. Urte mordoan. "Euzkadi" egunkarian agertu ziran nire eritziak.

Gero itxasoa laga eban, bai eta Bizkai'ko bere erritxoan be eta Donosti'ra aldatu. An bizi da gerra ondorenetik. Ia urtero agertzen da Larrea'ko Oleriti egunean.

Ondarroa'n, gaia itxasoa zalako, itxas; miñez kantari agertu zan.

*Kaioen egoetan
an, eguerdi batez,
goiberatu nitzan
itxasoaren ganez,
gogozko joatetan
maitasun abotsez.*

Ez da kanta bakarra berea. Olerki mordu bat ziran berak agertuak.

Soneto bi ditu asieratik. Biozkorra gure Txomin Agirre'ri egiña.

Besteak? "Uxola"ri urteak gain egingo dautse, baiña Arriaga eta Baraiazarra'k sarri agertuko dabe euren izena gain-gaiñeko olerkarien artean. Biozkorrak dira eta ba dakie olerti egituren barri.

14-I-83

GURE ONTZITEGIAK

Aurrezki Kutxa batek, antxiñako itxas-ontzi gintzari buruz zabaldu daben erakusketa batek, gure erri txikietan arrantzarako edo merkataritzarako txalupa eta bestelako ainbat ontzi mota egiteko egozan lantegiei begira ipinten nau.

Lezo, Orio, Zarautz, Zumaia, Mutriku, Ondarru, Lekeitio, Mundaka Bermeo, Bilbo ingurukoak anditzat lagata.

Gaur bizirik barik batzuk, noiz sarratzeko besteak, edozetarako saltzeko aukera billa.

Iñoiz itxasoko emaitzak kenduta, ia erri txikietako langintza bakarra.

Or geratu dira, batzuk, Deba'n lez, kale baten izenaren oroitzean.

Lekeitio eta Ondarroa'k 1338 urtean euki eben auzi bategaitik ba dakigu erri bi oneitan, aldi aretako be ba egozala ontzitegiak, edo ta gaur ezagutzen doguzan lez astilleruak.

Gure mendietan ba egoan egurra, ba egoan burdiña, eurentzako lan-gai.

Ain zuzen egurra izan zan Lekeitio eta Ondarroa arteko eztabaidaren auzia.

Sasoi aretan lekeitiarrak Ondarroa'ko mendietan ataraten eben ontzigiñarako bear eben egurra. Obeto esanda Ondarru eta Berriatu'k batera eukezan mendietan. Libre zan aukerakoa billatzen zan tokian ebagitea, itxas-ontzitegirako zanean. Baiña Ondarroa'k bere Errenderitik ataraten zan burdiñari lez, zerga (impuestua) ipini nai izan eutsan Lekeitio'ri andik ateraten eban egurragaitik. Eta or ziran kakuak. Lekeitio'k irabazi.

Baiña ori baiño lenago, Castilla'ko Santxo, Bizkaiko Jaun zala, 1282 urtean, Bizkai'ko portuetako txalupei Galizi eta Asturias ko uretara joan eta arrantzaten ebena ango portuetan gazitzeko baimena emon eutsenean, ortarako txalupagintza egoki eta andi baten egoera agertzen dau.

Lenago oraindik, 1247 urtean, Castilla'ko errege zan Fernando III'ak Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n gertuteko agindu eutsan Bonifaz almiranteari Sevilla'ko inguratzea (blokeoa) eteteko bear ziran amairu ontzi andi eta beste galera batzuk.

Eta alaxe, urte luzetan, gure errietan lantegiak ezagutu ziran, nun obeago egingo alkarren leian, nai ta geienetan errirakoak bakoitzaren errian egin. Azkenean, T. Guiard'ek bere "La Industria Naval Vizcaina" liburuan diñonez, Bilbo, Lekeitio eta Ondarroa'k, Bermeo eta beste errietako langintzari gaiñetik egin eutsen, ortarako eurak euken gaitasuna bitarteko zala.

Gaur min artzen da eta kezka sortzen dautso bateri Bermeo'n Artza'ko ontzitegiak, edo eta Lekeitio'n Atxurra eta ondartzakoak, eta ta Ondarroa'n Antzoso-lopean agertzen diran astilleruen ondorenen ixiltasunak.

Gizaldi askotako itxas bizitzapen eragilleak, mutu geratu dira.

Eta oroitzetan geratzen dira txanpa barria uretara jaurti bear zan egunak errietan sortuten eban ikusmin eta kezkek, mare bizien egunetan mare puntetan egin bear zalako botatze ori, ia gure lantegietan sartu eziñean gero ta andiago egiten ikusten genduzanetan.

Gaur zarrontzat gure astilleruen illeta da, eta gaurko umientzat erakustokietan geratzen da zazpi gizaldietako Euskalerriko itxas errietako askoren ogibideko langintza jator baten oroitza.

22-V-82

GURE SALBEA

Egunotan erabiliko diran kantu zarren artean, Ondarroan beintzat, santa Klararen kantak eta Salbea izango dira.

Klara deunarenei buruz, bere irizpide zeatza emoten ekian on Manuel Lekuona, "Lekuona zarrak. Ezpai barik euren egitura, esaera, konponketa, zirikada eta abar, kantu onein gotikotasunaren erakusle zirala.

Norbaitek, eleiz kantuetan "zirikada" esan eta erabilteak, lotsarik eza irudi-

tu lei. Ain zuzen kantaldi geiena eteten dauan bertsoaldi zirikalaria, lengo den ta Erdi-aroko kantuen ezaugarritzat artzen da. Bertso oneitan be,

*Monjen erregaluak
intxaurrak oi dira
ai aiek ere guziak
bai piñak ba lira!*

Eleizan santa baten goramenez orrelakoak abestuteak, alako neurritik urte-te, bidegabekeri eta lotsa galtzea erakusten dauala dirudi, baiña itxuraz antxina-ko kantariak eurenak zituen orrelako urteerak. Baiña Klara deuna, edo kantu berbertan esaten da lez, "Erderaz zara Klara, euskeraz Argia..." kandelapean itxita, gaur gure Salbea dala ta zerbait esan bearra dago. Ondarroako Salbea entzutetsua da. Nik esango neuke fedez, maitasunez, erregu —garren— abestuten dalako. Nik ez dot esango ondarrutarra danik. Doiñua aldatuta Mutrikun be abestuten da bai eta Ondarrabin be. Gertaten dana erri bakoitzak zelan ipini, alaxe abestuten dala.

Zein ete da Salbe orren egillea?

Orain amaika urte lotsatuta geratu nitzan ETB'n gizon bateri entzun neu bera zala Salbe orren itzen egillea. Eta Donostiko egunkari baten be alaxe agertu zan. Bereala bialdu neban nire asarrea, baiña ez eben argitaratu.

Gizon arek esaten eban 1915 inguruan egin ebala Salbe ori.

Ni 1914 urtean jaio nitzan, surzuloak garbitzen ikasi baiño len akolitu nitzan, eta ordurako Salbe zartzat, antxiñakotzat, abestuten zan.

Nire ama 1887 urtean jaio zan, eta arek be, eleizara joaten asi ordurako ikasi ebala esaten eban. Beraz 1915 urtean nire amak ba eukazan 28 urte, eta ondo gogoratuko zan noiz eta zelan erakutsi eutsen.

Erri bakoitzean bere doiñu ezbarðiñagaz abestuteak be, denporetan doiñu aldatze bat adierazten dau. Gure gizaldian egiña izan ba litz, ziurretik danok doinu bardiña genduke.

Geiago, Euskalerriko Aldundiak, 1912 urtean, erri kantu zarren batzaldi bat egiteko asmotan, sari bat ipini eben. Azkue abadea eta Aita Donosti, biak musikalaria, izan ziran ainbat kantu batuta agertu zituenak

Azkue'k batutakoen artean, Ondarroako Apolinar Azpillagagandik ikasita lez, "Jaungoikuak" deiturako kantua agertu eban, gure oraingo Salbearen letra bardiñagaz. Eta lan berean, Naparroako Mugiron batuta lez, beste bat, "Jaun izenagaz, eta aren letra be bardiña da.

Beraz zelan batu zituen jakintsu orreik 1912 urtean, gero beste "egille" arek, berak 1915 urtean egiña lez beretzakotu nai ebana?

Tartetan gauzak euren tokietan ipini bear izaten dira.

IDATZI, BAIÑA...

Ba dirudi aldi batzutan idazleoi eskutukoen batek esaten dauskula: Idatzi egizu, baiña ixildu zaite.

Ez da bekoki zabala euki bear gauza batzukin konturatzeko.

Batzuk esaten dakiena: azpaldi baltzitu jatan bizarra.

Onelako egoerak illundu egiten dabe bat eta artegatu.

Gaur baiño geiago irakurten neban aldian, niretzako idazle atsegin bat Charles Peguy zan: "Egia esan bear da, gordiña ba da gordin, kaltegarri danetan kezkatu, eta mingots gertaten danetan, itzal. Baiña egia ezagutu eta agertzen ez dabena, guzurti eta koldartien eskutatzaillu biurtzen da."

Ez dot ezagutzen. Bere esanetatik osagillea dala ba dakit. Deika euki neban oraintsu Azkoiti'tik: Geiago idatzi bear zenduke. Emengoak ere zurea ulertzen dogu. Ekin.

Egun berean "Basarri" ospatsuagaz berba egiteko aukera euki neban. Eta berak: Jarrai adiskide. Guk onezkeru, geureari eutsi bear diogu gaurko nabarmenkeri onetara makurtu gabe. Ni beintzat ez naiz bide onetatik aldenduko.

Iñok esan barik, neuk autortzen dot: Ez naiz iñor. Ni aiñako ainbat idazle dagoz. Ixil batzuk, bestelako lanetan beste batzuk. Bakartadean lez nabil. Ta batek esan eta bestearena jakin, euskera irakurteko garra ugaritu egin dala esango neuke. Euskera erreza egiten daben edozeiñena irakurteko zaletasuna. Nik baiño obeto jakin bear leukie, ez ba dakie be, goian dagozanak, erriari bere pultsoa noiz-nai artzeko aukera eta bearra daukenak.

Eguneroko gaiak egunean bertan erabilteko aukerarik ez dogu. Eta euki leukie batzuk. Aukera orretzaz ez baliatzea, euskeraren aurkako pekatu da. Edozeiñeri arpegira esateko bildurrik ez daukat.

Baiña zer da gertatuten dana eta zelako satorkeriak dabiz azpitik?

Lengo baten Iruña'ko Aurrezki Kutxaren epai maiko nitzan, Xalbador sari-ketako lanak aztertuten.

Ara agertutako lan baten, salakuntza gogorak irakurten ziran gaur izparringi eta egunkarietan erabilten dan euskerari buruz, irakurteko barik ez irakurtera geiago beartuten dabelata.

Ba dirudi betiko euskera erreza erabiltearen ezaupideak, bizkaitarkeriaren makurpen laidoa emon leikela be. Eta ori, oraintsu irakurri dogu. Araba'n gebaratarren indarrera samurtu dan lez, Bizkaia'n, euskera kontuan, Eusko Alderdi Jeltzalea bizkaitarkeriari igortziak egiten daben itxuretan sartu dala-ta, salakuntza lakoa agertu zan egunkarietan.

Ba Mutriku'ko batzokiaren zabalkunde egunean, Arzalluz'eri entzuten egon nitzan.

Eta plazara atara eban euskeraren auzia. Or dagola, buruauste gogor lez. Baiña euskera bako Euzkadi, beretzat, Euzkadi jatorra ez dala.

Alderdi batetik poztu egin bear giñateke bizkaitarrok darabilguzan kezka indarra artzen asi diralako, zabaldu diralako. Bizkaierakin batera, erri euskerearen auzia, diñogu guk.

Nai ta Mutriku'n lez, buru gogor asko gabiltzala inguruan, entzun bear.

Ni, lengora jota, Charles Peguy'gaz nator: egi mingotsa gertaten danean be, esan egin bear dala, nai ta mingotsa izan.

Azken baten nik uste dot ez dala munduan erri abertzalerik egongo, azkatasunaren bidean bere erritar sail andi bateri berea ez dan eta maite ez daben berbetako era bat, gogoaren aurka artzera beartuko dabenik, lengoari ate guztiak itxiaz. Ori buru gogorak ez-e, buru bakoak be ez leuke onartuko.

Onetan ezin lei esan esperantzatan bizi gareanik, ziurtasunean baiño.

24- III-82

IKASLEAK ETA GURASUAK

Gaur, gure Euskalerrri laburtuan, Eusko Jaurlaritzaren mende dagon Euskalerrri "liberatuan", eskoletako umetatik euneko amar dabiltz, gitxi gorabera, ikastoletan.

Eskolaurre eta EGB Iko kontuak daukadaz.

Araba'n, 4.813 ume dabiltz ikastoletan.

Gipuzkoa'n, 35.470.

Bizkaia'n, 16.498.

Danetara, 56.781.

Ikusten danez, Gipuzkoa da ikastoletarako umerik geien emoten daben errialdea. Eskolaurrean sartzen diran umetatik %39,22 eta EGB'kotatik %21,61.

Araba'n, eskolaurrean %22,23 eta EGB'n %5,84.

Bizkaia'n barriz, 14,33 eskolaurrean eta %4,99 EGB'n.

Mailla orreitako umeak, danetara, 428.719 dira. Onetara: Araba'n, 50.547; Gipuzkoa'n 137.410 eta Bizkaia'n 240.762.

Eta BUP, COU eta Ogi bideko ezkontzan dabiltzanak beste 128.727 lagun dirala kontuan eukita, danetara 557.446 dira gaur gure eskoletako umeak.

Ez dogu sartu Unibersidade edo ta goi maillatan dabilizan ikaslerik.

Orrela begiratuta, laino barik begiratuta, sarri askok begiratzen daben lez, batek esan lei: Zegaitik ainbeste negar, zegaitik ainbeste kezka eta larritasun gure euskeraren egoera dalata?

Sartain kirtena eskuan euki ta arrautzak brixiduten jakin ez?

Bestetan eralgi bear diran milloiak ikasleen sail onetan sartu eta ez ete litzake urte gitxitan, eskola bitartean, ume guztiak euskalduntzea lortuko?

Baiña zein oiñarritu onetan?

Kontuan euki gu euskaldun bako Euskalerra gareala. Euzkadi ba gareala, baiña ez deitzeko oitura dogun lez, Euskalerra.

Izena daroagu, izanetik artua, baiña gaur ala danaren ardura barik.

Eta gogoratu baita erri menperatua gareala oraindik, gure ontziaren aizeoialak, belak, nai ta ez joten gaituen aizekaldetik eroatera beartuta gagozala.

Ez ori bakarrik.

Au da txarrena: Ainbeste umeri erakusteko, zenbat irakasle euskaldun, euskaldun diñot eta ez euskotar, batzen ete dira gaur, danetara jota, euskera erdiz-erdiz, baiña besterik ezean, lagun arteko jardunak euskeraz eroan al izan eta erabilteko jakitun diranak?

Eta zenbat guraso eskoletan ikasten dabena zaindu eta gogoratu eragiteko gertu legikezanak?

Or dago, zati andi baten, gure akatsa.

Oiñoa eta emaztea, galtzen dira, etxetik urrun ibiltzen ba. dira, esaten eben gure zarrak.

Ori da gure berbeteagaz gertatu leikena, etxeko begirapen eta zaintza eukiten ez ba dau.

Zoritxarrez itxurak eta egiturak orretan sinistutera makurtu eta eroaten gaitue.

IL KANPAIAK

Zarautz, Errezil eta Zumaia'ko seme alabetan ibili da oraingotan euskal bititzen segalaria.

Gure gerra aurrean Jenaro Xabier Vallejos'en antzerki bat antzeztu gendun bein. Abade gazte batek euskeratuta eukan. "Sutan Biotza" eukan izentzat. Euskaratzailea: Juan Iruretagoiena.

Lana, errez antzeztuten zan. Euskera jatorrean. Itzulpenak, tradusiñoiak, igarri egiten dirala esaten da. Baiña a euskeratu eban abadeak, ez eban laga orrelako akatsik.

Gartsua zan. Mixiolari gogo eta biotzez. Gar orrek zirikatu eban lanera. Eta urteak urte, gar orrek bizi eragin. Euskalduna zalako, gure gerrak zotin eragin eutsak bere apaizgintzan. Erbestetik etorrita be tokirik emon nai ez bere obispadutzan eta Santander aldetik ibili bear izan eban. Ille batzuk dira. Zarautz'en La Salle ikastetxean batzar baten giñan. Eta an izlarien gidari (moderadore) egiten ebenak, txandaka eurak be bata baiño bestea iztunago, Iruretagoiena euken eten barik aurrean, atzamarra jasota, berba eskatzen.

Orrelakoxea zan. Lanean edo berbetan egon ezik, ezin bizi.

"Kirikiño" zana askotan, txapel orde, kapelagaz, sonbreruagaz, ibilten zan, bere esanetan baserritarrak konturatu eitezan kapeladunak be euskera erabilten ebela, eta alaxe, arrotuta, aintzat artuak zirala.

Olaxe agertzen zan "Barrenso" be, Tomas Agirre, errezildarra. "Gazigozoak" argitaratu eban 1933'en. gero "Uztaro" atara ebanean ezagutu neban. Nobela txukun, apain egokia.

Gizon ixilla zan. Ez dakit gure gerrak bere bidea trukatu ete eutsan. Baiña geroztik Sevilla'n tratulari edo merkataritzako bitarteko lez agertzen zan angourrutizkiñetako liburuetan, errezildar jator au.

"Amaika nekeen semea dek ogia" idatzi eban bein. Gerra ondoren amaika nekeen ogia dek gizona idatzi ez da be pentsatu eta erabiliko eban buruan. Ala beintzat, bere antzera.

A neska, a, Zipitria'tar, zumaiarra! Berakatz atala lako fiña zan neskatil a, erreta ikusten gendun toki guztietan. Garra erabillan biotzean eta akats bako Euskalerrria irudimenean. Maitasun utsa zan. Eta lortu nai ebana lortu ezin zalako, biotz errea lakoxea igarten jakon, kendu bagako biotz errea.

Zegaitik eskatu ete eban Sollube'ren gerrian, Mañua'ko kanposantu bakarti eta txikitxoan, itxasoaren gain, ia Euzkadi guztiko itxas-laiño zuriak batzen diran inguru aretan bere azurrak-ia mamiñik geratu be ez jakon egiten-eta, betirako atsedenean gordetea?

Arrantzaleak Matzaku (Matxitxaku)ko argia dabe Itxas gidari. Euskal ikas-

tolen argia itxas argi orren parean eta oraindik gorago ikusi nai ete eban bere bizia etenbagako euskal-sutan erreten igarri eban andereño bakan onek?

Iru argi, iru euskeraren gidari joan jakuz gabonetan. Euskeraren maitasunak biotzeko miña sortu eragiñak irurak.

2-I-83

ILLETAK BARRIRO

Gabonetatik ona zenbat euskal idazle joan jakuz?

Ez dot uste sekula, ain denpora gitxian, ainbeste joango ziranik.

Idazle ezagunak eta onak.

Lan egin eta egiteko gertu egozanak.

Kalean batzuk, ixillean besteak. Sorterrian batzuk, erbestean besteak.

Otsail onetan bertan, lau eriotzen barri euki dogu.

Barri itzal, mintsu, geroko itxaropen aizeak artu eragiñarren, gure munduari agurraren naigabea sartu dautsenak.

Urteak ez dabe parkatzen.

Joan diran idazleak danak lengo eskolakuak, eskola zarrekuak, erri euskeran asi, kozkondu, indartu eta burutuak.

Egun baten, eta ordu berean kalean Santa Ageda eskaleak kantari iñarduen orduan, Irun eta Ondarribi'n, bietako parroketan, euskaldun jator biren azken agurra egin zan.

"Bordari", Artola tar Fernando gizon argi, bizi, alai, abeslaria. Bertsolari eta esanlari egokia. Bere pozik andienak euskeraz edestu zitun eta bere negarrik bizienak be euskeraz agertu. Berak ames egiten eban salda beroa artzeko denpora eldu jako.

*Nik,
ilda gero
dut espero
salda bero,*

esaten eban bere "Bakoitzak berea" liburuan, berak kristau fedez gero zoriontsu bat itxaroten ebalako.

Eta ordu berean, Irun'en, bere adiskide on izan zan lasalletar Anai Iñaki Olabeaga be, eleiztarren azken agurra artzen egoan.

Gizon ixilla, zurra, langillea, naigabe lako irriparrea beti espanetan. Bilbo'n, San Anton parrokiko euskal mezetan, erriaren gidari urte askotan.

"Txotx" deitura erabilten eban aldi baten, baiña txotx, posporo asko baiño argi emonkorrago zan.

Gizaldiaren lenen urtean jaioarren, oraindik lan egiteko gertu.

Eta azkena, il onen zazpian, Altzo'n. Berakoetxea ta Iñaki, euskaldunontzat "Aita Eustasi", karmeldarra, langille ixil, neke bako, jatorra. Erbestean, Txile'n, euskerari sendo eutsia. Urte askotan aita Justo Mari Mokoroa'ren lagun, onen euskal esaera, esabide ta esakunak batu eta gertuten diardun lan neé kegarrian.

Noiz agertuko ete da lan mardul eta erri euskera ezagutu eta erabilteari buruz ain jakingarri izango dan lan ori?

Erbestetik etorri jaku bestea. Guretar gendun Norbert Tauer. Urtero elduko zan bere karta edo tarjetatxoa, izki txikiz ondo betea, Praga'tik. Beti euskeraren kezka eta emengo liburu, argitalpen eta euskal lanen barriak jakin nairik.

Berak esaten ei ekian txekoa izanarren, euskalduntzat eukala bere burua, eta erri bata ta bestea ezin zitula bereiztu bere maitasunean. Euskerak bere goratzaille bat galdu dau Europa erdian.

Oraingotan laguntzarrei agur egitea gertatu jaku. Noiz elduko ete da idazle barriei txapela kentzeko ordua?

14-II-83

ILO-ILO'RA

Aita Patxi Etxeberria'ri, agur ta erdi.

Pozik artu dot zurea.

Betiko antzera, jesulagunen "txirotasuna" agertu nairik, ingelerazko kantu paper eten baten atzean eta beste paper txaplatetan egiña. Alaxe idazten zendun Formosa'tik, alaxe orain Filipinas'etatik. Jesulagunen akziñoiak emengoak aiña beratu al dira, paperetan be aurreratu bearra eukiteko? Orko bambuzko paper ederrak agortu al ziran?

Baiña paper lodietako nai-ta ezko karta dotore ta txukunak baiño biziagoak dira zureak. Atsegiñagoak, adiskideagoak.

Larogei ta bi urte atean eta zureak dira ibillerak.

Zuk beintzat gogoan dozu nire izena: Augustin. Ezin lortu emengo askori izen ori sartu ta erakustea. 11 onetan liburutxo bi argitaratu dodaz, eta esanalak san, izena, bietan erderazkoa, Augustin.

Ez dozu pentsaten emengoak gure gerra aurreko euskal girorik bizi ez dabelako dala? Gogoratzen "Argia" astekariko lagun eta zuzendari izan zina denpora areik? Orduko giroa ta gaurkoa ez dira bardiñak. Orduan zuen astekari ori Bizkaian be saldu egiten zan. Eta gerrarik sortu ez ba zan, gaur be irau egingo eban. Orain ez dakit zer gertaten dan. Asterokoak or dabiltz, baiña ez dakit irakurle askorik dauken. Negarra ba darabille beintzat diru eske, itoteko zorian da gozala-ta. Ba ete dakie erriaren "pultsurik" artzen, orduko denporetan jakin zenduen lez?

Ez da denpora asko Virgilio'ren Eneida'ko zure itzulpenari begira egon nitzala, gerra aurreko aldizkari batzuk aztertzean. Eta zure azken zuzenbiderik ez nekian lez, ez neutsun idatziko. Baiña orra, itxaropen barik, zure idazkia. Azaroa'k 30 edo 31 egun daukazan utsik ez egiteko be, "Azaroaren azken egunean" egiña. Eta Ilo-Ilo'tik. Ain zuzen etxean sarri erabili izan dogun erritik. Or laga zitun azurrak nire emaztearen aitatik.

Euskaldun askoren illobi izan zan Filipinas alde ori. Gerran batzuk, besteak, itxastarrak batez be, orko Compañia General de Tabacos en artu emon luzeak euki zituen. Zure karta orren seilluetan be orko Bidari saillak deitura ori erabilten dau. Inguru orretan ibili ta or euskera ikasi eban gure Etxeita zarrak be.

Ba dakizu Etxeita'ren "Josetxo" eleberria (nobela) argitarapen barri baten agertzekotan dagola? Irarkolan erdi gertua dauke beintzat.

Basaraz abizenagaz asi eta Ellaga bitarteko euskal abizen zerrenda bat bialdu daustazu, zuk or billatutako euskal urratsen artean. Bernedo, Betolaza, Bikuña, Bolibar, Ea, Egaña, Egia, Eizagirre... Gure ingurukoak izan Jeikezan ainbat. Eta beste orrien baten geratu jatzu Erkiaga, nire emaztearen aitatirena, ta beste ainbat, dirudianeaz ortazko lan sakona egiña daukazu-ta. Jatorriari berea emon bear.

Barriro nire poza agertuz, agur ta erdi, Aita Patxi. Nik be gabonei buruz erantzun bear. Eta zorionak emonaz, bakea eskiñi ta amets barriak opatuz.

Gabonak, aurten be, urterotako antzera, "Ator ator mutil" gogoratu bearean igaro bearko etxe askotan. Erbestean zabilzanon oroitzaz, eta espetxetan dagozan gaztien gomutaz. Alako baten Euskalerra bedeinkatu onetan benetako gabon zoriotsu ta itxaropenez beteak igaroteko aukera eukiko al dogu.

Bitartean besarkada bat, Aita Patxi, eta zuk diñozun lez, "otzaren beldurrik gabe, eguzki indartsua beti alai, biztanleak ere alderdi guztietatik poza dariela" gabon egunak igaroten diran lurralde orretan, zu lako aitonak be, gitxiago ez izan beintzat Biotzez.

INDARKERIA

Gaur gaitz da Ikus-irratia, Telebista dalakoa ikusi barik gelditzea. Besterik ezean eguneroko barri ta albisteak emoten diran orduetan, bidezko izaten da mundutik zear ze gertatu dan jakin nai izatea, orretarako ardura eta kezka eukitea.

Baiña sarri naskatuta geratzen gara, alako barruko itzaltasunez edo gogai-keriz amaitu.

Osotuten ete da iñoiz orrelako albiste saillik indarkeri bakorik? Mundu guztian zearko begirakadan, ez ete dago indarkeria ikusi, bideratu, erakutsita gogoratzen ez dauan gertaerarik?

Emen diardugu euskaldunok, ia egunero, jaurlaritzza, eleiz-agintaritzza alderdi-politiko etaabar buru dirala, indarkeria sustraitik kendu bear dan gaiztakeria dala esaten. Eta azken baten erdaldunak esaten dabena beteten dogu: Kattillu bete nai ez ba dozu, bat eta erdi.

Zoritxarrak jo gaitun mende-aldi galdua da gurea.

1941 urtean Mexikon agertu zan "Historia documental de la guerra en Euzkadi" liburuan agertu ziran datu batzuk, era batera edo bestera, Euskalerra guztia lotuten ginduezan indarkeri azpian.

Bear ba da erabilten diran zenbaki batzuk biribillegiak izan leikez, baiña onelakoak agertzen ziran:

10.800 gudan ildakuak.

15.200 egazkiñak ildakuak.

49.500 gogor eta sakon zaurituak.

21.780, 1939 urteko Martirarte apusillatuak.

86.550 atxilotu, baitu eta konzentrazino tokietan eukiak.

150.000 gogoz edo indarrez erbesteratuak.

595.800 era bat edo bestera zigortuak.

Gogoratu oraindik luzengo iraun ebela gerra ondorengo erasoak.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparroako bizilagunak 1.324.000 giñala konturatuta, laster igarten da ia ia lau bizilagunetik iruk indarkeriaren zotina artu gendula, indarkeriaren astiñaldiak jazan genduzala.

Azken urteotan egunkari, aldizkari, irrati eta ikus-irratia, au da gaur gizonak eskubide eta zentzuz eta jakintza erabidez eguneroko janari lez bear dauan agerbidea dan jakin-erazte guztia, gizaldietako ustelena dala esan giñei. Bizi-eragin orde, bizitzarako ametsak biztu-eragin orde, bizi kentzea gogoratu eta askotan orretan zelan jokatu erakusten datozelako. Gaur, albiste eta barriak, indarkeri eskola dira.

Nik eztakit gaur sinistu be egingo genduken, ziurtatu barik beintzat, albiste ordua orrelako barri barik asi eta amaitu danik.

Batek itanduten dau: Ez al daukagu eskubiderik, ainbeste jazan ondoren, alako baten bake zuzen eta onurakorrean, danok alkartuta, erri jator eta langille baten onuretan jokatu, alegindu eta saiatzeko?

Ez al dogu alkarregaz gizon lez jokatu bear, bakoitzaren nortasuna aintzat artu, lagun urkoari lotsa zaindu, eta igarri barik bizitzako gorriña lez sartu jakuzan ainbat gaixotasun, eritasun, bortxakeri eta lapurkeri errotik moztuta, bizi garbi baten alde arduratzeko egokitasunik?

Euskaldunok kontzientziko arazorik gurenena or dogu, ezpai, barik.

I6-X-88

INDARRIK EZIN ARTU

Geu bakarrik gara onak, geu bakarrik, ez geiago ta ez gitxiago.

Orrelako errepika erabilten zan, gure gizaldiaren asieretan, auteskundeak egiten ziranean.

Slogan ori karlatarrena zan.

Errepika ori erderaz esaten zan, jakiña..Orduan osotzen eben Liga Foral Autonomistako ordezkariak be, ia danak, erdaldunak ziran lez.

Ia gaur baiño lotsabakoago ibiltzen ziran gure gurasoen ordezkariak mitiñetan. Esateko eukena labankeri barik esanda.

1907'ko Urtarillean liberalak Donosti'n egin eben mitinean, katolikoek aurka esandako berbak garratzak ziran. Akerrak eta atzerakoiak deitzen eutsien Madinabeitia batek. Lau fraile arlote ezin leikez izan gure gizartearen zuzendari, geitzen eban berak. Eta geiago: Ikusiko dabe, txarri bakoitzari legez euren San Martin eguna elduko jakoenean.

Abertzaleak, abertzale lez, ez ziran Gipuzkoa'n iñun agertu, alduntzarako. 1916 urtean asi ziran Ma drid'erako ordezkarien indarrak neurtuten.

1918 urtean lortu zan Bergara'ko errialdean aldun bat ataratea. Jose Eizagirre Ayestaran izan zan. Euneko 51,19 boto lortu zitun eta bere ondoren Jose Felix Lekerika'k

Urte berean Tolosa'n, Esteban Bilbao'k euneko 55,39 eta Jose Mari Lardizabala, abertzaleak %42,10.

Esan leike or amaitu zirala, urte askotarako abertzaleen pozak.

1919'n ospe andia eukan Jose Horn bilbotarra agertu zan Tolosa'tik, baiña %38,36 baiño ez eban lortu eta I. Kareaga, tradiziño zaleak %47,20.

Urte onetan Bergara'n eskumatar guztiak alkartu ziran abertzaleen aurka. Eta lortu be bai, aurrerako urtean Eizagirre'k irabazia atzekoz aurrera biurtzea. Orrela Juaristi'k irabazi eban %54,14 lortuta. Eizagirre %36,94'n geratu zan. Eta Azpeiti'ko errialdean Senante'ri emon eutsezan botoak %69,87'k, eta Mikel Urreta'ri abertzaleak %29,82. Eta Zumaia'n Alfonso Txurruka'k %62,54 lortu eta V. Zelaia abertzaleak %36,27.

Argi esanda, abertzaleak ez eben ordezkari bakar batik atara.

Urte bete geroago, Gipuzkoa guztian ordezkari bakar bat aurkestu eben abertzaleak. Bergara'ko errialdetik bera. V. Zelaia zan. Eta %42,44 euki zitunaren, ez eban irabazterik lortu. Elgoibar izan zan, erriak kontuan artuta, irabaztea lortu eban erri bakarra.

1923'en Jose Eizagirre izan zan aurkestutako bakarra. Eta ez errialde baten bakarrik, bitan baiño. Tolosa eta Zumaia'ko errialdetan. Eta ez jakin zer gertatu zan, Tolosa'n %0,62 bakarrik lortu zitun eta Zumaia'n %3,85.

Ikusten danez, euzko abertzaleak ez eben billatzen girorik. Madrid'era joatea erriak onartzen ez ebalako?

Edo ta jauntxoak erria lotu eta estu eukelako euren eskabide eta baldintzakin, edo ta euren zemaiekin.

Jakingarri bat: Donosti'n, 1931 arte, ez eben aldunetarako abertzale kandidateaturik aurkestu.

16-X-82

IÑAKI AZPIAZU TA GU

Saturraran'en ezagutu neban. Ikasle. Gu txiki ta bera Gasteiz'tik etorten ziranen arteko.

Arek eukan bizitasuna, azpeitiar "xapu" arek! Beti kantari, jostari ta ekin-tza guztietan tarteko!

Ba egozan garai aretan bizi bizi ziran abadegai gazteak. "Don Juan" mikellete lodikotea be aidean erabilten ebenak, udako jai eta jolasetan.

Gero bere ibillerak jarraitzea gertatu jatan. Abade egin eta monjen kapillau izentatu eben Azpeiti'ko Jesus'en otseñen konbentura. Gaur abaderik ezin bi-llatu erri askotarako, ta kezka. Len, orduan, nun tokia emon, gotzaiñen kezka.

Or gure Iñaki, don Iñaki biurtuta, berak esango eban lez, "servus servarum", "Sierbaetako" kapillau; esatea lez, otseiñen otsein.

Alaz eta bere gogo ta giroa gazteak ziran. Origaitik pozik ibilten zan erriz-erri, gazteen izlari eta euzko langilleen aolkari. Berba gozoko, etorri oneko eta sasoian sasoiko lez agertzen ekian. Orrela gure giroa, gure esnatze ta itxarkunde giroa bizi eban.

Gero gerokoak. Gerra ta kartzela. Azpeiti'ko kartzela.

Niri be gertatu jatan espetxe aretan bizitea. Ez dakit zegaitik eroan ninduen ara, aste beterako, Donosti'ko kartzelatik, barrero ara biurtzeko, 1938'ko Abenduan. Ondarreta'koaren ondoan, zerua zan a. Lagun gitxi ta zaintzaille biguna. Dan lez esan bear da. Biotz onekoa, gure denporetan egoana.

Azpeiti eta bertako kartzelak ba dauke nire gogoeten artean itaun bat. Barruan egon nitzan bitartean ez neban bertako abaderik ezagutu. Baiña kartzelekin zer ikusi eta ardura euki daben abade bi ezagutu dodaz eta biak azpeitiarrak: Arrieta eta Azpiazu. Azpeiti'ko kartzela orren kerizak sortu ete eban eurentan olako etxetako barrukoen laguntzarako deia?

Azpiazu'ri, Azpeiti'ko kartzelan, Euzko langille alkartasunaren aldeko begirune ta maitasuna salatu eutsezan. Ori zan bere pekatua.

Dana dala, lortu eban geroago zela ala "muga" igarotea.

Ni urte ta erdi geroago, igestu barik, mugan bertan ipini ninduen. Eta barrié ro Donibane'n gure ezaupidea barrizuteko zoria euki gendun.

Geroago Tarbes'en. An lanean gebiltzan euskaldunok, gure aldeko lotsari eusten alegintzen giñan. Eusten eta zabaltzen. Ba gendun alako abegi on bat. Eta onetan ez dot uste gure ibiliak zirikatzen iñor ebillanik. Erri maillan, lagun artean egiten gendun gure lana, kontzientzi orokor baten menpean.

Tarbes'en gure bizibidearen lekuko (testigu) bat laga nai izan gendun. Euskal erriaren egoeraren testigantza.

An geratu zan "Garraztasun edontzi" izenez, gure oroigarri bat. Azken ortuko eskintza gogoratzen eban laukia. Euskal erriaren naigabe ixillaren salakuntza.

Ez dakit nundik agertu zan, baiña egun orretarako, Tarbes'ko katedralean, don Iñaki izan gendun eskintza orren oparia, ango gotzaiñari egin eutsana frantzesez eta euskeraz.

Euskaldunak nun, don Iñaki an, esaten zan.

Beti alai, bizi, jator, biozkor eta berbaldun.

IPARRAGIRRE

Egunotan, izan dira urteak, 165, Iparragirre Urretxu'n jaio zala. Ez dira esateko urteak. Gure denporetan bizi ziran bera ezagutu ebenak. Origaitik guk be gertaera asko eukiten doguz bere gogorapenera eroaten gaituenak.

Esateko, Gernika'ko Batzar Nagusien Etxean aurten ipinia da Bizkai'ko Kondaira ezagutzera eroaten-gaitun leiar zabala.

Egunotan agertu dira bere azalpena egiñaz argituko gaituen esku liburu txukun eta erraz irakurtekoak.

Ordua zan Aldundiak, gureak, Bizkai'ko gauzetan, bertoko berbetari tokia emoteko. Nekez eta lorrez, baiña ba goaz galdu bear ez gendun bideari begirapena gordeten.

Egiten dira gauza guztiak lez, Gernika'ko leiar ertitsu orrek be sortu eragin dauz bere esanak. Batzuk, ao zabalik goretsi eta txaloka; besteak akatsak nundik billatuko. Batzuk artearen jo-bidetik, besteak bakoitzaren erriko zerbait bertan ikusi nairik.

Baiña kontutan euki bearreko da, ogei metro luze eta amar zabaleko dan leiar orrek, bere neurriak daukazala, eta Bizkaia'k daukazan uri eta eleiz ateen artean eunetik gora batzen dirala. Leiarrean bere aldetik, berrogei ta amar baiño ez dira agertzen, lauki nausiaren egaletan, edo bere inguru guztian.

Erdi erdian, bidezko zan lez, Gernika'ko Arbola eta bertako Lege etxea. Euron kerizpean, legelari zorrotz eta luze baten irudia, Lege-Zarra liburua eskuetan daukala. bere oiñean Bizkai'ko ikurdia, eskudoa. Eta inguruan arrantza-leak, baserritarrak eta meatzetako langilleak. Atzean itxasoia egal baten, bes-tean mendiak, oiñean burdinlandolak. Eta inguru guztian, len esan dogun lez, 50 irudi, beste ainbeste errien ezaugarri.

Ala torre zarrak, eleizak, zubiak, ikurdiak, ziborioak, aize errota eta beste-lako irudiren bat. Erandio'ko Andra Mari eleizan asi eta Zalla'ko Salzedotarren ikurdia arteraño.

Eta Iparragirre? Gernika'ko Arbolaren kantari ezaguna?

Batzuk Lege gizonari emoten dautse bere itxura. Ain zuzen bera dalako irudietako bizardun bakarra. Besteetan, bost arrantzale, sei baserritar eta iru meatzlarien artean ez da bizarrik ikusten.

Edozetara be, oraindik askori gogoratu eragiten dautsa Gernika'k, eta bere inguruak, Iparragirre'ren nortasuna.

Ez dogu ukatuko Peña y Goñi'k berari buruz idatzi ebanik. Zeiñek daki, esan eban berak, Iparragirre'ren kondaira? Zeatz esanda, idatzi ete lei iñok txori baten kondairarik?

Eta Iparragirre olakoxea zan. Gaur emen eta biar an. Egalari. Txori baten antzera. Nai eta berari, len eta orain, batzuk egoak moztuten alegindu.

IRAKURTEN

Liburu atsegin bi irakurri dodaz egunotan

Bat, Simon Aranbarri azkoitiarrarena.

"Balentin Olano eta Lege zarraren aldeko: Euskalerrriaren borroka" deitzen da.

Euskera erraz, jator, errikoi, berezko etorritz idatzia. Atsegiña sortzen dau irakurteak.

Azpeiti'tik Tolosa'rako bidean, Bidania igarota gero an ikusten gendun, Albistur gaiñean, errebira baten, Olano foru zale andi au il zan etxea. Oraintsu, bidea zabaltzean, etxea jaurti eben eta kittu.

Ezin ukatu, askotan, errien nortasun eta duintasunari lotsa barik egiten dirala onelako asko, eta bestetik gure gauzetaz erriak artu ez, edo ta artuta be zaintzeko euki ez daben alik ezagaz baliatuta.

Egiña or dago, baiña orrelako zerbait beratu edo kentzea agintzen daben arduradun, etxegille, inkiñeru eta abarrek ez ete leuke mereziko, bata kendutako tokian beste plaka bat ipintea, garbi esaten, zeñen aginduz edo interesez kendu edo beratu zan len an egoana?

Bear ba da orrela erriaren istoriari Lotsa geiago zaindu leikioe ardurabako batzuk.

Beste liburu atsegin bat: "Euskal Antzerkia", Patri Urkizu'rena.

Euskal antzertiari buruz bere istori laburra euskeraz egiteko premiña ba egoan.

Onetan, ortaz artxiborik ugariene euki ta berez maixu dan Labaien'en liburutatik artu izan doguz jakinbideak, baiña bear ba da giroa bitarteko edo ta era-gozpenak errezago alboratzearren, edo ta aukerarik ez galtzearren, Labaien'en ontazko liburuak erdaraz izan dira.

Orain Urkizu'k euskeraz agertu dausku eta benetako zeaztasunez jakineraé zi gure antzertiaren bizitza, bere denpora, era, mota, egille, argitarapen eta abarren bitartez. Ikuspegi zabal eta jatorrez, gaiñera.

Baiña beti dago sokari nundik ten egin naia eta liburu biak eskuan, nire bakkarrizketa egin bearrean nago.

Aranbarri'k Olano'ren liburuan, orren garaiko ziran beste azkoitiar batzuk izentatzen ditu eta Narros'ko markesa bat.

Aranbarri'k diño: Italeratik euskerara berak itzuli zuan "La clemencia de Tito" izeneko Metastasio'ren izu antzerkia..

Onen denporako Peñaforida'ko kondearen "El borracho burlado"ren aipamena sarri egin izan da.

Patri Urkizu'k, 83 orrialdean au diño, akats txiki bat sartuta gaiñera, Azkoiti'ko zalduntxoei Azpeiti'ko deitura ipiniz. "Beraz, egoera honetaz kezkatu-

rik Azpeitiko zalduntxoak Munibe (Peñafloridako kondea), Altuna birtutetsua (Rousseuren hitzetan) eta Egia (Narrosko kondea) Jauregi palazioan bilduko dira eta elkarrizketatuko". Ez dau aitutzen lanik.

Nire ezpaia, zalantza, onetan dago: Metastasio'ren antzerkia euskerara ala gaztelaniara itzuli ete zan?.

Auñamendi saillak, iztegian, Joakin Egia, Narros'ko irugarren markesaren jardunean: "Sociedad Bascongada" sortu zanean egindako jaien artean, "una acertada traducción que hizo Joaquin Maria de la tragedia italiana" diño. Baiña ez dau zeaztuten zein izkuntzatara.

Edozetara be geroakoak ez dabe lan au aipatuten.

Deia, 12-IV-85

ITXAS GIZONAK

"Ondarroa ez da beste portuen antzeko.

Aitzetan taillatua da, erri-indartu baten antzera.

Arrantzarako egiña da eta ez beste ezetarako.

Lanerako gogor diran gizonak dagoz bertan, arrantzako korsarioak. Itxasorako gogorrak, edozein denporetan itxasoratu eta lan egiten dabenak. Beste iñok egingo ez leuken lez, zortzi milla amodun tretza-illarak jaurtiten dituenak.

93 txalupa daukaz, euretatik 72 30/40 metrokuak edo andigoak. Ondarroa, Vigo'ren urrengo dago garrantziz laterrian. CEE'k muga eta kuotak ezartean, bizi edo meko ekintza baten sartua da".

Oraiñarte idatzitako guztia il onen 8'an Frantze'ko egunkari baten Christian Aguerre'k izenpetutako "Mes voisins sont des pirates" lanetik euskeratua da.

Eta ondoren berba garratz eta astunak, salaketa ikaragarri lez.

Ondarroa'n armadoreak eta patroiak egiten dabe legea. An ez dago sindikatirik. A Txikago da. Laga ezker Baiona'ko katedrala be kendu ingo leuskizue. Itxas lapurrak dira... Ala esaten dausku, diño idazten dauanak, Endaia'n billatu dogun pasaitar batek. Geroago ondarrutar itxasontziak frantzetar ontzi zaindariagaz eukiten dituen estutasunak agertzen dira. Len "Ancelle" orain "Mauve". Orrelakoei amazortziko neskatala deitzen eutsen len "V-18" bat egon zanean, alkarri itxasoan irratiz nun ikusi eben adieraztean. Baiña- orain-

gotan, diño izparkariak, ontzi zaindari bat ikusi ordurako, patroiak piloto automatikoa serbitsuan ipinten dabe, eta ate eta tarte guztiak sarratuta, beietan. eskutatu eta an joaten dala ontzia, bere milla edo ta milla ta berreun zaldiko motorrak abiada bizian erabiliz.

Salakuntza geiago egiten dau izparkariak. Ondarroa'k Baiona'n bertan daukazala ordezkariak ordainduta "Mauve" orrek kaitik noiz urteten daben adierazteko, edo ekaitzari igeska edo bere oporra egiteko noiz sartu dan jakin erazteko.

Eta "espia" orreik ondo bizi diran zar-sarituak dirala, geituten dau.

Geiago: azken Azillean, amabost egunetan, ondarrutar orreik baionarrak urte guztian baiño arrain geiago atara ebela Arkatxon'en aurre-aurretik, bertatik iru millatara dagozan lebatz kaletatik.

Ezten zoli eta pozoiz betea igarten da izparkariaren esanetan.

Guk, edozetara be, itxastarren alegiña oartuten dogu idazki nastetsu orretan. Itxastarren bizi garratza. Etxeberri laburditarrak esaten eban "biziagaitik irrizkatzen dogu bizia".

Mugak eta estuntzak, kateak eta lotuerak... itxasoa zabala izanarren, estututen dabenak. Eta askotan, beste era bateko erakunde baten, danen artean lotsaz eta arduraz ondo beteak izango litzakezanak, itxasoa nastu egin dabe gaur.

Eta ba dagoz sua pozik aizetuko leukenak... Baiña Ondarroa itxasotik bizi da. Eta edozelan be itxas bizitza laiñoz eta ittotasunez betetako bizitza da. Nai eta atzamarra dala besotzat artu edo esanarren, eta piratak eta itxas lapurrak ikusi olatuak jagi eragiten daben aize laiñoan be. Guretzat idazki ori beaztuna da, bilisa. Besterik ez.

18-II-84

ITXAS-LAIÑO A

Euskeraren ikasketan diarduenak, euskerazko kantu zarren artean Deba'ko Alos torreako kantu samurra billatzen dabe. Samurra aiña gordiña:

*A ita jauna neria
Gaztelan zanja,
ixil askorik jaio zan
Alostorrian semia;*

*eta ala ere ixillagorik
dago bakian,
azitzen Zarautz aldian,
gure jatorriaren loitukerian.*

Kantu onek Deba'tik Lekeitio'ra gustiz ezagunak ziralako zaindu eta gero-rako jalotea lortu zirala, diño, elertian (literaturan) aituak.

Arakistain debarrak, Tradiciones Vasco Cántabras argitaratu ebanean, kan-tu orreik umetan ikasiak eukazala, diño.

Dana dala, kantu orreik mende aretako gure itxas gizonen jokabidea ager-tzen dabe.

XVgarren gizaldian, Mediterraneo'ko merkatariarik onenak, euskal kapita-nak izan zirala diñoenak ba dira.

Eta Alos abizeneko bi, Juan eta Martin, agertzen dira 1.518 urtean galeoita-ko kapitan lez.

Goian agertu dogun kantu ezaguneko istorian igarten dan Beltran kapitana-ren semeak ete?

Ori, bear ba da, jakin leikena da. Baiña galeoitako kapitan merkatari garbi izan ete ziran denpora aretako itxas gizonak? Edo ta orduko giroaren mende, ez ete ziran zerbait arriskutsuago izan?

Euskal kortsario eta itxas lapurren kondaira zabal bat egiteko dago.

Ba dakigu Deba, bere ondartza eta lurralde zabalekin, ontzi andiak gertu eta armateko toki egokia egiten zala inguru oneitako itxastarrentzat. Bear ba da ortik artuko eban Deba'k bere garrantzia Itziar'etik banandu eta erri nortasunez biziteko. Edo obeto esanda, Itziar'eri erri jaubetasuna kentzeko.

Drake'ren egitadak agertzen dira itxas lapurren ibillerak gogoratzean. Bai-ña Drake baiño lenago zer ete ziran gureak?

Drake baiño askoz lenago, Harwey eta Norton ingalandarrak euskaldunen aurkako jazarpen baten lapurtu zituen ontzien artean San Pedro Lekeitiarra, Santa Maria debarra, bermiar bi, Gaminiz'ko bat eta Orio'ko bat egozan. 1404'n zan ori.

Geldi egon ete ziran euskaldunak orrelako egitaden aurrean?

XVgarren gizaldian, 1.476 urtean, Isabel erregiñak baimena emon eutsan Juan Alos Amilibia debatarri armatutako bere itxas ontzi bigaz Portugal, Frantze eta arerio ziran errietako ontzien aurka jarduteko. Eta lortuten ebena eurentzat, kapitan eta "mariñeruentzat" izateko.

Askotan pentsatu leikena da: itxaslapurketa ez ete eben sortu edo beintzat ar-nastu beti alkarregaz asarre eta nastetan ebiltzan laterrietako errege ta agintariak?

Deba'n, 1518 urtean, ainbat kapitan agertzen dira Isasti'ren zerrendan: Ala Alos biak, Otxoa Irarrazabal bi, Arriola bi, Zigarán, Alzola bi, Ugarte eta Li-zartzá. Indarrik euki ete eban eurentan Isabel erregiñak Alostarrei emondako baimenak?

Joanak joan, baiña ikerlan asko egiteko daukagu euskaldunok gure itxastarrei buruz.

Laiño ugari igarten da orretan.

13-II-82

ITXASOAK URAK ANDI

I

Kaixo don Pedro:

Zure deiari erantzun bear.

Arrantza kontu ontaz zerbait esateko?

Egia esan, ni ez naiz arrantzale, bai arrain-zale.

Aragia baiño arraiña geiago jaten dot. Arrain ona, merke ala garezti dagon jakin barik.

Seme alaba askoren aita naiz (dozenerdi asko dala esaten da) eta ainbestetik aukera pixkat agertzea, arrantzale erri baten, ez da arrigarri.

Udan ez dot maite ondarrik. Udabarrian bai. Aste bitik baten igande goiza aitzetan ibiltzen zale naiz, 1apa, mutxilloi, magurio eta abar batzen. Marea beian goizean gertaten dan igandetan. Lanpernak batzeko lodiegi nago ta bestalde nekez billatzen dira legorretik.

Beraz ni, arrantza kontu billa, liburuetara joan bear.

Ortatik asiko naiz.

Arrantza buruzko FAO'ren azken estadistikak 1975 urteko dira.

Or ikusten danez, 649.600 tonelada arrain Atlantiko Ipar Sarkaldetik arrantzatu zituen Españar estaduko txalupak, eta beste 862.900 tonelada Atlantiko Ipar Sorkalde, Mediterraneo eta Atlantiko Erdi ta Be aldean.

Zenbaki orrek batuta ikusiko da %43 goitik datorrela eta beste %57 bigarren aldetik.

Edozetara be gaurko eran Españar estaduan sartuta dagozan arrantzaliak C.E.E. edo afrikatarren mende geratzen dira.

Eta Instituto Español de Oceanografiak oraintsu esan dau, emengoak beé rrogei ta iru milla tonelada lebatz arrantzaten dituela urtero, oraingoz komunidadeko urak deitzen diranetan.

Ori lebatza bakarrik. Ortik geiago berdel, besigu, ollar, sapu eta beste arrain mueta asko, nai ta lau ugarietak aitatu.

Zenbat arrantzaten da gaur C.E.E. beretzako artuta daukazan uretan?

Batez beste, bost milloer tonelada.

Gaur España, bere indar eta garrantziz, irugarren da Europako itxas-ertze-ko arrantzaile estadiuetan.

Nik uste dot esaten nabillen guzti au erderaz esana edo agertua egon leike-la era batera edo bestera. Baiña beti erderatik jakin bear ete doguz gure barri, gertaera eta jakitekoak?

Oraintsu gertatua.

Deia egunkariko irakurleak, esate baterako, Paul VI il zanik ez gendun gu-re izkuntzen jakin il eta irugarren egunerarte. Erderaz bai, baiña ez al dogu eus-keraz beste izkuntzetatik bezin laster jakiteko eskubiderik?

Eta ori, oraingoz beintzat, Bilboko Gotzaiñak, bere eleiz barrutiari egun berean euskeraz eta erderaz adierazi eutsala barri ori. Baiña gure egunkariak, zuk ondo dakizun lez, ezer kendu bear ba dabe uste gabeko gertaera, albiste, ja-kingarri nai eskela agertzen danetan, euskal zatia kentzen daben lez, orra gu euskaldunok linboan.

Okerrago, sarri pentsatzen dot guk euskeraz diardugunok, sasoi bateko agoten tratua artzen dogula gure egunkari eta aldizkarietatik. Batasun edo ko-munidade baten barruan euki nai gaitue, gurekin baliatu nai dira, baiña agotak lez errietxe, eleiza eta merkatuetan basterrean lagata.

Guk, agotak bezela, eutsi bear, al dan bestean. edo ta gure garunen garbi-keta eta lixiba egin ondoren, itsu-itsu, gu konturatu barik, erdal komuniadean sartu arte.

Ba dirudi euskal egunkari eta argitapen batasun askotan, diru batzeko eus-kaldunei dei eta gero, korridurik emon ez eta gañera ostikoka agurtzen dituela ortarazko borondatez agertzen diranei.

Parkatu.

Arrain kontuan asi naz ta joan naz pikotara.

Arraiñak posporo asko ei dauka.

la posporo orren argitasun pixkat gordeten dodan, urrengoan arrain kontu oneri zeatzago jarraitzeko.

ITXASOAK URAK ANDI...

II

Arraintza kontuak esaten asi giñan lengoan.

Eta pikotara joan Garaia dator eta ez da arritzeko.

Biurtu gaitez an itxas aldera.

Berreun minen kontu ori... Kontu luzea da.

Gu jo gaitula buruan. bete betean, eta guk eutsi bear ta gu okertu bear

Baña mamiz eta barruz ba dirudi, bitartekoak lagata. gizonen aurrerapide ta kontu iakite zeatzagoen ondorioz datorrela

Gero ta geiago bizi gara munduan

Gero ta premiña geiago.

Gertatu leike, ba da orrelako bildur pixkat, gaur jan eta biarko golearen bidetan ibiltea.

Origaitik gure gaiak, gure errekurtsoak zaindu ta zuzenduten asteko premiña ikusi da. Eta neurriak nai ta ez artu bearreko garaietan sartu

Neurri oneik ez dira Españaren menpean diarduen arrantzialien aurkako baé karririk. Europar komunitade berbertako batzuen aurka be ba datoz, nai eta ez emengoen aiña garratz.

Batez beste. neurri orre in inguruan, joko asko ta zer ikusi ugari dagoz:

Erri baten arrantzarako gertaera ta indarra.

Itxas bidetan ibilteko egon diran oiturak.

Itxasoen eta batez be arrantza kalen ezaguera oia.

Erri bakoitzaren inguruetan dagon arrantza berezia.

Eta abar.

Gauza bat dago argi.

Españaren barruan bizi diran erriak, azken urtetan. neurri eta muga barik arrantzarako bizi bide zabal bat artu dabela. Oartu Pasai eta Ondarroa, gure lurraldean. Ikus baita Vigo, beste aldean.

Gure denporetan, gure ezaupidean anditutako erriak irurak Gure akorduan oraingo arrantza era onetara gorputz eta arima sartuak Ez bakarrik bertako arrantzale jatorrak. Kapitalak be, itxasorik ezagutzen ez eban kapitalak be, bere erruak zabaldu ditu jokabide onetan.

Itxas politika bat egon ez dalako. eta ez egoan bitartean gizonaren berezko jokera ta egarriz zuzenki jokatuta, egunetik egunera aunditzen, zabaltzen, arrantzako erak ugaritzen, teknika barriztatzen, neurri gabeko arrantzutan.

CEE edo Europar Komunitadean jokabide bi ikusten dira argi.

Erri batzuen esanetan europar merkaturak, Komunitade orretan alkartuta bizi

diranena izanarren, itxas onurak eta or, uasunak bere inguruko erri bakoitzare-
nak dirala, eta erri au dala euren onura artu, banatu, zabaldu eta bertako onda-
sunekin baliatu eta aberastu bear dana

Ori dala dirudi Irlanda Ingalterra eta Dimmarkaren pentsabidea.

Besteak Frantze buru dala, Merkatu Batuak itxaso batua eskatzen dabela.
au da, merkatua danena ba da, era berean itxaso ba bere onurekin danena izan
bear dala.

Estadu bakoitzak bere uren eskubidea berreun milletara zabaltzeak, ez dau
esan nai ur orreitan bertako arrantzaleak bakarrik ibiliko diranik, ur orren esku-
bidea eskatzen daben erriko itxasontziak bakarrik bertan ibiliko diranik. Orain-
dik ez dago ainbesteko estutasunik.

Irlanda'k, esate baterako, lege zabaleko berreun milla orrein barruan, ba-
rrurengo 50 milla gorde nai ditu beretzako bakarrik, itxasertzaren egaleren egi-
ten diran berrogetamar millak Ez dau nai beste iñok arrantzaterik azken onei-
tan. nai eta Komunitadeko barruan dagozan errietako txalopak izan eta ere.
Origaitik bere lege gogorrak, bere zotin eragiteko zigorrak. 50 milla orrein artu
edo arrapatu dituezanen aurka.

Nai eta oraindik auziak erabagiteko egon, Ondarroan eta Pasaian ba dakiez
ango milloikako zigorrak, multak

Eta beste 150 millaetan, au da, bere 50 laga ta ondorengo bestetan. ez dau-
ka bestentzako eragozpen andirik

Jakiña. Merkatu batuan sartuta dagoanentzat ulertu. Kanpoan dagozanen-
tzat kontuak.

Au da Españaren ikurrinpean dabiltzanen kakua.

Jarraituko dogu

Diario Vasco 17-IX-1978

ITXASOAK URAK ANDI III

Ba goaz arrantza kontu ontaz zerbait idazten. Ta ulertzen? Ori aidean.
Enbarkatu nitzan. Edo obeto esanda, enbarkatu ninduen, ta jarraitu bear.
Nirea errua. Gure kantu maitemintsua gogoratu bear neban:

*Ez enbarkatu amodiyua
bestela etorriko zaizu mareazyua.*

Eta. egitan, oraingo itxas egoera onek asko mareatzen ditu.

Jarrai daigun.

Irlanda-ren pentsabidea edo jokabidea aitatutzen gendun askenengoan.

Jakiña, Irlanda'k, bere joera orretarako, zio edo arrazoi andi bat dauka.

Irlanda'n, arrantza giroa eta arrantzako bizimodua, ugaritzen dua. Itxasontzi barri ugari egin dira. Tresna asko barriztu.

Ba dauka esperientzi bat be. Ain zuzen len bere 50 milla orreitako uretan arrantzatzen ebenetatik artua.

Jakin bear da Irlanda'ren inguruko 50 milla orreitan, arrantzu on eta aberatsak egiñak dirala aspaldiko urtetan españar ikurrindunak. Eta ori, begien aurrean dagona, eskutatzen gaitz

Jokabide bardintsurako...

Ez neuke esan bear berdintua danik. Gerta leiteke estuagoa. Ingalaterra'ren jokabideari nagokio orain.

Ingelesak oituak dira beti ur andietan ibiltera. eta Irlandarren eran ezin leikie berrogetamar millatan jokatuta pozik gelditu.

Itxaso zabalagoak bear ditue. Toki geiago eurentzat. Kontuan euki bear da onetan euren indarra eta ugaritasuna. Ugarte (isla) bateko bizibideak, nai ta ez itxasora begirako jokabide, ondasun eta alegin geiago eskatzen dabe. Lurra bezln aberatsa da itxasoa ogibidean arriskutan be zitalagoa dala ukatu barik.

Ingelesen esanetan etxeko itxasontzi txikien aurka jokatu bearko leukie irlandarren era eta arauetan jokatuz, esta eurak, ingelesak, ur geiago eskatzen dabe eurentzat bakarrik, itxas zabaltasun geiago eurentzat bakarrik.

Ez ei dabe gerrarik nai etxean, anai artean, arrantzale artean

Etxean ei dauke buruauste ugari, ta bertakoei kalterik egin barik, berrogetamar millak etxeko itxasontzi txikientzat bear ei ditue, ogetalau metroko ontzi luzera edo eslora ez dauken txalupentzat, len ere areik erabilten dabelako inguru ori. Eta beste 150 millak bertako txalopa ta ontzi andiangoentzat. baiña eurentzat, ingelesentzat bakarrik.

Ori da Frantze'ren egoera ta problema bardiña.

Ingalaterra, Irlanda, Belgika, Olanda eta besteak eurentzat bakarrik artzen ba ditue bakoitzaren inguruak, lenengo 50 millak, len ur orreitan arrantzaten eben euren itxasontziak nai ta ez atzeratu bear dabe, ur ancligoetan sartu, len baiño toki gitxiago geratzen dalako eurantzat, eta jakiña, jokera onek toki premiñaz, eurantzako aukeratuta dituen berreun millak oso osoan eurantzat bakarrik gordetera beartzen ditue, besteen jokabidearen inclarrez, eta bertatik besteak kanpora bialtzera.

Orra España'ren mendeko arrantzalien egoera; orra gure arrantzalien egoera, artu-emon. joko, tratu edo konponketen bat egiten ez dan artean.

Garbi dago gaurko joera.

Arrantzarako bizibide ta indar andirik ez daben erriak ba dirudi berreun

millaren jaubetasuna eskatuarren, eskatu eta artu, berrogetamar eurentzat baka-
rrik eta besteak adiskide diran errietakoei lagateko egoeran dagozala.

Andiagoak, arrantzarako indar eta erabide ugari dabenak, txalupa askoren
jaube diranak, eta arrantza ta bere inguruko gintza goi maillan daukenank,
orreik berreun milla osoak eurentzat bear dituen egoera agertu ta aldeztuten da-
be.

Jauna lagun. gai ontazko tantza luzatzea beste baterako laga daigun.

Diario Vasco, 24-IX-78

ITXASOAK URAK ANDI IV

Gaurko itxas giroa ez da zeatz konponduko. Ez da osorik askatuko. Ez da
danen gustora geratuko ere.

Ziur egon. Gure gizonak nai leuken askatasun osoz. bear ba da. geiago ez,
sekula ere ez; neurri batzuetan sartu eta eurei lotuta geratu bearko da-ta.

Egoera ori arindu leike. nasaitu. Kezka gitxiagokin kokatzeko eran laga.
Baiña norbaitek burua makurtu bear. Eta segurutik, gizonak eta ontziak, biak.

Baimenak zabaltzea edo ugaritzea lortu leike. Danentzat ez. Ala ba litz.
mirari litzake.

Euneko onenbesteko bat (ontzietan, barkoetan) ibai egaletan edo ta ondar-
tza edo basatzetan lotu bearko dira. Geinetan txalupa bertan bera galtzeko zoria
izaten da.

Orrek, ontziak lotze orrek, gizonak be etxean zeregiñik barik Jotzea ekarri-
ko dau; au da; aurrez zartadako egoeran sartzera beartuko ditu. Zartadako
egoeran gizonak eta betiko bastartzeko egoeran oraindik bizi onekotzat dago-
zan itxasontzi asko.

Diru mordo andia bearko litzake orretarako, gauzak zuzentasun usaiñez eta
itxuraz egiten ba dira.

Alaz eta be ba dirudi lanik ezakin edo baimen barik dagonak, gaur arran-
tzan dabilizan danak lagateak eta bertatik .sortuko iitzakezan kalteak askoz an-
diago izango dirala beti. Irugarren kaku bat sortuko leuke: merkatuetarako
arrañik eza. Eta ezak, ziur, ondoren kaltegarri bat ekarriko leuke: arrain kontu
guztia asko karutzea.

Merkatu komunean sartzea bearrezko de itxas arazo au kopondu eta argitzeko. Alaz eta ere. konponketa neurtu bat izango litzakela dirudi. Beti ere bai-menak neurtuz Ba dirudi C.E.E.'k erraz ikusten dabela Españak ba daukala Afrika aurreko itxasoetan arrantzateko aukera. Eta orrek, bere itxas problema erdibitu egiten dabela.

Gaurko ikusteko begiz. ontzi zarrak lotutzen astea laga ezin leiken jokia da. Baiña orretarako ordaiña bear da. Zenbat eta nekezago. Luzuago laga ordain bide au, beste txalupak neketsuago eta kezkatuago ibili bear.

Egunotako artu-emonetan eta iardunaldietan igarriko, da, gitxi gorabera, zenbatentzako tokia egongo litzaken arrantzan lengoen artean.

Orrez gañera, kalak aldatu bearra gertatu leike. Orrek ere gaur ez dagon arrain-kala barrien ezaupide zuzen bat eskatuko leuke. Eta itxas gizonak ez dabe abenturarik nai, ez dabe sarerik zabaldu edo luzatu'nai, ikasi, ezagutu edo aztertu gabeko kaletan. Ezagunak dira ortik sortuten diran kalteak, denpora, sare eta beste tresnetan.

Gaur bakallotan dabilzan itzasontzi batzuk ba dakie kalaen aldaketa onek ekarten ditun kalteen barri. Illabete inguruan algarete ibili dira batzuk. toki barrietan arraiñik billatu ezinda. Ori ez da iñorentzako errenta. Gero, ango arrantzua ba dakar ontziak egokitu bearra ere konjeladorez ondo orniduta. Eta ori... pesetetan. milloikako eralgi bearra da.

Baten gertaera dakit. Asko jota amasei milloeko diru gertaera edo presuestoa egin eutsen bere aldaketa egiteko. la birekin bidartu da. Ogeitamarrera eldu. Eta estaduak, ainbat illabete geroago. sei milloeko kreditoa emon. idazten nagon egun onetan oraindik Paperetan bera.

Beraz ortarako nai litzaken laguntza... al dan eran eta al dan moduan eta sinisten gaitz dan korriduakin norberak lortu ta atara bear.

Onenbestean, ainbeste esanda. goazen aurrera.

Norbaitek egindako galdera bateri erantzutea dagokit.

Nire idazlanak agertzen asi orduko, esana: Lengo denporetan ez al egoan arrantzarako ostoporik? Ez al zan len ezer gertatzen?

Oneri buruz, luze jota, au esan bear da.

Len ere egon zirala ostopoak. Len ere egon zirala trabak. Baiña ez itxasotako millen gora-beran. ez arrain gora-beran, bai errialdeak euren artean eukiten zituen iauntxokerien zitalkerien ordain lez baiño. Errietako gidariak euren naste eta gerraetan sortu eraziten zituen gora-berak.

Eta iñoiz bitartekoen gurari ase eziñak.

Onetako jokia gure ondorengoan ikusiko dogu.

ITXASOAK URAK ANDI

V

Arrantzaleak len ere euki zituela arrantzarako ostopoak, esan gendun. Len ere eukiten zituen trabak. Eta ez ain zuzen beti arrantzaren goraberan, gizonen jokabidetatik etorriak baiño.

Ala 1310 urtera jota, ikusi al izango doguz Ingalterra eta Castillako erregeak Baionan batu eta gure itxasoetan ain ugari ziran lapurreta, naste, matraka eta estualdiak konpondu naian.

Geroago, 1351'n, euskaldunak Londres'en billatuko doguz, ango ordezkariekin iardunetan. Ogei urterako itunben (paktu) bat egin eben eta Ingalterra, Bretaña eta beste ingurutan azkatasun osoz arrantzateko eskubldea ezagututa atara eben.

Itunben au amaitu eta 1372 urtean Bretana'ko dukeagaz eskubide orreik ezagutu eragiten ikusten doguz.

Eta bitarte onetan beste ainbat batzar. Ondarrabi, Deba, eta beste erri batzuetan.

Ez da izentatzen arraiñaren neurri, kopuru eta abarrik. Arrantzateko eskubideak bakarrik.

Bear ba da konponketa oneik, edo eskubide ezagutze oneik izan ziran Utrech'eko pakean kontuan euki'nai izan ziranak. Kontuan euki: 1700 eta 1713 urteak bitartean, Alemani, Ingalterra, Olanda eta Portugal alde batetik, eta bestetik España ta Frantzia gerran ebiltzala. Lenengo taldeak irabazi: Kanada, Terranoba eta beste arrain tokiak jokoan. Eta or Gipuzkoako Batzar Nausiak kezkatu, Utrech'en arrantzalien eskubideak zaindu bear zirala-ta. Ingelesak ezagutzen zituen euskaldunen eskubideak. Euren Erregiña ere euskaldunekin begioneko zala esaten zan. Baiña gerraen ondorenak beti izaten dira otzago, zitalago. Ta or kakuak.

Goazen barriro atzera.

XV garren gizaldian ba dirudi Bizkaian arrain utsuneren bat egon zala.

1424 urtean ain zuzen, Bizkaian bear aiña arraiñik ez zala arrantzaten eta Galizitik ekarten astea komeniko zala eskatu eutsan aldun batek Bizkaiko jaunari.

Barriro gure gizaldietaruntz etorritz, itxasoetan batetik bestera ibilteko bildurra igarten da.

Oraingotan frantzetarrak dira emengoen aurka. Beti be erregeak edo erri agintariak euren artean zituen asarreak mai ganean.

Orrela, ikusten dogunez, 1553 urtean gipuzkoan arrantzaliei itxasontzietan bakarti ez ibilteko agindu eutsen Terranobarako bidetan. taldetan baiño. frantzetarren mende ez jausteko. Alaz eta, orduko paperetan irakurten danez,

emengo arrantzaleak naiago izaten eben bakarrik ibili, goikoak asarre ezagutuarren, bekoak ez ebelako orrelako estutasunik igarten euren artean.

Baiña 1557 urtean Felipe 11 oartzen dogu arrantzaliei agintzen baimen berezi barik iñor ez joateko Terranoba'ra. Beriala agertu eutsen asarrea euskaldunak Errege orreri eta.alaxe, iru illabete baiño len, agindu ori euskaldunentzat indar barik geratu zan. nai ta beste lurraldetakoentzat betegarri geratu.

Eta ogetamar urte geroago, 1587'n, agiri bi irakurten dira. bietan gauza berbera esaten: Terranoba'ra joan bear ziranak, ondo armatuta urteteko.

Urteak geroago "partikularrak" billatzen dira arrantzalien aurka. 1624 urtean Montmorency elkarte ekiñalean dabil. berak merkataritzarako lortutako eksklusibaen bat arrantzari be luzatu nairik. Elkarte au lengo "De Monts" en jarraitzalleak osotuta eben. Merkatariak.

1624'ko Apirillaren 19'an. Iparraldeko euskaldunak Frantzeko erregeari gogor egin eutsen. Montmorency orreri emondako eskubideak, euren oiturazko eskubidien aurka etozala-ta. Maiatzaren laugarren egunean erregeak ontzat emon eban euskaldunen eskabidea. baiña ille ta erdi geroago atzera egin eta elkarte orreri barriztatu eutsazan lengo mesedeak. Diruaren indarra bitarteko.

Orra, lengoari buruz, euskaldunak zelan ikusten doguzan itxasoetan. Ten da ten, emon eta kenduka. Beti "oiturazko eskubideak" aldeztuten alegiñik bienetan.

Oraingoz arrai usaiña kendu daigun. Ezin giñei "beti eskamak kentzen",

I5-X-78

ITXASTARREN DEITURAK

Arrantzalien deituretan, ba dagoz lekuko izen batzuk: Txo, ontzi edo txalopako mutilla. Tostarteko, arrantzale, mariñel, nortasun berezirik ez daukenak. Eta atzekua, lemakua, patroia... Gaur atzekua izenak ez dauka duintasunik, estropadetan edo ibaiko txalupetan ezik.

Len atzean egoten zan lemakania edo lema-gurpilla, eta patroia an joaten zan. Ortik arrantzalien artean atzekua deitura ori.

Gaur, atzean barik, erdi inguruan joaten da, bere txabolan, bere "puentean". An dauka ontziko tresna guztien eskuarte, bai ontzia gidatzeko, bai

egoera eta ibilleran bear ditun arduren erabilgarriak be. Beraz, egoki esateko, ontzi-burua.

Gu geien naastuten gaituna, "altura" eta "bajura" erdal izenen euskal izen egokia da. Izena baiño izana, obeto esateko.

Len, ontzi txikiak egozanean, edo andiak egonarren be itxas-barruetara sartzeko itxas-orratza edo ta izar bidearen ezaupidea besterik ez egoanean, gure itxasertzeko arrantzaleak soit-soit arrantzale deitzen ziran, edo ta batzuk makallautakuak. Baiña arrasteruak etorri ziran eta "altura" ta "bajura" erdal itzak sartu ziran gure artean, eta gure berbetan, iñor konturatu baiño len. Ur-andi eta ur-txikietako izen ordeez, edo ta areik urrutirago joaten ziralako ta besteak etxetik urrerago ibili.

Ortik artuta deitura orreik ez dira gaur zeatzak. Kontu egin "bajura"ko ontzi asko "altura"koak baiño ur-txoriago dirala eta ariñago'joaten dirala tokirik ez ezagunetaraño, batez be atun denpora edo sasoi onetan.

Len emendik Asturias'era joaten ziranak, "Errebasella'n" (Ribadesella) egon zirala ta etorten ziranak, arpegiko narrua be baltzitura ekarten eben, andrak be ez ezagutzeko eran. Eta bildurtuta etorten ziran Matzaku noiz ikusiko ta aren muturraren itzala galdu naiezta.

Orain edozeiñek esango dautsu Azores'etan ibili dirala acunaren billa. Eta "bajura"koak dira.

Bestera be ez dator ondo izena. Arrasteruak "alturakuak" ondoko arraiñetan ibiltan dira eta "bajurakuak" azaleko edo ur-goietako arraiñetan.

Beraz arrantzalien altura eta bajura euskeraz paperetan ipintean, zeregiñari buruz ipini bear da, ibillerei buruz, bateko ta bestekoak bardintsu ibili leikezalak.

Ontara ur-sakon eta ur-azaleko arrantzaleak deitu leikioez, edo ta itxas-ondo ta itxas-azalekoak. Beti be asieratik dakarren erdal itza batekoz bestera ipinita, jirauletara, nire errian esango leuken lez, orretan iraultza andia egon dala-ko itxas bizitzan gure denporetan. Beraz deitu ete leikio "patrón de pesca" bateri, bere zeregiñaren arduraz, itsas-goiko arrantzako ontziburua? Ori "bajura"ko patroientzat ez ete litzake egokiago? Onetan eskolak dauke berba, eta ba dagoz euskaldun jator ta ikasiak daukezanak.

ITXASTARREN EDONTZIA

Tori nire edontzia!

Orrelako deitura eukan 1934 urtean V garren Olerki Sariketa nausian lenen saria irabazi eban olerkiak.

Euskal jokabide barrien denporetan gebiltzan.

1930-36 urteak bizi genduzanok, orduntxe ezagutu gendun euskal giro bari baten arnas beroa.

Ainbat olerkari, poeta sakon eta jator ezagutu genduzan urtez urte, zidarezko lora artzen.

Jose Ariztimuño "Aitzol"en bultzada ebillan bitarteko.

1930'n "Lauaxeta"ren "Maitale kutuna"gaz asi eta 1936'en Otamendi'ren "Giza adiñak)" bitartean, "Lizardi", "Loramendi", Etxeberria, Jauregi eta Zaitegi ezagutu genduzan irabazle.

Sarri gogoratu izan dot: Zegaitik ixildu ete zan ain olerkari jator etorran "Otaitz" adiskidea?

Artzain bizitzari eta itxasoari eskiñia zan lan onen izenburuagaz agertu zan Zaitegi'ren lana. 18 aapaldi (estrofa)tik iru bakarrik itxas gogapenez. Besteak, zazpi urte orreitan sarituak, ez eutsen itxasoari lurrunik artu.

Ez dira asko gure denporetan itxasoagaz gogoratu izan diran olerkariak. Aita Santi Onaindia'ren maitasunezko eun olerkirik onenetan, bat bakarra ez dator itxasoan lekututa.

Ez ete dauka itxasoak, urdin edo baltz, bare nai asarre, bere urrungaitz eta guzti olerkarietzako tenik?

Lengo illean, Gipuzkoa'ko Getari'n, Elkano'ren errian, Salbatore jaietan, gogoan eukiko eben bertako seme ospatsu izan zan Juan Sebastian.

Olerki obeagorik ba ete aren bizitzak iruditzen dauana baiño?

Gose et larri, munduari bira emon, lenengoz bira emon.

Ospeak artu. Eta barrero, itxas, garrari ezin eutsita, beste ibillaldi baten sartu gidari guren lez, eta bere atsegin, bits eta aparretako ontzitik, edo ta bere izerdi, neke eta ittotasunen txalupatik, bere gorpu illa, itxastarren oiiura zairean, itxasoari jaurtitea baiño?

Zetarako "primus circumdedisti me", andik laster ezkorbutak janda, Pacifico itxasoan sakonetan bere gorpua ango arraiñen janaritzat artzeko?

Arrigarri dira lengo euskaldunen itxas ibillerak. Batsutan itxasoetako ekaitzak iruntsiak; bestetan gaixoak makaldu eta itxasoari "jaten" emonak.

Sarri jo izan ditue itxas errietan il kanpaiak, gorpurik barik. Bat edo beste-ren testigantza, edo ta ontzi buruen agirien bategaz, osasunaren mesedean, ala-

ko tokitan, ainbesteko ur zabalean, bear zan lotsa eta arretaz, itxasora jaurti ebela gorpua esan utsagaz.

Izan be Salbatore Mitxelena'ren olerki samurrik ezin bastertu:

*Mariñel erria
da Euskalerria,
ta itxasoa, euskal
-miñen ataria.*

22-X-83

IZEN ETA IZKIAK

Au Zubai, au!

Bai gizona, nai ta ez Au.

Arana Goiri tar Sabin'eri luzatu errua.

Baiña ni Augustin naiz. Arek erderazko Augustin. Augustin lez euskeratu eban eta alaxe dator bere Ixendegian. Ta nirea andik ipini be, nai ta aldi aretan be parrokoak kaleko legeei begiratuta, bietara idatzi jaiotzako agirian nire izen au. Eta bardin Juzgaduan.

A. Zubikarai izenpetu bearrean. Au. Zubikarai egin bear neukela?

Nungo legez?

Esan orretara Kalixto Kapero'ri, Ka. Kapero idazteko edo ta Txomin Txolarte'ri Txo. Txolarte.

Ori fiñean. ibilita.

Izen guztiak dauke zerbait. Edozein izkuntzatan.

Gureak, euskaldunonak, zerbait eta... berrogei urteko autsa. Origaitik ain ez-ezagun gure artean.

Politak beti dauke aukera, eskutuan ezik. modako lez. Besteak... Amaika Agripiño baldar eta Herculano argal ba dabil ingurutan, eurenekin erdi lotsatuta.

Baiña izena beti izen. Erabilteko.

Ez nirea lez A-Z artxibatzaletan gordeteko.

Izena baiño kaku geiago billatzea dausat abizenari.

Amaika bidar ernegatu eragindako Z orreri.

Soldadutzan bakarrik gertatu zitzaidan ondo. Sorteoan A abizenak urten

eban nire garaian eta ni ia azken gelditu ta "excedente de cupo". Eta gerrateko kintoa naiz. Gerra sortuta be ez eusten deirik egin.

Bestela?

Ainbat liburu argitaldariatara arpidetuta nago. Alperrik. Andrak muturka ikusteko eta liburua niregana eldu ordurako, bat ere irakurgarri ba da, beste norbaiteri kenduta irakurri nai izaten dodalako. Edo erosita, itxaroteko pazientzi barik.

Bear da ontan aldaketa pixkat.

A'tik asten dira banatu ta zabaltzen ta askotan illabete atzerago urten edo bialdu Z'koentzat.

Oraindik etorriko da onetan konponketa bearra. Ez da gaitz: deskuentu andiago ta kittu.

Izan ere askotan, liburu barria dala, bigarren eskuko lez gertatzen da norberegana eldutean eta zabaltzeko gogo barik.

Eta azterketa eta examiñetan? Besteak baiño egun geiago k-larritan.

Ba dago onetan aldatu bearra.

Bestela gu zetakuok (ez setatsuok), ziri, zoro, zuriren lagunok, beti zapalduak izango gara gizarteko eskubidetan. Beste izki edo letra guztidunen zabor.

Eta gaur danok gabiltz mundu ustel au, mundu itsu au, mundu larri au zue zendu, zuritu eta zintzotu nai dogula-ta.

Au mundua, au!

Diario Vasco, 21-II-79

IZTEGIAK

Euskeraz geien saltzen diran liburuak gramatikak eta iztegiak dirala esaten da.

Gure artean izkuntza aldetiko utsune asko dagela esan nai ete dau orrek?

Oraingotan iztegi bereiztuen joera dago. Gai eta jakintza sail iztegi sakon eta banaken billa gabiltz.

Onetan, batzuk edo ainbat egin ba dira be, oraindik gai askotan ez gara sartu, eta ez sartzeko adore ezagaitik.

Ba dira ixillean lanean ekin eta iztegi ederrak egiñak daukezanak. Ala, esate baterako, tolosar abade batek, Luis Egia jaunak, gaixo egonarren, kaleratu

eziñean arkituarren, kalerako izango diran lanetan diardu. Eta filosofi iztegi zeatz eta egoki bat amaituta dauka. Noiz agertzeko?

Ziurretik Euskerazainizaren itzalpean agertzea lortuko dau.

Uste dogu gure agintariak konturatuko dirala Euskerazaintza, Euskeraren erri akademia, beste elkarteen inguruan, lan asko egin leikena dala eta egiteko gertu dagona dala. Eta erriko laguntzak zabalitzean, maiko otondo eta ondakiñak baiño geiago merezi dabela, bere lanak eta ikasbideak kaleratu eta zabaldu dagiazan erri euskeran, euskera jatorrean.

Ez dago esan bearrik, euskaldunok gure izkuntzagaz zenbat eta geiago ikastetxetan ugaritu, zabaldu eta ikasketa sakonetara sartu, ainbat eta eskurako liburu lagungarri geiago beariko doguzala.

Ezpairik ez dago langintza bakoitzak bere agerbide berezia eukiten dabela, bizitzako eta bizi erako beste jokabide eta agerpideak euren dauken lez. Edo bestela, orrelako egoerarik oartu ezik, gure izkuntzan, au da, euskeran ez ga-reala agertu eta jarduten esan beariko.

Oraintsu irakurria daukat, "Diccionario Cheli" bat laster agertzeko dala, erderaz, Umbral'ek egin edo gertatua. Eta ori irakurtean nirekautan, nire artean pentsaten egon nitzan: Ze berba erabilten ete dabe gure drogazale edo drogakeriz joak, orretara menpetuak, burubide orren zalekeriz bizi diranak, esate baterako neska lagun alai, gogoko edo atsegiñari deitzeko? Neskak neskarekiko, au da, nesken maillan, jai erabilten ei dabe. Gureak, be jai ori, erdaldunak lez?

Eta jai dalako orren lagun dan chorvo'ri? Eta pipa, pluma, bullo eta gizarie orretako beste ainbat eginbide edo lagunarteko berbak, itzak?

Ezin ukatu gu euskaldunok asmotxak gareala. Ba dakigula komeni jakunean burua askatzen. Eta gure artean bizibide kezagarri ori sartu dan lez, bertarako itz egoki edo bereiztuak be sartuko zirala. Bestela ez giñake euskaldunak. Baiña zelakoak?

Arrantzalien artean, arrantzako une askotan, alkarri arriskua egoala jakin eraziteko laster sortu zituen egoki batzuk. Orrela bein baiño sarriago entzuten genduzan itxas irratietan patroï bizardun mardulak, euren ingurutan ebiltzan beste ontzi gidariei deika: Kontuz! Amazortziko neskatilla emen dator aparra dariola!

Umez betetako patroï areik, andra ederrak etxean zain eukezan areik neskatil baten lizunkerien bildur ete ziran?

Bai zera! Arrantzalien berbetan "amazortziko neskatilla" sareak eta neurriak zaintzen ebillan V-18 gerra ontzia zan. Eta orrela ainbat.

Beraz gertaera bakoitzetan berba eta esaera egokiak sortzen dira. Oar txiki bat naiko litzake askotan bereizkuntza artzeko. Era guztietan. Batu egin bear. Bereiztu egin bear. Or be ba dago gure arieen izkuntzan eskatzen dauskun premiña andi bat.

JABIER

Gaitz dogu euskaldunok Jabier'en oroitzarik ez eukitea, gure nai naparrak bere eguneko jaia ospatuten dabenean.

Euskal eleiz askotan dagoz Jabier'eko Frantzisko'ren irudiak

Ba dirudi euskaldunok Jabier mixiolari baiño, Jabier ibiltaria, geiago ezagutzen dogula. Oitu egin gara bere irudietako esklabiña gaiñean peregrinuen bieira edo txirla andiak ikustera.

Ala Lekeitio'n Jabier "pelegriñua" ezagutzen dabe

Begira ango kanta, Azkue'ren esanetan:

*Indietako Apostolua Aita Jabier gurea,
pelegriñuen jantzian dator,
bidezkarien trantzean.
Ez aurrera joan, gelditu emen,
gure uria goratzen,
bear zaitugu beti Aita Jabier Frantzisko.*

Lekeitiko beti izan da jesulagunen maitale. Kontu euki an dagola "konpañiako" eleiza be, 1.688'n sortua. Itxuraz erritarren begiko, baiña ez ainbeste parroki nausiaren serbitsariena. Orregaitik ainbat urtetako auzietan ibili ziran, 1.767'n amaitu arte. Eta geroko gora-berak, bertan egoan eskolaren eskabi-deak, frantzetarren gudateak eta abarrek, izenean laga eben eleiza, gaur be deitzen dan lez, nai ta jesulagunik egon ez.

Gaur, eleiz onetan, Lekeitio'ren mesedegille izan zan Uribarren familiaren illobia dago.

Itxuraz jesulagunen Lekeitio'koa, inguru guztian itzal andiko izan zan eta lotsa ta adiskidetasun andia zabaldu eben lurralde orretan. Alaxe, 1812'n, frantzetarren bildurrez eleitzetako edergarri eta pitxiak eskutatu ziranean, Loiola'ko zidar eta baliiodun gauzak Bedarona'ra eroan zituen eta an eskutatuta gorde.

Jabier'en irudi edo erlikiak Lekeitio'n egon ziran denporaldiko bertsoak giro orretako jaien batetik sortuak izango dira.

Itxuraz Napoles'tik ekarrita erabili eben bere irudia. Ala diño bertsok:

*Lekeitio'ko uri noblea, o zeure zoriz betea,
Napolestikan ekarri dabe
Naparroa'ko semea...*

Jabier'ek beti euki izan dau gure artean euskal entzutea. Napar utsa ez, euskalduna baiño. Osoa. Bere euskera ta guzti. Bear ba da, sinismen gauzetan, Jabier'ek geiago alkartzen gaitu euskaltasunean, beste batzuk baiño. Bere azken orduko euskal berbak be sentikor biurtu izan gaitue.

Zer leuke gaur Jabier'ek gure artean?

Jesusen Teresa'ren izena egunkari, irrati, ikuskin eta gizarteko barri emole diran tresnetan, gora-goraka ibilia da oraindik oraintsu. Milloikak iruntsi bear izan dabe bere irudia edo ta bere bizitza entzun.

Eta aste onetako kritika lanetan irakurri dot "Teres de Jesus" erdal antzerti lana giroa galduta, denpora pasata agertu dala, gaur orrelako lanak iñori deituten ez dautsalako.

Ariñegi bizi edo ta ariñegi zaartu?

Ekiñaren utsa, jarraipidea falta, esango neuke nik. Ariñegi aspertu. Gaurko gaitza.

JAIK ETA "RITOK"

Asko sartu da gure jaien artean soka- muturra. Bai eta kalez kalezko zezen-erabiltea, entzierrua.

Tartetan billatzen dira gure errietako agiri zarretan orrelako zezen jaiak. Batez be Gorpuzti eguna izaten zan orrelako jai bereziak egiteko aukeraten zan eguna.

Zezen eguna, egun berezi lez artzen dabe toki batzuetan.

Ba ete dauke zezen jai oneik, kristiñautasunaren asieran erromatar kaiserak sinismen orretakuak zezen plazetara jaurtiten zituen jaien gogorapenik, oraingotan gizonak zezenen gain lortu leiken garaitza goratuaz?

Deba, antxiña, arrantzale erri izatera eldu zan. Euki eban bertan Arrantza-leen Kofradi bat be. Gaur izate zar ori gogoratuaz, kale batzuk geratzen jakoz, bizi-modu ori gogoratzen dautsen izenekin. Eta itxas ontzien irudiak euren arma-arrietan daukezan etxe jatorrak, oiñetxeak.

Debak San Roke gogoratzen dau zaindari lez. Eta jai onetan goizean goiz, txistulariak ibiltzen dira kalez kale "Idiyarena" soiñua jotzen, kantu eta guzti. "Zezenak datoz arkupetik...". Gero, ordu zeatzean, "entzierrua" egiten da eta beste jaiak.

Baiña Debako zezen jaiak ba dauka beste oroitza samur eta biozkor bat. Arratsaldeko zezen jaietan, bigarren zezena il ondoren, musika taldeak zortziko bat jotzen dau. Zortziko au erri miñez egiña da, anaitasunez, auzokidetasunez. Martin Ostolaza debatar musikalaria izan zan bere egille, Jose Bentura Laka toreatzaillaren oroimen eta errukiz.

Ba dauka bere kontakizuna. Onela da bere istoria.

1845 garren urtean, Itziarko Erlete baserrikoak Roke deunaren jaietan atara barik geratu zan zezena erosi eben.

Urrengo urtean, zelako indarra eta erasoia eukan ikusteko, Mutrikun Madalena jaietan egiten diran zezen jaietara eroan eben. Mutrikun ez da ilten zezenik, erabili ta barrero bere tokira biurtu baiño.

Gertua zala, azkarra zala eta indartsua zala ikusita Zapaterito toreatzailleak esan el eban bere artean: Zezen sutsu eta berebizikoa auxe. Azpeitin ikusiko dogu san Inaziotan.

Azpeitira eioazala, Lasaon geratu ziran, an kartak maira atara eta iragarkizunak egiten zitun baserriar atso bateri eurentzako iragarkizunak eskatzen. Andre arek, sorgin arek, kartak mai inguruan ipini eta Laka'ri esan ei eutsan: Kontuz, kontuz. Zezen baltz bategaz txarto eta estu ibili ziñeike. Arretaz eta arduraz ibili, bestela azkena laster.

Esaera orrek zurbildu eban mutilla.

Arratsaldeko jaietan, Laka iragarkizun ori burutik ezin kenduta ibili zan. Bear ba da kezka geiegiz. Baiña bere lagun Zapateritori txalo asko joten eutsezala ikusi eta bera geldi, adoretu zan eta arrotu. Zezen baltz ori urten zanean banderillak sartzera bizi-bizi joan zan, orretan eukan bere gaitasuna-ta, oraingotan Zapaterito berberaren gogoaren aurka, onek ikusi ta igarri ebalako zezen arek begirakada txarra eukala, baiña Laka gixajoak txaloen garrez moskortuta lez, jaramonik ez eutsan egin eta eriotza aurkitu eban une berbertan.

Ori da zortziko orren istoria eta Debak zintzo jarraitzen dau bere erritar biri urteroko omenaldi eta gogoratzea eskintzen.

Erri txikiak izaten dira zintzoenak gurasoen ekandu eta "ritoak" zainduten.

16-VIII-88

JAN EDANETAN

Karlistak, gerratean, Jan da lo izeneko batalloe bat ei eukan.

Izena polita dala-ta, bear ba da etxe barruan besterik egiten ez dalako, inguruko idazkari zorrotz batek orrelako izena ipini eutsan bere etxeari.

Gu euskaldunok, izan be, gure pentsaera eta erantzunetan filosofi andidunak gareala esaten dabe.

Baiña aurrez ondo bizita. Lenengo bizi, gero pentsaeretan jardun.

Jan edanak atsegin jakuzalako, "Auspoa" liburu saillak azkenengo atara ditun bertso liburu bi, I eta II zenbakidun "Jan edanaren bertsoak" deitzen dira.

Eun eta berrogei ta amabost-garren zenbakia ataratera eldu da "Auspoa" au, lengo ta oraingo bertsolarien bertsoekaz geienak, tarteka nobela txiki, antzerti edo bestelako irakurgai batzuk be ba datozala. Eta arrigarriena, sail onetako liburuak euki daben erriaren arrera da.

Lenengo eun zenbakitatik, bost liburu bakarrik agortu barik, amaitu barik, oraindik salgai dagozanak. Eta eurak, ain zuzen, liburu bakoitzean iru zenbaki edo bigaz egiñak egozanak. Au da, liburu lodiagoak eta karuagoak.

Ba dirudi Aita Zavala'k zerbait igarri dabela, azkenengoak bana-banaka datozalako.

Euskal libururik eta liburu merkerik ez dala saltzen, esaten da. Erriari atsegin jausi eta erraz irakurtekoentzat zaletasuna ba dagola esango genduke "Auspoa" onen saltzeko ondorenetatik.

Eta orain, azken biak, "Jan edanak".

Janak baiño edanak sortutako bertsoak azkoz geiago. Eunetik ia eun arda, sagardau, txakolin edo moskorrari kantak.

*Gizona ardo gabe
dago erdi illa,
mar-mar dabilkio tripa
arduaren billa,
baiña ondo eran da
ardo beltz ongiña,
gizon bakar au bada
amarentzat diña.*

Edozer jai, garaitza, proba, joko edo ta lanen baten amaiera. Gogoratu lengo ostro ipinteak etxeei teilatua amaitzean, edo ta txalupen bat lantegitik uretara jaurti bear zanetan. Len ostroak, zugatz adarrak. Orain, errezago dalako, ikurriña.

Baiña beti be jairako deia.

Ez ori bakarrik.

Guretzat eta geienentzat zeregin garratz edo gogo txarreko izaten zan bat gogoratzeko be, jan edanak egiten dira, erririk geienetan. Ala urteko kintoak. Laster etorriko dira jaunartzetakoak. Ezkontzetan aiñako.

Baiña erri txiki baten beste onelako dei bat irakurri dot: 1944 urtean jaio eta erri onetan lenengo jaunartzea egin eben guztiei anaitasuneko bazkari bat egitera dei egiten dautsagu.. Orra, beste aitzaki barri bat, lengoak gitxizat lagata.

Ba dirudi gure kezak aztu nai doguzala, gure estutasunak eten, gure egoerari lepoa emon eta alderdi guzurti batetik jokatu. Eta jan-danekaz alaitu.

Bertsolari zarra gaur be eguneko dala esan lei. Eta bertso oneik eun urtetik

askoz geiago daukez. Bonaparte'ren paper artean billatu ziran, eta Bonaparte emen ibili zala urteak dira. 1856/1869 inguruan.

*Tripak deitzen dizu
adiskide maitea,
nizaz ere len-baitlen
oroitu zaitea;
guziz nago pisua,
illuna ta tristea,
ea prokura ezazu
ni konsolatzea.*

Eta orretan gabiltz, ezin ukatu.

17-XII-81

JESULAGUNEN INDARRAK

Jesulagunak dirala-ta, arin, gogoz eta atsegiñez irakurten da oraintsu Alain Woodrow, "Le Monde" egunkariko idazleak "Les Jesuites, Histoire de pouvoirs" izenez atara daben liburua.

Azken Maiatzean argitaratu da gaztelaniara biurtuta.

Ez dakit euskaldunak garealako, eta Loiola'gaz zer ikusi asko dogulako, edo ta batez be iesulagunen ikuspegi ori Aita Arrupe'ren zuzendaritzako ondo-renetatik sortua dalako geienbat, jakingarri biurtzen da guretzat liburu ori.

Nundik atara dau idazleak Loiola deituraren esan naia "podría traducirse como hacer frente al enemigo" dala? Betiko gauzak.

Deituren esan naia billatzea zailla dala esaten da, baiña ba dirudi batzuk zailago biurtu nai izaten dabela egitada ori.

Jesulagunen indarra,goratzea, agertzen dator. Danok dakiguna: Jesuiten berezitasuna, edo euren al berezia, batez be aldunen kontzientzietan zotin eragiteko berezitasuna.

Baiña zelan ori, ain zuzen be bere sortu ezkerozko istorian, errietatik edo laterrietatik 74 bidar kanpora bialdua izan dan Lagundiak?

Aterik geien zabaldu dabenak izan dira, ain zuzen, eta sarratze edo itxitze geien ezagutu dabenak.

Giroaren aldakuntza eta jesulagunen norabide zuzen eta egokia aukeratzek dira liburuaren buruauste.

Eskoletako edo eziketa lana garai baten. Gero? Lacar'en irauna: Ezin egon ete leike Lagundia langilleriaren aurrekaldian, len giza-aziketari ibili zan antzera?

Aidean, erreskadan datoz gertaerak. Abade langilleen garaira eroaten gaitue. Potto? Makurtu bear. Gero Teilhard de Chardin eta bere jokabidea. Eta 1964 urtean, Janssens generalaren eriotza. Or dator Arrupe bilbotarra 27garren generaltzako. Eta bere lenengo egitasmuaren azalpena: ateokeri, marxismo, ekumeni-giro, gizarte eta erriarteko zuzentza bideak. Eta Afrika, Sortalde eta Sarkaldeko kultur giroa...

Eta lenengo atzerapena. VIgarren Paul'en arrerako itzaldi kezkatia.

Arrupe aurrera dua. Ez da beretar edo berekoi bere aginpidean. Bere ingurukoei konfiantza osoa emoten dakiana da. Bere eredu zuzentzen daki. Japon aldi lanerako eskola ona eukia da. Aurrera. Norberetasuna galdu eta lan egiteko eskatzen dautse jesulagunei. Berbaz labur eta itzez luze. Euskalduna.

Munduko gosetea beste buruauste beretzat. Ez al dabe jesulagunak orretan sartu bear? Bere egitasmuetan asmotxen ebillala, orra ez bear bat. Goitik bera-ko joaldi batek itz jarioa eten eta erdi mutu Iotu.

Lagundiko araberan, bere ordeko lagun bat aukeratzen dau: O Keape. Laster, egunetara, Erromako jesulagunen etxean Vaticano'ko deia artzen da: Casaroli kardenala bertaratuko dala amabietan, eta Arrupe'ren gelara zuzen eroateko. Minututako ikertaldia. Gelako mai gaiñean Aita Santuaren karta bat eta Aita Arrupe negarrez billatu zitun ordezkariak, Casaroli'k urten ebanean. Zer gertatzen ete?

Aita Santua bera aurreratzen zan, ortazko oiturarik egon ezarren, aldiz-aldizko generala aukeratzera. Ori eta konfiantzarik eza agertzeam edo Lagundiaren joeraren errezelua erakusten ez ete bardin?

Orra jesulagunentzako proba bat, edo ta lepoko bat.

Ogei urte aurrez ospatutako Eleiz Batzar Nagusiko-erabagiak bete eragitea zala, esaten da, Paulo VI'k emon nai izan eutsen zeregiña.

Baiña azken iru Aita Santuak negar eragin dautse jesulagun askori. Or dago eskintza eta makurtasuna. "Perinde ac cadaver"? Ori be ulertu bear. Eta Arrupe, jesulagunen generaletatik bere borondatez bere kargua uster lenengoz agertu danaren lana nun?

Ez al eben españar "probintzial" batzuk liberalegizat salatu bere jokabidea? Baiña eta besteak? Ogetak millatako besteak, ez al egozan beragaz?

Danori igarten da irakurri-ala.

Jesulagunak galduko ete diran arriskua? Bai zera! 1773 urteko kanpora-tzean jesuita batek esana: Nire eriotzan nigaz ba zagoz, Jesus, ez dago ez Aita Santu ez Satanas'ik zure lagun izaten jarraitzea ukatu leikedanik.

Ziurretik, or dago, eskintza baten jatortasuna eta une latz askotan, makur-penez edo lotsaz, edo ta agindu berezi baten ordainezko lotuera bat.

JOKABIDE JATORRAK

Danok dakigu len Bizkai'ko Batzar nagusietan ez zala eleiz-gizonik batzarkide lez aukeratzen ez eta lege gizonik be.

Gaurkoetan, oraingoz beintzat, ez dago aldun edo mandatarien artean eleiz-gizon lez ezagutzen danik (izanak ez dau danik esan nai), bai, ordez, lege-gizon diranak.

Gaiñera, gaur lege-gizonak bearrezko lez sartzen dira, batez be Iraskunde batzordean eta antzerakoetan, edo ta Mai nausietan.

Ba dirudi gaur komeni dirala orrelako gizonak.

Gaur, ezin ukatu, noz-nai agertzen dira bat-bateko legearekiko eztabaida eta zalantzak. Bestetik gaiñetik dagozan legeak jokabidea mugatu egiten dabe sarri, edo ta inguruetara begira artu bear izaten diran erabagi askok legetasuna aztertu bearra erakusten dabe.

Len bizkaitar uts giñan; gaur Eusko Lege Biltzarra be ba dogu kerizpea egiten edo ta emoten. Edo argitasuna. Bata nai beste gertatu leikez. Origaitik ez gara bategaz arrotuko edo ta besteagaz kikilduko. Pozik, beti be, Euskadiren mesedean jarduteagaz.

Gure batzarretan eleiz-gizon eta lege-gizonik sartzen ez ba ziran be, ezin esan goi-maillako erabagiak artzen jakin ez ebenik gure aurretikoak. Or dagoz, ainbat, gizonaren eskubideen legeak, beste erri askok baiño arin eta zeatzago artu eta zabalduak.

Arritu egiten dira laterri asko gure legeekaz. Ezin sinistu izaten dabe erri lau, apal, langille eta ikasi bako batenak diranik. Baiña bizitzan, askotan, bizibide estu eta lantsu batek liburuak baiño geiago erakusten dau, eta gure lege zarra zentzu eta bizitza azke baten zintzo oiñarritua dala autortuten dabe danak.

Ez ziran bizkaitarrak batzuk uste daben aiñako basati edo baserritarrak. Gixiagi beretarrak. Ba gendun euskal izate baten kontzientzia be.

1866 urteko Garilla'ren 11'an euskal unibersidade bateri buruzko erabagia artu zan. Araba, Gipuzkoa eta Nabarrakoekin batean, Euskalerra guztirako unibersidadea eskatu zan. Zetan geratu zan eskabidea? Itandu bearrik ez; geroko urteak mutu egon ziran luzaro.

Sortu eziñak edo ez jakin zek andik lau urtera, Bizkaia'n unibersidade katoliku bat ipinteko eskubideari, euren oniritzia emon eutsen, ikastaroak 1870-1871'rako asteko eran.

Ez eban onek lengorik bastertzen. Baiña ipini nai eben erakundeei ateak zabaltzeak kultura zabal baten garra erakusten dau eta gizonaren askatasunari lotsa eukitea.

Zoritarrez, irakaskintzan eta beste erakunde askotan, geiegi lotu izan gaitue laterritik. Betiko jokua, gaur be barriztuten dan jokua. Orain be naigabe as-

ko emoten alegintzen dan jokabide zitala. Ostopoko joko ankerra. Irakaskintzarako bear genduken askatasun osoa, laterrikeriz moztu, kendu, eten eta zapaltzen, laidotzen dana.

Eta orrela beste askotan.

14-VII-83

JOKABIDEAK ETA ERANTZUNAK

Laga egin bear izaten da gazteei euren erara jokauten.

Gu zarrok zurtasun geitxuago euki giñei, baiña askotan gazteen jokabideak erakarten gaitu gero gure lotsa eta duintasunez gauzak zentzu bateko ontasunean zuzendutera.

Ezin geinke zarrok errazoi guztiak geuk doguzala esan. Ezin geinke jokatu be, nai ta ez guk zabaldutako bidetik ibili bear dan lez.

Gure bideen ondoren autopistak egin izan dira; gure denporetako bapor zarren ondoren, diessel motorrak. Eta danok onartu.

Berrogei urte beteko dira ain zuzen egunotan Bilbo'ko "Monte Gorbea" itxas ontzia Trinidad ugartearen inguruan itxaspeko (sumarino) bate torpedoz jo eta ondatu zala.

Politikaren gora-berak zitun itxas ontzi orrek.

1923 urtean itxasora sartu zanean, "Arantza-mendi" izena eukan.

Gero, gure gerrate ondorenez, "Leece" izenagaz ibili zan 1937-1938 urtetan.

Urrengo urtean, 1939'n, "Monte Gorbea" ipini eutsen, orduko gobernuak Sota eta Aznar'en ontziekaz egin eban indarkerizko bereganatzean.

Ain zuzen be itxasontzi au izan zan "Diessel" motorra lenengo sartu eutsen kargarako ontzia.

Egia esateko ba zan beste diesseldun bat, bera baiño lenagokoa, "Arin-mendi", baiña ontzi laguntzailletakoa zan, erremolkadora.

Berrogetamar urte lenago sartu zan lurrun ontzia (bapora) Euskalerriko portuetan. Donosti izan zan lenena, Ingalaterra'tik ekarritako ontzi batzuekaz baporaren aldaketa ezagutu ebana. 1880 urtean zan. Arrantzako Ontziak ziran. Andik urtetara asi ziran gure kaiak, bana-banaka, ziuertasun andi barik, era ori txalopetan sartzan.

Ala, 1893 urban Ondarroa'ko bateri sartu eutsen 1898'n Getari'ko bateri, eta 1900 urtean Bermeo'n.

Beladun eta arraun (erramodun) Indarrez erabili bear ziran txalopa andiak, euren nortasuna galtzen igarten eben, baiña 1920 inguruan oraindik era orretako txalopak ezagutzen genduzan.

Kosta egiten da aldakuntza batera makurtzea, baiña gero...igarri barik irun-tsi.

Politikan lez.

Berrogei urte dira astean Bilbo'n "Jagi-Jagi" asterokoa agertzen asi zala. Zain egoten ziran zaindariak noiz kalera atarako, batzeko. Eta Bilbo'n, zubia-
ren goitik asten ziran gazteak deika, eta Korreo kalean bere irarkolatik urteera-
ren zain egozan zaindariak, urten ebalakoan, arin-aringa ara joaten asten zira-
nean, al zan eran, merkatuko otzara ta bestelako gordegaiulletan asten ziran ka-
lera ataraten alderdi zarreko kale-kantoieta zear.

Errepublika denporetan sortu zan, 1932 urtean, Agirretxe medikua zuzen-
dari zala.

Orduan be euskaldunon ametsak ba eukezan urtetan lagaten ez eutsen Leio
estuak.

Aldi aretan ain ausarditsu eta aurreratu uste ziran jokabide batzuk, ain arri-
garri izango ete litzakez gaur?

Lengo jokabide askoren aurrean emon doguzan geroko erantzunak, zer
pentsatu asko lagaten dabe.

19-IX-82

JOSE ARTETXE

Amar urte bete dira Donosti'n il zala.

Irauten ete dau bere gogoak? Artetxe'k bere giroa euki ebanik ezin ukatu.

Zeatzago esanda, bere eskutuko giroa geien bat.

Arriskuz betea zan Artetxe lako baten egunkarietako idazle bizitza. Zenbat
atsekabe ta zenbat naigabe!

Nai ebana idatzi ez da be, erreskada artean zer esan naiko eban ezin salatuta.

Eta besterik eziñean gogoia salatuten eutsen, pentsabidea estutu.

Politiku batek, giro oker eta aurkako baten, idazteari laga lei. Baiña biotz
eta gogoz idazle jator dan batek, laga ete leikio?

Gizon baketsu zala, ukabillagaz maia jotzen eban zentzurak tartea billatuten

eutsan egunetan. Ori zan beretzat mingarri. Gogai bat, idea bat moztu, laburtu eta erruki barik edo maltzurkeriz etetea.

Donosti'ko egunkariekin euki zitun garrazkeriak. Liburu bakoitza atara-tean, eta mordo bat atara zitun, ogeita amar inguru, eragozpen eta burukomiñak. **Ez** saltzeari buruz. Ba eukazan bere irakurle ugari. Bere gaiak, bere gizaé kiak, euskaldunen izate eta bizitzakoak ziralako baiño.

March elkarteak euskal kulturari buruzko lanik ugarienari laguntzeko, nekez eta berandu, diru txorta bat izentatu ebanean, Artetxe ikusten zan sari orren-irabazle lez, baiña ikusi egin bear zan dirutza ori zeinzentat erabagi bear eban batzarra aukeratzeko zelako ostopoak batetik, eta bestetik euskal izatea-gaz zer ikusirik be ez euken elkartetako zuzendariak, zelan billatzen ziran, ain zuzen be Artetxeiri ez emotearren.

Eta ori, Artetxe, gudan, irabazliekin gertatu zala, eta ibili zala.

Bere pentsabidearen aurkako jokoan izkillodun gerra eta garrazkeri gerra erabili zitula, esaten ekian, askotan benetako gerra baiño lagunarteko ezin ikusia geiago zalako.

Ondo ekian euskera.

Idatzi be sarri egiten eban.

"Zeruko Argia" barriztu zanean lenengotako zan. Gero, barruko goraberen ondorenez, urten edo kanpoan laga eban.

Bere denporan egin al izan ziran euskal agerpide guztietara, nai ta banakak izan, beti agertzen zan.

Lan sakona erderaz idatzi eban. Euskal gogoa gure mundu txikitik atara ta zabaltzearren.

Ateak zabalik bear zitun idazle zan Artetxe. Zabal, gure barruko itsukeri ta aztu eziñiko gorrotoen gain.

Bake zale zan, gorputz eta arimaz. Gerrari buruzko bere pentsaera ildakoen besarkada edo "El abrazo de los muertos"en dago. Ala zalako bere emazte Maritxu eta zortzi seme-alabei eskiñi eutsen liburu ori.

Euskal pentsabide baten suari eusten alegindu eta il zan.

*Jose Artetxe idazle ona
gure artetik jua da,
bere biotzak azpaldi ontan
asko sufritzen zua da.
Amaika aldiz entzuna nago,
lagun andia nua da:
zegaitik gabiltz beti burrukan
danok anaiak izan da?*

Manuel Matxain bertsolariak egiñak dira, orain amar urte.

JOXE MARI ARIZMENDIARRIETA

Agur!

Gogoratzen?

Gure gerra aurrettoa zan.

"Arretxiñaga" izen ordearekin zure jatorra ezkutatuta euskerazko lan sakanak egiten asi ziñan. Markiña eta Barinaga ingurutako toponimia aztertzen asi ta saiatu. Geroago zure elburua izango zan. Ikasi ta erakutsi.

Gaskez'en "Kardaberaz" saillean sartu ziñan. Euskerari zure eskintza beroa emoteko garra zendun. Ango erretore zan Eskarzaga jaunari omenaldian, zu izan ziñan euskal arduradun.

Ni ere, Ondarroa'ko bazterretan gaixo ta argal, zeregin bardintsutan asia nitzan.

Geroago, Bilbon, gerratean, oraindaiñoko euskal egunkari bakarra izan dan "Eguna" egiten asi giñan, erdi mistiku ta erdi soldadu, agindu batzuen menpean.

Bilbon igaro genduzan gure 20-22 sasoiko urteak, euskal lanetan baiño bestetan pentsaten ez gendula.

Zuk, goizetan, Begoñan, apaiz ikastaroak zenduzan ta arratsalde ta gau-letan "Eguna"n beste gaiñeko orduak.

Zenbat ule artze ta zirikaldi, ia egunero tabernatxo baten apalondoko "mistela" pixkat artzen batzen giñanetan!

Gero... Jaungoikuak argi! Niri Bilbo'tik Karrantza aldera joateko, agindu eusten. Ez nekien zuen berririk. Zuek an gelditu. Bilbo'n geratu eta andik Barinaga'ko etxera joan zu, beti euki gendun fede onaren indarrez. An arantzak, Gerrate guztian iñori kalterik ez egiteko arduraz ibilli giñan, ixileko konpromisu bat artu ba'gendun bezela... ta ara andik Bilbo'ra zu biurtu ta eriotzako zigorrez gaiztetsi, "Eguna" zala ta bide.

Baserritar-diplomaziz lortu zendun zigorra arintzea.

Bein, Guadalajara'ko mendietan nebillela, karta bat artu neban. Alako irris-tada nabaitu nuen zure letra igartean. Zu Burgos'en zenbiltzan eta ez dakit zelan jakin zendun ertzaiñak nire billa ebiltzala. Ori esaten etorran zure karta, edozetara gertu nendin. Nik ere, sekula iñoren kaltetan pentsatu ez neban onek, lenean jarraitu neban ta andik laster Ondarreta'n nire burua ikusi.

Geroago... meza berria. Zure oroitzza berezi bat artu neban "Iturbe"ko goraintzi ta erregaluz.

Erbesterratu ninduen ni. Zu Arrasate'ra bialdu. Geroago, Gibraltar aurrera eroan ninduenean, zure kartak artzen asi nitzan.

"Eguna"ko aizeak zirikatuta, egunkari barri bat egin naian asi ziñan, ortarako premiña egoala. Iritzi eske artu nituzan ainbat karta. Amets zoroak! Fede oneko beti gu!

Gero, Arrasaten, zenbat buruauste ta zenbat ardura gazteen alde, langilleen alde, gizona argitu naiean. Ikastetxe bat sortu orduko beste andiago bat buruan, ikastola, irrati, agiri eta abarrekin kontzientziak suspertu nairik.

Gogoratzen?

Bein gotzain batek deitu ta demagogi egiten zebiltzala ta ixildu ta baztertu nai izan zinduzan. To! Zure kezka ta naigabeak ezagutu nitun, orduko igandetan eukiten genduzan artu-emonetan.

Baiña beti ere aurrera jo zundun.

Gero...

Egunen batean Arrasate'k zure oroitzua maitasunez eta kistar indarrez eta gizonen esker onez gogoratuko dau. Zabal da zure lana gizonaren mesedean. Ez dagokit ormak ere kantatzen duten zure lanik aizatzerik. Zenbat lan andi eta sakon, zure apaltasunak ezkutatu eta ixildu naikoak.

Zure euskal miña, zure lenengo garra, bear ba da geroko askok ezagutu ez daben jatortasuna benetako adiskide lez bizi izan neban.

Oraintsu, zure etxera joaten nintzanetan egiten zundun bezela, azken liburuak erakutsi eta eurretaz itz egin ondoren, bear ba da zuk barrutik diplomaziko agurtzat artzen zundun azken agurra egin zeustan: Gazteiz'en "Kardaberaz" taldean Bizkai'ko euskerara biurtu zundun Barbier'en ipuin txorta eskiñi, nik maitetsu gordeko nebala-ta... barriro zugaz batu arterañoko oroigarri. Prantzezez eta iparraldeko euskeran argitaratua dan "Legendes du Pays Basque, illustrations de P. Tillae, Jean Barbier" liburua eskiñi eta bertatik zuk euskeratutako bilduma. Orra zure azken naia.

Zaartzen natorrela, sikatu bearrean, gero ta errezago datorkidaz malkoak. Begiak laiñoz beteta ezin idatzi. Biotzak daki zegaitik.

Agur Joxe Mari!

Alkarrekin batzeko izan gaitezala zu sartu zaren zeruetan.

El Diario Vasco, 2- XII-76

KANDELA ARGITAN

Len eta orain premiñan bizi gara.

Asko galdu ba da be, oraindik guretarren artean irauten dau Kandelari egunean gurasoak euken oitura zarrak: kandela bi erosi, bedeinkatu eta san Blas egunez, janariaren artean, pardeltxoan, bedeinkatzen dan ari zati bategaz lotu eta kaixa edo arasa zarren baten gorde.

Eriotzari makurpena?

Bai zera! Eriotzaren gogorapena bai, baiña... Oiturak beti dakarre irakatsien bat. Beti pentsagarrien bat. Nik esango neuke oitura bakoitza bizitzarako aolku (kontseju) bat dala.

*Kandelario lareo,
atxari ura dario,
makatzari madari,
eutsi Peru ainkeari!*

Esatea lez: Eutsi biziari. Eriotzari lotsa zaindu edo gorde, baiña argi biziari: konjuroetan, ekaitzetan, gaixo aldietan...

*Edo ta beste au:
Kandelario lario,
atxari ura dario,
erroteari uruna,
auxe da bear doguna.*

Orrelaxe duaz bertsuak. Edozetara be bizitzarako argibide dira: biziari eutsi bearra, bakoitzak bere zeregiña indartu bearra.

Lengoeri ala gerokoari biztu bear ete dautsagu argia?

Argi eguna da kandelari, bizi eguna.

Andrak andra andi kandelariotan dira agiri.

Zegaitik?

Ez al ziran gure amak kandela argiz eleizan sartzen, euren frutuak, amatasunaren emaitzak munduari eskiñi ondoren?

Munduari bizi barria ekarri edo emon, eta argi bitartez eurak be barrero lagunartean edo kale ezaupidean sartu!

Kandelariok beti euki dau Euskalerrian, gutarren artean, jai usaiña.

Gure jaiak, askotan, urdaillari berea emonaz ospatuten ziran, eta neguko gozoki lez torradak genduzan len, gure gurariaren artean.

"Gurari" berba onek be eukiten eban bere ezaupide berezia, bere sinonimoa gure zarren artean. Au da, "gurari" berba ori "kapritxo" ordeztarabilten gendun.

Eta orrela eskintzen euskuezan torradak. Ba egoan onetan berezitasun bat:

Aratuste edo iñauteri egunetan fotagaz gertuak izaten ziran; Kandelariotan aia-gaz egiñak.

Kandelariotara eldu gara. Zelako giroz? Gogoratu esaerak: Kandelario egunez euria, laster da udabarria.

2-II-84

KARDABERAZTARRAK

Urteroko batzarra Tolosa'n, gabonzar aurreko egunean.

Betikoak, bat edo beste gitxiago. Kontuan euki euskerako "patres conscripti" dirala eta ba duazala zartzen eta zortzen. Eta barrien batzuk. Araba, Bizkai eta Gipuzkoa'tik etorriak batzuk. Naparrak bere bai.

Gai bakoitza kezka bat.

Kezka, goitik datozen aginduak eziketa edo ezkuntza maillan.

Kezka, kaletik datozen ardurabakotasunak, alegiñez egiten diran agerpi-deak bere aintzat artu ez edo ta ez jakin egiñaz.

Eginbearrei geiago lotu nai ta ezin.

Goikoen ez-bardintasuna laguntzetan. Batzuentzat esku zabaltasuna ta bes-teentzat itxitasuna.

Norbere autarkiz aukeratuak norberari lepoa emoten, min emoten, eskubiderik ez dauken edo artu bear ez leuken arazoetan "ex cathedra" antzera erabagiak artu eta zabaltzen.

Eta kontzientziak agintzen daben asarrea erakutzi bearra. Nai ta ez erakutsi bearra. Goietan dagozanei, senide, adiskide, errikide, alderdikide edo ta maikide izanarren, mindu edo ez mindu, zapalkuntza baten naigabe eta miña erakutsi bearra, istorian lekuko (testigu) geratu dedin.

Alkarren artean betozkoak eta utsuneak zabaldu bearra, ikusi ezin gaituenen poz eta irriparrean. Eta mese dean.

Iñork aiña eskubide dauke kardaberaztarrak gure berbetea, izkuntza kontuetan.

Ezelako irabazpide barik, ezelako lotuera eta makurtasun barik, jatorri oneko bide bateri eusten alegindu eta jarraitzen dabelako, euskera kontuan, eleizan eta kalean. Iñok baiño obeto ezagutzen dabelako erriaren gogo jator eta zabala. Erri-maillan azpikerietan jokatzen ez dabelako eta ezin dabelako.

Aurtengo kardaberaztarren urteko batzarrari izen bat emotekotan, semeak saldu daben aita baten egoera negartiarena emongo neutsake nik.

Eta bizkaitarrekin anaitasunekoa.

Konturatzen diralako euskera kontuan bizkaierari emon dautsen ankarteko ostikada euskeraren azkatasun eta biziari tiro bat emotea izan dala.

Ez da ixilduko Kardaberaz Bazkuna, bertakoei urteak bizia emoten dautsen artean.

Batzorde barriak aukeratu ditu, esan eta jakin erazi bear jakonari esan bear dana sits eta bits esateko.

Diñodan lez, aurrera duaz urtetan batzuk eta ez dabe gerorako kontzientziko ardurarik laga nai. Ardura ori, kezka ori da eurentzat agintariei eta erriari, aurrez-aurre, eskutu barik, euskera kontuan zer egin leiken eta zer ez adieraztea. Kontzientziko arazoa da, gaur euskera kontuko arauak emoten dituen batzuk, batzar askotako erabagiak zelan zapaldu zituen agertzea. Agindu batzuei nun eta noiz bai esan leiken, eta nun eta noiz ukatu bear diran agertzea.

Ezin lei esan Erakunde bat edo bestek, euskera kontuan, onelako edo alako erabagia artu dabela; Araba Gipuzkoa eta Nabarra euskera kontuan jokabide baten alde dagozala eta Bizkala geratzen dala "bakarrik" aurka, lege zarretan. Ezin lei ori esan, agertu barik, Erakunde orretako euneko iruregeitik gora bazkide bizkaitarrak dirala, eta ba daukeJa nortasunik bere erakundekoak lotsaz begiratzeko eta aintzat artzeko.

Beste gauzetan, eritxi askotako eta pentsabide zabaletako diran karclaberraztarrak, euskera kontuan bide argitik jokatu nai dabe, euren indarrez. eta euren pentsabidea osorik onartu eta alkartu daben beste euskal erakundeekin bategan.

Geroak esango dau bide zuzenetik zein dabillen eta zeinek jokatu nai daben. Eta batasuna nun eta zetan dagon. Erria lekuko, testigu.

"KIRIKIÑO" ETA GU

Batzuen esaera da euskal idazleok gaitz idazten dogula, biurri, zail, gitxik irakurri al izateko eran. Ikasientzat bakarrik idazten dogula.

Ez dot uste nik pekatu ori gure pekatua danik, gure eziketaren eta gure eskolatzearen akatsa baiño.

Ara. Galizirako ostera batzutan, ango liburuak erosten zaletu nitzan. Gure euskeraren kakua egongo zala an be ta zerbaitetan arnasa emon nai.

Niretzat be erraz errazak dira batzuk, an agertu izan diran liburu banakak kontu, erri-ipuin eta antzerakoekin osotuak diralako.

Emen adiskide nitun galiziar batzuei emon, euren artean beti galegoz berba egiten dabenei, eta konturatu nitzan ez ekiezala irakurten ez eutsela galego kutsurik artu ez emoten, erdal silabaka lez irakurten zituela eta galdu egiten zira-la.

Beraz laster konturatzen da bat akatsa ez dala idazleena, eskoletako gure eziketarena baiño.

"Kirikino" aitaturten dabe askok idazle erraz lez.

Nik esango neuke, "Kirikiño"ren denporetan, ez egoala eguneroko idazle ugariagorik, orduan egunerokua irakurten ebenak "Kirikiño" eukela egungo idazletzat eta bere sasoiko egunkari irakurleak, oitu egin zirala a irakurtera.

Gauza bat da gatza, eta orretan ez dausat kenduko "Kirikiñori" gatz lodia eukanik, eta beste bat da idazteko era. Eta onetan nik ez neuke esango gure maixu a batzuk baiño errezago zanik, bera irakurten oituteak jendea bere erabi-dea ulertzera eroan ebalai baiño.

Irakurteak dakar oiturea eta irakurtetik etorriko da erreztasuna. Gaurko umeak erraz irakurten ditue gauza asko, euskal eskoletan oitu diralako.

Asko dira esaten dabena, geiegi, egunkari onetako euskerarik ezin dabela ulertu. Ez dauset errazoirik ukatuko eta bein esana ez da. Eta ori ikusita, zegaitik gure zarrak ulertzea lortzen eben euren denporetakua.

Onetan nire ustea au da: Gure zarren denporetan egin eta idazten zan euskera, bere egituran, euskal pentsakeraz egiña zalako. Ba egozan gaiztuten eben berba barri edo neologismoak. Ezin ukatu. Baiña olakoak, gaitz irudituarren, geldi-geldi sartu egiten dirá eta irunsi, denporaldi aretan egiten zan lez.

Zoritzarrez gaur euskereari euskal kutsua galdu egin jako. Erdal pentsakeraz dator. Eta gero euskal itxura emotearren, biurrikeri mordollotan euskal usaindun spray lakoa sartu nai, eta alako baten anilla eta ozpiña alkartuta egu emoten dabena atsak baiño geiagoz atzeratzen gaitue, arrautz ustelaren antzera naskatu, eta ori da gaur askok euskera era bateri artzen dausena: atza. Atzera jaurtiten dituen miña.

Egunotan "Kirikiño"ren eriotza gogoratuko da. 1929'ko urtaril .azken

egunean il zan. Eta egunari dagokion gogoeta onek bere gauzatxu batzuk irakurtera eroan nau.

Begira orduan be zelan salatzen zan euskal erabide bat. "Abarrak" liburua agertu zanekoa da. 1918 urtekoa.

"Kirikiño"ri esan eutsen ia liburu a zelako euskeran etorran. Eta berak erantzun: "Zuek egunero egiten dozuen euskera dauko liburu onek, erriarena, ez academicoena.

Ikusten danez ba egoan, orduan be, euskeran, ia esateko, betiko kezka.

3-II-83

KRISTONAK

"Kristonak" artu eta baita "Kristonak" emotea be gertatu jako gure belau-naldiari bizi garean erri onetan.

Eta "kristonak" esatea eta "kristonak" entzutea.

Baiña ta "kristonak" egitea?

Kristonak egiteko milla aukera doguz: Erri eskubidetan, erri erakundean, gizarteko premiñetan, anai arteko bizitzan, lanari buruzko lotueretan, alkar-laguntzako deituretan...

Askotan zetan egon deiaren zain, gaitzaren miña ikusten danean, ondoezaren zauria puzpilotan ikusi ta igarten dogunetan?

Zegaitik gure borondatez aurreratu ez aukera ezagutzean beste gurari eta eskubidetarako aurreratzen garean lez?

"Kristonak" artzea bidebakokeria, injustizia izango da geienetan; "kristonak" emotea indarkeria sarri; "kristonak" esatea arrokeria ez gitxitan; "kristonak" entzun bearra askatu ezineko menpetasuna..., baiña ta kristonak egitea ez ete da gaurko gizarte eta bizibidean ontasunaren ezaupide eta guraria dogunontzat nai ta ezko lotuera?

Erri askotan, Euskalerrian oraindik askotan, batzutan galdu edo baztertu ba da be Kristo biziak jaztea, Kristo'ren irudia itxuratu edo gogoratu eragiteko oiturea dago.

Ba ete dago gure egunetan irudimenez jantzi bearrik, dakigunez jakinda, danok gareala Kristo bizi, batzuk miñetan eta naigabetan eta jazaten, besteak atsegina eta zorion bitsetan; batzuk estuntza eta katepetan, besteak aginpideko

makillen jaube, eta danok dogula artu eta emon bearra, danok dogula goratu edo beratu bearra Kristo bizi izate ori jator eta zentzuz agertu, erakutsi eta bizi izaten jakiteko?

Azken baten nor eta zer gara, edo izan bear gara eta zetan alegindu bear gara gizartean?

Autortzak dirala-ta, oraindik zer esan ugari entzuten da, esaten dalako, erabide barrian.

Batzuntzat egoki, bestentzat argalkeri. Edozetara be autortzara makurtze berbera, ezaupide bat erakustea da, kezka bat, premiña bat ezagutzea da.

Eta "kristonak" artu eta emon, "kristonak" esan eta entzun, "kristonak" egin eta bizi aietzen gabiltzanean, ez ete dogu autortu bear kristonak pentsatu bear doguzanak? Eta gure argalkeriaz aztertzea, ez ete da Kristonak gogortzea?

Eta ni ez naz fraile ez abade; Kristo'ren sinismena artzeko zoria euki daberen erri bateko fededun izaten jarraitu nai dot, kristonak eskartutea be egin bearrezko dogulako.

I-IV-88

LAIÑO TA GURMETAN

Egunotan, euskeraren aldeko gure jaurlaritzaren legea, laterriko araudi nausiaren aurkako izan leikela-ta, ango agintariak auzietara salatzeko erabagia artu dabenean, batzuk keixatu lez egin dira, eta alako naigabe mintsu eta urratzaillea artutako eran agertu.

Guazen sakonera ta aztertu daigun: Nor da euskeraren arerioa? Edo ta nor da euskeraren aurkako?

Euskeraren areriorak, lenengo eta bein, geu gara.

Ez errurik jaurti Madrid'etik agintzen dabenei.

Areik lege bat emon. edo ez emon leikie. Aginduen bat zabaldu edo galarazo. Guri dagokigu entzun edo irakurri ta jakitea. Guri baita zelan jaramon egin, ikasi ta erantzutea.

Zetarako asarretzen gara andik etorri leiken agindu bategaz, geuk etxean, andik etorri leikena, oituratzat eta legetzat azpaldi artu edo ipinia ba dogu?

Zetarako keixatu andik etorri leiken euskeraren ate batzuentzako giltza

ipintearen aurka, ori baiño lenago guk euskerari gure etxetan eta gure bizibideko leku guztietan, ate lodi ta andiak, eta leiatilla bakoak gaiñera, ipini ba dau-tsaguz?

Ez gaitezen ipokritak izan.

Eta batez be ixilik egon beitez guraso euskaldunak euki, euskaldun sortu ta azi ta euskera galtzen laga dabenak. Ixilik, norbere izateari zorra ordaindu ar-tean.

Asi bediz erakundeak eta agintaritzak euskeraren aldeko erakutsia emoten; asi bediz egunkariak eta aldizkariak euskerari gaur baiño lotsa geiago eukiten; asi bediz egunkariak ordaindutako eskelei baiño toki geiago emoten; asi bediz udalak eta erri-bizibidearen ortasuna daukenak euskerari begirapen geiago eukiten; asi bediz batzokiak euskerari bidea emon eta tartea lagaten euren orme-tan, agirietan eta batez be barruko paper guztietan; asi bediz gureak, gutarrak, irakatsia emoten eta orduan berba egin al izango dogu.

Zetarako eskubideak paperetan ikusi nai, ekintza eta bizitzan eskubide orreik geuk galtzen ba doguz, alegiñik egiten ez ba da eskubide orreik indarra euki dagien?

Paperen aiñakoa ba da eskubideak geuk artzea, geuk zaindutea, geuk bizi eragitea, aitzaki ustel, guzurti edo ta arpegi lodiagaz lenengo norberak egin da-benari illeta jo barik eta gero egingo ez danari aitzakiak billatu barik.

Euskeraz bizitzen asi gaitezana, euskaldun agertu gaitezana gure bizibide osoan, eta orduan ez eskubideak eskatzeko nortasuna, bear-etsi (exigiduteko) eta lortzeko duintasuna be eukiko dogu.

Etxean lortu bear dogu, etxean galdu doguna, ez kanpoko mesedeak aren ordez emon leikeguna.

Erri batek, aberri batek, ez daukaz egunak bakarrik beretzat, urteak baiño, bizi guztia baiño. Nik sarri gogoratzen dakidaz "Basarri"k Bilbo galdu eta las-ter Landes'etan egindako bertso batzuk:

*Piñu arte ontatik
luma egalari,
oldozpen bi buruan,
Euskera ta Euzkadi.
Nai aberri barnean
Naiz andik urruti
euzko abertzale ni
len, orain eta beti.*

LANA ETA LANGILLEAK

Edo ta biarra eta biargiñak.

Danok gara langille, era batera nai bestera.

Eta izan gaizala.

Gure denporetan, ez dira urte asko, egun gorria, edo gorrien eguna zan Maiatzaren lenengua.

Aldatz gora egiten jakoen talde batzuei egun onen egokitasuna onartutea. Kosta, langille askori be, egun au jai egun ospatu eta atakotzat ezagutzea. Bartzuntzat asarrerako bide zan; lan barik geratzeko aitzaki ugazaben aldetik, edo ta gorri betozkoz lantegian baztertua ikusia izatearen arriskuko.

Erri askotan ez zan ospatuten. Bestetan bai.

Eibar'en, esate baterako, "Ibilarixanak" liburuan ikusten dogu zelako eguna zan:

*Ta Munduagaz, or nun batera,
langillieak be, biztuta pozez,
jaiko jantzitta goitikan bera
dabizen, Mayetz lena dan partez.*

Ala diño bere lanetan Toribio Etxebarria zanak.

Jaiko jazte au zearo galdu dogu. Baiña len egunari itxura eta anditasuna emotea zan jaiko jantziak erabiltea. Orrelako egunetan arrokeri antzeko. Esku-bidea erakutsi ta aintzakotasuna artu ta agertu naia.

Alaz eta burruka eguna izaten zan toki askotan. Geienbat talde bat orrelako nortasun eskubideen aurka agertzen zalako. Ba dirudi azken urtetan lanaren jai lez danen aldetik obeto ikusi eta ezagutzen dala. Gaur jai orokortzat euki giñei.

Ala izan bear dau, izan be.

Lanaren egunak gizon langilleak gogoratzera ekarten gaitu. Bizia lanean emon eta lanari eskiñi eutsenak.

Era askotakoak billatu giñeiz. Bizi guztian lan egiñarren, aldakorrak, toki baten ezin egonak. Ezin esan origaitik langille zintzo izan ez diranik. Askotan lanaren premiñak eragin lei aldaketa ori.

Beste ikusbide baten, langille zintzo deitzen jako, toki baten, gintza baten, uga-zaba edo jaubetasun baten ardurapean, bizirik geiena emon dabenari. Langille eta ugazabaren ontasuna agertzen da or, bitarteko.

Asko dira orrelako langilleak.

Gogoratu 1969 urteko egun onetan il zan bertsolari bat, errezildarra jaiotez, azpeitiarra lanez: Euxebio Eizmendi "Txapel". 45 urte nagusi bakarragaz.

Il zanean Gorrotxategi bertsolariak bertso oneik eskiñi eutsazan:

*Zuk piztu zendun biotz barrutan
izugarritzko su garra,*

*ta euskerari eman zenion
berdingabeko indarra,
juan zera Txapel biotzekoa,
ba gendun zure bearra,
Jaungoikoari esan bertsotan
Euskalerriko negarra.*

Gaurko egunez il zan, baita, 54 urte luzetan Iruña'ko Orfeoiko zuzendari izan zan Remigio Mujika bergararra. Lana gogoratzekotan, goragarri onelako gizon langilleak.

Maiatzaren bata lanaren eguna, bai eta langillien eguna be.

1-V-82

LANARI BURUZ

Danok dakigu gaurko egoera.

Kezka eta larritasuna, edozetara be, egun egungo lanik ezari buruz.

Edozein errialdetan bardin. Bizkaia'n ez makalen.

Balmaseda'ko lan gela bateko arduradunak iñostan oraintsu, millatik gora dagozala an lan barik. Eta txarrena, nundik sortu leiken argitasun barik.

Batzuk ba daukez babesak eta origaitik sarrerak. Besteak, erdiak baiño geiagok, ezer ez. Ainbat joaten jakozala egunero, zerbaiten edo nunbaiteko eskabiderik egon ete dan.

Goitik berako arrada eragiten dauskue etxetako arduradunoi onelako egoerak.

Eta or sartuta dagozan gazte eta mardulak zer? Noiz sortuko da danentzako lana? Danentzako egon ez da be, etxe bakoitzeko guztientzat ezin ba da be, bakoitzetik batentzako, besterik ezik? Ikusi al izango ete dogu orrelako aukerarik?

Kontu zarrak irakurtearen zale gareanok, ez dogu billatzen beste orrelako egoera baten aldi luzerik gure errietan.

Bestera bai. Lanerako eskurik ezaren damuzkoak bai.

Erriko ola, lantegietarako, erabiltzaillien utsez bai. Eta itxasertzean, txalo lotuta euki bearrekoak bai, mariñel edo arrantzalienen zain.

Pentsatu leikie gaurkoak, gure itxasertzean, eriotzako zigorra ipini ebela bertatik erbestera lanera joaten ziranentzako?

Nire ustez, edo ala sinistu nai dot, eriotzako zigor ori esaera gogor lez erabiliko zala, ez ortara benetan epaituko zituen agerri.

Bear ba da, nai ta istorian luze jo bear, gerraren bat egon eikean bitarteko, ta emengoak erbestera igesiak egon.

Danok dakigu gure inguruko itxasertz au beti bizi izan zala arriskupean lengo gizaldietan. Eta Euskalerrriaren eskubideak aldeztuten doguzanoi, ziuurta-pen ugari agertzen jakuz.

Esate baterako 1618 urtean Bizkai erriak bere Eskuadra eratuteko erabagia artu al izateko agiri bat egin eban. Gertu egoan gerrarako zortzi galeoi eta karabela bi egiteko, baiña itxas gudalburu edo Almirantea, kapitan eta galoi dunak, danak, bizkaitarrak izatekotan. Beti be Bizkai'ko erriak aurkeztuak.

Izan lei gerra bildur au bitarteko egotea. Baiña, lengora jota, lanaren ardu-retara joanda, urte bi lenago, 1614'ko Martia'ren bederatzian, Mutriku'ko alkatearen agindu bat aurkitzen dogu, erbesteko itxasontzietan erroltzen ziran mutrikuarrei zigor bat dirutan eta gero beste lau urtetan, ezelako ordain eta irabazi barik, nai ta ez erramulari zeregiñean bertako txalupetan jardutera beartuak izatera.

Garbi ikusten dogu onetan gure erriak ba eukala beretarrentzat aiña lan, nai ta egoera bategaitik erbestean egokiagoa billatu. Eta ba eukala, baita, gaur ez daukan eskubide bat: gerrara joatekotan norbere eskubidez joan eta errikidien laguntza eta alkartasunean.

Eskubideak eta lana, gure burukomin garratzak dira. Gaur ezin dogunez, lengoak emoten dausku poztasun bat. Izan be kondaira, istoria, beti da irakasle ziuurra.

I6-III-84

LARANJA GARRATZAK

Sevilla'n gertatu nitzan urtearen lenengo astean.

Euri bigunetan. Irri egingo eustela ara euritakoekin joaten ba nitzan eta... aterkiña erosi bear.

Euskaldunen urratsak billatzen ale gintzen naz olakoetan. Ango Indietako artxibo andian ba dago gure merkatari eta itxastarren barri. Billatu egin bear. ¡Denpora eta lagunak bear orretarako orrelako artxiboetan agiri egokiak eskuratzeko.

Ba dirudi emengo ikurdiak (eskudoak) ba daukala zer esan nai ugari. One-
la agertzen da: NO && DO. Erdiko mataza orretan dago esan naia.

Ainbat lekutan ikusi, igarri ta irakurten

Alfontso X Errege iakintsuaren denporetatik dator jeroglifiko ori.

Ba eukan Gipuzkoa'n. iaun onek, nortasun zerbait bere garaian. Erri ba-
tzuen sortzaille lez agertzen da.

Baiña iakintsu zala; matematika. izartizti eta legedietan maixu zala. (Siete
partidas, Libro del Saber de la Astronomía, El Lapidario, Las Cantigas eta
abar) erri gidari lez makal agertu zan. Bera konturatu barik, bere seme Santxo
ia Andaluzi guztia. Asturias, Castilla, Extremadura. Galizi, Leon, Murcia eta
abarretan sartu ta jaubetzen asi zan.

Aita Sevilla'n egoalako ez eban nai izan emen sartzerik. Ordez, bertako
erri gizonak bere alde agertu ziran. Eta origaitik, ikurdirako asiera eta azken
itzak izentatu eta erdian mataza baten ezaugarria agindu zitun. Orrela NO-ma-
deja-DO, au da, "no me ha dejado", garbi esanda litzake erregearen esan gurea.

Zer ikusi asko dauka Sevilla'k. Eta istoriari buruzko kontu ugari be bai.
Kultur aldi ez-bardiñetakoak.

Izkilluz, armaz sartutako fedearen zitaltasuna igarten da bertan.

Visigodoak egon ziran. Eta arein edergarrien gain arabeak gain-gaiñeko
jauregi ta mezkita egin zituen.

Gure fedea sartu zan. Ta arabeen ormak bakarrik mugatzat laga-ta, ia mun-
duan ezagutzen dan gotiko erako katedralik andiena egin bertan. Irugarrena da-
la diño e andiz.

Baiña katedralak aindiegi dira gaur. Gaitz da gizona katedral baten bere se-
nean, bere barruko nortasun osoan batu al izatea.

Itimad en gertaera gogoratzen da Sevilla'n. Altomamid. arabitar errege al-
tsu. olerkari bigun eta jakintsu sakonak Itimad neskatil lirain eta argia ezagutu
eban. Eta ezkontza bidez beretzakotu.

Iti mad maite miñez eta barruko kezkarik beteta ebillan beti. Ezin ase bere
nairik eta ezin itzali bere kezkarik. Erregeak batetik bestera erabiltzen eban,
poztu nairik. Baiña berean, ase eziñez, zerbaiten utsean beti Itimad.

– Zelan orrela. Andaluzi aberats onetan, dana zurea dala?

– Ba dago zure urre guztiakin emon ezin dozuna.

– Zer?

– Elurrezko ikuspegi bat... Oraindik sekula ikusi ez dodana. Eta nire leio
aurrean orixe ikusi nai neuke, mendiak elur kapapean ikusi nai neukez, musu
busti baten atsegiñetan...

Sevilla'ko katedral andi onetan fedearen txingarra turismoaren bitsagaz
itzali, amatatzen igarri dot. Ikusle asko, otoiz laririk ez...

Andik urten eta alkazarretako pitxi, edergaillu eta apaindurak arrituta laga-
ten dabe bat, eta Sevilla'ko parke andi eta zabalak, ango loretegi ederrak, li-

lluratu. Baiña lorerik bagako parkeak, otoitzik gabeko katedralen antzeko dira. Pilloka igarten diran arboletako laranja garratza lez.

Eta Sevilla'ko euskaldunak, zer?

Artxiboetan gorde zituen edo ta Inkisizioaren menpean ixildu.

1482 urtean sortu zan Inkisizioa Sevilla'n.

Lenengo zazpi urtetan zazpireun erre zituen eta-beste bost milla zigorrez katetu. Aundiki ta langille. errialde bateko ta besteko.

1520 urtea orduko, lau milla erre zituen kontua emoten dau Zurita istori idazleak.

Ba da diñona urte baten bakarrik bi milla erreteko erabagi artu ta agindu emon zitula.

Izenak bi]jatzean, zigortuen artean laster agertzen da fray Domingo Txurruka bat. Motrikuarra ete?

Diario Vasco, 4-II-79

LARRALDEKO MADALEN

Jentez da Donibane'n estalli plaza;/plazaren erditsutan gillotina gai bat iduri, deabruen artetik,/Madalen agertu da, eskuak loturik..." | 1794 urtea zan.

Iraila'k 19.

Amabost urteko neskati bat, Madalen Larralde, saratarra, gillotinan iltzera eroanarren, zutik eta tinko dua bere tokira.

Iparaldean, erreboluzioko gizonak, kristau fedearen aurkako itsukeriz diardue.

Larralde'ko Madalen au ez ete da erriari bildurra sartu eragiteko martiri bat?

Madalen'ek ez dau atzerarik. Bere fedeari itsu lotua da. Ikus:

"Oro nigarrez daude, hura aldiz kantuz,/lorietan be doa iltzeari buruz./"Salve Regina" dio, Agur Erregina,/zutan dut esperantza, Ama guziz ona."/

Fedea aitzaki, ezin ukatu, baiña bitarteko... gure "muga". Euskalerraren laido, lotsari, ittotasun eta pekatua dan muga.

Madalen neskati Sara'tik Bera'ra etorria zan, eta barrero etxerako bidean aurkitu eben.

Bere esanetan, konpesatzera.

Bestentzako, bear ba da, espia bat edo mandatari bat gertatu zan. Eta or sortu zan auzia:

"Ez aitor, berez zertan indabilan Beran,/ zuri edo beltz beste zerbait asma ezan... "/

Orainarte agertutako bertso oneik, Diharasarry'renak dira.

Madalen lez, saratarra zan berau.

Abade zintzoa. Bereari eusten zitala. Kanbo'ko abade zala, Orzaiz'era bialdu eben, salakeriz, denuntziz.

Amazortzi abade ba ziran orrela, erri-agintarien indarrez erriz aldatuak. Origaitik abadeak elezinoetan dituen eskubideak zein ziran idatzi eban. Bera be diputadu aurkeztu zan ta ia lau milla autarki lortu. Baiña milla ta erdi inguruz besteak irabazi.

Azkenik, gizonak lortzen gaitz izan ebena, mando zoratu batek lortu eban. Aidean jaurti ta orko zaurietatik il zan, 54 urtedun zala;

Euskal literaturan Diharassarry eta "Orzaiz'ko apaiza" bat dira. Eta "Bai bi artzain" izenez agertzen ditun bertsotan, Dagerre da beste bere laguna.

Madalen Larraldeko onen istoria luze eta zabal ibili zan Euskalerra guztian.

1894'n, Donibane Garazi'n egin ziran euskal jaietan, "Oxalde" olerkariak gai ori erabili eban.

Eta 1896'urtean Maule'n ospatutako jaietan, neskati ori zan olerki sariketarako gai eta ain zuzen goian aitatu doguzan bartsoak irabazi eben; bigamn saria Felipe Arrese Beitia otxandiotarrak lortu eban, eta irugarrena Lopez Alen donostiarrak.

Arreserenak dira oneik:

*"Oraindik izanarren amabost
urteko gazte biguna,
Pinet ta bere lagunak gaitik
ez eutsolako ardura..."*

Geroago gure Txomin Agirre'k, "Sara'ko lorea" izenez egindako olerkian esango dau nor dan Pinet:

*"Pinet gogorra da Sara aldean
prantsez martitzen burua,
betoski illun, begirada txar,
ta itz garratzean maisua."*

Eta Txomin berberagandik jakingo dogu gertaera zelan izan Zan, Madalen billatu ebenean:

"Nundikan zatoz?, galdetzen dio, gerrari batek zorrotzik.

– Bera'tik jauna, erantzuten du

Malen gureak, Bera'tik.

– Zer egin dezu gaur Bera'n? Jauna
autortu bakarrik.
– Eztet sinisten, salari zera;
lotua zaude bertatik.

Ez zan Madalen izan il eben saratar emakume bakarra. Mari Arotzarena ere il eben, baiña Madalena'ren 15 urteak eta bere zintzotasunak errian sentimen berezia sortu eben.

Ala, bera dala ta, len esan edo aitatutakoen gain, Dubarat'en lanak billatzen dira, bost aldiz beintzat, gure; aldizkari edo errebistetan. Eta Darantz'enak, Karmelo Etxegarai, Santxez Irure, J.I. Uranga, Pello Mari Otaño eta abarrenak. Arturo Kampion zanak be teatroro eroan nai izan eban gertaera au eta Txomin Agirre izan eban euskeratzeko lagun.

Or, fedea eta muga bitarteko, nestatil baten irakatsia.

20-IX-78

LARRAMENDI GAUR

Idazle liskar, eztabaidatsu bat bere denporan eta gero: Aita Larramendi.
Egi andi, mardul eta biribillak esaten ekiana.

Larramendi il eta urrengo urtean jaio zan Iztueta dantzari eta idazleak idatzia gogoratu:

*Ai, gure biotzeko
Aita Larramendi,
bost egia esan da
juan zīñan elnendik!*

Askoren itauna, galdera: Zegaitik aldatu ete eban Garagorri bere aitaren abizena eta bere jaiotetxe berberaren deitura zana, eta amarena aukeratu, Larramendi erabili?

Bizi erdi Castilla'n eta gero beste erdi Loiola'n igaro eban jesulagun orren bere lengo lanak, agertutakoak, ezagutu genduzan: "El imposible vencido" euskerari buruz, "Discurso histórico sobre la antigua famosa - Cantabria...", "Diccionario trilingüe...", "Coreografía o descripción de Guipuzcoa..." eta abar.

Orain Gipuzkoa'ko Lege zarrak dirala-ta, Gipuzkoa'ko foruei buruz, Real Academia de la Historiako artxiboetan erdi-lo edo lo lonkorrean egozan itzaldi

eztabaidagarriak argitaratzeko aukera eta zoriona euki dau I. Telletxea Idigoras abade jakintsuak.

Benetan mesedegarri dalako eskartzeko da liburu zale onek darabillan lana, erakusten eta paper zarrak aztertzen.

Berak diñonez, oraingo liburuan agertzen diran Larramendi'ren itzaldien barri aspalditik eukan. Baiña gure egoera politiku eta mutuak bildurtu egin eban eta argitaratzea atzeratu eragin, zentzurak Larramendi'ren itzaldiak gerrigerritik ez ba zan be, lepotik moztuko zitulakoaren bildurrez.

Larramendi berberak autortzen dau itzaldietako baten bere berbetako era, bere izkera garratz, minkor eta astindua dala "acre, mordicante y sacudido, diño erderaz). A la arpegira jaurtiten eutsela. Baiña ba dirudi bere esaeren pen sakona dala eta ez dirala berbak, gaia baiño, askori orrelako eritziak sortu eragiten eutsezanak.

Zezena lakoia zala aita Larramendi, esaten da. Erri gaietan zirikadaren bat igarri ordurako, bizi-bizi urteten ekiana.

Telletxea Idigoras'ek argi diño bere itzaurrean: Larramendi'k ezezagun ikusten zitula foruak, jazartu eta azpiratuak; erria, osotasun lez, geldiro murriztuten igarten ebala, bere jantziak erantsiten. Baiña orrek baiño beste zerbaitek geiago kezkatuten ebala: aldun eta batzar-gizonen ardua bakotasuna eta sortasuna ikusteak.

Larramendi'ren itzaldiak, gaur abertzaletasunean bizi gareanontzat, zotiña sortzen dabe; begiak pozarren zabaldu eragin. Bear ba da origaitik esan dau norbaitek Arana Goiri'ren pentsabidea aurrez erabili ebala Larramendi jesulagunak.

Ezin ukatua au da: Gipuzkoa'ko abertzaieak liburu bitxi eta bikain bat dau liburu onetan. Errialde lez Gipuzkoa'ri, bere izatean, bere zeregiñetan eta bere azkatasunean argibide eta kantu oragarria dala.

Orain berreundak urtetako gure uskal giroa berrikusi nai dabenei, goitik berako arrara eragiten dautse liburu onek.

LARRUSKAIN

Amallo, Amallo-erreak...

Oraintsurarte Jainkoaren graziz bizi zan auzoa.

Argia baserri batsuen artean euken etxeko uren indarretik. Zortzi urte dira oraingoa sartu eutsela. Eta asko kostata.

Urrutizkiñak...: Oraingoz bakarra eta kittu.

Bidea bai. Markinar bat, Bizkai'ko aldundiko aldun nausi zala, alegindu zan egiten. Boto orde tren. eta bideak egiten ziranean, olako mesede bat eskartuten jakiten zan. Edo zeñentzat be botoak merkeago ziran Aginpideko indarragaz baliatuta, bakoitzak ordainduta baiño.

Pelota tokia... Ez al dabe merezi emengoak jolas toki bat, nun nai kiroldegi andiak egiten diarduen denpora oneitan?

Larruskain nun dagon?

Markina'tik Ondarroa'rako bidean, Urberuaga'ko ur-etxea igaro, eta Azpiltza'ko auzo ikastola edo eskoletxearen aurrean, eskumatara artu bear da bertarako bidea.

Azpiltza izen au Markiña'ko iraspeneko agiritan be agertzen da.

Larruskain'erako bidean aldatzik ez dago, baiña bai errebira ugari alkarren gain. Sei kilometro inguru bear dira bide bururaino. Antxe dago Larruskain.

Eliza, maistra bako eskoletxea, jatetxe bi eta iru-lau baserri inguruan.

Goratxoago, egalera jota, Ondarroa'ra duazen uren iturria.

Inguru orren ertzetik gora, zuzen jota, baiña kotxerik bizienari be izerdia ataraten dautsan aldatzetik zear Arnoateraiño daroan bide estu baiña zaindua,Pista.

Erdi inguruan, betik gora goazela ezkerretara artu, piñadi eta pagadi bat igaro, eta Bizkai muga dagon Kostolamendi.

Antxiña, Bizkai'tik Gipuzkoa'rako bialtzen ziran burdinkiak emen euken gordelekuan, gero komeni zanean, beste aldera bialtzeko.

Pendizpean dagon auzoa da Larruskain. Mendi arteko sakon une bateko lautadan.

Bertan, parroki txiki bat. Antxiñako parroki zarren itxura eta egitura ta aberastasun barik.

Eleiza pobrea, kantaten zan oraintsu Euskalerrian zabal ibili ziran kantuetan. Larruskain'go parrokiakin, bera lako parrokiekin, Eleizak ez leuke aberastasun andirik eukiko, ondasunetan, nai eta gizontasunaren agerpidean, bertakoak jator eta betetasun zintzo agertu.

Auzo euskalduna da Larruskain eta parrokia be euskalduna. Zenbat parroki dagoz Bizkaia'n, Loiola'ko Iñaki deunari eskiñiak?

Ez dakit oraintsuko barrien artean iñun eskiñi dauksen. Algorta'n dagona

1949 urtean zabaldua da, eta urte berekoa baita Deustu'koa. Eta oraintsuago jaso Basaurikoa, 1969 urtekoa.

Larruskain da, beraz, oraingoz Iñazio deunari eskiñitako Bizkai'ko parrokirik zarrena. Eun urte aurten il onetan, bertakoak jaso ebela. Ordukoen inguruan batuko dira, Azilla onetan egiten diran iltegiatarako ikusaldietan, oraingorik geienak, eta egokitasun ori artuko dabe parrokiaren jaia ospatuz, erriaren edo auzoaren aldezko asmo barriak aidera agertzeko. Gero gerokoak.

6-XI-82

LASA APALATEGI

Minduta aurkitzen zaran tokian, an dago zure erria.

Biotzean sartuta eukan Lasa Apalategi'k esaera au. Eta berak be jaso eban bere "Euskalerrria eta ikastola" liburu txiki baiña mamitsuan.

Onela iñoan berak: "Ta nik, nere aldetik gogoan dut zer zion Mackiewicz poloniar famatu arek, ain zuzen `Bideskariaren liburuan'. Non arkitzen zera mindurik, an dago zure erria".

Eta berak, Lasa Apalategi'k, bere lanean geituten eban:

"Ikus bezat Jauna, bein eta berriro atalore ezinegona. Au da, bere erriaren amaituko ez dan udaberria, alegia".

Problema askoko gizona izan da Lasa.

Abade eta abadetza maite zitun, kanonigo izatera eldu zan, duintasun ori banakentzat lagaten zan aldian.

Eta Donostia'ko Artzai Donea'n, bere lan eta ekintzak, begirakada zuzen bat euken: euskaldun erria.

Origaitik sartu zan euskal ikastolen aldeko lanean. Gogoz eta adorez. Baiña berak iñoan, naste eta ulertu eziña billatu zitula inguruan.

Eta gogaitu egin zan.

"Zeruko Argia"n idazten ebanean, eta "Zeruko Argia" kaputxinoak laga naian ibili ziranean, Jose Artetxe eta Jose Leon Lasa Apalategi alde bateko jokabidearen billa ibili ziran. Fraileak eurak beste alderdira makurtzen ziran, nai ta gero, urte gitxi barru, euren jokabidearen urten eziña ezagutu.

Lasa, gizonaren iraultzan, etsipenean jausi zan. Abadetza laga eban, eta ka-

nonigoen botoi gorridun sotana eskegi. Gose ta estutasunez beterik Bizkai aldera urreratu zan.

Emen, Deustu'ko Izkuntza Eskolan billatu eban aterpe bat, zuloz betea, oraindik bere denporetan euskal irakaskintza txarto ikusia, gitxi maitatua, eta txarto ordaindua egoalako.

Baiña irakaskintza erraztuteko liburuak bere kontura ataraten asi zan. Orre-la Euskal Foruetaz eta Gernika aidean artuta, berak erderaz egin, baiña izkuntza eskolako ikasleei euskeratzeko gaiak emoteko ustetan, gure kondaira erakutsiagaz batera.

Bestalde Bizkaiko Batzar Nagusien bizitza barriztatzean, nai eta bera gipuzkoarra izan, Deustuko abertzaleak ortarako aldun egoki ikusi eta autetsi eben, eta bigarren auteskundetan be Bilbo errialdeko ordezkari urten eban.

Gogoan daukat, batzordeak aukeratzean, aldun lagunak Institutio edo gure Erakundeko batzordean sartu nai izan ebela. Eta berak ontzat artu eban izentatze ori, baiña kulturako batzordean nai ebala adieraziz.

Ain zuzen gure arteko batzar batzuk aurrez eukiarren, Kultur Batzorde osoaren batzarra astelenean euki gendun eta bera kezkatu eta arduratsu ezagutuarren, iñok ez eban esango gaixo egoanik.

Baiña Arimen egunera urreratzen gatoz, eta danok dakigu esaera zarra:

*Bizia labur,
iltzia segur,
ez jakin noiz
berant ala goiz.*

Eta bera be betiko jo eta eten eban ostiralean (barikuan), beti lez euskal zeregiñetan ebillala.

Gernika'ko Arbolaren adarretako Kurutzak beragan zaindu daiala.

30-X-83

LAZKAO' KO BENEDITARRAK

Zenbat ordu lan egin ete leikez egunean, konbentu baten, beneditar baten eroapen (pazientzi) eta gogoagaz?

Edo ta zenbat lan-ordu daukaz egunak onelako toki baten?

Konbentu erria da Lazkano, edo Lazkao.

Bide nausian esker-eskuma, monjak eta fraileak. Zister'ekoak monjak; benardar. Beneditarrak fraileak. Lenago, azken onein etxean, karmeldar fraileak egon ziran. Origaitik eleizan Terese deunari dagokiozan ainbat margo eta pitxi, bear ba da, deun orrek beste toki gitxitan aiña.

Ez da frailien jaubetasuneko etxea. Duke eta kondeak ba ekien toki batzutan lurralde zabalen errentak eta amarrenak artzeko etxe andiak jasoten, eta euren illen azurrak gordeteko otoitz lekuak billatzen, arma-arri ta guzti aldare nagusietan ormak zulatu ta illobiak eratuz.

Lazkao'ko beneditarrak eleizan egin dituen lanakin aldare nausia gaurko aginduetan ipini nai izan dabe, ortarako illobiak alboratuz, nai ta arma-arriak lengo tokietan laga.

Ez al dabe merezi patroiaiazko aste beteko asarreak, aldare ingurua kristoleku iruditzeak, andikien oroitzak bastertuz, eleiztar guztien mesedean?

Lazkao'ko beneditarren etxeak, konbentu lez, ez dauka beste askoren ederrik. Ez klaustorrik, ez egoitz ederrik, ez koruko jarleku tallaturik, ez eta eleiza aberatsik be. Len esandako aldareko margo ta pitxiak, ori bai bakan eta baliotsuak, eta kittu.

Ez dauka ez eta ortu andirik, lurralde zabala eukiarren. Ori bai, millaka egazti bizibidegarri.

Ez dauka-fraile askorik be. Amaika lagun, zar eta gazte.

Baiña Lazkao'ko konbentuak beste iñungo konbentuetan ez dagon euskal liburutegi bakana dauka.

Egongo dira liburu geiago daukezan konbentuak. Liburutegi andi eta zabalagodunak. Baiña emen baiño euskal liburu geiago eta euskal aldizkari, egunkari eta liburu sorten talde geiago dagonik'ez dago beste bat.

Iru etxe-oiñeko liburutegi apain eta garbi ipinia lortu dabe. Gure artean lengo gizalditik ona egon eta agertu ziran aldizkarien eta asterokoen bildumak ondo zainduta dagoz. "Euzkadi" egunkari bera 1913'en asi eta 1936'ko irailla bitartekoa osorik dago.

Igarten da azken gerran Bizkaia eta Gipuzkoa aldebanatuta bizi giñala. Origaitik ez dauke "Eguna"ren bildumarik. Baiña lengo eta oraingo "Euskera", "Euzkerea", "Argia", "Agur", "Euskalzale" eta abar an billatu leikez.

Orreik zatika egon leiz beste toki batzuetan. Ez emen aiña. Eta errietan agertu izan diran errebista, egitarau eta bestelako zabalkundeko paperak be emen dagoz, txukun ipinita, nai ta batzuk lurretik eta ainkazpitik batuak izan.

Gure erriaren erri-giro ta gertaeren ikasketa sakonak egiteko berebiziko liburutegia gertatu dabe emengo fraileak, egunero etenbako lanean, orri eta paperak batu, eratu, bakoitzaren tokian sartu, fitxak atara-eta ikaslien serbitsuan ipinteko.

Liburutegian be otoitz egiten dala diño fraileak, eta batez be ikasi nai dabenezako karidadea, erriaren eta gizartearen mesedean.

LEBATZA

Etorriko da Maiatza jango doguna lebatza... esaten da denporaldi oneitako esaera baten. Orain, arrantzako eta oiturak aldatu diranean, egia esateko lebatza urte guztian dago, baiña ezin ukatu Maiatz onek bere esaldiari eutsi nai dautsaé nik.

Ainbat era dagoz lebatza edo legatza (bietara erabilten da bere deitura) atsegiñez jateko.

Baten "Jaizkibel" erara, bestean "Maritxu" edo "Martintxu" erara; "Koxkera" bestetan; "arrantzale" erara edo donostiar erara edo saltsan, saltsa merkean, saltsa berdean, saltsa dotorean, laban erreta, prixiduta, plantxa gaiñean erreta... Bakoitzak zela nai alaxe jan, eta beti be lebatza edo legatza ondo sarzen dan arraiña da.

Aukeratu daigun gaurkoz era bat. Geratu gaitezen itxas erri polit baten: Ondarroa'n, esate baterako.

Zer dauka Ondarroa'ko lebatzak ainbeste lagun erbestetik bertara beste barrik lebatz ori jatera Joateko?

Eskutukorik ezer ez. Begira, "Ondarroa'ko erara lebatza plantxan" zelan gertuten dan:

Lebatza 400 gramoko zatietan ebagi, biribillean, lebatza bera dan aiñako lodieran. Gatza emon eta txapa baten gaiñean erreten ipini. Kontuz, txapa ez daitela egon berogei. Bardintsu erreten joan bear da eta orretarako alderdiz aldatzen joan zati bakoitza, eta kutxara bategaz olio zati ori igortziten. Erdiko azurra aragitik (mamiñetik) azkatzen danean, atara, egiña dagolako.

Nun dauka, baiña, bere zeraren zera?

Ara: Sartain baten mantekilla zati bat eta olio ipini erdiz-erdi, zeetutako berakatz ugariagaz, eta urre kolorea artzen asten danean, limoi zumo txurrutada bat jaurti.

Lebatzari, apain atarateko, perexil orri zati batzuk ipini eta saltsa orregaz bustita jan.

Gerokoa.. gaiñekoa eta ondorengoa, zeuk ikusi.

LEIZA'KO OZPALAK

Oraingotan Leitza aldetik datorkidaz barriak. Barri onak esan bear, euskal kezka eta ardura erakusten datozalako.

Ez ete da gaur Leitza Nafarroako erririk euskaldunena edo ta bere batasunean euskaldunik geien daukana?

Alaz eta ezin ukatu an ere euskerarik eza, indar artzen asi danik, kezka sortzen. Ola, lantegi eta bizibide barrien pekatua da.

Beiñik bein, eskola mailletan dabiltzan 564 umetatik, ba dira 76 euskerarik ulertzen ez dabenak

Orrek lotuera bat erakusten dau. Erdaldunentzat euskera bide izan lei, baiña bai euskaldunentzat erdera bidea be. Kanean zortzitik bat euskera ez dakianak egotean, sarri beartuko dira ez dakienen erara jardutera. Eta oitutera.

Ortik gora, leizatarrak gaurko giroaren kontuan jausi dira. Len iru-lau gizataldeen jokera izango zana, gaur gizatalde bakar baten ez dau irauten.

Itxasertzeakoak itxas bizitzan oartuten dogu.

Lengo izen, deitura, oitura, erabilkera eta antzekoak tatarrez doaz galtokietara. Gure errietako garbitzailleen kamionak, etxeko ondakiñak artu, kotxean bertan estutu ta zakar sutokietara eroaten ditun lez, gure gauzak pikotara bialtzen guaz, aztuten eta erreten, gure bizitokietako izen, deitura, langaillu eta tresnak galtzen. Izenez eta izatez.

Orretara, toki askotan, gure semeak ez dabe jakingo eta artuko ez gure tresnen izenik ez eta euren ezaupiderik.

Origaitik Leiza'n etnologi leiaketa ipinten ausartu dira. Menditarrak diranez, lau gai zabal artu ditue. Lengo zarren bizitza eta biotza esango neuke nik, gaurkoentzat oraindik oroitza atsegin eta biozkor besterik ez ba dira be.

Orrela, Baserria-nekazaritza-artzainta eta mendia dira gai buruak.

Eta gai nausi orreitako bakoitzari, ariaren matasa billatu nai dautsela esango genduke.

Ala, baserria gaiak, bost atal edo zati daukaz: Baserritarra, bere erropa, otordu, oitura eta abar.

Baserri-etxea, bere sukalde, logela, ganbara, ukullu eta antzekoekaz, euren izenak agertuz.

Baserri-lanak gero. Lixiba, taloegite eta besteak gogoratuz, bai eta tresnen izenak

Baserriko egazti eta aziendak, izen, urte eta goraberak. Eta azkenez ortazko esaerak.

— Gai nausi bakoitzarentzat azterketa bardintsuak.

Ba dirudi gerorako "testamentu" ondo egin bat lagateko ardura dagoela.

Ortarako, erritarrak, bakarrik edo taldeka, bakoitzaren ezaupide eta jaube-

tasunak batu ondoren, ondasun orrean egokitze eta lerrokatzea zuzen eta probetxuzko izan dedin, leitzetarrak aolkari antzeko bat eroango dabe errira datorren Urrillean, ortan diarduenei argitasun eta zuzenbide batzuk emoteko, lanak tajuz eratuta lagateko

Ezpairik ez, orrela leitzearrak oraindak oraintsuko dan bizi-bide eta erri izatea barriztu al izango dabela, eta gerokoak erraz konturatu eta gogoratzeko eran laga.

Gertatu lei gaur ia "testamentu" antzera egiten dan euskal bizitzako bilduma au, gure ondorengoentzat altxor eta ondasun aberats lez geratzea.

Errialde askotan egin bear litzaketen lana, leizatarrak burutu daben au. Batez ere euren izate bereziak daukezan inguru, toki eta errialdetan.

17-VI-82

LEMONA'KO AITZAK

Ba dira gure azken gerrateko kontuak jakin edo gogoratu nai leukezanak. Ala eskatuten dauste batzuk.

Tarteka alegintzen naz, egunari dagokion zerbaite gogoratzen.

Bildur dautset egunei.

Ez lengoei, oraingoei baiño.

Egun egoki baterako lanen bat bialdu ta "galdu" egiten da erderazkoak toki asko bear daben egunerako gertatu ezker. Eguneko oroitzatik urrundu.

Alaz eta alegintzen naiz.

Gure gerrateko Maiatz onetan, azken aldian, Madrid'eko gobernuan lotsatu lez egin zan gu Jainkoaren graziagaz bakarrik lagata eukiteagaz, eta egazkin batzuk bialdu zitun Santander'era Kazakoak deitzen eutsenak ziran

Agirre gure lendakaria poztu zan, bidea traba barik egin eta ondo eldu ziralako. Aurrerantzean geiago bialduko zituelakoan. Etenbako eskaria zan egazkiñena. Orrela bere poza agertu eutsan Prieto'ri eta geiago bialtzeko eskatu. Il onen 22'ean zan ori

Baiña gure pozak Juzazorik ez. Barriro oartu gendun Agurre jauna min, atsekabe eta egoera larrian, egazkin eskale. Eta gero ta zirikatu eta ostopoz be-teago, inguruko gudalburuak egiten eutsezan satorkeriekaz.

Zornotza aldea galdu edo laga egin zan Maiatzaren amazpirako.

Estutzen gentozan. Gero ta larriago.

Askotan inguratuta, kopatuta geratzeko bildurrez.

Orrela, Amorebieta galduta eukiarren, Bernagoiti eta Euba eta atzeko mendiak gureak ziran oraindik.

Ogei ta iruan Mugarra artu eben eta Dima.

Orren ondorenez, laga bearreko beste lurralde zati bat geratzen zan, bertan artuta jaustea nai ez ba zan.

Arratia'n zeregin gitxi geratzen jakun. Durango aldean gitxiago. Baiña Lemona 'ko aitzak ba euken eta eukiko eben esan bearrik

Ogei ta zortzian asi ziran Lemona gaiñeko ekiñaldiak. Zeiñek esan toki ori, gure gudaren ibillera narraza ikusita askorentzat itxaropen aizeleku izango zala?

Baiña gerrateko aizeak odol atsa zabaltzen dabe.

Maiatz loretsu izanarren, polbora atsak pozoitu zitun gure mendirik berdeenak Eta eguneroko odol ixurtzez, lur asko gorrltu ta aizearen ikutuz nabartu.

Illaren ogei ta zortzian asi eta Bagilla'ren 5'raino, egunik ez zan galdu mendi onetan gudaketa gordin, sutsu eta ilkor barik.

Gaur artu, biar galdu; gaur eutsi, biar etenda laga... baiña gaztediak iñun indar eta odol alegiñik egin ba . dau, or geratzen dira Lemona'ko aitzak, ordukoen, gaurkoen eta gerokoen lekuko lez, euskaldunak Bilbo aurretik egindako alegiñen ziñaldari. Eta an, alde banatatik, anaiak be gertatu ziran, alkar ilten.

Nazionalak eurak autortu izan ,dabe, Lemona inguruan ibili zan bigarren Brigada eritxonak, iru egunetan 523 mutil galdu zitula.

Lemonaitz eukanak Galdakano begien aurrean artzen eban, arako bideak bere mende.

Bilbo gero ta urrerago geratzen zan arerioarentzat, eta beste era baten, gutarrentzat.

LEN ETA ORAIN

Orain larogetak urte, Bilbo'ko kalerik ezagunetako baten batzoki bat zabaltzeko amasei milla peseta bear ziran.

Ala diñoe orduko paperak.

1894 urtean, Uztail onen 15'ean ospatu zan Begoña'ko eleizan "Euzkeldun Batzokija"ren zabalduerako meza.

Sabin Maixua bizi zan lez, berak egindako esaeradun "Agur Miren Ama" abestu eban Ledesma musikolari ospatsuak meza orren barruan.

Igarten da euskal abertzaletasuna, lenengotan, Bilbo'n era batean edo bestean nortasuna euki edo ezagun ziranen artean asi zala.

Batzoki ori Korreo kaleko bigarren etxean zabaldu zan

Korreo, Bidebarrieta eta Plaza Barria izan ziran abertzaletasunaren txo-koen tokiak.

Ba dirudi lenengo Batzokiaren jaubetasuna, iru-lau dirudunen gain barik, erriaren alegiñean zabaltzea nai izan zala. Orrela bostna pesetako iru milla ta berreun zor-txartel (obligasiño) zabaldu ziran.

Foruen alde gerran ibilitako karlatarren gudaiburu (komandante) izaniko bat izan zan lenengo ikurriña eskegi ebana: Ziriako Iturri

Ezin giñei esan orduko gizon asko erregezale izan ez ziranik. Itsu izatea litzake.

Zarrak esanda dakit don Karlos Ondarroa'ra etorri zan baten, Goiko kaleko bigarren etxeko atadiari lotuta laga ebala berak ekarri eban zaldia. Eta orduko andra mardulak, gure adiñeko ondarrutar askoren amumak izan ziranak, erregearen zaldi berberari musuka ekiten eutsela, a gizonekin Udaletxean batzarraren batuta egoan artean.

Beraz agirian dago gure erri askotako biotzak eta geiago be errege izan nai ebanak beragaz eukazala.

Ezin ukatu karlatarren artean gogorren eta leialtsuen jokaturakoak, erregetza baten maitasun gaiñetik, Euskalerriaren izate, nortasun, bereiztasun eta zelestasun indarrez Jokatu ebenik. Bear ba da erregetza aretan jokabide orretarako indar eta laguntza eta aukera ikusita.

Politika gauzetan sasoiari sasoi oitura ta pentsabideak indarra ba dauke be, gizarartean, lagunartean billatzen da sarri une bakoitzeko jokabidearen errazoi eta oiñarria. Batez be len, gaurko erabide eta kagarbiderik ez egoan denpo-retan.

Bilbo'ko batzoki orrek ez eban luzaro iraun. Amalau illabete igaro baiñio len sarratu eben.

Gizonaren eta errien eskubideak, beti lez, paperetan ugari, baiña kristautasunaren aginduetatik kristonak emotea bakarrik oiturazko.

Jakin bear da karlistak euki zituen foruen aldezko ekitada guztietan be, zabalune pixkat artzen asten ziraneko, zigorrez ixilduak izaten zirala

Amazortzi urte lenago, il onetan bertan, posporo kajetan "Irurak bat"en ikurra irarri eta zabaltzen asi orduko, Canovas del Castillo'k danak batzeko agindu eban. Eta ez eguan orduan Naparroako errialdea tartean sartu zan aitzakirik. Eta orduan giroko (modako) ziran aizegarriak (abanikoak) be "Euskalerria" izena eroaten ebelako, batu egin zituen, aize kaltegarririk zabaldu ez egien.

Beraz gure zarrak be, era batera edo bestera deitu, euki zituen gorriak ikus-teko txandak.

I7-VII-82

LENDAKARI ETA GUDALBURU

Beragaz Ibili giñanok ez dogu sekula aztuko Agirre lendakaria.

Zuzen ibiliko zan edo oker, itsu ibiliko zan edo lauso, baiña igarri barik beragaz bat egiten genduzan, berari jarraitu geuntsan eta beragan sinistuten jarraituten dogu.

Zintzoa zan. EUNETIK eun zintzotasunean.

Orretarako berezitasuna eukan, doaia, birtutea.

1937 urtean, gerrateko aldi onetan txarto ginduzan.

Martiaren azkena izan zan guretzat, gudan egonarren, denporaldi bateko bake-aldi edo geldi egotearen azkena.

Durango'ko lerkariak otsa atara eben, an eta gure lurralde guztian.

Oraindik gudaritzarako sartu barik egozan mutil taldiei deiak asi ziran. Ala I.937, 1929 eta 1930 legorreko "kintoei", edo 1936, 1928 eta 1929 itxasokoei. Apirila asi orduko orrentzako deia. Geroago bese urtetakoei.

Ez ori bakarrik. Oraindik zeregin edo arduraen bateri lotu barik egozan gizonzkoentzako be deia egin zan.

Onela esaten eban Guda-Zaingo'ko aginduak: "Gauza izan eta orainaldian eginkizun onurakorrak egiten ez dutela bizi diran gizonzko guziei dijoakie agindu au."

Eta estutasunean be, ittotasunean be, azkatasuna, libertadea ezagutzen zan gizonari, bakoitzak nai eban edo ta gogoko eban tokian izenak emoteko; sartuta

egozan edo atsegiña jakoen langille-bazkun (sindikato), Jaurlaritzako zaingo edo ta bakoitzaren Udalean.

Erria aldeztutea premiñazko zan. Eta ortarako zan deia.

Onela guda-lanak, bai mendietan eta bai lantegietan betien bete ipini ziran, egunaren ordurik galdu barik.

Gauza askoren akatsa gendun. Premiñazko jakuzan gai eta indar barriak gure lurraldetik kanpora geratzen ziran. Origaitik emen gauzak estutu bear.

Gogoan daukat elektra indarraz be txarto ibili giñala. Eta egunez lan egin bear gendunok, etxe barruetan genduzan idazkaritza eta beste lantokiak aldatu bear izan genduzela leio ingurutara.

Goizeko zortziretatik gabeko zortziretara elektra indarra erabiltea galera zan. Guda Jantegietarako bear zan, aukeran gendun guztia.

Apirilla aurrera eta gure gudaroztea (ejerzitoa) alkartu bearra igarri zan. Alderdi politikoak euren taldeak euren mende zaindu nai zituen. Baiña gure egoerak alkartu eta buru nausi baten premiña eskatzen eban. Ala apirillaren 26'eko aginduz, Euzkadiko gudarozte bakarra sortu zan.

Eta 1937'ko maiatzaren 5'an Agirre'tar Joseba Andoni izentatu zan Euzkadi'ko gudaroztien Buruzagi goren.

Orrela lendakaritzagaz batera, Agirre'ren eskuetan geratzen zan Euzkadi guztiko gudarien zuzendaritza be.

Egun onetan egin zan gudarozteen (batalloien) kontuan, 68 zenbatu ziran oiñezkoen artean, eta "morteroak" irrintzi eta koltzatuak (blindatuak). Orrez gaiñera iru artilleriko eta zortzi pikotxlarienak.

Orain eta geroago be euki zitun izendatze orrek militarren aldetik eta errepublikako agintaritzaren aldetik milla eztenkada. Baiña gure mutillak, danok, bestien gaiñetik bere zuzendaritza ikusten gendun atsegiñen, zintzoena ikusten gendulako.

LENDAKARIARI ZORIONAK

Egunkarietan irakurri dot: gaur lendakariaren eguna.

Politikoa izan ba nitz aurrez idatzita eukiko neban nire Agendan orrelako eguna.

Kontxo! Merezi ete dau lendakariak zorionak emotea?

Gure erritarrak esango leuke: Katua ta txakurra lez ei zabiltze, ta zorionak emoteko gertu?

Ai ene! Zenbat andre ta gizon ibiltzen dira ortik beti muturka, auzoak be lotsatuta lagateko eran, eta ez al dabe umerik ekarten?

Eta gure alteko eztabaidak, etxeko eztabaidatxoak gorabera, ez al da giza legea, familiko legea, alkarri, zu zurean eta ni neurean esanarren, zintzotasunezko eskua luzatu edo ta besarkatzea?

Azpikeria? Pelotillea? Zegaitik?

Gaiñera nik ez dakit zegaitik, baiña lendakariagaz euki dodazan iru lau kartetan, nik zaindu nai dodan bizkaieraz idatzi eta berak be baketu naiko Jeurken bizkaieraz erantzun izan dausta.

Eta kezkatuta, arduratuta, gure izatean eta ekinetan, bizkaitarrak euneko berrogei ba gareala ezagutu eta amore emoten. Eta besteiei gure kexak jakin eraziko dautsezala agintzen.

Ez gara sekula iñoren aurka jardun, gure gureak diran gurari eta eskubide batzuen begirapen eske baiño.

Nok ez dau ainbeste egiten? Zegaitik, ori dala ta, aldebanatu?

Ez dot sekula lendakariari eskua emoteko aukerarik euki. Bein... izan be ni lapikotxiki naz-eta, esan nik, okerrik pentsatu barik bete betean esan nik Ajuria Eneako kanpoko ormetako burdiñak lodiak zirala, eta ango "soriano"ren batek berebiziko gatza cukala euskeraz jarduteko... ta txarto artu eusten.

Mundu alu ta txiki au!

Eta nik, neuk be esateko eskubidea zaindu nai dodalako, irunsi cgin neban besteak nitzaz artu eben iritzia.

Ai gu baiño ozpindu eta garraztuagorik ez ba lebil ingurutan, eta sarritan errazoi txarrez! Euskal pagorik zarrenctatik ataratako azidu azetikoz dabilzanak be ba dira, nai ta gero lepoan jo, irribarre labanez agertu ta... segi aurrerar

Dana dala, lendakariak, guk ezagutu dogun Euzkadi'ko irugarren lendakariak, merezi dau zorionak emotea. Zor dautsagu. *Zor*, bai, besarkada zabal eta anaikor bat emotea.

Besteak, garrazkeriak ukabil txikietan lagata.

Naiz ta burdin atesare edo errejadu ren gaiñetik bialdu bear.

Ai ez balego iñorentzat burdiñazko atc sarerik, ez ba lego etxe nai bakar-tadeko kartzelarik!

Ai ez ba lego gizonak txikituten gaituen burdin aterik!

Euskaldunon oitura da zorionak bein- beingorako ez emotea. Zorionak urte askotan, esaten dakigu.

Onezkero gureak ez dira luzeak izango, ez dira ugariak izango, baiña or geldi bedi borondatea.

Gizonak bere borondatea agertzen dabenean, ez al dau bere leialtasunik agertu eta eskintzen?

5-VI-82

LENGOAK GOGORATZEN

TXIRRITA zana, euskal egoerako kronikak bertsoan egiten egoki eta abilla zan.

Foru-sale amorratu zala, edozein gertaera gogoratu eta bertsoarako gai lez artzen eban.

Egun-oneri buruz ba daukaz bereak:

*Milla zortzireun irurogeita
zortzigarrego urtean,
Urriko illak ogei ta zortzi
zuen egun batean,
garai onetan gure Fueruak
sartu zituzten lurpian,
errespetua guardatu zuten
amona zegoen artian.*

Danok dakigu bigarren karlistada deitzen dan gerra, 1872-1876 bitartean egin zala. Eta 1876 urtean, Lege-Araudi edo Konstituziño barria egin zala, barriri ala artu eban alfonsotarren erregetzari indarra emon eta sendotzeko asmotan.

Gertaera orreri be egin.eutsan bere kronika.

Urte oneitan ekaitz gaizto bat sartu zala "Kantabriyako partian" diño berak. Kantabriya deitura sarri erabilten dau, eta ba dirudi Euskalerruari antxinako ezaupide baten izenez gogoratzearren egiten dabela

Oraingo ekaitza, soldadutzara joan bearra zan, au da kintak, ordurarte euskaldunak beste erara egiten ebena.

Eta kintak ipini ta Kuba'ra joan bearra etorri zan lez, "Txirrita" k ondorene-
tatik jokatzan daki, legearen aur-kako azpi-lana berotu eta errukiz bete nairik.

*"Kintak jarrita ondoreñian
beste ogei bat urtian
zenbait amaren seme onradu
Kuban sartu zan lurpian,
guraso askok negar egin du
ura saltu zan artian,
geyenak lutuz jantzi giñaden
Kantabriyako partian "*

Urte oneik urte garratzak izan ziran emen bertako jaubetasunari eta beriako
agintaritzeari eutsi nairik jator ebiltzanentzat.

Ego aldetik etorran lege bakoitza, ostikada zan emengo oitura eta jatorriz-
ko "usarixuentzat".

Alperrik emen entzungor egin eta betekaitz biurtu. Nai ta ez sortzen zan
nastea, berez agertzen zan eztabaida; orrek konpondu bearra ekarten eban eta
azken baten makurtu bearra.

1876 urtean, Bizkai'ko istorian be ortazko gertaera baien oroitza jatorra ba
dago, urte aretan, atzoko egunez, (Urrilla'ren 28'an) Bizkaiko Aldundia (Dipu-
tasiñoia) batzarrean batuta egoala, korrexidoreak aldun nausitzat autu eta izen-
datuta eukan Antonio Aranda agertu zan bere zeregiñagaz jaubetzeko asmotan.

Batzartuak gogoratu eutsen oiturazko zala, zeregin eia ardura ori artu bear
ebanak, aurrez foruak zin (juramentu) egitea.

Aranda ori ukatu egin zan ortara, esanez, berak-emengo oituren gaiñetik
governuko agindu berezia eukala-ta.

Ori entzun eta batzarkide guztiak batzarretik aldendu egin ziran.

Ikusten danez armadun gerra amaitu zan, baiña jokabidetan eutsi.

LIBURUAK

Iragarri dabe aurtengo be liburu eta diskoen azoka Durango'n.

Itxura danez igazko antzera, biak batera.

Zabaldua zan banandu egingo zirala aurten. Liburuena domusanturuetan egingo zala, len egiten zan lez eta diskoena Abenduan.

Baiña emen be ujoldeak atzeratu ete dabe lanen gertaera? Edo ta illa bete barru azoka bi egitea toki baterako saltsa eta perexil geiegi?

Liburu bat argitaratzeak poza emon bear leuke. Baiña ametsezko poza baiño, egin bearraren amaierako atsegiña ziurrago dala esango neuke.

Idazle lez diñot, gaur euskal liburu bat atarateko, euskerazko liburu bat argitaratzeko, idazleak alegin asko egin bear izaten doguzala. Milla eratakoak. Lenengoa, jakiña, liburuia idazten. Gero, gertuten. Gero, apaingarririk sartuko ba da, borondate oneko marrazkilari lagunei mesedea eskatu eta eragiten. Ondoren argitaldaria zuritzen. Eta probak aztertzen eta, oraindik be, liburuia itxura baten saldu a] izateko era edo egoki letorken salneurria lortuten. Orretarako be atreak jo bear.

Gaur edozeiñek daukaguz milla peseta ordu ta erdiko ostikoketa joko bat ikusteko. Edo geiago, bazkari bat egiteko. Edo ta jaien baten dantza antzera salto ta brinko ibilteko. Eta ez gara origaitik garraztuten, ez asarretzen.

Milla peseta eskatu egizuz, atsegin izan da be, denporaldi bateko lagun izan eta gero zuretzat gorde zeinken liburu bategaitik, eta lapurtzat begiratzen ez ba zaitue, pozik. Askok, erosi barik lagako dabena, ziur.

Alaz eta be amets eta gogoz, sail onetan-sartuta bizi gareanok, lanean jarraitu bear.

Egoten dira atsegin aldi batzuk. Niri dagokidanez, orain lau urte Etxeita izeneko saria irabazi eta gero argitaratu zan "Laiñoak Mundaka'n" agortu egin da. Ontaz argitaraldari batek naigabez iñostan oraintsu: Agortu -amaitu- danean asi dira eskola batzuk ikasliei liburu ori erosteko eskatzen, eta Eusko Jaurlaritza berberak, "Helduen alfabetatzerako programazioa" bigarren liburuan, gomendatzen ditun zortzi bizkaierazko liburuen artean, sartzen dau bera. Beti berandu, iñoan berak. Ura joan eta gero presa.

Dana dala liburuak agortzen joatea ona da, ordez beste batzuei eskua luzatzeko.

Txarrago da aurten Bizkaia'n ujoldetan gertatu dana. Euskal ikastola bazuetarako Deustu'n gordeta egozan millaka liburu urak artzea. Milloiak kalteetan. Bardin gertatu da, gure neurrian, igaz argitaratutako "Gure inguruak" nire liburuagaz Gernika'ko irarkolan.

Orain, urteari berea emotearren, barri bat agertu bear ko da Durangorako. Ujoldetako kalteak ain gordin eurengan ezagutu dituen Gaubeka anaiak, illak daroetz makiñak garbitu eta lanera erakarten.

Nire "Makillen egunak", gure gerrateko nire ikuspegi eta oroitzak, gertuta dauke eta il onetan agertuko da, beste ostoporik ezik.

Lanean jarraitu bearko dogu.

5-XI-83

LINO AKESOLO AITA

Aita Akesolo il da.

Maisu aundi zala, bai "servus servorum" be, esango neuke nik. Iñoren morroi euskal arloan.

Beretzak ekiana, eta asko be asko ekian, iñori erakusteko gertu.

Euskal liburutegietako sagutxua zala esaten dakie. Etxe askotako liburutegi zarrak ezagutzen zitun. Gogoz eta borondatez joaten zan danetara zer billatu ta aurkituko egarri.

Ibiltari, baiña beti libururen bat eskuetan ebala. Ez eutsan autobusean albo-koari berba asko egingo. Sartu orduko liburua zabaldu ta ekin irakurteari edo bere gogarteren bateri.

Kritikalari zorrotza. Bere buruari asko eskatzen eutsalako, beragaz gogorra zalako, ezin iruntsi, besteak be, naiz ta fraile edo jakintsu kapapean ezagutu ta bizi, gairik txikienak be arintasun eta "jo ta pasa" lez artu ta zabaltzen ikustetik.

Asko idatzi ta asko argitaratu dauan gizona. Askotan izenik be jarri barik. Berea idaztea zan; idaztiak berak erakutsiko eban norena zan.

Itzultzaille arteza. Zeatza. Berak ez eban idazle jauberik beratu eta galduko. Olerkiak euskeratu eta itzultzen, neurri eta asmamen eta gogaiei eutsi eta neurria zaintzen, berebizikoa benetan.

Ezin esan euskal arlorik dagoenik berak ikutu bakorik. Eleizetan entzutzen doguzan irakurgairik geienetan, Lino'ren urratsa igarten da. Egunkari, aldizkari eta antzerako irakurgaietan, eleiz girokoak izan edo izkuntzalari soil, Lino'ren irizpide eta jakintzaren aztarnak gitxien uste diranetan agertzen dira.

"Axmutil", "Amuxalde", "Andoni Zubero", "Basabil", "Berriketalar", "Nor ta ni", "Oba", "Goierrialde", "Ugariosko txoria" eta antzerakoren baten lana irakurri, atsegin jausi eta zeinena dan itanduten ez alperrik ibili. Lino'rena dala atzamarra jokatu bildur barik.

Besteak beste, 31 aldizkarietan agertzen dira bere lanak.

Bere lan astun bat, urteetako lana, eroapenez, aleginez eta zintzotasunez egiña "Diccionario Retana de Autoridades del Euskera" deiturakoa da. Asitako batzuk ez eben amaitzeko adorerik edo ta aukerarik euki.

Bitartekoak eskutuko. Baiña edozeinek bertan bera etsi eta itxiteko lana, bere ekinagatik amaitu zala esan bear. Eta bitartean euki zitun oztopo, urritasun, naigabe, buruauste eta abar, zer esanik ez, bere barruan gordeta. Eta azken zatiak argitaratu al izateko egindako lanak be nunbaiten galduarren, aurrera berak, argitalpena burututa eta kaleratuta ikusi arte. Onetan Kultur sailleko arduradunen batek zerbait esango leuke.

Aita Lino il da. Lanean il da. Azkenerarte euskerari eusten, batez be erri euskera jatorrari. Ain zuzen Euskerazaintza'ko buru zanez, bertarako bere sarrrerako itzaldia datorren illean egitea aginduta eukala.

Adin onera elduta joan jaku, baiña egunaren ordurik galdu barik euskera-
ren mesedean.

15-IX-91

LOIOLA ETA JABIER

Aita bat lez dator gure Aita Santua.

Loiola fededun euskaldunen otoi leku izango da asteko larunbatean, zapa-
tuan. Bardin Jabier.

Otoia eskaria da, erregua, arrena.

Loiola gogarte (meditasio) eskola izan da oraiñarte.

Eta euskaldunok ba dogu zer eskatu eta zer agertu. Otoi ixilla egiñarren, aita batek igarteko eran. Aita semeen artean, ixil eta betozkoz egonarren, ez da gaitz izaten barruko egoeraren giroa igartea.

Penitentzi giroa sartu dautse Loiola'ko alkartzeari. Gizaldien gizaldietako alkartzeari.

Egun sentia baiño len urten beariko da errietatik, bitarte andirik ia ez dagon Euzkadi txiki onetako errietatik, eguna argituagaz batera familiko eukaristian batzeko.

Gabaren bakea eten, egunaren itxaropen arnastuteko.

Gure Loiola'ko giroa, Salaberria'ren San Inñazioren lauki edo kuadroan ikusten dot.

Izarraitz'eko aitzen azpian, buruaustez beteriko izaki baten irudian; barruko pentsabidearen indarra erakusten, nortasun berezi eta berezko baten egoeran, garean lez, buru-soil, gure izate eta duintasuna gure aal apalean dagola adierazten.

Ziur nago gure fedeko Aitak gure egoeraren barri ondo jakingo dabela.

Gizaldi luzetan euki izan doguz euskaldunok gure Eleiza berberagazko premiñak.

Gogoratu Adriano Aita Santua. Gasteiz'en egoan Aita Santu lez aukeratu ebenean. Iñok baiño obeto ekian euskaldunen elizarenganako maitasuna. Eta maitasun ori zuzendu eta gartuteko gure erakunde berezia bear gendula-ta, gure nortasuna ezagutzeko premiña.

Gizaldiak joan ziran Gasteiz'ko ordezkari-tza ezagutu orduko. Eta ez premiñarik ikusten ez zalako. Gaur be gure eskari asko aidean dabiltz.

Baiña euskaldunok... buruauste barik indarra eroaten gendun Erroma'ra.

Piissima vasconum gens giñala esan izan dauskue sarri. Ia titulotzat artze-ko esan. Orretarako, mundu zear ibilteko gure borondate eta gogoia eskeiñi bakarrik barik, oparo emon izan gendun. Gaitz billatuko da fedearen zabalkunde-ko lurraldeetan euskaldunak ibili ez diran lurrik. Eta ez uribarri eta koloniak sortzen erregeen andikeri eta ederkaturan, zuzentza eta gogai barrien itxaropen eta argia eroaten baiño, gizon arteko anaitasun eta jokabidean mundu barri eta argi baten garretan baiño.

Or dagoz martiri il ziran gure odolekuak. Or barri onaren autorle eta erakusleak. Santu izena eroatea da gitxiena. Santu izatea da gorena.

Erriak ba daki euren eskintzen barri. Ez bakarrik gureak. Eurak ibili ziran errialdeak be ba dakie euskaldunen izatea ezagutzen.

Loiola bera ez al da Eleizak, aintzarik geienez goratu izan daberen toki berezi? Eta oraingo etorrera ez al dator ezaupide ori egiaztatzen?

Besterik ezean euskaldunok ba dogu larunbatez gure nortasunaren ezaupide bat. Ez Loiola'n bakarrik. Loiola eta Jabier'en Euskalerrria eta Eleiza batuko dira, erregu eta eskarietan, eskintza eta maitasunetan eta askok egingo dabe euskaldun batasun baten otoi ixil eta gartsua. Odolak daroana fedea ezagutu eta berotu bear dabelako.

LORE JOKUAK

Lengo gizaldian asi ziran gure errialdean, euskeraren aintza eta goratasuneko jaiak.

Batzutan euskal jaiak, euskal egunak, deitzen eutsen. Bestetan euskal jokuak, lore jokuak.

Geien bat literatur maillako jokuak izaten ziran. Ez beti.

"Euskalerrria" aldizkarian 1883 urtean Markiña'n egin ziran jaietaz berba egiten dabenean, Markina'n emondako sariak irakurten dira. Eta an, dirutan ezik, bestelako sari ederrak be emon ziran. Oraingoa da geien bat diru eskintza. Len dirua, ta beste eskintzak geiago.

Markiña bertan, olerkirik onenentzako makilla bat eskiñi zan. Makillak beti erakutsi izan dau gure artean nausitasun, nortasun eta aginpidea...! Eta urez beteta pedarra buruan erabilten jatorren agertzen zan ibiltariari, kobrezko gal-dara bat. Eta irurogei urtetatik gorako aurrekularirik onenari, biai bat. Eta Markiña aldean umien irakaskintzan geien arduratu zan maixuarentzat, zidarezko luma bat.

Jakiña, jaien gai eta buru euskera eta euskal izatea goratzea izaten zan. Origaitik nausitasuneko makilla, urrezko larrosa eta abar emon ziran.

Markiñarrak buru argiak dira eta gogoratu bear leukie 1983 urtean eun urte izango dirala Markina'n orrelako euskal jai ospatsuak egin zirala. Eun urteren ospakizunak gazteentzat be bizigarri dira, Ala Oiz, Igotz, Kalamu eta Akarregi mendi artetako laiñoak ez al dira oraindik argitu?

Markiña gizon andien sor lekua da. Eta euskal ekintzena. Origaitik, bertako liburuen artean, esandako jai orrei buruz orduko euskal jokabide guztien buru eta akulari zan Juan Eustakio Delmas'ek egindako liburutxo bat be gordeten da. "Fiestas Euskaras de Marquina" izenez argitaratu zanar

Onelako euskal jaiak eratu, lagundu, aupatu eta zabaltzen, biotz andi eta euskal maitale sutsu bat ezagutu zan lengo gizaldian: Anton Thompson d'Abbadie. Zuberotarra aita eta irlandarra ama. Bidasoa'ren beste aldera joatean, Endaia eta Urruña artean begi aurrean eukiten dogu Abbadietarren arrizko gaztelu ederra.

Abbadie'rentzat euskerak ez eukan mugarik. Bere laguntzaz euskal jai eder-rrak egin ziran Ipar eta Ego aldean. Urruña, Sara eta Maule'n, an; Bera eta Elizondo'n, Naparroa'n; Markiña eta Durango'n Bizkaia'n; Aramaio'n Araba'n. Eta Donosti, Oiartzun, Irun eta abarretan Gipuzkoa'n.

Makilla, ontzako urrea eta abar adoregarri.

Euskal jai edo lore jokoen giro oneik euskal olerkari (poeta) ugariak sortu zituen. Arrese Beitia, Otaegi eta abar gogoratu.

Origaitik, egunotan Ondarroa'tik . Lore Jokoen deia zabaldu danean, lengo oituren jakin-miña be sortu da.

Ba dira amazortzi urte azkenengoz Txomin Agirre-ren jaiotzako eun urtegarrena ospatuteko egin zirala erri onetan.

Orduko giroa, euskera kontuan, ostoporik geien ipinteko giroa zala kontuan eukita be, aurrera atara ziran jai egunak, nai ta garrazkeri batzuk irunsi bear.

Orain, emendik. udazkenera, ixilleko lana egin bearko da, gero "Kresala"ko Tramana eta Brix lex, euskeraren bizitasun eta berdetasun eta edertasuna gora-goraka saltzen agertu eta erabilteko.

Dana bearko da.

I9·V-82

LOTUERA ITZALAK

Auteskundeak, eleziñoiak, gure gizaldiaren asieran, ezaugarri berezi bat eukiten eben Euskalerrian. Ezaugarria baiño, lotuera esatea egokiago litzake.

Sinistea eta kasu onetan katolikotasuna; eskumatarkeria eta antzinzaletasuna edo tradisiñoa.

Iru elburu onein itzalak bildurra sartzen eutsen emengo gurasoei. Eta itzal eta ardura orreitan emoten zituen euren eritziak. nai eta askotan dirua aurrez artuta be emon.

— Esan lei botoak emoteko baiño ez emoteko gertuago egoten zala erria, baiña azken baten jauntxoei menpetasunak bultzatuten ebala orretara.

Erriz-erri ibili eta danetan billatzen dogu jokaera bardintsua. Bizkaia'n lez Gipuzkoa'n.

—Aukeratu erri bat. Niretzat auzokoena, oraingotan: Mutriku.

1900 urtean asi eta 1918 urte bi tartean, Mutriku'k. batez beste. 860 boto eukiten zitun.

1901'n, 835; 1918, 862. Eta orre laxe bitarteko urtetan.

Gizaldiaren lenengo urtean asi eta 1918 arte egin ziran aldun edo diputadutzako auteskundetan, Joakin Arteaga, Santillana'ko markesa, Infantado'ko dukea zanari emoten eutsan Mutriku'k bere botoa.

Ez dogu esango erria bete-betean bere alde egoten zanik. Egia da askok ez ebela botorik emoten, baiña emoten eben geienak bere alde.

Urte orreitan, gizaldi onen asierako amazortzi lenengo urtetan Mutriku, au-

teskundetarako, Zumaia'ko distrituan sartzen zan. Eta distritu au erri oneik osotuten eben: Aduna, Aizarnazabal, Astigarraga Aia, Zestua, Deba, Getaria, Ernani, Mutriku, Orio, Urnieta, Usurbil, Zarautz eta Zumaia'k.

Auteskundetan, 1903 urtean egon zan burruka berezi bat. Urte aretan. Arteaga'ren aurka, Guillermo Brunet. agertu zan. Gipuzkoa'n egintzaille eta eragintzaille andi izan zan Brunet. Lantegi batzuk, Victoria Eugenia teatroa, Hotel Maria Cristina eta abar bere indarrez egiñak izan ziran.

Baiña Brunet'ek ez eukan katoliku deiturarik.

Orduko gertaera bat gogoratu. Abadeak asko jokutzen eben auteskundetan. Eta orrelako batek bere adiskide bateri deitu eta esan ei eutsan:

– Patxi, zeineri emongo dautsazu botoa?

– Nik Brunet'eri.

– Areri? Zelan edo zegaitik?

– Nire ugazabaren laguna dalako.

– Baiña ez dakizu Brunet'eri botoa emoten dautsana inpernura doala bizi-bizi?

– Ez niri ezer esan. Nire ugazaba konponduko da beragaz.

Ala ta guzti, abadeak eurenakin urten eben. Mutriku'n Arteaga'k 443 boto euki zitun eta Brunet'ek 258.

Orrela, barru-barruraino sartuta egoan jauntxoan itzala igarri izan zan gizaldi orretako lenengo amazortzi urtetan. Amazortzi urte luzetan Arteaga'k bere eskuetan euki eban Zumai errialdean sartzen ziran errietako ordezkariak. Eta gero be, alegiñak egiten asiarren, gizonen gogai eta ideetan baiño geiago makurtzen ezagutu genduzan gure asabak euren etxe, lantegi edo lurraldeetako jaube ziranen mesedean.

8-X-82

"LURGORRI"

Abertzaleen artean, gure gizaldiaren bigarren amarrekoan, "Imanol" bat ba zan izparkarien artean ezaguna.

Gerrako albisteak egiten, Bilbo lako "probintzietako" uriburu baten idatziazarren, bere kronikak, bere europar gudako barriak, nortasun andia euken. Gerrakoak "Gudalgai" deitureagaz izenpetzen zitun.

Gero...

Oi gero!

Nik udaldiak igaroten Ondarroa'n ezatugu nebanean, ain zuzen orduan batzokia egoan etxe barru berbertan, ez ebillan lengo bidetik. Ikurriñaren zuri, gorri ta orlegiaren dizdirak ez zitun begiko.

Eta azkenetan Franco'ren bialdu izan zan, bere adiskide, bere gorale ta bere izparkari.

Naparra zan. Etxalar'en jaioa. Manuel Aznar Zubigaray.

Azken denporetan beste itzen batzuk erabilten zitun. Ez eban gogoratu :nai len ospea emon eutsen izenik.

Bilbo'n, 1917 urtean asita, illeroko eder bat agertzen asi zan: "Hermes".

Bere erako illerokuetan ontxuena.

Jesus Sarria, abertzale jatorra, gero zoritxarrak jota il zana, eukan zuzendaritzat.

Pentsamentu eta jokabidez zabal eta argi, jakintsu eta orokor zan aldizkari ori. Asko ez, baiña euskerari be lagaten eutsan bere tartetxoa. Aizkibel dar Bingen'enlanekin.

Aldizkari orretan, gerrateko iru epitafio deituraz, gertakizun jakingarri lez, "Imanol"ek egindako lan bat agertzen da.

Irutik. bat aukeratuko dogu.

Jean Josephe pelotariaren gertaera da.

"Dongaitz"ek baiño obeto jokatzen eban eta ia Kanbo'ko Permin'ek beste.

Biak baiño dotoreago zan. Erreboteko jokoan agertzen zanean, neskarik ederrenak joaten ziran bera ikustera. Bein Ingalaterra'ko Errege zan Vii garren Edorta'ren aurrean, Dongaitz'ek irabazi egin eutsan jokoa. Jean Josephe'k iges egin eta urte bitan ez zan agertu errira. Gero Dongaitz zemaitu eban. Eta errege berberaren aurrean irabazi egin eutsan. Sara'ko pelota tokian sekula ez lako jaia egin zan.

Baiña Jean gerrara joan zan. Erritik urteeran Dongaitz'ek esaten eutsan: Bizirik ba zatoz, barrero irabaziko dautsut. Josepe'k barre egin eta erantzun eutsan: Ikusiko dogu.

Egun baten, gudaketa baten ondoren, osagilleagana joan zan. Lau lerkari edo balak urratuta eukan eskua. Osaketa egitean, Sara'ko irabazleak osagilleari:

- Gerra ondoren jokatu al izango dot pelotan?
- Ez dot uste.
- Bein ba da be ez, Dongaitz'eri irabazi al izateko?
- Bein be ez.
- Ortan, zetarako balio dot, zetarako eskua osatu?

"Oraindik gudaketa gordiñean ebilltzan bere lagunak. Jean'ek eskua bendaz beteta urten eban. Granada batzuk artu, parapetotik eurekaz urten, eta eu-

rak indartsu jaurtiten asi zan. Andik laster, tiro batek, bularra eta burua zatitu eutsazan".

1937. abenduak 16.

Derio'ko iltegian, orma baten aurrean, Jose Mari Azkarraga, tiroz ilteko.

1931'n asi zan idazten. Geienetan "Lurgorri" deitureagaz.

Lenago be iñoiz esan izan dot oso-osoko mutilla. Santu bat. Ez eukan beste amesik idaztea baiño. Gerran agindu eutsena: komisario. Baiña tarterik ezin artuta egoten zan idaztera etorteko. Bere ames bakarra: idaztea, "Gudari"n, edo beste edonun.

Sarri esaten ekian: idatzi, zer egin neike nik?

"Imanol"en pelotaria gogoratu dot "Dongaitz'eri ez irabaztekotan zetarako naz ni?"

"Lurgorri" bakez, irribarrez eta eroapenez joan ei zan eriotzara.

Eta nik pentsatu be bai, pelotariaren antzera, barriro be arek esango ebala: Ez idaztekotan zetarako bizi?

Bere illobian, zerbait ipintekotan, esaera ori zuzen eta jator eikeon.

8-I-81

MADALENATIK SANTIAGORA

Esaeren bidetan ibili lei.

Gure erriak egutegiaren bidea, sasoiaren sasoiako agergarriak beteta dauke.

Erromeri egunak dira, batez be egun izentaduak. Eta eguna eta aldia, sasoi eta giroa, ortuariak eta eguraldia, lekuan lekuko lez, alkatuten dira.

Madalenak bere lagunarte ugaria dauke edo euki leikie Euskalerrian. Bearba da gure errialdeko bakartadeak irudimenean eta soiñean biztuten ditun irudi eta griñaen ondoren lez. Edo ta askotan egin dauskuezan agerpen eta erakutsi dauskuezan gizabideak, gure kideko lez artu eragitera beartuten dabelako

Madalen eguna, gaztaiñagaz lotzen daben esaera batzuk ezagutzen dodaz.

Madalena bero, gaztaña seguro, esaten dakie Arruazu'n.

Azpiroz eta Aldaz'en beste antzeko au: Madalen astea bero? gaztaña gero.

Madalen bero, gaztañen aro Leitza aldean.

Arano aldean barriz: Madalen aste, ezpara aste. Gogoratu ezpara berba ez ordezt erabilten dala.

Beste batzutan au esaten da: Madalenez eguraldi ederra ba da, sardaitara joaten dira nekazariak.

Kontuan euki ori be gaztañagaz lotuta dagola, sardaia gaztañak erasteko makilla edo aga luzea izaten dalako.

Ba dago intxaurragaz Jotzen da ben esaera be: Madalenak mantalari, intxaurrak ugari.

Eta ikoagaz alkartzen dabena be ezagutzen dot: Madalen egunean eguraldi ona danean, iko asko ikondoetan.

Kantu bat bakarra agertzen da Madalena'ren neska kidetasunez sortua. Irri kanta da, ziri kanta. Eta neska gazteei barik, neskarrei egiña.

Baztan'en batua da.

Bere bigarren bertso aldian au diño:

"Neskazarrak eztiote Madaleniari Madaleniari beiñolako begi onik aspaldi luzez, ai, erakutsi. Zegaitik sapuztu diran Madalenakin iñok eztaki. Neskazarren batek salatu ezik noiz sapuztu diran iñok eztaki".

Santiago barriz, bidekaz alkartuten dabe. Zeatzago, bide konpontzailliekaz. Eta esaerak diño: "Bide konpontzaillierik oberena, Santiago".

Parkatu dagiztela "kamiñeruak" eta ez daiztela artu zirikadatzat baiña ez diño ain zuzen be gizonen lanez bideak konpontzen dirala esan naiez, eguraldirik onena garai onetan egoten dalako baiño.

Santixa (Santiago) gizonak baiño andrak ordixa (ordiago) esaten dabe On

Garai, Oiz azpiko erri atsegiñean, bertako eskutuko esaeretan ez dabe ain santu-santu ikusten apostolu ibiltari ori. Bere egunaren biaramonean, santa Ana goizean, onen eleizatik. bezperan an lagatako .irudia ataraten dabenean, "juergatxoa" egindako begitarte illunez iruditzen dabe Santiago gixajoa.

Erri bakoitzak bere mundu txikia. Paperetan garbi, ta ixilleko eritxietan.. astiñaldiak emon trapu zarrari.

Eta beti be Patxi Bakallo'k Santa Ana egunez egindako esaera egi:

*A tzo Santiago,
gaur biaramona,
laneko gogo gutxi
erateko ona.*

MAIATZAREN LENENGUA

Ez dakit zegaitik, egun onetan gogoan eukiten dot Toribio Etxebarria, eibartarra. Bear ba da bera izan zalako egun oneri buruz euskeraz kantari agertu zan lenena. Gizon kezkatia. Barruko kezka ta kaleko ardura, gizartearen mese-dean.

Eibartar euskaldun jatorra. Ba dirudi euskaldun izateak bere kutsu berezia sartu eutsala inguru onetako sozialismoari. Langille ardurari, esango neuke nik, zabalago.

Asperbako irakurlea. Azaletik irakurri edo begiztatu eta luburuei marniña artzeko bi ta. iru bidar irakurten ekiana.

Berak diño "Ibiltarixanak" liburuan agertzen dan "Biblia sacra" olerki-txuan:

*Dozena bat inguru ba
dituraz barriz urtero,
geruago ta maittiaguak
ostera irakurri ezkeru.*

Asko dira liburuak gain gaiñetik irakurten dituenak. Batzuk gai zerrenda, edo tan nun zer edo indizea irakurriagaz igarten dabe mamíña. Beste askok, irakurri ala sakondu, eta esan gura ta ikasbide zeatza billatzen alegintzen diranak. Ortarako bakoitzaren giro ta gogoko liburua bear.

Berak, Eibar'ko sozialisten buru izan zan arek, eta berak lez Arizmendi eta beste eibartar batzuk, sozialkeriaren ikuspegi berezi bat euki eben.

Langille eskubideak aldeztu zituen jator eta gorroto barik. Euki ete eban Bibliak bere jokabidean zer ikusirik?

Garbi esaten dau, beretzat libururik irakurgarriena ori zala:

*Baiña bat Biblia sacra
nere bizi guztirakua,
milla urrian ba neu be
ezin agortutakua.*

Pentsatu ete eban onetan zumaiar ertilari ospetsu zan Julio Beobide batek, aren burua moldatzean gizon pentsalari ta ontasunez betetako batena iruditu eta itxuratu nai izan ebanean?

Maiatzaren lenen eguna, danok dakigunez, egun garratz, nastetsu ta burru-kalari lez sortu zan. Asarre eguna, odol eta naste, ondasunen eta lanaren artean gorrotoaren muga esagutzen zan aldietan.

Baiña Etxebarria'ren "Mayetzan lenenguan" izeneko bertsuak, bake eta itxaropenaren kantu dira, anai kantua:

*Zan bezela asieran
mundu au baratz bat,*

*izan daigun aurreran
berriz be zerutzat.*

Onelaxe ikusten eta amesten eban "La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo" liburua idatzi eban orrek, egun onetako jaia. Langille ametsa?

Berak, onetarako, Joel'en esaera bat gogoratuz oiñarritzen dauz egunari dagokiozan 21 bertsoaldiak: Zarrak ames egingo dabe...

Ametsa ez ete da gaur lana bera, ainbeste lan ez eta bere ondorenez Jator-kuzan barruko naigabe, ittotasun eta etsipen larridun giro onetan?

1-V-83

MAITASUNIK EZ ITXASOETAN?

Amets, kezka eta garrez erosten dira liburuak. Griña da askotan.

"Maitasunezko eun euskal olerki onenak" deitzen dana eskuetan daukat Ez dakit zegaitik, baiña irakurri ala, utsune bat igarri dot: EUNETIK bat bakarrik ez itxasoari begira, edo itxasoan irudltuta, itxasoak maitasuna piztuta.

Arteta zanaren kuadru bateri begira nago. Andre gaztea, bere semetxoa al-tzoan daukala, itxasoari begira. Eskintza ta itxaropena. Begietatik maitasuna dariola. Andre gazte orrek ez ete eukan biotz kantaririk?

Portu bakoitzean maitasun bat billatzen daben euskal pilotorik ete dago?

*"Ana Juanixe, ez eizu esan
berbarik banidadian
despedidako gabian bere
neure besuan ziñian
zeuk niri laztan, neuk zuri laztan,
an despedidu giñian "*

Gipuzkoa'tik Terranoba'ra bale arrantzan lenengo joan zan mutilla zarauz-tar Etxebeste bat izan zala irakurten da. Laburdi' tarrekin joan zan, emengoak asi aurretik. Etxebeste'neko Martin esaidazu: Terranoba 'ko izotzak galdu era-gin ete eutzuen urrunggaitzaren sentimena?

*"Etxebesteneko Martin
txalupa andien pilotu
Lur Berriko izotz mendik*

*ez al zaitue ga(xotu)?
Bale bizarrak ditudaz
zure gerria lotzeko,
nire igortzien taltaz
zure soiña berotzeko".*

Ondarroa'ko parroko liburuetan dator. Askotik bat.

"1741 urteko Dagonilla'ren 20'n albistea etorri zan, baleetan iñarduan txalupa bat ondora joan eta galdu zirala Apirillean... F. Irurre, 36 urte; Antonio Makibar, 40 urte; Manu Bega, 17 urte; Txomin Atxurra, 21 urte; laurak ezkonduak, eta T. Urresti, ezkongaiia...".

Manu Bega orrek ez ete ekian bear bada ariñegi loratu zan maitasunaren kanturik?

Test bat egin ezker Tomasa Jauregi, Makibar'en emazteari zer? Berrogei urte, zortzi seme alaba ta beste bat bidean...

Maitasunik samurrena, ixillean gordeten dana ei da. Leike.

Liburua gorde dot. Edozein emakumek, erosteko zoro, (saldoak, balantze aurre ta ondorengo premizkoak, koloretako erreklamoak eta abar ikusi ta) igarri gabe, saltoki baten sartu eta komodan gordeteko zerbait erosten dabena antzera.

Itxasoa laiño?

Itxasoak ba dakiz, ha, Mendeja ganetik zear musu bigunak bialtzen Amoro'to'ra!

Eta bestetan maitasun zoroekin jolastuten ere bai. Ea'n erakutsi eusten au:

*"Senartzat artu albar
ta gaberako galduta
ara zetan geldi nitzan
kapitanaz ezkunduta.
Musu faltsukin salduta
andre lotu nitzanean
itxasoetan birgiñak
aitzetan dantza zirean".*

Diario Vasco 21-II-1976

MALKOAK ETA MAKARRAK

Itxaropen gitxiko agerbideak irakurri doguz egunotan egunkari eta aldizkarietan euskeraren etorkizunari buruz.

Gauza bat ikusten da: Naia, gogoa. Esatea lez, buruzkoa, ametsetakoa.

Eta beste bat igarri: Etsipena. Edo alperkeria lakoa egitadetan.

Bata ta bestea neuriuta, errukizko begirapena, esango neuke.

Euskera bizi daiala nai dogu, baiña besteak erabilita, norbera ikasten edo egiten alegindu barik.

Sarri gogoratzen dakidaz Grazian Adema "Zalduby"ren bertso batzuk. Laburdi'ko Senpere'n jaioa zan. Eleiz gizona. Ez zan idazten asi adin mardulera eldu arte.

Bestaldekoak, gu gaztelaniaren neurrietatik ibiltzen garean lez, areik frantsesaren mugetatik dira, La Fontaine euskalduna deituten eutsen.

Aita ez zan euskalduna eta ez ekian euskerarik. Amagandik ikasi ta gorde, zaindu eta erabili eban.

"Euskalduneri fedea, odola ta bihotza flakutzen, hozten eta .arrozten ari zaizkote" esaten eban 1894 urteko karta baten. Zer esango ete gure egunetara eldu ba litz?

Pelota zalea zan. Eta onoko bertso au berea da:

*Pilotak ohore du
Eskualerrietan,
zeren den ederrena
joko guztietan.
Eskualdunak gaztetik
pelota plazetan
agertzen du ba duen
odolik zainetan.*

Aldatu jokoa, pelota kendu ta sartu euskera, ta bertsoaren azken zatia ez da gaitz egoki egunkotzea, irakaspide ederrez.

Zoritzarrez ez diardugu ikasbide ederrak emoten.

Lengo astean, gure Jaurlaritzako Kultur sailleko ordezkari bigaz egon bearra euki neban, nire erriko kultur etxean.

Batak ez besteak euskeraren tutik ez ekien. Guk eredurik (ejenplurik) ez dogu emongo beiñik-bein.

Egunotan "Uzturre" adiskidearen lan egoki bat irakurteko aukera euki neban, 9-1V-ko DEIA onetan: "Euskerari errespetua zor zaio", zan bere deitura.

Eta "Uzturre", Aste Santuan Deusto'ko parrokian euskerari toki gitxi emoten eutselako minduta, onela agertzen da: "Nola jasan dezakegu Deustu batean San Pedro'ko erretore jauna euskaldun ez izatea?".

Mingarri da bai, ezin ukatu. "Euskerak burua jasotzea Jaungoikuak nai du" pulpitotatik esaten zanetik, urte asko igaro dira.

Baiña gurera etorrira, etxean sartuta, ez ete geinke guk be bardintsu negar egin eta esan: Nola jasan daikegu Bizkai baten BBBren idazkiak, eta gorago-koenak, eta agintzen dogun Udaletxetakuak eta batzokietakoak eurak, euskeraz irakurteko aukerarik eza, orretarako borondaterik be ipinten ez dalako? Ez al dau orrek erakusten gure Alderdian eta inguru guztian pozoi bardiña dogula?

Eta ez arritu esateagaz, euskera salbatuko ba da asko eta argiago esan bear-ko da-ta.

I2-IV-83

MANU EGILEOR

Egunkari baten sortzea ezagutu dogu il onen asieran: Tribuna Vasca.

Eta beste batena azken igandean: Navarra Hoy.

Egunkariak ez dabe gaur politika giro bateri lotuta agertu nai. Gaur ogibidetza, profesionaltasuna maiteago dabe gain gaiñez.

Ba dirudi politika alderdi bateri lotzeak bidea estutu egiten dautsala egunkariari (periodikoari). Bai eta izparkariari bere pentsabideen zabaltasuna laburtu be.

Izparkari batek zabaltazun osoa artu bear dautsa albisteari, edo ta danentzako eran zabaldu.

Gaitz ulertzen dabe irakurleak eurak gogoko eta begiko daben egunkari batek, batzutan, atsegiñez edo ikusi ezin dituen alderdi, jokabide, pentsaera-eta erabideen barriak emon eta goramenak egitea.

Gaur, gure errialdea baiño andiagotan be, gaitz da alderdi baten egunkari bat sortu, egin eta luzaro eutsi al izatea.

Nai eta satorra izan bear ez, egunkari bakoitzari bere maitasunen argalkeñiak ezagutzeko gure begia okerra da, baiña oraingoeri igarten dautsagu euskera aldetik ez dabela tinta asko bear-ko;

Maiatza, berde edo loratsu izan, gure egunkari batzuen sortzearen illa gertatu izan da.

Ala 1897 urtean; "Baserritarra" asterokoa edo ta berak esaten eban lez, "argitalduko da aldijona izango daun artian".

1906 urtean "Aberri" aldizkaria. Xanti Meabe zuzendari.

1907 urtean, "Gipuzkoarra" aldizkaria.

1910 urtean, "El Pueblo Vasco" agertu zan Bilbo'n. Juan de la Cruz zuzendari.

1916 urtean, "El Diario Vasco" Donosti'n.

1923 urtean "Aberri", oraingotan eguneroko lez. Ez eban asko iraun. Maiazaren 27'an jaio eta Irailla'ren 22'ean ixildu zan. Lau illabeterik be ez.

"Aberri" egunkariak euskal abertzaletasunean langille zintzo-izan zan gizon baten izena gogoratzen dausku. Bera izan zan egunkari erretako lenengo zuzendaria: Manu Egileor.,

Askotan erabili eta eztabaidatu da gizonen bat Alderdiko idazkari nausi izan ete leiken bildurra. Ori ez dagokiola alderdi errikoi bateri. Alaz eta zer zan besterik, orrelako zerbait baiño, Manu Egileor, 1935 urtetik gerra denporan erbestera arte?

Gizon ixilla zan Manu, baiña langillea. Bere ikastarotako. ogibidetza be (ingenierotza) Alderdiaren mesedean laga eban. Politikaren garrak erreten eban.

Arana-Goiri'ren jarraitzaille jatorra. Beste zeïnek, berak aiña, ezagutu eta aztertu aren gogo eta aren jokabide eta maixutza?

Irakasle orreri men egitearren berak "Ikasle" izenordea erabilten eban. bere idazkietan. Sabin'en idaztirik geienak bere eskuetan erabili zitun eta barrero argitaratu bear ziranetan bera izan zan ortarako su-emole.

Sabin'en idazlan guztien batze (bilduna) egin zanean, berak egin eutsan sarerako agerbidea.

Gure lengo abertzale asko lez, zarata barik, espetxetan egon zan, eta atzerriko bizi minkorra eroatera beartuta egon zan, zaartu arte. Aurrez iñoiz, Bilbotik kanpora bizitera bialduta be bai.

Abandotarra zan jaiotzez.

Bere liburu lez "Arana Goiri'tar Sabin en la historia de Euzkadi" ezagutzen dogu.

MANUEL LEKUONA

"Don Manuel" edo "Lekuona zarra".

Bardin da.

Era batera nai bestera, ezagun, maite eta etxeko, euskaldunok.

Gizon on, langille ta jakintsu.

Lotsakor, baiña bai lotsa sartzaille be.

Zorrotz. Bere izakeran eta bere egitadetan.

Txukun, bere agerpenean eta bere lanetan.

Beratzaz idazten asi orduko, nire ezkontza bedeinkatu eban abade baten eriotza jakin dot. Don Manuel berberaren kide. Gizon ixilla, a be. Euskaltzale jatorra. Bizkai itxasertzean, Ea baten, lan ixil asko egiña, gure une garratzetan. Euskerari eusten alegin asko egin eta eragiña. Kardaberaztarra. Zer gertatuko ete zan alako erri baten, abade erdal zaleen bat ango arduraz joan ba litz? Don Zezilio Agirre'ri, don Manuel goratzean nire otoia eta gomuta eskintzea, Lekuona berberari omen egitea da, adiskide izanagaz batera, bere jarraitzalle zintzo izan zalako.

Larogetak urte Lekuona'k.

Zenbat urte euskeraren mesedean?

Gerratean, Errenderi'n anaia il eutsenean, eta berea arrisku bardiñean ikusita eskutatu zanean, zelako olerki atsegiñak Lasarte'ko Brigidaen konbentuko eskutuan!

Geroago Kalagurri'n, Euskalerrian bizi ezin da, ango artxibutako liburuei autsak eta zeenak kentzen, euskal parrokien bizitza aztertu ta ezagutu nairik. Eta gero etxean, ekin beti lanean. Eta jakintsu lez kaleratu bear, nai ta ez bere burua ezaupidera emon bear. Baiña zenbat bekaizkeri ta ostopo bere lanari!

Ezin ukatu iñok bere gaitasunik eta nortasunik, baiña zenbat politikeri Euskaltzaindian lendakari aukeratu bear eben garaian, eta zenbat traba eta azpikeri bere lanari. Amaika txistu garratz iruntzi bear, kanpoeder eta azal lodidun bartzuen artean.

Azkenean, Euskaltzaindiko lendakaritza eten edo kendu.

Alaz eta be don Manuel beti berean. Eta berea esatea, euskal lana esatea da.

Beste askok aidean jaurtiko zituen paperak eta luma bertan bera laga. Baiña Lekuona zarrak gaixo bat euki dau bere bizitzan: euskera. Droga. Eta ori, bere alegin eta ekintza eten bako ori, danok ezagutu dogu. Ezin lei iñok ukatu .

Kontuan euki zenbatek idatzi gendun bere omenez Kardaberaz Bazkunak atara zitun liburuetan, era batera edo bestera bere jarraitzalle edo ikasle izan giñan eta gareanon artean.

Lekuona'rea maixutza ezagutu nai izan gendun orretara.

Jesus Gaztañaga'k, omenaldiko liburu orreïn asieran jator esaten eban:

"Zin-ziñez irakasle aurkitzen degu Lekuona, beti zerbait irakasten ari dan oso-osoko maixu... Euskera, sinismen giroa, ertia, euskal oiturak, kondaira, sinisken muiña, zintzotasuna, zentzu-ona, bertsolaritza, umekantak, Jainkoé'bidea, gure erriaren arnasa..."

Eta gu, Bizkaitik be, aste ontako omenera alkartuten gara, guretzat be, don Manuel, oso-osoa, euskalkien begirale eta auspo lez ezagutu izan dogulako.

2I-IV-83

MARKESAREN ALABAK

Lengo astean Donosti'n nitzan itzalditxo bat emoten.

Jose Olaizola jaunari buruzkoa zan, ango Aurrezki Kutxa batek eratuta.

Laster dira, il onen 27'an eun urte gizon ospetsu a jaio zala.

Musikari eta idazle, gizon andi izan zan. Ernani'n jaioarren, bizirik geiena Donosti'n igaro eban arek.

Olaizola'k, bere antzerkien artean, "Markesaren.alaba" idatzi eban. Geroa-go beste izen bereko lan bat 1956 urtean egin eta 1968'n agertu zan "Egan" aldizkarian. Bigarren lan au Jon Etxaide'rena zan.

Arrezkero ainbat aldaketa egin dira Etxaide'ren lan onetan. Deitura edo izena bera be zeaztu.

Sortzean "Markesaren alaba" lez jaio zana, orain "Markes bateri alaba" da. Etxaide berberaren esanetan, argitaratu ta gero jakin eban ba zala izen orretako beste lan bat. Eta "hau ez da bidezkoa eta egokia eta orduan erabaki nuen bigarren . argitalpenean "Markes baten alaba izenez ateratzea". Eta diño "Egan" en argitaratu zan lenengo a "zeharo desbaliatzen duela eta daitekela gehiago ez argitara, ez errepresenta, era zaharrean".

Orra egillearen guraria.

Baiña ni beste batera nua.

Derio'ko irakasle batek iñostan oraintsu: Zuek ondarruatarrok daukazue gatza eta irudimena ez-izen egoki eta itxurazkoak agertzeko!

Berak daukazan ikasle batzukin atsegiñez ibiltzen ei da bata ta besteak gogoratzen, ia irureun inguru.

Lenago be esana daukat lagun batzuen artean millatik gora batutara eldu giñala.

Noiz agertu? Ainbat zirikada euki dodaz. Baiña egia au da: Pozik ikusiko leukez batzuk euren ez-izenak aotan eta liburuetan. Eta besteak?

Cirilo Zabala Allika bermiarrak atsekabe asko euki ei zitun Bermeo'ko Atalaya histórica ataratean, ango ez-izenak agertu zitunean, nai ta berea be lotsa barik agertu.

"Markes baten alaba" liburuak nirean sendotzen nau.

Sebero mutrikuarra, edo garbiago, Sebero Iturrino'ren bertsoetako markesaren alaba eta laguna Juanita eta Anonio ziran. Etxaide'k izen orreik Agata eta Joxe Migel'en aldatzen ditu.. Itzaurrean diñonez, istori au ez dala ain zarra eta egon daitekezala asarre leikezanak. Orrez gaiñera Etxaide'k asarre bizia euki eban ez-izen bategaz. Eta orain a kendu eta "Karnaba" deitzen dautso.

Berak diño: Ustekabean minberatu nuen jauna, lagun baten bitartez kejaiu egin zitzaidan. Eta jaunari karta bat egin nion ez jakinean egindako bekatua konprendi zezala eskatzen eta urrengo argitalpenean izengain hori baztertuko nuela agindu".

Ikusten? Origaitik dator orain lan ori bere aldakuntzekin.

Eta izenei ikutu ezkeru, Yon Etxaide'ri oartxo bat: Zergaitik orain arte erabili dan Domingo edo Txomin Agirre'ri, orain Domiku Agirre deitzen asi bera asi dan lez? Bildurra ete dauka Txomin Agirre'ren ondorengoak Txomin erabilteagaitik asarretuko jakozala

24-I-83

MAR-MARKA

Erriko giroa konbentuetan neurtzen dala esaten ekian adiskide batek. Fraileetan arintsuago; monjaetan zeatzago.

Barruko monja batek nik uste ez nebazan kaleko barri ugari emon daustaz. Euskal jokabide, erriko kontu, abertzaleen arteko asarre...

Arrituta dago nik bizkaieraren alde artu dodan makurpenagaz. Nire aurka, jakiña.

Bestalde bildurtuta Etxenike'k emon euskal erantzun batez, bion artean orma lodien bat jarri ete dogulakoan.

Esan dautsat ni ez naizela duin, edo gaur esaten dan lez, iñor, Etxenike'ren uleak orraztuteko. Baiña bai aberkide, alderdikide eta euskalkide lez, eta jaur-

laritza baten menpean nagon erritar lez, berari nire usteak aurrez aurre agertu eta osotasunez autortzeko.

Etsaikeria ala adiskidetasuna ete dago or sakonean? Ni bigarrenaren alde nago.

Ala obeago ete da ia alter Christus dan nausi bateri koroan makur egin eta konbentuko eskutuetan maltzurkeriz bere aurka jardutea?

Kanpaiak ete dira sorgiñak esnatuten dituenak, edo ta sorgiñak kanpaiak joten dituenak?

Beste baten esana: Zegaitik ez dozue h'ren kontu ori laga eta bastertzen eta errie emon, besteak zuekana urreratu daitezana?

Nik erantzun: Zegaitik besteak bizkaieradunoi ez dauskuez gure eskubi-deak osotasun betean onartuten eta gure eskubide orreitan etenik barik laguntzen, gero, ikusi ala, komeni diran erabagiak azkatasunez artu daiguzan?

Zeiñek dauka eskubide geiago, lendik gauza baten jaube izan eta duintasunez darabillan etxeko jaunak, ala dana barriztu naian sartzen dan serbitzari barriak?

Orreri berak: Ta zeñek dauka gaur bizar geiago?

—Bizarra errazoiaren ezaupide al da?

—Nortasun baten jaube. Edo ta iraultza (errebeldi) baten agerpide.

—Eta nok dauka bizar indartsuago, egunero kentzen dabenak ala bertan bera luzatzen lagaten dabenak?

Irakin bear daben lapikoari ez daiogun tapaillurik aurrez jaso, nekezago irakingo dau-ta.

Erriarentzat eta bere gustora egosi daigun euskera. Ortik emongo dautsagu eta artuko dau indarra. Bestela, ataraten doguzan orri bakarrak be ezin salduta ibiliko gara, errukarri.

Nire mar-mar onetan ba daukat itaun bat egiteko:

Zu etxe bat egiten jardun, etxe ori oiturazko legetan burututa euki eta bizi-biderako zabaltzeko zagozala, etxearen azalean, fatxadan, zuk irunsi ezin dozuzan baltzune batzuk bear dirala-ta, norbaitek esango ba leutsu: baltzuneak marratu edo ta ogeita bi milloiko laguntzarik ez daukazu, zer egingo zenduke?

Denporak esango dabe orrelako jokabidetan zeñeri parkatu leikion edo ta nor salatu bearko dan.

Orelako gauzarik euskeran gertatu ete leike azkatasun zabalaren denporetan?

Ai ene! Lenakoena: egunak argi egingo dau.

Bitartean, nik, nire jardunari jarraituz, beste esaera au darabilt buruan: Amar, gure katuak mar-mar.

MARTIKO SINISTEAK

Ba doa Martia.

Uste baiño garratzago azken egunetan.

Eta ba dator Andra Mari Martiko.

Esaeraz inguratu eta betetako eguna.

Gure fedean, Aingeru iragarki zan:

*Ama Birgiña zegoenean
ganbera illun batean,
illunik ere argitzen zuen
Andrea zegoen lekuan.
Yaun S. Gabriel jarri zitzocn
belauniko aurrean,
izu andiak artu zuen
ura antxe ikusi zuenean.*

Gure izatean fedea eta oiturak sinisteak eta bizitzearen egia alkartu edo lotuta dagoz.

Origaitik egun au gure etxe-egutegietako iragarle be ba da euskaldunen ogibide eta lanetan.

Ez dira bardiñak Andra Mari jai guztiak.

Gogoratu Iraillekoa. Arratekoa batzuntzat, Gardotzako bestentzat, edo lekuan lekuko deitureagaz

Emen esaten dakigu ordukoari buruz: Ama Birgiña Gardotzakoari bezperak kantatu ezker, jakea lepora.

Orain jaka eta txamarrak kentzeko egunak datorkiguz.

Baserritarrak, len, egun au noiz elduko egoten ziran beiak kortetatik ataraten asteko."Andre Mari Martiko beiak mendira jaurtiko".

Era berean arrantzaleak gure portuetan.

Nai da ondarrutarren sinistea izan antxoarik ganoraz ez dala agertzen santuak kalean bueltan erabili arte, au da, aste santuko ibillerak egin arte, ba euken egun onetarako sinistea: Andra Mari Martiko, arrain barriak tatiko.

Beraz itxaropen egunak datoz. Egualdiari, etorkizunari. bizibideko ondasunei begira.

Kontuan euki kukua diru zalea dala. Zegaitik lotzen ete eben gure zarrak kukuaren etorrera diruagaz?

Danok dakigu kukua entzutean, dirua sakeletan erabiltea itxaropentsu dala. Eta kukua laster dator.

"Kuku, kuku Erromako zubian, zortzi egun ordurako agertuko da Euskalerrian". Eta Andra Mari eguna dogu onetan lekukotzat ipinita, oiñarrituta. Au be

gure esaera dalako: "Kukuak esan eban Andra Mari Martikoz ez ba etorran, berari ondraz egiteko".

Onelaxe da gure Martia. Urtearen giltza askorentzat. Zerbaitegaitik esaten zan Martian arrautza eta Martian txita.

Eta "Marti oillarrak" be ba euken eurena.

24-III-85

MATZAKU AURREAN

1937ko epaillean, gure gerrateko zortzigarren illabetean sartzen giñan.

Estu ta larri, aurrera giñan.

Ba ete egoan gure agintarietan luzaro irauteko itxaropenik? Egon edo ez, errialdearen erakundea zaindu bear-zan.

la Bizkai utsera moztua zan gure jaubetasuneko lurraldea. Eta itxasertzean, gure alboko Santander eta geroagoko Asturias'ek, euren bizi premiñen aitzakiz, ten eta kendu geiago egiten euskuen lagundu baiño.

Frantziagaz ez gendun arma traturik. Jakiña da egazkin batzuk andik zear ekarteko aukera euki gendunean zelako trabak ipini zitun laterri arek, gure gerran ez sartzeko batzuen artean artuta euken konponketaren aitzakiz.

Eta gure artu-emonak andik erabili bear ziran, eta itxasoz.

Itxasoak, ormarik euki ezarren, bere zabaleraren zabal da edozeiñentzat be eskuta-leku, gau eta egunaren orduak erabilten jakin ezkeru.

Ba genduzan gerra ontzi batzuk... Portugalete'ko egalean lotuta. Ez euken gure garrik eta mesede baiño kalte geiago egin eutsen gure ekiñari.

Origaitik gure menpetasun osoko izango ziran batzuk gertu ziran. Arrantzarako egiñak ziran burdiñazko kaskoak moldatu ziran ortarako: "Gipuzkoa", "Nabarra", "Bizkaia" Pysbe alkarteak makallautarako gertuak. Milla ta berreun toneladako ontziak ziran. Eta euren onduan "Donostia". Au txikia zan. Ez zan elduten irureun toneladara. Gure Itxas ertza zaintzen ibilten ziran, eta guregan etozan itxas-ontzi banakei laguntza eskintzen.

Epaila'ren lenengotan, 4'an zeatz esateko, ia ogei urte eukazan 3.700 toneladako "Galdames" merkatontzia Baiona'tik Bilbo'ra etorteko zan.

Ez ekarren armarik. Berreun lagun, geienak andrazko ta umeak; osabideko tresna eta botikak, eta gure jaubetasuna erakusten, Euzkadi'ko diru barritan, bost tonelada inguru.

Bera zaintzeko eta itxasoak arakatzeko aginduz urten eben esandako lau ontzi armatuak.

Gaua eldu zan ta mendebal gordiña, aize ta euri, beragaz.

Nekez, baiña ba etorran "Galdames". Tartetan, bera zaintzen etozan ontziak be ikusi eziñik, edo ta euretatik galduta, egualdiaren gogortada ta itsu-unetan.

Ez eben uste "Canarias" nazionalen guda ontzia, bere makiñak emon-ala etorrela, bear ba da "Galdames" en ordez, beste ontziren baten billa.

Amar milla toneladako kurtzerontzi (kruzeru) orrek "Gipuzkoa" billatu ta artu eban lenengo bere mende.

Asiera txarra.

Ekiñaldi bat egin eben, baiña "Gipuzkoa" sutan, gori-gori, igeska, Getxo'n sartu zan. Bost il eta amabi zauritu ekarrezan barruan.

"Canarias" eta "Gipuzkoa" alkarregaz burrukan ebiltzan artean "Bizkaia" k Pasairako bandan eioan ontzi bat billatu eban: "Yorkbrook" estoniarra zan., Ikustatu ondoren, bere aginduak bete ezik ondora jaurtiko ebalaz zemaituz, Bermeo'ra eroan eban bere aurrean uste bako ontzi ori.

Izkillu gaiez beteta egoan. Batzuk guretzako balio ebenak. Besteak... egazkiñik ez gendun lez.. .

Bitartean "Nabarra" eta "Donostia" k zainduta "Galdames" ba etorran Bilbo'ra urreratzen. Baiña "Canarias" ek zur jokatzuz bere egitada egin eutsen, eta itxasertza ta bera bitartean agertu zan.

Agindu zorrotzak batetik eta ittotasuna bestean. "Galdames" ikurrin zuria ataratera beartu zan. Lentxuagotik bere inguruan arrantza ontzi bi etozan, "JosebaMikel" eta "Pantzezka" eta oneik be geratu ziran, larri.

Baiña "Nabarra" ez egoan makurtzeko. Eta "Canarias" ontzi oneikana urreratu zanean, bere suak jaurtiten asi jakon, eta biak alkarri suka ekin eutsen.

Bitarte orregaz baliatuz gureak itxasertzera, legorrera, laguntza eske deika asi ziran. Egazkiñak ontziak, al zana bialtzeko. Nundik?

"Canarias" eta "Nabarra" burrukan ebiltzan artean, "Galdames" eta beste arrantza-ontzi biak. iges egiteko aukera eukelakoan asi ziran. Txiki biak lortu eben euren naia, Castro Urdiales'en sartuz. Baiña "Canarias" indartsu eta biziegi zan "Galdames" eri iges egiten lagateko, ta lerkari batzuk bildurtzeko jaurti ondoren Pasai'rako bidean asteko agindu eutsan. Eta "Galdames" makur-makur barruan bederatzi ii zirala ikusita agindua betetera beartu zan.

Orrela "Canarias" eta "Nabarra" gelditzen ziran.

"Canarias" bestea baiño ibilpide ariñagoko zan. Eta 203 mmko zortzi kañoi eukazan, eta 129 eta 102 mmko laguntzailleak.

"Nabarra" k 1.200 tonelada eta 101 mmko kañoi bat aurrean eta beste bat atzean, eta ametralladora bat.

Martirien jokoa zan eurona. Alaz eta ordu bi ta laurdenean ekin eutsen alkarri sua jaurtiten. Seirak inguruak "Nabarra" zatituta eta zulatuta, onduratu

baño len, bizirik egozan emeretzi lagun itxasora jaurti zituen txalupa lagun-tzailletara beratu ziran. Barruan, lerkarien bidez galdarak eteteaz zatituta eta illa da geratu ziranak, eta bizirik, itxastarren nortasunari eusten bizia aberriari eskiniña, ontziko agintari bi, Moreno eta Sarasola. Moreno murtziarra zan, Sarasola lekeitiarra. Euren ontzian emon eben azken arnasa.

Eta oraindik "Donostia" txikiak adorea euki eban su-arte aretan "Nabarra" ko txalopetara laguntza emon nairik urreratzeko.

Matzaku aurreko gudaketa onek zotin eragin eban Bilbo'n eta Bizkai guztian.

Bizia era orretan emon eben gixurenei omena batetik; barriro be azpikerien bildurra bestetik. Edozetara be "Canarias" ez zan etorri "Galdames" en billa, norbaitek salatuta gudaketa orren egun bira billatu eta mendetu eban "Mar Cantabrico"ren billa baiño.

Epaila'ren 26'ean bat bateko epaia egin eutsen Donosti'n "Nabarra" orretatik bizirik artu zituenei. Seirentzako eriotza eta beste amaseirentzat 30 urteko kartzela.

Geroago, Uztailla'ren 13'an barriro epaitu zituen danak, eta oraingoan danak eriotzari zigortu. Baiña illetan kezka eta naigabetan euki ondoren, Azilla'ren 30'n, beste barik, danak kaleratu zituen.

Ostera "Galdames" en euskaldunen lagun zan kataluniar politiku bat etorran Bilbo'ra, Agirre'ren adiskide andi zana, Carrasco Formiguera ta a eta ontzi aretako beste batzuk il egin zituen.

Gerran bizi giñanok, denpora gitxian, batu gendun zer kontatu.

5-III-83

MENDEBALETIK

Bai?

Ez?

Uts?

Putz! Or gabiltz. bakoitzak bere erara España'ko Estaduko Konstituzioari putzka.

Ez dot uste, egin dan zabalkundea askok irakurri dabenik. Azkenean nazkagarri geratzen da.

Iñoiz baiño euskera geiago agertu dala aitortu daigun. Edozelako euskera: garbia, naastua, batua, erderatua, "analfabetikoa", eta abar.

Gero ta erreztasun geiago dagon lez, gero ta izki edo letra andiago agertzen

dira paperetan. "Abstenzioa" itza, miopeak be irakurteko eran ikusi dogu bazterretan. Eta alaz eta ere telefonikak ainbat diru irabazi dau. jenteak ez ekialako "abstenzio" orrek zer esan nal eban eta zelan jokatu bear zan.

Koloreak kolore, laster igarten da, lapitz baltzez eginda ere. bakoitzaren arrastua.

Berez igarten da, idazkera utsean. erabilitako itz berberetatik. zein buru ibili dan atzetik. Bestea, jakiña: zelako buru, alako aburu.

Bildur ei ziran batzuk P.N.V.'k...

Zegaitik P.N.V. eta ez P.N.B. beti ibili izan gara basko idatzi bear zala ta.

Eta alderdi baten B.B.B. eta E.B.B. eta abar. ez al dirudie B izki edo letra biurriari monumentu bat?

Dana dala...

Bildur ei ziran batzuk alderdi batekuak "euzko alderdi jeltzalea- okertu egingo ebela-ta.

Bai?

Jarraitu erbiari.

Irakurri kartel batzutako esaerak. Batek edo besteak izenpetu edo ta egin. bardintsu da.

Gogo. bide, ioera eta pentsamentua or dagoz. Ezin kendu urteetako ugarririk.

"Santa uts" eguna

"Abstinentzi" eguna...

"Iñuzente ", eguna...

errialde batzutako "sepultura "...

Nik ez dakit adar iotzalle edo akularien batek bere "espiritua— sartu nai izan daben edo ez. Baiña kartel orreitako gramatika, ieltzaleren batena danik.

Eta, sotanakin nai sotana gabe apaiz izan leitekena, iakiña da. Nai ta one-tan be doktore asko iritzi ez bardiñetan agertu.

Eta Konstituzioan Jainkorik agertzen ez ba'da be.. intsentsu usaiña za-balkundean artu ez danik ezin esan.

Edozetara ere omenaldi bat berezi dabe, urte luzetan lupa ta guzti zentsura baten ardura euki dabenak. Ardura baiño. "kezka" esatea egokiako litzake.

Len, iñundik agertu ez da ere, lerro artean billatzen ekien areik Japitz gorriarentzako tartea.

Sorginkeriak askotan.

Orain, sorgin denporak igaro zirala-ta, toki guztietan dagon Jainkorik ezin billatu ain zuzen Jainko zalien alderdi edo partidu bat nausi eta gidari dala, zenez beintzat, egindako legedian.

Bai, ez. uts..

Emen, ta oraingotan. gauza bat ikusten da ziur: Gaurko gure jokabide ta amets guztiak, demokrazi kolorez be danak dirala gerra-uts.

MIERES'KO GARRAZKERIAK

Zetan garoez Asturias'era?

- Bein Bilbo galdu ondoren bertanbera gauzak lagateko gogoan
- igarten zan gure artean. Tartetako itxaropen irristadak zetarako?

Buruak makur, garratz eta mintsu urten giñan Santoña'tik. Mendiarte baten egon giñan batalloia osotzen; ez daukat izenik gogoan. Andik Asturias'ko Arriendas ingurura. Gero, oñez. Villaviciosa'ra. Zetan? Ez zan izango nunbait euskaldunoi atsedean aldi bat emoteko ustetan. Eskatu ere ezin lei atsedetik gerra baten.

Villaviciosa'n, sagardau erriaren ezaugarri, baats usaiña erri guztian. Laster giñan edaten eta ezin aseta. Ramon Artola'ren bertso erdikak artuta osatu lei gure orduko giroa:

*Kupelan dagon sagardoak dit
ematen tentazioa
prezisamente eran bearra
daukat persekuzioa.
Eranago ta berriz naiago
beti nago egarriyak,
begi bitarte txarrikan ez dit
egiten tabernarizak...*

Alaxe. Ez gendun dirurik ukatu. Oraindik balio eban gureak. nekea Jaga gendun eta umorea berpiztu ta zabaldu.

Aterpetzat sagardau tolare edo antzeko etxe uts bat eskini euskuen. Batzuk eguraldi beroa egolako, naiago kalean. Alaxe ni Itxartu nitzanerako. besteak ordubete aurrez bidean.

Andik Pola de Siero'ra ta ondoren Sama de Langreo'tik Mieres'era eldu ta a zala esan euskuen, ordukoz beintzat, gure gelditokia.

Mieres. Arrikatz langilleen erri jatorra. Indianuen etxe aundiak eta biargiñen etxe merkeak. Auts zikin, baltz, lodi ta koipetsua.

Iru-lau egun igaro orduko. an giñan gure kezkek barrizatzen: zetan ekarri gaitue bertora?

Merkatu eguna ere gertatu yakun eldu ta laster. Alkondara eta abar erosteko aukera. Ba gendun barruko jantzien premiña. Asi giñan gure diruak trukatu eta bertakoarekin baliatzen. Ogerlekotan zan dana, "duru"tan. Ez egoan txikiagorik edo ta guk ez gendun aukeratu. Gora edo beerako akatsak, txikikeriekin osotzen ziran. Ogi, txokolate, beste zerbait, beti ere "un duru". Galtzerdi sudur-zapi ta besteak, "un duru". Geiago zana ere "durutan".

"Guaje" deitzen euskuen angoak eta pozik gu. Lenengotan "guapo" esaten euskuelakoan. Ba giñoiazan bertako esakerak artzen. Atzamarrak eta bea-

tzak ere, an, " dedos " eta " dedas ". Eskukoak arrak, ainketakoak emeak, " dedas ^c

"Casa del pueblo" dalakoa laga euskuen gure aterpetzat. An lo ta aldame-
nean sukalde ta tresnak .

Gure batalloian abade bat eta praille bat genduzan fedezko serbitzutarako.
Manga-zabala praillea eta estua abadea, ala esaten ekien "plana ma^yor" ekuak,
gure artean ostatu billatu eban neska bat zala ia etzala.

San Iñazio eguna eldu yakun bertara eldu ta lenengo astean. Eguna ospatu
bear. Goizetik meza. Or asi eta amaitu zan gure jaia. Zein joan ete zan kalera
ango gizonei mezako euskaristia egitera giñoiazala esatera Guk ere barrabillak
genduzan. Nun eta "casa del pueblo" baten asiko giñan ba meza eskintzen?

Ango asarre ta naste, ango itz gordin eta zital, ango ten eta saka egin bea-
rra! Armetan jarria daukala Iñaki deunak bere konpañia? Bai gu ere "txispaz
armaturik" egun aretan.

Ordu bat edo bi emon euskuezan andik urteteko. Ia "casus belli ". Kalera
be ez giñan agertu. Alboko baratzean, al zana jan eta burua makur, trukaturako
diruak be gastateko era barik, ikusi ezin eta nai-eztako mutillak ba giñan eran,
erritik kanpora urten bear izan gendun.

Len asarre ta gogo illun eta betozkoz ba genbiltzan... onak geratu giñan
amets barriak egiteko!

Errekonkista barrien bat egitera joan giñala iruditutako ete eben bertakoak ?

Diario Vasco 12-VI-77

MIKEL DEUNA

Nungoa da bat?

Jaioten dan tokiko edo ta jaten daben lekuko, esaten da.

Eta santu bat?

Jaioten dan erriko edo gurtuten dan inguruko, esango neuke nik.

Gero aingeruak, gotzonak, espiritu utsak, nungo?

Besteen erara pentsatu ezker, aingerua toki guztietako dala esan bear.

Beraz euskaiduna be bai, fededunen sinistetan beintzat.

Orrela datoz batzuk, gure ezaupidean edo gure maitasunetan, etxeko lez.

Guk, umetatik, ezaupidea gendunetik asita, sarri erabilten gendun aotan

esaera bat. Eskoletan geien, baiña kaleko jokoetan be ugari. Paperen bat zikindu edo ta zirinduten;jakunean, esaten genkian:

*Santa Ana amandria,
San Migel aingerua,
eutsi paper bustia
ta ekatzu barria.*

Etxeko bateri ezik, ez jakin iñori, umetan, orrelako mesede bat eskatzen.

Zegaitik ipini ete eben Aralar mendian, VIII garren gizaldiaren asierarako, gure erriko zaindari lez Migel deuna?

Jakiña da oraingo Aralar'eko eleiza XII garren gizaldikoa dala, baiña 707 urtean, Mikel deunaren baselixa an egon zala erakusten daben agergarri eta sinisteak ba dira.

Etorri onuntzago.

Noizkoa Ereñozar, emen Bizkaia'n? Amargarren gizaldikoa e; da Ereño gaiñetik Gernika aldea zaintzen daben ermita.

Eta Arretxiñaga? Eleiza zarra XI garren gizaldikoa, oraingo au I.735 ,urtean jasoia izanarren.

Eta lurreta, eta Basauri.

Ez dakit zegaitik, baiña Mikel deuna, guretzat, zaindari edo begirale jatorra da. Geutarra.

Iurretakoa dantza zalea: Gogoratu abestia:

*Aita San Migel, lurretako,
zeru altuko loria,
agura zarrak dantzan ikusi
ta ak egiten jok barria!*

Markiña aldekoa, Arretxiñagakoa, jatuna. Edo ta gu barrukoak baiño gosekillago ta gure barruak eskatu eragin:

*Aita San Migel, Arretxiñako,
zer dogu apaitarako?*

Arratiarrak, eurekin euki nai izaten dabe. Origaitik euren esaera: San Migel, eldu zakidaz emen. Esatea lez, gure artean egon zaite, etxeko nai zaitugu.

Euskaldunok, sekula esan ba dautsugu, ontxe gagoz errezoirik andienagaz Zuri esan eta eskatzeko;

*Eutsi erri bustia
ta ekatzu barria.*

MIKEL ZARATE

Agurrik ere esan barik joan da

Ori amaren atsekabea.

Kartetan jokatu, gabari orduren bat kentzen, gelara ioan. gabon, eta... gau -
luzcan laga gu. bera, semea, beste mundura ioanda.

Agurrik ere esan barik. Gabon... eta gau luzean laga.

Ori, baita, bizkaitar euskaldunon atsekabea.

Kartetan jokatu...

Gure kartak ba dakigu zer diran. Euskal paperak, euskal jokoak.

Eta ez gure gabari orduren bat kentzen, gure egunari orduren bat geitzen
baiño.

Gazte doaz euskal langilleak.

Berrogei ta sei urte oraintsu egiñak, eta ixildu mututu, aldendu. Len eraku-
tsi ta irakatsia laga, testigintza lez, eta kittu.

Gure gaua - argitzeko besteren bat bear.

Mikel Zarate, Bizkaia'n, euskal egille eta eragille aspergabe bat izan da.
Alegiñean urtutako maixu bat.

Bere illetan nitzan.

Ezin sartu Lezama ko eleizan, eguazten santu eguneko arratsaldean.

Ordu laurden aurrez eldu nitzan eta osta osta tokia egin.

Aldaran Bizkaiko gotzai bi eta Baionako bikarioa. Eta abadeak. Burusoi-
llak eta bizardunak, zar eta gazteak. danetakoak, ezin tokirik eginda, batzuk
sakristitik meza esan bear eta besteak kanpoan geratu hear.

Eta eleizan gorpua sartuko ba zan, jentea kalera atara bear, tokia egiteko.

Bakarrik eta ixil il zan Mikel. Baiña jente askoren laguntza eta malkotan
lurpean sartu eben.

Bertsolariak be agur egin eutsen eleizan An Azpillaga eta Intxaurraga. Eta
besteak, Lopategi, Enbeitatarrak eta abar, sartu ezinda kalean.

Gotzai batek, Uriarte jaunak, azken erresponstu orde. Mikel berberaren
iru bertso kantatu eutsazan aldaratik.

Gure illetak ba dauke fededunoi kezka sartzen datorren zerbait: "Inpernuko
atetik atara egizu aren arima". Euskal pentsabidez agurtu zan eta iñor ez zan
orregaz gogoratu.

Elezakoa amaitu eta kanposanturako eroaten daben Parrokiko kurutzea
abadeak artu ebanean, nire atzean egoan andre bat negarrez asi zan: Ene! Mikel
berberak eroan eban kurutze ori igandean eta irugarren eguna orduko ara berari
eroan...

Kanposantura bidean txistulariak, Agur jaunak...

Gero, ango kotxien kotxez, bidean ezin ibili. Erritik ezin urten ordu luzetan. Mikel'en tengada.

Orra Mikel Zarate'ri agurra.

Mikel nor zan?

Abade. Apaiz.

Euskal irakasle: Derio'ko Ikastetxean, Deusto'ko Izkuntza Ikastetxean,-
Lauron eta nun ez?

Idazle jator eta ugaria. Beti euskera gai. Kezkatan, euskal kezkatan goize-
tik gabera. Euskerari bizia nundik sartuko. Bizkaieratik, bizkaiera erraztutik.
batutik, oraingo batua baiño beste errezago litzaken batetik...

Bultz-egille. Gazteak euskerara adoretzen.

Su-emole: Euskal txingarra aizetzen.

Argi ekarle: Ekian bestean edozeiñeri laguntza eskintzeko gertu.

Olerkari. Poeta. Sakon, Bigun, samur, aberkoi

Baiña bizitza mingotsa da. Berak be idatzi zitun ipuin lako alegi mingo-
tsak.

Eta bizitzak, gure ipuin antzeko onek,danok bizi eta erakusten dogun alegi
garratz onek, bere urratsa laga nai izan dau. Berari be mingostasuna ekarri ta
eroan.

Sasoirik onenean neketu, indargetu eta ixil ixil eroan. Ba dirudi Eriotza bil-
dur izan dala euskaldunok arrenka eskatuko ete geuntsan oraindik gure artean
lagateko, eta, bere nortasuna zaintzeko be, eskutuan croan nai izan dabela.

Agur Mikel!

Diario Vasco 2I-IV-79

MISIOLARI TXIKIAK

Txiki giñala, Aurtzaro santu deiturako erakundean sartzen ginduezan. Eta
orrek "txino" txikiekaz gogoratzera zaletu.

Txinoak!

Ori zan guretzat urruneko misinoetako gogoeta. Eta "txinotzat" artzen gen-
duzan urrutietako baltz eta oriak. Dana ikusten gendun zuri. Obeto esanda. begi
zuritik, edo zeatzago, zurien begitik.

Eta munduaren zati andi bateko lurralde itzaletara errukiz begiratzen ikasi

gendun. Gose, illunpe, itzaltasun eta itsutasunaren errukiz. Baltza eta oria, alako argalkeri edo auleria lakoa zan gu zuriontzat.

Gu geu ez giñan konturatzen gizatasuna kristinauon sentimenetan, famili bat giñanik. Beti oituta aingeruak be gure kide bakarrik ikusten, beti zuri iruditzen eta Andra Mari berbera zuriago...

Zorionez gero ta argiago ikusten doguz gauzak. Erakutsi be bai. Gero ta kristiñau zentzu geiago artzen dogu irakatsietan. Euki be gero tan aukera geiagoko daukagu baltz, ori eta zurien alkar arteko ezaupiderako, gaurko aurrerapideei esker.

Ezaupide orrek gure anaitasuna gero ta geiago lotuten dau, urrunetan nai auzoan, an eta emen, alkar laguntza lako baten ekitera.

Alkar laguntza bizitzako egiak erakusten; alkar laguntza bizitzako premiak arintzen; alkar laguntza danok otoitz orokor baten alegindu eta makurtzen.

Zeregin ori ez da bakarrik "bizardun" misiolariena edo ta pope bizartsuena. Ardura ori umetatik sartu bear da, aurtzarotik erakutsi bear dalako gizatasunaren kontzientzia artzen.

Onetan dator igande onetako Aurtzaro santu eguna eta beragaz batean Ume Misiolarien eguna.

1843 urtean Frantziako gotzain batek sortu eban txikien arteko alkarte era au. Gaur 73 errialde nausietan eratuta dagona.

Umien alkartasun orreri esker Indian bakarrik umeen laguntzarako sortutako zortzireun etxe dagoz.

Aurten egun onetan ametsez beterik umeak egingo dabezan eskabldeen onurak, zuri, baltz eta onen arteko zabaltasun zeaztu baten banatuko dira: Bolivia, India, Palestina eta Senegal Lurralde orreitako umeen bear-izanak geien bat kontuan eukiko dira.

Erakutsi daigun gizadia obetuten, oraindik erruki eske bizi diran anaiak argitzen.

Gizonak, eta munduak, argitasuna bear dau Kristo goretsiteko ez erruki bearrez ezagutzen danaren makurtasunez, gizadi askatuaren esker on eta maitasunez baiño.

Igande onetan umeen bitartezko munduarekiko oroitza eta laguntza, itxaropen ametsez emona izan bedi.

MONT PELLIER'EKO BATZARRA

Premiñak zurtu eragiten dabe eta giroak euretara lotu.

Uda, Uda aroa, erabide askoren batzar aldia izaten da.

Atsegiñez ikasi nai, giroari bere tarte eta babesa billatuta. Udan egin nai izaten diran toki aldaketa, txango eta giro atsegiñetako arnas artzeak, ondo eratu eta baliatzeko asmo eta gogoz eginda.

Ikasle asko dira euren ikasketak sakontzeko batzarrak udaran egin nai izaten dituenak. Irakasle asko, urtearen beste illetan ezin, eta egun oneik pozarren artzen dakiezanak euren irakatsiak zabaldu, edo ta irakasle arteko artu-emonak sakondu, eta lagunarterako gertu egoten diranak.

Eta erakunde asko, gero ta geiago, denbora galdu barik, denbora pasa lez, udaldietako egokitasunean curen barruko ardura eta kezkak aztertu eta ezagutu naian alkartuten diranak.

Orreitako bat da A.I.D.L.C.M.

Anagrama ori frantzetar izeneko erakunde bat da: Association Inter nationale pour la Defense des Langues et Cultures Menacees. Au da, Zemaituta bizi diran Izkuntza eta Kulturaren zaintza edo aldezpenerako Nazioarteko Alkartea.

Montpellier'en batu zan aurten Uztaila'ren 29,30 eta 31'n.

Euskerazaintza, Euskeraren Erri Akademiak, artu eban bertarako deia. Eta gure adiskide dan Jordi Pou i Vidal kataluniarrari emon eutsan batzar orretarako ordezkari, Euskerazaintza'ko arloteok Jainkoa ren grazia besterik ez dogulako oraiñarte, eta nai genduken lez eta komeni dala uste dogun lez jokatu ezin dogulako.

Bastertu egiten gaitue.

Gu, bizi guztian euskeraren kezkaz ibili garean euskaldun jatorrok, euskaldun euskeradun artuta, jakiña, oraintsu Tximiñolandia'tik etorritako arpegi zikin batzuk ba giña lez ikusten gaitue, euskereari urra pozoituak emoten, ariñago il dedin.

Elkarte ori gordiña da bere eska bidetan, zeatza, zuzena.

Leku bakoitzeko izkuntza eta kultura indartu eta zabaldu bearraren erabagi zorrotz zale da, inguru bakoitzean bertako izkuntza dakien maixu maistrak eukitera beartuz. Ez bat edo beste bakarrik, danak baiño. Bardin beste agintaritza edo erri-ardura euki bear dabenak be, lenengoz beintzat bertako izkuntza jakin dagiela, bertako kultura ezagutu eta dagiela, bete zabalagoen jakite eta ezaupideak premiñazkotzat ezagutuarren.

Montpellier'eko erabagiak guretar asko gorrituta lagako leukez. Eta bateri baiño geiagori goitik berako arrada eragingo leuskioe, onetan, izkuntza eta kultura arloan artzen diran erabagi batzuen erruak noraiño ikutu eta kontu emon bearra euki leikien kezkatu eragiñez, eta egiten diran erri-eskubideen zapalketa

bat.zuk, ikusteko dagozan eta hipotetiku diran mesede batzuen izenean egin eta leikezan, zeatzago aztertu eragiñez.

Dana dala, udako beroaldietan be ba dakie aize leunak urteten, eta Montpe-
llier'eko batzar onek erdi lo dagozan izkuntza eta kulturako erakunde askori,
itxartu eta gozamina sartuko dautsela uste dogu, gure erri-min eta erri-
eskubi-
deen ametsak, benetakoak edo agertu nai diran lakoak ba dira.

2-IX-82

MOKOLOIAK

Toki askotan zabaldu doguz mokoloiak.

Orma, etxarte, kale eta bidetan ez gitxi.

Ez neuke esango mokoloi berba ondarrutarra danik. Azkue'k, bere Izte-
gian, nire erri onetan batutako lez agertzen dau. Aita ontzat daukagu askok le-
keitiar jakintsu jator a.

Itaun, galdera bat: gure bidetako adigarriak, erakusgarriak, mugalariak,
noiz ikusiko doguz garbi eta apain, zuzen eta egoki?

Lotsagarri dira agertzen diran asko. Uste dogu denborarik naiko igaro dala,
bakoitza bere deitura jatorrean ipinteko.

Aspaldi aldatu eta egokitu zituen toki batzuetan. Noiz elduko da erririk
euskaldunen inguru oneitako txanda?

Bide kurutzeak, gaur dagozan antzera ezin euki leiz. Batez be udaldian er-
bestekoak eta bertako asko zoratuta ibili dira bide-aldatu bearretan norako bi-
dea artu edo nundik jo igarri ezinda.

Ba dakigu errua ez dala gure erriarena. Gure izendegiaren ezaupiderik ezak
erakarri dauala jatortasun eta nortasun eskabide ori.

Beste askotan maixukeri asko egon da bitartean. Jator eta egoki egozan
izenei ezin kendu edo geitu lei ezer. Eta txo ta txu asko, euskaldun dirala pen-
lar dagoz, orrelakorik bear ez daben izenetan.

Izen jatorrak euki dituenetan euskera zarrekoa kendu eta euskera "barri-
koa" billatzen, ez deritxagu ondo. Izenak bere jatortasuna bear dau.

Batez be bide ertzetako kartelak, erri euskera jatorra bear leuke. Ulerterre-
zak egin. Eta utsunak lenengotik aldatu. Bat esateko, millatik bat aukeratzeko,

Berriz inguruan goiko bidetik ibiltzen gareanok, Lazpita baserrietxearen alboan, Andikona'rako bide tartea igarota, au ipini dabe:

Zarama ebekaturik. Bere azpian erderazko "prohibido basura" (sic) ipinten daben lez. konturatzen gara nora doan. Ba dakigu "zarama" berba erabilten dala, baiña ba dirudi berba orren esan nai jatorra "euri-zikin", "euri-lantxa" edo antzerako zerbait egokiago dala, nai ta orren kidetasunez beste esan-naiekin erabili.

Baiña beste berbak begiak artzen daben utsunea dauka. "Ebekatu" berbarik ez dago, debekatu edo debetatu baiño, edo ta galerazo ezagunagoa gure errialdean.

Berriztar euskaldun jatorrak, ziurretik laster beteko dautse utsunetxoa.

Markiña inguruan ipini euskuen eta luzaro euki beste...zeren deitura? Lautada baten bildurtu egiten ziran asko goietan ete ebiltzan eta noraiño beratu bearko ete ziran Markiña'ra eltzeko. Gero, iragarri barriak ipintean, euskera eldu zan bertara.

Baiña iñok ez ekian "gana" izeneko auzo edo ballera edo ingururik an ete egoan. Izen "historiku" orreri be mokoloia ipini dautse, ta orain ez gatzetarako ta ez uretarako.

Ia alako baten danok txukun, artez eta zuzen agertzen ete garean. Euskera erabili daigun, baiña euskeraz. Ori da utsegitetan ez jausteko erarik errezena.

17-X-83

"MUNDIALAK"

Etxekoei baiño begirapen geiago dautse gure agintariak erbestetarrei. Mun datoz.

Mundu guztikoen ostikadak.

Ez ete dira izango izen orretako jokoak, euskaldunoi ostikadak emoteko?

Kontuan euki euskaldunoi diñodala eta ez euzkotarroi.

Ba dirudi urrea ta ezitia emon bear dauskuezala England ugarteko gizon lainotsuak, edo ta arri-olloren jaube diran Kuwait bakartadeko ori-baltzak, edo ta europar sorkaldeko makurrak.

Batzuk, orain lagako daben dirutza baiño geroagoko teknologi eta lan eta merkataritzazko artu-emonak korridu eta ospe obeago emongo dabela diño.

Ba dira euren tokietako andreak ikusi eziñez dabiltzan arabitar odol be-roak, emengo andra zuri ta gordiñekin lizunkerietan arri-oliodun dirutzak laga-ko dituela diñoenak.

Bilbo'k bere kolkoa garbitu dau datozan gertaeretako.

Kale ertz ugaritan ipini dau.San Mames'erako joera nundik egin leiken. Santi Mamiñe lege zarrerakc laga-ta.

Sekula bertako forofoei eskiñi ez dautsezan begirapen eta ederkaturak eskintzen dautsez erbestetarrei.

Nik ez dakit zelako kultur maillan elduko diran erbesbetarrak.

Egin daigun kontu amarikarren bat, ango Gabriela Mistral lako idazle ospatsuak Kepa Enbeita goratu eban aiña goratuta, Bilbo baten itaunka asten dala nun billatu leiken gure Urretxindorraren zerbait.

Izenik be ez. Kalerik be ez. Irudi bat be ez.

Egunkarrietan idazten asiko ba litz, erantzungo leuskioe-baietz, Bilbo'ko Udalak gogoan daukala, aspaldi egindako batzarren bateko agirien baten ba dagoa Prim kaleari izena aldatu eta Enbeita'rena emoteko erabagiagaz. Baiña oraindik agirian, ikusteko eran, ez dago ezer. Oraindik lengoan gabiltz.

Itxuraz, inguru guztietako katedralik geienak egiteko aiña argin euki eban gure Euskalerrian, gaitz billatzen dira gaur kale kantoietako izenak taillatu edo marraztuteko bear diranak. Urtetako lana, bitartean bestera pentsatuko daben udal gizon barriak agertzen ez ba dira.

Eta orrela beste gauzak.

Arpegia garbitu eta zimurrak kentzeko edo estaltzeko gogoia igarri leikie erbestetarrek.

Kimu barriekaz datozan zugatz mardul eta zarretan batez bere. Eta arpegiak garbitu dautseguzan irudietan eta etxe-aurretan.

Alaz eta etxekotasunik, etxeko berorik, Euskal Erriko garrrik ez dabe billatuko. Euskal biotzik ez dabe ezagutuko Bilbo'n.

Goiko atzamar lodia igarriko dabe. "Mundialei" ospea emoteko, ostiko jokoan aldi onetan, euskal txokoari eskintzen eutsen eguneko ordu ta erdi inguru be, eurentzako "informativo regionala" zana bera be kendu egin dabe irrati batzuk, txokokeri barik ostikadei ordu guztiak eskintzeko asmotan.

Ostikadarik andiena, lenengoz beintzat, Euskalerrinari. Izan be orsai egoten baiño ez euskuen erakutsi, dirudianez, edo guk dogu jokera ori artuta.

San Mames'en jokatu edo Santi Mamiñe'n pentsatu.

MUSIKA IXI LLA

1983 urteko lenengo nire idazlana "il kanpaiak" d.eitzen zan.

Gabonetik gabonzar'era gertatutako iru euskal idazle ezagunen eriotzak gogoratu nitun.

Elbira Zipitria'tzaz au esaten neban: "Zegaitik eskatu ete eban Sollube'ren gerrian, Mañua'ko kanposantu bakarti eta txikitxoan, itxasoaren gain, ia Euzkadi guztiko itxas laiño zuriak batzen diran inguru aretan bere azurrak betiko atsedenean gordetea?"

Lazkao'tik datorkit erantzuna. Garate'tar Miren da argi emole. Onela diñost: "Irakurri dut zure eguneroko zatitxo DEIA'n. Erantzun nai diot Elbi galderari.

Urte mordo bat igaro da. Egun baten, lenengo aldiz Mañua'ra iritxi zan eta illerri artaz maitemindu. Azken berpiztea itxoiteko ze leku zoragarria, zion. Arrezkero bere ikasleekin izan zan eta baita ere Euzkadi'ko Amama'ri ikustaldi bat ere egitera. Bere azken naia ba benekigun lagun guziok. Eta bete egin degu".

Orra emakume andi baten guraria. Azken berpiztea itxoiteko, toki baketsu eta zoragarria nai.

Ala euki egizu azken urtetan euskeraren eta ikastolen giroak ainbestean garraztu zinduzun Elbira!

Iru arein eriotzearen gain, Erregeak beste euskal idazle jator baten eriotza ekarri dauskue.

Barruko miñez, nai gabez, kezka eta eldu eziñez bizi zan aube. Aita Gaztelu kaputxino entzutetsua bere denporetan, emen eta Ameriketean. Barruan ba fraile abitua kendu ta sotana jantzi eban. Euzkai'ra etorri eta laiñoak. Or bera betirako minduta. Orduan Donosti'ko gotzain zanak onartu ,ez. Eta ez konbentu ta ez parroki, eskale lez bizi bear, irabazi barik, euskal argitaldari bategen lana emonarte.

DEIA onetan M. A.'k egoki idatzi eban beratzaz. Bere euskal nortasun eta ekintzak gogoratzen zitun. Ez dagokit bere bizitza aztertu ta luzatzerik. Baiña bai gogoratu-bere kezka, bere miña, bere larri eta barruko naigabea, gure artean sortu zan euskeraren egoeratzaz.

"Musika ixilla" idatzi eban. Ba dirudi euskaldunok bildur gareala. eta gure gauzak ixil gorde nai doguzala. Norberari itto eragin eta norberagan ittotoke.

Maite dabe gure olerkariak ixilla esan naia, berba. "Musika ixilla" "Gazte

"Negar ixilla" erabilten eban "Lizardi"k. Negar ixilla darion miña, berak esaten eban lez.

"Gaztelu"ri agur egitean, Fray Luis de Leon'en "Qué descansada vida" da-

torkit gogora. Eta olerki onen asiera Joan Iñazio Goikoetxea, "Gaztelu" berberak euskeratu eban lez gogoratu:

*Bai benetan doatsu
mundu-otsori itzuri doana,
eta lurrean jakitun
bakan izan diranen
bidexka ixillez dabillana!*

Gaitasun berezia eukan poetarik gaitz eta biurrienak, euskerara erraz eta neurri labanetan ekarteko. Bere itzulpenakaitik "Orixe"zanak idatzi eban: "Xoragarri zaizkit niri, ta ala zaizkiela, nik uste, gaiñekoeri".

Oraingotan bere bizitzari egin dautsa azken itzulpena musika ixillean.

I5-I-83

NAIGABEZ

Ni txiki nitzala, gure errian ia gauza arrigarritzat eukiten gendun kaleetan, edo plazetan, edo lixiba egiteko erreketan, edo ta leiostatik leiotarako errietarik ez entzun eta ez ikustea

Askotan famili berbertakoak izaten ziran. Eta azkenean gona barrenak zeiniek garbiagoka amaitzen eben, orduko gona luzeak jaso eta barrengoak, azpiko gona zuriak erakusten.

Asko lotsatu egiten ziran eurei begiratzen, edo zurbildu eurei entzuten; beste batzuk mindu. Ori orrela ta... azken baten, uzterik gitxienean alkarregaz batu bear izaten ziran.

Parkatzeko adorea lortzen ebana, baretuten zan. Arrokeriz edo bekaizkeriz makurtu nai ez zana geiago itsutu.

Urteak geroago onetan ospatsu zan andra bateri atara nai izan neutsan ortaraiño elduteko zegaitiren bat, eta berak iñostanez, brixak urtenda errietan be-roen ebillanetan,' nerbioak eraginda ibilten zala eta gero, oian etzanda, negar egiten ebala mara-mara, askotan uzkeri bategaitik etxe beteko nastea sortzen ebelako edo beintzat ala iruditu eragin. Eta andik laster, ezkontza edo jaien bat bitarteko, danak konbidautza bardiñean jaia ospatzeko zein arroago, zein emonkorrago eta zein eskubidetsuagoka ezagutzeko. Ori be gertaten zan.

Zorionez lengo eun errietatik bat ez cia orain gertaten. Errikotu egin gara,

gizatu, entzuten ikasi, esaten jatortu eta bizimoduari alderdi obeago batetik begiratzen alegindu. Nai eta tartetan...

Euskaldun asko garratz ikusten gara. Lotsatuta batzuk, besteak gangoriuta.

Sekula jaurti ete dautsagu alkarri orain-aiña ziri eta destain, gure arteko pentsabideko ikuspegi eta jokabideak dirala-ta?

Ez gagoz ixiltzeko. Eta ori be akatsa da. Askotan ixilune batek negarrak eten leiz edo ta berba erdika batek beretik. atara. Baiña gu ez gara diplomatiku. Zirt-zart esatekoak esan, inguruei begiratu barik, eta kittu.

Edozeiñek dauka itza gure artean. Eta egia eta makilla. Batzuk eskubide osoz, besteak eskubideak lotsa barik artuta. Batzuk oituraz, besteak ausardiz. Batzuei txamarra zarrekin, ukondotik be urten egiten dautsez berbak. Besteak, txamarra barria jantzi ordurako, pontifikatzen alegintzen dira.

Danok gara erri baten seme, danok gara errikide. Baiña ez ete gara zerbait geitxuago izan bear?. Eta erri maillan geitxuago izate orrek, ez ete gaitu beartuten gure artean, zaindu eta gidatu nai dogun erri baten aurrean, geroari begiramen geiago eukitera, erriagazko lotsa eta ardura itsukeriz eten barik?.

Onela jarraitzeko gogoia ba dogu, abade zar batek bere eleiztarrekaitik esaten ekiana esango dausku guri be erriak:

Arek eta onek eta orrek-eta, eten egin deuste erroketa.

Eta gero ia nor ausartuko dan eta zelan urten bearco dogun isopoagaz ur bedeinkatua zabaltzera.

26-I-1985

NAPAR AIZEAK

Aldi baten, gure artean be, sartuta egoan alako "los últimos de Filipinas" esaera lako bat.

Naparroa'ri begira, eta euskerak an daukan egoera aztertuta, izerdi otzetan geratzen da bat.

"Xalbador" literatur saiotarako deia artu dot. Igaz epai maiko egon nitzan. Lan on eta atsegiriak agertu ziran batzuk. Aurten be igazko antzera, Iruna'ko Aurrezki Kutxak bere literatura leiaketan artean, euskal sari bat dauka. Kontu, kondaira, oitura, joko abesti edo "deskribapenak" gaitzat artutako lanentzat.

Ikusten danez lanen gaia askea da. Azaroren 13 .egunerako bialdu bear lanak.

Euskerari omenaldi txiki bat. Oroitza. Txalogarri da.

Ta?

Filipinas'ko azkenetako edo Cuba'ko ondamendi osteko arnas estudun gizonandi lez daukat Estornes Lasa bat, Erronkari'ko euskarari esku bateko atzamarrekin zenbatuten diran lagun bat edo bigaz eutsi naian. Espiritu Santuak argi dagitsela euren irutasunean, besterik ezean artxibutarako lekuko edo testigu bat lagaten.

Eta umeen artean zer? Gaztetxoen artean zer? Zer egin bear eskoletako I umeen artean euskerari bizi eragiteko, edo ta zoritxarrez, eutsi al izateko?

Euskal erreñu izan zan errialde jatorra, anaien arteko berotasunetik urtenda bakarrik ibiltean, bere onoinen batzuk zaindu al izateko indarrez biziko ete da?

Adibide bat. Olazagutia. Eskoletako 254 umetatik, bat bakarra da euskera dakiana. Zeinek ziurtatu ume orrek euskera galduko ez dabenik?

Eta bere ingurura ba goaz, auzoerrira ba goaz, aukeratu Altsatsu. 720 umetatik ogetabostek bakarrik dakie euskera, eta beste amabik ulertu egiten dabe. Baiña 683'ek ez dakie.

Ord'ez beste erri bat aukeratu: Goizueta. Berreun eta bat umetatik, bi bakarrik dira ez dakienak. Zeiñek esan emen, ume bi orreik euskera ikasiko ez dabenik, besterik ezean lagunarteko ekiñez?

Ba dagoz itxaropena aizetzen daben erri batzuk. Etxarri-Aranaz'en, bat esateko, 298 umetatik 155'k ba dakie eta beste 52'ek ulertzen dabe.

Leitze'n, 564'tik 488'k ba dakie.

Baiña Barañain'en, 947tik amabi dira dakienak eta beste amazortzi oztaozta ulertzen dabenak. Beraz 917 ez dakienak. Talde ederra.

Edozetara be, euneko edozenbat emonda da be, euskaldun geratzen diran erriak urritzen duaz.

Ori da guretzat kezkarri.

Foruen sendotze edo "amejoratze" eztabaidatua ez dakit eskubideen ezau-pide zabala izango dan edo ta geiago ez kentzearen mailladi bat.

Baiña amasei euskal errietako eskoletan dabilzan 6.546 umetatik 3.509'k tutik ez dakiela, eta gaiñera beste 492'ek ulertu bai baiña egiten ez dakiela esatera makurtu bearra, ez da ain zuzen Lizarraga'ko tunel inguruko bigiratokitik ikuspegi argitsu ta ameskorra ikusten egotea.

Zeiñek billatu ta zaindu ardien artean Olazaguti'ko bildots bakarra?

NAPARROAN IL

Bakoitzak berea ta kezkarik ez daukana ez da gizon betea.

Esaera zarren zale zan - ta ba ekiazan une bakoitzerako egokiak gordeten.

Il barri dan Aingeru Irigarai adiskide neban. Goiko esaera ori gogoratu eustan osasunez larri nebillan baten.

Txikitan ezagutu gendun bere aita "Larreko"

Gero Aingeru. Ba daukez, bata ta besteak, euskal gaietan jarraitu leikioen ondorenak.

Osagille ta euskeltzale; mesede asko egindako osagille eta onura asko lortutako euskaltzale. Batean ta bestean on, arduratsu, jakintsu eta zintzo.

Ainbat karta dodaz bereak. Geienak txostenak, azpi-marraz beteriko egunkarien zatiak; aldizkarien orriak; "separatak" eta abar. Eta bake billako kartak. Euskaltzaindiko joerak erdiratu nairik alegiñetan ibili zan denporetakuak.

Berari esker irakurri izan dabe naparrak euskera ia astero ango egunkari baten.

Napartarren euskera gozo ta loratsua atsegin eban. Garo usaiñez betea. Itxas brastada bakoa. Gure euskera olatuz betea zala esaten eustan berak, samurra batzutan ta bestetan, bat bateko galerrenetan lez, zakarra.

Ezin eban nire izenik iruntsi: Augustin ordez— Agosti deituten eustan eta. karta ta deituretan alaxe ipini.

"Egan"en denporetan Mitxelena, Arrue eta Irigarai bera ziran aldizkari ori aurrera ataraten ebenak. Literatuta utsa erabilteko be trabak egozan aldietan ametsez beterik ekiten eutsen orretan.

Erri kontuak jakin, batu eta idazteko garra eukan. Atsegin zitun, baiña gordin eta lizunekaz atsegin berezia artzen eban egiazko erri kutsua an igarten zala-ta. Naparroako kontu eta eskutuak, batez be zarrak, zorabiatu egiten eben. Olakoentzat zaletasun berezia eukan eta askotan esan naia erraz igarri. Ori zan berea: Naparroa.

Nik uste dot azkena noiz datorren igartea ez dala gaitza. Askori gertaten jaken lez sinistu nai izatea beste bat. Azkenetan barbarik ezin aoskatuta ikusten gendun. Orrelakoetan bera urduri ta beragaz dagona be keixu egon bear.

Berak igarria eukan azkena. Origaitik bere azkena Naparroa'n egiteko guraria agertuta eukan, beretzat Euskal-erriaren ama-lurra Naparroa'ko gordeten ebalako.

Naparroa'n il eta lo...danon itxarkundearen zai.

Ori izan da bere azken naia eta semeak ukatu ez dautsena.

Euskerak eta euskal gaiak zor asko dautse Aingeru'ri. Etenbako idazlea: "Irular" eta "Apat Etxe-barne" ren deituraz batzutan eta beste askotan nortasun osoz egin, idatzi eta agertutako lanen ordez, zorretan gagokioz. Baiña bere ar-

dura berak egin eta besteei eragiten izan da. Orretan benetako zirikalari ageritzen zan. Origaitik bere onu eta bultzadaz besteak egindakoen mesedea be zor dautsagu.

3-XII-83

NEGUKO ESTROPADAK

Batel eta treñneru estropadak ikusteko iñoiz baiño aukera geiago eukiten dogu azken urteotan.

Deitura bat edo bestegaz ainbat jokatzan dira Bilbo eta Donosti'n, eta gure itxas ertzeko erririk geienetan. Eta gureak aukera eukiten dabe Kantabria'ko uretara joateko be.

Origaitik erriak gero eta bandera geiago daukez orretan irabazita. Eta aurtan Zumaia'k euki daben zoria barriztu ezker, laster erriko alkartetan tokirik ez leuke eukiko estropadetako sariak gordeteko. Pañu onak arketan sartu bear, kutxa zar apaiñetan.

Baiña uda amaituagaz batera, treñneruak gorde dituez aterpe berezietan. Treñneruentzat ez da alako "san Simon eta Judaetan ontziak ankoraetan". Legorrean gordeten dira, ondo zainduta.

Len, gure gizaldiaren asiera arte, estropadetako txalopak arrantzan erabillezan ontzi berberak ziran. Sarri itxaso berbertan erabagitako estropadak, alkarran leian arrain tokira zein lenago sartu edo ta errira arraiñagaz zein ariñago eldu jokatzan ebenetan.

Estropada egiteko neguko eguraldi txarrak be ez zituen atzeratzen. Eta ez ziran jokatzan gaur lez kai barruetan, edo ta itxas-ertzeko ibaiaren zabaleretan. Itxaso zabal eta gordiñean ekiten eutsen.

Orrela gogoratzen dira Matzaku'tik Santa Katalina'ra, edo ta emendik San Anton muturrera edo ta andik Pasai aurrera egin eta jokatzan ziranak; alboan eroaten zituen beste txalupa jarraitzalle batzuk lekuko zituela, geien bat be ondoratzen bat gertaten ba zan laguntzat.

Gaurko estropadak ogei minutu inguruakoak izaten dira. Lau bidar geiago irauten eben ordukoak.

Itxasokoen ardura andia izaten ba zan be, legorrekoen kezka ez zan gitxiago izaten, ezin ikusita eta batez be bata-besteagandiko alderantzia ezin igarrita.

Errien artean zotiñik geien ataratako estropada bat Abendu onetan jokatu zan 1890 urtean.

Azilla'ren 23'an jokatzeko zan, baiña ekaitz gogorrek gertatu ziralako atzeratu bear. Bosna milla ogerleko jokoan. Donosti eta ondarrutarrak leiaketan. Ondarrutarrak galdu eben. Baiña gaur be batzuk ez dabe sinistu nai estropada a jator, garbi eta zuzen jokatu zanik. Bitartekoak eskutuan geratu zirala diñoce.

Jokoan ez da beti irabazten. Jokolaririk jatorrenak eukiten dituez euren goraberak. Eta jokoa joko lez artu.

Edozetara be luzaro mindu zitun ondarrutarrak estropada arek. Galdu zalako eta...beste erri batzuk gertaera ori artu ebelako erria zirikatu eta berotu nairik. Erri batzuk, galduarren, anaitasunean jarraitu eben. Besteak, atsegiña artu iñoren galtzeagaz.

Ortik bateko ta besteko bertsuak, askotan bertsolariak erosten ziralako goraka edo berakako bertso paperak atarateko.

Laster jakin eban Ondarroa'k bere estropadetako gaitasuna ta erantzuna emoten. Ori zan jatorra. Itxas-erriak, uda eta negu, gaur -baiño sentikorrago artzen eben estropada baten ondorena.

10-XII-84

NESKAK ETA ESKOLAK

la bost milla bizilaguneko erri baten, gure gizaldiaren asieran irakaskintzarako ez egozala maixu bi eta maistra bi baiño jakiteak, errukiz beteten dau bat.

Eta ogei urte lenago bat eta bat bakarrik egozala esateak, gizaldi orreitako irakaskintzari buruzko giroa ezagutzera eroaten gaitue.

1848 urte arte, erri aretan, neskak sekula erakusterik ez ebela euki jakiteak be zerbait adierazten dau.

Eta ori egia da, egi garratza baiña agirian dagona, paperetan ziurtatu gein-kena.

Ez dago urrunera joatea ziurtatzeko. Ondarroa'n gertatu zan ori

Jakiña da erri askotan, euretako agintari eta gurasoak ez ebela nai izaten emakumeei eskola erakusterik.

Or dagoz erriak, or gizonak eta abar, emakumiei irakurten erakutsiarren,

idazten (eskribiduten) ez zala erakutsi bear esan eta erriko batzarretan erabagi ebenak. Zegaitik? Ba maite-miñezko kartak egiten denpora larregi galduko eben aitzakiz.

Ala Juan Bta. Agirre, Asteasu'k bikarioa, bera idazle jatorra izanarren, neskei idazten erakustearen arerio zan, idazten jakiteak arrisku asko eroango eutsezalako.

Egon ziran besterakoak be. Kalekoak eta eleiztarrak. Ezin ukatu.

Dana dala; jakin bearreko da baita be, 1.820 inguruarte ez zala eskatzen maixu nortasunik, titulorik irakaskintzan jarduteko.

Esan dodanez nire errian ez zan maistrarik egon 1848 arte. Ain zuzen Ea'tik etorri zan; Marina Sagarbarria.

Ipini eutsezan baldintzetan errial bat baiño geiagorik ez eutsala iñori illean kenduko, zela-ala irakurten erakutsi arte. Gero idatzi, zenbatu, josi, kaltzeta egin, eta abar ondoren errial bi kobratu eikezan, eskoletan egiten zan lanerako aria maistreak eroaten ba eban, beretzat geratzen zan egiten eben-lana.

Umeak aurreratzen ez ba eben, erriaren eskubideko zan agiri bat zabaldu (expedientea egin) eta artu bear zan erabagia artzea. Ori eskola etxea maistrak berak billatu eta ordaindu bear ebala.

Arrigarri da, nesken irakasteai mutillenari ipinten eutsezan baldintzak ez ipintea, au da, eguneroko errosariora joan- bearra, larunbatetan kalez kale errosarioa kantatzen ibili bearra eta abar, eta jostatzen ebiltzen mutillei zigorra emon bearra. Ori bai, neurritz emonda itsutu barik, eta ez makillakin, zapladak emonda baiño. ("Castigo con moderación, sin meterse en cólera y no con palo, sino con azote). Alkatea geratzen zan gurasoen asarreak entzun eta bear zana erabagiteko.

Beste baldintza bat: aulkiak emoten jakoezan eran biurtu bear zitula maixuak ikastaroa amaitzean, bestela maixuaren kontura ziran konponketak edo barriak egitea.

Zein izango litzake gaur irakasle orrelako baldintzekin?

29-9-82

NIGAZ BERBETAN

Oraintsu deitu eusten, kaletik jakin barik adierazoten eustela, auteskunde oneitan ni be jokoan sartu bear nitzala.

Entzun eta ixildu nitzan.

Bereala konturatu nitzan bestientzat eskatuten dodana, niretzat be lege bear zala.

Eta nik beti esaten dot, erakunde baten sartzen danak, aginduten dautsena egitera makurtu bear dala.

Ori dala ta, nire buruari itaun (galdera) batzuk egiteko aukera daukat.

Lanerako gertu?

Betiko antzera

–Gogoz?

Beartuta be gogoz egiten da

Zeiñek beartu?

–Urrutzikiñetik deitu eusten, Batzar nausietarako autesgai aukeratu nin-duela.

Eta?

–Aitzakiak ez dabela balio Alderdiaren barruan.

–Orrela dala?

–Ondarroa'n esaten dan lez grak eta blast.

–Gernika'rako autesgai zareala, aldun urten ezkerro, zer?

–Beste edozetan lez, alegiña ipini bear gauzak beteten.

–Zure jokabidea?

–Ortarako aurrez jakin nai litzake Batzarren zeregiña.

–Zek kezkatuten zaitu?

–Euskerak.

Euskerak ez dau gaur indarririk.

–Euskera barik ezin lei nortasunik eskatu Euskadi'k.

Zek geiago?

–Erri txikien egoerak. Lanik ezak, gaztediak...

Eta Bilbo'k?

Ba dauka indarra konpontzeko. Arrantzaliak esaten dakien lez: Bilbo ez da leorretik galduko.

Zegaitik zuri botoa emongo dautsuenak ia besteko birek aiña balioko dabe?

–Zegaitik erri txikietakoak ia lauk aiña ordaindu bear dabe?

–Kontu egin. Gaixotegi, kultura, atsegintoki, ikuskizun danetan

–Zergak merkeago.

–Zeiñek esan? Itandu Ondarroan. Laterriko oiñarrien gai % 140 errialderako.

Ondarroa berezia da.
Bai, illeta joten.
—Aitzakiak ipinten?
Ondarroa'k erri txikien pekatu dauka. Andien egokitasunak nai ta po-
breen sarrerekin arpegi emon bear.
Urteak ez zaitue estutzen.
Ez naiz eldu zazpi amartzera.
Zeaztu daigun zure jokoa. Itxasoari begira?
Kresalaren gatza kendu eziñik darabilt soiñean.
Eta baserriari begira.
Soiñean darabilt gurasoakandik datorkidan odola.
Orrela, zeñientzat lagaten, dozu eskola?
Bizkai legeak adar asko ba daukez be, kerizpe andiko dabe arbola.
Ia arbola orreri kentzen dautsazun txapela.
—Lenago ingurukoak sartu bear nire aldezko txartela.

2-V-83

NIRE BURUAREKIN IZKETAN

Kaixo Agustin?
Parkatu . Augustin.
Zelan ori?
Alaxe ipini eustelako.
Ori al da euskal izan jatorra?
Sabin'en izendegian orrela dator. Ala baita niri ezarri eleiz eta erri agirietan.
—Euskal izen jatorra?
Satorra!
Aldatu al dozu atorra?
--Lengo tokian nire gangorra.
Ta orain nungo zara? Euzkadiko ala Euskadiko?
Euzkadiko.
Beraz "alderdiko"?
—"Alderdiko", batzuk baiño lotsa geiago dautsat Maixuari. aberriaren esna-
tzalleari.

—Zure ustea izango da ori.

—Bein ipintzen da izena. Eta santusantak agertu ta aldaretara igo ta be, Kristo beti bere lekuko.

—Gaitz zara ulertzen.

—Besteak errez okertzen.

—Zu okertu zarean lez.

—Ni? Zetan?

—Len Euskaltzaindiko. Orain Euskera-zaintzako.

—Minduta?

—Ezin ukatu erri euskera zaleak azken urteotan mindu gareanik, bizkaitarrak bereziki.

—Batasunaren aurka?

—Batasunaren aurka sekula ez. Baiña erri bidetik, ez erdera bidetik.

—Argitu zaite.

Euskaldun iaio giñanok uste dogu jatorriz dakigun izkuntza indartu ta bizi eragitea dala lenengo zeregiña. gero ezaupide ta bizitasun orrekin alkar artzeko.

—Ta besteak?

—Beste erabide bateri lotu dira. Gero ta lotúago.

—Argitu pixkat.

—Esate baterako, gu ez gatoz euskaldun jatorrei erderarik erakustera.

—Ez da guri dagokiguna.

Ez gatoz erderari euskal esan bidea sartu ta geitzera. Gu euskerari bere atsa. bere gatza ta bere ardatza zaindu nairik alkartu gara.

Ez gatoz euskera iatorra manetofonoz zintan artu ta biar edo etzi dokortzea lortu nai dabenentzat gordetera.

—Baiña nai ta ezko dozu erderagaz edo erderekin baliatzea.

Bear danean, beste edozein izkuntzen antzera. Baiña erabili bear dan itza euskeraz ba dago, erriari jarraitzen alegindu bear gara. Esate baterako...

—Ta diruz?

Jakiña, asieran aldatz gora luzea igo bearke. Eta ortozik. Baiña erriak aupatuko gaitula uste dogu, zer nai dogun konturatu orduko. Erri bidea nai dogula konturatu orduko. Aita-amak eta serore-alabak batzuk dakien euskera ta bestiak ikasten dabena, gero ta biziago alkarrekin euskeraz egitera beartuko ditula konturatu orduko. Zoritxarrez. gaur, etxeko jardunetan, batzuk eta besteak ezetsi egitera oartuten doguz.

—Ortozik esan dozu?

Alaxe da ezin ukatu. Esku utsik eta ortozik.

Euskaltzaindi ta Euskerazaintza ulertuko zarie iñoiz?

—Zoro izango giñateke ori ukatuko gendu. Batzuk bietako gara gaur beintzat. Ez gatoz aari topekan jokatzera.

—Azken galdera bat. Zure sustraia gerkeraz Haugustinos ba litz?
—Ni beti mikeleteen aldeko. Gauzak erraztu bear dirala. Ta izenpe edo firma erdika naiko ta lar dala askotan. Len gara alper ugari basterretan izkuntzan ere izki alperrak sartzen alegindu barik.

Diario Vasco 7-I-79

NIRE GOGOETAK

U28'ko auteskundeak igaro dira.

Erria zeñekin?

Eskubideak eta odola alboan lagata, Nafarroa urrun dago gure egokitasu-netik. Urrun.

Ezin geinke itsu bizi. Urte askotako alegiñak dira, gaurko pentsabidea aldatzeko.

Guk aldatu bearco dogu, bear ba da, Nafarroa'ri begira erabili izan dogun jokabidea.

Sinistuteko gaitza da Lizarra lako erri baten "-gure" alkatea euki gendula pentsatutea, alkate ori martiri ii zala gogoratzea, eta gaur, autarki argal batzuk baiño ez eukitea, edozetara be autarkien euneko amarrik ez lortutea.

Eta ori tokirik landuenean, adizkidetsuentzat euki izan dogunean. Orrela Nafarroa'n.

Eta Araba'n?

Gure biotz eta gogozko ate zabaltze guztiak, ba ete dauke bestaldetik etorri diran eta datozenen ezaupide eta makurpenik?

Euskal erriak urte luzetan eukiko dau buruauste au. Bear ba da gaurkoen semeak, eurak sortu eta sortuko diran etxeko ardureagaz kezketan asi arte. Etxeari begira asi arte.

Gaur gaurkoz, ez dago urdail eskertsurik. Egia esateko, gizontasuna galdu egiten da urdail utsari begira bizita. Gaiñetik-duaz pentsabideak eta jokabideak. Etorri diranak lanean lagundu dauskue, baiña euren lotuerak bestaldean eta bestealdekoekin dagoz.

Gogoratu. Nundik joan dira eritziak Araba'n?

Gerra aurreko arabarren jokabidea gogoan daukat. Orduan be ez etozan gugaz. Besteen indarrez gaindu zan Araba'ren argalkeria. Ori da egia.

Eta orain be euskal abertzale deitzen diran alderdi eta talde guztien autarkiak batuta be, erdi inguru batzen dira botoak. Eta gaur gaurkoz dagon alkar arteko aldia ikusi eta banatzen asten ba gara, irutik batera ez da eldu gure aldeko indarra errialde aretan.

Ori orrela, Eusko Lege Biltzarrerako auteskundetarako beste begirapen batetik erria eratu ezik, Araba'tik etorriko litzake, ain zuzen be, bertan dagozan agintaritza indarrak, gaurko al eta osotasunik ez eukiteko bidea.

Ezkor nagola esan lei norbaitek.

Naiago neuke bestera agertu, baiña eskuetan euki giñeiz azken kopuruak, eta erraz igarri lei gaurko jaubetasunari eutsi al izateko, lan egin bearko dala, eta batez be zur jokatu.

Etxea baretu daigun lenengo. Gure artean doguzan buruauste eta ezbardintasan txikiak lenbailen eten bearko dira.

Ezingo gara garrazkeriz ibili euskera dala-ta, edo ta gizarteko pentsabidea dala-ta.

Ez ziran sortu be-egin bear garrazkeri orreik. Gure-libertadeak zabal ikusj nai doguzanean, ezin giñei gure eskubideak zaintzeko alegin, ostera eta eztabaidetan luzatu.

Onelako kezka eta ardura barik jokatzeko ordua da.

Urte bat edo bi konturatu barik igaroko dira Eta gogoan euki, urte bi oneitan, etxeari buruzko auteskundeak eukiko doguzala.

3-XI-82

OKERRAK ZUZENTZEN

Erriak batu eta alkartu eragiteko garra igarri gendun azken urtetan. Politika.

Errien eratasuna barik, agintarien erreztasuna billatu nai zan.

Alkartasunean bat buru eta besteak menpeko geratzen ziran. Batzuk, legerako, izenak be galduta.

Ittotasunak kenduko eutsezalakoan, len baiño estuago laga. Eta asarrera biztu eta bizitu, len baketan ebiltzan erri askoren artean.

Ala igarri izan da Bizkaia'n egin ziran bateratzetan, Bilbo'ko erreka ondoan, nai Txori-erri'n, nai Gernika aldean edo ta Markiña ingurutan.

Gaur atzera lenera etorri edo biurtu nairik or dabiltz. Barriro bakoitzak bere buru jaube izan nai.

Erri batzuk errez dauke, ostopo barik. Besteak gaitzago. . Batzuk garbi daukez lurraldeak beste batzuk auzoko erriak erdi-iruntsita.

Alderdi batzutako erriak, banatzean, len baiño problema gogorraguak eukiko dabez. Besteak orrelako burukomin barik asiko dira, edonoiz erabagita be, euren jaubetasunean. Or dago aldia.

Banatu bearrean dagozan errien artean Ondarroa eta Berriatua dagoz. Bata uria (villa) eta bestea eleiz-atea (anteiglesia).

Bata bestearen lurretan sortua; gaur, eta ez alkar konponketaz, lurra emon eutsazanari bereak kendua.

Ba dago ortik be miña eta txistu garratza irunsi bearra.

Ez da bardin orrelako lur-menpetasunik euko bako bi banatu edo alkartzea, erri askoren artean gertaten dan lez, edo ta len be, luzaro, jaubetasunen aitzakiz eztabaidetan ibiliak gertatea.

Baiña politika baten, estutzea zana, indarrez edo gogorkeriz alkarri batzeaeragitea zana, gaur estuntzak eteteko giroa dago, bakoitzaren mesedean azkatuteko giroa.

Borondatez edo ta politikako jokabidez.

Azken auteskundeak egin ziranean eta udal barriak osotu, alderdi guztiak Berriatua'ri berea emon bear dala bat agertu ziran.

Urteak igaro dira eta oraindik matsak batzeko.

Egia esateko, Ondarroa eta Berriatua'k lege-azpiko konponketa bat egiña dauke. Berriatua'ren lurraldiari dagokiona an dagon Batzorde eragille batek eroan eta erabagiten dau. Ondarroa'k legeztu.

Baiña aldiz-aldizko urteera da ori.

Oraintsu tekniku talde bateri agindu eutsen erri bien egoera aztertu eta banaketa jator bat zelan izan leikean ikasketa bat egiteko. A–naitu eben euren zeregiña, baiña ez da zabaldu.

Alaz eta ikasketa ori biotz onegiz egiña dala ei diño batzuk. Besteak, ostera, esku bizkorra erabili dabela teknikoak mugak marratzean.

Ondarroa'k bizi-premiñak daukaz. Berriatua'k jaubetasuna. Biak, baiña, senide on izateko gogotan.

Bitartean Berriatua San Gergorio jaiak ospatu zitun da, urtero bere jairik errikoienetan.

Ondarrutarrak, orain be, pozik eroango leuskioe San Gergoriori botilla bete orio, soñeko eta belarriko miñak laster kentzekotan.

OIZ'EN OIÑETAN

Sarri da Oiz mendia gertaera ez-bardiñen ikus puntua.

Bere luzera zeatza oraindik ziur erabagi barik. Esaten dan baiño metro bat, bi, iru-geiago? Or konpon. Orrelakorik jakin barik ondatu ziran, egazkinean bere lepotik zear ebiltzan eundak zoritxarreko ibiltari.

Kortaguren'dik Oiz tontorrera zenbat bide dagon jakin nai ezkeru, bear.ba da Euba'ko frailiei itanduteko erantzungo dautsue. Areik ei dakie bide ori goitik bera ala betik gora lenago eta errezago egin leiteken be, bai eta Oiz'ko perretxikoak ala Anboto Azpiko Atxondo ingurukoak bitamina geiago ete dauken belauneko loturak arindu eta nekearen minak samurtzeko.

Oiz'ek bere mendean daukaz Lekeitio, Markina eta Gernika, euren ibaietarako urak emoten.

Bere mendean dauka, baita be, Oiz'ek, Trabakua'tik zear duan Bizkai alde guztia.

Eta zoritxarrez, bideetan, Bizkai'tik errepede nausien artean, lotsagarriena bertakoa; oker, biurri, itsu, arriskutsu eta txartuen zaindua. Oiz'petik Cipuzkoa'ren mugara dagozan erriak erri, industri eta portuak, ez ete dagoz Bizkai barruan?

Pazientzi andiko gizonak gara inguru oneitakoak, baiña ez al da egia ondarrutarrak ezagutu eben Pazientzije" izeneko gizon jatorra be il egin zala?

Oiz'ek bere mendean dauka Ziarrotza be, antxiña erri aske, gaur Markina'gaz alkartua. Eta ango Kolejiata entzutetsua. Len bere gibelean euki zitun Kolejiata orregaz zer ikusi euken ainbat korta. Bai eta baserri askok, oitura beteten aleginduarren, lorrez irunsi al izan zituen amarrenen auziak

Erabide ori kondairarako, istorirako galdu zan, baserritar askoren mendean Gaur Kolejiata ospetsuan artea, mistika eta fedearen-irukoitza berpiztu nai da.

Baiña aidean dabil itauna: Noiz datoz fraileak?

Gabon jaien aurrean Oliba'ko fraileak bertara egin eben ikustaldiko osterabaten ondoren irakurri gendun gertu egozala etorteko, eta egun señalatu bat ipinteko Kandelario eguna izango zala ain zuzen- be egun aukerako eta gogoragarri ori, fraileak atsegin izaten dabelako Eleizako jaietako egun andiren bat orrelakoetarako aukeratzea.

Baiña egun a igaro zan.

Ba dakigu bitartean, len bertan bizi ziranen urterarako luzapenen bat egon zala. Baiña angoak "kaleratu" ziran, etxez aldatu ziralako, eta eragozpen ori kendu, fraileak biurtu al izateko.

Gero, barrero, ango beste auzokide batzuk, borondaterik onenagaz, besterik ezean domeketan bertan batzeko txokoren bat nai dabela jakin dogu. Aldundia,

bere aldetik, aginduak beteaz, inguru a fraileei bear lez sarratuta eskintzeko alegiñetan dabillala dakigu, eta auzokideak orrelako zerbait bearrekoetan, inguru aretik laster.utsik dagon baserri bat ortarako egoki leukela esaten.

Dana dala, Ziarrotza'n egiteko asko egiña dago, eta uste dogu fraileen etorrera zerbait atzeratu ba da be, Udabarriagaz edo kukuak inguru oneitara ostera egiten dabenetik urrun ez dala geratuko.

11 -II-88

OMENALDIAK

Erri batzuk azten igarten dira, anditzen.

Len min artuak batez be.

Bizi izateko nortasuna erakutsi nai dabenak, eskubidearen duin dirala erakutsi nai dabenak.

Ba dira orrelakoak Bizkaia'n.

Alde guztietan. Itxasertzean eta mendi aldean.

Berriatua da orreitako bat.

Oraindik Ondarru eta bien arteko muga barriak zeaztu barik, erri izateari arnas barria emon nairik gau ta egungo ekiñean diardu lanean.

Sortu bearco diran kale barriak eta bide barriak nundik eroango eta arrisurik gitxienagaz nundik igaro eragingo; erri eredu bat zelan eratu arduratan.

Erri jakintzaz eta erri oituraz, aizeen giro, eguzkiaren epeltasun eta itargiaren kiñuak gizaldien gizaldiz datorren jakituri eta ekanduz, nundik jo, berotu eta argitzen daben edozeñeri eztabaidatzeko gertu, komeni dana komeni lez egiteko, erri osoaren mesedean eta ez bakarren baten onuretan.

Probalariak euken len, eta oraindik jarraituten dabe, erri izenaren txosten bat.

Bertsolariak beste bat. Eta gero ta geiago.

Azken igandean Mugartegi'ri omenaldia zan. Eleizak eta erriak-eskinia

Abadearen sermoia bitsetan zabaltzen zan omenduari eta bertsolaritzari gorantzetan.

Eleizan bertan, parrokan, itxaropen argi lez, bertsolari bik jardun eben. Batek asi eta besteak amaitu eben meza. Guraso bertsolarien semeak biak. Arregi'renak eta Mugartegi berberarenak. Beraz etxe eskola ba dator, eta kalekoa baiño egokiago sarri.

Mugartegi zarra "nunc dimittis" esateko eran egoala pentsaten asi nitzan; baiña oraindik bizi erdi aurrez aurre daukala bereala gogoratu.

Bertsolari barriak argizaiolak burura ekarri eustezan. Ain zuzen egun bertan amaitzen zan Berriatua'ko parrokian gizaldietako oitura bat: familien illobietako (sepulturetako) kandela eta argizai-olak ipintea eta biztutea. Gizon lodi eta andre zabalentzako egiñak diran jarrileku eroso eta egokiak lenengoz ipini eta erabili ziran.

Sepulturetako gaztaiña zarren beko olzabalei argizari espelma eta koipeak kentzen eten egin zirala iñoen garbitzailleak, eta azkenean be zeatz kendu ezin, orain aulkien azpian geratzen dan beian.

Berriatua'n luzaro egin dau argi eleizak. Arimarako eta gorputzerako.

Eta egin daijala. Giroan giroko lez. Jai onetan ezagutu nituzan bertsolari txiki biak euren gurasoekaz egingo daben lez. Bide barriak, asmo barriak gurasoen keriza eta eskola bastertu barik.

Kalean be ba ziran jaiak. Dantza, joko, lasterketa, arrijasotze, kantu soiñu eta abar. Eta erriko seme bat Lertxundi taillagillea, Mugartegi mardularen begi apal eta biguna buztiñean betiko oroigarri lagaten.

Ertiliarik, artistak, alkar ondo ezagutzeko doaiz beteta egoten ei dira. Ezin ukatu.

Berriatua'n bertsolariak barruko miñagaz eta erritarrak eskar onaren alegi erria jasoten dakie. Urte askotarako ala bedi.

"ONDAR-IBAIA" ETA BIZKAIA

Gipuzkoa'ko Ondarrabi edo Ondarrabi zoritxarreko erria izan zan, batez be ingurutako errege eta agintarien gurarien ondorenez egiten eutsezan inguratze eta estuntzakaitik.

Gizaldi luzetan euki zitun erri onek orrelako indarkerizko estutasunak. Orreitako bat 1638 urtekoa izan zan.

Jauralaria (gobernadorea) kanpoan zalako edo al ezin ebalako, bilbotar gualburu (general) bat egin zan erriari eusteko arduradun: Domingo Egia. -

Inguratzea amaitu eta ez jakin bera alakoxea zalako edo ta eskutuko arrokeriz, bere emazteari karta bat bialdu eutsan, erderaz egiña, baiña erraz euske

Onela iñotsan: "Adiskide" Gerragoraberatan ezer ez dakizun lez,

esango dautsut, areioa lau zatitan ebagita geratu zala; zati batek iges egin eban; bestea il gendun; bestea baitu (preso artu) eta laugarrena itto. Jainkoagaz geldi zaite ni Ondarrabi'n afaldutera nuan artean."

Orduko kronikak ogeitabost rnila frantzetar gizon sartu zirala esaten dabe, beste berreun zaldidun eta artilleri indartsua.

Ez nitzan gudaketa au gogoratzten asiko, beratsaz bizkaieraz egiñiko kantu eder eta argi bat ba dagola esateko aukera euki ez ba neu.

Konbentu . zarretako liburutegietan, narruzko azalez apaindutako liburu asko dagoz. Eta ez dira beti azalaren izenak erakusten dabena barruan agertzen dabenak. Konbentuak jazarpen asko euki izan dituez eta liburutegietako arduradunak euki izan eben iñoiz teologi erakuspide zarren orriak atara eta euren lekuan bestelako eskutuko konteak sartzeko premiña.

Ala orrelako narrudun azalpean, Markina'ko karmeldarren konbentuko liburutegian, Ondarribi'ko gertaera bateko gudalburu izan zan Domingo Egi'aren gorameneko kantua agertzen da: "Canción vizcayna en mero verso hecha en alabanza de...".

Onela asten da kantu ori:

*Phelipe Hespñaco done andia,
escubetu dozu mundu gustia,
alegra vidi Christau erria
librada salaco ondar ibaya:
Ogueimila guizon, Francia errito
egozan aldibaten, su, emaiteco,
araco vizcail; Domingo Heguico
izanda bacarric, yrabazteco,
Jaun doneperi Deustuco batizadua
onradu izan dozu zeure lecua...*

Kantu onen egillea durangarra da Juan Baptista Alzola eta Muntzaraz.

Bere izenik ez da agertzen euskal idazleen aipamen eta kondairetako liburuetan. Beintzat ez dot aurkitzeko aukerarik euki; Bear ba cia boletiñen baten agertu lei, baiña ez da zabal agertua.

Kantu orregaz batean, Julian Gortazar eta Billala'ren soneto bat dago erde-raz, Alzola'ri bere lana, eskartuten eta ` Bizkaia'ri bere amarrena - emoten jakin dabelako txalotuten.

Guk be aizetu nai dogu,'edo gogoratu beintzat. Alzola berberarena esana eguia:

*Eguntaño Vizcaycoak orrelangorik
eztago eguin dabela escribiduric... "*

ONDARRAK ETA ONDUKO ARRAK

Gure iixasoa, Bizkai Kolkoa deitzen dana, irradi eragingarriz (radio-aktibitatez) kutsututa?

Amar urte beteko dira, edo zeatzago esanda, bere dira aurtan.

O.E.C.D.'k buruauste gogor bat erabillan.

Nora jaurti, nun eskutatu edo nun laga arrisku bizian erabillezan lau milla eta piku tonelada zakar, irradi eraginkarriz kutsutuak egozanak?

Lenengotan Mediterraneo itxasoan jaurtitea erabagi eben. Baiña laster jaiki ziran Itali eta España eta eurekaz batean Argeli, Marruekos, Frantze, Libia, Malta eta Monako.

Mediterraneo itxasoa eta bere inguruak txango ibiltarien aukerako lekuak ziran, eta kutsu barik zaindu eta lagatea premiñazko zan.

Beste tokiak be aukeratu ziran. Baiña izena entzun orduko, orruka asi ziran beste iru laterri andi: Ingalterra, Holanda eta Alernani.

Danak euki eben erantzun gogorra eta asmo guztiak bastertuta laga ziran.

Alaz eta Bizkai kolkoan pentsatu zanean, ez dakit zeren bildurrez, edo ta barriro lengora ez joatearren, Espanar laterria be ixildu egin zen. Eta orrela, Bordele'tik (Burdeos'tik) 660 mivatara jaurti zituen, zementu eta galtzairuzko kutxa antzekotan batuta, iñok eta iñun nai ez zituen zakarrak, ondarrak.

Bilbo'ko egunkari batek, Frantze'ko "Sud Quest"etik artuta lez zabaldu eban barri ori. Dotore eratuta, larritasuna zela ala arinduta eta gozatuta, baiña barri ori irakurri ebenak, idatziaren lerroetan, eskutu eta utsune asko igarteko eran.

Arriskuen bildurra amabost ogei urtetera atzeratzen eban Bitbo'ko egunkari orrek.

Bereala sortu ziran elkarte askoren kezka eta asarreak.

Zeñiek jakin edo ziur esan kutxa areik zenbateko iraupena eukien; zeñiek ziurtatu irradi-eragingarri edo radioaktibitate orren indarra noiz galdu leikean?

Gauza bat ziurra da: or egozala edo dagozala, arrain ugariren bizileku eta bizigarri askodun toki batera jaurtita. Ez jakin osorik irauten daben, edo ta onduko ar biurtuta geratu diran. Tekniku batzuk taster esan eben zortzi urte baiño len kutxa orreik desegiten asiko zuala be.

Trumoiak ots egin arte, iñor ez ei da gogoratzen Barbara deunagaz. Ba dago orretako esaera.

Orain, aurtan lez antxoa eta beste arrain batzuen utsunea gertatu danean, buruari ats eragiñaz, orren ondorena izan ete leiken be pentsatu eta gogoratu dabe batzuk.

1972 urtean, ain zuzen be il onetan agertu zan "Gudari" batek, zital ezetsiten eban jokabide rnaltzur a.

Beti lez Euzkadi'ren kalteak edo etorri leikiozanak, arranda gitxi eragiten ebela agintari batzuetan, salatzen eban aldizkari arek.

Ondorenak datozanean, arriskua aidean dago beintzat, edo obeto esanda, itxas onduan dago, ikusi bear, ezer gertaten ba da, errudunen autortza nok esango daben.

Arrantzale batzuk asiak dira, gaurko utsuna batzuk aztertutean, Bordele'tik 660 millatako itxas zuloan jaurtitako zementu eta galtzairuzko kutxa areitan, itxas uren indarrak, presiñoiak, ze biar egin ete daben gogoratzen.

21- VIII-82

OPOR ONDOREN

Batzuk oporretan, bestean lanean, uda ba dua bere bidean.

Urteak betikora garoaz, bizitzako lotuera eta egin bearretan: Lana, ekintza, ikasketa..., edo ta udan, bakoitzak jakin zegaitik, igarten ez diran beste egoereta: bakartade, gaixotasun, itzalpe eta naigabetara.

Laster asiko dira eskolak.

Lengo urtetan baiño utsago, au da egia. Len prisaka etxeak egiten. Orain, askotan, irakasle batzuk zeregiña euki dagien, ikasleen artean itxuratzeko banaketak egiten.

Zer gertatuko da amar urte barru, gaurko joeran, ikastetxetan, Unibersidade maillakoak alboan lagata, bestelako eskola, ikastetxe, kolegio eta abarretan, ia eun eta berrogetamar milla lagun gitxiago batzen ba dira?

Or dago beste konturagarri andi bat. Gaur irakasletza begi onez eta urteera egoki lez ikusten dan bizibidea da, baiña amar urte barru gaur baiño sei milla irakasle gitxiago beariko dira gure lurraldean. Beraz barrientzako gero ta etorkizun baltzago.

Gaur, gure lurraldean, Autonomi lurraldean, Unibersidade maillako irakasleak kenduta, 24.500 irakasle dagozala esaten da. Ortik, amabost milla eskola publikoetan, zazpi, milla pribatuetan eta bi milla ta bosteun ikastoletan.

Lotsagarri da, egiten diran zabaldundeak egin, "diskriminaziñoia" dala ta egiten diran gorroto eta iraiñez betetako agerkundeak egin, eta esaten diran eta ez diran beste gauza guztiak kontuan eukita be, danetara, ogei milla ta bosteun irakasletik, sei milla bakarrik egotea euskaldunak. Au da, %25, edo ta erreza-go, lautik bat.

Danok dakigu, esanalak esan, irakasle askok ez dabela oinkada txikienik emon euskalduntzeko. Eurena egin ebela ta kittu.

Zenbat eskola publikoetako irakaslek dakie euskera? Ba 2.500 ek. Au da, %16,66 ek, euneko amasei ta erdik.

Eskola pribatuetako ezbardintasuna andiago da. 7.000 irakasletik, milla bakkarik euskaldunak. Au da %14,3 . Eta ikastoletako bi milla ta bosteunei betebetean euskal txartela emotea be, euskal urte santuen bateko indulgentzi ta guzti izan bearke litzake.

Norbaitek esan lei ezkorra naizela, nigaz ezin leikela urrunera joan, ez dotala ikusten ikasten diarduenen alegiñik. Dana artzen dot.

Ba dakizue zenbat irakasle euskalduntzen diran urtero? Irureun inguru

Beraz, oraingo martxan, amar urte barru, gaur dagozan 24.500 ei sobrako diran sei milla kenduta, 18.500 irakasletan mugatuta be, eta euskalduntzen dira urteroko 300 kontuan eukieta, au da,-amar urtetan iru milla, dagozan euskaldunei geituta be, guztira bederatzi milla irakasle euskaldun batuko litzatekez, 18.500 irakasleen kopuruan. Oraindik erdirik be ez.

Orretara argi dago eskoletako euskalduntzeak, beste geigarrien bat bear dauala. Ortan dago gure giroa. Euskal gurasoak egin bearke dabe lan.

OPORRAK

Ba dator... Agorilla. Edo ta Dagonilla, Abuztua...

Deiturak giroak sortu ta biribiltzen ba dituez. ez ete izen egokia il onentzat Oporrilla?

Baiña batak opor esaten ba dau, besteak bakantzak. Batak lanik-eza edo lan-ezia, besteak uelga ta ondorengoak greba. Gure umetakoa: azken datorrena buztan.

Azkenian be Jaungoikoak batu bearke gaitu, san Pedrok ez gaitu alkartu ta ulertuko-ta. Ori danok zerua irabazi naian gabiltzala. Danok baika.

Donosti'k ba daki zerbait orretaz. Errege-erreginak uda tokitzat aspaldi aukeratu eben.

Baiña... baiñak soloan.

Bertsolariari entzun. Ez diño berak palio azpian erabilteko oiturarik ba zan

edo ez, eta prozesioa nundik ibiltzen zan. Eun urteko dira bertso oneik. 1871'n egiñak:

*"Agostuko illaren laugarren eguna,
bizi gean arte Donostian aztuko etzaiguna.
Erregek Iru egun pasa dizkiguna,
amaika apaizek galdu digut beren. osasuna.
Etorri zaigulako gure Erregea,
Donostiko apaiz geyenak oso crre dira.
Etorri ba zan Karlos orla errira
aguru artuko ziguten pozik apaizak erdira"*

Beste batenak, Illaraza'renak dira beste oneik:

*"Errege oietatik Prim'en gogokua
Duke da Aosta da, Italiakua;
entendimentuz ez da biziro tontua,
musiko ederra da ta dantzari bapua,
arpa jotzeko ez da leku txarrekua."*

Guk gureak eta gure aitona be ba zituen euren kontuak. Eta apaizak, orduan eta orain irunsi bearrak.

Eta erregiñak? Txiringolaz bete puztu ta biribildutako andre zabal areike, bale bizarrez tentatutako kortseekin noiz ittoko tentetuta agertzen ziran areik e...

Isabel II'ri begiratu.

Donosti'ra etorri Emendik Lekeitio'ra joan nai zitun egunak igaroten laga ez eta andik Donosti'ra presaka ta beste alderako txartela.

Aberatsen oporrak ziran areik. Klase batenak.

Lekeitio'n, Erregiñak. ondartzu guztia beretzat. Bera ase arte besteak urru-
nean.

Donosti'n ia Kontxa guztia eurentzat. Eta iñok begizkorik ez egiteko be errumberadun barruan ondartzu igaro. beiak ten eginda. ur ertzeraño.

Orduko begiak eta gaurkoak!.

Eta bitartean. erri txikietan mutikoak san Kasiano'ri kantuz ez opor eta ez ondar, euren buru gogorak arintzeko mezak atarateko limosna eske. Eta ori Agorrillaren bostean

Azkue'k Nabarniz'en batua da oitura au:

*San Kasiano obispo yauna,
eskola maisu entzuna,
zure kofrade garean legez,
eiguzi languntasuna.
Orain artean usz.i dan legez
gatoz gu zure etxera,
etxeko andra, bota egizu
limosna on bat sakura.*

Eta oraindik ere borondate osoz, jarraitu:

*Emon eiozu maisu Jaunari
irakasteko grazia,
bai ta guri bere Ikasteko
gomuta ona ta argia.*

Len, banakak arpa joten ekien era batera. Mutikoak euren erara. Gaur arpa jotea lagata erpeka diardugu oporrek geitzera. Baiña ba dogu orpoa erakutsi darena: lanik eza. Ori da mingarriena: nai ta ez-eko oporrek igaro bearra.

El Diario Vasco 30-VII-1978

OPORRAK ETA EUSKALDUNAK

Bilbon gertaten diranak ikusita, esango neuke oporretara duazen euskaldunak aukera geiago lortuko dabela Benidorn edo Salou lako errietan euskeraz zerbait erabagiteko, Bilbon baiño.

Egia biribil esaten dakit, salaketak aurrez-aurre egin, eta esan nai dodana lotsa barik esan. Beste gauza bat da, nik esana askotan ez agertzea, beti egoten diralako tartetan sorgiñak edo ta misteriotan bizi diranak.

Arro esan neike, Aldundian, jauregian beintzat, gaur urte batzuk baiño errezagot billatu leikela euskeraz zeñegaz egin.

Bai idazkaritza, urrutizkin eta abarretan, euskerari lotsa dauksen neskakillak ba dagoz. Euskeraz erraz erantzuten dabenak. Ez dot nai pentsatu eta esan jau-regirako aukeratuak izango diranik. Euren leiaketak egin bearra zituen. Eta ba dakit gaur orretan zeatz jokatzeko dana.

Baiña erriagaz zer ikusi geien daukan Aldundiko Saillik zabal eta ugariena Ogasun eta Finantza sailla da. Or sartu diranak.. "parkatu, baiña ikasten nabil" esan eta sekula ikasiko ez dabenak dira ugari, neurri berezien bat artzen ez ba da. Eta zein eurek sartu, bein etxe andian sartu diranekin?

Ni gaur beste gertaera bat salatu bearrean nago.

Dagonillean, Abuztuan, erdi uts ibili dira sail orretako gora-berako eskillarak. Eta barruko bero larrian be, batek zabal ibilteko aukera euki dau.

Ez dot uste beste saillik dagonik ormetan "euskaraz egiten dal" eta antzerako geiago irakurri leikenik. Baiña ain zuzen be euskaldun guztiak bialdu eta ziran ba oporretara?

Eta euskeraz dakien geienak oporretara bialdu ba ziran, zegaitik orrelako iragarkiei gaiñean beste onelako batzuk ipini ez: Euskalduna ba zara etorri datorren illean, bitartean Aldundiak euskerarekiko zure eskubidea ezagutuaz ez dautsu geigarri edo errekarrikurik ipiniko. Edo ta "Euskalduna, ez estutu, zoaz oporretara, ez kezkatu diruagaz, eta andik etortean, irribarrez eta zabal-zabal zure auzia argituko dautsuen euskaldun langilleak artuko zaitue.

Ni beintzat, lenengo etxe-oiñean, tope-topean dagon argipidera joan nitzan. Euskeraz asi ta..., parkatu, mesedez, ez dakizu erderarik? Eta albokoak be ez ekien.

Erderaz esan eusten paper bat bete bear nebala, eta a eroan, nire karnetik aztu barik. Etxera etorri, eta andik egunetara, nai ta orrelako eskabideak an denpora bear dabela jakin, euskera utsez egin neban nire eskabidea. Eta lengo mai berbertara joan, nun itxi bear neban itanduten. Lengo bardinak ziran lez... ba lengo erara erantzun eusten.

Eurak esandako tokira joan, neskari itandu ta a ikasten be ez ebillan itxuraz, garbi esan eustalako, ez ekiala. Baiña alboko neskak emongo eustala kontu-errazoaia.

Albokoak bere ondoan egoanari esateko. A be bardin. ltandu neutsan ez ete egoan inor euskeraz jardun neikeanik, eta ...bearbearrezko izan ezkerero...

Erderaz ekin bear azkenean eta nik euskeraz neroian eskabideari, erdera utsezko ziurtapen edo zertifikadua une berbertan eginda emon eustan. Ziurta-pen bera zegaitik irarkolan bietara idatzita euki ez?

Andik urten eta alboko etxean, beko etxe-oiñean, argibiderako egoan neskatillak, ez ekian tutik be euskeraz. Eta esaten dabe... euskera dala ta "diskriminaziñoia" dagola Aldundian. Nun eta zeinentzako?

Deia 24- VIII-86

OSASUN KEZKAK

Sorgin berba, askoren, ustez, andrena da. Baiña gizonei bere ba dagokie. Eta?

Osasunak ba dakiz bere takadatxoak emoten.

Asko jota larogei urte bizi bear eta beti ataz pentsaten ibili bearra be latza da. Kezkaz kendu ta nasai ibili nai. Eta koska sortu.

Ortik gantzak eta koipeak: Ez al da or gaurko kolesterola? Or konpon. Edozetara be gatzetarako ez gaitue lagako.

Ba dirudi osasunak bildurra sartzan dabela.

Norberari ez da be, etxekoei, auzokoei, lagunei.

Eta or dagoz osagilleak. Bai eta sorgiñak, magoak be.

Lenago be oituta nago "sorgiñak" ikusten. Edo obeto esanda, eurak nire barrua ikusten.

Oraintsu arte ez nitzan sekula Burlada'ko mirarigilleagana joan.

Osasun bedar saltoki a, mirariari lotua da. Ez dakit asmoz eta jakitez. Bai izenez eta gogoz.

Izena bera, San Antonio.

Ez ori bakarrik. Egontokiko eskillaretan Kristo andi bat ipini dabe. Orain-tsukoa *ei* da. Ez da olgeta. "Exijo oración. Antes de dar un paso, mire bien donde pisa".

Nora eta zetan dator esaera ori?

Askok olgetan artu dabelako edo leikelako arako ostera?

Olgeta edo beneta, ara doanak ba dauka bere illeta.

Goiko egon tokiak erri andi bateko kotxe geltokiko aretoa dirudi. Bar eta guzti. Tartetan, ez ezagun batzuk, ez jakin gaixo ala merkatariak, ia txartelik gei ete daukazun eske ibiltzen dira.

Orduari orde, orma baten, izki andiak, elektra indarrez biztuten diranak bakoitaren txanda noiz dan adierazteko.

Zenbat gaixo egunean? Amar izki dagoz. Izki bakoitzak amar lagun txartelak bereiztuten dauz. Baiña izki edo letra bakoitza birritan agertzen dan lez, orra berreun lagun goizeko zortziretatik arratsaldeko laurak bitartean "sorgiñak" ikusteko. Gitxi gorabera, okertu eta loditu eta astundutako gizaseme bakoitzeko, rminutu bi.

Txanda eltzean, goitik jatxi eta amarnaka sartu bear da bedar saltokian. Mostradore aurrean zu eta sorgiña atzean, orra bere lupa lodiagaz begi minira begira.

Goitik berako illaran, ikusi-ala zur gaixoak esaten asten da: Koipeak biotz koroi-zaiñen lotutasuna, biriketako katarroa... eta beste edo sei esaten ditun lez, aztu egiten da bat andik berakoak esanagaz.

Ez dago zenbat dan itandu bearrik. Alboan, berialako baten, emoten dau

bedarrak, bost, sei, zortzi paketetan. Danetakoak. Eta danak nastean artu bear diran lez, at ez da konturatzen txartuen biotza ala gibela edo zereko zera dabillan.

Azken baten motorra zartuta eta ugartuta.

Eta ugarrak kentzen jardun bear, gau eta goiz, bedarren uragaz. Batzuk, nik lez, berotan artuta. Beste batzuk nigaz joan zanak lez, otzetan. Arto bizarretik

asi eta sasi larrosa arteko ogetak bedar motak nasteen ataraten da ben uragaz. Eta ez denporaldi baten, il batzutan, sorgiñagaz geiago gogoratu.

Maiatzerarte ez dauka txandarik eta Maiatzaren iru lenengo egunetan emongo ditu beste iru illabeterako zenbakiak.

Pentsatzen asi eta... osagilleak batetik iru-lau illabete ikustaldia atzeratzen, ea "sorgiñak" beste ainbeste luzatzen, egia al da eriotza noz nai etorri leikela?

16-III-82

PASKO TA ABERRI

Paskotara eldu gara.

Baztan'en esaten dakie: Austerrez illargi, paskoaz illargi zar.

Ultzamarrak, naparrak oneik be, baztandarren esaera bardintsuz gogoratzen dakie: Pasko guztiak il zar, iñaute il berri, errege Salomon'ek ez du gose egarri.

Euskaldunen sinistetan Paskoa noiz gertatu ala epaituten da.

Martian jaustean ez eukan abegi onik gure zarren artean. Ala esaten ekien: Martxoan Paskoa? Urte ori faltsoa.

Ostera, Baztan aldeko esaerak arrera obeagoa emoten eutsen Marti'ko Paskoari. Martxoan dala Pasko? Urte artan arto ta ogi franko.

Tokirik geiñetan goiz gertaten nai izaten dabe, baiña ez Matian. Onela da esaera Paskoa goiz ba litz, baiña Martxoan ez ba litz!

Aurten, Jorrailla asiagaz batera gertaten danez, uste dogu euskaldunik geienen guraria beteten datorrela.

Arratiarrak, eta esaera askoren errialdea da Arratia, Aste santuan au gogoratzen dakie: Eztozak edo ba dozak, Judas'en egunak emen dozak. Baiña Paskotan sartzean, saltzaillearen izena kendu eta Jaunarena sartzen dabe esanez: Eztozak edo ba dozak, Jaunaren egunak emendozak.

Euskaldunok kristinau sinismena eroaten gendun len. Ez dakit sinismen orreri lastoa kendu dautsagun jatorrago jokatzeko. Gorriña sartu dautsagula esango neuke nik. Bizitari eta izateari bere guna galdu eragiten dautsan gorriña.

Lengo sinisteak, bizi aldakuntza eta zuzentzari buruzko joera asko eukezan Su barria eroaten eben etxetara Paskotan. Baiña aurrez su zarra kanpora jaurti bear izaten zan.

Ez al daukagu euskaldunok su barri baten premiña, gar barri baten bearra, gure anaitasun jatorrean ekiteko?

Ur bedeinkatua be etxera eroaten eben paskotan. Ur bedeinkatu ori gorde egiten zan "okasiñoen" baterako. Batzuk, batez be lengo etxekoandre zarrak eta zurrak, ur orregaz bedeinkatuten zituen euren tresnak. Arrantzaleak ur orregaz, bardin, euren txalupa, itxasontzia, baserri batzuetan artoa bedeinkatuten eben lez.

Beste ainbat tokitan Pasko egunean biztuten dan argizaria sartuten eutsen ganaduei adarrean, onetarako ginbeletaz asarrean zulo bat egin ondoren.

Edozetara be gar barria sartu nai.

Ez al gendun asmo orregaz sortu Aberri Eguna, orain berrogei ta amaika urte?

Bilbo'n ospatu zan lenena. Bigarrena Donosti'n. Bigarren onetan Aberrien Batzarreko ordezkari zan Ewal Anmende egon zan gure jaikide, gure erriaren nortasunari erbesteko ezaguera eta nortasuna emon eta eskintzen.

Aurten, Bizkaia'n beintzat, bakoitzaren errietan ospatuko dogu. Zelan?

Derio'n au esaten dakie gaztiei dantzarako: Ba dakizu zelan dantzan egin? Burua gora ta gora ta kaderai eragin.

Gure jaia zelan ospatu bear dan itaunka dabillanari, erantzun au emon leikio: Biotza berotu ta gogoari erriagaz amets eragin.

5-IV-83

SABEL BETEAK

Gabon gabeen zoro eztana zororik andiena da.

Bertso zarretan esaten da. Etxekoandretatik asita. Eguna edo egunak gabon apariak ezin asma eta ezin gertuta ibiltzen diran gure sukaldarietatik asita.

*Etxe onetan lau ardi,
Laurak zortzi belarri,
etxe ontako etxekoandriak
topiu baltza dirudi.*

Merezi ete dau, sarri, gure etxeko-andreen sukaldetako menpetasun eta zerbitzu ixil eta neketsuak gau baten ordezt?

Edo ta etxeko deiak, egun oneitako familietako tengadak, ainbesteko inda-

rik eukiko ete leuke, gure emazte eta emakumeen alegin, zaletasun eta gertaera barik?

Etxearen maitasuna eta sabel betearen ametsa dira egun oneitan lekuko. Bertsolariak dinoskue:

*Sabela betea daukat,
besteak or konpon.*

Oitura zarrei jarraituz erri askotan etxerik etxe edo kalez-kale ibiltzen diran eskaleak ba dakie sasoi onetan zer eskatu:

*Oraintxe da sasoi
kapoiak iltzeko,
ederki lumatata
erreta jateko;
ekarri zazu bada
gizen gizenena,
orretzek eukiko dau
gustorik onena.*

Edo ta Otxandio'n kantatzen dakiena:

*Goazen, goazen Belenera
zar eta gazte guztiok,
eroaten seintxuari
gabon sari kapoiok
ardi bi ta lau bildots,
pitxar andi. bat esne,
sagar, intxaur ta gaztaña
altzoa bete bete.*

Ezpairik ez dago, gabon kantuetan, EuskalERRI menditarra, baserritarra geiago gogoratzen dogula itxas ertzekoa baiño. Bertso eta kanturik geienak lurrraren emaitzen gogoa agertzen dabe:

*Mazkelo bete aza egosi,
ori, zuri ta gorriak,
bereala irunsi neutsazan
azkenengo orriak
Iru ontzako tresnatxo baten
morokil-ore bai litzan
ezti lapiko anditxo bati
barrua ats-ats ein neutsan.*

Olentzero'n kantuetan be ez dator arraiñik:

*...bakarrik jan dizkigu
amar txarri gazte,
saiaski ta solomo
makiña bat este.*

Alaz eta ez gaitezen orretan gelditu. Ba dago, ba dago eskarna ta guztidun abesti ezaguna be:

*Gabon gabeen oituten dogu
guztiok aparti ona,
besigu, lebatz, makallau eta
bakoitzak berak al dauna.*

Al dauna! Emen dago koska!

Itxasoak dagozan eran, zeiniek lortu ar jaio eta eme biurtzen dan besiguari, arbiak atara ta jatea?

24-XII-81

SABIN, EUSKERAREN AUSPO

Danok dakigu Azkue eta Sabin, jaiotzez urte beteren aldiko, ez zirala iritzi bateko euskera kontuko jokabide batzutan.

Zegaitik euki bear da irizpide bardiña jakintza gauzetan?

Ez dot uste bien artean gorrotorik egoanik. Nai eta biak setatsuak izan. Bakoitzak bereari eutsi lei, bestearen asarre barik

Gu be, beragoko mailla baten, gureari eusten gabiltzala esaten dauskue. Nire aldetik ez dausat iñori gorrotorik.

Gureari eusten, euskeraren batasunari geldigailua (frenoa) ipinten diardugula diño batzuk.

Ni baiño goragokuak esaten dabe, era barrien izenean ariñegi ibiltean, astakeri gogorak egin dirala izkuntza maillan, eta egiten dirala. Eta txarrena, erakunde batzuk artuta daukezan neurrietan kalteak ikusita be, atzerarik ezin dala egin.

Setakeria eta gogorkeria nun dagon ikusi bear.

Euskera bizia landuaz etorri leike euskera mailla'bateratu bat. Orretara ez gara ukatzen.

Gu, amaren tititik euskera edan gendunok, ez gara ausartuten maixu izatera. Lotsatu egiten gara siniste ori artzen.

Beste batzuk ostera, sekula euskeraz musurik artu edo emoten jakin ez dabenak, euskera sortzen dakielakoan dagoz, erdal esneagaz, eta mundu guztiari arauak emoten jardun.

Askok itanduten (galdetuten) dabe, 1936'ko ixilaldia agertu ez `ba zan, zelako jokabidea ibiliko ete zan gaur.

Edozetara be, ixilaldiko berrogei urtetan galdu dana, urte orreik, aurrekoetan lez, ikasaldiko gorakako alegiñean jarraitu ba gendu... zaiñek igarri gaur euskerak zenbateko indarra eukiko eban?

Ezpairik ez dago Arana Goiri'k, bere abertzale gogoia erakutsi eta zabaldu ebanean, Bizkai aldean, askoren artean, euskeragazko bere eritziak erriaren jaube egin zirala. Erriak atsegiñez artu eban bere deia eta bere jokabidea. Eta itz barri eta gaitzak sortuta be, izkuntzaren mesedean ziralakoan erriak aintzat artu eta ikasi egin zitun.

Bere ikuspegi politikoagaz, euskeran be indar politako lakoa sartu eban. Eta ukatu eziña da euskerak biztuera bat euki ebal. Ezaupidez etorran biztuera.

Sabin'en asmakizun jatorra izan zan batzokiak sortzea.

Lengo batzokiak ez ziran gaurko batzuk lez jatetxe eta tabernak. Asko eskola ziran, euskal zaletasun ereintza eta ikaskibeko eskolak. Era bateko kultura etxeak. Landu bakoak nai ba da, baiña landuteko gogoia eukenak. Eta erri maillako kultura baten erriaren laguntzaz lan egoki eta itxurotsua egin eta bete ebenak. Euskaldunok ba dogu Sabin'egaz gaitz ordainduko dogun zorra. Nai eta batzuntzat gaur, ori, autortze bera, izan naiko lorra.

Baiña ez daigun aztu Azkue berberak autortu ebal beste batek ez eutsala euskerari Sabin'ek aiña bultzada eta bizi emon.

26-XI-83

SANTA LUZI TA SANTO-TOMAS BITARTEAN

*Santa Luziak joan,
santo Tornas etorri,
gaiñean dator negu,
otz, illun eta gorri.*

Ori bat. Eta zenbat olako gure zarrak?

Areik ere. gure antzera. bakoitza nolako, giroa alako.

Etxe zaleentzat ez ei dago negu txarrik:

*Abenduaren erdian
andrearekin etxean,
iparrak ez dau izotzik,
mendebalak be ez otzik.*

Baiña, ortarako, etxean atraka eta fondo?

Gaitz da ori gure giroan.

Lengoan ere...

Euskaldunok beti euki gendun fama aingura onak egiten genduzala. Ernani ta inguruetan ezagutu ziran aingura lantegi onak.

Aingura, ankillia, arlanka... Geldi egon erazteko pixua, indarra.

Baiña gure fama aidean ebillan dama zan. Len ere.

Euskaldunen lana, besteen jana.

Betiko kantua.

Ainguren fama aitatu dot.

Gaurko jokoa lengoa ere ba zala ikusteko, begira ain zuzen orain berreundak urte, il onetan emen ebillan nastea.

Ernani'tik Ensenada españar ministroari egindako kartan (18-XII-1752) au esaten zan:

"Jauna: Urumea aldeko aingura egille gaixo eta jazartuak zuregana gatoz gure asarreak erakusten. ainbeste txarkeri artean aldeztu gaitzazun.

Gure maixu dan Joan Fermin txakur bat lez agertzen da lantegi onein aurka, eta gure entzute onaren aurkako okerkeri asko egiten ditu.

Guzurrezko bitolekin etorri zan gure aingurak neurtutera, eta orduan batzorde bat bialdu gendun zugana, gu beratu nai gindun txarkeri bat zala ikusten gendulako. Ixilik egon gara luzaro, gure maixu izan delako, baiña orain gure fama ta gure irabaziak beratu nai ditu. Ferrol'en zabaldu du gure aingurak txarrak dirala. Jesus! Ori bai guzurra! Jaunaren eta Kurutzearen aurrean zin egiten dogu. sekula ez dala Arrazubian. aingura obe eta ziurragorik egin. Ikus batzuk eta besteak. Orrez gañera gure burdiña txarra dala, diño. Inguru guztian ez da billatuko gure burdina baiño obeagorik aingurak egiteko..."

Danen izenean Jose Joakin Egana'k izenpetua da karta au.

Biaramonen Aita Larramendi'ren beste karta bat bialdu zan ministro berberari...

Nik ez dakit zeiniena dan pekatua.

Euskaldunona bai errua.

Beste batzuk itza darabille ta bitsa. Gu, egitetan ugaritsu. baiña itzetan mutu...

Aldatu ete dira denporak, eta oiturak eta gizonak?

Santo Tomas dator astean.

Gogoan dodaz Basarri'ren bertso batzuk:

*Garai batean, kapoi pare
nagusiaren etxera,*

*bakallau zar bat zintzilik artu
ta buelta mendi aidera.
Alda bearra zegoan eta
pixka bat aldatu gera,
ainbeste tarte ez dago orain
gizonetik gizonera.*

Ori orrela, bai, baiña... emen dago pekatua.

Irakurri eta gogoratu eta pentsatu. zenbat esan nai erakusten claben beste bertso onek.

Orio'ko Treku'k Azkue iakintsuari abestua da:

*Abenduan ogeian Sto. Tomas besperan.
inundo guztiak daki nola irten geran,
Ayan Txarantonenean txiki bana edan,
geroztikan eztakit laguna non dedan.*

Diario Vasco 17-XII-78

SEME BIKAIN

Aspaldi baten ezagutu neban Andres Mañarikua jauna. Gazte lerdan, argi, ikasle-amorratu eta bikain zala.

Gero bere lanetatik obeto ezagutu dot.

Paper zarrak arakatu ta irakurri, aztertu ta zuzendu, billatu, alkartu ta eurentako irakatsiak atara eta euren zentzu eta adierazpenak liburu mardul eta jakintzuetan jendeari eskintzen.

Bizi guztia paper artean, eta beti ikasi ta ikasteko, erakutsi ta erakusteko. or, ziñaldari, Bizkai'ko artxiboak eta liburutegiak. Eta ez mutu, euretatik ataratakoagaz Mañarikua'k berba eragin dautselako. Or lekuko Deustu'ko Ikastetxe Nagusia, Unibersidadea eta bertako millaka ikasle.

Eta beti gure erriaren alde. Geientsuen Bizkai'ko iturrietan ura artu, eta ur ori zabaldu eragiten.

Mañarikua, beste aldetik, jakintsu askok erabili dabe aolkari eta lagun lez euren lanetan

Ainbat aldizkaritako zuzendari izan da. Askotan zuzendari soil bakarrik ez, euren arnas eta bizigarri baiño.

Ez dautsa euskerari ikutu, egia da. Bilbotarren pekatuak ez eban garbitu

onetan. Alaz eta euskerarentzat eta euskaldunentzat, euren izate eta nortasunari, beti agertu eta zaindu izan dautse begirapen eta lotsa.

Urtetan aurrera dua. Oraintsu 74 urte egiñak. Munduan dira, baiña osasunak emon izan dautsaz bere takadatxoak. Oraindik lan egin lei, aolku asko emon. Alaz eta lengo ekintza, lengo orduen-orduetako lotuerarik

Eta Bizkai'ko Foru Aldundiak eukiten ditu tartean bere bereizkeriak. Oraingotan be, zorionez, eta bizkaitarren gogo on eta ziurretik txalo beroz Mañarikua jaunari bere omenaldi bat eskintzea erabagi dau.

Oraiñarte ez gengozan oituta, baiña ba dirudi gure Aldundiak, duintasun batzuk gure jatorrizko berbeta utsean erabilteko arrenkura igarri dauala, eta origaitik "con ocasión de haber sido nombrado Bizkaiko Seme Bikaina" zabaldu dauz omenaldirako deiak Aldundiko Diputatu nagusiak

Bear ba da iñoiz egin izan daben lez, erderazko edo erderaz emoten jakon esan naiagaz zabaldu ba lebe... "hijo predilecto" esango eben, baiña ortarako euskaldun zarrak "seme kutuna" erabilten eben, batez be biotzeko gauza eta ekintzetan.

Ni ziur nago oraingo deitura ori irakurten dabenak, "hijo excelente, sobresaliente", lez erderatuko leukela Azkue'ren Iztegia erabili, nai Muxika'rena, nai Kintana jarraitu.

Ezin ukatu Mañarikua'k ori be merezi dabenik, baiña zek garabiz ezaupide orretan, autorpen uts eta otzak edo ta biotzaren eragiñak?

19-XII-85

SABIN'EN OLERKIAK

Nik Aita Santi, Santi Onaindia, gizon anditzat daukat, berak uste ezarren.

Eta bildurrez jarten naz beragaitik idazten, berak uste ezarren.

Ba dauka berak konpleju bat nigaz. Abade eta prailien akulari nazala uste dau. Berak diñonean, izan neike, baiña sekula ez dot orrelako izaterik pentsatu.

Ez nator ni, euskera dala-ta, Aita Villasante'ri, esate baterako, praille jantzia erabilteko eskubiderik kentzen, edo euskera dala-ta, Aita Santi'ri Abade Nausi baten jantzi gorriak opalduten. Edo bestera.

Nik Aita Santi. prijore edo fraile apal, sinismenaren erakundeen begitik ikusten dot, eta bardin Aita Villasante, edo beste edonor, bere praille jantzi kordoi eta sandalia ta guzti.

Euskera aztertuteko euskeraren begia zorroztu bear dogu, eta ez bestelako lelokeri edo zitalkeririk.

Aita Santi'k oraintsu atara daben liburu bat eskuetan daukat: Arana Gori'tar Sabin olerkari.

Frailetza alboan laga-ta, ez frailetzeari lagata (ez daigun oker pentsatu), Aita Santi liburu tratulari edo merkatarari on izango litzake. Iñoren boto premiña barik berez lortuko leuke orretan prijoretza.

Ezin ukatu liburu merkataritzan Aita Santi'k bezeri ona daukanik. Bestela eleukez atara edo argitara emoten ditun aiña liburu agertuko. Bereak edo bes-teenak. Baiña berak gertu, tajutu, moldatu, zabaldu eta gurpilduak eta itxuratuak.

Gero kalean tratua. Bat emon, bi artu; bat opaldu, bi trukutu; bat saldu, beste bat erosi. Beti be liburua eskuar tean, edo ta irudimenean.

Erdi lotan nengoan bein, sermoi bat entzuten. A sermoi ederra! Bariku santua zan. Barauak, alkar eskintza, maitasun agindua, maitasun oiñazeak...

Abotsa be aldatuta ebillan sermolaria illunpean ipinitako eleizan.

Esnatu ta alboan neukan adiskideari esan neutsan: Iño! Nor da ori?

Ezagutzen ez, beti beragaz zebiltz-eta?

Ai ene! Bertan bera galdu neban aren aolkuen indarra.

Aita Santi'k agertu daben liburua irakurten asi naz: "Begien aurrean dozu idazti deigarri bat, geldi-geldi irakurtekoa..."

Orriari bira emon dautsat norena eta dan itzaurrea ikusteko ta Santi berberarena dala ikusi dodanean, nirekautan: Ene ba! Bera ezagutu, eta liburua artu orduko ezin iruntsita ibilten dala jakinda, ze balio dauka aolku (kontseju) orrek?

Irakurri baiño iruntsi lenago egingo dabe abertzale zarrak liburu au. Jo ta pasa, ez titan gogoratu gure bizitzako sasoirik egokienean pozarren eta biotzez irakurri, gogoratu eta abestuten genduzan Sabin'en kantu eta olerkiak.

Birritan eta amar bidar irakurriko dabe, baiña alkarren:leian lez, bata amaitu ordurako bestea asiaz, azpalditik preniñan gengozan liburu onek, igarri barik eta aspertu barik eroaten geitulako bata-bestearen atzetik.

Liburu onek, Maixuaren olerkien gain, ba dauka beste meritu andi bat: Ta olerkirik geienen istori zeatza be agertzen dabela.

Beste gauzak, askepliadeo txikiak, glikoniak, espondco, daktiko, janbo, anapesto eta abarrak "Humanidades" ikasten gebiltzala be ez ziran sartu gure "humanidadean"

Orreik, Aurre-Apr aiz Axangiz'ko olerkariak esango leuken lez, Jainkoak aukeratuentzako Olerkari eta Iragarleentzat dira.

Gu lakoak erri-miñak eroaten gaitu. Eta biotzak. Ez al da naiko? Eta erri miñez eta biotzez txaloak jo be, oraingoan lez, jo bear diranetan.

SABIN, GIDARI EREDU

Gizonaren bizitzan urteak ez dira neurri, egitadak baiño.

Luzaro irauin eta alper bizi lei.

Eta luze bizita, bakoitzaren lana ohorez bete lei eta gerorako urratsa itxi.

Bestera, labur bizita, gizonandi il lei, edo gerokoen bizi legea eta bizi ametsa sortu.

Orra Arana Goiri tar Sabin.

1865'n Abando'n jaio (26-1). 1903'ean Sukarrieta'n il (25-IX).

Eta bitartean euskal txingar eta euzko argi, abertzale ta erri gidari andi eta jatorren bizibidean: Ikasi eta lan, erakutsi ta zabaldu, argitu ta piztu, naigabeak artu ta espetxetan mindu, mindu-ala sendotu eta norberegán ziurtatuz, beti norbere egiari ten eta eutsi, zaindu eta zabaltzearren.

Fededunen bizitzan euskaldun bi gogoratzen dira Paris'en: Loiola eta Jabier.

— Jabier, zer dautso gizonari munduak, fedea galtzen ba dau? Abertzale bizitzan Abando gogoratu bear dogu, 1882 urtean. Luis eta Sabin ortuan. Ordurako Luis bizkaitarren jokabide asmoetan kezkatzen asia.

Luis'ek: Zer dautso Sabin gure erriari giro onetako jokabideak, euskal bizirik ez ba dauka?

Egun aregaitik Sabin berberak idatzi eban: Zorionekoa nire Aberria ezagutu neban egun a, eta bizi guztirako eskerra atzerri pentsabidetik atara ninduanari.

Zumalakarregi'gaz amaitu zala, esaten da, benetako euskal garra lengo gizaldian. Sei urtetan arek eutsi eutsala, lenengo karlistadan, euskal sentimenari. Gero, 1835'ko San Juan egunez a zaurituta jausi zanean, zearo aldatu zala, aldatu eta auts artean galdu eragin, atzerritarren maltzurkeriz, euskaldunen erri jokabide jatorra.

Umetatik asi zan Sabin euskal izatearen zoritxarra beregan era batera edo bestera igarten.

Bere sendia (familia) bigarren karlistada asi ordurako, Laburdi'ra aldatzen da. An ikasketak. 1881'n gaixo, ilteko zorian, eta gaixo ondoren urte bi makal. Berak amazapi urte eukazala aitaren eriotza. Aita il zan urte berbetan Bartzelona'ra, Legegintzako ikasketak egitera. Eta batera bere gogoko ziran Filosofia eta Elerti'koak.

Bereala asten da bere ikasketak euskeraren mesedean biurtzen. Bartzelona'n bertan. Orduntxe asten da "Pliegos euskerafilos", "Etimologías euskérica'", "Gramática elemental del euskera bizkaino", eta abar idatzi eta al eban neurrian eta aldizkarietan agertzen.

Sabin, udaetan Bizkai'ra etorriarren, Bartzelona'n bizi zan 22 urte egin arte. Bilbo'ra etorri eta Aldundiko euskal katedra artu nai izan eban. Azkue'k lortu.

Orduntxe asi zan zabalkunde lanetan. Eta abertzale lanean. Berek esanetan: Nire aberriko izkuntza ikasi, ez dakienei erakusteko aukerak billatu eta emon, liburu, aldizkari eta beste gaien bitartez, eta erritarrak ikurrin baten menpean batzen alegindu, abertzaletasuna zabalduz.

Ortarako bere bizitzako izatearen agerpen lez, Larrazabal'go itzaldia dator (3-VI-93). Amazortzi lagun batu ziran danetara. Batzuk bere lagunak, besteak "Euskalerrria" alderdi foru-zale liberalekoak.

Iila bete aurrez, "Bizkaya por su independencia" liburua zabaldu eban.

Egia esateko, ango lagunak gogorregi billatu eben itzaldia eta ez eutsen jarraitu. geroago, bere elburua zabalago azaldutean, batzuk jarraitu eutsen, besteak alboan laga.

Sabin, lenengotik, kristau sendo eta zintzo agertu zan. Baiña bideak mugatuz: Eleiza eta Laterria bakoitza bere jaube, azkatasunean, baiña alkarregaz ondo konponduta. Jaungoikoa goi asmo, eta Lagi zarra erri eskubidetan.

Lagi-zarra, beretzat, legeak, oiturak, eta eta izkuntza ziran.

Sabin'ek bere abertzale izate eta kutsua Bizkaia'n oiñarritu eban lenengo. Abertzale lez jokatzan asi eta lenengo ekintzak Bizkai'ra begira egiñarren, ez uste euskotarren osotasunik iruditzen ez ebanik.

Sabin'ek, danok euskaldun ezagutuarren, begirapen eta lotsa eutsen beste errialdeei, istorian zear bakoitza bere berezitasunekin billatzen zitulako, baiña ez berak Bizkaia'n ezagutzen eban biziera eta osotu eban jokabidea, beste errialde anaientzat egoki ez zala pentsaten ebalako. Berberak esan eban 1894 urtean: Araba, Bizkaia'r Gipuzkoa, Lapurdi, Nabarra, Benabarra eta Zuberoa, enda, izkuntza, izakera eta oituren lokarriz anai diran erriak dira, eta abertzale jokabide baten, Alkartasun baten osotzera deituak dira.

Orra Sabin'en muiña.

Gogo orregaz koskondu zan Alderdia. Egia esateko, Alderdia baiño lenago, alderdikide izango ziranen txokoak asmatu zitun.

Orrela sortu zan 1894'n Euskeldun Batzokija Bilbo'n. Alderdia 1895'ko Uztaila'ren 31'ko batzarretik osotu zan eta Sabin izan zan lendakari, 1903 urteko Irailla'ren azkenean, osasunak zearo minduta, ardura ori Angel Zabala'ren esku laga arte.

Sabin Sukarrieta'n il zan, 1903'ko Azilla'ren 25'an, Addisson gaixoak zimehduta, bere bizitzako 38 urtegarrenean.

Bitartean. Aldundiko lana, aldizkariak, itzaldiak, espetxetako egoerak, euskal ikasketak, olerkiak, bere fedeko agerpenak... gerokoen ezaugarri, bizigarri eta gidari geratu ziran. Guri dagokigu, aberriaren alde lan egiñaz, eskerrak agertzea. Eta eskerrak baiño geiagoz, sinismenez jarraitzea.

SAGARRA TA SAGARDAUA

Sagarrari buruz zerbait idaizi neban orainis.

Au esaien neban: Nire erriko agirietatik ez neukela jakingo emen sagarra noiz sariu zan.

Adiskide batek bereala bialdu daustaz ortazko idazlan batzuen fotokopiak. Milla esker.

Sagastiak, Euskalerrian, XIgarren gizaldia baiño len egozala irakurten da agiri batzutan. Ala San Sebastian monastetxeari eskintzak egitean, 1014 urtean.

Gure auzoan dogu Astigarribia eta jakiña da eleiz ori Errioxa'ko San Milla'en menpeko izan zala eta areri eskintzako kartan argi agertzen da baso, mendi, sagasti eta arrantzako portuekin eskiñi zala.

Baiña Ondarroa iraspen (fundasiño) eskubidean, ainbat gauza zeaztuarren, ez da sagastirik aitatuten. An "viñas, e molinos, e huertas) zeaztuten dira.

Emen, XVIgarren gizaldia ezker, txakoliñaren aztarrena billatzen da agirietan. Txakolin ugari egoala ta ez ekarteko ardaurik ez Galizia'tik ez Andaluza'tik. Edozetara be 1648 urtean ziurtatu giñei urte aretan Ribadavia'ko bost ardaur pipa saldu zirala.

Ikusten danez itxasoz ekarten zan ardaur. Naparroa eta Errioxa'ko bideak oker egingo ziran orretarako.

Ba dakigu 1710 urte inguruan eun azunbreko laureun barrika edo upel artzen zirala txakoliñetan. Eta sasoi orretan 83 su-etxe (foguera) egozala kontuan eukita, ia etxe bakoitzeko bosipel.

Geroago, 1749 uretan esaten da maasti asko galdu dirala ta txakolin gitxiago artzen dala.

Sagardauari buruzko lenengo argibidea 1756-1758 urtetan billatzen dogu. Urte orreitan esaten da erriko premiñetan lagunduteko bearrezko zala sagardauari zerga edo petxa ipintea.

Onak ez dau esan nai denporaldi orretan asiko zanik sagardaua emen artzen.

Zabala da beintzat sagarra lantzea eta sagardaua egitea euskaldunak sartu ebela Frantzian. Orrez gaiñera, toki askotan Bizkait izena emoten dautse sagar arbolei.

Eta Normandia'tik zabaldu zan Frantzian eta andik baita Ingalterra, Alemania eta Ameriketara. Baiña aurrez Normandia'ra sagar motarik ederrenak, antxiñako itxastarrak Bizkait'tik eroan zituela.

Edozetara be, Ondarroa'ko ioponimian sagastiak ez dabe urrats askorik laga, izen orretatik sortuak.

Armukatx, Arriandieta, Aulaso, Bideburua, Buztindegia, Elantxo, Mortizur eta abar sagasti izan ba ziran be, ez euken "sagar" sustrairik. Inguruak emon eutsen izena.

Etxe bat agertzen zan bakarrik sagar jatorriko: Sagarrakua. Eta ezin esan sagastirik edo tolararik, edo ta sagardautegirik eta sagardandedirik egon ez zalako zanik.

Ara guk gendun berba jator bat: Sagardandegia, au da, sagar-edandegia.

Ba dakizue berba polit eta ondo egin ori ez dala agertzen ez Azkue eta ez P. Mujika'ren iztegieta eta jakiña, ez besteetan?

I7-XI-83

SAGARRAK

Nire erriko agirietatik ez neuke jakingo sagarra noiz sartu zan emen.

Txakoliñari buruzko agiriak billatzen dira. Batez be txakoliñari babesamon náiko ardura eta kezka egin eta eragiñak. Gaztañari lez.

Ardaua, lenengo ardaua, Galizia'tik ekarten euskuen. Ba dauka bere erra-
zoia.

Barruko bideak baiño erosoago ziran guretzat, gure erriarentzat, itxas-bi-
deak. Orain bosteun urte kosterrez (itxasertzetik) egiten zan gure merkatari-
tza. Bordele (Burdeos) aldera eta Galizi alderako ontziak geratu barik ibiltan
ziran.

Ba dago liburu bat, XIVgarren gizaldiko Mediterraneo'ko merkataria-
ndiak euskaldunak zirala eta gure itxas errietako gizonen ainbat izen agertzen ditua.

Txakoliña babestuten, berari eutsi nairik, ainbat lege eta agindu billatzen
dira.

Bertakoa agortu arte ez eben lagaten erbestetik ekarten, ez erbesteko ar-
daurik edaten be, urtean jai andi bakarren baten ezik.

Gaztaiñeagaz bardin gertaten zan, baiña beste erara. Erriko utsunak betete-
ko, ez eben gaztaiñarik erbestera bialtzen lagaten. Bear ba da urungai bakarra
izango zan estualdi askotan.

Alaz eta sagarrik ez da aitauten. Sagardaurik be ez.

Eta danok dakigu gure mendietan sagasti asko egon zirala.

Nire errian bertan ainbat sagar mota ezbardin batzen ziran. Zenbatuten asi
ezkero, bear ba da berrogetak errez aitautuko gendukez.

Batzuk, itxuraz, landarak ekarritako tokien izenetik sortuak eta alde andi
bakoak. Baiña bakoitzak bereari ten.

Ala tokien izena adierazten dabe: Andoain sagarra, Ada, Aierdi, Baraiku, Billafranka Burgo, Ibarre, Lastur, Alemari eta antzerako deiturakoak.

Beste batzuk sagar berberaren egitura edo itxuretako deituradunak: Allaluzia, adar mengela bost-kantoi, ipur-zabal, ipurditxu.

Txastamen edo gozamenetik besteak: Garratza, gaza, gozoa, mingotza.

Margo edo koloreak be emoten eutsen ezaupidea besteei: Gorri morillua, urdin, urre, zuri, moko baltza.

Bateko ta besteko deiturekin beste asko: Ballestei, bereza errege, errero, diburtzio, garauandi, Lomai, libra, madari, panpandoka, txistu, txori, txabillu, tirtirri, txalaka, txerbenilla, urte bete eta abar.

Ikusten danez gure sagastiak aberatsak izan ziran klase edo motetan.

Origaitik ez da arrigarri esatea erriak tolaraz beteta egozala. Nire errian bertan ogeita amar sagardautegi inguru geuk ezagutu genduzan.

Sagardaurik geien saltzen zan denpora sardiña sasoi izaten zan edo ta Aste santua. Sagardaua egiteko mostorik urtsuena emoten ebana: San Frantziskua.

Aurten sagar urte da. Ugari. Baiña gaitza be bai, baserritarrak diñoenez.

16-X-83

SALBEA ESKATZEN

Aldi baten, ez antxiña gure denporetan baiño, asarre agertzen giñan Derio'ko illerrian, ildakoen errukizko gurutza eta arrietan euskerarik erabilten lagaten ez ebelako.

Onelako zerbait nai ebana, idazkaritza batetik besteraka ibili bear izaten zan Bilbo'ko Udaletxean, eta Job santuaren eroapena (pazientzia) baiño zabal, luze eta lodiagoa bear izaten eban bateko aitzakiak eta besteko musturrak gaindu eta zuritzeko.

Ia illen oroitza galtzen asten zanbat, alako baten, eta beti be banakak, bai mena ortu orduko.

Egia esateko, ez egoan galerazota, baiña orren billa ibilteko gogoia galdu eragiten eben eta dana bertan bera lagateko egoeran ipini.

Orduan diktadura denpora zala eta aitzaki orrek, besterik ezean, egoera aren aurkako gorrotoa biztu eragiten eban, nai ta illei omenik egin ez.

Orain azkatasun aldian gagoz, edo ta orrelako giroan.

Gitxienez beintzat euskeraz egin al geinken aldian, eta idatzi be ostopo barik egin geinken denporetan. Balizko edo teorian beintzat.

Ormetara begiratzea baiño ez dago zer esan ete geinken jakiteko, eta batez be zelako txukuntasuna eta zeaztasuna darabilgun igarteko. Dana lagaten da.

Bai?

Gipuzkoa'tik datoz barriak.

Goierri aldeko erri nausi baten Erguindarrak bizi eta il diran erri baten, oraintsu, kurutze bat ipini nai eben illerrian. Familikoen erri euskera jatorrean, eurak ekien antzera.

Erri euskeran, oraiñarte beintzat, gure alderdietan, il zan, illa da, ildako, eta abar, beste geigarri barik erabili izan dira.

Baiña erriko agintariak kurutzea galerazo eta ostopoak ipini dautsez, hil zan ipini bear dala-ta.

Eta erri aretan ez dago diktadorerik. Ez dot uste an nausi diran eusko aber-tzaleak orrelako deitura ezarterik naiko leukenik. Beintzat erria ez dogu ba gu-re oiñarri?

Iparraldeko ei ederkatura egin eta eurekin batean joatekotan sartu euskuen geienok aozkatzen (pronuntziatzen) ez dakigun izki ori.

Eta ez gara konturatzen Iparraldeko toki askotako kanposantuetan il-herria garbi eta soil irakurri geinkela. Baiña gu, morroi barriak lez, bear baiño lan geiago egiteko gertu gagozan lez...

Gu ez gaitu arritzen sekula gure asaba zarrak eta iñungo euskaldun jatorrak egingo ez eben lez kale bateri "Juan de Ayalako kalea" eta antzerako eran ize-nak ipinteak. Ori euskera egitea dalakoan gagoz Baiña il zan ipinte ori...

Txarrena da orrelakoak ikusi eta entzutean uste baiño lenago gaixotuko do-gula gure euskera eta il ez dedin Salbe miraritsuen bat agindu bearko dogula, kanpai eta guzti.

Eta orduan, ipokritarik andienak lez kezkatu eta negarrez batuko gareala, ain zuzen be guk dakigula pozoitu (enbenenatu) dogun gaixoaren osasun eske.

SALBURUA'KO JAIA

Erdu, anai, Salburua'ra. Erdu, senide. Gogoraizen?

Bilbon lenengo Aberri eguna ospatu gendunean Gran Via'ko leioak eta begira tokiak sarratu euskuezan. Eta biaramonean, guretar batek "La Gran Via de los Agotes" deitu eutsan ibilbide areri.

Baiña urteak aurrera ta ango agotak Gran Via laga euskuen. Laga eragin. Ez indarrez, biotzaren eragiñez baiño.

Salburuan ez dago kalerik, ez leiorik. Ez dago estutasunik. Salburua gure zelaia da. Zelai zabal muga bakoa. Eta gaiñera gurea, alderdikideena, sortzez eta izatez alderdirik jatorrenekoena, jeltzaleena.

Kontu asko doguz alkarregaz esateko. Zabal, nasai eta patxadan. Bear ba da bekokiren bateko zimurren bat labantzeko ere euki giñei. Denporak beti lagaten dabe txikikerien urratsa. Baiña...

Familiak beti eukiten dabe alako txikikeri, okerpentsate, bear ba da itsukeriz suspertuiako zerbait, baiña or etorten da Gabon eguna, Pasko eguna, alkarregaz batu, abestu, poztu, maitasunak sendotu eta bizi barrien itxaropenez amets egiteko eguna. "Ikusikogu aita barrezka, ama ere poz ta atseginez".

Alakoxe eguna da Salburuako eguna. Abertzale eta jeltzaleon alkartze eguna.

Amaika urte dira lenengo Alderdi eguna ospatu zala Aralar mendian. "Mikel, Mikel, Mikel geuria" deituten gendun egun aretan. Orain ba dogu beste zeregin bat gogoratu bearrezko: "Eragiok mutil aurreko tanbolin orri".

Tanbolinean egosteko, erreteko, ainbat gauza: euskal nortasuna, europar jokabide baten barruan; euskera bizia, erriarena, biotzen sentiduten dana, gizonak biotzez itz egin bear daualako; langintzaren araso itogarria, gure gazteak biziari ametsez begiratu dagioen eta ez drogaen ustelkeri eta eritasunez; gure irakaskintza orokorra unibersala, gure izatea bastertu barik; gure erri bizitza, ekonomi arduetan, emon eta kendu, kendu eta emon euskal mesedean atseginez jokatuko dauana; gure giza-ontasun politika zabala, zarrak, etenak, naigabetuak, elbarrituak euskal famili baten berotasuna igarri dagien. Gure anaien batasuna, baketan bizi eragin leiken gure eskubide jatorren ezaupide zabal bat... Eta beste ainbat.

Baiña ori lortzeko, lengo ta bein alkarrerri konfiantza agertzen alegindu bear gara. Begietako makarrak garbitu ta argi ikusten. Gure ezagutzea ikasten; gure agintarrietan sinistea sendotzen.

Orretarako familiko ezaupidea zabaltzea bearrezko da. Familiko "konbidautzetan" alkartzea nai ta ezko.

Ortik gure eupada: Ator, ator mutil etxera, erdu, senide, Salburuara.

SAN JOSE ETA ARRAIÑAK

Udabari ingurua, aurrez obeak gerokoaK baiño esaera zarrak diñoenez, ba dakiez muna eta zelaietan lore oriak agertzen. Guk txiki giñala jan egiten genduzan gozuak zirala-ta

San Jose lorak deitzen geuntsazan, il onetako txingor garauei San Joseren kompittak deitzen genkian lez.

Iza be umetatik asi giñan ikasten san Jose, nik ez dakit zegaitek agertzen dan irudietan ain agure, gozua zala. Ala asten zan Urrillean egunero gogoratzen gendun otoitz bat: Zu gana gatoz gu, san Jose gozua...

Gero ba genkian pobria zala, eta jakiña, beste esaera bat be laster etorten zan bere irudia anditzan: pobri, zeruko loria.

Azken esaera onak ba eukan beste geigarri bat be, katean ataraten zan: Pobria, zeruko loria, aberatsa inpernuko lebatza.

Nundik sartu eta euskuen arrantzale erri baten esara ori? Gaixoak osaltzeko, mkalak sendotzeko, ba eta gendun besterik lebatza baiño?

Oraindik arrin zuri ta rudiña barik, osagilleak gaixo aldietan erabiltan eben berba "garbia" izaten zan. Salda garbia eta arrain garbia emoteko izaten zan agindua, eta zer besterik uste gendun zala arrain garbia lebatza baiño?

Gero etorri dira koipe eta giarrak eta bestelako deiturak. Gero etorri dira arrin izoztu eta abar. Gure denporetan arraiñaren gazia "bizi-bizia" izatean egoan: Ori zan arrain saltzaillien deadarrik egoki eta erreklamurik gogotsuena: Arrain bizi-bizia!

Eta arrain mozkortua? Sinistu ete lei arraiña mozkortuta legorrean bizi zaindu leikenik zortzi amar egunetan?

Irakurten asko ikasten da. Orain ia berreun urteko liburu baten billatu dogu antxiña arraiña zelan bialtzen eben zortzi-amar egun geroago "bizi-bizi" jango eben tokietara. 1806 urteko "Memorial Literario" zalakoan agertu zan. Onela diño: Saretik edo amutik atara bezin laster, arraiñari ogi mamin zati andi bat sartzen eutsela aoan betien bete, koñaketan bustita, aseta. Eta orrela egoela, oraindik be baso bategaz koñak geiago jaurtiten eutsela aora. Arraiña geldi geratzen zala, lotan lez. Bein orrela, lasto fresku artean inguratzen zala, arraiñaren gorputzari lasto orreik kordoi batzukin lotuak, eta gaiñetik eun zati edo pañu bategaz inguratzen zala. Ori orrela, arraiña mandazaiñekaz bialtzen ebela. Bein bere tokira aldu ezkerro, bereala kendu bear izaten zirala euna (tela) eta aoko ogia atara, eta urez beteta egoten zan gaillu batan sartzen zala arrain ori. Ordulaurden inguru ber izaten ebala arraiñak berera etorten eta orrela bizi ezaugarriak emoten asten zanean ataraten ebela eta saldu.

Jakiña orrelako ardurak artu eta saltzeko, arraiña be ezin ezan txikietakoa. Lebatza ete eda antzekoren bat?

Edozetara be, ikusten danez, ba egoan arraiña portutik zortziamar egunetako bide eta bitartean bizirik eta fresku zaintzeko erebidea, koñakagaz mozkortuta.

Gaurko izoztuak (konjelatuak) edo ta lengo mozkortuak ete euken jaterako bizitasun geiago?

20-III-88

SAN BLASETAN

Argiagaz zer ikusteko ete dauke euskal feriak?

Argi ibili bear dala adierazoteko kezka?

Santa Luziatan Zumarraga'n, Kandelari biaramonean Abadiño'n.

Eta gogoratu esaera: Santa Luziatan saltzen dan astoa, san Blasetan Abadiño'n erosten ei da.

Abadiño ondo ezagutzen eban Arrese Beitia otxandiotarrak.

Txanton Arabarra eta Matxin bere auzokoa artu zitun ipuin baten bidez aolkari agertzeko. Eta ara euren bitartez zelako kontsejua emoten eban: "Esae-
ra zar bat da guraso zarrena, laster jausten dirala guzurra ta errena".

Kontuz tratuetan, argi ibili.

Gure san Blas, san Bladi da Luzaide'n.

Sabino Arana'k be euskal izenak agertzean, Balasi lez euskaldundu eban izen au.

Luzaide'ko oitura eta kantua da. Ango andre zarrer.ak, oeratu baiño len esaten dakiala, sua amatau eta autsari eragiñaz:

*Jaun san Bladi,
nik sua estali,
kortan ba da gaiztagiñik
au ere erre bedi.*

Lengo zarrak argitik argira lan egiten eben. Zeatzago esanda, gau ta egun, sarritan. Kontu egin zortzi orduzko lana, lenengoz Donosti'n gure denporetan ipini zala. Bertsoetan gogoratu nai izan eban bertsolari batek egun gogoangarri a.

Lengoak, lan egunak lan, baiña ba ekiezan aitzaki txikiagaitik opor egun ugari artzen be.

Santu-santen erromeriak, jai erdiak, jai andien "otabak" eta abar. Egun

oneik be ba eukien euren ezaupidea: "San Blas ta Santa Agedako feriak, mutil neskatxen ezaupideak", esaten da.

Gorulariak, esate baterako, ez eben egun onetan goruetan egiten. Ba euken aitzaki bat sinistetzat: Egin ezkerro, samako miña eukiten ebala gorulariak.

Guretarrak, emen esaten dan lez, ez dira leorretik galtzen, eta ba dakie egun onetan eleizara pardeltxo gozo eta atsegiñak bedeinkatzera eroaten. Eta bertan, bederatzi egunetan saman lotuta erabili bear dan aria, eztul eta kata-roak ez batzeko.

Eta gu agureok zer esango?

Ez daigula iñok esateko euki, norbaitek gogoratzen ekiana: *Bere* etxean idiak eztula egin eta san Blas! otoika lez urteten ei eben danak, entzuten eben etxeko guztiak; baiña aitonak eztula egin eta ittoko al aiz!, erantzuten ei eban norbaitek.

Beste gauza bedeinkatu askogaz lez, egun onetan bedeinkatzen diran ogi ta artoak ez dirala urte guztian igartuten esanarren, oillo gaixo eta zintzurretako miña kentzeko izaten ziran.

Kontu zarrak erabilten doguzala ta zirikatzen gaitue batzuk.

Barriekaitik esaten danari jaramonik egin ezin, besterik ezean lengoak gogoratzen ekin guk.

3-II-84

SANTA ESKALEAK

"Udarregi" Aia'ko bertsolari zarraren amasei aapaldiko bertso saillean, au irakurten da, irugarren lez:

*Santa Ageda dama eder bat
Sizilian zan jaiva,
Katania'ko juezen mende:
igaro martiriyua...*

Berberak diño "aspalditxoan libru batetik artu zitula ortarako pruebak".

Onelako bertso saillak etxe guztietara zabaltzen ziran Euskalerrian. Eleiz gizonak eta bertsolariak barri-emole genduzan denporetan.

Euskalerrian santa au ezaguna da, kristiñautasuneko asierako beste batzuk lez, eta kristau fedeagaz batera gure errian sartua ziurretik. Abadiño, Barakal-

do, Izurtza, Gordexola, Natxitu eta Zeanuri'n, Bizkai barruan, ba dagoz bere ermitak.

Mutriku'n be, itxas gaiñean, an dagoz Santa Bata izeneko eleizaren inguru zarrak. Eta bere inguruan gertatutako zerbaiten gogorapeneko bertso zarren zatiak ba dakiez erri aretan:

*Santa Bata gaillurra,
gerran apurtua,
iru milla soldadu
azpian artua.*

Edozetara be egunotako oitura bizirik gordeten da gure artean: eskea. Noiz asia ete eske batze au?

Ba dirudi lengo denporetan egun onetan egiten zan eskeak ba eukala bere zuzenbide berezi bat.

Jakiña da Euskalerriko ermita askoren alboko etxeetan beatak biziten zira-la, edo geroago beste izen bategaz ezagunagoak: serorak. Eta gizonezkoak ba ziran ermitañoak, padarrak.

Erri baimenez biziten ziran, eta gaiñera, erriak batzar zabalean artutako erabagia bitarteko zala. Eta oiturazko zan santa Ageda jaian, bestetan erriko gazteen ardurapean, ermita eta eleizetarako dirua eskatzen, edo eskea egoala gogoratzen.

Istorian irakurten da Kalagorri'ko gotzain zan Espejo eta Cisneros jauna Bizkai aldetik ibili zala 1722 urtean. Ziurra da Markina, Gernika eta Bilbo inguruetan ibili zala. Eta Santa Ageda egun baten kanpaiak entzun zitula eta zerenak ziran itandu. Eskaleen kanpaiak zirala erantzun eutsenean, 1698 urteko Sinodo bateko erabagietan oiñarrituz, parroki guztietara bialdu eban ortarako bere ukapena. Eta jakiña da Deusto'ko parrokian, onelako egunetan neska gazteak diru eske ibiltea be galerazo ebala, Labayru'k diñonez, orretarako neska eder eta beteenak aukeratzen zituelako eta lotsabagekeriz dirua eskatu eragin.

Eta ba dirudi euskaldunak kanpaiak joteari laga eutsela eta lengo erako santa eskeari. Alaz eta egun oneitako eskeak, erri kutsua dauke, geienetan, etxeko jaunari eta etxekoandrearri zirikada alaien atzean, gure gizartean eta giroan agertzen diran premiñen baterako eskatzen eta batzen jarraiten dabelako.

Datorren urtean be beste bertso zar bat gogoratzeko aukera euki daigula:

*Oitura onek jarra tutzen dau
oso denpora luzian,
gure aita ta aitonak ere
orrela ibiltzen ziran.*

SANTU BUSTIAK

Irailla'ren azken egunean San Jeronimo eguna da. Ez dakit beste iñun, baiña erri bitan bai egiten dabe bere eguneko erromeria: Ereño'n, San Migel'en ermitan eta Mutriku'n, Mijo auzoan.

Alaz eta egun au euskaldunak aotan sarri erabili daben eguna da. Irulau esaera ba dagoz berari dagokienak. Eta esaerak onartu, sartu eta gelditzeko, oitura, luzetasun eta zabaltasuna bear eta eskatuten dabe.

San Jeolimo, bustiagaz adizkidetu edo alkartuten dabe. Origaitik gaur egun santu oneri eskintzen dautsezan kandelak, gabetan euren premiñakaz konturatzan ez diren ume eta kozkonduen alde ipinten dira.

Gu ondarrutarrok, XV garren gizaldian, diplomatiku entzute euki gendun. Aldi aretan Martin Likona bat bizi zan gure artean. "Doctor Ondarroa" deitzen eutsen. Tratu eta itun asko egin zitun erri eta aberrien artean, berba gozo, bigun eta labanduna zalako.

Baiña orain ezelako begirapen barik esaten dogu dakiguna eta gure santu oneri be txisati deitzen dautsagu, nai ta mesede billa kandelakin beregana joan.

Jakiña, gaitz da gure esakera batzuk paperetan gelditzea. Baiña euskaldunen artean zabala da au:

*Gaur dala ta san Jeolimo,
gaba orduko txapela bustiko.*

Beste toki batzuetan beste au gogoratzen dakie: "San Jeolimo'k barrena sikatu ta kaskarra busti".

Eta udako legorte eta berroz gogaituta dagozanentzat, ba dauka egunak bere irriztada berezia:

*San Jeolimo,
negua dator ta allimo.*

Alaz eta ba dogu beste bat, eta egunotako frutu bateri gogorapena eta urdaillari gozamina emotekoa da: San Jeolimoz, aragia piper andiak.

Mutriku aldean, "Artzainerreka"ren oiñetan santu onek daukan ermita ez da zarra. Bertan ipinten dau urtea: 1893.

Bertatik amar-amabi metrotara, oraingo errepidea baiño lenagoko Bizkai'rako bidean, burdi-bide zarrean, antxe dago lenagoko ermita, gaur lasto toki biurtuta. A izan bear zan antxiñakoa. Bere leioak ala salatuten dabe, nai ta barruko ezaugarriak, ur bedeinkatu ontzi eta abar galduta euki.

Bide barriak egitean, bide egalean barriztuteko ermitak erraz ikusten dira gure inguruan. Or Markina'n be, 1845'n bide barria zabaldu zanean, bestea-gandik iru-lau metrotara zabaldutako barria. Ziurretik auzo lanean-eleizari eskiñia, an batu eikezan amoin (limosna) batzuk itxuratzeko. Erdotza'ko Andra Mari, edo bertan diñonez "Zuri esaten jatzu Osasuneko".

Mutriku aldera jota, baserri pilloa batzen da San Jeolimo ermitaren auzoan. Gaur Euzkadi'ko indartsuenak, soka-tiran, bertakuak dira. Eta antxiña, bertako illunbe baserrikoak ei euken Errege katolikoei inguruko neskarik ederrenak enren serbitsurako bialtzeko agindua. San Jeolimo'k ondo bedeinkatuta joango ziran ziurretik.

3-IX-82

SEME BIKAINAK

Bizkai'ko Aldundiak gure lurraldeko gizon jatorrak goratu eto aipamenez bereizteko, deitura bat aukeratu eban: Seme Bikain.

Batzuk naiago eben, iñoiz beste batzuk agertu izan daben antzera" "seme kutun" erabiltea. Edo ta "seme guren".

Kutun itza samurregi dala, guren berbak intzentsu usaiña euki leikela... Ori bizkaitarren gorantzi eta besteen esku-muñen antzeko da. Bizkaitarrak, euren-tarrak, beti goraka; besteak biotz-beratsuago, samurragoak.

Dana dala, Roma locuta causa finita esaten da, eta onetan, onorezko semeak aukeratu bear dituana Aldundia danez, bere ordagoaren aurrean isildu eta jokoan jarraitzea dagokigu, al diran aleginak eginaz, andira ezin danean txikira edo beste zerbaitera tantoak irabazten.

Demokrazi denporetako bigarren seme bikaiña egiña da. Kasu onetan ez dagokio seme oneri "sortzea", "egitea" baiño. Bere lan, nortasun, duintasun, izate eta jokabidearen ondorenez datorcion izena dalako, eta ez amaren erraie-tatik dakarrena.

Bat, lenena, Andres Mañarikua jauna izan zan. Goian Bego. Bigarrena laster goretsiteko da: Jose Maria Makua eta Zarandona jauna. Abendua'ren 3'ean, Gernika'n, bizkaitarren etxe sakratuan erriaren aldeko ziñik zindo eta zintzoe-nak egiten ziran eta diran Batzar Etxean, gaur Euzkadiko lendakariak euren erriaganako lotuera eta eskintza nagusia artu eta egiten daben toki berbertan, Makua jauna Bizkai'ko seme bikain gorautatua eta txalotua izango da.

Jakintsuen eragiña ezagutu eta autortzea ez da gaitz izaten. Zaillago da eragintzailleen ekina eta jakiña gorestea. Eta nik esango neuke, azken urte luze eta garratzetan, Makua'ren Bizkaia eta Euzkadi aldezko egiña eta jakina neurritik gorakoak izan dirala bardinbakoak, etsipenik barik, osasunean mindu eta la-

nean "erreta" geratu arte. Eta beti biotz onez, egunari orduak geitu eta gabari kenduta, batean jo eta hestean ots, Maku'k azkatasun bideko Blzkaia landuten jakin dau, gure lurraldearen loratzea Euzkadi'ren loratzea danaren sinismen eta betetasunez.

Makua jaunaren eragiña eta ekina luze eta zabal eta oparo ikusi al izan da, Ekonomi-Ituna, Kontzertua, berreskuratzean, Batzar Nagusien nortasuna eta jartortasuna erakartean, Aldundiaren indar berezi eta emonkorra sendotzean eta abar, gerorako bideak zabaldu eta zubi barriak luzatzean. Eta orren onura biar obeto ezagutuko da gaur baiño, Makua'ren lana sarratuta eta ugartuta egozan erri baten bizitzako ateak zabaltzea izan dalako.

Eungarren mendeurrena ospatuten dogun "Orixe"euskal jakintsu ospatsua-
ren esaera datorkit gogora:

*Geroak esan beza:
"Erri bat izan zan"
edo ta ats emaiogun
ontan iraun dezan.*

Eta gure "seme bikaiñak" Makua jaun txit gorenak, azken orretan emon dauz bere urtetik onenak. "Gure erriak erri izaten iraun dagian". Gure aldetik, zorionekin batean, eskerrik beroenak.

30-XI-88

"STATUS SOZIAIA"

Bizkai'ko erri baten, Udaleko kultur sailaren eskarien artean, bertako osagilleari eta Bizkai'ko Medikuen baltzuari eta Euskal Gobernuko Osasun sailera karta bat zuzendutea eskatzen zan.

Karta orretan esaten zan "Udalak, eta batez ere udaleko kultur sailak espe-
zifikoki, gogo onez ikusiko luke mediku jauna euskara ikasten hasiko ba litz.
Ikasten hasita balego, zorientzen da eta aurrera segitzeko animoak ematen diz-
kio. Eta euskara ikasteko laguntzarik behar ezkerro, Udala prest dago esku legi-
kena eskaintzeko".

Era onetan idatzita egoan eskaria.

Ori, beste barik, egoki dala esan bear. Egoki da, bai, eta zuzen eta txaloga-
rri.

Baiña ez da ori bakarrik osagilleari eskatzen zana: "Gainera kontutan hartzekoa da, euskara kulto bat ikastera helduko ba litz hobe litzatekela, profesioari eta 'status sozialari' doakonez".

Eta aurrerago esaten zan medikuak "herrikoen hizkuntza jakin behar du-la...hurreratze psikologiko eta afektiborako".

Onelakoak irakurtean kezketan jarten da bat. Zer da osalari baten "status sozialari" komeni jakona?

Burukomin ordezt "enkefalitis", edo gibelego eritasun ordezt hepatitis, edo ta urdailleko larri ordezt gastritis eta abar lako izenetatik asi eta erri aretako baserritarrak ulertuko ez daben izkuntzan jardun bearke ete dau osagille arek?

Zer da euskera kultoa?

Kultura jakintza ba da, osagilleak gaixo bategaz jakin eta erabili bear daben izkuntza ez ete da gaixo berberak darabillana, ulertu eragin eta egingo dauana, alik eta garbi eta obetuen?

Onelako jokabide batek nire erriko sermolari batzuk gogoratu eraziten daustaz.

Ba ekien areik sermolaririk onenak ez eukala erritarren artean arrera onik, latinezko textu luzeak tartetan erabili ezik. Eta ekiezan salmoak bitseian erabiltzen zituen.

Orrelakoak entzutean gure zarrak ao zabalik geratzen ziran eta alako baten esaten ekien: Iño, orrek dauka erretolikia! Baiña norbaitek itandu ezkeroz zer esan ete eban, "guretzako baiño geiago" erantzuten ei eban. Ao zabalik laga gaitu.

Osagillearen ardura, gure ustez, ez da gaixoak ao zabalik lagatea. Geiegi jakiñarren gaixoak ulertzen ez ba dauksa, areintzat ez jakiña da, eta ba dago erderaz alako esaera bat: médico ignorante y negligente mata al sano y al doliente.

Euskera aldeko lanetan ez daigun itargira begira jardun. Ba dakigu "Illargian ere euskeraz" liburu bat ba dagola, eta atsegiña gaiñera, baiña...

Nun lagaten dabe erri orretako udal andra gizonak beste baserritar "filosofari" batek esaten ekiana, eskola kalean baiña Unibersidadea baserrietan egoala?

Batzukandik bestiekana a zelako aldia!

Eta bitartean euskerarik jator eta aberatsena, erri-euskera indargetuten.

Barri-zalekeri eta beste zerbaitek ez ete dau lagako euskera guztia ao zabalik, berbarik ezin eginda? Orduan zelakoa izango ete da gure "status soziala"?

SUKARRIETA 'KO AIZEAK

Nire buruagaz berbetan nabil. Etxean autsak kentzea lez, gogoetak bearrezko dira.

- Sukarrieta ba dakizu nun dagon?
- Pedernales baiño lenago entzun eta jakin neban non.
- Eta an nor dagon?
- Gaitz igaroten naz ingurutik gogoratu barik iñor.
- Abertzale?
- Erri zale.
- Sabindar?
- Gogo ta gar.
- Noiztik?
- Bataiotik daukat Sabin'ek euskeratutako izena.
- Eta sendotza?
- Umetatik artu ta gorde bere lotsa.
- Gaztetan?
- Aberriari eskini giñan bere mesedean.
- Eta gero?
- Txingarrrik ez da amataten ai zetu ezkerro.
- Eta zartzaroan?
- Suesta jantzi ta aurrera len goan.
- Sabin gogoa zelan ikusten dozu?
- Beti kezkatu eta urduritsu.
- Eta bere jokabidea?
- Zela komeni ala dantzan.
- Bizitzan bildurtu zala uste dozu?
- Mendebalari eustera gertu.
- Atzeratzea ez al da ori?
- Itxasoan ibiltzen diran txalopak, barrero arrantzateko asmotan eusten dautse "kapan" ekaitzari.
- Sabin'en bidea galdu ete dogu?
- Bide kurutzea . bear dogu zaindu.
- Eta elburuan?
- Errenak eta ariñak, danok al kartu gineiz bide buruan.
- Kalte ala mesede egin eutsan Sabin'ek euskereari?
- Bere gogoak aiña beste iñork ez dau sutu euskal maitasunik.
- Ta bere euskal jokera?
- Neguak udabarria ekarten daben antzera.
- Buru gogorra zalakoan zagoz?

—Gure buru gogorkeria endazkoa dala ta nago.
—Gogor eta ertsi?
—Asitako biderik ezin lei arinke riz etsi.
—Maixuaren filosofia?
—Euskalerrria. Eta bere ikurdi? Euzkadi.
—Zer dozu maiteago, euzko ala euskal?
—Niretzat euzko, errikide deduzko. Euskal, errikide bete, zabal.
—Zer bear dau gaur gure erriak?
—Orren erantzuna jakin bear leuke erri zuzendariak.
—Zuretzat zer?
—Ikusi ta ikasi.
—Ikusi makusi, ortara?
—Lenakoena: Ze ikusi a ikasi, ta lanean izerdia igortzi.
—Azilla'k 25. Abertzale lez, zer egin dozu gaur?
—Imanol Enbeita'ren. bertsoen esan naietan gogartu:
Gure didarrak ez entzuteko
nun zagoz aita Sabino?

25-XI-82

TABAKOA LAGA TA...

Zigarroa erretea lagateak gizon-barritu egiten ditu asko.

Irudimen ketsuak uxatuz, droga antzeko konkoretatik atara beintzat.

Entzuliei parka-eskera jardutera beartuten daben eztarriko garrama barik.

Esan-nai luzetarako be auspoetako aize ta arnas luzez.

Itxura barri bat artzen dau gizonak.

Alaiago, biziago, adoretuago.

Labaian jaunak, Kulturako kontseilariak, Labaien gazteak, jakiña, Eusko Jaurlaritzaren ardura ta kezak, ango asmo ta plangintzak, bertako adierazle lez, zintzo jarraitu naian, tabakoa erreteari laga dauksa.

Eta pozez ikusten da, zirt-zart gauzak erabagiteko asmotan, mai gaiñean naste borrazteaz eukiten zitun paper galduak be aztertu ta egunean erabagitekotan.

Buruaste ikaragarri bat dauka: amazortzi urteko bizirik ez. Geien jota be amazortzi.

Berak ez. Bere ardura, kezka eta burukomin dan euskerak baiño.

Kontuak atarata, Jainkoak nire biziaren ariari ten pixkat egiten ba dautsa, surtilluetako kandela eta praketak txis tanta ta guzti, ia ni-neu bere eriotzara joan al izateko aiña urte.

Nekez lo artu neban lengoan, "El País" irakurri ondoren. (26-Vé82).

Bestetan, ia egunero, lenengo loaldia egin eta esnatutean, mai txikiko irratia amatau barik eta egunkaria beian-gaiñean billatzen dodaz. Egun orretan ez.

Gau orretan, egunkari orretako 62 orrialde osoa irakurri neban. Eta izerdi otzez dardaraka geratu burutik beatzetara. Zeatz agertzen da Labien bere esan eta iragarkizunetan: "Sin una radio y televisión en eusquera, nuestro idioma no llegará al año 2.000".

Konturatu, amazortzi urterik be ez. Ori geien jota. Beste izkuntzarik ez da kigunok, mutu geratu bear.

Azkenean gu zaarrok, geure maitasuntxoak be, "internazionalki" egin bear: "Señakin".

Eta ordurako euskerarik ez latiñik jakingo ez daben abadeak, zelan emongo daustez premiñazko izango dodazan paradisarako pasaportek?

Ez da bakarrik nire gertaera izango. Zazpireun milla euskaldun gara. Euskeraz berba egiten dogunokaz nabil. Larogei milla ume ikastoletan euskera ikasi nairik dabilzan umeak. Eta A.E.K. eta baba barriak baiño indar geiago daukan HABE.

Gaitz da pikotara joan bear dogun ainbeste lagunen ondamendia iruditu ta izerdi likiñetan ez gelditzea.

Orraitio, gure ondamendiak ba ei dauka bere itxaro izarra: euskal irratia, tele irratia. Eta orretarako beste 1.825 millone peseta urteko.

Txarrena au izango da: Azkenean ikastola, AEK, HABE, irrati, tele irrati eta ordurako agertuko diran Kosmo tximiñoien artean, genkigunean be naastuta laga eta "puntilla" emongo dauskuela ta kittu.

Eta euskera gorabera barriro tabakoa erreten jarraituko dala.

TABAKUA ETA TXAKOLIÑA

Oraintsu irakurri dogu. Españar gobernuak tabako kutxetan, tabakoagaz kontuz ibiltzeko zerbait adierazoko dabela.

Alaz eta saltzen laga. Tabakua artzen laga eta zigarroak egitetik eta saltzetik diruak batu. Eta bakoitzari laga kontu artzea. Nai ta osasun kaltegarri izan. Onek be da dauka bere buztana.

Antxina eleizetako egonaldi luzetan be, jendea ketan ibiltzen ei zan. Eta alperrik jardunak eta marmarrak eta galerazoteak. Eleizetatik kalera urte ten ikasi eban jendeak ez bakarrik antxinako denporetan, bai gure denporetako ordu erdiko sermoi bitarte tan be. Ezin egon.

Gure errietako denpora zarretako agindu zorrotzak irakurtean, gure asabak, "estraperlo" aurreko gure ai titak, zelan deituten eta eutsen orrelako tranpei?

Ameriketako lege legorrak zoratuta erabili ei zitun asko, lege orrek irauan eban denporetan.

Eta gureak zer egingo ete eben?

Sekula ez neban entzun ardaua edateko osagillien errezetarik beariko zanik. Eta nire erriko artxiboan billatu dot orrelako zerbait. "Que durante se está de venta el chacoli se venda cla rete solamente a aquellas personas que tengan certificado medico o cirujano de serles perjudicial el uso del chacoli".

Txakoliñaren biotzerreen aurka, ardaua?

1785 urteko dagonillairen 1 3'ko erabagia da ori.

Eta agintariak, eta arduradunak, giltzapean euki bear eben ardaua, eta neurritz atara eta emon zaragia ardau saltzallee, premiña agertu ala. "Dando a los vendedores su pelleja para los enfermos según vaya consumiendose".

Ardau zaragia paper barik emo teko, aitzaki bi bakarrik egozan: Eleizgizonen meza barriak eta euren denporaldietan arrantzaleak txalopetako gizonekaz egiten eben txalopako janerako. Olakoetan be ez danentzat. Soldata edo aloger osoa irabazten ebenentzat bakarrik. Esatea lez, gizon egiñentzat.

Arrantzaleak bai eta legorrekoak ez?

Urte bereko gabonilla'ren 4'an artutako beste batek diño: Etxe batzuetarako emon eikiela alkateak baimena ardaua eroateko, baiña ez euren soIoko biarretan alogereko lez erabillezanei emoteko, ez eta lanak euren kontura artzen zituen argin edo ofizia lentzat be.

Eta tranpak galerazoteko, ardaua ekarten eben mandazairiak beartuta egozan bein errian sartu ezkerro iñun geratu barik, alondikara zuzen joatera.

Ba dirudi txakoliña erriko politikaren karta bat zala.

Mandazaiñak eta bestelako zorrodunak ainbat lapurtxoan mende jausten ziran bidetan.

Gure erria sarri agertzen zan asarre, premiñazko zitun alez beteta etozan zorrodunei Mutriku'ko Mijo auzoan bidera urten eta kentzen eutseza lako.

Origaitik txakoliraren bidez artzen ziran neurriak. Sekula Mijo'tik txakoliñik, asko nai gitxi, ez ekarteko erabagi eben eta agindua emon zan.

Gaur ez ondarrutarrak eta ez mutrikuarrak txakoliñik ia ikusi be ez dabe egiten. Baiña istoria ezagutu egin bear da. Ezin lei dana ixillean eta eskutuan euki.

Ez neuke txakoliñak betozkoz iñor ipinterik. Bestela be, azpaldion, zerbait esateak errez biotz-errea egiten dabelako.

18-III-82

"TENE" ETA JULENE

Emakume andi eta ospetsu biren eungarren urtea aurten. "Tene" Mujika debarra eta Julene Azpeitia, zumaiarra.

"Tene" gogoan dauke debarrak. Urteak dira bere oroimenez urteroko idaz leiaketa eratuten dabela Deban.

Eta aurten, azken orduan gogoratu edo konturatuta, Deba'ko kultur taldeak, eta Euskerazaintzak, larunbatean kultur jai bat eskiñiko dautse bere errian.

Ain zuzen joan dan ilaren 24'an, bere jaiotzako eun urte.

Ille batzuk zarrago zan Julene Azpeitia, zumaiarra. Baiña Donostiko Irakasle eskolan egindako urteak kenduta, bere bizitza Bizkaian igaro ebana. Urtarrillean bete ziran eun urte.

"Tene" k bere "Miren Itziar'eri idazkiak" liburuagaz, eta bertan agertzen zitun olerki samur eta biozkorrekaz, 1.923 urtea ordurako erakutsi eutsen euskaldunei bere duintasuna.

Julene Azpeitia, "Arritokieta", ia denbora bardintsuan, iru urte lentxuago asi zan idazten. "Osasuna, merketza eta janaritza" liburua argitaratu eban 1.920 urtean. Geroago "Irakurri maite" eta abar.

Donostiko Irakaskintza eskolan, laterriko maistrentzako leiaketan, lenena geratu zan bere urtean. Gero, 1.919'n Bizkai'ko auzo ikastolak sortu ziranean, emakume irakasleen sailleko zuzendari aukeratu eben. Bizkaian be maisu-maistren maillan lenengoa zan. Urterik geienak Abadino'ko Matienan. Gero,

gerra ondoren auzo ikastoletako irakasle izateari euskal idazietza geituten eutsalako, or ibili zan bere nortasuna kenduta eta al eban tokian, batzutan Azpil-zan, edo ta beretzako Zumai txiki zan Ea'n.

Gaitz da emakume onein euskeraganako maitasuna bardintzea. Gaur baiño zailago zan euren denboran, nai eta Julenek lez auzo ikastoletan lan egin, irakaskintzako kateak euskeraren mesedean urratzea. Baiña ezin ukatu auzo eskolak geroagoko ikastolen aurrelari izan ziranik eta euretan, nai eta garbantzuz baltzak tartetan agertu, euskeraren alde, al zan bestean, lan egin zanik.

Orainsu Gregorio Arrien'ek idatzi eta Bizkaiko Foru Aldundiak atara daé ben "Educación y Escuelas de Barriada de Bizkaia" liburuan ikusten danez, guztira 125 auzo-eskola egotera eldu ziran, nai ta batzuk sarratu eta 1933 urtean 113geratu. Euretan 162 irakasle eta 6.321 ikasle eukezan, eta ikastaroak zintzo eroaten ziran, batez beste ikasletako euneko 81,42 eskolara joaten zirala-ko.

Ezagutu bearreko da gaurko ikastolak, erri eta euskera maillan, jokabide argi eta zeatzago bat daroela, baiña autortu bearreko da baita be gizaldi bateko egiturak ez dirala bat-batera eteten, eta urratzen alegintzen diranak bear ba da gaurko bideari soil-soillean jarraitzen diarduenak baiño, alegin eta borondate geiago ipini bearko ebela gaurko bidearentzako azpi-egitura gertu eta landuten.

Eta onetan Julene lakoak, eta beste batzuk, nai ta gaur emen izentatu ez, euren eragina euki eben gure erriaren mesedean.

I-V-88

TOKI ZARRETAN

Udabarrian toki polit eta atsegiña da Ziarrotza.

Ba dakie batzuk. Ez askok. Zorionez ba diardue lanean bertako Kolejiatan.

Lanak noiz amaitu, askoren kezka da.

Urteak dira zerbait egiten diarduela. Lenengotan, barriztuten baiño lengo zarrari eusten geiago. Orain zarra egokitu eta barriztuten sakontxuago.

Era onetan, oraindik denporaldi baterako lana igartea da an. Gero etorriko da, eta beste kezka izango da, an zer egin. Edo toki a zetarako eskiñi. Ori beste burukomin bat izango da.

Ez da erraz gaur onelako toki bateri bizia emotea. Ziarrotza'k daukazan baiño aukera geiago euki ezik bertaratzeko eta bertan egotaldiren bat egiteko.

Bolibar amerikar errien azkatzaillari dautsen lotsaz, ba dakie bere adiski-deak urtero zerbait egiten, besterik ezean urteroko batzarra, baiña jai ori ospatuteko be ez dira beti toki baten abia egitea atsegin dabenak.

Igaz Bolibar baten eungarrenetako ospatuteko, erria txukundu eben. Or geratu da bertakoen mesederako. Erakustoki edo museoa zer? Zenbat ikusle? Gaiñera, orandik be turismoko orri eta zabalkundetan. Bolibar agertzen danetan, plazan dagon etxea agertzen da Bolibar odolekoen jaiotetxea lez, eta ez azkenengo jaietarako erosi eta apaindu zana.

Dana dala, goazen gora, Ziarrotzara.

Ain zuzen be maiatzaren 12'an beteten dira seireun urte, Ziarrotza'ko Kofradi baten legeak eta oiturazko arauak batu eta idatzita laga ziran egun lez artu geinkena. Igokunde (Asentsiño) Kofradiko arauak ziran.

Gure zarrak nekez batzen zituen paperetara euren oitura eta ekanduzko legeak. Euskaldunena, oraintsurarte, berba, itza izan da betebear jatorra. Baiña danentzako on eta mesedegarri izaten da oiturak eta legeak batu, zeaztu eta osotutea eta paperetan ziurtatzea eta alaxe egin eban urte aretan, 1384 urtean, bertako Abata nausi zan Pedro Markina jaunak.

Eta orduan oiturea zan lez, oroitzetan eta gomutetan be galduta egozan denporetatik etozala, esaten da orduan idatzi ziran arau eta legeak.

Kontuan euki Ziarrotza zarra dala. Eleiza berbera, lenengoa, 968 urtean jasotako lez dagola. Eta San Millan eta beste monastegi entzutetsu batzuen antzera, Ziarrotza'k itzal luzea eukala Euskalerrian. Eta ez bakarrik itzala. Egitezé ko ezaupide eta menpetasuna eukazan ingurutako eleiz eta parrokien gaiñetik. Orrela erri eta eleizate askotan billatzen dira Ziarrotza'ko abaten jaubetasuneko zelai, solo eta etxeak. Eta bertara lotzen zituen etxeak. Ala ezagutzen ziren Axangiz, Berriatua, Lekeitio, Lumo, Murelaga eta abarretan. Ez bakarrik Bizkaia'n. Araba'ko lautadan be sartuta egozan eta ainbat lotuera ezarrita eukezan bertako lurgin eta bizilagunak.

Ziarrotza'k merezi leuke biztaitarren eta euskaldunen begirapen geiago, batez be gure istori zarra maite eta gogoratu nai dabenen artean.

TXALUPAK KATEAN

San Txilibristo, besigua ezpanetatik dindilizka, esaten ekien gure zarrak, besigua neguan bakarrik arrantzaten zan denporetan.

Zoriondun orren eguna, danok dakigunez, gabonzar egunean ospatuten da.

Orrez gaiñera gogoratu giñeiz beste bertso batzuk be:

*Besigu troku zuria
orio berdez bustia,
piper gorri puntakin
eskatu ala guztia.*

Edo ta

*Oraintxe da sasoi
besigua jateko,
eskamak garbituta
erreta ipinteko.*

Jateko eguna igaro da. Aurtengoz istorirako geratu ziran esaera ta bertsuak.

Utsik igaro gendun gabonzar. Laiñoz asi urtea.

Itxasertzean ez dira urak beti argi ikusten.

Arraiñak irabazi aiña burukomin, esaten dakie batzuk.

Azken urteotan, urtero kantu bardiña entzuten dogu: Arrain gitxiago eta ontzi gitxiagok arrantzatu bear dabela. Europa'ko erri andietatik datorkigun leloa izaten da, itxas andietako arraiñen jaubetzat agertzen diran errietatik.

Bitartean, urte barria asieran, urte barri bizi barri, esango dogu, baiña portuetan txalupak katean.

Bizi bearrak zolitu egiten dau kaskarra ta batzuk jai ondorenez urtenak dira, al dan tokira. Besteak merkatu batuko errien baten ikurrinpean ibiliko dira, irabaziak, batzuk beintzat, ikurrin orde lagata. Eta beste asko, arriskuaren bildurrez eta ondorenen arretaz, etxean lotu dira ta kaia txoriak barri obeagoak ekarri arte egon bear.

Etxeko ibiltea, portuan geratzea etxean ibiltea da, zor egitea da. Eta arrantzalea, jai zale ba da be, nai ta ez etxean gelditze au gorrotatzen dakiana da.

Edozetara be, sinistu ezin lako da, urtero, zar eta barri bitartean, arrantzako kupoak ezin erabagita ibiltea.

Eta emen txalupak lotuta eta merkatuetara leorrez arrain ekarten ez geratzea.

Askotan aitzaki zuzen edo ta eragozpen bidezkoztat artu leikezanak, merkatarien tratu zikin eta atzipekor ikusten doguz.

Pasai eta Ondarroa sartzen dira geien bat sare onetan. Besteak, "bajurakoak", geroago eukiten dabe tratu egin bearra.

Mingarri da euskaldunontzat urtero orrela ibili bearra. Itxasoetan antxiña-

tik asi giñalako eta askori itxas bideak gureak erakutsi eutsezelako. Ba dira lau-reun urtetik gora Pierre Lancre frantzetarrak idatzi ebala, euskaldunak, bataren azpian edo bestearen mesedean, beti itxasoetara begira ikusten zirala, gizaldi zarretan. Itxas bideetan penisaten baiño ez ebela jakin. "Aizeak eroaten gaitun bide bagako bidetan", esaten eban berak.

Eta orain be itxas bidetan pentsatu bear, txalupak katean lotuta!

6-I-84

TXALUPAK SANTA KLARAREN PAREAN

Ogei urte iraun eben Ondarroa'n arrantzaleak euren Kofradietan banatuta.

1907 urtean, bizi guztiko oitura apurtu eta Kofradi bitan aldebanatu ziran. Batek izen zarra eroaten jarraitu eban, Euskalerrian beste arrantzalienen Kofradiak ez daukena: Santa Clara, Kalare deuna. Besteak ainbatek dauken lez apostolu arrantzalearena artu: San Pedro.

Eta alkarren leian ibili ziran, 1927 urtearen asieran barriro alkartu arte.

Batzuk, erreka ondoan, urei tokia irabazi eta euren etxe barria egin eben. Besteak, lengo zarra beratu ta aren tokian barriztua jaso, Zubizarraren egalean gaur ikusten dana.

Etxe au dala-ta, Jose Iribarne'ren liburu baten, "El arquitecto Pedro Guimon-Las modernas orientaciones pictóricas en el País Vasco" an esaten da: Ondarroa'ko Zubizarraren ikuspideak ikutu andia egin eutsala Gimon'eri bere argien banatze zoragarri eta egituraren ederragaitik.

Zubi egalean Kofradi zarraren etxea egoala, bere zeregiñetarako be gauza ez zala.

Eta Gimon'eri barria jasoteko agindu eutsenean, lenengotik pentsatu ebala zubia eta etxea alkarren pare jatortasunez agertzeko Kofradietxea egitea. Eta puntua emoten dauksen bertsolaria, bertsoa amaitzera beartu edo lotuten daben lez Gimon be orretara beartua ikusi zala, eta Zubizarraren parean, nai ta eskabi-deak bere patrikarako mesederik emon ez, olerkari baten antzera betiko goratuko dan lana egin nai izan ebala.

Jakingarri izango litzake zelan sartu zan gure artean Klara deunaren maitasuna.

Deun edo santa orren irudi gotiko egozan Euskalerrian, bertako eleize-

tan. Gipuzkoa'n bi, Errenderi eta Zerain'en eta Bizkaia'n bakarra, Ondarroa'n. Irudi gotikoak, au da XIII eta XIV gizalditakoak.

Eta Lekuona tar Imanol jaunak ezin goratuz ibili izan ditun Santa Clara'ren kantak: Bieta Santa Clara —euskeraz argia, zeu zara zeruetan, dontzella garbia-bertsoagaz asten diranak be gotikoak dira. Eta ain zuzen Ondarroa'n geratu ziran eta gorde, gaurkoak be gogoratzeko eran, nai eta gure gizaldiagaz batera euren berbak, itzak, zerbait orraztuta gogoratu. Baiña berben agertzeko erak garbi erakusten dau gotiko jatorrak dirala.

Or dago baita, Santa Klara, erromantze zar eta txukun batcn, itxastarrei bide eta biotzak argitzen:

*Txalupatxu bat, txalupatxu bi
Santa Klara'ren partan_
geure anaia antxe datorke
batian edo bestialt.*

San Antonio itxasoz etorri eta Ondarroa'n sartu eta ibili zala ziurtatzen daben liburua ba dago. Giro eta aldi aretako fraileak ibiltari izan zirala ba daki-gu. Baiña zelan sartu ain sakon gure errian Santa Klara'rcn, Kalare deunaren itzala?

Berak argi daigula jakin edo aztarrenak billatzen.

I2-VIII-82

TXAPELA

Oraintsu irakurri neban,

Gipuzkoa'ko erri baten,bertako zaindariak txapel gorritz jantzita ibilteko erabagia artu debela ango agintariak, baiña zaindariak ez dabela erabili nai orrelako txapelik

Prakagorriak modan dagozan aldi onetan, txapel gorririk zagaitik ikusi nai ez? Ba dakit jokaera ori ez dala erri ortakoa bakarrik.

Urteak dira, antzerki batcn pregoilaria iruditzen ebana tsapel gorriagaz atara nai gendula, baiña ez egoan iñor a makurtzekorik.

Danok dakigu txapel gorria erabili ebencn czaugarria lengo gizaldian, batez be azkenetan, gure errian. Bai txapel zuriak bc.

Jakiña da geroago txapel erabili ebenen ezaugarria lenago txapel zuria izan zala. Ta gero txapel zuria liberalak erabilten ebela.

Ordukoak dira bertso oneik:

Azpeiti'ko neskatxak, gona gorriekin, ez dute dantzatu nai txapel txuriekin.

Orra gorria, batzutan txapelean, bestetan gonetan, alderdi baten ezaugarri, nai ta politikako jokabidetan "zuri" deitura edonun agertzen ibili.

Orretan sartu barik, kolorea albora kenduta, txapelak berak emon izan dau iñoiz zerbaiten nortasuna.

Irakurri baiño ez daukaguz lengo gizaldiko kontu batzuk, eta gure erriaren eskubide eta foruen aurka jokatu ebenak txapelari zelako begirunea euken jakiteko.

Ain zuzen 1838'ko Azilla'ren 27'an, Espartero generalak Logroño'ko kuartelean emondako pregoia jakingarrria da.

Euskeratuta, au da agindua:

"Txapela erabilteak dakarrezan kalteak sinistuta, gure Erregin Isabel'en eskubide zuzenen aurka diarduenen ezaugarria dalako, eta jakiñik guk darabilgun auziaren arerio diran batzuk arrokeriz eta moda lez artuta, naste ta kalte garrazak ekarri erazteko giroa sortu eragin leikela, batez *ere* arerioen aurkako jarrai penetan... nire agindu au emoten nator:

1. Pregoi au jo eta zabaltzen dan une berbertatik asita txapela erabiltea galarazoten da, danentzat, militar izan nai erritarrentzat.

2. Jaramonik egiten ez dabenei, lenengoan 80 errial zigortzat, eta ez ba daukez, illa birako kartzela; bigarreanean birritan geiago eta airugarrenean urte-biko kartzela".

Edozetara ere ikusten da txapelaren nortasuna, era bateko jendearen ezaugarri lez, eta orretan euskaldunak ziran geientsuenak, noraiño elduten zan.

Ba dago erderaz alako esaera bat: Bonete y almete, hacen cosas de copete. Au da, eleizeak eta armak nortasuna emoten dautsela bateri.

Euskeran be da doguz "filosofi" andia erakusten dabenak: Txapel baten barruan buru bi ezin sartu. Au da, txapel baten azpian aburu bat, jokabide bat, nortasun bat bear dala esan nairik.

Eta ba dogu beste esaera bat txapela kendu eragiteko lakoa: Txapelik andienak ez dau buru utsik beteten.

Zeiñek ukatu orren esan naia luze doala, eta bakoitzak zeri aitzakitu ala egin leikela?

TXARRIAK ETA AZILLA

Azilla'ren sarreretan zer esango?

Esaera zurra da eta mamitsua esaera zar guztiak lez. Zabala, tokirik mugatu barik.

Onela diño: Azilla otz, negua motz. Azilla bero, negua *gero*.

Beste gauzekin egiten dana: entzun, ikasi, gogartu eta denporeari itxi bere errazoa emoten. Edo egizko alderdi eta zentzua komeni dan tokietan erakutsi eta zabaltzen.

Esaera eta oiturak batera etorten dira sarri, batez be giroari dagokienetan, edo ta bizitzako premiñetan.

Ukatu eziña da, gure erri eta baserrietan, eta etxe askotan, lengo denporetan, txarria izaten zala urterako "itxaropena", eta gure bizitzan indar andi eta berezia eukan izakia.

Origaitik il onetako santuak, eta berbeari ez billatu okerkeririk, txarri zaleak ziran, edo ta euskaldunak txarri jaia, onetan eriotza jaia zan, euren egun inguruetan ospatuteko oitura eukiten eben.

Ala, bat aukeratzeko, san Martin.

Eta san Martin ortarako ona ba zan, gogoratu esaera osua: San Martin nerekin, san Roman arekin eta santa Katalina bererekin;

Eta gero, il azkena, san Andres, txarriak askan trabes.

Orretara il osoa, Azilla nai Azaroa deitu, txarri illa da

Azkue'k diño il onetako oiturei buruz: Santu guztien egunean, zemendia-
ren lenengoan, Bizkaiko mutiko neskatxa asko berba onek kantaten dabez: Do-
muru Santuru, Santuru, txurri andi bat il dogu, buztana ez bestea jan dogu, a
bere lapikoan daukagu.

Gaur; gaurko jai lez, ez dauka orrelako itxurarik, baiña ziurretik denpora
zarretan ala gertatuko zan edo gertatu eikean.

San Martiñetan, toki askotan, buzkantza jatea nai ta ezko izaten da. Jan
egin bear, loditzeko be.

Danok dakigu, edo esaten da, san Martin lodi zalea dala, ez zistrin zalea

Berakatzari itandu ei eutsen bein: Zegaitik geratu zara ain zistrin? Eta arek
erantzun: San Martin aurretik ez ninduelako erein.

Gogora datorkit beste esaera ezagun bat eta oraindik be erabilten dana: San
Martin, txarriak il eta lukainkak egin.

Zenbat orrelako bazterretan?.

Datozan egunak orrelakoz beteta dagoz. Txarriak ba dakie: Azilla txarri zi-
llen billa.

Nunbaiten irakurria daukat eta parkatu bekit bertsolariak une onetan bere
izenik ez gogoratzea:

*Aitak etxerako diña
zuben oitura jarria,
ospatzeko san Martin
iltzeko urtero txerria.*

8-XI-83

TXIRRINGAZ

Kendu eziñiko garra daukat nire ingurua dala-ta. Bertako edozek erabili eta erakarten nau.

Toki polit eta ikusgarri asko daukaz Euskalerrriak.

Itxas ertzean, Deba'tik Lekeitio'ra bitarteko itxas gaiñeko ikuspegia, ederrren artean sartzekoa da.

Gaur erromantikukeriak baztertu doguz, baiña Humbolt izkuntzalari ospatsua, Europa'ko gibeletik Markiña aldera Mogel "Peru Abarka"ren egillea ikustera etorri zanean, emendik igaroeran esan eta idatzita laga eban, Gipuzkoa eta Bizkaia alkartzen diran itxas-aurre au baiño leku erromantikuagorik ez ebala iñun ikusi.

Euskalerrriari txirringazko ostera asi zanean, poz bat eruan neban. Eta Arlaban'go bidean, Eskoritza eta Araba'gazko muga bitarteko bidean, Gatzaga'ren aurrez aurre dagon txirringularien zaindari dan Dorleta'ko Amari, nire agurra eskiñi.

Irratiz beintzat, Euskalerrri inguruan "txirringaz" deiturako saioak entzun doguz ainbat ordutan.

Len zela-ala asmatu edo sartu ziran izen eta berba guztiak galtzen edo ta galdu eragin naiaz gabiltzan denporaldi onetan, "txirringa" berba bera gaurko euskal berben aurkako garbizaindi edo inkisisiñoiak gaiztetsi barik edo ixildu eragin barik lagatea, mirari zan da.

Bizkaia'n beintzat, gure gerra aurretik, "txirringulari" berba asko sartuta eguan.

Gatz-saltzaille bat Bilbo'tik erriz erriz Bizkai guztian zear txirringaz ibiltzen zan eta txirringulari deitutuen eutsen Bilbo guztian. "Excelsior" egunkaria, geroago "Excelsius" zanak, sarri erabilten eban deitura ori, nai ta erderaz idatzitako egunkaria izan. Txirringulari, txirringularismo eta abar "sartu" egin ziran bilbotar kirol zaleen artean.

Orretan itxura zaindu dogu.

Eta ori alboan laga-ta, zer esan dabe izparkariak eta irratietako izlariak gure inguru au dala ta?

Ez itxas aizerik, ez toki dotorerik, ez arrain usaiñik, ez kresalik, ez ondarririk, ez iodorik

Ez Ondarroa'ko zubizarrík; ez Lekeitio'ko "aitita-makurrik"

Bideak, bideen illeta eta bideen negarra erabili dabe, burua be mindu eragitekoteko bestean.

Bidetako autsa eta bidetako arri kozkorrak, eta bide okerrak, eta narru gorrian dagozan bideak besterik ez dabe ikusi eta besterik ez dogu entzun.

Eta gauzak ziurtatzeko, biribiltzeko eta puztuteko, "lider" etorrenaren zistada (pintxaketa).

Erdaldunak esaten dakiena: Len gitxi ba giñan, orra amuma be ume giñan.

Edo ta guk ezagunago doguna: An zulo ta emen zulo, iru milla kakazulo.

Dana dala, ari baltzik etxakula falta soiñeko zurian.

21-IV-82

TXISTULARI ETA TXINELAK

Galduegin dogu txinel berba, ertzain edo aguazilla berben mesedean.

Iztegietan ba dator. P. Mugika'k, bere Diccionario Castellano Vasco'n baten dau, bizkaiko berba lez. Eta azkenengoz argitaratu eban Vasco-Castellano'n, alguacil, justicia, corchete, vergueta, esan naiak agertzen dautsaz.

Azkue'k, bere "D. Vasco Español Francés" en, batzuk orrela deitzen dautsela aguazillari, baiña bilbotarren bilbotar-endera zarreko berba dala diño, eta ijito edo motxailien berbeta mordollotik artua dala.

Esaera au, motxaile berba atsegin eban Azkue'k, orrelako zerbait esaten eban "akeita" berbeari buruz be.

Dana dala Euskalerrian txinela eta txistulariak ba euken batasun bat, alkartasun bat.

Geienetan gizon batek beteten zitun zeregin biak. Egia esateko, ertzaiñik geienak, zaindaririk geienak, erri txikietan, beste ainbat ardura eta zeregiñen jaube egiten ziran. Sakristauak lez.

Gaur dira beste kontuak.

Ba dirudi ordena-obeagokoak zirala lengo gure zarrak. Zaindu bear gitxiagoko.

Txinelak, aguazillak, lzan be erriko mandatari edo albiste-emole geiago ziran, makilladun gizon gaizto baiño. Eta umeen zaindari, zuzentzaille, zigortzaille orde. Eskola-igesi ebiltzan mutillen arduradun.

Iñor zigortutea baiño gure denporako zaindariak naiago eben eta poz geiagor artzen eben errekan billoizik igarian ebiltzan mutillen jantziak eskutuka artu eta jantzi orreik maixuari eskolara eroaten. Or konpon gero maixua, egin bear ebanagaz.

Eta ondo pentsatuta, erria ezin alaituta ebillan txistulariari egoki al etorkion, txinel edo zaindari zan artean ñor zigortu eta ñori negar eragiten ibiltea?

Gure erritxoei gaur begiratu eta orain eun urte inguru begiratu, ba dago aldia orrelako zeregiñeri ardura, kezka eta premiñetan.

Ondarroa'n, esate baterako, 1872 urtean, Domingo Ramos Arrate zan erriko txistulari. Eta Udalari, erriari, egunean errial bi aurreratzeko bidea billatu eutsan.

Gaur erriari nundik kendu ibilten gara. Sasoi aretan erriari zelan aurreratu eragingo. Arek denporak!

Arrate onek eskabide bat egin eutsan Udalari. Txineltza, aguaziltza be berak egingo ebala, txistularitzagaz batean, eta orrela errial bi aurreratzeko aukera izango ebala. Origaitik, serbitsu bien orde, eguneko amar errial izentatu jakozan. Banaka eroan ezkeron bien artean amabi irabaziko zituen.

Eta ez da ori bakarrik.

Udalak zeregin ori emon eta ziurtatu eutsanean, beste baldintza bat ipini eutsan: txistua jo bear eban aldietan, premiña egon ezkeron, txinel edo aguazil ordeko egin bear ebana bere kontura berak izentatzeko.

Beraz zein ete zan zeregin arduratsuago, txineltza edo txistularitza?

TXISTULARIEN JANTZIAK

Oraindik ba dago erri txiki batzutan jai bezperetan txistulariak kalez kalezka ibilteko oitura.

Ez erriko jai andien bezperetan, urte guztiko domeka eta jai bezperetan baiño.

Eta oraindik zeregin ori daben txistulariak, garizuma ixiltasun denpora lez gordeten dabe, lengo oitura zarra bete eta zainduaz. Au da, garizuman musika jotea galerazota egon zan lez, oraindik be atsedean artzen dabe denboraldi onetan; jo ez.

Jai andietan, jai egun berbertan be goizeko bederatziak aldian kalejira egiten eben, amarretan eleizpean batzeko, eta gero, meza nausi aurretik, eleiz inguruan, eleiz kanpotik egiten zan "korretan buelta" edo eleiz kanpotiko jiran, abadeak gergoritar doiñuzko salmoen baten kantaldia amaitu orduko, eurak "San Iñazio'ren martxa" jotzen ekiteko, eleiztarren ibillaldi aldi txikiaren aurrez-aurre.

Gaur, zapatutik asten dan lez jaia, txistulariak euren era billatu dautse jai bezperari eta eguerdi ostean kanpai andiekaz batera egiten eben osteraren orde, goizeko bederatziak orduko egiten dabe kale ostera, jai bezperari, beste gauzetan lez, aurrea artuta.

Alaz eta gaurko kale eta bideko kotxe, burdi, zarata eta jendetza artean, euren egitekoa ia galdu lez egiten da. Begirune, nortasun eta ia aintzat artzeko beta barik igaro.

Gero, nai ta talde osoa igaro, gaurko erdi jantzi eta ardura bako estalgarriekin, ia ezagutu be ez diraegiten.

Euki ete dabe iñoiz jantzi berezirik erri askotako txistulariak, eta batez be erri txikietakoak?

Sarri ikllsten doguz uri andietakoak euren jantzi berezi, bakarti, baiha era batekoekaz, "uniformeekaz".

Batzutan buruko txapel luze edo kasko antzekoekin be bai. Txapel gorria izaten da beste batzutan ezaugarri.

Nire erriko artxiboko liburuak aztertzen ibili izan naiz iñoiz. Ez ain zuzen be orren billa, baiña bai beste gauzak aztertzean, txistularien denpora, oitura eta izenak be gogoz artu izan dodaz.

Gure zarrak eurei ezarten eutsezan deiturak jakiñak diranarren gogoratu leikez: "ministro álguazi] y musico juglar o tambolintero". Deitura au da geien irakurten dana.

Eta ia irureun urtetara eldu leike azterrenak billatzen.

Ain zuzen be aurten berreun urte. 1782 urtean, argi pixkat egiten da txistulariaren jantziari buruz. Au esaten da: "vestido de Abad, a uso de músicos".

Beraz agirian geratzen da orain berreun urte, Ondarroa lako erri txiki bateko txistulariak, goitik berako kapa erabiliko ebala txistua jo bear ebanetan.

Txistuari zar girorik eta antxiñakotasunik *ez ete* leutzake emon eta sartuko gure txistulariak, lenengoa, bigarrena, silbotea eta atabala, kapa luze eta osokoz jantzita atarako ba genduz?

10-VIII-82

GIZON ON BAT TXOMIN OLANO

Euskal irratsaioak gerra aurretxoan asi ziran. Oker ez ba nago, astean bein. Eta euretan, pianoan. borondate andiko gizon on bat laguntzaille: Txomin Olano.

Baketsu eta apal, ixil eta umil, gizon andi zan. Andi soñcz eta andi izatez.

Euskal lankide lez ezagutu giñan, bera euskal agcrpen guztietan sartzen zalako.

Bigun eta apal zalako. Lan ugaritarako indargabe itxura emoten eban. Baiña danetara eltzen zan. Sasoiz beti, eta ixilik, nai ta beste zaratatsu ta naste-tsuagoak beti errenka ikusi.

Ziur nago Txomin'gaitik sekula ez zala jai bat atzeratu, ez eta bere beste zeregiñetako zerbait egin barik geratu.

Bake zale zan Txomin. Pastela lako gizona, bake zale izan bear. Baiña arek be, gure gerra sortzean, Donosti ta ingurutatik urten bear. Eta nai ez da, baiña atzeraka, Bilbo aldera joan.

Eta Bilbo'n, ixil, baiña sctatsu, bere abertzale ekintzan jarraitu. Ez zan bera, kalez kale oiuka, deadarka, goraka, ibilteko gizona.

Txomin'ek ba ekian abertzaletasunaren arerioak nun egozan; ba ekian gure gaztediari zek kalte egin eikean, ba ekian gure gudarosteari zek ikutu eikean bere nortasun, osatasun eta osasunean.

Eta Txomin, bere kontzientziaren dei batek ten eginda, Bilbo'ko kalerik nastetsuen eta lizunen inguruan ibiltzen zan, era ebanean.

Eta Txomin, bere kontzientziaren dei batek ten eginda, Bilbo'ko kalerik nastetsuen eta lizunen inguruan ibiltzen zan, era ebanean.

Oraintsu agertu dan "Un Gudari navarro en los frentes de Euzkadi, Asturias y Cataluña" liburua irakurri dot.

Gure gerrako ainbat kontu, zeaztasun, jakingarri, oroigarri. Bertan ibili zalako, nortasunez, egokitasunez eta zintzotasunez José Estornes Lasa'k esan eta agertuak. Artxibo eder eta ugaria dabe Estornestarrak. Eta oraingoan lez. bakoitzak bizitako gauzetan, irudiak eta gogaetak artxibo arduaratsugaotan biurtzen dira.

Liburu onetan, nik ezagutu neban Txomin Olano'ren euskal endaren, euzko arrazaren aldeko apostuladutzako jokabide bat agertzen da.

Ez dot uste Jose Estornes asarretuko danik zatitxo ori azal-azaletik euskeratuta agertzen ba dot.

Gudarien ekanduzko nortasuna. (Zabala kontulari) (108 orrialdean).

Eusko Alderdi Jeltzaleak, Euzkadi zaintzeko gaztedi bat gerrarako gertu ondoren, gudariak zintzoki zaindu nai izan zitun, eurekin eukan aitaordekotzari erantzunez.

Adibidez. Saseta gudarosteko Zarragoitia taldeko lagunak. Elgeta'ko mendietan ibili ondoren, gure eguneroko ordain mordotxo bat kobratu gendun. Eta Bilbo'ra joan giñan, bearrezko baimenekin. zerbait ospatu ta diruak eralgitzera.

Gauzatxoak erosi. Luciano jatetxean afaldu eta gero... Gero, alkarrekin gebiltzan lau bost lagunok, sekula bizi ez gendun gau bizitzako abentura ezagutzera San Francisco ta ingurutako kaletarakoan giñan.

"Bataclan", "El Gato Negro" eta abar an egozan. Eta barruratzeko asmotan giñala, nun topo egiten dogun donostiar abertzale jator zan Txomin Olano'kin.

Begiratu ta esan euskun: Ba dakizue nora zoazen? Guk janari on bat egin gendula ta lenengoz alako zerbait ikusi nai gendula.

Gure ardura eta kezka bizi ziran familiak gogoratu erazi euskuzan Txomin'ek. Gu gazteotan bere fedea ipinita eukan Euzkadi gure aberria aipatu, eta ez gure famili ta ez gure aberriarentzat onik eta birtuterik ez egoan lekuetara giñoiazala jakin erazi.

Erdi lotsatuta, buruak makurtu, alkarri lepotik eldu, eta kalez kale asi giñan, kale ezagunagoetara alderatuz, "Boga Boga" kantari.

Guzurra dirudi, baiña Eusko Gudarostea, oraindik emakumerik ezagutu gabeko gazte askok osotuten eben Gudarostea zan.

Orra, laburtu eta batuta, azaletik, liburuak gogoratzen daben gertaera.

Bakoitzak daki nun egin leiken lanik egokien. Txomin'ek euskal musikaz giro atsegiñak emon euskuzan. Baiña beste "musika ixil" orregaz, batez be gerrateko arrisku eta gaixo-bideak zainduz. aberriari kantu ederrak eskintzen jakin ebanik, ezin ukatu.

UBERA'KO URKULAK

Guk erdal eziketa dogu.

Erderaz tutik ez ekian monjatxo batek he erderaz erakutsi euskuzan gure lenengo ikasketak.

Geroago, maixu batek, ez eban sinistuten Espiritu Santuagan. Zer erantzun jakin ez eta buruari atz-ka gora begira jarten ba giñan; argitasuna nundik etorriko, "estás pensando en Babia" esaten euskun zital, kazkarrekoren bat emonaz batean. Edo ta albotik zear erantzuna luzatu ta ezin zeaztuta ba gebizan, "andas por los cerros de Ubeda" erantsiko euskun, eta ez gozo.

Nire gaurko lan onen deitura irakurri ta norbaitek pentsatuko eban Bergara aldera edo Elgeta'tik bera eta natorren, ango Ubera lurralde eta ingurua gogoratzen.

Zeiñek ez daki mendiarte aberats aretan urkula ederrak ebagi leikezala ango zugatz-ederretan?

Baiña ni itxasaldean nabil. Urkulak, egurrezko urkulak, arrantzaleak eskuetan itxasorate askotan erabilten- zituen tresnak ziran. Atsegiñez billatu ta gertuten zituen, eurak' basoetara joan, arboladietan urkula me egokiak ebagi, labain txikiekin azala kendu ta zuri-zuri laga ta gero apaillu (aparixu) luzeak, trezrak, euretan batuta eroateko. Orrela otzara zapaletan tolestuta ipini al izaten zituen ainbat korda, txukun. Edo ta treotzaretan.

Len urteetan aldatzen ez ziran oiturak, gaur aita-seeekana be ez dira igitoten. Orrela ezin lengo askorik jakin gaurkoak, eta okerrena, sinistu he gaitz egiten dabe.

Oraintsu "Euskerazaintza" k astero-agertzen ditun itz-sariketa saillean, emen asko erabilten dan itz bat etorran: atxamarta. Baiña ez ain zuzen arrantzale gaiki eta erantzun lez, bestelako berba zabal bateri emona baiño; erderazko "mecanismo" euskeraz esateko baiño.

Ezin ukatu zela-ala arrantzarako atxamarta, iru-lau amu alkarregaz lotuta gertuten dan aparixua, era bateko mekanismua danik, baiña gure deitura oia ezagutu eta Euskerazaintza'k emondako esan naira, oraingotan luze jokatu bear da. "Mataputxetaz" jo ta konkortu bear itxuraren bat artzeko.

"Mataputxeta" zer dan? Ba arrantzaliak txalupetan erabilten daben ol zati bat, arraiña amutik azkatu eta ontzian salto-saltoka ibili eta bear ba da itxasora iges ez dagian, ilda edo makalduta lagateko. Garbi esanda, azken-ola, azkena emoteko ola, egur zatia. Arraiñari azken arnasa galdu eragiteko izkillu zuria.

Eta uberako urkulak?

Erderazko "percha de Curricán" baiño politago ez al da? Eta esan-naia jatorrago agertzen dabena?

Ez al eutsen alaxe deitzen gure zarrak, txaloparen atzen eroaten dan urkulari, andik aparixuak uberan zabal luzatzen joateko?

Azkue'k "uera" erabilten dau "ubera" ren ordez. Baiña guk, berba gogorreko arrantzale errikuok, beti iñoren "kazan" ibili barik, ez al dogu tal-tetan gcure eran jokatu bear?

6-II-83

UDA ETA JAIK

Zezenak eta dantzak dirala, esan lei, erri askotako jaien oiñarriak.

Ainbat bidar plazetara ataratako zzenak, soka muturrean. Kaletako barri mendiko larre eta belardietako bezin ondo dakienak.

Markiña'ko Karmenetan dantzaldi atsegiñak ikusi nitun.

Lengo zarrak, leiaketa barik, azken geratzeko bildur barik, gaurko askok ain bizi egiterik asmatuko ez leuken eran dantzan.

Irurogei ta amar urtetik gorako bikoteak, irurogeitik gorakoak, oraindik auspoa zulo barik eta oiñak arin.

Baserritarrak gertatu ez ba ziran, ia gogoratzeko lez lenagokoa: Dantzan obeto daki artajorran baiño.

Edozein errik daukaz onelako dantzariak edo ta ingurutan billatu leiz, eta ziur egon lengo dantzetako era ta gaurkoa ikusteko aukera atsegiña emoten dabela onelako ikuskizunak.

Markiña'n, konbentuaren orma egalean ain zuzen, sasoi bateko Prai Bartolome entzutetsua gogoratu eban dantza oneik aurkeztuten ibili zanak.

Danok dakigu praille aren pentsabidea, edo beintzat, dantzen aurkako aren ekiña.

Berak aitortuten eban: "Olgueeta guztien artian lecuric zabalena, ta cer pensau gusijeen daucana, da dantzia". Eta bestc au be geituten eban, "dantzetan ez dan olguetiatic, ez dauca datzic, ez dauca gustoric".

Baiña bere dantzak, csateko dantza zillegiak "moralak", gizonak gizonekin eta emakumiak alkarregaz gizonetako bagarik, eta kantu edo soiñu "indezente" bagarik egiten ziranak ziran.

Zer esango ete eban gaurko gau berandu edo goizaldeko dantzak ikusita?

Ba dirudi dantza erarik geienen arerio zaratatsu zan arek, zezen jokoci ez

eursela aitzakirik billatzen. Eta danok dakigu eleiztar asko dirala zezenei akatsak billatzen dautsezanak'. Eta berak, zezenentzako izen-ondo zitalik erabili barik au esaten eban: "batzuk simpleza bategaz olgueetan dira, comediya baten edo cecenetan baisen ondo".

Jaietako egitarau batzuk ikusten nago.

Gaua eguntzat artuta edo eguna gau. Or konpon. Maspasatuta bizi gareanok ez daukagu zetan asarre agertu. Urteak bizi izan doguz eguna amabi ordukotzat artzen, argi nai illun ogetalau ordukoa dala ezagutu nai-ez da. Eta jaiak urtean egun banakak dira. Zegaitik egun erdika orde z egun osoan ospatu ez?

Ba dirudi onetara goazela. Eta ez dago burubidea aldatzea baiño.

Len arimen kanpaia jotea gendun etxeratzeko. Orain arimen kanpaia alba-kotzat artzen dogu kalera urteten asteko.

Zetarako zarrok, agureok, mindu? Ez al gendun gauza guztietan eroapena (pazientzia) euki bear dala entzun eta ikasi?

Erderazko bertso bat irakurri, gogoratu eta ez tita ezin ba da, ozpiñetan eutsi.

*Dios es la suma bondad
y si jodidos nos tiene
será porque nos conviene.
Hágase su voluntad.*

Eta jaiak jai.

28-VII-83

UDABARRIKOAK

Zamudioko kantutzat batuta laga eban Azkue zanak:

*Udabarriko lore ederrak
erosten dira neguan,
beti gustora biziko danik
ez da jaioten munduan.*

Alperrik esan baietz.

Maitasunak, zindoenak be, beti eukiten ditu bere lizunaldiak; eroapenak, apalenak be, bere berba erdika ta mar-marrak; Zintzotasunik makurrenak bere kezka egunak.

Aizea bera danontzako arnas izanarren, zegaitik antxiñakoen esanetan, "Udabarriko aizea erraiñentzat baiño amagiñarrebentzat ohea"?

Zegaitik egunotan agertzen dira lore batzuk, zarrak esaten ekienez, "San Jose lorak, atzekoak baiña aurrekoak obe"?

Eguzkia beti ain maitekor dala, zegaitik "osasuna maite dabenak lotsa euki bear Martiko eguzkiari"?

Zetarako sinistu besteak baiño ziurrago "Martiko trumoiak bederatzzi eguneko ekaitza ekarten dabe"?

Eta zer dala ta "Martia gizonena, Apirilla andrena"?

Batzuk asarre, besteak pozik; batzuk konforme, besteak ez; batzuk otz, besteak erreta...

Bizitzako legea lez da ori. Eguneroko ogi.

Batzuk lotsa ta ardura geiagoz eskutatuko dogu gure arra; besteak ar da guzti jango dabe eurak atsegin dabena.

Zenbaitek ezin irunsi izaten dabe euren egoera, beste batzuk umorea billatuko dautse euren izate traketz eta mirriñari. Batzuk lodierak ezin eskutatuta, besteak lodiera ori umorez erakutsi ta erabili.

Batzuk mutilzar erreta; besteak mutilzar gangar...

Gure gerra aurretxoan, 1936 urteko Marti onetan, "Txirrita" bertsolariari omenaldia egin eutsen Errenderian.

An ziran orduko ospetsuenak.

Inguruko lez batzuk, besteak ospe eta duintasunez eroanak. An "Basarri", "Uztapide", "Txapel", Saiburu, Telleria txikia, "Lexo", Alkain aita- semeak eta Zabaleta anai bi. Bertan, jakiña, bere makulu antzeko makilla biekin, "Txirrita" berbera. Lodi, kolore gorri, anker, baldar, umorez okertuta.

Zirikalari agertu ziran errenderiar gazteak. Makilla bat eskiñi eutsen "eutsigarri". Eta "Txirrita" k, eskerrak emoteko bertso au bota eban:

*Irurogei ta amasei urte,
garaia det umiltzeko,
gauza andiren bearrik ez det
goitik bera amiltzeko;
bi bastoi abek aski nitun nik
munduz mundu ibilteko,
irugarren au andregaiari
arkakusuak ilteko.*

"Txirrita", danok dakigu, mutilzarra zan. Ez jakin bere gogoz edo ez. Ez eta neskak aidean ibili barik be, bertsoan beintzat.

Egia esateko, gaur, gure bizitzako giroa ez da poza dakarren udabarri bate-na baiña ikasi daigun Udabarriari bere giro ta abagune egokia billatzen.

UGALDE ETA PUNTUAK

Gaurko askok ez dakie aisubeta edo axubetak zer diran.

Guk sarri lotu bear izaten genduzan.

Oiñetakoen lokarriak dira.

Mujika'k, antzerakoetan ainbat erabiliarren, ez dau erabilten. Nundik atara ete gendun ondarrutarrok berba ori?

Azkue'k, ostera, asubeta (s'ren gaiñean bigungarria ipinita) au diño: Ajujeta. Eta Arakistain'dik jasotako berba lez. Arakistain debarra zan. Beraz inguru oneitan erabilten zan itza ete?

Azkue'k itaun-atz edo ezaugarri bi ipinten ditu bere atzean, ezpaia lakoa erakutsi nairik. Au da (??)bi.

Gaur sokak, korreak, zintak deituten dautse denporako axubetei.

Zenbat onelako izen jator lagaten goaz, izkuntzaren aberastasunaren kaltean?

Aldi baten idatzi barik egon naz. Ez gogo ezagaitik. Ez eta ez idazteko esanda be. Alaz eta lanak bialdu, batzuk egunetan atzeratu, besteak agertu ez, idazleak orrela geratzen gara naigabez.

Adiskideak zuritzen nabe. Lengo astean, bakoitzak bere aldetik, iruk artu ninduen Bilbo'n. Bizkaierarik ez dabela irakurten eta ez lagateko idazteari.

Arratsalde berbertan asi nitzan idazten eta lanak bialtzen. Ezin ekiñari laga, baiña kezkatu.

Biamonean irakurri neban Martin Ugalde adiskideak, beste zeregin bat agindu dautselako, azken illetako zeregiña laga egiten dabela egunkari onetan. Beraz arek laga ta ni asi, zer ikusi bako gertaera da.

Orain, guk, nai ta aren oiñetakoen axubetak lotzerako nortasunik euki ez, toki geitxuago eta atzerapen gitxiago eukiko al dogu aurrerantzean. Guk diñot, euskal idazleak esan nairik. Ez nik bakarrik.

Martin'en ikuspuntuak egokiak ziran sarri; ez beti. Idazlearen irakurleagazko artu emonak gaitz izaten dau bat-bateko alkartasuna lortzea. Idazle berberaren egun eta giroa ez dira bardiñak izaten. Ni ez naz ausartuten ikuspuntu itza erabilten be. Puntu orrek asko zeaztuten dau. Nik ikuspegi zabal batetik jokatzea atsegin dot, nai eta batzuk eta besteok, nini bardiñetik, baiña kolore ez bardiñez, askotan gai bardintsu edo ta iturri bardiñetara jo bear.

Ni txoko zalegi nazala diño. Ni Bizkai aldera begira nabillalako sarri. Guk be esan giñei a bizkaitarrentzat betokerra dala, emen esaten dogun lez "tuerra". Bakoitzak bere ikuspegia.

Martin gizon argia da, eta berak diñon lez zabala, liberala.

Orain euskeraren zirikalari eta eratzaille ardura barrian, zabaltasun eta libe-

raltasun ori ikusi nai geuntzake. Bere ikuspuntua ez dedilla izan estua. Bizkaitarrok be euskera egiten dogula gogoratu dagiala.

Euskera biziko da, ezin lei euskeraren izadian puntu ori galdu. Puntu nagusi, beñena da. Puntu kardinala.

5-X-83

ULE KIZKUR ETA BURU SOIL

Goizeko zazpi ta erdietarako egunkari irakurle naiz.

Itxas Jaiñoak inguruan eta txapelik barik nebillen igandean. Eta Etxenike jaunaren lan batek buru soilik nebillela konturatu eragin. Eta bere politesakin sasoi onetako ondo baltz baten txapela buruan ipini eta kanpoeder biurtu nindula ikusi neban.

Ain kanpoeder!

Goizeko bederatzietarako Donosti'tik deika neban adiskide bat, barre algaraka. Ba dira Donosti'n ere akulariak.

Eguerdirako irakasle batzuk eskerrak emon eustezan, nire lanari esker Etxenike'ren lanean irakurri al izan ebelako nai dabenak azterketa osoa euskeraz egin al izango dabela.

Eta ori zegaitik adierazi ez, ortan gertuteko?

Etxenike'k bere idazkian ditun "puntuak" ez dira danak zeatz, danak ulertu edo jator jasoak.

Donosti ta Bilbo dirala betiko txikikeria, edo estukeria.... Ain zuzen garbi esaten neban ikuspegi orretik ez artzeko. Baiña Bilbo inguruko irakasleak esaten ebela, eurak, egun erdi batsutan ba da bere, iñor barik laga bearko dituela umeak, eta azterketak uriburu bietan egin izan ba lira, orretarako premiñarik ez zala egongo.

Ez al zan egoki izango, Bilbo'ko Irakaskintza zuzendarien artean azterketak euskerez egiteko duiñak ba dagozaia jakin eragiteko be, bietan egitea?

Eta Bilbo'tik Donosti'rako joan etorria ordu ta erdian egin leikela... ori alboan txoferra eta zaindaria daroenei dagokie. Ez buruauste eta azterketan kezakin erdi illunduta dabilztan irakasleei.

Dana dala, txikikeriak alboan laga ta lan egin daigun. Jator, zabal, borondatez eta errialde guztietara begira. Eta ostoporik ipini barik. Euskera zabal artuta. erriak artzen daben eran, zabal-zabal.

Eta euskera zabal artzea da irakaskintzan bizkaierak be bcre burua lege aren izate ta muiñean ikustea, eta ez geigarri edo adizonaletan.

Eta irakaskintzako liburuak bizkaieraz atara nai ditunari, beste edozeiñeri lez lagundutea, kaku barik.

H barik atara nai ditunari, h dunei aiñako begirapena emonda, estukeri barik eta indarkeri barik.

Elduko ete da egun ori?

Oraindik oraintsu, egunotan, liburu egille ta argitaldari bat zurbil ikusi neban ortaz.

Bizkai'ko norbaitzuk bere h erabilten dabela ta komeniko litzakela bizkaierazko textu liburutan sartzea. Orrela orko baimena eukiko Leukela.

Ez al dau ortik urten orrelako aizeren bate?

Eskuan daukat Labayru ikastegiak ataratako Idazkera-Ariketak liburua.

17 orriandean, "Letrak" atalean, ainbat izki edo letreri buruz, esaera oneik erabilten ditu: "idatzi bear da beti"; "idatzi bear dira beti"; "bear da".

Baiña h ri buruz, gogortada ori kendu, agintza era ori galdu egiten dau. "Erabili bear litzake", "erabili daiteke" esaeretara aldatuz. Eta azken-azkenean au diño: "H'ri buruzko araurik behinena: Ziurtasunik ez badago, ez erabili".

Ori ikusita nire antzeko buru soilak barruko posporoa biztuten igarten dabe eta antzerako esaerak argitu: Kontxo! H erabilita ainka sartu ba nei eta erabili barik ez, zer egin eta erakutsi lei zentzu oneko batek?

Etxenike adiskide, eritziak eritzi, lanean jarrai daigun indar guztiak batuta. Euskerak danon premiña dauka.

Euskeraren politika or dago: ugaritasunean edo batasunean danok gogo onez lan egitean.

Deia, I2-XI-8I

UME ARTEKOAK

Zenbat bidar entzun etc genduzan onelako esaerak?

Ume pongoliñuok, noiz ixilduko zarie?

Nungo ume diamotxuak dira eurok?

Zurtzillo pandanguak garbitzen be ikasti ez daben ume mokuok!

Esanalak esan, ume zale erraz biurtzen gara danok.

Gaur kalera bialtzen lez, biar ezin etxeratuta ibiliko gara. Eta ezunerik gorrienean be umeen eskariei ezin gor egin.

Begira jantziak, jostalluak, pitxiak. Ikusi eurentzako jolas tresnak. Semeak ez dituenak lobak, lobarik ez daukenak auzokoak... danok nai izaten dogu umien berezkotasuna ezagutu, jatortasuna erakutsi.

Umeak be eukiten dituez euren burukomiñak: ikastetxetako ondorenak.

Egia esateko, gaur ez da gure denporetan aiña eskola-igesi egiten, ez eta negarrik be eskolara joateko.

Erakusbideak aldatu dira. Len ia izki (letra) bakoitzeko, konkorr bat bear zan. Eta ez azukre koskorra, erdiko atzamarraren azurkada mintsua baiño; edo ta txutxumurkadaz baltzitzen ziran alderdi mamitsuak; edo ta makillagaz trum-paillak atara be bai iñoiz.

Ba ete dakie gaurko umeak idizilla zer dan?

Eta gu aretara asi eta ezi ginduezan. Oitu giñan gaiñera orretara.

Alaz eta ez gendun sekula notarik erreterik pentsatu, nai ta kalabaza andi antzeko txiringola okerrak etxerako emon.

Dana dala, guazen gaurko umeetara.

Oraintsu, ikastaro azkenetako txangoa, ondarrutar eskola ume batzuk, Gasteiz'era joan ziran. Jakiña, Gasteiz Euskadi'ko politikako kapitala da, Donosti kulturakoa eta Bilbo ogasunekoa dan lez. Edo ta orrela izan nai daben lez agertzen dira.

Ondarroa'ko umeak Araba'n ba euken zer ikusi ta aztertu. Bat, modako lez, Arkaute'n Ertzaintza. Motorrak, tiroak, plakak, un-do ta abar. Umeak gozoko izaten dituez orrelako gauzak. Bestean, Gasteiz'en, ba euken eskolako kartillen arduraduna, urteko notak gaiztotu edo opil gozo lez irunsi eragiteko txapelik bako txapelduna: Etxenike.

Eta gure umeak atzerarik ez dauken lez, eta txarto esaten dabenik be pentsaten ez daben lez, olgeta-benetan kontu-kontari, nai ta gozorik emon ez, ibili ziran Kultura eta Hezkuntza biak batera eta gure Araudi edo Estatutoa be aidean erabilteko adorea daukan konseilari jaunagaz.

Eta alako baten, ume batek, begiratu, bekokia zimurtu, eta biotzetik urteten daben betetasunez itandu eutsan: Zelako euskera egiten dozu zuk? Ondo ez dakizu, ez?

Atsoen bat aitarenka jarri ei zan ori jakin ebanean, esanez: Oneik umeok lotsatuta lagako gaitue. Noiz ikasi bear dabe pertsona nausien aurrean egi batzuk barruan gordeten?

URKIOLAK'KO URKIAK (GAUR ZORTZI, "SAN ANTONIYO")

Urkirik eta betularik gabeko Urki-ola?

Zentzu gabeko zan. Euskal itzaren etsipen.

Origaitik Urkiola'ko apaizak urki gastez bete dabe San Antonio'n eleiz-au-
rreko baso bat.

Gizonak egin al leikena, ez da santuen ontasunari edo ta mesedeari laga
bear. Ez da olakorik eskatu ere. Santuen musu eta laztanak baiño norbere ale-
gin eta izerdia lenago eta premizkoago dira. Orrela, gizonen alegiñetik, Urki-
la'k, izenak eskatzen daben nortasuna artuko dau.

Ba dakigu San Antonio'tan betikoa gertatuko dana:

*A ita San Antonio
Urkiolakua
askoran izeneko
santu debotua.*

*Askok egiten dio
San Antoniori
egun batean joan ta
bestean etorri,*

Aurten, urki landare gazte ugari ikustean, egiz esango dabe erromesak Ur-
ki-olan izan dirala.

Apaizei esker.

Jakiña urkiak ba dau bere berezitasun bat. Tresnen kirtanak egiteko egokia
ei da zuaitz onen zura. Eta polbora egiteko. Ain zuzen kirten laguntzalle eta
sutautsa edo polbora bertako santuaren arerio. San Antonio gizon lerdan eta ba-
ketsuen lagun ei da-ta.

Adiskidetuko zara, esaten da, gatza loratu orduko. Eta urkia luzatzen dan
amabost metrotara eldu orduko, gure begiak ondo erreta egongo dira. Ez jakin
zer gertatuko. Baiña oraindik eskatzen ausariuten gara, urki orreik osasun-bi-
de izan daitezala, eta ez gizon beratzalle.

Esakera gogoan dogu: "San Antonio, San Antonio!, keixu ta arren asko,
txarria askan gaixo danean; ez dau iñok ori esaten, odolostea yaten danea".

Lenakoena: "Ez eta ezkontza on eta aberatsa eginda gero be". Alaz ta ere
oiraindik esakera airean dabil eta sarri gogoratuta:

*Billarrealen otalorea,
Elosun asentsioa,*

andre gaztea bear dabena
Urkiolara beioa.

Emendik urte batzutara urki barrien arnas eta kerizaetan azala leundutakuak, nunbait.

6-VI-76

UNAMUNO ETA MOKOROATARRAK

Oraintsu, Unamunok 1901 urteko Lore Jokoetan Bilbao'ko Arriaga antzokian egin eban itzaldia gogoratzean, ez neban aitatu bertako olerki saria irabazi ebanik.

Parkatu. Arrese Beitia otxandiotarra izan zan. Aldi aretan "modan" egoan olerkaria. "Santugina" zana, eta benetan be santuen laguntza lortzen ebana.

Arriagako itzaldian Unamuno destaintsu eta jakintsuen arrokeriz agertu zala diño.

Onetaz Carlos Bacigalupe bilbotarrak, bere erriko udaloren laguntzaz argitaratu dauan Bilbao a Escena liburuan, Maeztu'ren azalpen bat azaltzen dau. Jendetzaren asarreak Unamunori gainez egiten eutsenean eta ori bost bidar be gertatu zala, Unamuno ixildu eta anka zabal jezarten zala.

Ez zan egun ori bakarrik antzeztoki orretan agertu eta berba egiteko aukera emon eutsena. Andik lau urtera, errupublikatarren aldezko itzaldi baten, laster billatu eban tartea "antxiñako gogapen eta oroitzekaz bakarrik" bizi nai ebenen aurka sartzeko.

Ordukoak dinoenez, Lore Jokoetako itzaldi ondoren, ez zan Arriagan amaitu eta baketuta geratu bilbotarren eta beste batzuen asarrea. Andik lau egunetara Bilboko Musika Taldea entzunaldi, bat emoten egoala, gazte talde bat batu, bertara urreratu eta "Gernikako" joteko eskatu eben. Eta lortu be bai. Ondoren gazteak Bizkaia eta Euzkadiri goraka ekin eta Unamunoren etxe aurrera joan ziran euren asarrea barriro erakustera.

Unamunori arpegi emon nai izan eutsenen artean Justo Mari Mokoroa eskolapioaren guraso zana be gertatu zan. Eta onen esanetan, bere aita zanak, samñaren samñez naigabeak sor arazita, bertso batsuk egin eta eroan eutsazan musikolari jatorra zan bere lengusu Eduardo Mokoroari, Tolosako Abesbatzak abestuteko erako zerbait asmatu egiala eskatuz. Eta lengusuak lau abotsetako

abesti samur bat eskini eutsan entzuleak, edonun be, txaloka eta malkotan amaitzen dabena.

Iru aapaldi, estrofa, daukaz or tarako egindako poema samurrak. Ederra irurak. Bata bestearen ondamu barik agertzekoak.

Erdikoa aukeratu dot, gaurko nire tarteak ez daualako geiagorik emoten.

*Ama laztana, Ama biguna,
Ama errugabekoa,
zure bularra edandakoak
kendu naian lepoal!
Entzun utsak erdibi lezake
biotz arrizkoa!
Euskeraz jaio, euskeraz azi,
euskeraz gaitezen ezi!
Euskal izkuntza seme alabai
gogoz t'arretaz erakutsi.*

Orra orain larogetak urte eta gaur, egokitasunik eta egungotasunik galdu ez dauan abestia, gure erria giro bardiñean dagolako.

6-X-88

URTATS

Orrela deitzen da toki batzutan Urtebarri eguna.

Orretarako esaera au gogoratzen da: Urtats, urteko leen urrats, bururatu nai bezela daigun as.

Au da, urtea zelan bizi-nai, ala asten alegindu gaitetzala.

Aolku, kontseju ona, bai osasunari buruz, bai politikan edo bakoitzaren izate, joko, elburu, gogo eta jokabideari buruz.

Caurko egunez, egunaren lenengo orduan, oitura da euskal baserri askotan, ur barria etxera eroatea. Eta onelako gauzak irakurten dira, ortaz.

Etxeko emakumerik zarrena etxekoandre jatorra, iturrira joaten da ur billa. Etxeratzean, etxeko atea sarratuta billatzen dau. Barruan, etxeko guztiak berari itxaroten, baiña kanpora begiratu barik

Eta uragaz ate ingurura eldutean, dei egiten daki, esanez:

Oles!

Eta etxeko jaunak barrutik erantzun:

- Nor da?
- Ni.
- Zer nai dozu? Zer dakartzu?
- Ur barrena, ur goiena,

*Jaungoikuak dakarrena
Urte barri ona.
Osasuna ta bakea;
Zabaldu egizu atea.*

Ori entzun eta bereala zabalduten da atea. Eskaratzeko mai gainean lagaten dau etxekoandreak bere pedarrea. Eta antoxiñagaz (kazoagaz) pedarretik ura atara ala, banan-banan emoten dautse etxeko guztiei. Eta danak kantuz asten dakie:

*Asiera eder bat
dantza ta kantari
emon bear dautsegu,
Urte Berriari.*

Bake, maitasun eta karidadezko agerpen zoragarria ez ete da egikera ori?

Oraindik erri askotan gogoratzen dabe oitura au, eta Urte Barri goizean, kalean, alkarrri itanduten dautse: Ur barria edan dozu?

Ur barriaren goratze au, rito amesgarri ori, Naparroako erri txikietan oraindik gogoratzen dala oraintsu irakurriak gara.

Beste erri batzutan gero ta gitxiago baiña oraindik oiturazko da Urte Barriari kantuz aterik ate ibiltea. Kantuak ez dauka doinu alairik, baiña bai irakaspide ona:

*Urte barri-barri, txarri belarri
daukanak eztakanari emon bear sarri.*

Eta jarraitzen dakie:

*Intxaurtxu bi, iru gaztaiña,
Mari Montaña
atsoak dauko uzkar usaiña.*

Azken zemai ori, jakiña, atsoa zeken igarten dabenean. Eta oraindik be geitu:

*Aginaldo de Montaña,
iru intxaur, lau gaztaiña,
aren gainean lau sagar;
nik bai altzoa zabal-zabal.*

Orrelaxe da gure Urtebarri. Urteak ao luzea dau, esaten da. Premiña ere bai. Origaitik ur barriagaz borondatea barritzea be. Gu zelako, urtea alako izan lei.

Urtearen erantzuna, zarren oituretan, ba dakigu zer zan:

Urte barri, zer dakartzu barri?
— Uraren gaina, bakea ta osasuna.
Urtats!
Ala bedi edo gure alegiñak ortan bediz.

31-XII-86

URTE BARRI

*Txilintxoak tiraka,
gure monjak kalba,
zelebratu dezagun
gaurko gabon gaba*

Alaxe kantaten ekien Mutrikuko zarrak.

Ango monjak euki izan eben, eta gaur be ba dauke, erritarren artean zer ikusi eta zer ikasi. Beste toki askotan eukiten daben lez.

Mutrikuarrak euki zituen frantzetar moldeak sartu eutsezan monjak be. Ango erduekin etorri ziranak. Begiratu, adibidez, ango umien jostalluei. Gure eta erririk geienetako andraki, andrakilla, andrakilleta eta abar, mutrikuarren-tzat "madamia" dira.

Gero Jesus umea ikusteko erak be, ez-bardin jokutzen dau an eta beste erri askotan. Ate ordez kurtiñak eukezan etxe zarretara eroaten gaitu an, edo ta antzokien (teatro) batera, Ikus:

*Belengo portalean
arbola eder bi,
bata laranja da ta
bestea madari.
Iriki zazu bada
kurtina eder ori,
ikusi daigun bertan
gure Jesus ori.*

Len esan dodan lez, kanta orrek etxe baten barruko egoera agertu lei, edo ta Barrutia'ren Gabonetako Ikuskizunean lez, oiala jaso edo zabaldu ta ikuskizun ori ikusteko aukera, antzoki baten.

Lekeitiarrak beti izan dira musika zale. Len eta orain. Euren abestietan bezaletasun orren irudia jatorke burura.

*Gabon gabontzeta
errosa kaltzeta,
bio-biolin
Txomin Txanbolin.*

Dana dala, urte barriagaz gatzat emon bear dautsagu gabonei. Kako barruan, parentesi barruan laga, urte azkenerarte.

Askorentzat urte barria muga da. Argaldu nai dauanak, janari batzuei lagateko muga; ikasleentzat, alperraldi luzeetatik urteteko muga. Zintzoago, jatorrago, alegintsuago izateko mugaren eskintza. Koplak!

Epe barriak, urte barriak berez, ez dausku ezer ekarriko gure alegiñetatik kanpora. Ez gara ez euskeratuko, ez abertzaletuko, ez etxeago izango, ez eta ikasle zintzoago jardungo, alegin barriak egin ezik.

Urte barrian be lengo sorbalda gaiñean darabil arek kokota, esango dabe errian geienakaitik.

Eta Urte barrian be makalak eta argalak, ezeukiak eta pobreak egongo dira, zoritxarrez, ta au bai egia:

*Urte barri barri,
txarri belarri,
daukanak eztaukanari
emon bear sarri.*

Eta orretan be eukiko dogu zetan barriztu edo obetu bearra. Zoritxarrez sarri eukiko dogu gu kezkatu bearke gaitun norbait:

Ezeukia, erria, euskera... Edozetara be gure anaia.

31-XII-83

WOLFRAM'A BAKARTZEA

Ez ziran Euskalerrian jaio Elhuyar anaiak. Baiña euskal odola euken.

Laburdi'tik Errioxa'ra etxez aldatu ziran urte batzuk aurrerago euren gurasoak.

Aita berbera ikasia zan eta ikastuna. Osalaria, baiña ez ordurarteko maixu "barben." edo bizargin osagille kaletarra, Mogel 'ek deituko eutsan lez, beste eskolako osalaria, latin da guztiko osalaria baiña.

Gaitasun ori eukalako aldatu zan lenengo Bilbo'ra eta geroago emendik Errioxa'ra.

Asparne eta Donibanetarrak ziran senar emazteak. Euskaldun utsak.

Errioxa'n egozala, Fausto eta Jose, euren semeak, jaio ziran.

Logroño ala Oion'en artu ete zituen euren lenengo ikasketak?

Dana dala, bata eta bestea ikasle alegintsu biurtu ziran. Eta Paris eta Europa'ko ainbat lekutara eldu ziran fisika, kimika eta meizti (mineraloji) ikasten.

Anaietako bat III garren Karlos'en laguntzaz joan zan erbestera. Bestea, Fausto, sortu barri zan "Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais" en kontura.

Peñaflorida'ko kondearen seme nausiaren lagun egin ete ziran erbesteran?

A ogetalau urtedun il zan 1775 urtean. Ez Isabel Lobo elkarte orretan lengo astean sartzean egin eban itzaldia batu ebanak bere aotan ipinten eban lez 1751'n.

Aín. zuzen Mogel'en aita zan Markiña'ko osagille, Ramon Mari Munibe erbestetik bizi-itxaropen barik Markiña'ra eldu eta an il zanean.

Edozetara be Elhuyar anai biak Bergara'ko Seminario'ra etorri ziran irakasle lez. Edo ekarri zituen. Eta barrero erbestera bialdu euren gaitasuna zabaldu, sakondu eta argitzera.

Bergara'ko zuzendariak begizorrotz eta luzea euki eben euskal jakintsu oneikin.

Arrigarria izan zan kultura arloan erri orretako "Seminario"aren lana. Orduko oiturazko ikasketetatik urten egiten eban euren ekintzak. Ikasketa ausarti eta aurrerakoiak? Menendez Pelayo batek enziklopedikeri, erlegiño-eza eta abar leporatu eutsezan bertako sortzaille, zuzendari eta irakasliei. Orduan deitzen eutsen lez "Azkoiti"ko Zaldun txikiak" masoiak zirala be idatzi eban, nai ta geroago deitura ori kenduko ebala agindu. Baiña egin barik il zan. Ez eben beintzat zuzenketarik billatu bere paperetan, bere "Historia de los Heterodoxos" barrero agertzean.

Beste batzuk jesuiten aurkako zirala...

Edozelan be Ikastetxe orrek indarra eukan eta Jakintzari buruzko kezka bizia. Eta bertako irakasletako bat edo beste, giroaren gogoko ez zan zerbait idazten ausartu ba zan be, bakoitzaren irizpidea zala esaten eben eta ez taldearena

Elhuyar anaiak, erbesteran, egun eta gauetako ikasle izan ziran. Zabaldu zan eurentariko bat, beste aitzakiak azalduarren, kañoiak zelan egiten ziran jakitera bialdu ebela, emen gerra usaina artzen asiak ziralako. Baiña ba dirudi anai orreik ez ebela jokatu nai izan azpi-lanean.

Eta Bergara'n egozan gaikiekin, eta eurak erbestetik ekarri zituen tresnekin, wolfram'a bakartzea, bakandutea lortu eben 1783'ko maiatzaren 21'an.

Eurei esker gaur galtzairu asko, elektra argi eta abar gure bizitzako premi-

ñazko eta mesedagarri dira: Zotin eragin eban jakintsuen artean Elhuyar anaien lortze onek.

Alaz eta sarri gertaten dan lez anai orreik ez eben esker andirik edo nai eben aiña lortu erriaren aldetik.

Euren jakintzarako, gairako ikasle gitxi batzen ziran eta bestelako gaiak erakusten ibili bearrak, euren ardurako gaitasuna bear eben toki oparotsu ta egokiagoetara aldendu zituen. Naigabez eta erri-miñez, baiña jakintzaren garez.

Egunotan dira, ba, berreun urte, wolfram'a bakartzea Euskalerrian lortu zala.

24-V-83

XALBADOR

Gizonok ez gara sarri gu geu nai giñakenak.

Pozik andienez negarra jatorku. Bizitasunik andienez, gaixoak.

Adiskide bat, sekula ez eta oporrak artzeko aukera artu, zortzi egunerako Galizi aldeko aizeak arnastu eta lurrak ikusteko garretan sekula ibili ez zan egazkin bidez joan, eldu, biaramonean gaixoak jo ta ez opor eta ez bizi, illen kotxean ekarri bear, opor egun guztiak klinika baten igaro ondoren.

Irurogei ta amabi urte bizi guztian lanean, eta ordezeko oporrak aukeratzean, opor ordezeko betiko atsedenerako bidea artu.

Xalbador bertsolariaren urte-urrenak, lagunaren gertaeragaz batera, bere gogoeta sortu dausta.

Bera ainbat lagunei omenaldi, jai, ospakizun eta gorazarretan abestu eta laguntzen, eta bertsolariak euren nortasuna jaso eta aipatutearren, tartetan omenaldiak egitea erabagi eta Xalbador'eri berea eskiñi eutsen egunean bertan, biotzak ezin eutsi ainbesteko ezaupide eta maitasun agergerriei, eta ler egin.

Ernandorena'ren bertsoak gogoratu:

*Urepel'eko egun arfan
Xalbador'en biotzean
etzan naiko toki izan
zorioneko emozioak
gaindurik lortuta,
antxe bertan galditu zan.*

Batek diño: Plazetan ain oitu eta ezagun zan bateri, zelan onelako ornen batek ainbestean ikutu?

Xalbador 1.976 urtean il zan, dakigunez. 1.920'n jaioa zan Urepel'en.

Goizeko kantaldian ondesa eukala ta etxeratu eben. Beregana joan ziran bertsolariak eguna ospatu ondoren etxera etozala bidean jakin eben Xalbador'ek azken kantua Jainkoari eskiñi eutsala.

"Amodioa zintzoa ba da, ez dira konda urteak" esaten ekian.

Berak, berrogei ta amasei urtetan, geiegi maitatu ebalako, urterik kontaten jarraitzerik ez eban izan. Bertsolari naigabetua, ituna, biozkorra... Ori ete zan bakarrik? Ba dirudi bertsolariak, bere osotasun baterako, eztena edo ziria bear dauala. Entzulea bizitu eta ikututa lagaten daben ziria. Bertsoari gozotasuna, samurtasuna eta barritasuna sartzen dautsana. Bertsoen intza esango neuke, edo guk esaten dogun lez, iruntza.

Orrelakoak ainbat daukaz Xalbador'ek.

Gaurko lantxo au bere gogorapen bat egiten dator. Ez bestelako gorespenik, gitxiago bere lanen azterketa edo kritikarik.

Xalbador, beste aldeko bertsolari jatorra, bertsolari lez punterengotan egon ba zan, izaki lez gizon jator eta betea zala dakigu, eta erri maitale zintzoa.

Bere omenez, eta askorentzat ziri, bere bertso baten azken zatia gogoratu amaituko dogu gure gaurko oroitzua au:

"hizkuntza ta herria berex ez doatzi,

berek nahi daukute konpreniarazi, bata bertzea gabe ez daizkela bizi".

10-XI-83

"XALBADOR" SARIA

Seigarren urtea da "Xalbador" izeneko saria Iruña'ko Aurrezki Kutxak eratu-tuten dabela.

Asmoa, zela-ala euskerari laguntzea.

Kontu, kondaira, oitura, joko, abesti eta elestia (deskribapenak, diño bal-dintzetako paperak) gaitzat artu eta erabili leiz.

Ikusten danez, gai zabala.

Igaz lan politak agertu ziran.

Bi aukeratu ziran azkenerako. Eta nai ta sari bakarra igarrita egon, Aurrez-

ki Kutxak begi onez artu eban epai-maikoen eskaria eta bigarren sari bat edo laguntza geitu eban.

Lenengoa "Irri solas" izenduna izan zan. Abade batek egiña. Ipar-Euzkadi'ko batena. 53 ipuin agertzen zitun izen orren kerizpean. Uarte Garazi'ko Cipriano Arbelbide jauna zan egillea. Idazle au sariketen bidea ikasia da, bestetan be ikusi danez.

Ipuin jakiñak edo beste ezagun batzuen kidekoak tartean; barriak beste batzuk; zuri-zuriak asko; piper-miñez beteak besteak. Errian entzun-ala batuak.

Bigarrena "Arantza" izenez agertua zan. Ainbat kontu eta jakingarri agertzen ziran. Napparroa'ko mendietako erri txiki bateko oitura bizitzako siniste eta abar. Lan au ekipoan egiña zan, M. Legarra, L. Andueza eta Irigoien anai-arrebak. Ba eukazan bertso batzuk be, bear da lana loditzearren, baiña ez egoan neurrietan euren premiñik.

Ez ete da ongarrri orrelako sari bat, bein batu edo idatzi ezik, laster galduko diran gure erri jatorretako gizaldietako bizitza eta sinisteei arnas aldi eder bat emon al izateko?

Aurten be "Xalbador" saria aste onetan, barikuan, erabagiko da. Eta ze barri? Sei lan agertu dira. Ez dira asko. Bear ba da zabalkunde akatsa. Saria 125.000 pesetako, ogei orrialde oiñarridun lan batentzat sari ona da. Eta esan dogunez, gaiez zabala dalako, askok ikutu egin leikena.

Akatsen billa ibili ezker, beti aurkitu lei zerbait, baiña agertu diran lanetik geienak erri giroz eta jakituriz egiñak dirala aurreratu geinke. Atsegiñak, arinak, egokiak eta jakingarriak, erraz irakurten diranak.

Oitura da Iruñako ostatu baten egun berean erdera eta euskerazko epai maiak batzea. Kontuan euki bear da egun orretan iru sari banatu bear izaten dirala. Bat "Navarra" izenekoa, eleberri edo nobela laburrentzat. Eta bestea "Arga" deiturakoa, olerkientzat. Azken bi oneik erderazkoak.

Dirutan "Navarra" da aberatsena 325.000 peseta. "Arga" eta "Xalbador" bardinak dira: 125.000 peseta bakoitzak.

Zuritu egin bear, euskaldunentzat geitxoago jausi dedin.

Saritutako lanak Aurrezki Kutxa berberak argitaratzeko oitura dauka eta baldintzetan ala iragarten da.

Ba dakigu napartarren gogoa sari oneri eustea dala. Onek, jakiña, beste aldea eskatuten dau: euskal idazleen erantzuna.

ZARRAK ETA ZARTZAROA

Eun urtera eldu da nire izeko bakarra.

Eun urte eta oraindik ibilteko adorez eta umorez.

Berak, erriaren omenaldia igarrita, eta sartuta daukan erdal esaera bat gogoratuaz, jakin eragiten daki: no quiero pompas ni vanidades.

Esan be egiten da "zaar ele, zuur ele".

Beretzat eun urte betetzea bizitzako gorabera bat baiño ez da, eta ortik kanporakoak kirioak, nerbioak ataritzen dautsaz

Ni, ogeitabost urte gitxiagoz, agure igarten naz. Beintzat ziurtatu nei eta nik baiño obeto ingurukoak, gure esaera batek dinona: Agureak sopak jan eta lo gurea.

Dana dala, gurea lagata, izekori itandu ezkeru, ia egia ete dan beste esaera au: Agure makurtua, neketan urtua, zer esango ete leuke? Ziurretik beretzat zartzarua ez dala nekea.

Eta beste a, zartzarora guztiok eldu nai, baiña zartu iñok nai ez... Orreri berak erantzuten daki: Ori Jaungoikoagan konfiantzarik ez eukitea dala. Or ez dagola besterik bizitzaren legea ezagutu eta lege orren aurrean makurtzea baiño. Gaztaruan aiña poz eta neke igarri dauzala zartzaruan, eta ez dagola bizitzako arorik maitien atsegiñez batzutan edo euren atsekaberik eroaten ez danik, batez be gurea lako famili ugariak gertaten diranetan. Bizitzak noz nai emoten dauzala bere ezaugarriak, batzutan onak, bestetan txarrak.

Geiago: Egia ete da zarrentzat botika onik ez dagola? Botikarik onena gauzak neurrian artzea ei da. Ez al dira urteetako kotzeekaz be txofer batzuk ondo ibiltzen eta beste batzuk zibot-zibotekuekin beti asarre eta aitzakiz beteta?

Beste bat. Danok dakigu gaur gauzak arin aldatzen dirala, oitura, siniste eta abarretan. Izeko, egia al da umetako etxeko aztura, betiko aztuten dala? Orreri bereala erantzun: Gure amak esaten ekian: Azeriak ule zarra uzten dau baiña aztura zarra ez.

Orrelako erantzunetan zorrotza da.

Zerbait geitxuago. Zer ete deritxo berak beste esaera oni: Ba leki, gazteak, ba leuke, zarrak.

Ori be egia dala esango dau. Gazteak ba leki zarrak dakiena, ez lebilkela txarto, ez eta zarra be gazteak al dauana al ba leuke. Baiña ori be bizitzako legea da. Or ikusten ei da bizitzan gazteak zarretatik ikasten ekin bear dautsela, zaorik baztertu barik, eta zarrak be ezin leikela gazterik alboratu.

Azken jakin nai bat, Baztan aldian ia legetzat artzen dana: Bego beti zarra nausi.

Eun urtetara eldu dan batek zer esan leike ontaz?

Erantzuna: Burua galdu ezik gu zarrok ba dakigu gure indarrak neurtzen

eta etxeko gure egoera ezagutzen. Eta setatsu banakak ezik, geienok ba dakigu gure agintea oñordekoetan izten. Azken baten guk eskatzen doguna Jaunak agindua da: Ez egizu inor gitzietsi bere zartzaroan.

Len esan doguna: Zarren berbeta, zuur berbeta.

4-IV-89

1982 ZARREN URTEA

Urte batzuk dira.

Adiskide bat billatu neban kalean.

— Zar saritu (jubilatu) ezker, ondo?

— Iño! Luzeegi da eguna!

Nik ez dakit miñez edo naigabez, edo ta etorri bearrez izango zan. Andik lasier bere il agiria (eskela) irakurri neban egunkarietan. Zar- sarituen bizitzan sartu eta bizitzeari bakerik eta atsegiñik artu barik il zan.

Aia'ko Lertxundi bertsolariaren kantu batzutan esaten diran egi garratzak eta biribillak irakurri ta nire lagun a gogoratuz, nire buruari diñotsot: zartzarora eldu diranen bizitza ain aspergarri eta negargarri ete da?

Lertxundi'k diño:

*Zaarrik geientsuenak
oi dute ametsa
bere bizilekutzat
etxeko babesa.
Baña egi biurtzen
ez dago erreza,
mancillan millaka da
gauza aldrebesea,
baiña aldrebesea
maitasunik eza.*

Bein Santa Ageda'n nitzan, abade lagun bategaz. Ango zaindari bategaz batu ginan. Eta gure jardunaldian aren esanetako bat arradaz sartu jatan: egongo dira emen zaarren bat baiño geiago etxean erraz zaindu leikezanak. Baiña daukena baiño aitzaki geiago billatu ta etxetik kanpora atara ta bialdu nai izaten diiue zarrok. Umeen ikaragarri dirala, ikusi eziñeko, zikin, ordi, lapur, ze-

maikor... Gazteak euren bizia biziteko eskubidea daukela... Eta aitzaki-maitzaki eurak sortu ta oiñarritu, asi eta azi, eta iñoiz eratu eta dirutu eben etxeko babesa be kendu egiten dautse.

Irugarren adiña deitzen dautsagu zartzaroari.

Bertan sartu giñanok, gure naigabe eta aitzaki guztiak kontuan eukita be, ez ete dogu bizitza maitetsu eta baketsu bat merezi?

Liburu atsegin bat argitaratu dau oraintsu Mikel Mari Zubiaga jesulagunak. "Bizitz arrats zorionsua" dauka izentzat.

Irakurgai errez, sentikor eta erakuslea, gipuzkera jatorrean idatzia. Zar askoren pozgarri.

Nire ustez zar askok bezin maitetsu irakurriko dabe euren sortzailleak maiten dituen beste senide askok.

Danon gurari da, ezpai barik, zartzarora eldutea. Alegiñak egiten doguz bizia luzatzen.

Zergaitik ez da danon guraria izan bear zartzaro atsegin, baketsu ta eroapez beteriko bat gure aurrekoei eskintzea?

1982 zarren urtea dala-ta agertu da liburu au. Ezin ukatu kontzientzi askorentzat dei larri gertatuko danik.

Baiña "gure zaarrak itxas-ertzetako arri borobillak diruditenak" laguntasun pixkat artu leikie irakatsietatik. Eta ori da Zubiaga jesulagun ezagunaren naia. Kristau eta giza maitasuna eta legea zarrentzat.

6-VII-82

ZAZPI KALEAK

Ikusteko dagoz Bilbo'ko zazpi kaleak!

Ango argi ta apaingarri!

Eta zeinek daki zazpi kaleak zein diran?

Bilbo'ko Alderdi zarrari deitzen dautse batzuk zazpi kaleak.

Zazpi kaleak Alderdi zarrean dagozanik ezin ukatu, baiña ezin esan Alderdi zarra, izen orregaz ezagut zen dan alderdia, zazpi kaleak dira nik. Ez dira nastu bear sagarra eta muskina.

Sotatarrak goiztar ziran entzutea euken. Goizeko bederatzietarako, zapatuetan, Mallona'n gora Begoña'ra joan eta osterea egiten ebela lengo denporetan-bilbotar askok egiten eben lez.

Ni neuk be ondo ezagutu nitun Begoña'rako Mallona'ko eskillarak, Bilbo'ko Calzada ospatsuak.

Niretzat, nik alaxe artuta neukan beintzat, gerratean, egazkiñen aurkako gordelekurik onenak, Bilbo'ko etxezarren azpietan barik, Kalzada orreitan gora joan, eta Mallona'ko iltegia-baiño goratxuago'ko sagastietan egozan. Batetik an ikusi egiten nitun egazkiñak. Bestetik Bilbo'ra etozanak ez ziran etorriko sagastietara lerkariak jaurtitera.

Origaitik, arrisku turruna joten asten zanean. Korreo kalean lanean nebi-llanetan, etxe zar eta tarte areitatik urten eta kalzadetan gora joaten nintzan, Goiko Sagastira eldu an etzan, andik lerkari jaurtitea ikusi, ta bereala ikusiak kontateko gar eta kexuran, arnasea ibilpide guztien gain zala gurd idazkolara etorri.

Len esana lez, Alejandro Sota'k, "Sir Archibald"ek, bere kontuetako baten au diño:

Aitaren zidar ezteguetan, goizeko seirak aurretik Begoña'n egozala. Eta meza amaitu ondoren, aitik itandu ebala: Nor dator nigaz Mallona'n bera? Eta anai bi eskiñi zirala beragaz batera joatera.

Biderdian aita mailladi baten geratu ta bat batez itandu ebala: Zazpi kaleen izenak esango zendukez?

Umekei bat zalakoan, erantzun eutsela: Ori sekula emendik ibilten ez dan anai txikiak be ondo daki.

Izenak esaten asi ta... Somera, Barrenkale barrena, Artekale, Arategi zarra... eta besterik ezin gogoratu ta bat esatearren geitu ebala: Korreo. Eta sekula matalazurrekorik txikiena emon ez eutsan aitik, egun aretan, bastoiagaz ipurdi-ko bat emon eutsala.

Gero Plaza Barri'ko arkupetan gozaria artu ondoren, esan eutsela: Bilbotar izaten lotsatu ez zaitezen be, banan-banan zazpi kaleak igaroko doguz. Eta alaxe egin.

Andik urtetara, denda baten kopa luzeak ikusi zitula, bakoitzean kale izenak margotuta. To! Emen aitari ziria, esan ebala bere artean.

Erosten asi eta tartean Erronda izenekoa be erosi. Baiña noiztik Erronda kalea zazpi kaleen artean?

Origaitik ordezkoa ezin billatu ibili zala. Baiña Erronda erosita eukan lez, zortzi bialdu eutsazala aitari. Eta urrengo aitaren etxera joaten, an ikusi zitula, dotore ipinita, baiña Erronda egalean, ertzean.

Zazpi kaleak, izan be, zazpi dira eta gero ta bilbotar gitxiagok esango leukez zeatz euren izenak. Ikasi: Artekale, Barrenkale, Barrenkale Barrena, Belostikale, Arategi zarra (Carnicería vieja), Dendari (Tenderia) eta Somera.

Oneik dira, garbi esanda, nai ta beti garbi billatu ez, Bilbo'ko zazpi kaleak.

BILBO GALDU ONDOREN ZEIÑEN MENDE GENGOZAN?

Gaitz da gerrate baten egunen zeaztasuna erabiltea. Kontuan euki, iru-lau aldiz soiñean soiñekoekin geratu giñala ta gerratik ez giñala etxetara etorri.

Gertaerak dira goi gorengo.

Laredo'n zer?

Itxas giro. Apar eta bits, itxas bare ta itxas kiskur, ondar eta gar.

Egunak larritzen.

Zenbat gengoan 1.937'ko udan Laredo, Colindres, Santoña, Gama, Argos eta inguruetan?

Nik Laredo'koa dakit.

Ona gure egoera.

Castro aldetik barri illun eta naastuak etozan. Ba etozala, ba etozala, baiña ez txalupak edo itxas ontziak, tankeak eta soldaduak baiño.

Jentea estu. Zerbait nunbaiten izana, keixu. Andik urten bear giñalako itxaropenez gengoan. Eziña ere ikusten gendun. Origaitik listak egin bear zirala, izenak agertu bear zirala, zein geratu ta zein joan.

Txalet baten egozan gure gudarostien arduradunak. Ondartzaren asieran. Gaurko etxadirik ez egoan oraindik. Turismoaren premi, eskabicle ta lorrak urrun egozan oraindik.

Ango burrukak! Ezin iñor baretu. Barku bi edo iru ba etozan, jakiña zan danentzako aukerarik ez zala egongo. Nor gelditu?

Ez zala txarrik gertatuko. Gudari soil eta bestelako jenteak ez eukela zetan kezkatu. Agintariak bakarrik urten egiela. Gerrako gidariak bakarrik...

Bost minutuko bare-aldia, esanak aintzat artu ba'lira lez, eta bat erremuskadan asi orduko, or besteak len baiño bizi ta itsuago.

Alaxe gabiltzala, Laredo gaiñean, gaur torre luze biribilla jaso dan tokian, ara etsaia agertu, bestaldekoen kotxeak urreratzen igarri.

Italiar ikurriña ikusi gendun guk aizetan, lenengotan. Ori egia.

Orrek ere batzuk baretu zitun; esaten zana, italiar agintarien bategaz zerbait egiña zala itxura artzen zalako. Baiña ta besteak, geienak?

Len baiño larriago. Ori ikusi ta ariñeketan itsuan asi ziran batzuk ondartzatik zear, besteak bide nausitik, Santoñara urreratu nairik. Bakoitzak al eban eran. Ara sartuko ei ziran ontziak...

Laredo'n geratu nitzan. Ikusi ta ikusteko.

Sidekardun motor baten laster zan italiar talde oreitako buruzagien bat. Ikusteko zan aren ausardia. Ez ete egoken gure artean miñak eta naigabeak eta ori ikusi bearrak itsutu eikeanen bat?

Udaletxera joan zan, arro ta zorrotz. Euskaldunontzako gerra amaitu zala ots egin euskun. Lasai egoteko, baketsu.

Udaletxetik berialako baten zabaldu ziran ordenak: gudariok bakoitza bere tokietara aldentzeko ta an geldi egoteko.

Barruan, bi irutan artu gendun agindu bardiña. Batalloetako armetatik gain, beste edozelakoen bat eukanak, kuartelean bertan lagateko, Bilbo'n emondako errebolber andi bat gogora etorri yatan. Bilbo'n bertan laga neban, "Eguna" ko idazkaritzan neukan maian. Barre egiten neban neurekiko. Errebolberra emon eusten eta sekula ez beretzako bala batik. Biotzik ez gerrarako.

Laredo'n, azken orduan, agindu berezi bat artu gendun guretarrengandik. Intendentzia zabalik egongo zala, bakoitzak egoki eritxona artzeko.

Gau aretan, kalte egiteko aiña esne batu gozo artu gendun, potoak zabalduz. Ez ziran ordu asko igaroko gure 'leche condensada' ori garraztuten igarteko.

Lorik ez gendun egin gau guztian, nai eta aterpean egon eta egunaren larriak jota gure buruak igarri. Neke geiegi lotarako. Bestalde, ordurik ez eban galtzen arerioak agindu barriak emoten eta zer ikusi edo ta zer entzungo gengozan.

Nire burua aidean ez ba'dabil, Dagonil edo Agostuko 25'an gertatu zan au.

Gure arteko itauna, jakin nai eta erantzuten ez genkiana, au zan: Zeiñen mende gengozan?

ZER DAKIGU EGITEN?

Euskaldunok, aurka jardutzetatik beste, ortik kanpora zer dakigu egiten?

Orrelako zerbait itanduten (galdetuten) eban oraintsu, bere azaleko orrian, gure errialdean euskaldunen mugetatik kanpora, edo ta euskeraren muga estu barik zabaltzeko asmotan bere emeretzigarren zenbakian duan aldizkari batek.

Eta guk, egia esateko iñoren ardurarik ez dogun lez, au erantzun giñei:

Lenengoz beintzat lotsatu, orrelako aldizkari batek bere orrialdetatik euneko bost bakarrik lagaten dautsazalako euskerari. Eta beste ainbeste beralako besteak.

Eta lotsatuagaz mindu, gure erriaren egoeraz.

Eta minduagaz batera, guretik urten.

Uste dogulako alperrik dirala gure esanak, naiak eta alegiñak.

Ikusten dogulako euskerari burutik berako laidogarri bat egiten diardugula.

Eta negar egiten dogu, baita, guzurrezko mundu bizi ba gara be, bertan jarraitzen alegin egiten dogula oartu eta sinistu eragiteko agerbide geiago doguzalako, bestetarako baiño.

Euskal aldizkari batzuen egoera larria agertzen gendun oraintsu. Ez dira bakarrak izentzen genduzan irurak, estu dabiltzanak.

Umeen artean lanik eta alegiñik geien egin daben aldizkaria alai eta atsegiña dan "Kili-Kili" be aidean ikusten dogu. Eta "Kili Kili"ri inok ezin lei esan euskalki batera lotuta itsu ibili danik. Ezin iñok arpegira jaurti setakeriz ibili danik bere urteeretan. Bizkaiera, gipuzkera ta batua erabili izan ditu. Ta azkenean? Urte gaizto eta okerretan egindako lan eta izerdien eskerrik be ez.

Ori be esan eta erantzuteko dogu euskaldunok.

Ziurretik beste iñun gertatu ez dana.

Euskeraren alde ondasun guztiak ipini, euskera madarikatzen zan egune-tan, oraindik gure berbete erabilten eben umiei pozgarri edo eutsigarri bat ipini, edo ta ez ebenei begietatik sartu eragitearren, eta orain, besterik ezean, biotzetan ez ba da be, ormetan eta egaletan eta arrokerizko tokietan euskera nai dogula esateko askatasuna dogunean, arnasa emoten alegindu bearrean, bertan bera galtzen laga.

Eta ori negarrez esatekoa da, gure lotsagarri ori be ba dakigulako egiten euskaldunok, eta ain zuzen gure ontziaren lokarriak eskutik ariu doguzanean.

Arrokeri ustela da gurea.

Ukatu ezin geinkena, bestelako itxurak erabiliarren. Itxurak ondo dagoz, baiña egituren jantzi diranean, ez azkenean txoriak kaka egiten dautsen txorimalu lez gabiltzanean.

Ez itandu, mesedez, zer dakigun egiten, eta giixiago, zer geiago dakigun egiten, aurka jardutetik kanpora.

Nire aldetik atsegiñago egingo neuke beste itaun (galdera) au: Euskal Errian bizi garean euskaldunok zer ez dakigun egiten, eta zegaitik ez dakigun.

Bear ba da erantzun emon bearrak, eta itaun garratz askori erantzuteko dogu oraindik, obeto konturatu eragingo leuskigu gure jokabidea.

Geiago: Ez jakitearen errua nun dagon eta zegaitik dagon eta zetan oiñarritzen ete dan.

Eta gure euskera galtze oneri noiz ipini bear dautsagun bere muga.

Iñor aldebanatu barik.

Norberagandik asita.

ZIORTZA

Gaurko izendegietan Ziortza ipini dabe, baserritarrak ala deiten dautselata. Asko dira garbi-garbi Ziarrotza esaten dabenak.

Markiñaldeko kondairan, bizi asko ta entzutetsuaren tokia antxiñako denporetan. Euskal sinismenaren zabaltzaille eta bizigarri.

Bertako lenengo eleiza 968garren urtean egin zan. Geroago anditu ta barriztu gaur ikusten dan neurrietan. Eta oraindik be, gure egun oneitan, urtetako lana azkendu eziñik, barriztapen lanetan.

Jakingarri bat. Eleiz gizonak biziten ziran bertan. Eta 1400 urtean Kalagorri'ko gotzaiñari euren araudia barriztua onartuteko eroan eutsen. Eta orduko gotzaiñak, laureun urte aurretik be ezagutzen zirala-ta, kanonigo deiturea eroateko baimena emon eutsen.

Entzute, ospe eta lotsa andia euken inguruetan bertako kanonigoak. Gogozko nortasunak, lurretako jaubetasunak be emon eutsezan. Ez bakarrik Bizkaia'n. Araba'n bertan bertako ondasunak euroi eskintzen eutsezan lurraldeak eukezan. Eta Naparroa'tik, XIII garren gizaldian, 24 umedun eskiñi eutsezan napar errege batek.

Santiago'rako erromesen ospitala be egon zan bertan. XVI garren gizaldian erre egin zan San Estebantxe egunez, ta barriro jaso eben.

Kolegiata au, denporen urtetan bertan bera galdu zan. Or dago orain eleiza, bere klaustroagaz, eta abade etxea, barriztua. Zortzi gela andi, uts.

Denpora obeagoetan fraileak ekarteko egindako alegiñak alperriko izan ziran. Batzuk lur geiegi eskatzen eben inguruetan etxe-inguru zabalagoa, lan egin eta bakartadea zaintzeko. Baiña nun dagoz gaur orretarako fraileak?

Beste batzuk Argentina'tik etorri, irarkola berezietan ekingo ebelakuan eta Ziortza'n etxea barriztuta gertu arte Bilbo'n biziten gelditu, ta bide errezagoe-tara aldatu zituen euren kezka.

Orain or dago etxea eta or dago eleiza.

Zer egin?

Lea-Artibai inguruko abadeak kezkatUta dagoz. Euren ardurako izan lei toki orreri gaurko kistar bizitzako zeregiñen bat emotca.

Or dago Urkiola, eredu.

Mixiñoetan ibilitako abadeak jaubetu ziran beragaz eta jakin da gogoaren kezkadun askoren amesleku eta otoileku biurtu dala.

Urkiola'k Ziortza 'k ez daukazan tengarri eta egokitasun batzuk daukaz: Santutegirako luzaroko eraspenna, bide nausiaren egokitasuna, inguru zabal eta txairoagoa ostatu aukerak eta abar.

Oraindik be asko joaten dira Urkiola'ra, San Antonio'k billatu edo zirikatutako maite lagunagaz ezkontzako onespenna artzcra.

Ziortza'n, len, Gernika aldeko batzuk batzen ziran Eguen Santuz: Egun orretako gurtza egiteko oitura euken. Baiña oitura ori be galdu zala-ta nago.

Eta bitartean or dago Ziortza barriztuta, egokituta, zeñen edo zeren ,aterpe eta bake-toki izango dan eztakiala. Penagarri izango litzake azken urtetan egin-dako lan guztiak, urte gitxi barru bertan bera galtzen joatea. Ziortza'k ba dauka Bizkai'ko istorian bere tokia.

I5-X-82

ZIORTZAKO EGUTEGIA

Ala deitzen da gaur Ziortzako Andra Mari Monastegiko arduradun dago-zan monjeak euskera eta gaztelaniaz atara daben egutegia.

Len erdi gerralari ta erdi monje, esaten zan denporaldiko monje batzukai-tik. Gaur?

Hauseren textoagaz asten da Ziortzan atara daben egutegia. VI garren mendetik ba dirala monjeak Mendebaleko lurraldean. "Garai aretako lantuak alde batera utzi eta lanari gogotsu emonak biziko ziran otoizlariak".

Eta gaur ere orrela jarraitzen dabela esan bear.

Ziortza ala Ziarrotza? Zenbat buru ainbat aburu, beste gaietan lez orretan bere. Edo belarrietako tapotzak zelako. durundia alako.

Edozetara be Ziortza zeaztu eben batzuk, eta "Roma locuta causa finita"-tzat itxi. Demokraziaren denporetan nai litzake alkar-izketa geiago iritxi ezbar-dinetan. Txomin Agirre zanak, Zigarrotza erabilten eban bere `Kresala" XXVI atalean.

Nik ez dakit latin esakera ta guzti lengo mendetzako idazle batzuei itsu jarraitzen dautsenak, zelan ez daben gogoan euki Txomin Agirre lako maixurik orretan, eta tokian tokiko gaiñera.

Baiña onetan gaurko fraileak ez dauke errurik ez zer ikusirik. Ez eta Irusta lako lengo Kanonigoen Abata aundikiak be, Zenarruza edo Zigarrotzaren kapapean ainbat korta, zelai, eta baserri sortu eta sartu zituenak.

Gauza da Ziortza'ra, ainbat urtetan utsik egon eta ia beia jota geratzen zan Kolejiata'ra Napparroa'ko Oliba'ko monastegiko fraileak etorriak dirala Bizkantan euki izan dogun Kolejiata bakarrari arnas barri eta bizi indartsua emoteko asmotan, Bizkai Foru Aldundiaren laguntzaz. Eta ez kate eta zilizioen ikara eta

bildurrez Oiz azpian alaitasun baketsu bat sartu nairik baiño. Eta Oliban, ango lautadetan lur kolorea artzen daben arteak otoizlari biurtu zitun lez ba dirudi Oiz'peko mendiarteko ixiltasunak eta Kolejiatako arteak bertako itzala eta bertako edertasuna zabaltzera adoretu dauzala.

Egutegi eder eta txukun bat kaleratu dabe. Ormako egutegi zabala. 50 x 34r Ez merkea baiña ba dakigu gaur orrelako lanak urriak dirala eta arteak ez daukala neurrik.

Artea otoi dala esaten da, biotzerako, maitasunerako dei. Eta gogarterako, pentsaketarako gai. Ala ulertu dabe Ziortzara etorri diranak.

Origaitik egutegia bake, erti, edertasun eta bitxikeri utsa da. Merezi eban Ziortzak orrelako erakuslari bat. Bertako kanonigoak aldi baten itxuratu ebena, orain zisterrekoak goratuko dabe.

Gaur gaurkoz, eta nekez lortuta, Bizkaian daukagun beneditar eta zistertar monastegi bakarra. Inoiz izan dan bakarra gainera.

Ikusten da oraingo monjeak ez datozala Ziortzan mutu biziteko asmotan. Ixiltasuna da bat, mututasuna bestea. Ixiltasunak ez dau alaitasunik galtzen, ez eta anaitasunik bastertzen. Monjen lema ezaguna da: Otoi eta lan, batez be bizi diran lurraldearen alde eta mesedean. Laster izango dogu Ziortza orren lekuko.

